

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBV Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea



# HISTORIAREN AZTERKETA II



ARNOLD J. TOYNBEE

# Historiaren azterketa II



Jatorrizko izenburua:  
*A Study of History*  
Euskaratzailea: Iñaki Mendiguren  
Berrikuslea: Jose Urrutikoetxea  
Hitzaurregilea: J. J. Carreras Ares

Lehen argitalpena: 2000ko maiatzean

© Itzulpenarena: Iñaki Mendiguren  
© Klasikoak, 2000  
© Robert Somervell, Mary Brautaset eta Lawrence Toynbee  
Oxford University Press  
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo  
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2000-IV-18

ISBN: 84-88303-31-9 (Obra osoarena)  
ISBN: 84-88303-33-5 (Bigarren liburuarena)  
Lege gordailua: BI.-1048-00

Fotokonposaketa: ABA, O.E.  
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.  
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.  
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

# HISTORIAREN AZTERKETA II

## ARNOLD J. TOYNBEE

### I-VI liburukien laburpena

### D.C. Somervell-ek egina

*Doloris*

*Sopitam recreant volnera viva animam.*

*Anon.*

HISTORIAREN AZTERKETA Royal Institute of International Affairs delakoaren babespean argitaratua da.

Royal Institute of International Affairs ez da erakunde ofizial bat, ezta politikoa ere, eta 1920an sortu zen nazioarteko gaien azterketa zientifikoa bultzatu eta errazteko.

Institutuak, berez, eta bere arauengatik, ezin du adierazi inolako iritzirik nazioarteko arazoen edozein alderdiri buruz; beraz, lan honetan adierazitako iritzia soil-soilik egilearenak dira.





# EGILEAREN HITZAURREA

Zori onekoa naiz Somervell jauna bi aldiz lankide izan dudalako. Lehenik *Historiaren Azterketa*-ren I-VI liburukiak laburtu ondoren, orain lan trebe berbera egin du VII-X liburukietan. Beraz, irakurleak bere esku du orain azterlan osoaren laburpen uniforme bat, buru argi batek egina, edukiez ongi jabetzeaz gain, egilearen ikuspegian eta helburuan ere ongi sartu dena.

Laburpenaren bigarren emanaldi hau prestatzen, Somervell jaunak eta biok elkarrekin lan egin dugu, aurreko era berean. Argitaratu aurretik, Somervell jaunaren idatzia berrikustean, oso gutxitan iradoki diot berak kanpoan utzitako zerbait jartzeko berriro. Idazlea ez da normalean epaile ona izaten bere lanari zer moztu behar zaion esateko, eta Somervell jaunak aparteko begia du horretarako, laburpen honen lehen liburukia jatorrizkoarekin alderatu duen edonor konturatuko zen bezala. Oraingoan, aurrekoan bezala, berak aukeratutako pasarteak lantzea besterik ez dut nik egin, eta horrela horiek neurreganatzea Somervellek bereganatu dituen bezalaxe. Hau ez da zaila izan, bera oso ongi moldatu baita, aurrekoan bezalaxe, nire esanahia-  
ren muina ematerakoan nire hitzak ere neurri handi batean erabiltzeko. Bere zenbait puntu eta argibide erantsi dituen lekuetan, tartekamarteka egin duen gauza, pozik ikusi dut berak eta nireak bat egiten dutela.

Nirea bezalako lan luzearentzat, lanpeturik gabiltzan garai honetan, oso onuragarria da lehen mailako —Somervell jaunarena den bezalako— laburpen batean bilduta egotea. Honek jatorrizkoa irakurtzeko ez pazientziarik, edota agian astirik, izango ez zuketean irakurleen eskura ipintzen du liburua. Nire iritziz, jatorrizkoa eta laburpena osagarriak dira. Espero dut laburpenaren bigarren zatiaren irakurle batzuk jatorrizkoan murgiltzera erakarriak sentitzea, osorik irakurtzera ez bada ere, bai baitakit lehenengo zatiaren irakurle batzuei hori gertatu zitzaiela; eta jatorrizkoaren irakurle ausart batzuei Laburpena erabilgarri gerta dakieke obraren argumentu eta egitura orokorra gogoratzeko. Zenbait aldetatik, Somervell jaunaren lanaren zatirik baliotsuena jatorrizko hamar liburukien Laburpenaren azkene-ko sintesia iruditzen zait.

Laburpenaren bi zatietan izan dugun lankidetzaz oso esperien-  
tzia pozgarria izan da niretzat.

1955eko abenduaren 1a  
Arnold Toynbee

## LABURTZAILEAREN OHARRA

Liburuki hau VI. Zatian, XXIII. kapituluari hasi gogoraraz-  
ten du hau ez dela lan osoa, baizik eta aurreragoko baten zatia, eta  
aurrekoaz ezer jakin gabe honi ekiten dion irakurleak, victoriar garai-  
ko «hiru liburukitako» eleberriak hirugarren liburukitik irakurtzen  
hasi balitz topatuko zituzkeen zailtasun berberekin topo egin lezake.  
Liburuki honen bukaera «Sintesi» bat aurkitzen da, lan osoaren mar-  
txa laburbiltzen duena. Erabilgarria gerta dakieke Toynbee jaunaren  
*Azterketa*-ren lehenengo parteak, jatorrizko nahiz laburturiko forman,  
irakurri eta neurri batean ahaztu dutenentzat.

Oso eskerturik nagokio O. P. Self andereñoari liburu honen  
(ingelesezko edizioaren) aurkibide alfabetiko orokorra egin duelako.

1955  
D. C. S.

# VI. ESTATU UNIBERTSALAK

## XXIII. HELBURUAK ALA BITARTEKOAK?

Liburu honen abiapuntua histori azterketarako eremuak bilatzea izan zen, beren espazio- eta denbora-mugen barruan berez ulergarriak izango zirenak, kanpotiko gertaera historikoen erreferentziarik gabe. Unitate beregain hauen bilaketak, Zibilizazioak deitu genituen espezieko Gizarteetan aurkitzera eraman gintuen, eta arrakastaz identifikaturiko hogeita bat zibilizazioen sorrera, hazkunde, kolapso eta desintegrazioen azterketa konparatiboak gizadiaren historian —gizarte primitiboetatik lehen zibilizazioak sortu ziren garaitik— garrantzia duen guztia barne hartuko zuelakoan jardun dugu lanean orain arte. Hala ere, tarteka-marteka, zenbait adierazlerekin topo egin dugu, eta hauek esaten ziguten gure lehenengo giltza orokor honek agian ez digula balioko geure gogo-bidaiaaren bukaerara iristeko igaro beharreko ate guztiak irekitzeko.

Hasieratik hurbil, izan ziren zibilizazioak identifikatzeko ekinean, aurkitu genuen horietako batzuk elkarren ahaide zirela «gurasotasun-eta-filiazio» deitu genuen eran, eta halaber aurkitu genuen erlazio hohhen frogak gutxiengo menderatzaile, barne-proletalgo eta kanpo-proletalgo baten zenbait gizarte-emaitez bereizgarri zirela, hiru horietan zatitzen zelarik gizarte «ahaidetua» bere desintegrazioaren bidean. Gutxiengo menderatzaileek filosofiak sortzen zituztela agertu zen, batzuetan estatu unibertsalei inspirazioa ematen zietenak, barne-proletalgoek erlijio nagusiak sortzen zituztela —eliza unibertsaletan

gorpuztea bilatzen zuten erlijioak—, eta kanpo-proletalgoek aro heroikoak sortzen zituztela, gerra-talde barbaroen tragediak, alegia. Gainerantzean, esperientzia eta erakunde hauek zibilizazio «guraso» eta «filial» baten arteko lotura dira argi eta garbi.

Are gehiago, garaikide ez diren bi zibilizazioen artean denbora-mailako lotura hau ez da estatu unibertsal, eliza unibertsal eta aro heroikoen azterketa konparatiboak argitzen duen erlazio-mota bakarra zibilizazioen artean. Zatiki hauek, kolapsoaren ondoren zibilizazioen desintegrazioak sortuek, askatasuna lortzen dute, beste zibilizazio garaikide batzuetatik osagai atzerritarrekin gizarte eta kultur konbinazioak osatzeko. Estatu unibertsal batzuk inperiogile atzerritarren egintza dira; erlijio nagusi batzuk inspirazio atzerritarrek animatu izan ditu, eta gerra-talde barbaro batzuk kultura atzerritarren tinduaz blai eginda zeuden.

Honela, estatu unibertsalek, eliza unibertsalek eta aro heroikoek elkarrekin lotzen dituzte honela zibilizazio garaikideak, baita garaikide ez direnak ere, eta honek ondorengo galdera sortzen du, ea justifikatuta jokatu ote dugun zibilizazio bakunen baten desintegrazioaren azpi-produktu soiltzat hartu ditugunean. Ez ote guke beren merituetan oinarrituz aztertzen saiatu behar? Berez azterketa-eremu ulergarri izateko hiru erakunde-mota horietako bakoitzaren errebindikazioak aztertzen ez ditugun bitartean, eta bai horiek eta bai zibilizazioak barne hartuko lituzkeen osotasun handiago baten parte izateko aukera alternatiboa ere kontuan hartzen ez dugun bitartean, ezin gaitzke ziur egon gure irispidera ekarri dugunik giza historia osoa, maila primitibotik gorakoa. Ondorengo ikerketa hau ezarri genion geure buruari Azterlan honen V. zatia iren bukaeran, eta orain hau betetzen saiatu behar dugu VI., VII. eta VIII. zatietan.

Oraingoz, beraz, estatu unibertsalak ditugu aztergai eta hasiko gara galdetuz ea horiek berez helburu ote diren ala beroriez harantzago dagoen zerbaiterako bitarteko diren. Arazo honen planteamendurik egokiena estatu unibertsalei buruz dagoeneko ziurtatu ditugun zenbait ezaugarri nabarmen gogoraraztea izan daiteke. Lehenik, estatu unibertsalak zibilizazioen kolapsoaren ondoren, eta ez aurretik, sortzen dira, zibilizazio horien gizarte-gorputzei batasun politikoa ekartzen dietelarik. Ez dira udak, «sanmartinetako uda txikiak» baizik, udazkena moztarrotu eta negua iragartzen dutenak. Bigarren, gutxiengo

menderatzaileen produktuak dira; hau da, garai batean gutxiengo sortzaile zirenak, baina sortzeko ahalmena galdu dutenak. Negatibotasun hau da beren egiletasunaren ezaugarria, baita beraien ezarpen eta iraupenerako funtsezko baldintza ere. Hau, hala ere, ez da margolan osoa; zeren eta, gizarte-kolapsoarekin batera zertu eta gutxiengo menderatzaileen produktu izateaz gain, estatu unibertsalek badute hirugarren ezaugarri nabarmen bat: susperraldi —eta bereziki ohargarria den susperraldi— baten adierazpide dira desintegrazio-prozesuan, honek pul-tasazio-segida bat izaten duenari: erorikoaren eta susperraldiaren ondoren, eroriko berria; eta azken ezaugarri hau da irudimena astintzen eta belaunaldi baten esker ona sortzen duena, geldiarazteko aha-lerin errepikatuek behin eta berriro izandako porrotengatik indar har-tzen ari zen arazoaldiari bukaera jartzen dion estatu unibertsal baten ezarpen arrakastatsua ikusteko bizi den belaunaldiarena, hain zuzen.

Guztiak batera hartuta, ezaugarri hauek, lehen begiratuan, anbigua dirudien margolana aurkezten dute estatu unibertsalei buruz. Gizarte-desintegrazioaren sintomak dira, baina aldi berean desinte-grazio hori gerarazi eta berorri aurre egiteko ahaleginak. Behin ezarri ondoren, estatu unibertsalek bizitzari heltzeko duten seta beren ezaugarri nabarmenenetakoa da, baina ez litzateke benetako bizitasu-narekin nahastu behar. Gehiago dirudi hil nahi ez duen agurearen bizi-tza-luzera setatia. Egia esan, estatu unibertsalek joera bizia dute berez helburu balira bezala jokatzeko, nahiz eta benetan gizarte-desintegra-zioaren prozesuan fase bat bakarrik izan eta, horrez gain inolako esa-nahirik baldin badute, beraiengandik kanpo eta harantzago dagoen helmugaren batera iristeko bitarteko diren neurrian bakarrik izan hori.

## XXIV. HILEZKORTASUNAREN AMESKERIA

Estatu unibertsal hauei begiratzten badiogu, ez atzerritar behatzaileen gisa, beren hiritarren begiez baizik, ohartuko gara hauek ez dutela bakarrik beren lurtar erkidegoek betiko bizitzea desiratzen, baita ere sinesten dutela benetan giza erakunde horien hilezkortasuna ziurtatua dagoela, eta hau batzuetan garaiko gertaeren aurka, hauek denboran edo espazioan beste puntu batean kokaturiko behatzailearentzat zalantzarik gabe adierazten dutelarik estatu unibertsal jakin bat une horretan bertan hiltzorian dagoela. Horrelako behatzaile batek zera galdegin dezake: itxuraz gauzak hain garbi egon arren, estatu unibertsal bateko hiritarrek zergatik hartzen dute hau, ez basamortuko gau-babeslekutzat, baizik eta Agindutako Lurraldetzat, giza ahaleginen helmugatzat? Esan behar da, hala ere, sentimendu hori inperiogile indigenek ezarritako estatu unibertsaleko hiritarrengana mugatzen dela. Ez zegoen indiarrik, adibidez, Britainiar Inperioaren hilezkortasuna desiratzen edo iragartzen zuenik.

Zibilizazio Helenikoaren estatu unibertsala zen Erromatar Inperioaren historian, *Pax Augusta*-ren ezarpenaren lekuko izan zen belaunaldia aurkitzen dugu, nabaria den benetako fede onez baieztatzen duelarik eraiki duten inperioa eta hiria hilezkortasun komunez hornituak daudela. Tibulok (*circa* K.a. 54-18) «betiko hiriaren harresiez» abesten du, Virgiliok (K.a. 70-19) bere Jupiterri, Eneasen arrazako etorkizuneko erromatar kimuez ari delarik, zera esanarazten dio:

«Amaierarik gabeko inperioa ematen diet». Tito Livio kiurtasun berberaz «betiko sorturiko hiriaz» idazten du. Horaziok, eszeptikoa izan arren, bere Odentzako hilezkortasuna errebindikatzear, betikotasun-neurri zehatz bezala, erromatar hiri-estatuaren erlijiozko erritualaren urteroko zikloaren errepikapena hartzen du. Odak oraindik bizirik daude gizakien ahotan. Beraien «hilezkortasunak» zenbat gehiago iraungo duen ez dakigu ziur, horiek aipa ditzaketenen kopurua zoritarrez gutxitu egin baita azken aldian hezkuntza-ohituretan izandako aldaketengatik; baina, gutxienez, erromatar erritual paganoa baino lau edo bost aldiz luzeago bizi izan dira. Horazio eta Virgilioren aroa baino lauhun urte geroago, Alarikok Erroman egindako arpilaketak jada bukaera iragarri ondoren, oraindik Rutilio Namaziano galiar poeta Erromaren hilezkortasuna erronkari aldarrikatzen aurkitzen dugu, baita San Jeronimo ere, azterlanetarako Jerusalemara erretiratu, bere teologi lanak eten eta samina eta harridura adierazten, ia-ia Rutiliorena bezalakoxe hizkeran. Funtzionario paganoa eta Elizako Guraso kristaua elkartuta daude beren emoziozko erreakzioetan, orain ikusten dugunez, hainbat belaunalditan saihestezina izan zen gertaera baten aurrean.

K.o. 410ean Erroma erortzeak estatu unibertsal iragankor bateko hiritarrei eman zien astinduak, beraiek betiko iraungo zuen bizilekutzat hartua baitzuten oker, K.o. 1258an Bagdad mongolen esku erori zenean Arabiar Kaliferriko mendekoek jasan zuten astinduan dauka bere baliokidea. Erromatar munduan, astindua Palestinatik Galiaraino sentitu zen; arabiar munduan Ferganatik Andaluziaraino. Ondorio psikologikoaren bizitasuna are ohargarriagoa da kasu honeetan erromatar kasuan baino, zeren eta, Hulagu-k abbastar kalifaldiari bere *coup de grâce*-a eman zionean, honen subiranotasuna jada ez baitzen eraginkorra azken hiruzpalau mendeetan izenez bere agintepean zeukan lurralde zabalaren zatirik handienera. Ametsezko hilezkortasunaren ospe honek, hilzoriko estatu unibertsalek zeukaten ospeak, sarri limurtzen ditu buruzagi barbaro zuhurrenak, haien agintepeko lurak beren artean zatikatzen ari zirelarik, era bertsuan ametsezkoa zen mendetasuna aitortzera. Ariotar ostrogodoen buruzagi amalungoek eta xii daylamie-en buaihtar buruzagiek beren konkistetarako eskubidea bilatu zuten, teoria ofizialean, Konstantinoplako enperadorearen eta Bagdadeko kalifaren kudeatzaileordeko gisa gobernatuz

beraietan, hurrenez hurren; eta estatu unibertsal zaharkitu bat tratatzeko era trebe honek, haien kasuan, bi gerra-talde hauek beren erlijio-heresia bereizgarriei heldzean beren gainera ekarri zuten patu gaiztoari ihes egiteko ez balio izan arren, maniobra politiko berbera ikaragarri arrakastatsua izan zen beste barbaro batzuek zertu zutenean, aldi berean beren erlijio-fedearen aitorpenean akasgabeak izateko argitasuna edota zori ona izan zutenean. Klovis Frankoak, adibidez, Erromatar Inperioaren ondorengo estatu barbaroen sortzaile guztien arteko arrakastatsuenak, katolizismora konbertitu ondoren, Konstantinoplan urruti zegoen Anastasio enperadoreagandik prokonsul-titulua eta kontsul-intsigniak eskuratu zituen. Haren arrakastaren lekukotasuna ematen du, geroagoko garaietan, gutxienez hemezortzi errege Luisek, hark konkistaturiko lurraldean erreinatuz, haren izenaren aldaeraren bat erabili izanak.

Otomandar Inperioak, Azterlan honetan lehenago ikusi dugun bezala, Bizantziar Zibilizazioaren estatu unibertsal bilakatu zenak, ametszeko hilezkortasunaren ezaugarri berberak agertu zituen, jadanik «Europako Gaixo» bihurtua zen garaian. Gerra-jaun gutiziatsuak, eurentzat ondorengo estatuak lantzen ari zirenak —Mehemet Ali, Egipton eta Sirian; Ali Ioanninakoa, Albanian eta Grezian; eta Pasvanoglu Vidin-goa, Rumeliaren ipar-mendebaldeko izkinan—, arduratsuak izan ziren padisharen izenean egiteko honen kalterako eta beren interes propiorako egiten ari ziren guztia. Mendebaldeko bote-reek, haien arrastoari jarraitzerakoan, fikzio berberak hartu zituzten. Britainia Handiak, adibidez, Konstantinoplako sultanaren izenean Zipre administratu zuen 1878tik eta Egipto 1882tik aurrera, bera Turkiaren aurka gerran hasi zen arte 1914an.

Hindu Zibilizazioaren estatu unibertsal mogolak ezaugarri berberak ageri ditu. Aurangzeb enperadorea K.o. 1707an hil eta mende-erdi baino lehen, behinola Indiako azpikontinentearen zatirik handienean subiranotasun eraginkorra zertu zuen inperioa 250 milia luze eta 100 milia zabal zen gorputz-enborrera murriztuta geratu zen. Beste mende-erdi bat geroago Delhiko Red Fort-eko harresien zirkuitura murriztuta geratu zen. Hala ere, K.o. 1707tik 150 urte geroagora, Akbar eta Aurangzeb-en ondorengo bat haien tronuan eserita zegoen oraindik, eta askoz luzeago ere iraun ahal izango zuen 1857ko matxinatuek ez balute txotxongilo gizagaixo hura behartu izan bere gogo-



ren kontra itsasoz bestaldeko raja baten aurkako beren matxinada bedeinkatzera, raja hark, anarkialdi baten ondoren, berak artean sinbolizatzen zuen baina aspaldi desagerturiko raja mogola ordeztua zuelarik.

Estatu unibertsalen hilezkortasunari buruzko sinesmen setatiarren lekukotasun are ohargarriagoa haien arimek dei egiteko praktika da, amaitu zirenean hilkorrak zirela erakutsi ondoren. Honela, Bagdadeko Abbastar Kalifaldia piztu egin zen Kairoko Abbastar Kalifaldiaren forman, eta Erromatar Inperioa Mendebaldeko Erromatar Inperio Santuaren eta Kristandade Ortodoxoan Ekialdeko Erromatar Inperioaren forman, eta Tsin eta Han dinastien inperioa Ekialde Urruneko Zibilizazioan Sui eta Tang Inperioaren forman. Erromatar Inperioaren sortzailearen goitizena kaiser eta tsar titulueta piztu zen, eta kalifa titulua, jatorriz Mahomaren ondorengo esan nahi zuena, Kairon agertu ondoren, Istanbulera igaro zen, non iraun baitzuen mendebaldarturiko iraultzaileen esku hogeigarren mendean deuseztua izan arte.

Horiek adibide historiko askoren artetik hautaturiko batzuk dira, eta estatua unibertsalen hilezkortasunari buruzko sinesmenak, egitate argi eta garbiek ezeztatu eta gero ere, hainbat mendez irauten duela erakusten dute. Zein dira fenomeno bitxi honen zergatikoak?

Kausa nabarmen bat estatua unibertsalen sortzaileek eta gobernari handiek eragindako zirraren indarra da, zirrara hori ondorengo harkorrei helarazten zaielarik berebiziko egia bat ikaragarritzko kondaira bihurtuz exajeratzen duen indarrez. Beste kausa bat erakundearen beraren zirragarritasuna da, bere agintaririk handienek erakusten duten jeinuaz aparte. Estatua unibertsalak bihotz eta buruak lilurtzen ditu arazoaldi baten etengabeko porrotean susperraldia gorpuzten duelako, eta azkenean Erromatar Inperioaren alderdi hori miretsi zuten hasieran kontra zeuden greziar letra-gizonek; hauek antoninotarren garaian idatzi zuten, askoz geroago Gibbonek garai horri esleitu ziolarik giza arrazak izandako zorion-puntu gorena.

*«Ez dago salbaziorik nagusitasuna boteretik banatuta zertzen bada. Norberaren nagusien mende egotea da 'bigarren aukera onena'; baina 'bigarren aukera onena' den hau guztietan onena gertatu zen Erromatar Inperioaren gure egungo esperientzian. Esperientzia zoriontsu honek bultzatu du mundu osoa bere indar guztiz Erromari*

atxikitsera. Munduak ez luke Erromatik banatzea pentsatuko, itsason-  
tziko eskifaiak pilotuagandik banatzea pentsatuko lukeen baino gehia-  
go. Ikusiak izango dituzue saguzarrak haitzuloan elkarren eta haitzen  
kontra estu-estu zintzilika; eta hori mundu osoak Erromarekiko duen  
mendetasunaren irudi egokia da. Gaur egun benetako larria bihotz  
orotan multzotik banatuta geratzeko beldurrak sortzen du. Erromak  
bertan behera utz zaitzakeen ideia hain beldurgarria denez, ezabatu  
egiten du norberak bere kabuz hura uzteko edozein burutazio.

«Bukatu dira subiranotasun eta ospari buruzko eztabaida  
haiek, iraganeko gerra guztien eragile izan zirenak; eta nazioetako  
batzuk, hotsik gabe doan ura bezala, baretasun atseginean dauden  
bitartean —zurrunbilo eta arazoetatik libre daudelako gozatzen, eta  
beren borroka zahar guztiak helburu gabeak zirela ohartuta—, badi-  
ra beste nazio batzuk jakin edo gogoratu ere egiten ez dutenak behi-  
nola boterearen aulkian eserita egon ziren ala ez. Egia esan,  
Panfiliaren mitoaren (ala Platonena berarena da?) bertsio berri  
baten lekuko gara. Munduko estatuak beren senidearteko iskanbila  
eta borroken biktima gisa jada hileta-txondorrean zeutzanean, bat-  
batean (erromatar) nagusitasunarekin saritu zituzten eta berriro bizi-  
tzara etorri ziren zuzenean. Nola iritsi ziren egoera horretara, ez dira  
gai esateko. Ezer ez dakite horretaz, eta orain duten ongizateaz harri-  
tu baino ezin dira egin. Lo zeudelarik esnatu eta beren onera etorri  
direnak bezala dira, orain beren gogoetatik uxatzen dituztelarik  
duela gutxi obsesio zituzten ametsak. Jadanik sinestezina iruditzen  
zaie gerrak izan direnik... Jendea bizi den mundu osoan etengabeko  
jaiak dira orain... Beraz, ez dauzkaten gauza onengatik oraindik erru-  
kia behar duten bakarrak zure inperiotik kanpo daudenak dira...,  
oraindik gelditzen bada horrelako jenderik...»<sup>1</sup>.

Erromatar Inperiotik kanpo herri aipagarriak ba ote zegoen  
arazoari buruzko eszeptizismo bitxi hori bereizgarria da, eta horrela-  
ko erakundeei estatu unibertsal deitzeko dugun justifikazioa da.  
Unibertsalak ziren ez geografikoki, psikologikoki baizik. Horaziok,  
adibidez, bere Odetako batean, esaten digu ez dela kezkatzen  
«Tiridatesen mehatxuengatik». Zalantzarik gabe, izan bazen Partiako  
erregea, baina Horaziori ez zion axola. Antzeko aldarlean Ekialde  
Urruneko estatu unibertsaleko enperadore mantxuek zera uste zuten  
beren diplomazi tratuetan: gobernu guztiek, Mendebaldeko munduko-

ek barne, iraganean garai zehaztugaberen batean txinatar agintarien-gandik hartu zutela existitzeko baimena.

Eta, hala ere, estatu unibertsal hauen errealtatea oso desberdina zen Elio Aristidesi eta hainbat garai eta girotako beste panegiristei aurkezten zieten gainazal distiratsuaren aldean.

Estatu unibertsal egipziakoko nubiar marketako jainko ilun bat mitologia helenikoaren jeinuak etiopiarren errege hilkor bihurtu zuen, Erosek —Egunsentiko jainkosa hilezkorrak— maitatua izateko zorigaitza izan zuelarik. Jainkosak berak eta parekoek zuten hilezkortasuna bere giza maitaleari emateko eskatu zien olinpiar lagunei; eta haiek, beren jainko-pribilegioekiko jeloskorrak izan arren, Erosek hainbestearinoxe gogaitu zituen, azkenean amore eman zioten emearen gogaikarritasunari. Halaz guztiz, gogoz kontrako dohain horrek bazuen oinarritzko akats bat; zeren eta jainkosa gutziatsiak ahaztu egin baitzuen olinpiarren hilezkortasuna betiko gaztetasunarekin batera izaten zela, eta beste hilezkorrak eskatutakoa soilik emateaz arduratu ziren maltzurkeriaz. Ondorioa ironikoa eta tragikoa izan zen. Olinpiar begi baten itxi-irekian ziztu bizian iragan zen eztei-bidaiaren ondoren, Erosek eta orain hilezkor baina ezinbestean adintzen ari zen lagunak elkarrekin deitoratu behar izan zuten beti-betiko Titonen zorigaitzeko egoera larria. Herioaren esku errukitsuak sekula bukaraziko ez zuen zahardadea gizakiak inoiz jasan behar izan ez zuen atsekabea zen, eta betiko atsekabe hori beste edozein gogoeta edo sentimenduri lekurik uzten ez zion obsesioa zen.

Edozein giza arima edo giza erakunderentzat hilezkortasuna mundu honetan martirioa litzateke, baita ez balitz gorputz- edo gogo-zahartasunarekin batera joango ere. «Ildo honetatik», idatzi zuen Marko Aurelio enperadore filosofoak (K.o. 161-80), «egia litzateke esatea berrogei urteko edozein gizonak, neurrizko adimen-maila duenak, ikusi dituela —naturaren uniformetasunaren argitan— iragan eta etorkizun osoa»; eta, giza arimek esperientziarako duten gaitasunaren kalkulu hau irakurleari harrigarria gertatzen bazaio, apalegia delakotarik, Marko bizi izan zen garaian aurki dezake arrazoia; zeren eta «sanmartinetako uda txiki» bat asperdura-garaia baita. Erromatar bakearen prezioa askatasun helenikoa galtzea izan zen; eta, betiere bazitekeen arren askatasun hura gutxiengo baten pribilegioa izatea eta gutxiengo pribilegiatu hura arduragabe eta zapaltzaile bihurtua izatea, atzera

begiratuta garbi zegoen «arazoaldi» helenikoan Zizeronen garaian bere gorenera iritsi zen gaiztakeria zurrunbilotsuak gai kilikagarri eta inspiragarrien altxor bat eskaini ziela Erromako hizlari publikoei, harropuzki ordenaturiko Trajanoren garaian haien epigonoek konbentzionalki izugarrikeriatzat gaitzets zitzaizutenak, ez *nostri saeculi*, baina ezkutuan inbidiatuko zituztenak, beraiek etengabe huts egiten baitzuten bizitza asaldatuaren estimulua artifizio bihurriaz ordezteko ahalegin neketsuetan.

Gizarte Helenikoaren kolapsoaren biharamunean Platonek, postura zurrun seguruan egonkortuz beste eroriko batetik gogotsu babestu nahi zuelarik, idealizatu egin zuen kultura egipziakoaren egonkortasun konparatiboa; eta mila urte geroago, kultura egipziako hau oraindik bizirik eta Zibilizazio Helenikoa hiltzorian zegoenean, neoplatonikoetako azkenekoek beren maisu ospetsuaren sentimendua mirespenitsu-itsuen gailur ia zentzugaberaino eramane zuten.

Estatu unibertsal egipziakoaren setari esker, hots, bere gorpua hileta-txondor osasungarriaren gainean behar bezala egon ondoren bizitzara itzultzeko behin eta berriro ekiteagatik, Zibilizazio Egipziakoa bere garaikide guztiak —minoikoa, sumerikoa eta Indus kultura— hiltzen eta belaunaldi gazteagoko ondorengoei pasatzen uzten ikusteraino bizi izan zen, ondorengo horietako batzuk ere desagertu zirelarik Gizarte Egipziakoak bizirik jarraitzen zuen bitartean. Histori aztertzaile egipziakoek Zibilizazio Sumerikoaren lehen kimu siriako, hitita eta babilonikoaren jaiotza eta heriotza ikusi ahal izango zituzten, baita Zibilizazio Minoikoaren kimu siriako eta helenikoaren goraldia eta beheraldia ere. Hala ere, Gizarte Egipziako kolapsatuaren berezko bizialdiaren epilogo izugarri luzea asperraldi luze eta deabruzko kemenaldi asaldatuaren txandaketa zen, kemenaldi horietara galvanizatzen zuelarik logura zen gizarte hori gizarte-gorputz atzerritarren talkak.

Trantzealdi moduko logura eta, txandaka, xenofobia fanatikozen piztuek erritmo hori berori bereiz daiteke Txinan, Ekialde Urruneko Zibilizazioaren historiaren epilogoan. Txinan estatu unibertsal atzerritarra indarrez ezarri zuten mongolengan zegoen Ekialde Urruneko kristau-kulturaren tinduak erreakzioa eragin zuen: mongolak kanporatu egin zituzten eta haien nagusitasuna Ming-en bertako estatu unibertsalak ordeztu zuen. Barbaro mantxuek ere —Ming-en

kolapsoak sortutako hutsune politikoan sartu zirelarik eta beraien Ekialde Urruneko kristau-kulturaren tindua txinatarren biziera onartzeko zuten prestutasuna bezain nabaria ez zelarik— herri-aurkakotasuna sortu zuten, Hegoaldeko Txinan, behintzat, azpian ezkutuan beti egona eta K.o. 1852-64ko Taiping-en altxamenduan berriro agerian geratu zena. Mendebaldeko Zibilizazio moderno goiztiarrak —bere forma kristau katolikoan— hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetan egin zuen infiltrazioak katolizismoaren proskripzioa eragin zuen hemezortzigarren mendearen lehen laurdenean. K.o. 1839 eta 1861 bitartean Txinako itsas ateak Mendebaldeko merkataritzari indarrez irekitzeak Mendebaldearen aurkako «Boxer» altxamenduaren erantzuna eragin zuen K.o. 1900ean; eta mantxu-dinastia eraitsi egin zuten K.o. 1911n krimen bikoitzagatik: era aldaezinean bera atzerritar izateagatik eta aldi berean orain askoz ere handiagoa zen Mendebaldearen indar atzerritarrari atzera eusteko gai ez izateagatik.

Zorionez bizitza kondaira baino maitagarriagoa da, eta mitologiak Titoni ezarri zion hilezkortasunaren epaia amaiezina ez den bizitza-luzerak ordeztu du, historiako estatu unibertsalen mesederako. Marko Aurelioren berrogei urteko gizaki desilusionatuak hil egin behar du azkenean, nahiz eta bere bizitzeko gogoagatik bizirik jarrai dezakeen berrogeita hamar edo hirurogei urtez; eta herioaren eztenaren kontra behin eta berriro ostikoak ematen dituen estatu unibertsala azkenean desagertu egingo da aroen joanean, gatzezko estatua bezala, behinola bizidun izandako emakumearen gai petrifikatua omen zena, alegiaren arabera.

## XXV. SIC VOS NON VOBIS

«Sic vos non vobis mellificatis, apes» (Honela, zuek, erleok, ezitia egiten duzue, baina ez zeuentzat bakarrik<sup>2</sup>). Oso erabilia den aipu honek, simil erraz baten bidez, estatu unibertsalek historiaren eskeman duten paradoxazko posizioa adierazten du. Ikaragarritzko entitate politiko hauek gutxiengo menderatzaileen azken hitzak dira hiltzoriko zibilizazioetan desintegratzen ari diren gizarte-gorputzetan. Beren helburu kontzientea beraiek irautea da gizartearen energia agor-garriak kontserbatuz, horren zoriari lotuta baitago beraiena. Helburu hau sekula ez da betetzen luzarora. Hala eta guztiz ere, gizarte-desintegrazioaren ondorio hauek badute rol bat sorkuntza-egintza berrietan jokatzeko. Beste batzuentzat balio izaten dute beren buruak salbatzen huts egindakoan.

Estatu unibertsalak zerbitzuak emateko bitarteko bezala aurkitzen badu bere zentzua, nor dira onuradunak? Hiru hautagai posible hauetakoren batek izan behar: hiltzorian dagoen gizarteko bertako barne-proletalgoak edo kanpo-proletalgoak, edo garaikide den zibilizazio atzerritarren batek; eta barne-proletalgoa zerbitzatzean, beren epifania barne-proletalgoaren altzoan egiten duten erlijio nagusieta-koren bati laguntzen jardungo du estatu unibertsalak. Bossuet-en hitzetan, «lurrean ikusi ditugun inperio handi guztiak, hainbat eratara, erlijioaren onerako eta Jainkoaren aintzarako izan dira, Jainkoak berak bere profeten bidez adierazi bezala».

# 1.

## *Estatu unibertsalen eroankortasuna*

Gure hurrengo zeregina estatu unibertsalek nahigabe eskaintzen dituzten zerbitzuen ikerketa enpirikoa egitea da, baita zerbitzu horietaz barne-proletalgoek, kanpo-proletalgoek eta atzerriko zibilizazioek egindako erabileren ikerketa egitea ere; baina lehenik atariko galdera bati aurkitu behar diogu erantzuna: pasiboa, kontserbadorea, arkaizantea eta, egia esateko, alde guztietatik negatiboa den erakunde batek, nola eman diezaioke zerbitzurik inori? Unibertsoaren erritmoari buruzko notazio siniko adierazgarriaren arabera, hain etorkizun gutxiko Yin-egoerak nola sortu dezake Yang-jardueraren beste piztaldi berri bat? Noski, erraza da ikustea, behin energia sortzailearen txinparta bat estatu unibertsalaren babespean pizten bada, gar iraunkor bihurtzeko aukera izango duela, «arazoaldi» baten kolpe-boladaren mende utzita beharbada sekula izango ez lukeena. Baina zerbitzu hori, baliotsua bada ere, negatiboa da. Estatu unibertsal baten mende sortzen den gizarte-egoeran, zein ezaugarri da sortzeko gaitasun berri horren sorburu positiboa, gaitasun horixe izanik estatu unibertsal batek bere onuradunei ematen dien onura nagusia, nahiz eta ez dirudien gai denik epe luzera hori beretzat aprobetxatzeko? Arrasto bat agian arkaismoak erakusten duen joeran aurki daiteke: «gauzei funtzionarazteko» ahaleginetan eraikuntzara engainatuz bere buruari porrot eragiteko joeran, alegia.

Adibidez, gizarte zatikatutik bizirik irauten duen egitura estatu unibertsalaren egitura politikoan sartzeak ez du balio dagoeneko desagertu dena berreskuratzeko, edo geratzen denaren kolapso eten-gabea eragozteko; eta ikaragarria den eta etengabe zabaltzen ari den gizarte-hutsune honen mehatxuak gobernua bere joeren aurka jokatzeraz bultzatzen du, eta ordezkotako erakundeak eraikitzeraz hutsunea betetzeko. Gero eta zabalagoa den zuloan beti aurrerago joateko premia honen adibide klasikoa Erromatar Inperioaren administrazio-historiak ematen du ezarri eta ondorengo bi mendeetan. Gobernamentuaren erromatar sekretua zeharka agintzearen printzipioa zen. Estatu unibertsal helenikoa bere erromatar sortzaileek honela pentsatu zuten: beren burua gobernatzen zuten hirien elkarte gisa, printzerri

autonomoen zerrenda batekin kultura helenikoak artean sustrai politikorik bota ez zuen eskualdeetan. Administrazioaren zama tokian tokiko agintari horiei uzten zitzaien. Politika hau sekula ez zen berriaz berrikusi; hala ere, bi mendetako erromatar bakearen bukaeran Inperioa berriro azertzen badugu, administrazio-egitura eraldatuta dagoela aurkituko dugu. Bezero ziren printzerriak probintzia bihurtuta zeuden, eta probintziak, berriz, zuzeneko eta zentralizaturiko administrazioaren organo bilakatuta. Toki-gobernuak zuzentzeko giza baliabideak pixkanaka agortu egin ziren, eta gobernu zentrala, tokian tokiko administrazio-talentuaren gero eta eskasia handiago horren aurrean, behartuta aurkitu zen ez bakarrik printze bezereen ordez gobernadore inperialak jartzera, baita hiri-estatuaren administrazioa «administratzaile» izendatuen eskuetan jartzera ere. Prozesuaren bukaerarako inperioaren administrazio osoa hierarkikoki antolaturiko burokraziaren eskuetan zegoen.

Agintari zentralak ez zeuden aldaketa hauek ezartzeko gogotsuago toki-agintariak pairatzeko baino; biak izan ziren era berean *force majeure* baten biktima. Hala ere, ondorioak iraultzaileak izan ziren, erakunde berri hauek oso «eroaleak» baitziren. Aurreko testuinguru batean (Ikus lehen lib., 540-594. orr.) ikusi dugunez, gizarte-desintegraziozko garai baten bi ezaugarri nagusi promiskuitate-zentzua eta batasun-zentzua dira; eta, bi joera psikologiko horiek ikuspuntu subjektibotik antitetikoak izan daitezkeen arren, azpilana egiten dute emaitza objektibo berdina sortzeko. Garaiko espiritu nagusi honek «eroankortasunez» hornitzen ditu estatu unibertsalak sortarazitako behin-behineko erakunde berri hauek, ozeanoak eta estepak —ez beren giza giro psikologikoagatik, baizik eta beren izaera fisikoagatik— dutenarekin parekagarria.

«Lurraren gainazalak gizadi osoari eusten dion bezala, horrela Erromak Lurreko herri guztiak hartzen ditu bere altzoan, itsasoak ere ibaiak hartzen dituen bezala». Honela idatzi zuen dagoeneko aipatu dugun Elio Aristidesek, eta simil bera erabili zuen Azterlan honen egileak Aristidesen lana ezagutzera iritsi baino lehen idatzitako pasarte batean.

*«Idazleak parabola batez adieraz dezake ongien bere sentipen pertsonala Inperioari buruz. Itsasoa bezalakoa zen, haren ertzetan*



*zegoelarik bere hiri-estatuen sarea. Mediterraneoak bera osatzeko ura eman duten ibaien ordeztuak pobrea dirudi lehen begiratuan. Ibaietakoak ur biziak ziren, buztintsu nahiz gardenak izan; itsasoak gazi, geldi eta hilda dirudi. Baina itsasoa aztertzeari ekin orduko, han ere mugimendua eta bizitasuna aurkitzen ditugu. Ur-laster isilak daude itsasoaren alde batetik bestera etengabeko joanean, eta lurrunketaz galdua dirudien gainazaleko ura ez dago benetan galdua, baizik eta urrutiko leku eta sasoiaren beheratuko da, bere zikin-keria guztiak destilatuta, euri bizi-emaiaren forman. Eta gainazaleko ur horiek hodeietara igotzen direnean, horien lekua beheragoko geruzek hartzen dute, etengabe goratzen direlarik sakonetik. Itsasoa bera etengabeko mugimendu sortzailean dago, baina ur-masa handi horren eragina bere ertzetara baino askoz harantzago hedatzen da. Muturretako tenperaturak ezitzen aurkitzen dugu, landaredia bizkortzen, eta animalia eta gizakion bizitza oparo egiten, kontinenteen urrutiko bihotzean eta haren izena sekula entzun ez duten herrien artean»<sup>3</sup>.*

Estatu unibertsal baten inguru eroankorrean zehar beren bidea egiten duten gizarte-mugimenduak, egia esan, horizontalak eta bertikalak dira. Mugimendu horizontalaren adibidea sendabelarren zirkulazioa da Erromatar Inperioan, Plinio Zaharrak bere *Historia Naturalis* delakoan ematen duen lekukotasunaren arabera, baita pape-raren erabileraren zabalkundea ere, hau Arabiar Kaliferriaren ekialdeko muturretik mendebaldeko. Txinatik Samarkandara iritsi zen K.o. 751n, bere erabilera Bagdadera hedatu zen K.o. 793an, Kairora K.o. 900ean, Fez (Fas)era, ia Atlantikoa ikusteko moduan, K.o. 1100. urtearen inguruan, eta Jativara iberiar penintsulan K.o. 1150ean.

Mugimendu bertikalak batzuetan iheskorragoak dira, baina sarritan garrantzitsuagoak beren gizarte-ondorioetan, Tokugawa shogungoaren historiak erakusten duen bezala, shogungo hori Ekialde Urruneko Gizarteak Japonian zuen estatu unibertsala zelarik. Tokugawa erregimenak Japonia munduaren gaineraketik bakartu egin nahi izan zuen, eta arrakasta izan zuen ia bi mendez *tour de force* politiko horri eusten; baina ezin izan zuen gizarte-aldaketaren bidea gerarazi Japoniar Inperio bakartuaren barruan, sistema feudal bat —aurreko arazoalditik heredatua— ordena iraunkor gisa petrifikatzeko ahalgina gorabehera.

*«Diru-ekonomia Japonian sartzeak... iraultza geldo baina geraezina eragin zuen, gobernu feudalaren kolapsoarekin eta, berrehun urte baino gehiagoz bakartuta egon ondoren, atzerritar herrialdeekiko trukeari berrekinez burutu zena. Ateak ireki zituen ez zen izan kanpoko deia, barruko leherketa baizik... Lehen ondorioetako bat hirietako jendearen aberastasuna areagotzea izan zen, samuraien baita nekazarien ere bizkar irabazitakoa... Daimyo-ek eta beren zerbitzariak eskulangileak ekoitzi eta merkatariek saldutako luxuzko gauzetan gastatzen zuten dirua, eta, beraz, (K.o.) 1700. urtearen ingururako, diotenez, haien urte eta zilar ia guztia hirietako jendearen eskuetara igaroa zen. Orduan, gauzak kreditu bidez erosten hasi ziren haiek. Luzarora gabe oso zorpetuta zeuden merkatariklasearekiko eta beren zerga-arroza bahituran eman edota behartuta saldu behar izan zuten... Abusuak eta hondamendia berehala etorri ziren. Merkatariaiek arroz guztia berenganatu eta espekulatzen hasi ziren... Klase bateko kideak bakarrik, eta ez guztietakoak, atera zuten onura egoera hartatik. Hauek merkatariaiek ziren, batez ere finantza-bitartekariak eta diru-mailegariak, chonin edo hiriko jende gutxietsia, teorian edozein samuraik zigorrik gabe hil zezakeena begirunerik gabeko mintzaira erabiltzeagatik soilik. Haien gizarte-estatusa oraindik apala zen, baina poltsa zeukaten eta gorabidean zeuden. 1700. urterako jada Estatuko elementurik indartsuen eta saiatuenetakoa ziren, eta kasta militarra astiro-astiro bere eragina galtzen ari zen»<sup>4</sup>.*

K.o. 1590. urtea hartzen badugu japoniar estatu unibertsalaren sorrera-datatzat, orduan gaingitu zuelarik Hideyoshik bere diktaduraren aurkako azken erresistentzia, ohartuko gara mende bat baino askoz gehiago ez zuela behar izan beheko ur-geruzak sakonetik gainazalera irteteko eta gizartearen odolik gabeko gizarte-iraultza eragiteko, geroago Hideyoshiren ondorengoek ia platonikoki utopikoa zen gelditasunean zurrundu nahi izan zutelarik. Eraitza erabat harrigarria da Tokugawa shogungoaren estatu unibertsala kulturalki homogeneoa baitzen ezohiko maila handian.

Estatu unibertsalen «eroankortasunaren» argibideak historikoki nahikoa ezagutzen dugun beste edozein adibidetatik atera daitezke.

## 2.

### *Bakearen psikologia*

Estatu unibertsala arazoaldiko gaitzen panazea gisa ezartzen dute bere sortzaileek, eta onartzen dute mendekoek. Psikologi ikuspegitik, adostasuna ezarri eta mantentzeko erakundea da; eta hau da benetako sendabidea zuzen diagnostikaturiko gaitzarentzat. Gaitza bere buruaren aurka zatituriko etxearena da, eta zisma hau bi eratakoa da. Bada zisma horizontal bat lehian ari diren gizarte-klaseen artean, eta zisma bertikal bat gerran ari diren estatuen artean. Inperiogileen xede gorena, aurreko aroko parroki estatuen arteko gerretatik iraun duen botere bakarra estatua unibertsal bihurtzean, zera da: konkistatu dituzten parroki estatuetan gutxiengo menderatzaileetako kideekin adostasuna lortzea. Hala ere, bortizkeriarik eza, gizarte-bizitzako konpartimentu batera mugatu ezin den gogo-aldartearen eta portaera-printzipioa da. Ondorioz, gutxiengo menderatzaileak bere barne-harremantatik bilatu nahi duen adostasuna hedatu egin behar da gutxiengo menderatzaileak barne- eta kanpo-proletalgoekin eta —desintegratzen ari den zibilizazioa kontaktuan dagoen— edozein atzeritar zibilizazioarekin dituen harremanetara.

Adostasun unibertsal hori maila desberdinetan gertatzen da probetxuzko bere onuradunentzat. Gutxiengo menderatzailea neurri bateraino suspertzeko gai egiten duen bitartean, indarraldi erlatibo handiagoa ekartzen dio proletalgoari. Bizitza dagoeneko joana zaio gutxiengo menderatzaileari, eta adostasunaren «espezia guztiek beheraldia luzatu baino» ezin dute egin, George III.a erregearen gorpuaz Byronek egindako iruzkin adeigabea hona moldatuz; aldi berean, espezia horiek beroriek ongarri gisa balio dute proletalgoarentzat. Horren arabera, estatua unibertsal batek ezarritako armistizioan, proletalgoak hazi egin behar du, eta gutxiengo menderatzaileak, murriztu. Estatua unibertsal baten sortzaileek beren artean borroka ezabatzeko helburu negatiboarekin zerturiko tolerantziak eliza unibertsal bat sortzeko aukera ematen dio barne-proletalgoari, eta bitartean estatua unibertsalaren mendekoen artean espiritu martzialaren atrofiak barbaroen kanpo-proletalgoari, edo auzoko zibilizazio atzeritarren bati, aukera ematen dio barrura sartu eta barne-proletalgo-

ren baten gain nagusitasuna lortzeko, hau baldintzatua izan delarik politika-mailan pasiboa izateko, erlijio-mailan aktiboagoa izan daitekeen arren.

Gutxiengo menderatzaileak, berak sorturiko baldintzez aprobetxatzeko duen ezintasun erlatiboa honek argitzen du: ia beti porrot egin izanak bere filosofia edo «erlijio fantastiko» bat goitik behera zabaltzen. Bestalde, ohargarria da ikustea estatu unibertsal baten bake-giroaz zein erabilera eraginkorra egin dezakeen barne-proletalgoak, behetik gorantz, erlijio nagusi bat zabaltzeko eta, azkenean, eliza unibertsal bat ezartzeko.

Egiptoko «Inperio Ertaina», adibidez, jatorrizko estatu unibertsal egipziakoa zena, horretarako erabili zuen osiriari elizak. Neobabiloniar Inperioa —estatu unibertsal babilonikoa zena— eta haren ondorengo hainbat estatu atzerritar —Akemenestar (Pertsiar) Inperioa eta seleukotarren monarkia— antzeratsu erabili zituen judaismoak eta honen senide-erlijio zen zoroastrismoak. Erromatar bakeak eskainitako aukera lehian zeuden zenbait erlijio proletariok hartu zuten: Zibelezen eta Isisen kultuek eta mitraismoak eta kristautasunak. Antzeratsu, *Pax Hanica*-k mundu sinikoan eskainitako aukerengatik lehian jardun zuten erlijio proletario indiko batek —mahayanak— eta bertako erlijio proletario sinikoa zen taoismoak. Arabiar Kalifaldiak antzeko aukera eskaini zion Islamari, eta mundu indikoan gupta-rajak hinduismoari. Mongolen Inperioak, Ozeano Barearen mendebaldeko itsasertzetik Baltikoaren ekialdeko itsasertzeraino eta siberiar tundraren hegoaldeko zerrendetatik arabiar basamortu eta Birmaniaro junglako ipar-zerrendetaraino une batez *Pax Nomadica* eraginkorra hedatu zuenak, erlijio lehiakide askotako misiolarien irudimena piztu zuen, berak eskainitako aukeren bidez; eta une iragankor hori zein laburra izan zen kontuan izanda, ohargarria da ikustea zein arrakasta handiz aprobetxatu zuten bai nestoriotarren eta Mendebaldeko kristau katolikoen elizek bai Islamak, baita mahayanar budismoaren sekta tantriko lamaistak ere.

Horrela, estatu unibertsal baten gizarte- eta psikologi giro mesedegarria hain sarri aprobetxatu zuten erlijio nagusien adierazleak kasu batzuetan kontziente izan ziren bedekazio horretaz eta Egiptoko Jainko Bakarrari egotzi zioten hori ematea, zeinen izenean ari izan baitziren predikatzen. Deuterioisaias, Ezra eta Nehemias liburuen egi-

leen begietan Akemenestar Inperioa Jahvek hautaturiko tresna zen judaismoa hedatzeko, eta Leon Handia aita santuak (K.o. 440-61) antzera ikusten zuen Erromatar Inperioa, kristautasunaren hedapena errazteko Jainkoak probidentzialki agindua. Honela idatzi zuen laurogeita bigarren sermoian: «Onginahizko egintza adieraztezin honen (hots, Gizakundearen) ondorioak munduan zehar zabaldu ahal izateko, Jainkoaren probidentziak aurrez Erromatar Inperioa sortarazi zuen».

Idea hau kristau-pentsaeraren topiko bihurtu zen, eta, adibidez, Milton-en *Ode on the Morning of Christ's Nativity* delakoan agertzen da berriro:

*Gerra edo gudu-hotsik  
ez zen mundu osoan entzuten:  
ezpata eta ezkutua esekita lanik gabe;  
gerra-gurdi gakotua  
etsaien odolez zikindu gabe;  
turuta oste armatuei hitz egin gabe;  
erregeak geld, betilun eserita,  
ziur balekite bezala gertu zela Jaun gorena.*

Honelako aukera miragarriak ongi irudi luke zeruak bidalia; hala ere, eliza misiolari arrakastatsu baten eta horren lantoki den estatu unibertsal baten arteko erlazioan, tolerantzi giroak, hasiera mesedegarria ematen dionak, ez du beti irauten prozesuaren bukaera arte, eta batzuetan kontrako bihurtzen da. Jakina, izan dira kasuak hain emaitza txarrik gabekoak ere. Osiriar Elizak sekula ez zuen jazarpenik pairatu eta azkenean gutxiengo menderatzaile egipziakoaren erlijioarekin nahastu zen. Badirudi antzeratsu bakea gorde zela mundu sinikoan mahayana eta eliza taoistaren artean batetik eta Han Inperioaren artean bestetik, kristau-aroko bigarren mendearen bukaera aldera estatu unibertsal sinikoa desegin zen arte.

Judaismoari eta zoroastrismoari heltzen badiegu, ezin dugu esan nolakoak izango ziren beraien azken harremanak ez Neobabiloniar ez Akemenestar Inperioarekin, estatu unibertsal horietako bakoitzari bere historian goiz moztu baitzitzaion bizia. Zera bakarrik dakigu, akemenestar erregimena bat-batean seleukotarren eta azkenean, Eufratesen mendebaldera, erromatarren erregimenak

ordeztu zuenean, atzerriko kultura helenikoaren eraginak, zeinen tresna politikoak izan baitziren ondoz ondo seleukotar eta erromatar bote-reak, judaismoa eta zoroastrismoa beren jatorrizko eginkizunetik —hots, gizadi osoari salbazioaren berri ona predikatzetik— desbideratu eginzituela eta kultur gerrako arma bihurtu zituela, Gizarte Siriakoak Gizarte Helenikoaren erasoari eman zion erantzunean. Akemenestar Inperioak, haren berraragiztatze posthelenikoa izan zen Arabiar Kalifaldiak bezalaxe, bere bide osoa egin izan balu, pentsa genezake, akemenestar gobernu inperial tolerante baten babespean, zoroastrismoak nahiz judaismoak aurreratu egingo zutela Islamak lortu zuena, honek —omeiatarren axolagabezia ez eta abbastarrek musulman ez baina «Liburuaren Herri» zirenengana agindutako tolerantzia arretaz betetzen zutela aprobeztatuz— pixkanaka aurrera egin baitzuen bidean, beso zibilaren inolako laguntza etsigarriekin konprometitu gabe, abbastar erregimenaren kolapsoak borondatezko masa-konbertsioen lubizia ekarri zuen arte, hurbiltzen ari zen interregno politikoaren ekaitzetik babesa bilatuz meskitaren atarian.

Antzeratsu, jatorrizko mauriar estatu unibertsal indikoaren berreskuratzea zen Gupta Inperioaren mende, hinduismoaren erlijio nagusi postbudikoak filosofia budista kanporatu zutenean ez zuen dinastiaren aurkakotasunik izan, baina gainera ez zuen eragotzi inolako jazarpen ofizialek, arrotza izango baitzen Zibilizazio Indikoaren erlijio-ethos tolerante eta sinkretistikoarekiko.

Kasu hauetan ez bezala —non erlijio nagusi bat, estatu unibertsal baten bakeaz baliatuz, toleratu egin duen bere gobernuak hasieratik azkeneraino—, beste batzuetan aurrerabide baketsua jazarpen ofizialek eten dute, eta sustraitik moztu edo desnaturalizatu egin dute, politikan sartzera edo armak hartzera behartuz. Mendealdeko kristautasun katolikoa, adibidez, ia erabat erauzi zuten Japonian hamazazpigarren mendean eta Txinan hemezortzigarrenean. Islamak Txinan mongolen mende bi probintziatan bakarrik lortu zuen ezartzea, eta sekula ez zen izan atzerritar gutxiengo bat baino gehiago, bere egoeraren ezegonkortasunagatik behin eta berriro militantziaren susperraldietara bultzatua.

Erromatar erregimen inperialaren gaineko garaipenaren atariko izan zen indar-probak kristautasunean izan zituen ondorio desatseginak konparatiboki arinak izan ziren. Konstantinoren konbertsioa

arteko hiru mendeetan, Eliza beti egon zen erromatar politikarekin tupust egiteko arriskupean; zeren eta, aro inperialean, erromatar estatuaren gain zebiltzan mota guztietako elkarte pribatuekiko susmoez gain, bai baitzen erromatar tradizio zaharrago eta sakonago irarritako bat: aurkakotasun berezia izaten zitzairen atzerriko erlijioen praktika eta zabalkunderako elkarte pribatuei; eta, erromatar gobernuak politika gogor hori lasaitu arren bi kasu ohargarritan —Bigarren Gerra Punikoaren krisian Zibelezen gurtza ofizialki hartzean, eta judaismoa erlijio gisa iraunkorki toleratzean, nahiz eta judu-zeloteek Erroma zirikatu zuten juduen estatua ezabatze—, K.a. bigarren mendean bakanalak kentzea kristauek beren aroko hirugarren mendean pairatuko zutenaren iragarpena izan zen. Baina Kristau Eliza ez zen erori elkarte politiko-militar izatera desbideratuz jazarpen ofizialari erantzuteko tentazioan, eta sari gisa eliza unibertsal eta etorkizunaren oinordeko bihurtu zen.

Hala ere, Kristau Eliza ez zen proba honetatik zauririk gabe irten. Kristau-otzantasunak erromatar indarraren gain izandako garai-penaren irakaspena serio hartu ordez, bere jazarle nahastuei doako justifikazioa eta hil ostean mendeku moralak zertzeko aukera eman zien, haien porrota eragin zuen bekatua bere altzoan hartuz. Bera bizkor bihurtu zen jazarle eta luzaroan jarraitu zuen hori izaten.

Honela, espirituaren mailan barne-proletalgoa, erlijio nagusien sortzaile gisa, gutxiengo menderatzaileak estatu unibertsalak sortzen eta mantentzen egindako lorpenaren onuradun garrantzitsuena den bitartean, politika-mailan beste esku batzuek uztatzen dituzte onurak. Bake-psikologiak, estatu unibertsal baten babespean, ezgaitu egiten ditu gobernariak beren ondare politikoari eusteko zereginerako. Ondorioz, desarme psikologikoaren prozesu honen onuradunak ez dira gobernariak edo gobernatuak, ezta gutxiengo menderatzailea edo barne-proletalgoa ere; inperioko mugez harantzagoko arrotzak dira, desintegratzen ari den gizarteko kanpo-proletalgoaren kide edo atzerriko beste zibilizazioen baten ordezkariak izan daitezkeenak.

Azterlan honetan lehenago esan dugunez, zibilizazio baten desagertzea erregistratzen duen gertaera —bere aurreko kolapso eta desintegraziotik bereizia— gizarte zenduaren estatu unibertsalaren eremua okupatzea izaten da normalean, bai mugaz harantzagoko gerra-jaun barbaroek edo bai kultura desberdineko beste gizarte bate-

tik etorritako konkistatzaileek egiten dutena, edo kasu batzuetan bi motatakoek, batzuk besteen orpoz orpo etortzen direlarik. Estatu unibertsal batek eragindako giro psikologikoaz, beren harrapatze-helburuetarako aprobetxatzea lortu duten erasotzaile barbaro edo atzerri-tarrek eskuraturiko onurak nabariak dira eta, ikuspegi laburraz, ikaragarriak. Hala ere, dagoeneko aipatu dugu suntsitzen ari den estatu unibertsal baten eremu abandonatuan sartzen diren barbaroak etorki-zunik gabeko heroiak direla; eta, ziur aski, benetan diren bezalako abenturari lotsagarritzat hartuko zituzketen ondorengoek, beren epita-fioak poesia epikoaren hizkeran idazteko zuten dohainak atzera begi-ratuta haien ihesaldi ilunen gain botatako ospeagatik izan ez balitz. Akiles bera ere «heroi» bihur dezake *Iliada*-k. Atzerriko zibilizazio baten misiolari militanteen lorpenei buruz, horiek ere engainagarri eta etsigarriak dira elizen lorpen historikoaren aldean.

Prozesu osoa ezagutzen dugun bi kasutan ikusi dugu zibiliza-zio bat, zeinen estatu unibertsala garaiz lehen moztu baitute atzerriko konkistatzaileek, gai dela lurpera joateko, hainbat mendez hibernatu, bere garaia zain egon eta azkenean bere aukera aurkitzen duelarik zibilizazio sarkina kanporatzeko eta bere historian estatu unibertsala-ren fasea berriro hartzeko, eten zioten puntuan bertan. Zibilizazio Indikoak *tour de force* hau lortu zuen ia seiehun urte igaro eta gero, eta Siriakoak ia mila urte geroago, uholde helenikoaren azpian mur-gilduta egon ondoren. Haien lorpenaren oroigarriak Gupta Inperioa eta Arabiar Kalifaldia izan ziren, haietan eman baitzieten jarraipena hasieran Mauriar Inperioan eta Akemenestar Inperioan gorpuzturiko estatu unibertsalei. Bestalde, Gizarte Babilonikoa eta Egipziakoa azkenean Gizarte Siriakoak bere gizarte-gorputzera ekarri zituen, nahiz eta Babilonikoak arrakasta izan bere kultur nortasunari seiehun urte inguruz eusten Nabukodonosorren Neobabiloniar Inperioa Zirok eraitsi ondoren; Gizarte Egipziakoak, aldiz, bi mila urtez behintzat eutsi zion bere buruari «Erresuma Ertainaren» kolapsoarekin haren berezko bizi-itxaropena bukatu ondoren.

Honela, historiaren argitan bi bukaera alternatibo daude zibi-lizazio batek beste bat bortxaz irentsi eta digeritzeko egiten dituen ahaleginei dagokienez. Argibide horrek erakusten du, hala ere, aha-legina azkenean arrakastatsua gertatuta ere, hainbat mende edo milurtekotako denboraldia igaro daitekeela emaitza ziurtatu arte; eta



horrek kontuz ibiltzera bultza litzake hogeigarren mendeko historia-lariak Mendebaldeko Zibilizazioak bere garaikideak irensteko egin dituen azkenaldiko ahaleginen emaitza iragartzerakoan, kontuan izanda zein denbora laburra igaro den ahalegin horietako zaharrena ere hasi zenetik, eta zein gutxi ikusi den oraindik garatu gabeko prozesu horretaz.

Espainiak Erdialdeko Amerikaz egin zuen konkistaren kasuan, adibidez, ongi uste izan zitekeen atzerritar ordezkari —Espainia Berriko espainiar erregeordetzari— Mexikoko Errepublikak —Mendebaldeko estatuen elkartearen onarpena bilatu eta lortu zuenak— lekua hartu zionean, ertamerikar gizartea Mendebaldeko gizartearen gorputz sozialera asimilatzea atzerazinezko moduan egin zela. Hala ere, K.o. 1821eko Mexikar Iraultzaren ondoren 1910eko Iraultza etorri zen, eta honetan hobiratua baina hibernatzen ari zen bertako gizartea bat-batean esnatu zen, burua altxatu eta gaztelaniar eskuek hilotzaren utzitako kulturaren zarakarra apurtu zuen, hilobi horretan *conquistadores* direlakoek ustez eurek hila zuten norbaiten gorpua sartu zutelarik. Erdialdeko Amerikatik zetorren seinale horrek ondorengo arazoa planteatu zuen, ea Mendebaldeko Kristandadeak Andeatako munduan eta beste edonon ustez egindako kultur konkistak ez ote ziren, lehentxeago edo geroxeago, azaleko eta aldi baterakoak bakarrik gertatuko.

Ekialde Urruneko Zibilizazioa Txinan, Korean eta Japonian —idazten ari naizen garaiaurreko mendean Mendebaldearen eraginpean eroria— Erdialdeko Amerikakoa inoiz izan zena baino askoz ahaltsuagoa zen, noski; eta, Mexikoko jatorrizko kultura sendotzen ari bazen lauhun urteko ilunaldiaren ondoren, ausarkeria litzateke uste izatea Ekialde Urruneko kulturak Mendebaldeak edo Errusiak bereganatua izan behar zuela. Hindu-munduari dagokionez, K.o. 1947an Britainiar Inperioaren ondorengo bi estatuen inaugurazioa, Mexikon K.o. 1821ean izandako Iraultza bezain baketsu zerturiko baliokidea dela interpreta liteke, eta idazten ari naizen garaian iragar daiteke kasu honetan, beste hartan bezala, burujabetze politikozko egintza bat —estatu burujabeak Mendebaldeko nazioen elkartera ekarriz mendebaldartze-prozesuan gaingiroki seilua jarria zuena— Mendebaldeko uholdeak aldi batez azpian hartutako gizarte baten kultur burujabetzerantz lehen urratsa gerta litekeela.

Arabiar herrialdeek, bestalde, duela gutxi nazioen Mendebaldeko elkartean estatu burujabe gisa onartuek, otomandar agintaritza politikoa eta kultur barniz iranikoa —zeinen azpian estalita egon baitziren lau mendez— astintzen izandako arrakastagatik lortu zuten beren guraria. Ba al zegoen arrazoirik zalantzan jartzeko azpian bizi-rik zetzan kultura arabikoaren indarra, lehentxeago edo geroxeago, sendotu egingo zela askoz arrotzagoa zen Mendebaldeko kulturaren eraginaren aurka?

Kultur konbertsioen azken ondorioen ikerketa honen efektu orokorra guk ondorioztatua berrestea da, hots, estatu unibertsalak emandako zerbitzuen onuradun ziur bakarra barne-proletalgoa dela. Kanpo-proletalgoak lorturiko onurak engainagarriak dira beti, eta atzerriko zibilizazioak lorturikoak ez dira iraunkorrak gertatu ohi.

### 3.

#### *Erakunde inperialen erabilgarritasuna*

Estatu unibertsalen bi ezaugarri orokorren —eroankortasunaren eta bakearen— ondorioak aztertu ostean, estatu horiek berariaz sortu eta mantentzen dituzten —baina beren eginkizun historikoa egileek sekula pentsatu gabeko paperetan aurkitu ohi duten— erakunde zehatz partikularrek beren onuradunei emandako zerbitzuen azterketa egiten jarrai genezake orain. Erakunde terminoa nolabait ere zentzu orokortuan erabiliz, ondorengo hauek adierazteko erabil genezake: komunikabideak, goarnizio eta koloniak, probintziak, hiriburuak, hizkuntza eta idazkera ofizialak, lege-sistemak, egutegiak, pisu eta neurriak, eta dirua; armadak, zerbitzu zibilak, hiritargoak. Hauetako bakoitza errepasatuko dugu orain.

#### *Komunikabideak*

Komunikabideak daude zerrendaren buruan, erakunde nagusi hauen mende baitago estatu unibertsala, bizi ahal izateko. Bere agindupeko lurretan aginte militarren tresna ez ezik, kontrol politikoaren tresna ere badira. Gizakiak egindako bizi-bide inperial hauetan giza-

kiak egindako errepideak baino askoz gehiago sartzen dira, zeren eta «berezko» bide nagusiak —ibaiak, itsasoak eta estepak— ez baitira komunikabide erabilgarriak, eraginkorki zainduta izan ezik. Garraio-bideak ere behar dira. Orain arte historian ezagutzen diren estatu unibertsal gehienetan, bitarteko horiek posta-zerbitzu inperialaren forma hartu izan dute eta «postariak» —izen ezagun hau zerbitzu honen, zentralaren eta tokian tokikoaren, funtzionarioei eman bageniezaieke— sarritan poliziak ere baziren. Dirudienez, posta-zerbitzu publikoa Sumer eta Akadeko Inperioko gobernu-makineriaren parte izan zen K.a. hirugarren milurtekoan. Akemenestar Inperioan, munduko zati berean bi mila urte geroago, erakunde berberak antolaketa eta eragin-kortasun-maila handiagoarekin aurkitzen ditugu. Probintzien gain gobernu zentralaren kontrolari eusteko komunikabide-sistema inperiala erabiltzeko akemenestarren politika berriro agertzen da Erromatar Inperioaren eta Arabiar Kalifaldiaren administrazioan.

Benetan ez da harritzekoa estatu unibertsaletan antzerako erakundeak aurkitzea «Txinatik Peruraino». Tsin Shi Huang-tik, estatu unibertsal sinikoaren sortzaile iraultzaileak, bere hiriburutik zabaltzen ziren bideak egin zituen, eta ongi antolaturiko ikuskatzaileak erabili zituen. Halaber, inkek bideak erabili zituzten beren konkistak sendotzeko. Mezu bat Cuzcotik Quitaraino, mila milia baino tarte luzeagoa lerro zuzenean eta agian beste bostehun bat gehiago bidez, hamar eguneko denbora laburrean iristen zen.

Jakina, estatu unibertsaletako gobernuek sortu eta mantenduriko bideak helburu-mota guztietarako erabil zitezkeen, horretarako pentsatuak ez izan arren. Kanpo-proletalgo inbaditzailearen gerra-taldeek askoz geldiago egingo zituzketen beren harraparitzak Erromatar Inperioaren azken aldian, honek ez balizkie nahigabe eskaini izan lur gainean mugitzeko hain baliabide bikainak. Baina Alariko baino pertsona interesgarriagoak ere ikus daitezke bidean. Augustok erromatarren bakea ezarri zuenean Pisidian, oharkabean bidea prestatzen ari zen San Paulorentzat, honek lehenengo misio-bidaian, Panfilian lehorreratu eta arazorik gabe Pisidiako Antiokia, Ikonio, Listra eta Derbe-raino bidaia egin zezan. Eta Ponpeiok lapurrak garbitu zituen itsasoetatik Paulok bere azken bidaia garrantzitsua egin ahal izan zezan Palestinako Zesareatik Italiako Puteoliraino, enbata eta ontzi-hondoratzeen probez gain, gizakiak sortutako arriskuei ere aurre egin beharrik gabe.

Erromatar bakea gizarte-giro mesedegarria gertatu zen Pauloren ondorengoentzat. Erromatar Inperioaren bizitzako bigarren mendearen azken zatian, San Ireneo Lyongoak zeharbidezko gorazarrea egiten zien Inperioko komunikabide errazei mundu helenikoan zehar Eliza Katolikoaren batasuna goستن zuenean. «Berri On hau eta fede hau hartu ondoren», idazten du, «Elizak, munduan zehar banatuta egon arren, sabai bakar baten pean biziko balitz bezain zehatz gordetzen ditu altxor hauek». Berrehun urte geroago, historia-lari pagano atsekabetu bat, Amiano Martzelino, kexatu egiten da «prelatu-pila batek posta-zaldi publikoak erabili dituelako, beraiek 'sino-do' deitzen dituzten horiek direla eta, harat-honat bizkor ibiltzeko».

Gure azterketak<sup>5</sup> hainbeste kasu argitu duenez, non komunikabide-sistema bat azkenean ustekabeko onuradunentzat gertatu baita probetxuzko, joera honek «lege» historiko bat argitzen duela pentsa genezake; eta K.o. 1952an ondorio honek garrantzi handiko arazo bat planteatzen zuen mendebaldar bihurtzen ari zen munduaren etorkizunaz, mundu horretan bizi zirelarik Azterlan honen idazlea eta bere garaikideak.

K.o. 1952. urterako Mendebaldeko gizakiaren ekimen eta trebetasunak lau mende eta erdi inguru zerratzen planetaren gainazal bizigarri eta zeharkagarri osoa lotzen komunikabide-sistemaren bidez, etengabe bizkortzen ari zen teknikari esker. Zurezko karabela eta galeoiek —haizearen kontra ibiltzeko prestatuek, Mendebaldeko Europa modernoko marinel aitzindariak ozeano guztien nagusi izateko gaitu zituztenek— mekanikoki bultzaturiko burdinazko ontzi erraldoi samarrei utzi zieten lekua; «baso-bideetan» sei zaldiko gurdiak ibili ordeztu, macadam eta porlaneztaturiko bideetan automobilak ibiltzen ziren; burdinbideak errepideekin lehian ari ziren, eta hegazkintza, lehorreko eta uretako garraiabide guztiekin. Aldi berean, giza gorputzak fisikoki garraiatzea eskatzen ez zuten komunikabideak sortu eta abian jarri ziren, telegrafo, telefono eta, irrati bidez, haririk gabeko transmisioen —ikus nahiz entzutekoen— forman. Aurrez sekula ez zen hain eremu handia hain eroankor izan giza harremanen forma guztietarako.

Garapen horiek, teknologi mirari horien agerleku izandako gizartearen azken batasuna iragartzen zuten politika-mailan. Idazten ari garen garaian, hala ere, Mendebaldeko munduaren etorkizun poli-

tikoa oraindik iluna zen; zeren eta, behatzaile bati ziur iruditu arren batasun politiko hori lehentxeago edo geroxeago etor litekeela era batera edo bestera, hala ere ezin baitzen asmatu noiz eta nola. Oraindik beren burua indartzen zuten hirurogei edo hirurogeita hamar parroki estatu subiranoren artean zatiturik zegoen baina dagoeneko bonba atomikoa asmatua zuen mundu batean, garbi zegoen batasun politikoa «*knock-out* kolpearen» metodo ezagunaren bidez ezar zitekeela; eta, halaber, gerta zitekeen, kasu honetan bakea honela ezarri behar bazen, beste askotan bezala, bizirik iraundako Botere Handi bakar baten *fiat* arbitrarioraren bidez, bortxazko bat-egitearen prezioa —suntsidura moral, psikologiko, sozial eta politikoari (ez aipatzearen materialari) dagokionean— mota bereko beste kasu batzuetan izandakoa baino handiagoa izatea erlatiboki. Aldi berean gerta zitekeen bat-egite politiko hori borondatezko lankidetzaren bide alternatibotik lortu ahal izatea. Baina, zeinahi konponbide aurkituta ere arazo honi, ziur iragar zitekeen mundu-mailako komunikazio-sare berriak nahigabeko onuradunen probetxurako bihurtzearen paper ironiko eza-gunean aurkituko zuela bere eginkizun historikoa.

Nork aterako luke onurarik handiena kasu honetan? Nekez kanpo-proletalgoko barbaroek. Nahiz eta sortu izan ditugun, eta sortitzakegun berriro, Atila neobarbaroak, zibilizazio galbideratuen arnegatuak, Hitler eta bera bezalakoen forman, mundu-mailako gure sistemak ez die zertan beldur izan mugaz harantzagoko barbaro benetakoen gerakin errukarriei<sup>6</sup>. Bestalde, dauden erlijio nagusiak —hauen eremuak lotuak zeuden elkarren artean, baita gizaki primitibo paganoaren gero eta arlo murriztagoekin ere— jadanik hasita zeuden beren aukeraz baliatzen. San Paulo, behin Orontesetik Tiberrerraino joaten ausartu zena, gero kartsu arriskatu zen Mediterranea baino itsaso zabalagoetan. Portugaleko karabela batean Esperantza Oneko lurmuturra inguratu zuen bere bigarren bidaian Indiara<sup>7</sup>, eta, are urrutirago, Malakako itsasartetik, bere hirugarren bidaian Txinara<sup>8</sup> joateko. Espainiako galeoi batera aldatuz, apostolu nekaezinak Atlantikoa zeharkatua zuen Cadizetik Vera Cruzera, eta Ozeano Barea, Akapulkotik Filipinetaraino. Ez zen Mendebaldeko kristautasuna Mendebaldeko komunikabideez baliatu zen erlijio bizi bakarra izan. Ekialdeko kristautasun ortodoxoak, Mendebaldeko su-armaz hornituriko kosako aitzindarien konboietan Kama ibaitik Okhotsk-eko itsaso-

rainoko bide luzea egin zuen. Hemeretzigarren mendeko Afrikan, San Paulo, David Livingstone eskoziar mediku misiolariaren moztarpean, berri ona predikatzen, gaixoak sendatzen eta aintzira eta ur-jauziak aurkitzen ari zen bitartean, Islama ere mugitzen ari zen. Ez zen pentsaezina mahayanak ere Magadanetik Luoyang-eraino errege-bideen segida batean egin zuen ibilaldi miragarria gogoratu ahal izango zuela egunen batean, eta, oroitzapen bizi honen indarrez, hegazkina eta irratia bezalako mendealdar asmakuntzak salbazioaren predikazio-lanarako aprobetxatu ahal izango zuela, beste garai batean txinatarrek asmatutako inprentaz baliatu zen bezalaxe.

Mundu-mailan misiolari-ekintzen akuilatze honek planteaturiko arazoak ez ziren, hain zuzen, eliz geopolitikazkoak. Erlijio nagusi ezarriak misiolaritza-arlo berrietan sartzeak ondorengo arazoa sortu zuen: ea erlijio baten betiko muina bere gorabehera iragankorretatik bereiz ote zitekeen. Erlijioek elkarrekin topo egiteak sortu zuen arazoa zen ea, epe luzera, elkarren ondoan bizi ote zitezkeen eta elkarri bizitzen utzi, ala haietako batek gainerakoak ordeztuko ote zituen.

Erlijio-eklektizismoaren idealak estatu unibertsalen zenbait gobernari liluratu zituen: adibidez, Alexandro Sebero eta Akbar, buru sofistikatu eta bihotz bigunekoak, eta haien esperimentuak erabat emaitzarik gabeak izan ziren. Bestelako goiburuko batek inspiratu zituen jesuita misiolari aitzindariak —Frantzisko Xabierkoa eta Mateo Ricci—, Mendebalde modernoko teknikariek itsaso handien konkistan eskainitako aukerez baliatzen edozein erlijiotako lehenengo apostolu izan zirenak. Esploratzaile espiritual ausart horiek hindu eta Ekialde Urruneko munduak erakarri nahi zituzten kristautasunera, San Paulok eta haren ondorengoek beren garaian mundu helenikoa erakarri zuten bezala; baina, beren fede heroikoaren arabera buru-ikuskeraz hornituak zeudelarik, garbi ikusi zuten beren eginkizunak ez zuela arrakastarik izango baldintza zorrotz bat bete gabe, eta batere zalantzarik gabe onartu zituzten ondorioak. Eta ohartu ziren konberti ditzakeenak erakartzeko moduan eman behar duela misiolari batek bere mezua adimen-, estetika- eta emozio-mailan. Zenbat eta iraultzaileagoa izan mezua bere muinean, are garrantzitsuagoa litzateke aurkezpen ezagun eta atseginez jantzita ematea. Baina horrek mezuari gainjantzi bateraezina kentzea eskatzen zuen, misiolariek beren kultur tradizioetik heredaturiko jantzia; eta honek, bere aldetik, zera eskatzen

zien misiolariiei: beren gain hartzeko beren erlijioaren ohiko aurkezpe-  
nean funtsezkoa eta azalekoa zer zen bereizteko ardura.

Politika honen gakoa zera zen, berak konbertitu nahi zituen  
gizarte ez-kristauen bidetik behaztopa-harri bat kentzean, beste bat  
jartzen ari zela bere erlijioakideen aurrean; eta harkaitz horren kontra  
hondoratu ziren Aro Modernoaren hasieran jesuiten misioak Indian  
eta Txinan. Misiolari lehiakideen jelosiaren eta Vatikanoko kontser-  
badorismoaren biktima izan ziren. Eta, hala ere, gerta liteke hau ez  
izatea kontuaren bukaera.

Kristautasuna Palestinan mundura etorri zenean biltzeko erabi-  
li zituzten bertako zapiak Paulo Tartsokoak ez balitu maisuki kendu  
izan, Erromako katakunbetako kristau-artistek eta Alexandriako jain-  
kotasun-eskolako kristau-filosofoez sekula ez zuketean aukerarik izan-  
go kristautasunaren muina greziar ikuskera eta pentsaeraren arabera  
aurkezteko eta, beraz, mundu helenikoaren konbertsiorako bidea pres-  
tatzeko. Eta, kristau-aroko hogeigarren mendean, Origenesen eta  
Agustinen kristautasunak ez balitu erantzi izan bere ibilaldi historiko-  
an geraleku siriako, heleniko eta Mendebaldekoa izandakoetan jantzi  
zituen apaingarriak, ez zen gai izango idazten ari naizen garaian erli-  
jio nagusi bizi ororentzat mundu-mailan irekitako aukeraz baliatzeko.  
Erljio nagusi bat, aldi baterako kultur giroaren markarekin gehiegi  
identifikatzen uzten badio bere buruari, geldikor eta lurrari lotua gera-  
tuko da seguru.

Baina, azken batean, kristautasunak beste bidea hartuko balu,  
behinola Erromatar Inperioan lorturikoa errepikatu ahal izango luke  
*Oikoumenê* modernoan. Erromatar komunikabideek lagundu zuten  
merkataritza espiritualean, kristautasunak horrela topatu zituen beste  
erlijio nagusi eta filosofietatik beraietan onena izandakoaren muina  
atera eta heredatu zuen. Mendebaldeko teknika modernoaren asma-  
kuntza askoren bidez materialki elkaturiko mundu batean, behinola  
Isisen gurtzak eta neoplatonismoak kristau-ikuspegi eta praktikari  
egin zizkieten bezain ekarpen emankorrak egin zitzaizkion hinduismo-  
ak eta mahayanak. Eta, Mendebaldeko munduan ere, Zesarren inpe-  
rioak goratu eta erori behar bazuen —haren inperioa beti kolapsatu  
edo erori zen bezala ehundaka urte batzuen ondoren—, K.o. 1952an  
etorkizunera begira ari zen historialariak kristautasuna oinordeko utzi-  
ta irudikatu ahal izango zuen, bai filosofia guztien oinordeko —

Akenatonengandik Hegelenganaino—, bai erlijio nagusi guztiena — beti estalita egondako Ama eta Semearen gurtzatik hasita, beren bidaiak Errege-bidean aurrera Ishtar eta Tammuzen izenpean hasi zituztelarik.

### *Goarnizioak eta koloniak*

Erregimen inperialaren laguntzaile leialen koloniak —soldaduak zerbitzu aktiboan, milizianoak, beterano kargugabeak edo zibilak izan daitezkeenak— edozein komunikabide-sistema inperialen osagai dira. Giza atari-txakur horien presentziak, ausardiak eta zaintzak ezinbesteko segurtasuna ematen dute, hau gabe bideak, zubiak eta antzerakoak erabiltezinak izango liratekeelarik agintari inperialentzat. Muga-postuak sistema beraren parte dira, muga-lerroak albo-bide ere izaten baitira beti. Baina goarnizioak polizi edo defentsa-helburuetarako jartzeaz gain, aurreko arazoaldian botereagatiko borroka suntsigarriak eragindako kalteak konpontzeko helburu konstruktiboagoak ere bultza dezake estatu unibertsala koloniak ezartzera.

Hori zegoen Zesarren buruan erromatar hiritarren kolonia burujabeak jarri zituenean Kapua, Kartago eta Korintoko leku hondatueta. Mundu helenikoko parroki estatuen artean bizirik irauteko aurreko borroketan, garaiko erromatar gobernuak berariaz eskarmentu bihurtu nahi izan zuen Kapua traizioz banatu eta Hanibalengana igaro zelako, Kartago ere bai ia-ia Erroma menderatzeko krimenagatik, eta Korinto, berriz, nolanahi aukeratu zuen Akeoen Ligako kideen artean tratamendu bera emateko. Zesarren aurreko errepublikar erregimenaren pean alderdi kontserbadorea hiru hiri ospetsu horiek zaharberritzearen aurka egon zen setati, beldurragatik baino gehiago mendeku hutsez, eta horien tratamenduari buruzko eztabaida luzea arazo zabalago baten ikur bihurtu zen bere garaian. Erromatar gobernuaren *raison d'être*-a berak ezarri zuen estatu partikularraren interes berekoia ote zen, ala mundu helenikoaren ongizate komunerako ote zen Inperioa, mundu haren gorpuzte politiko bilakatu zelarik? Zesarrek Senatuaren gain izandako garaipena ikuspegi liberal, gizatiar eta irudimentsuagoaren aldeko garaipena izan zen.

Zesarrek hasitako erregimenaren eta berak ordeztutakoaren arteko desberdintasun moral harrigarria ez zen historia helenikoaren ezaugarri berezia. Boterearen erabilera eta abusuarekiko antzeko



jarrera-aldaketa gertatu zen beste zibilizazio batzuen historian arazo-alditik estatu unibertsalerako trantsizioarekin batera; baina, «lege» historiko hau bereiz badaiteke ere, salbuespen asko ditu. Alde batetik arazoaldiak aurkitzen ditugu, proletalgo deserrotu eta arranguratsuak ez ezik, kolonizazio-enpresak ere eskala handian sortzen dituztenak: hau erakusten dute Akemenestar Inperioaren eremu izandakoaren bazter guztietan Alexandro Handiak ezarritako greziar hiri-estatu ugariak. Alderantziz, gutxiengo menderatzailearen aldetiko bihotz-aldaketa, estatu unibertsala ezartzearen baliokide psikologikoa izango litzatekeena, nekez izaten da aurreko arazoaldiko praktika basatietan tarteka ez erortzeko bezain egonkorra. Neobabiloniar Inperioak, oro har, bere asiriarr mugagizonen basakeriaren aurka mundu babilonikoaren barruko errebolta moralak azpimarratzen zuenak, azkenean Juda deserrotu zuen, Asiriak Israel deserrotu zuen bezalaxe. Bitxia izan liteke ikuspegi honetatik Babiloniarentzat nagusitasun moralak aldarrikatzea Niniveren gain, esanez Babiloniako erbesteratu judaikoek bizirik irauten utzi zitzaizela Babiloniaren ondorengo akemenestarrak berriro etxera bidali zituen arte, Niniveren biktimak, «Hamar Tribu Galduak», erail eta betiko galarazi zituzten bitartean, britainiar israel-darren irudimenean izan ezik.

Hala ere, eta salbuespenak gorabehera, neurri handi batean egia da kolonizazio-politika konstruktibo eta gizatiar samarra estatu unibertsalen ezaugarrietako bat dela.

Bereizketa egin dugu militar edo polizi helburua duten goarnizioen eta gizarte- edo kultur helburua duten kolonien artean, baina luzarora bereizketa hori helburuzkoa bakarrik da eta ez ondoriozkoa. Inperioegileek estatu unibertsal baten mugetan eta barrialdean goarnizio militar iraunkorrak jartzeak atzetik kolonia zibilak ekartzen ditu ia beti. Erromatar legionarioei, zerbitzu aktiboan zeudenean legez ezkontzea debekatuta izan arren, praktikan baimendu egiten zitzairen ohaideekin ezkon-harreman iraunkorrak izatea eta familiak haztea; armada utzi ondoren, gai izaten ziren ohaidetza legezko ezkontza bihurtzeko eta haurrak legitimotzat hartzeko. Arabiar *muhajirah* militarrei utzi egiten zitzairen emazteak eta seme-alabak eramaten beraiek egon behar zuten kantonamenduetara. Honela, erromatar eta arabiar goarnizioak kolonia zibilen gune bihurtu ziren, eta gauza bera gertatu bide da goarnizio-postu inperialetan inperio eta garai guztietan.

Baina, militar establezimenduen nahigabeko azpiproduktu bezala sortzeaz gain, kolonia zibilak berez helburu gisa ere ezarri ziren. Adibidez, ipar-ekialdeko anatoliar barrutiak, non akemenestarrrek lurra eman baitzizkieten pertsiar baroiei, Islamera konbertitutako albaniarrez kolonizatu zituzten osmanliarrek. Merkataritza-guneetan, beren agindupeko lurren erdian, osmanliarrek Espainia eta Portugaleko judu sefardita iheslarien komunitate zibilak ezarri zituzten. Erromatar enperadoreek sorturiko kolonien zerrenda luzea aipa daiteke, inperioko eskualderik atzeratuenetan zibilizazio-gune (kasuaren arabera, latinizazio edo helenizazio-gune) izateko. Askoren arteko adibide bat Adrianopolis da, bere izenak gogoratu duelarik gaur arte bigarren mendeko enperadore handi baten ahalegina tradizionalki barbaroak ziren traziarrak desbarbarizatzeke. Politika berari jarraitu zioten espainiar inperiogileek Erdialdeko eta Hego Amerikan. Espainiar hiri-estatu kolonial horiek atzerriko erregimen arrotzaren antolaketa administratibo eta judizialerako zelula gisa balio izan zuten, eta, beren prototipo helenikoak bezala, ekonomikoki bizkarroiak izan ziren.

*«Anglo-amerikar kolonietan landako biztanleen beharrak bete-  
zteko hazi ziren hiriak: espainiar kolonietan hirietako beharrak bete-  
zteko hazi zen landako biztanleria. Kolonizatzaile ingelesaren lehen  
helburua landan bizitzea zen normalean eta bizibidea lurra landuta  
ateratzea; espainiarraren lehen plana hirian bizitzea zen eta bizibidea  
plantazioetan edo meatzeetan lan egiten zuten indiar eta beltzengan-  
dik lortzea... Landak eta meatzeak ustiatzeko bertako eskulana baze-  
goenez, landako biztanleek ia erabat indiar izaten jarraitu zuten»<sup>9</sup>.*

Barne-kolonizazioaren mota bat, estatu unibertsal baten histo-  
riaren azken fasean nagusitu ohi dena, nekazari barbaroak jartzea iza-  
ten da, bai barbaroen beren erasoaldiengatik bai gainbehera doan  
inperioren berezko gizarte-gaitzen batengatik despopulaturiko lurre-  
tan. Adibide klasikoa Dioklezianoren osteko Erromatar Inperioren  
deskribapena da *Notitia Dignitatum*-en; honek hainbat germaniar eta  
sarmaziar koloniaren presentzia jasotzen du Galia, Italia eta danubiar  
probintzietako erromatar lurraldean. *Laeti* termino teknikoa —eta  
honekin ezagutzen ziren kolono barbaro haiek— mendebaldeko ger-  
maniar hitz batetik dator, atzerriko egoiliar erdijopuak adierazteko  
hitz batetik; eta etsai barbaro menderatuen ondorengoak zirela ondo-  
riotza genezake, iraganeko eraso-ekintzengatik sarituak edo zigor-

tuak, aurrez beren erasoaldietan suntsitua zuten Lur Aginduan langile baketsu izatera behartuz edo lausengatuz. Kontu handiz barrualdean jartzen zituzten eta ez mugaren inguruetan.

Estatu unibertsalen gobernariak ezarritako goarnizio eta kolonien azterketak, eta horiek ekartzen dituzten biztanleriaren lekualdatze arbitrarioen hausnarketak iradokitzen dute erakunde horiek, zernahi meritu dutela ere beste testuinguru batzuetan, areagotu egingo zutela pammixia- eta proletarizazio-prozesua, dagoeneko ikusi dugularik arazoaldien eta, era berean, estatua unibertsalen ezaugarri zela. Mugetan jarritako goarnizio militar iraunkorrak «arragoa» bihurtzen dira, non gutxiengo menderatzailea bera kanpo- eta barne-proletalgoarekin urtzen baita. Marketako zaintzaileak eta aurkako gerra-talde barbaroek, denbora igarotzean, elkarren artean berdintzera jotzen dute, lehenik teknika militarrean eta azkenean kulturaren ere bai. Baina gutxiengo menderatzailea, mugan kanpo-proletalgoarekiko harremanengatik barbarizatua izan baino askoz lehenago, bulgarizatua izango da barne-proletalgoarekin senidetzeagatik. Inperioileak nekez izaten dute nahikoa giza indar edo arma-lanbidearekiko aski ardura beren inperioari laguntzarik gabe eusteko eta defendatzeko. Beraien lehen baliabidea herri menderatu baina bertute martzialak galdu ez dituztenengandik erreklutak atera eta beren armadak indartzea izaten da. Geroagoko etapan mugaz haraindiko barbaroen artetik ere hartzen dituzte.

Noren onurarako izaten da, batez ere, pammixia- eta proletarizazio-prozesu hori? Onuradun nabarmenena kanpo-proletalgoa izaten da, noski; zeren eta zibilizazio baten aurrelari-talde militarrengandik barbaroek —lehenengo arerio gisa eta gero mertzenario gisa— hartzen duten hezkuntzak gai egiten ditu, inperioa kolapsatzen denean, eroritako hesia arrapaladan zeharkatu eta ondorengo estatuak berenganatzeko; baina dagoeneko aritu gara «aro heroiko»ko lorpen horien izaera igarokorraz. Erromatar eta Arabiar inperioetan biztanleriaren birbanaketa eta nahasketa antolatua zen azken onuradunak kristautasuna izan zen kasu batean eta Islama bestean.

Omeiatar Kalifaldiko kantonamendu militar eta muga-goarnizioak Islamaren zerbitzurako izan ziren argi eta garbi, oso *points d'appui* baliotsuak izan zirelarik ezkutuko indar espiritualen aparteko hedapenean, eta honi esker Islamak sei mendetan bere burua itxural-

datu eta, beraz, bere zeregina ere eraldatu egin zuen. Kristau-aroko zazpigarren mendean Islama Arabiatik irten zen Erromatar Inperioaren probintzietan ondorengo estatuak hartzen ari ziren gerra-talde barbaroetako baten kredo sektario bereizgarri gisa. Hamahirugarren menderako eliza unibertsal bihurtua zen, Zibilizazio Siriakoa desegitean Abbastar Kalifaldiaren kolapsoagatik ohiko artzainik gabe gelditutako ardiei babesa ematen ziena.

Zein zen Islamaren indarraren sekretua bizirik irauteko, nahiz eta bere sortzailea hil, arabiar inperiogile primitiboak erori, arabiarren ordezeko iraniarrak gainbehera joan, Abbastar Kalifaldia eraitsi eta kalifaldiaren hondakinetan, egun gutxirako, ezarri ziren ondorengo estatu barbaroak kolapsatu? Azalpena omeiatarren aroan kaliferriaren mendeko ez-arabiarren artean Islamera konbertitu zirenen esperientzia espiritualean aurkitu behar da. Islama —hasieran, batez ere, beren gizarte-interesezko arrazoiengatik hartu zutena— sustraitu egin zen haien bihotzetan, eta arabiarrek baino ere serioago hartu zuten haiek. Berezko merituen indarrez leialtasuna irabazten honela arrakasta izan zuen erlijioa ezin zen erlijiozkoak ez ziren helburuetarako etengabe ustiatu nahi izan zuten erregimen politikoeekin batera iraun edo erori. Garaipen espiritual hori are ohargarriagoa izan zen, kontuan hartuta helburu politikoetarako ustiatze hori erabat suntsigarria izan zela beste erlijio nagusi batzuentzat, eta honela Islama ere arriskuan jarri zutela ez bakarrik sortzailearen ondorengoek, baita Mahomak berak ere, Mekatik Medinara emigratu eta arrakasta handiko estatu-politikari bihurtu zenean, arrakastarik gabeko profeta nabarmenki izaten jarraitu ordez. Historiaren ironia tragikoaz, bere sortzaileak pasarazi zion arriskutik bizirik irteteko *tour de force* honetan, Islamak testigantza eman zuen, denboran zehar, Mahomak gizadiari ekarri zion erlijio-mezuaren balio espiritualaz.

Honela, kalifaldiaren historian inperiogileek kontu handiz zertutako politikak —goarnizioak eta koloniak ezarri eta biztanleen lekualdaketa eta nahasketa arautzekoak— erlijio nagusi baten ibilketa errazteko ondorio nahigabe eta ustekabekoa izan zuen; eta pareko ondorioak eragin zituen kausa berak Erromatar Inperioaren historian.

Erromatar Inperioaren lehen hiru mendeetan erlijio-eraginen eroale aktiborik nabarienak mugetako goarnizio militarrek izan ziren, eta bide horietatik lasterren zabaldu ziren erlijioak Jupiter Dolikenoren

gurtza hitita helenizatua eta jatorriz iraniarra zen Mitras jainkoaren gurtza siriako helenizatua izan ziren. Bi erlijio horien transmisioa Eufrateseko erromatar goarnizioetatik Danubio, germaniar muga, Rhin eta Britainiako Hesirainokoetaraino jarrai genezake, eta ikuskizunak gogorarazten du garai berean mahayana bere ibilaldi luzearen azken etapan, Hindustanetik Tibeteko goi-ordokiaren mendebaldeko hegala inguratuz Tarim arroaren ertzetatik Ozeano Barearen ertzetaraino, estatu unibertsal siniko baten muga zaintzen zuten goarnizio-katean zehar eurasiar estepako nomaden aurka egiten ari zen bidaia. Prozesuaren hurrengo atalean mahayanak arrakasta izan zuen mundu sinikoaren ipar-mendebaldeko marketatik barrura sartzen eta horrela barne-proletalgo sinikoaren eliza unibertsal bihurtzen eta, azkenean, mendebaldar bilakaturiko gaur egungo munduaren lau erlijio nagusi garrantzitsuenetako bat bihurtzen. Mitraismoaren eta Jupiter Dolikenoren gurtzaren patuak apalagoak ziren. Bi erlijio militar horiek, egon behar zuten bezala lotuta egonik erromatar armada inperialaren zoriari, sekula ez ziren oneratu kristau-aroko hirugarren mendearen erdian armadaren aldi bateko kolapsoak eman zien kolpetik; eta inolako garrantzi historiko iraunkorrik izan baldin bazuten, kristautasunaren aitzindari gisa izan zuten, eta kristautasunak beste ubide batetik Erromatar Inperioan zabaldu ahala beretzat egindako ibilguan ur askoren bat-egiteak sortutako erlijio-tradiziozko ur-laster gero eta handiagoan partaide gisa.

Jupiter Dolikenok eta Mitrasek Eufratesetik Tyne-ra egin zuten ipar-mendebaldeko joanaldian muga-goarnizioak euskarritzat erabili zituzten bitartean, San Paulok antzera erabili zituen Zesar eta Augustok inperioaren barrualdean jarritako koloniak. Bere lehen misio-bidaian kristautasun-haziak erein zituen Pisidiako Antiokia eta Listrako erromatar kolonietan; bigarrenean Troas, Filipo eta Korintoko erromatar kolonietan. Jakina, ez zen inola ere kolonia horietara mugatu; adibidez, bi urte eman zituen Efeson, antzinako hiri helenikoan. Hala ere, Korintok, non eman baitzituen hemezortzi hila-bete, eginkizun garrantzitsua izan zuen apostoluen osteko Elizaren bizitzan, eta pentsa genezake han kristau-komunitateak izan zuen garrantzia neurri batean Zesarrek bertan jarritako erromatar libertoen koloniaren izaera kosmopolitari zor izan zitzaiola.

Hala ere, kristau-probetxurako izan zen erromatar kolonia baten adibiderik ohargarriena ez da Korinto, Lyon baizik; zeren eta kristauta-

sunaren aurrerapena koloniatik koloniara ez baitzen geratu metropolira iritsi zenean, ezta San Paulo hil zenean ere. Kontuz aukeratutako leku batean, Rodano eta Saonaren elkarguneak sorturiko angeluan, K.a. 43an jarria, Lugdunum erromatar kolonia zen, izenez ez ezik, baita egitatez ere; eta benetan italiar jatorriko erromatar hiritarren kolonia hau, Zesarren konkistek Inperioari erantsitako lurralde gaelikoaren eskualde zabalen atalasean, Galia Comata honen bidez erromatar kultura zabaltzeko pentsatua zegoen, jadanik Galia Togatan zehar Narbonako erromatar kolonia zaharragoak zabaldua zuen bezalaxe. Lugdunum erromatar goarnizio bakarraren egonleku zen Erromaren beraren eta Rhinen artean. Are gehiago, ez zen bakarrik Galia Comata zatitu zen hiru probintzietako baten administrazio-gunea; «Hiru Galietako Kontseiluaren» topaleku ofiziala ere bazen, non hirurogei kantona-mendu edo gehiagoren ordezkariak Drusok K.a. 12an Augustori erakitako aldarearen inguruan batzartzen baitziren aldizka. Egia esan, Lugdunum berariaz sortarazi zen xede inperial garrantzitsuen zerbitzurako. Hala ere, K.o. 177rako erromatar kolonia hau kristau-elkarte baten babesleku bihurtua zen, aski bizitasunekoa sarraski bat eragiteko; eta hemen, beste edonon bezala, martirien odola Elizaren hazi izan zen. Zeren eta, ondorengo mende laurdenean, Lugdunumeko gotzain zela asmatu baitzuen Ireneok —ziur aski siriar jatorriko greziar letra-gizonak— teologia kristau katolikoaren lehenengo aurkezpen sistematikoa.

Kristautasuna Erromatar Inperioan, Islama kalifaldian eta mahayana estatu unibertsal siriakoan, guztiak baliatu ziren inperiogile sekularrek beren helburuetarako ezarri zituzten goarnizio eta koloniez; hala ere, biztanleriaren birbanaketa ordenatuen ustekabeko erlijio-ondorio horiek ez ziren izan Nabukodonosor basakeriazko asiriarr metodoetan berrerortzeak izan zituenak bezain ohargarriak; zeren eta Juda gatibu eramatean, neobabiloniar gerra-jaunak ez baitzuen soilik zegoen erlijio nagusi baten aurrerapena bultzatu, baita ia berri bat sortarazi ere.

### *Probintziak*

Estatu unibertsalen eraikitzaileek beren agindupeko eremuetan banatzen dituzten goarnizio eta koloniek bezala, eremu horien banaketatik sorturiko probintziek bi egiteko dituzte: estatu unibertsala bera gordetzea eta gizartea gordetzea, honen gorputz sozialari egitura poli-

tikoa ematen diolarik estatu unibertsalak. Erromatar Inperioaren eta Indiako Britainiar Inperioaren historiak argudia daitezke estatu unibertsal baten eraketa politikoaren bi funtzio alternatibo nagusiak hauek direla erakusteko: botere inperiogilearen nagusitasunari eustea, eta desintegratzen ari den gizartearen gorputz sozialean bere parroki estatu izandakoen suntsipen edo kolapsoagatik sortzen den hutsune politikoa betetzea.

Lehiakide menderatuak suspertzeko arriskuaren aurkako segurtasun-neurri gisa, anexiora eta zuzeneko administraziora jotzeko estatu unibertsal baten sortzaileek izaten duten tentazioa, deusezturiko parroki estatuek beren nagusi eta mendeko izandakoen buruetan sortzen jarraitzen duten leialtasun eta damuaren neurrikoa izaten da, zalantzarik gabe; eta hau, berriz, konkistaren erritmoaren eta gizarteak, zeinen eremuan ezarri baita estatu unibertsala bera, aurretiaz izandako historiaren araberakoa izaten da. Inperiogile garaileek arrazoi gehiago izaten dute beren lana bortizki desegingo ote dieten beldur izateko beren gobernua kolpe batean ezarri badute, eta gobernu hori beren erabateko burujabetasunaren estatusaz gozatzen eta abusatzen luzaroan ohitutako parroki estatuen mundu batean ezarri badute.

Mundu sinikoan, adibidez, batasun politiko iraunkorra ezarri zuen lehen aldiz Tsin-go estatu inperiogileak hamar urte baino gutxiagoko denboraldian (K.a. 230-221). Denbora-tarte labur horretan Tsin-go Cheng erregeak ordu arte bizirik zeuden beste sei erresumak eraitsi zituen eta horrela estatu unibertsal sinikoaren sortzaile bihurtu zen, Tsin She Huang-ti tituluekin. Baina ezin izan zuen hain laster desgertarazi gobernari izandakoen auto-kontzientzia politikoa eta ondorioz agertu zitzaion arazoa Sse-ma Tsien historialariak dramatizatu du Kontseilu Inperialean botatako hitzaldi-sorta baten lehiaketa moduan. Baina, zeinahi prozesuren bidez erabaki zelarik ere arazoa, egia da politika erradikala nagusitu zela, eta K.a. 221ean Tsin She Huang-tik bere estatu unibertsal ezarri berriko lurralde osoa hogeita hamasei unitate militarretan birbanatzearen alde erabaki zuela.

Urrats drastiko hau egitean enperadorea berak konkistaturiko sei parroki estaturi sistema militarista eta ez-feudala ari zen aplikatzen, jada ehun urtez nagusi izandakoa bere Tsin-go estatuan. Baina nekez espero zitekeen estatu konkistatuek hura atsegin izatea, Tsin She Huang-ti estatu unibertsalen ezarpenen historietan ezagun den

figuraren —marka-gizon konkistatzailearen— ordezkari baitzen, eta gainera greziar hiri-estatuetan laugarren mendeko hiritarrek Mazedoniako erregeak hartzen zituzten bezala hartzen baitzuen bera estatu konkistatuetakoa gobernari-klaseak, hots, ez «barbaro» bat baino askoz hobeto. Mundu sinikoaren kultur erdiguneko herriek berezko joera zuten eurak adierazgarri nagusi zituen kultura bat idolatratzeko, eta gero ahuleria horretan adore eman zieten konfuziar eskolako filosofoek; eskola horren sortzaileak Gizarte Sinikoak pairatzen zuen gizarte-gaitza tradiziozko errito eta praktikekiko axolagabekeriak eragina zela diagnostikatu zuen, eta aro feudal sinikoaren hasieran ustez izandako gizarte- eta moral-ordenara itzultzea agindu zuen erabateko sendabide gisa. Erdialegiazko iraganaldi baten kanonizazio horrek zirrara txikia eragin zuen Tsin-go gobernari eta herriarengan, eta landu gabeko marka-estatu honen erakundeen bat-bateko ezarpenak arrangura bortitza sortu zuen, errepresiozko neurri gehiago hartzea izan zelarik Tsin She Huang-tiren erantzun bakarra.

Horrelako politika leherketarako gonbita zen, eta K.a. 210ean enperadorea hil ondoren matxinada orokorra gertatu zen, Tsin Inperioaren hiriburua hartu zuelarik buruzagi matxinatuetakoa batek, Liu Pang-ek; hala ere, estatu unibertsal sinikoa sortu zuenaren lan iraultzailearen aurkako erreakzio bortitzaren garaipen horrek ez zuen, azkenean, *ancien régime* berriro ezartzea ekarri. Liu Pang ez zen ondasunez gabeturiko noblezia feudaleko kide, nekazari baizik, eta arrakasta izan zuen erregimen iraunkor bat sortzen, ez baitzen ahalegindu berriro ezartzen ez ordena feudal anakronikoa, ezta Tsin She Huang-tiren ordezkari iraultzailea ere. Haren politika pixkanaka bere bidea egitea izan zen, bere aurrekoaren zesarar helmugarantz augustotar adostasun-itxuraren bidez iristeko.

Tsin botereak K.a. 207an izandako kolapsoaren eta Liu Pang K.a. 202an mundu sinikoaren nagusi bakartzat orokorki onartu bitarteko tarte laburrean, *ancien régime* berriro ezartzeko ahalegina egin zuen beste buruzagi errebelde batek, Hsiang Yü-k, eta ezinezkoa zela frogatu zen. Porrot horren ondoren, Liu Pang mundu sinikoko nagusi bakar bihurtu zenean, gehien merezi zuten ordezkari feudoak ematea izan zen lehen ekintza, eta Hsiang Yü-ren erregimenean halako feudoak zeuzkatenak bere hartan utzi zituen, berarekin ados jartzeko moldatu ziren neurrian. Baina jeneral feudodunak banan-banan degra-



datu eta hilarazi egin zituen, eta beste feudodun batzuk sarri-sarri feudo batetik bestera aldatzen zituen eta berehala kentzen zituen, beren aldi bateko mendekoekin harreman estu arriskutsuak ezartzeko aukerarik eman gabe. Bitartean Liu Pang-ek neurri eraginkorrak hartu zituen botere inperialaren nagusitasunari eutsi eta areagotzeko. Azken batean, Tsin She Huang-tiren ideala —estatu unibertsal bat, toki-administrazioko unitate artifizialki antolatuen hierarkiaren bidez erditik kontrolatua— gauzatu egin zen berriro ere, Tsin She Huang-tiren heriotzatik ehun urtera; eta oraingoan lorpena behin betikoa izan zen, Liu Pang eta ondorengoen fabiar politikak denbora eman baitzion gobernu inperialari giza tresna sortzeko, horren faltaz porrot egin zuelarik lehenengo Tsin enperadorearen egitasmo handiak.

Gobernu zentralizatu batek ezin du jardun funtzionario profesionalik gabe, eta Liu Pangek sorturiko Han dinastiak arrakasta izan zuen funtzionariotza eraginkor eta onargarria eratzen, ituna egin baitzuen konfuziar filosofi eskolarekin: konfuziar filosofoak jaiotzazko aristokrazia militar zahar eta estuarekin zuten itunetik aldenarazi zituen, oinarri berri eta zabalagoko aristokraziari —konfuziar jakintzan zuten gaitasunaren arabera neurtutako kultur merituan oinarrituari— ireki ziolarik herri-administrazioa. Hain pixkanaka eta hain trebetasun handiz egin zen trantsizioa, ezen aristokrazia berriak aristokrazia zaharraren izen historikoa —*chun tze*— heredatu baitzuen, argi eta garbi batere aitortu gabe garrantzizko gizarte- eta politika-iraultza ari zela gertatzen.

Bere lorpenaren iraunkortasunagatik neurtuta, Han dinastiaren sortzailea estatu unibertsal bat abian jarri duten estatu-politikari guztien arteko handientzat har daiteke. Mendebaldeko mundua, antzeko baina hain ohargarria ez den erromatar Augustoren lorpenarekin ohitua, historia sinikoan adituak direnengandik kanpo, apenas ohartu den Liu Pangen existentzia historikoaz. Etorkizuneko gizarte ekumenikoren bateko historialariek, iraganeko zibilizazio guztietan sustrai historikoekin, proportzioaren zentzu hobe erakutsiko dute ziur aski.

Estatu unibertsal sinikoan probintzi antolaketaren esanahia aztertu dugularik, ez dugu lekurik beste adibide batzuk aztertzeko. Berehala ekingo diogu probintzi antolaketa horiek, hasieran behintzat berorien onuradun izateko pentsaturik ez zeudenei, oharkabean emandako zerbitzuak aztertzeari; eta honetan ere berriro adibide bakar

batera mugatuko gara, Kristau Eliza Erromatar Inperioaren probintzi antolaketaz bere probetxurako nola baliatu zen gogoratzera, alegia.

Bere eliz gorpuztea eraikitzean, Eliza gizarte-gorputz helenikoaren eta erromatar gorputz politikoaren zelula ziren hiri-estatuez baliatu zen, eta, Zibilizazio Helenikoaren tradizioak pixkanaka desagertu ahala, hiriak kristau-apezpiku baten egoitza zen herria<sup>10</sup> esan nahi izan zuen, eta ez bere autogobernu zibilerako erakundeak zeuzkan eta erromatar errepublikako udalerri gisa gutuna hartutako herria. Toki-apezpiku bat, bere aulkia erromatar probintzia dioklezianiko baten erdigune zuena, beren nagusitzat onartu zuten probintzia bereko beste apezpikuek. Metropolitano edo artzapezpiku horiek, bestalde, sistema dioklezianikoan diozesi deitzen ziren probintzi multzo horietako baten administrazio-erdigune zen aulkiko apezpikua onartu zuten beren primatu gisa; diozesi hitza Elizak hartu zuen, baina apezpiku bakar baten eskumenari aplikatu zion. Apezpikuek, metropolitanoek eta primatuek leialtasuna zieten eskualdeko patriarkei, hierarkikoki pretoriar prefektu dioklezianikoen parekoei. Ekialdeko prefektura dioklezianikoa azkenean zatitu egin zen Alexandria, Jerusalem, Antiokia eta Konstantinoplako lau patriarka-hirien artean, eta beste hiru prefekturak Erromako patriarka-hiri bakar eta ikaragarri zabal baina askoz biztanle gutxiagokoan elkartu ziren.

Kristau Elizaren lurralde-antolaketa hori ez zuen inongo enperadorek sortu; Elizak berak eratu zuen, Eliza ofizialki onartu gabea eta aldika jazarritako erakundea zen garaian. Erregimen sekularrarekiko burujabetasun orijinal horren indarrez, zeinen probintzi antolaketa egokitu baitzuen bere helburuetarako, eliz egiturak bizirik iraun ahal izan zuen baliokide sekularra kolapsatu arren. Galian, non kolo-ka zegoen erregimen inperial bat jende gorenaren aldizkako eskualde-batzarrak erakundetuz tokian tokiko laguntzaren oinarri berriaren gainean bere burua birgaitzen saiatua baitzen, Elizak, Inperioa desagertu ondoren, aurrekari sekular hartatik hartu zuen eredia eta apezpikuen eskualde-batzarretara dei egiten hasi zen.

Erdi Aroko Frantziako eliz mapan, adibidez, apezpiku-hirien mosaikoan Galia Togatako hiri-estatuen eta Galia Comatako kantonamenduen mugak bereiz ditzake historialariak, bitartean artzapezpiku-hiriekin lau augustotar probintzien —Narbonensis, Aquitania, Lugdunensis eta Belgica-ren— azpibanaketa dioklezianikoaren eske-

ma gorde zutelarik. Bost patriarka-hiriak oraindik ere baziren guztiak —lau Ekialdeko esku ortodoxoetan eta bat Mendebaldeko esku kato-likoetan— lerro hauek idazten ari nintzen garaian; eta, beraien barru-  
tien eremuak eta eliz mendekoen banaketa eta nazionalitateak aldake-  
ta ikaragarriak jasan arren Kaltzedonian (K.o. 451) egin zen  
Laugarren Kontzilio Ekumenikotik igarotako hamabost mendeetan,  
beraien galera mingarriak orekatu egin dituzte irabaziek, patriarka-  
-hiriak eratu ziren garaian imajinatu ere ezinezkoek.

### *Hiriburuak*

Estatu unibertsaleko gobernu zentralen egoitzek denboran zehar beren kokalekuak aldatzeko joera garbia erakusten dute. Inperiogileak eurei komeni zaien gobernu-egoitza batetik hasten dira normalean gobernatzen beren agindupeko lurak: beren aberrian eza-  
rritako hiriburutik (adib., Erroma) edo leku berri batetik, menderatuta-  
ko lurraldeen ertzean, erraza bada inperiogilearen jaioterritik hara iris-  
tea (adib., Kalkuta). Baina, denborak aurrera egin ahala, administrazio  
inperialaren esperientziak edo gertaeren presioak hasierako inperio-  
gileak edo haien ondorengoak —aldi bateko kolapsoaren ondoren haien  
inperioa hartu dutenak— leku berriren bat hartzera bultzatzen dituzte  
komenigarri delako, ez hasierako botere inperiogilearentzat, inperio  
osoarentzat baizik. Ikuspegi ekumeniko berri honek, jakina, hainbat  
kokaleku berri iradokiko ditu egoeraren arabera. Irizpide nagusia  
administrazio-komenentzia bada, komunikabide onak dituen erdiko  
tokiren bat aukeratuko da ziur aski. Irizpide nagusia erasotzaileraren  
baten aurkako defentsa bada, mehatxaturiko mugan indar armatuak  
zabaltzeko egokia den toki bat izango da ziur aski aukeraturikoa.

Estatu unibertsalen sortzaileak beti ez direla jatorri berekoak  
ikusitako dugu. Batzuetan gizarte batekiko atzerritar den zibilizazioaren  
ordezkari izaten dira, gizarte horren premia politikoak betetzen ari  
direlarik beraiek. Beste batzuetan barbaroak izaten dira, zibilizazio  
batetik, zeinetarantz grabitatzen baitute beraiek, moralki alienatuak:  
beste era batera esanda, kanpo-proletalgo bat. Batzuetan, sarri bene-  
tan, marka-gizonak dira, kanpoko barbaroen aurka mugak babestuz  
zibilizazio bateko kide izateko eskubidea errebindikatu dutenak,  
beren gizartearen beraren barrualdearen aurka armak zuzendu eta  
estatu unibertsal batez hornitu aurretik. Azkenik —eta badirudi kasu

hauek oso bakanak direla— baliteke ez atzerritarrek, ez barbaroak, ez marka-gizonak izatea, «metropolitarrak» baizik, delako gizarte horren barrukoak, alegia.

Atzerritar edo barbaro edo marka-gizonek sorturiko estatu unibertsalean hiriburuak mugatik erdialderantz mugitzeko joera izaten du, nahiz eta aipaturiko azken kasuan jarrai dezakeen mugan marka-gizonek oraindik beren hasierako egitekoa zertu behar dutelako. «Metropolitarrak» sorturiko estatu unibertsalean, hiriburua berez erdian izango da hasieran, nahiz eta erretira daitekeen mugara alde jakin batetiko eraso-mehatxua gobernuaren ardura kezagarriena bihurtzen bada. Orain, hiriburuaren kokapen eta leku-aldaketa arautzen dituzten arauen adibideak eskainiko ditugu.

Indiako Britainiar Inperioa da atzerritarren inperiogintzaren adibiderik nabarmenenetakoa. Itsasoz gaindi Indiara iritsi eta bertakoak gobernatzea amets egin baino askoz ere lehenago merkataritzan hasi zirelarik, ingelesek merkataritza-baseak ezarri zituzten Bonbay, Madras eta Kalkutan. Azken hau lehenengo hiriburu politiko bihurtu zen, Ekialdeko Indiako Konpainiak aginte politikoa ezarri baitzuen bi probintzia aberatsen gain Kalkutako hinterland-ean, beste inon pareko erdiespenik egin baino belaunaldi oso bat lehenago. Kalkutak britainiar Indiaren hiriburu izaten jarraitu zuen ehun urte baino gehiagoz Wellesley-k (gobernari nagusi K.o. 1798-1805 bitartean) India osoa britainiarren gobernupean jartzeko plana asmatu ondoren, eta berrogeita hamar urte baino gehiago ere bai plan hori bete ostean. Baina politikoki baturiko azpi-kontinente baten grabitate-indarra azkenean aski indartsua gertatu zen britainiar Indiako gobernu zentralaren egoitza Kalkutatik Delhira eramateko, berezko lekua Indus eta Ganges arroak barruan zeuzkan inperioarentzat.

Jakina, Delhi ez zen berezko lekua bakarrik; historikoa ere bazen, K.o. 1628tik aurrera mogolen hiriburu izan baitzen. Mogolek, britainiarrek bezala, atzerriko estatu unibertsalaz hornitu zuten India, bertara, ez itsasoz gaindi, baizik eta ipar-mendebaldeko mugatik sartu zirelarik. Britainiar jarraibideari aurrea hartu izan baliote, lehen hiriburua Kabul en ezarriko zuket en. Ez zuten horrela egin, haien historiaren azterketa zehatzak azalduko lituzkeen arrazoiengatik. Delhi ez zen haien lehenengo hiriburua, baina aurrekoa ere, Agra, antzeratsu, erdialdeko tokia zen.

Espainiar Amerikari begiratu bat ematen badiogu, Erdialdeko Amerikako inperiogileek beren hiriburua behin eta betiko Tenochtitlan-en (Mexiko hirian) —«Delhi» batean— egin zuten, beren sarrerako portuaren, Veracruz-en —«Kalkuta» baten— erreklamazio posibleak baztertuz. Perun kontrako bideari jarraitu zioten, eta hiriburua itsasertzean Liman egin zuten, Cuzcon —bar ruko goi-ordokian zegoen inken hiriburu zaharrean— egin orde. Azalpena, zalan-tzarik gabe, honetan aurkitu behar da: Ozeano Barearen ertzeko lurrak emankor eta garrantzitsuak ziren Perun, baina ez atlantiar itsasertze-koak Mexikon.

Osmanliarrek, Ekialdeko Gizarte Kristau Ortodoxoa estatu unibertsalaz hornitu zuten atzerritarrek, batetik bestera aldaturiko hiriburuak izan zituzten, lehenengo Asian eta gero Europan, azkenean beren aurreko bizantziarren leku paregabean kokatu zuten arte.

Kublai Khan mongolak (K.o. 1259-94 bitartean erreinatu zuen), Ekialde Urruneko Gizartearen eremu kontinental osoaren konkista lortu zuenean, hiriburua Mongoliako Karakorum-etik Txinako Pekinera aldatu zuen. Baina Kublaren buruak aldaketa hori agindu arren, bihotza etxeminez izan zuen arbasoen bazkalekuez oroitzuz, eta erditxinataturiko estatu-politikari mongol hark amore eman zien sentimendu nomada damugabeei eta bigarren mailako egoitza bat eraiki zuen Chung-tu-n, Mongoliako goi-ordokiaren hego-ekialdeko ertzean zegoen toki batean, non baitzegoen estepa hiri inperial berritik hurbilen. Baina Pekinek gobernuaren erdigune izaten jarraitu zuen, eta Chung-tu-k oporretako egoitza izaten, nahiz eta hor ere batzuetan estatu-arazoak aztertu, zalantzarik gabe.

«Xanadun atsegin-etxe ikaragarria  
egiteko agindu zuen Kublai Khanek».

Agian Chung-tu Simla-rekin pareka genezake, zeren eta, Kublaik bere estepa amesten bazuen, britainiar erregeordeek klima gozoa amesten baitzuten. Chung-tu Balmoral-ekin ere pareka genezake, Victoria erreginaren bihotza Highlands-etan zegoela bezain nabaria baita Kublarena estepan zegoela. Are urrutirago ere joan gaitezke eta hemeretzigarren mendeko txinatar bidaiari bat imajinatu Balmoraleko xarmak deskribatzen, hogeita bosgarren mendeko txinatar poeta bat Txinako olerki-zati magiko batean Victoria erregina eta

haren «plazer-etxe izugarria» goresten inspiratzeko aski gogo-berotasunez.

Seleuko Nikator, Alexandro Handiaren inperio zabal eta iragankorraren ondorengo estatuetako baten sortzailea, bere hiriburuaren kokalekuari buruz bi pentsaera izan zituen inperiogile baten kasua da, bere gurari inperialen norabideaz ere bi pentsaera izan baitzituen. Hasteko, Akemenestar Inperioa izandakoan babiloniar probintzia aberatsa bereganatzeari ekin zion su eta gar, eta bai lortu ere, eta hiriburu, Seleuzia, Tigrisen eskuineko ertzean jarri zuen, Eufratesera gehien hurbiltzen den puntuan. Lekua oso ondo aukeratua zegoen eta Seleuzidak hiri handi izaten jarraitu zuen eta kultura helenikoaren gune garrantzitsu ondorengo bost mende baino gehiagotan. Hala ere, sortzaileak, are mendebalderago mazedoniar jeneral etsaien bizkar izandako abentura arrakastatsuek bultzaturik, mediterranear mundura aldatu zuen bere interesgunea eta hiriburu nagusia Siriako Antiokian ezarri zuen Orontesen ahotik hogeit hamar mila<sup>11</sup>. Eraitza zera izan zen, haren ondorengoek indarra alferrik galdu zutela Egiptoko ptolomearren eta Ekialdeko Mediterraneoko beste botere batzuen aurka gerran eta beren babiloniar eremuak galdu zituztela partiarren mesedetan.

Goiko adibide horiek guztiak atzerriko zibilizazioen ordezkariak sorturiko inperioetatik hartutakoak dira. Orain barbaroek sortutako inperioetako hiriburuaren kokapena aztertzeari ekingo diogu.

Pertsiar barbaroen sortetia —horien konkistek eman zioten Gizarte Siriakoari estatu unibertsala Akemenestar Inperioaren forman— menditsua eta idorra zen, eta giza harremanetako bideetatik urruti zegoen. Herodotok bere lana bukatzeko kontatzen duen istorioaren arabera, Ziro Handiak, Akemenestar Inperioa sortu zuenak, gaitzetsi egin zuen pertsiar herria, munduaren jabe bihurtu zenean, goi-lurretako sortetia latza utzi eta bere esku zituen herrialde atseginagotako batean ezartzeko iradokizuna. Istorio polita da, eta dagoeneko erabili dugu Azterlan honetan lehenago, giza ekimena akuilatzeke egoera latzek duten nagusitasuna argitzeke. Egitate historikoa zera da, orde: Ziro Handiak mediar erregea eraitsi baino ehun urte baino lehenagotik, haren akemenestar aurrekoetako batek bereganatu zuen lehenengo beheko lur-zatira aldatu zuela gobernu-egoitza arbasoen goi-lurretatik. Leku hari Ansan deitu zitzaion, eta Susa inguruan zegoen nonbait, kokapen zehatza oraindik ez badakigu ere.

Akemenestar Inperioa ezarri ondoren, gobernu-egoitza urtero aldatu zen, urtaroaren arabera, klima desberdineko hiriburuen artean; baina Pertsepolis, Ekbatana eta Susa (Itun Zaharreko Shushan) ere, oro har, zeremonia eta sentimenduaren hiriburutzat har daitezke, eta negozio-xedeetarako geografi komenentziak Babilonian biltzen zituen inperioko arazoak, behe-lurretako bere aurrekoaren hiriburuan.

Iraniar goi-ordokiko pertsiar inperiogileek mundu siriakoari hasieran emandako estatu unibertsala, azkenean, ia mila urteko sarraldi helenikoaren ondoren, arabiar goi-ordokiaren ertzeko hijazi barba-roek berreraiki zutenean, historia errepikatu egin zen indartsu. Hijazeko oasi-estatu batean elkarren artean ados ez zeuden oligarken intuizioari esker —komunitate lehiakide bateko profeta errefusatu gonbidatu zuten Mekara haien artean eroso sentitu eta beraien buruzagi izaten saia zedin, beren kabuz ezin lortu izan zuten adostasuna ekarriko zien itxaropenez—, *hejira*-tik hogeita hamar urtera, Siria eta Egiptoko erromatar eremu izandakoak ez ezik, Sasaniar Inperio izandako eremu osoa ere hartzen zuen inperio baten hiriburu bihurtu zen Yathrib. Hiri horren eskubidea gobernuaren egoitza izaten jarraitzeko zera zen: urrutiko oasi-estatu horretatik sortu eta garatu zela arabiar mundu-inperio musulmana, jainko-eskuhartzea biziki iradokitzen zuen lastertasunez, eta Madinat-an-Nabi —«Profetaren Hiri»— gisa sakratua izan zen. Medinak jarraitu zuen *de jure* kaliferriaren hiriburu izaten, behintzat Mansur abbastar kalifak Bagdad sortu zuen arte K.o. 792an; baina, data hura baino ehun urte baino lehenago, omeiatar kalifek hiriburua *de facto* Damaskora aldatu zuten.

Pasa gaitezen orain marka-gizonek sorturiko estatu unibertsalen kasuetara. Zibilizazio Egipziakoaren historia luzean, gutxienez hiru aldiz eman edo ezarri zioten gizarteari batasun politikoa Behe Niloko goren aldeetako marka-gizonek, eta okasio bakoitzean marka bat estatu unibertsal bihurtuz handitu ondoren (nahiz eta hirugarren kasuan, ez berehala) hiriburua aldatu egin zuten ibaian goian zegoen leku batetik, Tebas (Luxor) edo baliokidetik, biztanleriaren multzo nagusiarentzat iristerrazagoa zen leku batera: Menfis (Kairo) edo baliokidera lehenengo bi aukeretan, eta hirugarrenean mugako gotorleku batera, Niloko Deltaren ipar-ekialdeko izkina militarki arriskutsura.

Historia helenikoan Erromaren zoriak Egiptoko Tebasena gogorarazten du. Erromak, galiarren aurka, mundu helenikoaren zain-

tza etruskoen eskutik hartu zuenean erakutsi zuen bere gaitasuna, Tebasek, Nubiako barbaroen aurka, Niloko Lehen Urjauziaren zaintza Al-Kab-engandik hartu zuenean erakutsi zuen bezalaxe. Tebasek bezala, gero Erromak barrurantz zuzendu zituen armak eta batasun politikoa ezarri zion Gizarte Helenikoari, bera haren atal zelarik, eta berak sorturiko inperioaren hiriburutzari eutsi zion mende askotan, nahiz eta pentsa daitekeen, Marko Antoniok bere bideari jarraitu izan balio eta Aktium-go gudua beste era batera gertatu izan balitz, bere konkista-sail nagusiaren osatzea ikusi zuen belauldi berean, hiriburu gisa zuen posizioa galdu egingo zuela, Alexandriara pasatzeko. Hiru mende geroago, hala ere, hemen aipatu ezin diren hainbat zirkunstantziak orain bizkor endekatzen ari zen inperioaren hiriburu askoz gorago zegoen Konstantinoplara aldatzea ekarri zuten. Bosforoko hiriak etorkizun luzea zeukan aurrean zenbait estatu unibertsalen hiriburu gisa. Tiber gaineko hiriak, Medinak bezala, bere garaian erlijio nagusi baten Hiri Santu izateko papera onartu behar izan zuen.

Konstantinopla bigarren Erroma bat bazen, Moskuk, marxismoaren aurreko garaian, sarri errebindikatu zuen hirugarrena izatea. Orain Errusiako Zibilizazio Kristau Ortodoxoaren estatu unibertsalean hiriburuen arteko lehia azter genezake. Moskuk, Erromak bezala, barbaroen aurkako marka-estatu baten hiriburu gisa hasi zuen bere ibilaldia. Nomada mongolen mehatxuak atzera egin ahala, Moskuk Mendebaldeko Kristandadean zeuzkan auzokorik hurbilenean —poloniar eta lituanien— erasoei aurre egin eta errefusatu egin behar izan zituen. Bere etorkizuna hiriburu gisa ziurtatua zirudien garai batean, hala ere, bat-batean hori gabe utzi zuen mendebaldar bihurturiko tsarraren handinahi aseeginak, bere sorkuntza berriaren —San Petersburgoren— mesedetan, honen oinarriak, Suediari konkistaturiko lurraldean, K.o. 1703an jarri zirelarik. Pedro Handiak, oso barrualdetik bere iritiz teknologikoki askoz mundu argituagoa zen maitagarri-mundura leiho magikoak zabaltzen zituen toki batera aldatzean gobernu-egoitza, Seleuko Nikator gogorarazten du, hura ere urrutiko «ekialdeko» Seleuziatik Orontesko Antiokiara aldatu baitzen. Baina, beste desberdintasun batzuen artean, hau ere ohartzekoa da. Bere Seleuzia bertan behera utzi eta Antiokia hartzean, Seleuko, atzerritar inperiogilea Hego-mendebaldeko Asian, bere sorkuntza berri bat baz-



tertzen ari zen, nazio-sentimendu indartsurik atxikita ez zeukana, Mediterraneotik egun labur bateko bidaialdira zegoen leku baten alde, mundu helenikoaren bihotzetik askoz hurbilago, alegia. Egia esateko, bere etxe alderantz egiten ari zen. Errusiaren kasuan, ordea, gogoeta sentimental guztiak Mosku abandonatuaren alde zeuden, eta Mendebalderanzko ur-bide hotza, zeinetarantz zabaldu baitziren Pedroren hiriburu esperimental berriaren leihoak, mundu helenikoko Mediterraneoaren baliokide kaskarra besterik ez zen. San Petersburgok bere posizioari eutsi zion berrehun urtez. Gero, iraultza komunistarekin, Mosku lehengora etorri zen berriro, eta San Pedroren hiriak Leningrado izen berriarekin kontsolatu behar izan zuen<sup>12</sup>. Bitxia da ohartzea laugarren Erroma horren patua, nomenklatura kontuan, lehenengo haren alderantzizkoa gertatu dela. Erromak estatu unibertsal baten hiriburu izateari utzi zionean, Cavour eta Mussolini gorabehera, oraindik den horretan bihurtzeko bidean zegoen: San Pedroren *burgo* edo San Pedroren hiri santua.

Horrelakoak izan dira historiako estatu unibertsal batzuetako gobernariak izan dituzten zioak beren hiriburuak lekutzerakoan. Gobernari eta hauen inguruko gutxiengo menderatzaileez bestelako elementuek hiriburu horietaz egin dituzten nahigabeko erabilerak aztertzeari ekitean, gordinenarekin hasiko gara, hots, hiriaren hartze eta arpilatzearekin. Istorio zahar baten arabera, Blücher landa-mariskalak, soilik balentria militarretan aberatsa zen botere baten soldaduak, neurgailu horrekin neurtu omen zuen Londresen erabilera, bertako kalerik aberatsenetako batean aurrera igaro zenean, Waterloo-ko guduaren ondoren erregeordearen gonbidatu zelarik. «Hau harrapakina!» oihu egin omen zuen. Hiriburuen arpilaketan zerrenda luzea egin liteke eta, harrapari garaileentzako emaitzak kalkulatz gero, gehienetan gargantuar festa horien ondoren betekada digerigaitzak etorri direla aurkituko genuke. K.a. laugarren mendeko Gizarte Helenikoa eta kristau-aroa hamaseigarren mendeko Mendebaldeko Gizarte ez ziren bakarrik lotsatuta geratu beren apostolu militanteek zertutako basakeriagatik; horrek suntsitu ere egin zituen. Zeren, barbaro primitiboek zigor handirik gabe egin zezaketen krimen bat ez baita zigorrik gabe geratzen diru-ekonomiara iritsi diren gizarteetan. Hego-mendebaldeko Asiako altxor-etxeetan lehenengoez eta Ameriketakoetan gerokoek egindako harrapaketak bat-batean urre edo zilar pila handia

ipini zuen zirkulazioan eta honek inflazio hondagarria eragin zuen, eta mazedoniar arpilatzaileek Pertsepolisen eta espainiar arpilatzaileek Cuzcon egindako bekatuak joniarrak eskulangileek ordaindu zituzten Zikladetan eta nekazari alemanek Suabian.

Pasa gaitezen orain hain zikinak ez diren gaietara. Estatu unibertsalen hiriburuak estazio egokiak izan ziren, noski, mota guztietako kultur eraginak zabaltzeko. Erlijio nagusiek erabilgarri aurkitu zituzten beren xederako. Judatik Nabukodonosorrek deserritutako babiloniar gatibualdian, sortzen ari zen erlijio nagusi batentzat inku-bagailua izan zen hiriburua, eta han ikuspegi estuaren ordez ikuspegi ekumenikoa hartuz bere arima aurkitu zuen.

Estatu unibertsal baten gobernu-egoitza benetan lur ona da espirituzko haziak erortzeko, horrelako hiri bat mundu zabalaren epitomea baita eskala txikian. Bere harresiek klase guztietako eta nazio askotako ordezkariak biltzen dituzte, baita hizkuntza askotako hitzuna ere, eta bere ateak norabide guztietan doazen errepedietara zabaltzen dira. Misiolari berak egun berean aldiri pobreak eta jauregian predika dezake; eta, enperadorearen borondatea bereganatzen badu, administrazio inperialaren makina ahaltsua bere esku jartzea espero izan dezake. Nehemiasek Susan enperadorearen etxean zuen posizioak aukera eman zion Artaxerxes I.aren babesa lortzeko Jerusalemgo tenplu-estatuarentzat; eta kristau-aroan hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetan Agrako eta Pekingoko gorte inperialetan ezartzea bilatu eta lortu zuten aita jesuitek India eta Txina katolizismoarentzat irabaztea amesten zuten, Nehemiasena bezalako estrategiaz.

Hiriburuaren eginkizun historikoa epe luzera erlijioaren arloan aurkitzen da sarri. Lerro hauek idazteko garaian Luoyang-go hiri inperial sinikoa gizadiaren patuetan oraindik zertzen ari zen eragin indartsua ez zen Ekialde Urruneko Zhou dinastiaren eta gero Ondorengo Han dinastiaren egoitza gisa iraganean izandako paper politikoaren ondorio. Politikoki Luoyang «bat zetorren Ninive eta Tiorekin»; baina oraindik bere eragin indartsua zertzen ari zen, mahayanaren haziak kultur ingurune sinikora girotzeko hazitoki izan zelako, eta honela mundu sinikoan zabal erein ahal izan zirelako. Karakorum-eko leku suntsitua ere oraindik ikustezin baina bizirik zegoen, zeren eta, kristau-aroan hamahirugarren mendean estepako hiri iragankor horren ibilketa politiko meteorikoaren nahigabeko ondorio gisa,

Mendebalde erromatar katolikoko misiolariak aurrez aurre ipini baitzituen nestorianismoaren Erdialdeko Asiako ordezkariekin eta lamaismoaren Tibeteko ordezkariekin.

Gugandik hurbilago etortzeko, garbi zegoen 1952an Pedro eta Paulo, ez Remulo eta Remo edo Augusto, zirela Erromaren «betiereko» esanahiaren autoreak; eta Konstantinoplak, bigarren Erroma kristauak, estatu unibertsal baten hiriburu gisa bere adierazpen guztiak gainditu ondoren, oraindik munduan zertzen ari zen eragina patriarkahiri izateari zor zion, Ekialdeko beste eliza ortodoxoen —baita Errusiako elizaren— buruek *primus inter pares*-tzat onartua oraindik.

### *Hizkuntza eta idazkera ofizialak*

Ia ziurtzat eman daiteke estatu unibertsal batek buru-komunikaziorako baliabide ofizialez hornituko zuela bere burua, eta horien artean sartuko direla ez *viva voce* transmitituriko hizkuntzak bakarrik, baita ikus-erregistrozko sistemaren bat ere. Ia kasu guztietan ikus-erregistrozko sistemak hizkuntza ofizialaren notazio grafikoaren forma hartu zuen; eta inkek, *quipus*-aren hitz gabeko semantikaz harantzago inolako notazio-sistemen laguntzarik gabe, ia totalitarioa zen erregimenari eusten arrakasta izan zuten arren, hau aparteko *tour de force* bat bezala hartu behar da.

Izan dira kasuak hizkuntza bakar batek eta idazkera bakar batek lehiakide posible guztiak baztertu dituztenekoak estatu unibertsala ezarri aurretik. «Inperio Ertain» egipziakoan, adibidez, hizkuntza eta idazkerak egiptoera klasikoa eta karaktere hieroglifikoak izan behar zuten nahitaez; Japonian shogungoaren mende, hizkuntzak japoniera eta idazkerak ordurako Japonian onartuta zeuden txinatar karaktereen aukeraketa eta erabilera berezi bat izan behar zuten; Errusiar Inperioan, errusiera eta greziar alfabetoaren eslaviar bertsioaren errusiar aldaera handia. Egoera sinple hau ez zen, hala ere, ohikoa izan. Sarriagotan inperiogileek, hizkuntza eta idazkera ofizialaren gai honetan, ez zuten aurrean berretsi beharreko errealitate zertu bat aurkitzen, zenbait hautagai lehiakideren artean egin beharreko aukera zail bat baizik.

Egoera hauetan inperiogile gehienek beren ama-hizkuntzari eman zioten erabilera ofiziala, eta, hizkuntza horrek ez bazuen ordu arte idazkerarik izan, mailegatu edo asmatu egin zuten xede horreta-

rako. Egia esan, kasu batzuetan inperiogileek, beren ama-hizkuntza-  
ren gainetik, beren agintepeko lurretan *lingua franca* gisara jada era-  
biltzen zen beste hizkuntza baten alde egin dute, edo hizkuntza klasi-  
ko berpiztu baten alde ere bai. Hala ere, praktikarik ohikoena zera  
izan da, inperiogileek beren nazio-hizkuntza eta idazkerari ematea  
erabilera ofiziala, baina monopoliorik gabe.

Proposizio orokor horiek azterketa enpirikoak argituko ditu  
orain.

Mundu sinikoan ohi bezalako era gogorrean konpondu zuen  
arazoa Tsin She Huang-tik. Estatu unibertsal sinikoaren sortzaileak  
txinatar karaktereen bertsioari, bere arbasoen Tsin-go estatuan ofi-  
zialki erabiliari, eman zion erabilera eskusiboa, eta horrela arrakasta  
izan zuen joera bat gerarazten, aurreko arazoaldiaren bukaerarako  
urruti joandako joera bat: estatu borrokalari bakoitzak tokian tokiko  
idazkera garatzea, muga estu horietaz kanpoko letra-gizonentzat neu-  
rri bateraino bakarrik ulargarria. Karaktere sinikoak esanahiak dauz-  
katen «ideogramak» zirenez, eta ez hotsak adierazten dituzten «fone-  
mak», Tsin She Huang-tiren egintzaren ondorioa Gizarte Sinikoa  
ikus-hizkuntza uniforme batez hornitzea izan zen, eta honek, mintzai-  
rak elkar ulertu ezinezko dialektotan banatu arren, komunikazio eku-  
menikoaren baliabide izaten jarraituko zuen irakurtzen edo idazten  
ikas zezakeen gutxiengo txikiarentzat, Mendebaldeko mundu moder-  
noan zenbaki arabikoek paperean esanahi berberak zituzten bezalaxe,  
zenbakiak *viva voce* izen desberdinez deitzen zituzten herrientzat.  
Hala ere, paralelotasun horrek adierazten duen bezala, Tsin She  
Huang-tiren karaktere sinikoen estandarizazioa ez zen aski izango  
hizkuntz babel bat eragozteko, beste indar batzuk ez balira lanean ari  
izan uniformetasunaren alde, hitz egiterakoan nahiz idazterakoan.

Karaktere sinikoen estandarizazioari aurrea hartu ziona estatu  
unibertsal minoikoaren sortzaile ezezaguna izan zen agian. Azterlan  
hau idazteko garaian<sup>13</sup> mundu minoikoan erabiltzen ziren idazkereta-  
ko bakar bat ere dezifratuta ez egon arren, haien sekuentziak eraberri-  
tze iraultzailea frogatzen zuen idazteko artean. Minoiko Ertain II-tik  
Minoiko Ertain III-rako trantsizioan bi idazkera hieroglifikoko banatu,  
aurreko denboraldiaren hasieran aldi berean agertu zirenak, bat-bate-  
an eta erabat ordeztu zituen beste idazkera lineal batek (A Linealak)<sup>14</sup>.  
Gizarte Siriakoaren historian badakigu Tsin She Huang-tik parekidea

izan zuela Abd al-Malik omeiatar kalifarengan (K.o. 685-705 artean erreinatu zuen), hizkuntza eta idazkera arabikoaren ordeztu greziera ezarri baitzuen arabiar kaliferrian erromatar izandako probintzietan, eta pehleviera sasaniar izandako probintzietan, agiri publikoak egiteko baliabide ofizial gisa.

Orain, hainbat hizkuntza eta idazkera ofizialekin, inperiogilearenak berarenak barne, estatu unibertsal bat hornitzeko maizagoa den praktikaren adibide batzuk aztertuko ditugu.

Indiako Britainiar Inperioan inperiogileen ama-hizkuntza ingelesa xede batzuetarako pertsierak ordeztu zuen, hau izanik mogolek ondare gisa utzitako hizkuntza ofiziala. K.o. 1829an, adibidez, Indiako britainiar gobernuak ingelesa bihurtu zuen diplomazi korrespondentziarako bitarteko eta 1835ean baita goi-mailako hezkuntzarako ere. Baina, 1837an, pertsierari britainiar Indian estatus ofiziala kentzeko azken urratsa egin zenean, Indiako britainiar gobernuak ez zuen ingelesa sartu aurrez pertsierak betetako beste xede guztietarako. Epailatza eta zerga-prozeduretan —nazionalitate, kasta eta klase orotako indiar guztiei pertsonalki zegozkien gaietan— pertsieraren ordeztu ez zen ingelesa hartu, tokian tokiko herri-hizkuntzak baizik; eta hindustanera esaten zaion sanskritoartutako hindiera herri-hizkuntza britainiar misiolari protestanteek landu zuten, Ipar Indiako hindu-biztanleei urduera esaten zaion pertsiantutako hindiera herri-hizkeraren baliokidea emateko, hori indiar musulmanek landua zutelarik berentzat. Erabaki gizatiar eta politiko horri, atzerriko inperiogile baten atzerriar hizkuntzari erabilera eskusiboa emanez aginte politikoaz gehiegikeriarik ez egiteko erabakiari, zor zaio agian gauza ohargarri bat, hots, 110 urte geroago, haien ondorengoek inperioa indiar mendearen ondorengoaren esku utzi zutenean, gauza normaltzat hartu zela ondorengo estatu poliglota bietan ingelesak jarraitzea, behin-behinean behintzat, Britainiar Inperioaren pean erabili izan zen xedeetarako erabilia izaten.

Bestelakoa izan zen Jose II.a enperadore-erregearen ahalegin hutsegina (1780-90 artean erreinatu zuen); Jose II.a Mendebaldeko munduko despota ilustratuetakoa bat izan zen Frantziako Iraultzaren aurreko belaunaldian, eta alemana ezartzen saiatu zen habsburgotarren danubiar monarkian alemanez mintzo ez ziren herriei. Ekonomi onura eta kultur arintasuna *Diktat* politiko honen aldekoak izan arren,

Joseren hizkuntz politika hutsegite negargarria izan zen, eta mugimendu nazionalisten lehen astinaldiak eragin zituen, ehun urte baino geroago Habsburgotarren Inperioa zatituko zutenak.

Otomandar Inperioaren turkiar nagusiak sekula ez ziren hasi arabiar kaliferrian arrakastaz eta habsburgotarren danubiar monarkian arrakastarik gabe aplikatu zen politika zertzen. Sortzaileen jaiotzatiko turkiera zen administrazio inperialaren hizkuntza ofiziala, baina otomandar boterearen une gorenean kristau-aroko hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetan padisharen esklabo-etxeko *lingua franca* serbo-kroaziera zen eta otomandar itsas armadaren *lingua franca* italiarra. Are gehiago, arlo zibilean, otomandar gobernuak, Indiako britainiar gobernuak bezala, mendekoei beren aukerako hizkuntzak erabiltzen uzteko politikari jarraitu zion gizabanakoen arazo pribatuekin zerikusi handia zuten herri-arazoetan.

Antzeko neurritasuna azaldu zuten erromatarrek hizkuntza ofizialtzat latina ezartzerakoan beren inperioko probintzietan, non greziera baitzen ama-hizkuntza edo ezarritako *lingua franca*. Latina armada inperialeko unitateetan, nonahi erreklutatuak eta nonahi ezarriak zirela ere, aginte militarren hizkuntza bakar bihurtzearekin konformatu ziren, eta udal-administrazioaren hizkuntza nagusi, latindar jatorriko kolonientzat Greziako edo Ekialdeko lurraldeetan. Beste helburu batzuetarako *koinê* atikoa erabiltzen jarraitu zuten ofizialki erabilia aurkitu zuten alde guztietan, eta horren estatus ofiziala nabarmendu zuten maila bera emanez, latinaren parez pare, Erroman bertan administrazio zentralean.

Erromatarren begirune hau grezierarekiko, honek kultur bitarteko gisa latinaren gain zuen nagusitasunari omen egitea baino zerbait gehiago zen; erromatar arimetan gobernatzeko trebetasunak hybrisaren gain izandako garaipen garrantzitsua adierazten zuen; zeren eta inperioaren mendebaldeko urrutiko lurraldeetan, non greziera ez baitzegoen latinarekin lehian, latinaren garaipena berebizikoa izan baitzen. Grezieraren irispidetik kanpo zeuden mendekoei eta aliatuei latinaren erabilera inola ere ezarri gabe, latinaren erakargarritasuna areagotzeko gai izateko egoera bikainean zeuden erromatarrek, latinaren erabilera ofiziala eskatu beharreko pribilegiotzat hartzen baitzen. Eta latinak ere ez zituen bere garaipen baketsuak lortu inoiz idatzi ez ziren hizkuntzen bizkar bakarrik. Italian bere senide zituen oskoera eta unbriera dialek-

to italikoekin borrokatu behar izan zuen, eta mesapiera eta veneziera iliriar dialektoekin —garai batean kultura aldetik latinaren pare izanak—, eta zer esanik ez etrurierarekin, bere anatoliar sorlekuko kultur ondarea bere gain zuela. Afrikan punikoarekin lehiatu behar izan zuen. Lehia horietan guztietan latina izan zen beti-beti garaile.

Oraindik ere neurritasun ohargarriagoa erakutsi zuten «Lau Eskualdeko Erresumaren» sumeriar sortzaileek, akadiera iritsi berria beren sumerieraren parean ipini zutenean. Estatu unibertsal hau bukarera iritsi baino lehen, akadierak berea zuen garaipena eta sumeriera ia hizkuntza hila zen.

Akemenestarrek beren pertsiar ama-hizkuntzari pertsiar ama-lurrari bezain leku apala eskaini zioten inperioaren gobernuan. Dario Handiaren ekintzen kontaketa Behistango harkaitzean —Inperioaren ipar-ekialdeko errepide handiaren gainean zegoen— hiru eratan transkribatu zuten idazkera kuneiformearen hiru moldapen desberdinetan, hiru hiriburu inperialetako hiru hizkuntzen adierazpide zirenetan: elamita Susarentzat, medo-pertsiera Ekbatanarentzat, eta akadiera Babiloniarentzat. Baina estatu unibertsal honen barruko hizkuntza irabazlea ez zen izan honela ofizialki ohoraturiko hiruretako bat ere; aramera izan zen, bere idazkera alfabetiko erabilterrazaigoarekin. Ondorenak erakutsi zuen merkataritza eta kultura politika baino garrantzitsuagoak izan daitezkeela hizkuntza baten zori onerako, arameraren hiztunak ez baitziren politikoki kontuan hartzekoak Akemenestar Inperioan. Akemenestar Inperioak merkataritza-mailako *fait accompli* komertzial bat onartu zuen aramerari berandu bada ere estatus ofiziala emanez, baina arameraren garaipenik ohargarriena zera izan zen, bere idazkerak arrakasta izan zuela kuneiformea ordeztzen pertsieraren adierazpide gisa akemenestar-aldiaren ondoren.

Mauriar Inperioan Asoka enperadore filosofoak (K.a. 273-232 artean erreinatu zuen) arrakasta izan zuen justizia inpartzialaren eta ego-kitasun praktikoaren eskariak adiskidetzen tokian tokiko hainbat herri-hizkuntza erabiliz bi idazkera desberdinez adieraziak: brahmiera eta jarosh-tiera. Katolikotasun hau enperadorearen helburu bakarrak eragina zen, hots, bere jendeari ezagutaraztea Asokaren maisuak, Gautamak, gizadiari errebelatutako salbazio-bidea. Antzeko arrazoiek bultzatu zituzten Inken Inperioaren espainiar konkistatzaileak *lingua franca* gisa ketxua erabiltzen uztera beren amerikar mendekoen artean fede katolikoa zabaltzeko.

Orain onuradunak nor ziren galdetuz bukatzen badugu, aurkituko dugu hizkuntza ofizialak inperioak —non hizkuntza horiek aurrez erabilera ofiziala izan baitzuten— berrezarri zituztenen mesederako izan zirela, baita mota guztietako agentzia sekular modernoen eta erlijio nagusien hedatzaileen mesederako ere. Hizkuntza eta idazkeren gai honetan gauzak aski nabarmen daude, argibide zehatzik behar ez izateko.

Gure ikerketan zehar aipaturiko hizkuntzetatik, inork ez zuen aramerak baino ondorengo historia ohargarriagorik izan eta, bestalde, horrek gainerako gehienek baino gutxiago zor izan zion estatu uni-bertsaleko —non hasi baitzuen bere goraldia— gobernarien babesari. Alexandrok Akemenestar Inperioa eraistean, aramera bat-batean geratu zen akemenestarrek mendebaldeko beren eremuetan emana zioten estatus ofizialik gabe, *koinê* atikoaren mesedetan. Honela babes inperialik gabe geratu arren, hala ere, osatu egin zuen kultur konkistaren prozesua, babes ofiziala hartu aurretik hasia zuena, ekialdean akadiera ordeztuz eta mendebaldean kanaanera, «Ilargierdi Naharoan»<sup>15</sup> semitikoa hitz egiten zuen jende guztiaren hizkuntza bizi gisa. Adibidez, Jesusek bere dizipuluekin erabiliko zuen hizkuntza izan zen. Aramear alfabetoari dagokionez, are konkista handiagoak egin zituen. K.o. 1599an mantxueraren adierazpide izateko onartu zen, mantxuek Txina konkistatu bezperan. Erlijio nagusiek lastertu egin zuten haren bidea beren zerbitzura hartu zutelako. Bere «hebreera zaharkituaren» aldaeran judu-eskritura eta liturgiaren baliabide bihurtu zen; moldaera arabikoan Islamaren alfabeto bilakatu zen; aldaera siriakoan inpartzialki balio izan zuen nestorianismoaren eta monofisismoaren kristau-heresia antitetikoentzat; bere pahlavi aldaeraren moldaera avestikoan zoroastroar elizaren liburu sakratuak jaso zituen; manikear moldaeran kristauak nahiz zoroastroarrek berdin gorrotatzen zuten heresiarka baten zerbitzura egon zen; jaroshti aldaeran, Asoka enperadoreari, akemenestar probintzia izandako Punjab-en zituen mendekoei Budaren irakaspenak adierazteko tresna eman zion.

### *Legea*

Legearen eremu den gizarte-ekintzaren arloa hiru esparru handitan zatitzen da: administrazio-legea —mendekoek gobernuarekiko dituzten betebeharrak ezartzen dituen— eta lege kriminala eta zibila,



biak ere bi alderdiak pertsona pribatu direla zertutako egintzei dagozkienak. Jakina, ez dago gobernurik administrazio-legearekiko axolagabe izan daitekeenik, gobernu baten lehen ardura bere aginpidea ezartzea eta agindutakoa betetzen ez duten egintza guztiak —goi-mailako traiziotik zergak ez ordaintzerainokoak— zapaltzea baita, mendekoa gobernuaren nahia betetzeko uzkur agertzen denean. Gogoeta berberak eramaten dituzte gobernuak lege kriminalaz ere arduratzera; zeren eta, kriminalak zuzenean edo nahita gobernuari ez erasotzea litekeen arren, egia esateko, oztopoak jartzen dizkio ordena zaintzeko duen zereginean. Lege zibilarekiko ardurari dagokionez, bestalde, gobernuek beren mendekoen onurarako jokatzten dute beren onerako baino gehiago, eta ez da harritzekoa estatu unibertsalen gobernuak arlo honetan legeaz arduratzeko neurrian alde handiak egotea.

Legearen eremuan, estatu unibertsalek arazo berezi bat aurkitzen dute aurrean, parroki estatuek aurkitzen ez dutena. Beraien lurraldeetan hainbat toki-estatu konkistatutako mendekoak sartzen dira, estatu horiek ez direlarik desagertzen beren suntsitzaile eta ondorengoak kontuan hartu beharreko ondareak utzi gabe —legearen eremuan eta beste arlo batzuetan. Gutxienez kasu batean inperio gileak, kasu honetan mongolak, beren mendeko konkistatuak baino askoz kaskarragoak zirenez, ez ziren beren antzinako legearen ezertxo ere haiei ezartzeko gai izan. Osmanliarrek kontrol zorrotza zertu zuten administrazio- eta krimen-zuzenbideaz, baina saiatu ziren turkiar ez ziren hainbat herri mendekoren zuzenbide zibilean eskurik ez sartzen. Mundu sinikoan, bestalde, Tsin She Huang-tik era berezian lege-uniformetasun ekumenikoa ezarri zuen kolpe batean, bere Tsin-go erre-  
suma zaharrean indarrean zegoen legeria berak konkistatu eta bereturiko sei estatu etsaien lurraldeetan ezartzea agindu zuenean, eta haren egitateak gutxienez bi paralelo moderno izan zituen Mendebaldean. Napoleonek frantziar legearen kodetze egin berria sartu zuen bere inperioko italiar, flandriar, alemaniar eta poloniar lurraldeetan, eta Indiako britainiar gobernuak Ingalaterrako Lege Arrunta sartu zuen —neurri batean jatorrizko forman eta neurri batean tokian tokiko legerian gorpuzturiko egokitzapenetan— bere zuzeneko agintea ezarri zuen Indiako lurralde guztietan.

Erromatarrek britainiarrak edo Napoleon edo Tsin She Huang-ti baino geldoagoak izan ziren beren inperioan lege-uniformetasuna

lortzen. Erromatar Legearen mende bizitzea erromatar herritartasunaren pribilegio ospetsuetako bat zen, eta Inperioko mendekoei hiritartasuna pixkanaka ematea ez zen burutu Karakalaren ediktua promulgatu arte K.o. 212an. Kalifaldiaren historia paraleloan lege islamikoaren erreinua pixkanaka zabaldu zen kaliferrian musulman ez ziren mendekoak inperiogileen erlijiora konbertitzearen bidez.

Legearen pixkanakako estandarizazioaz gutxi gorabeherako uniformetasuna lortu zen estatu unibertsaletan beste etapa bat ere izan zen batzuetan, eta hor lege inperial batua kodetu zuten agintari inperialek. Erromatar Legearen kodetzerantz egindako lehen urratsa, K.o. 131n, *Edictum Perpetuum* delakoaren «izozketa» izan zen, ordu arte Praetor Urbanus bakoitzak bere kargu-urtearen hasieran berriro promulgatzen zuelarik, eta azken urratsak K.o. 529an Justinianoren Kodea eta K.o. 533an Institutzioak eta Digestoa promulgatzean egin ziren. «Lau Eskualdeetako Erresuma» sumerikoan Ur-etik gobernatzen zuten sumertar enperadoreen mende bildutako kode goiztiar bat izan zen, dirudienez, inperioa berriro ezarri zuen Babiloniako Hamurabi amorritak geroago promulgatu zuen kodearen oinarria, K.o. 1901ean Mendebaldeko arkeologo moderno J. de Morgan-ek argitara atera zuena.

Erregela gisa, kodetzeko eskaria azkenaurreko garaian iristen da bere gailurrera, gizarte-hondamendiaren aurretik eta jurisprudentziako lorpenen goren unea igaro eta askoz geroago, eta garaiko lege-gileak suntsipen-indar gobernaezinekin gudua galtzera erremediorik gabe bideratuta daudenean. Justiniano bera, Patuari aurre egin eta bere *Corpus Iuris*-aren barrikada izugarria aurpegira bota orduko, Amorraren txakur nekaezinek herrestatu zuten paper-ehizan lasterka jarraitzera eta honela bere *Novellae*-en orri errebelagarriekin josi behar izan zuen ibilbidea. Hala ere, luzera, patua jator portatzen da kodetzailerekin; zeren eta miresmenaren ur-eztia, denboraldi hobean aurreko irainduek seguru ukatuko ziena, haien lana zuzen baloratzeko gai izateko urrutiegi zeuden, barbaroegi edo sentimentalegiak ziren ondorengoei eskaini baitiete haien arime.

Baina kritikarik gabeko ondorengotza miresle honek ere ikusten du kode sagaratuak ezin direla aplikatu eraldatu arte, eta «eraldatu» esaten dugunean Shakespeareren Bottom-ek jasan zuen bezalako tratamenduaz ari gara, Peter Quince-k oihu egin zuenean:

«Bedeinkatua zu, Bottom! Eraldatuta zaude», bere laguna astaburuaz hornitua ikusi zuenean. Justinianoren erreinuaren ondoren lonbardiar, eslaviar eta arabiar inbasioen uholdea etorri zen laster; antzeratsu, Sumer eta Akadeko Inperioaren azken fasean, Xinear-ko ordokietako politika- eta gizarte-erreklamazioa asetzeko Hamurabiren lan neke-tsua laster urperatu zuen mendietako kasiten inbasioak. Leon Errestauratzaileak eta ondorengoek, 150 urteko benetako interregno baten ondoren, Bizantziar Inperioa berreraikitzeari ekin ziotenean, material egokiagoak aurkitu zituzten Moisesen Legean Justinianoren *Corpus Iuris*-ean baino, eta Italian etorkizunaren itxaropena ez zegoen *Corpus Iuris* hartan San Benediktoren erregelari baizik.

Beraz, Justinianoren kodea hil eta lurperatu egin zen; baina berriro piztu zen, laurhun bat urte geroago, hamaikagarren mendean berpizkunde juridikoa izan zenean Bolognako Unibertsitatean. Gune horretatik eta garai hartatik aurrera bere eragina zabaldu zuen hedatzen ari zen Mendebaldeko munduaren muturretara eta luzapen-etara, Justinianok ezagutzen zuena baino askoz harantzago. Bolognak Goiz Erdi Aroan «bilketa» intelektuala egiteko izan zuen gaitasunari esker, erromatar zuzenbidearen bertsio bat «hartu» zen aro moderno-ko Holanda, Eskozia eta Hego Afrikan. Kristandade Ortodoxoan *Corpus Iuris* delakoak gaintu egin zuen hain zorrotza ez zen proba bat —hiru mendez Konstantinoplan hibernatzea— eta kristau-aroko hamargarren mendean sortu zen berriro, mazedoniarrak dinastiak zortzigarren mendeko siriarrak aurrekoen moiestar legeria ordeztzeko kode gisa.

Ez gara geratuko aurrean etorkizunik ez zeukaten estatu barbaro teutonikoen ohituretan, erromatar zuzenbidearen infiltrazioa deskribatzeko. Askoz garrantzitsuago eta harrigarriagoa da haren infiltrazio isilpeko eta aitorgabea —baina ukazina— erromatar izandako hainbat probintziaren arabiar konkistatzaileen zuzenbide islamikoan. Hor nahastu ziren bi elementuak are inkongruenteagoak ziren, eta nahasketaren emaitza zera izan zen: ez parroki lege bat estatu barbaro batentzat sortzea, baizik eta lege ekumeniko bat sortzea, estatu unibertsal siriako berrezarri baten premietarako balio behar zuena, eta, egitura politiko horren zatiketa gaintu ondoren, Gizarte Islamikoaren bizitza gobernatu eta modelatu behar zuena, gizarte hau, kalifatza erori ondoren, hedatzen jarraituko zelarik, hau idazteko

garaian, bere agintea Indonesiatik Lituaniaraino eta Hego Afrikatik Txinaraino iritsi arte.

Beren parekide teutonikoek ez bezala, arabiar musulman primitiboek zakar astindua zuten beren bizimodu arkaiko tradizionala, beren buruari gizarte-ingurunearen bat-bateko aldaketaren astindu gehigarria eman aurretik, eta hori Arabiako basamortu eta oasietatik irten eta Erromatar eta Sasaniar inperioetako landa eta hirietara joanez egin zuten. Kultur eragin siriako eta helenikoek Arabiarantz izandako irradiazio luze eta iraunkorrak gizarte-ondorio metakorra sortu zuen, Mahoma profetaren ibilketa pertsonalean dramatikoki agertua zena; eta haren lorpenak hain harrigarriak izan ziren eta haren nortasuna hain ahaltsua, ezen haren orakulu eta egintzak, Koranean eta Tradizioetan dauden bezala, zuzenbidearen iturburutzat onartu zituzten jarraitzaileek, ez bakarrik komunitate musulmanaren bizitza arautzeko, baita konkistatzaile musulmanen eta hasieran sarri askoz ugariago ziren mendeko ez-musulmanen arteko harremanak arautzeko ere. Konkista musulmanen abiadura eta tamaina konkistatzaile musulmanen lege ezarri berriaren oinarri onartuen irrazionaltasunarekin elkartu ziren eta ikaragarritzko arazoa sortu. Koranetik eta Tradizioetatik gizarte sofistikatu batentzat lege ekumenikoa ateratzeko zeregina israeldarrek Moisesi basamortuan ura ateratzeko egin omen zizkieten eskariak bezain zentzugabea zen.

Lege-bizigarriaren bila zebilen juristarentzat Korana lur harritsua zen benetan. Mahomaren misioan Mekako garai ez-politikoko atalek, *hejira*-ren aurrekoek, jurista praktiko batentzat askoz material gutxiago zeukaten Itun Berrian aurki zezakeena baino, ez baitzeukaten Jainkoaren batasunaren aldarrikapen espiritualki erabakigarri eta etengabe errepikatua eta politeismoaren eta idolatriaren salaketa baino askoz gehiago. Geroago Medinan zertutako atalek itxaropentsuagoak dirudite lehen begiratuan; zeren eta *hejira*-n Mahomak bizi zela lortu zuen posizioa Jesusen jarraitzaileetako inork ez zuen lortu kristau-aroko laugarren mendea arte. Estatu-buru izatera iritsi zen, eta haren adierazpenak aurrerantzean herri-arazoei buruzkoak izan ziren, batez ere. Halaz guztiz, Medinako *surah*-etatik lege-sistema orotakoa, kanpoko sendogarrik gabe, ateratzea, trikimailu juridiko berbera San Pauloren Gutunekin egitea bezain zaila izango zen, gutxienez.

Egoera hartan arabiar kaliferria eraiki zuten ekintza-gizonek teoriari bere bidea egiten utzi zioten eta beren kasa baliatu ziren. Zentzuaren, analogiaren, adostasunaren eta ohituraren laguntzaz aurkitu zuten beren bidea. Aurki zezaketen lekutik nahi zutena hartzen zuten, eta, jainkozeak uste bazezakeen zuzenean profetaren ahotik etorria zela, hainbat hobe. Honela arpilaturiko sorburuen artean, erromatar zuzenbidea garrantzitsua izan zen. Kasu batzuetan iturburu horretatik siriar probintziako bertsioan hartu zuten zuzenean. Sarriago, agian, erromatar zuzenbidea juduen bitartekaritza iritsi zen Islamera.

Juduen zuzenbidea, Mahomaren *hejira*-rako bere atzean jada hain historia luzea zuena, Ipar Arabiako estepetatik Siriako landa eta hirietara etorritako nomaden ohiturazko praktika barbaro gisa sortua zen, *sharia* islamikoa bezala; eta gizarte-ingurunearen bat-bateko eta muturreko aldaketaren larrialdi berari aurre egiteko, hasierako israel-darrek, hasierako arabiarrek bezala, gizarte sofistikatu batean zegoen legera jo behar izan zuten, Lurralde Aginduan ezarrita aurkitu zuten legera.

Hamar Aginduak hebrearren emaitza soiltzat agertzen den bitartean, israeldar legeriaren hurrengo piezak, adituek «Itunaren Kode» deitzen dutenak<sup>16</sup>, Hamurabiren Kodearekiko duen zorra erakusten du. Sumertar legearen kode batek, gutxienez bederatzi mende geroago azkenaldiko Gizarte Siriakoaren toki-komunitateetako batean indarrean jarritako legerian izandako eragin honek erakusten du Zibilizazio Sumerikoak zein sakon eta setati bota zituen sustraiak siriar lurrian Hamurabiren belaunaldian bukatu milurtekoan. Ondorengo ia milurtekoan, gizarte- eta kultur iraultzen aniztasun txundigarria gertatu zen, baina sumertar legeak, Hamurabiren Kodean gorpuztuak, indarrean jarraitu zuen Hamurabiren siriar mendeko edo sateliteen ondorengoan artean, eta hainbestearinoko indarrez, ezen ezarrita geratu baitzen kanaandarren hebrear konkistatzaile barbaroen legeria hasiberrian.

Eta honela, erlijio nagusi baten inkubatzaile gertatu ziren barbaroen legean sartzean, sumertar legeak, erromatar legeak bezala, marka handiagoa utzi zuen historian, bere motakoen artean ohikoa zen aintzagabeko irteera patutzat zuten barbaroengan eragiten aritu izan balitz baino. Hau idazteko garaian, sumertar legea indar bizia zen

oraindik bere kimu mosaikoari esker soilik. Bestalde, *sharia* islami-koa ez zen garai berean erromatar legearen eramaile bakarra, ez bizie-na ere. Kristau-aroko hogeigarren mendean erromatar legearen zuze-neko oinordekoak Ekialdeko Kristau Eliza Ortodoxo eta Mendebaldeko Kristau Eliza Katolikoaren kanonak ziren. Honela, legearen eremuan, gizarte-ekintzaren beste arlo batzuetan bezala, barne-proletalgoak sorturiko erakunde nagusia izan zen estatu uniber-tsalaren onuradun garrantzitsuena.

### *Egutegiak; pisuak eta neurriak; dirua*

Denbora, distantzia, luzera, bolumen, pisu eta balioaren neurri estandarrak gizarte-bizitzako premiak dira edozein mailatan, maila primitibotik gora. Mota honetako gizarte-erabilerak gobernuak baino zaharragoak dira; gobernuak, sortu orduko, hasten dira horietaz ardu-ratzen. Gobernuen *raison d'être* positiboa gizarte-eginkizun komunei gidaritza politiko zentrala ematea izaten da, eta horiek ezin izaten dira gauzatu neurri estandarrik gabe. Bestalde, gobernuen *raison d'être* negatiboa mendekoen artean gizarte-zuzentasun pixka bat ziurtatzea da, eta, «merkataritza»-erako gai pribatu gehienetan nolabaiteko neu-rrri estandarrak sartuta egoten dira. Honela, neurri estandarrak mota guztietako gobernuen ardura izaten dira, baina estatu unibertsalak bereziki arduratzen dira; zeren eta hauek, beren izaeragatik, parroki estatuen gobernupean aurkitu ohi direnak baino askoz aniztasun han-diagoko mendekoak elkartuta edukitzeko arazoarekin topo egiten bai-tute, eta interes berezia izaten dute neurri estandarrek, eraginkortsunez indarrean baldin badaude, eragiten duten gizarte-uniformetasunean.

Neurri-sistema orokor guztietatik, denbora neurtzeko sistema-ren premia sumatzen da lehenengo, eta hemen urteko zikloaren sasoiak neurtzea izaten da lehenengo premia. Horrek urtearen, hilabe-tearen eta egunaren berezko hiru ziklo desberdinen harmonizazioa eskatzen du. Lehenengo kronometristek laster aurkitu zuten ziklo horien arteko ratioak ez direla zatiki hutsak, irrazionalak baizik; eta *magnus annus* baten bilakuntzak, non bat ez datozen ziklo horiek guz-tiak aldi berean hasi eta azkenean beren hurrengo aldi bereko abia-puntura iritsiko liratekeen, matematika astronomikoen aplikazio harri-garriak eragin zituen egipziakoa, babilonikoa eta maiena bezalako gizarte goiztiarretan. Behin kalkulu-bide horretatik abiatu ondoren,

astronomo hasiberriak kontuan hartzen hasi ziren ez eguzkia eta ilar-  
giaren mugimendu ziklikoak bakarrik, baita planeta eta izar «finkoe-  
nak» ere, eta haien horizonte kronologikoa adierazterraza ez den eta  
imajinatzen are zailagoa den distantziaraino iritsi zen, nahiz eta kos-  
mogonista moderno bati oso estua irudit, horren begietara gure eguz-  
ki-sistema partikularra ez baita Esne Bidean izar-hautsezko orbantxo  
bat baizik, eta Esne Bidea bera ez da *ci-devant* nebulosa bat baino  
gehiago,ugarrezko jaiotzatik azken errauspenerako bidean doazen  
milioika nebulosen artean.

Kronologi magnituteen azterketa mentalean azken etapatik  
hurbil, eguzkiaren eta «izar finkoetako» bakar baten itxurazko mugi-  
menduen arteko kointzidentzia errepikatuen neurri komun txikiak  
1.460 urteko «ziklo sotiko» egipziakoa sortu zuen, eta eguzkiaren,  
ilargiaren eta bost planeten ziklo komun errepikatuak 432.000 urteko  
*Magnus Annus* babilonikoa; maien 374.440 urteko Ziklo Handi mira-  
garrian, berriz, gutxienez hamar ziklo osagarri zeuden bat-eginda.  
Miresgarriro zehatza baina ikaragarri konplexua zen maien egutegi  
hori Maien «Inperio Zaharrak» bere filial izan zituen Yucatandar eta  
Mexikar gizarteei utzi zien ondaretzan.

Gobernuak, astronomoak bezala, urtekako neurketaz ardura-  
tzen dira, baita errepikatzen den urte-zikloaren artikulazioaz ere;  
zeren eta gobernu ororen lehen ardura irautea baita, eta administra-  
ziorik inozoena ere laster ohartzen da ezin duela lanean jarraitu bere  
egintzen erregistro orokor bat zertu gabe. Gobernuak beren egintzak  
erregistratzeko erabilitako metodo bat urtebeteko magistraturaren  
batean —adibidez, erromatar kontsulatuan— zeudenen izenez baliat-  
zea zen. Honela, Horaziok bere Odetako batean esaten digu bera *con-  
sule Manlio* jaio zela, Manlio kontsul zenean, hau da, londrestar batek  
bere jaiotza jaio zen urtean hirian alkate zen handikiaren izenaz data-  
tuko balu bezala. Honelako sistemaren desegokitasuna nabaria da;  
inork ezin zituen gogoratu kontsul guztien izenak, ezta karguan zein  
ordenatan izan ziren ere<sup>17</sup>.

Sistema gogobetegarri bakarra urte partikular bat hasierako  
datatzat aukeratu eta ondorengo urteak zenbakitzea da. Adibide klasi-  
koak abiapuntu hauetatik hasitako aroak ziren: Erromaren okupazio  
faxistatik; Frantziako Lehenengo Errepublikaren hasieratik; Mekatik  
Medinara Mahoma profetak egin zuen *hejira*-tik; mundu indikoan

gupta dinastiaren ezarpenetik; Seleukotar Inperioaren ondorengo asmondar estatua Judean ezarri zenetik; Seleuko Nikator, garaile, berriro Babilonian sartu zenetik.

Beste kasu batzuetan data zehatza eztabaidagarria zuten gerta-  
retatik abiatu ziren. Adibidez, ez zegoen batere frogarik Jesus kris-  
tau-aroko lehen urtean jaio zela esateko, eta hau ez zen ohiko gauza  
bihurtu aro honetako seigarren mendea arte; ez zegoen frogarik  
Erroma K.a. 753an sortu zela esateko, edo Jaialdi Olinpikoak lehene-  
goz K.a. 776an egin zirela esateko. Are gutxiago mundua K.a. 3761.  
urteko urriaren 7an egina izan zela esateko (juduek zioten bezala) edo  
5509ko irailaren 1ean (Ekialdeko kristau ortodoxoek zioten bezala),  
edo K.a. 4004ko urriaren 23ko bezperan, arratsaldeko 6etan (hama-  
zazpigarren mendeko kronologista anglo-irlandarra izan zen Ussher  
artzapezpikuak zioen bezala).

Aurreko bi paragrafoetan aroak goitik beherako ordenan zerren-  
datu dira aukeraturiko gertaeren datentzako frogen bidez kotasunari  
dagokionez; baina, orain aro horiek beroriek erabilera zabal eta iraun-  
korra irabazten izandako arrakasta erlatiboaren ikuspuntutik zerrenda  
berrikusten badugu, ohartuko gara horien arrakasta edo porrota eraba-  
kitzeko talismana erlijiozko berrespena izan ala ez izatea dela. K.o.  
1952an Mendebaldeko kristau-aroa nagusitzen ari zen mundu osoan,  
eta benetako lehiakide bakarra orain aro islamikoa zuen, nahiz eta  
juduak, beren ohiko iraunkortasunez, Kreazioaren dataren beren kal-  
kuluaz baliatu ofizialki. Izan ere, bada tradiziozko lotura bat giza adi-  
menek egiten duten denbora-neurketaren eta erlijioak giza arimetan  
zertzen duen eraginaren artean. Superstizio horren iraunkortasuna psi-  
kearen sakonera subkontziente iristezinetan, baita sofistikazio-maila  
altua izanik, astrologiak sinesgarritasunik ez zuen gizarteetan ere, egu-  
tegi baten eraberritze arrazionala arrakastaz zein kasu gutxitan ezarri  
den ikusteak erakusten du. Frantziako Iraultzak —zeinen lege-kode  
arrazionalizatuek aurrera egin baitzuten munduaren azkeneraino eta  
pendateriaz sortu berri ziren pisu eta neurriek (gramoak eta kilogra-  
moak eta miligramoak, metroak eta kilometroak eta milimetroak)  
*succès fou* izan baitzuten— porrot egin zuen erabat Kristau Elizak  
sagaraturiko erromatar egutegi paganoa ordezteko ahaleginean. Hala  
ere, Frantziako Iraultzaren egutegia egitura erakargarria zen.  
Hilabeteen izenek, beren bukaeren arabera hiru hileko lau urte-sasoitan



banatuek, berorietan egiten zuen edo egin beharko zukeen eguraldia adierazten zuten, eta bakoitzak hogeita hamar eguneko luzera berdina zuen, hamar eguneko hiru astetan multzokatuta. Bost egun supernumerarioen multzoak, ohiko urtea (ez bisusturtea) osatzen zuenak, «nekez hondatzen zuen inoiz asmatu-egutegirik zuhurrena, zuhurregia urteko hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren hilabeteak *octobre, novembre* eta *décembre* deitzen dituen herrialde batentzat»<sup>18</sup>.

Goian aipaturiko pasartean estigmatizaturiko erromatar izen desagokiek bazuten azalpen bat, Erromako errepublikaren historia militarrean aurkitu beharrekoa. Erromatar egutegian hasieran zenbaki bidez, eta ez jainkoen izenez, deitzen ziren sei hilabeteak ez ziren, noski, oker zenbakituak izan lehenengoz izenak ezarri zitzaizkienean. Hasieran, erromatarren urte ofiziala martxoaren 1ean hasten zen, erromatarren gerra-jainkoaren arabera izendaturiko hilabetea; eta gobernuaren ekintza-eremua hiriburutik egun gutxiko ibilaldi-tartera baino urrutirago iristen ez zen bitartean, magistratu aukeratu berriak, bere karguaz martxoaren 15ean jabeturik, berari esleituriko agintea udaberriko kanpaina-sasoirako garaiz har zezakeen. Baina, erromatarren operazio militarren eremua Italiatik kanpo zabaldu zenean, gerta zitekeen urrutiko aginte horietarako martxoan izendatutako magistratu bat lanean hasteko gai ez izatea urtaroa oso aurreratuta egon arte. Bitxia bada ere, Bigarren Gerra Punikoaren ondorengo mende-erdian egutegiaren eragozpen honek ez zuen garrantzi praktikorik, zeren eta, egutegia bera hain desbideratua zebilenez, ustez udaberria iragarri behar zuen hilabetea aurreko udazkenearaino atzeratua baitzegoen. Adibidez, K.a. 190. urtean, erromatar armadak Magnesiako asiar gudu-zelaian seleukotarren armada menderatu zuelarik, legioak garaiz iritsi ziren arrazoi sinple honengatik: martxoaren 15 ofiziala benetan aurreko urteko azaroaren 16a zelako; K.a. 168. urtean, berriz, beste erromatar armada batek era berean mazedoniar armada bat Pydnan behin betiko menderatu zuenean, martxoaren 15 ofiziala benetan aurreko abenduaren 31 zen.

Ikusten denez, erromatarrek hasiak ziren, bi data horien artean, beren egutegia zuzentzen. Zoritxarrez, zenbat eta gehiago hurbildu zuzentasun astronomikora, orduan eta nabariagoa zen erabilteztina zela egutegi militar gisa. Ondorioz, K.a. 153an, urteko magistratuak beren karguaz jabetzeko eguna martxoaren 15etik urtarrilaren 1era

aldatu zen; eta, beraz, urtarrila bihurtu zen urteko lehen hilabete, martxoaren ordezk. Desegokitasun astronomikoek iraun egin zuten Julio Zesar astronomoen konklusioei diktadore-laguntza emateko egoeran egon eta «juliotar» egutegia sartu zuen arte, eta honek, zuzentasunera hainbestearainoxe hurbiltzen zenez, milurteko bat eta erdi baino gehiago iraun zuen. Aldi berean, sei hilabete zenbakituen lehenengoari, *Quinctilis*-i, enperadorearen izena eman zitzaion eta, ingelesez, *July* bihurtu da<sup>19</sup>. Hurrengo hilabetea hurrengo belaunaldian August bilakatu zen. Izan ere, Julio eta Augusto ofizialki divus ziren, eta ez zen desegokia haien izenak jadanik ospatzen ziren jainkoen ondoan sartzea.

Egutegiek erlijioekin duten lotura bitxia juliotar egutegiaren ondorengo historiari argitzen du. Kristau-aroko hamaseigarren mendeko garbi zegoen egutegia hamar egun atzeratuta zihoala eta, hamar egun horiek kendu ondoren, ikusi zen posible zela bere desegokitasuna kuantu infinitesimaleraino murriztea bisusturteei buruzko araua aldatuz. Hamaseigarren mendeko Mendebaldeko Kristau Gizartean, nahiz eta Galileoren aroa Tomas Akinokoarenaren orpozt orpo etorri, sumatzen zen aita santuak bakarrik eragin zezakeela, egin zuen bezala, egutegiaren eraberritzea. Horrela, egutegi zuzendua Gregorio XIII.a aita santuaren izenean inauguratu zen K.o. 1582an. Baina Ingalaterra protestantean behinola gurtua zen aita santua orain Erromako apezpiku eskandalagarria besterik ez zen, eta haren «izugarrikeria higuingarrietatik» libratzea eskatzen zuen Eduardo VI.a erregearen Bigarren Otoitz-liburuak. Isabelen Otoitz-liburuak kendua zuen letaniatik eskari iraingarri hori, baina sentimenduak iraun egin zuen. Ingalaterra eta Eskoziako gobernuek beste 170 urtez beren antzinako egutegiari eutsi zioten tinko, honela gero garai hura aztertuko zuten historialariei egutegi berriaren (N.S.) eta zaharraren (O.S.) artean bereizi behar gogaikarria ezarri zielarik. Azkenean Britainiak auzoko kontinentalekin bat egin zuenean 1752an, britainiar publikoak oso arrazionalista zen hemezortzigarren mendean badirudi askoz iskanbila handiagoa atera zuela ziur aski hain ilustratua ez zen kristau-aroko hamaseigarren mendean mundu katolikoak atera zuena baino. Egutegia jokoan zegoelarik, Parlamentuaren Legea aita santuaren bulaz mozturiko *Vox Dei*-ren ordezk kaskarra zelako gertatu ote zen hau?

Egutegi eta aroetatik pisu eta neurrietara eta dirura igarotzen garenean, gizarte-erabileren arlo honetan adimen arrazionalizatzailea aske mugitzen da, erlijiozko eskrupuluaren zentsurapean egon gabe. Frantziar iraultzaileek, beren egutegi sekular berria ezartzen hain osoro huts egin zutenek, arrakasta ekumenikoa izan zuten beren pisu eta neurri berriekin.

Sistema metrikoren eredu berrien —frantziarraren eta sumerikoaren— zorien konparazioak zera iradokitzen du: frantziar eraberritzaileen lanaren arrakasta haien zentzuzko neurritasunari zor izan zitzaiola. *Ancien Régime*-ko taulen aniztasun nahasgarria kalkulu-sistema bakun batera murriztean, beren zentzu praktikoa erakutsi zuten helburu horretarako sistema hamartar desegokiari irrazionalki jarraitzean, gizadiko adar guztiek aho batez onartua, ez bere merituengatik, gizaki normalak hamar hatz eta hamar behatz zeuzkalako baizik. Izadiaren txantxa praktikoa desatsegina izan zen berak sorturiko animalia ornodunetako talde batzuk sei hatzez hornitzea lau gorputz-ataletako bakoitzean, berezko abako miresgarri hori daukatenei aldi berean erabiltzeko arrazoimena eman gabe; *Genus Homo* arrazoiak hornitzean, ordean, hatz-behatzekin xuhurkeriaz jokatu zuen, hamarrekook eta hogeikook bakarrik ematen baitituzte batuta. Zoritxarrekoa izan zen, zeren eta, hamarka zenbatuta, oinarritzko eskala bi eta bostekin bakarrik zati baitaiteke, eta bi, hiru eta laurekin zati daitekeen zenbakirik apalena, berriz, hamabia da. Notazio hamartarra, hala ere, nahitaezkoa zen, zeren eta, gizarteren batean buruargiren bat hamabi zenbakiaren berezko nagusitasuna balioestera iritsi zenerako, notazio hamartarra sakon sustraitua baitzegoen bizitza praktikoa.

Frantziar eraberritzaileak ez ziren hasi hamar hortzeko akuilu horien aurka ostikoka, baina haien aurreko sumertarrak ez ziren hain zuhurrak izan. Hamabi zenbakiaren bertuteen sumertar aurkikuntza argitasun-kolpe bat izan zen, eta urrats iraultzailea egin zuten beren pisu eta neurri-sistema oinarri hamabitarrean berreginez; baina ez ziren ohartu, nonbait, beste urrats bat lortzen ez bazuten, alegia, ez bazituzten lagun hurkoak helburu guztietarako notazio hamabitarra onartzera eramaten, pisu eta neurri hamabitarren egokitasuna erabat ezabatzen zuela bi eskala handi elkarren ondoan edukitzearen eragozpenak. Sistema hamabitar sumerikoa munduaren azkeneraino zabaldu zen, baina azken 150 urteetan borroka galduan jardun izan da frantziar

lehiakide gaztearen aurka. Ur, Oxford bezala, «kausa galduen egoitza» gertatu da; nahiz eta, ziur egoteko, Ur-en kausa ez egon erabat galdua, ingelesek oin batean 12 hazbete eta txelin batean 12 penny zenbatu bitartean<sup>20</sup>.

Tratu zintzoa gizarte-ardura dela onartzen den unean eta edozein gobernuak, izen hau merezi badu, gezurrezko pisu eta neurria ematea delitu zigorgarri bihurtzen duenean, oso hurbil dago diruaren asmakuntza. Hala ere, horra iristeko zenbait urrats zehatz egin beharra dago, eta, egia esan, beharrezko mugimendu-konbinazioa ez zen lortu K.a. zazpigarren mende arte, nahiz eta ordurako zibilizazio deituriko gizarte-espeziekin jadanik bazuten agian hiru mila urteko bizia.

Lehen urratsa produktu bereziren bati trukerako baliabide izateko eginkizuna ematea izan zen, eta horrela bigarren erabilera bat lortzea berezko erabilgarritasunaz gain. Baina urrats honek ez zuen, berez, dirua asmatzea ekarri aukeraturiko produktu horiek oso anitzak zirenean eta ez metalezkoak soilik. Mexikon eta Andean, adibidez, espainiar konkistaren garairako, Mundu Zaharrean «metal preziatutzat» ezagutzen eta gutiziatzen ziren gaiak espainiar *conquistadores*-ei ikaragarri handiak iruditzen zitzaizkien kopurutan zeuden, eta bertakoek aspaldidanik ikasia zuten metal haiek atera, errefinatu eta arte-lanetarako erabiltzeko antzea; baina ez zuten pentsatu trukerako baliabide gisa erabiltzerik, nahiz eta erabiltzen zituzten helburu horrekin beste produktu berezi batzuk, adibidez, babak, arrain sikua, gatza eta itsas maskorrak.

Merkataritzaren aldetik elkarri loturiko mundu egipziako, babiloniko, siriako eta helenikoan metal preziatuen erabilera balio-neurri gisa, egoki pisa zitezkeen barra-unitateetan, ohikoa izan zen ehundaka edota agian milaka urtetan, Egeo itsasoko asiar kostan zeuden zenbait hiri helenikotako gobernuak zegoen praktika bat baino urrutirago joan aurretik, hau da, trukerako metalezko bitartekoak beste produktu batzuen parean jartzea eta horregatik gezurrezko neurria eta pisua ematea legearen aurkako delitu bihurtzen zuen arau komunaren pean jartzea. Hiri-estatu aitzindari horiek bi urrats iraultzaile egin zituzten: metalezko balio-unitate horien gaia gobernuen monopolio bihurtzea, eta gobernuen txanpon eskusiboa irudi eta gaininskripzio ofizial bereizgarri irartzea, txanpona gobernuaren txanpon-etxeko benetako

produktu zela bermatzeko eta haren pisua eta nolakotasuna gainean adierazten zuen bezala onartu behar zirela adierazteko.

Txanponaren kudeaketa errazagoa denez zabalera eta biztanleria txikieneko estatu batean, ez zen agian kasualitate hutsa hiri-estatuak izatea saiakuntza egiteko laborategiak. Aldi berean garbi dago txanponaren erabilgarritasuna areagotu egiten dela zenbat eta eremu handiagoan izan erabilera legala. Honelako aurrerapausoa eman zen K.a. seigarren mendeko lehen hamarkadetan lidia monarkiak greziar hiri-estatu guztiak, Mileto izan ezik, hartu zituenean Anatoliaren mendebaldeko kostan, baita barrualdea ere Halys ibairaino, eta menderatutako greziar hiri-estatu zen Fozeako bertako eredu oinarrituriko txanpona atera zuenean, erabilera orokorra eman zitzaionalarik lidiaarren agindupeko lurretan. Lidia erregeetako ospetsuena (eta azkena) Kreso izan zen, aberatsaren sinonimo bihurtu eta horrela iraun duena. Kristau-aroa hogeigarren mendearen erdia igarota, oraindik ere normalagoa da Mendebaldeko hizkuntza batean «Kreso bezain aberatsa» esatea «Rothschild edo Rockefeller edo Ford edo Morris edo Mendebaldeko beste edozein aberats porrokatu bezain aberatsa» esatea baino.

Azken urratsa eta erabakigarria Lidiako erresuma, bere aldetik, Akemenestar Inperio handian sartu zenean egin zen. Handik aurrera ziurtatua zegoen txanpon landuaren etorkizuna. Akemenestarren urrezko «arkulari» txanpon ekumenikoek bultzada handia eman zioten txanponaren erabilerari, bizkortu egin zena konkistaren ia nonahiko ibilbidean. Txanpona Indiara eramanean zen akemenestarrek Punjab berenganatu zutenean. Urrutiago zegoen mundu sinikoa heldua zegoen hura onartzeko, Tsin She Huang-tiren inperiogintza iraultzailea salbatuta geratu zenean Han Liu Pang-en esku trebeek baretu zutelako. K.a. 119an gobernu inperial sinikoak ordu arte aurkitu gabeko egiaren intuizio distiratsua izan zuen, hots, metala ez zela dirua egiteko ekai bakarra.

*«Chang Ngan-eko parke inperialean orein zuri bat zeukan enperadoreak, oso animalia bakana, inperioan parekorik gabea. Ministro baten aholkuz, enperadoreak animalia hilarazi zuen, eta haren larruaz altxortegiko billete moduko bat egin zuen, haren ustez, kopiatu ezina. Larru-zati haiek oin karratu batekoak ziren, orladunak eta diseinuz apainduak. Zati bakoitzari kobrezko 400.000 txanponen balio arbitra-*

*rioa eman zitzaion. Printzeak, tronura eskumuinak ematera etortzen zirenean, larru-zati haietako bat eskudiruz erostera behartzen zituzten, eta beren opariak haren gainean aurkeztera enperadoreari. Hala ere, orein zuriaren larrua mugatua zen kopuruz eta laster utzi zion askakuntza honek altxortegia hain beharrezko diruaz hornitzeari»<sup>21</sup>.*

Diru-billeteen askakuntza ez zen benetan eraginkorra izan paperaren eta inprimaketaren bi askakuntza sinikoeekin elkartu zen arte. Paper negoziagarria, altxortegi inperialak gordetzen zituen ordezkagiriekin bat zetozen txeeen forman, Tang gobernuak jaulki zuen K.o. 807an eta 809an, baina ez dago frogarik txee haien inskripzioak inprimatuak zirela esateko. Paperezko diru inprimatua Sung gobernuak, bai, jaulki zuen K.o. 970ean.

Diruaren askakuntza, zalantzarik gabe, onuragarri gertatu zen jaulki zuten gobernuen mendekoentzat, nahiz eta askakuntzak berekin ekarri zituen inflazioaren eta deflazioaren gorabeherak, sozialki iraultzaileak, baita lukurreriazko interesekin maileguan hartu eta emateko tentazioa ere. Baina onura handiagoa etorri zitzaion ziur aski gobernu jaulkitzaileei berei; zeren eta dirua jaulkitzea *acte de présence* bat da, gobernuaren harreman zuzen eta iraunkorrean jartzen duena bere mendekoen gutxiengo gogotsu, buruargi eta eragin handiko batekin, gutxienez; eta diru-epifania honek, automatikoki gobernuaren ospea sustatzeaz gain, aukera paregabea ere ematen dio bere burua lausengatzeko.

Txanpongintzaren ondorio hau, atzeritarren gobernupean dagoen eta gainean ezarritako uztarri politikoa nozitzen duen jendearen buruetan ere eragiten duena, Itun Berriko pasarte klasiko batek argitzen du:

*«Gero, fariseu eta Herodesen alderdiko batzuk bidali zizkioten Jesusi, hitzen batean harrapatzeko asmoz. Etorri eta esan zioten:*

*—Maisu, badakigu egizale zarena eta ez dizuna axolarik inoren zeresanak; zuk, gizakiaren itxurari begiratu gabe, Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzu. Zilegi al da Zesarri zerga ordaintzea, bai ala ez? Ordaindu behar al diogu, bai ala ez?*

*Baina Jesusek, haien azpikeriaz oharturik, esan zien:*

*—Zergatik zatozkidate ziri? Ekarri txanpon bat, ikusteko. Ekarri zioten eta Jesusek galdegin zien:*

—Norenak dira irudi eta izen hauek?

Haiek erantzun:

—Zesarrenak.

Jesusek, orduan:

—Eman Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari.

Txunditurik utzi zituen erantzun honekin». <sup>22</sup>

Dirua jaulkitzeko prerrogatibak ematen duen probetxu moral automatiko hau, baita ingurune politiko eta erlijioso erabat aurkakoa ere, askoz baliotsuagoa izan zen erromatar gobernu inperialarentzat txanpongintzaren kudeaketak bide batez ekar diezazkiokkeen finantza-irabazi huts guztiak baino. Enperadorearen erretratuak txanponean nolabaiteko estatusa ematen zion gobernu inperialari judu-jendearen gogoan; jende hark, erromatarren agintea legezkontrakotzat jotzeaz gain, gordea zeukan buruan, Jahvek Moisesi, Jainkoaren beraren eskuak harlauzetan irarrita, eman omen zizkion hamar aginduetako bigarren agindu esplizitu hau:

*«Ez egin idolorik, ez irudirik, goian zeruan, behean lurrian nahiz lurpeko uretan dagoenetik. Ez ahozpeztu haien aurrean, ezta kurtzarik eman ere, ni, Jauna, zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaz»* <sup>23</sup>.

K.a. 167an Antioko IV.a Epifanes seleukotar erregeak Zeus Olinpiarraren estatua bat Jerusalemgo Jahveren tenpluko leku santu-santuan jarri zuenean, «idolo higuigarria» <sup>24</sup> «behar ez den tokian ezarria» <sup>25</sup> ikustean juduen espantua eta sumindura hain biziak izan zirenez, ez zuten atsedetik izan seleukotar gobernuaren azken arrastoak ezabatu arte. Bestalde, K.o. 26an Pontzio Pilato erromatar prokuradoreak, isilean eta gauaren babespean, medailoietan enperadorearen irudia zeukaten erromatar zutoihal militarrek Jerusalemara sartu zituenean, juduen erreakzioa sutsua izan zen, ikur iraingarri haiek kentzera Pilato behartzeko adinakoa. Hala ere, judu haiek berek otzanki ikasia zuten ez soilik begiratzen, baita eskuztatzen, erabiltzen, irrikatzen eta metatzen ere txanponetako Zesarren irudi higuigarria.

Erromatar gobernu berehala ohartu zen dirugintza ekumenikoak tresna politiko gisa zuen balioaz.

*«Lehen mendearen erditik aurrera, gobernu inperialak, aurrez edo ondoren gobernu gutxik bezala, balioetsia zuen ez bakarrik txan-*

*pongintzaren funtzioa garaiko bizimoduaren —garaiko politika, gizarte, espiritu eta arte-mailako helburuen— ispilu gisa, baita berak bakarrik zuen aukera ikaragarria ere propaganda-tresna gisa urrutira iristeko. Albisteak zabaltzeko metodo modernoek eta propaganda-bide berriek, postatik hasi eta irratsaio eta prentsa arterainokoek, txanpongintza inperialean izan zuten baliokidea, non urteroko, hileroko —ia esan genezake, eguneroko— irudien berritasun eta aldaerek gertaera publikoen segida jasotzen duten eta Estatua kontrolatzen dutenen helburuak eta ideologiak islatzen»<sup>26</sup>.*

### *Armada iraunkorrak*

Estatu unibertsalen artean alde handiak izan dira armada iraunkorrak zenbateraino behar izan dituzten kontuan hartzen bada. Gutxi batzuk badirudi gai izan zirela horrelakorik ia batere gabe bizitzeko; beste batzuek premia deitoragarritzat jo zituzten erakunde garesti horiek, bai armada mugikorrak, bai goarnizioetan kantonaturiko armadak. Beti gogaikarri eta sarri arriskutsuak ziren erakunde hauek aurrean jartzen zizkieten arazo zail eta batzuetan konponezinen aurka borrokatu behar izan zuten estatua unibertsal horietako gobernuak. Baina orain ezin gara gelditu arazo horiek aztertzeko. Goiko izenburuaren pean azter genitzakeen arazo askotariko batera mugatuko gara atal honetan, baina interesgarriena eta garrantzitsuen agian, eta kapitulu honetako argumentu orokorrenekin —hau da, erromatar armadak Kristau Elizaren garapenean izan zuen eraginarekin— zerikusi handiena duena.

Kristau Eliza ez zen, noski, erromatar armadaren onuradunik nabarmenena edota berehalakoena. Desintegratzen ari diren inperio guztietan armada guztien onuradunik nabarmenenak beraietan izen-emandako atzeritarrak eta barbaroak izan dira. Azken akemenestarrak egin zuten greziar mertzenarioen indar profesional mugikor baten erreklutamenduak Alexandro Handiak Akemenestarren Inperioa hartzea ekarri zuen. abbastar kalifen guardian eta Erromatar Inperioko armada iraunkorretan eta Egiptoko «Inperio Berrian» barbaroen izen-emateak turkiar barbaroen gobernu ezartzea ekarri zuen kaliferrian, barbaro teutoniko eta sarmatiarren gobernu Erromatar Inperioaren mendealdeko probintzietan, eta hikso barbaroen gobernu Egipton. Harrigarriagoa da ikustea armadaren estalkia eliza baten gainera etor-



tzen, eta are gehiago inspirazio horren hartzailea tradizio antimilitarra duen eliza bat bada.

Odola isurtzearen eta, ondorioz, soldadutza egitearen aurkako kontzientzi eragozpenean, hasierako kristauak ez zetozen bat judu-tradizioarekin. Kristoren garaipenezko bigarren etorrera laster gertatzea espero zuten, eta horren zain egonarriz egoteko hezita zeuden. Juduek lehenik seleukotarren eta gero erromatarren gobernuaren aurka K.a. 166tik K.o. 135era bitarteko hirurehun urteetan egindako hainbat matxinadarekin kontraste bizian, kristauak sekula ez ziren armaz matxinatu erromatar jazarleen aurka gutxi gorabehera luzera bertsuko denboraldi batean: Jesusen misioaren hasieratik erromatar gobernu inperialaren eta Elizaren artean K.o. 313an bakea eta ituna egin zen artean. Erromatar armadan soldadutza egiteari dagokionez, behaztopa-harri izan zen kristautentzat, zerbitzu aktiboan odola isurtzeaz gain, besteak beste, heriotza-zigorrak onartu eta betetzea baitzekarren, baita enperadoreari baldintzarik gabeko leialtasunaren zin militarra egitea, enperadorearen jeinua gurtu eta hari sakrifizioak eskaintzea, eta zutoihal militarrek idolotzat gurtzea ere. Egia esateko, soldadutza debekatu egin zuten elkarren segidan lehenengo Elizako Guraso kristauak —Origenesek, Tertulianok eta bai Laktantziok ere— Konstantinoren bakea ezarri ondoren argitara emandako lan batean.

Esanguratsua da erromatar armadaren ostrazismo hori Kristau Elizaren aldetik armada oraindik borondatezko izen-ematearen bidez erreklutatzen zen garaian geratu zela bertan behera, teorikoki beti beharrezkoa zen soldadutza Dioklezianok (K.o. 283-305 bitartean erreinatu zuen) berriro praktikan jartzean erromatar gobernu inperialaren baitan arazoa sortu baino ehun urte baino lehenago. K.o. 170. urte inguru arte badirudi gai honetan ihes egiten zitzaiela gatazka-  
aukerei. Kristau-zibilek ez zuten izenik ematen armadan, eta soldadu zegoen pagano bat konbertitzen bazen, Elizak isilean onartu egiten zion zegokion zerbitzualdia bukatzea eta armadak eskatzen zizkion eginbehar guztiak betetzea. Laxotasun hau, ziur aski, hasieratik beste anomalia batzuk —nagusia eta esklaboa biak kristau ziren kasuetan ere esklabotasunak jarraitzea, adibidez— toleratzeko arrazoi berean oinarrituz justifikatuko zuen Elizak; puntu honetan esanguratsua da Filemoni Gutuna kanon sakratuan sartzea. Garai hartan Elizak espero zuenaren arabera, Kristoren bigarren etorrerarako geratzen zen den-

bora hain zen laburra, ezen soldadu konbertituak eman baitzezakeen armapean, esklabo konbertituak katepean bezala.

Kristau-aroko hirugarren mendean, kristauak, erromatar gizartean ardura politikoa zuten klaseetan azkar gehitzen hasi zirenean, bai beraiek mundu-mailan gora eginez, bai goi-klaseetako konbertituak irabaziz, praktikan erantzun zioten erromatar armadaren gizarte-garrantziak sortzen zien arazoari, teorian inoiz konpondu gabe edo Estatua konbertitzeko zain egon gabe, beronen organo bat izanik armada. Dioklezianoren armadan kristauen atala jadanik hain ugaria eta eragin handikoa zenez, K.o. 303ko jazarpena lehen-lehenik armadako kristautasunaren aurka bideratu zen. Izan ere, badirudi, mende-baldeko probintzietan, ehuneko kristau gehiago zegoela armadan biztanle zibilen artean baino.

Are garrantzitsuagoa da armadaren eragina Elizan soldadutzarako debekua oraindik indarrean zegoen garaian. Gerrak bertute heroikoak eskatzen ditu, herrikoia ez den erlijio baten jarraitzaileek erakutsi beharrekoen antzekoak, eta honelako erlijioen predikari asko gerraren antzeak eta antolaketak eskaintako hiztegiak baliatzen ziren, eta inor ez San Paulo baino nabarmenago. Judu-tradizioan, Kristau Elizak bere ondarean metaturiko altxortzat gordea zuena, gerra sagaratuta zegoen, bai literalki, bai zentzu metaforikoan. Baina juduen gerra-tradizioa literatur tradizio indartsua zen bitartean, erromatarren gerra-tradizioa errealtate bizi eta zirrargarri gisa aurkezten zen. Nahiz eta Errepublikako erromatar armada oso kaltegarri eta higuin-garria izan erromatar konkisten garai ankerrean, are ankerragoa izan zelarik erromatar gerra zibilen garaian, Inperioko armada —bere soldatetik eta ez harrapakinetatik bizi zena, eta mundu helenikoaren barrualde zibilizatu usteldu eta suntsitu ordeztu, barbaroen aurka zibilizazioa babesteko mugetan kantonatua zegoena— Erromaren mende-koen nahigabeko begirune, mirespen eta estimua ere bereganatzera iritsi zen, beren ongizateaz arduratu eta bidezko harrogarri zen erakunde ekumenikotzat hartzen baitzuten.

*«Ohar gaitezen», idatzi zuen Klemente Erromakoak, K.o. 95. urte inguruan, korintoarrei eginiko lehen gutunean, «gure gobernarien zerbitzura dauden soldaduen portaeraz. Pentsa nolako ordena, malgutasun eta otzantasunez betetzen dituzten haien aginduak. Horietako guztiak ez dira legatuak edo tribunoak edo ehuntariak edo horien azpiko*

*gradueta*ko ofizialak. Baina zerbitzura dagoen soldadu bakoitzak *enperadorearen eta gobernuaren aginduak betetzen ditu bere unitatean*».

Bere mezu-hartzaile kristauentzat honela jarraipide gisa diziplina militarra gomendatzean, Klementek ordena ezarri nahi zuen Elizan. Obedientzia, ari zen esaten, kristau guztiek zor diete Jainkoari ez ezik, baita eliz nagusiei ere. Baina Kristau Elizaren iruditeria militarren bilakaeran «Jainkoaren soldadua» lehenengo misiolaria zen. Misiolariak bizitza zibilaren eragozpenetatik libratu behar du bere burua, eta eskubide osoa du bere artaldeak manten dezan, soldaduak zergadunak ordaindutakotik bere soldata hartzeko duen bezalaxe.

Hala ere, erromatar armadak eliz erakundeen garapenean zer-nahi eragin izan zuelarik ere, indar gutxiago izan zuen eremu horretan erromatar herri-administrazioaren eraginak baino, eta armadaren jarraibideak bere ondorio nagusia idealen eremuan izan zuen Elizan.

Bataioaren sarbide-errito kristaua erromatar armadan sartzera-koan erreklutari eskatzen zitzaion zin-egite militarrekin (*sacramentum*) parekatzen du San Ziprianok. Behin sartu ondoren, kristau-soldaduak «araudien arabera» egin behar du gerra. Ihes egin behar du desertzioaren krimen barkaezinetik, baita «betebeharrarekiko zabarkeriaren» hutsegite larritik ere. «Lege-haustearen ordaina heriotza da» esaten du, San Paulok Erromatarrei gutunean erabiltzen duen esaldiaz (Bibliaren ingelesezko bertsio baimenduan «the wages of sin» bezala agertzen dena<sup>27</sup>) Tertulianok hizkera militarreka egiten duen egokitza-penak. Kristau-bizitzaren eginbehar erritozko eta moralak «neke» militarrekin parekatzen ditu Tertulianok. Haren terminologian baraua zaintzaldiko betebeharra da, eta eraman-erraza den uztarria, San Mateoren ebanjelioko hizkeran, «Jaunaren zama arina» da. Gainera, kristau-soldaduaren zerbitzu leiala, armada uztean, «Jainkoaren eskupekoaz» saritzen da; eta eskupekoari gutxi irizten badio, soldaduak jarrai dezake bere parte ateratzen zerbitzuan jarraitzen duen bitartean. Gurutzea ikur militarra da eta Kristo komandante burua (*imperator*). Izan ere, Baring-Gould-en «Aurrera, kristau-soldaduak» kantak eta Booth jeneralaren «Salbazio Armadak» hitzetan nahiz ekintzetan paralelotasun bat dute Elizaren lehenengo egunetaraino iristen dena, baina orduan konparazio hori iradoki zuen armada kristau ez zen armada zen, Erromatar Inperioak oso bestelako helburuetarako sortu eta mantendua.

## Herri-administrazioa

Estatu unibertsalen artean alde handiak daude beren herri-administrazioaren garapen-mailari dagokionez. Eskalaren mutur gorenean otomandar gobernua aurkitzen dugu: bere administrazio-premien aurrean, gizakiaren buruargitasunak asmatu eta giza ausardiak egin dezakeen guztia egin zuen, eta sortu zuen herri-administrazioa ez zen anaidi profesional hutsa, baizik eta erlijio-ordena baten baliokide sekularra, hain zehatz bereizia, hain zorrotz diziplinatua eta hain indartsu «baldintzatua», ezen gizagaineko, edo gizazpiko, arraza izateraino itxuraldatzen baitzuen, ohiko gizakiagandik oso bestelakoa, gizakiak hezitako zaldi odolgarbi, ehiza-txakur edo belatza, hezitzaile edo trebatzailearen lehengai izandako basa biziaren aldean desberdina diren bezalaxe.

Estatu unibertsalentzako herri-administrazioak sortzen dituztenek maiz topo egiten dute ondorengo arazoarekin: zer erabilerara eman aurreko arazoaldian sarri jaun eta jabe izan den aristokraziari. Adibidez, bazen gaitasunik gabeko aristokrazia Moskovian Pedro Handiak mendebaldar bihurtzeari ekin zionean, eta gaitasun handiko aristokrazia Erromatar Inperioan printzerria sortu zen garaian. Pedrok eta Augustok bakoitzak bere inperioko aristokrazia erabili zuen administrazio-egitura ekumeniko bat eraikitzeko material gisa, baina arrazoi desberdinak zituzten. Pedrok Mendebaldeko tankeran administratzaile eraginkor izatera behartu nahi izan zuen noblezia zaharkitua, eta Augustok Senadore Ordenaren parte-hartzea bilatu zuen, ez hainbeste horren zerbitzuak behar zituelako, baizik eta parte-hartze hori aseguruia iruditzen zitzaiolako berak ez jasateko bere aurreko Julio Zesarrek jasandako patua, bat-batean kargugabeturiko gobernari-klasekoak izandako batzuen eskutik jasan zuena, hain zuzen ere. Augustok eta Pedro Handiak aurrean izan zituzten arazo antitetikoak, inperio-aurreko aristokraziarekin topo egiten duen inperio baten arkitektoari aurkez dakioken dilema baten arantzak dira. Aristokraziak gaitasuna baldin badu, enperadorearen zerbitzura egotea, aristokratentzat, *infra dignitatem* irudituko zaio. Alderantziz, aristokrazia gaitasunik gabea bada, horretaz baliatzen den diktadorea ohartuko da bere tresnaren kaltegabetasuna tresna horren berorren kamustasunak baliogabetzen duela.

Inperio-aurreko aristokraziak ez ziren inperiogileek behar zuten material bakarra beren herri-administrazioak antolatzeko. Horrelako handikiek, berez bakarrik, erregimenturik gabeko koronel-gorputz bat osatuko zuket. Klase ertaina ere, legelari eta beste profesional batzuek osatua, behar zen, erregimentuko ofizialen baliokide gisa, eta mendeko-andana bat oinarritzko soldadu arrunten parean. Batzuetan estatu unibertsal baten eraikitzaileak egoera hobean aurkitzen ziren, beren barne-premietarako jadanik sortua zuen klase baten zerbitzuez baliatzeko egoeran, alegia. Britainiar Indiako herri-administrazioaren izaera eta lorpenak nekez uler daitezke Erresuma Batuko administrazio-historiaren aurre-aurreko atala kontuan hartuta ez baldin bada.

*«1833ko Legeak eratu zuen lantegi-ikuskaritza urrats bat izan zen beste mota bateko herri-administrazioaren garapenean... Bentham-en grinak usadioaren ordeztasun zientzia jartzeko, administrazioaz zuen ikuspegiak —trebetasun-kontua zela, alegia— emaitza erabat pozgarriak izan zituen kasu hartan. Haren inspirazio pean Ingalaterrak sortu zuen funtzionario-kidegoak trebezia eta independentzia izan zituen lanean. Bake-justizia ingelesak ez bezala, funtzionario berriak jakintza zuen; intendant frantziarra ez bezala, ez zen gobernuaren sorkari hutsa. Herri ingelesak jende hezia erabiltzen ikasi zuen, beraien independentzia eta begirunea gordetzeko hezia... Memento, klase ongi hezi horren eginkizun nagusia (industri) mundu berriaren desordenan argi egitea zen. Erreformaren Lege-proiektua onetsi ondorengo belaunaldiaren historia inork ezin du aztertu, abusuak salatzen eta planak asmatzen legelari, mediku, zientzi eta letrajendeak jokaturiko paperaz harritu gabe»<sup>28</sup>.*

Honelakoa zen Indiara joan zen klase ertaineko administratzaile profesionalen anaidi berria. Beste testuinguru batean ondorengo kapitulu batean izango dugu aukera beraien lorpen eta mugapenak aztertzeko.

Augustoren lorpena —bere ardurapean hartua zuen mundu suntsitu, nahaspilatu eta nekatuaren premiei erantzuteko herri-administrazio berri bat sortzea— 150 urte lehenago mundu sinikoan Han Liu Pang-ek egindako lanak berdindua zuen. Iraupenagatik epaituta, nekazari siniko horren lanak oso atzera utzi zuen Oktavio erromatar burgesarena. Augustoren sistema sortu eta zazpi mendera puskatu zen

bitartean, Liu Pang-en sistemak, nolabaiteko jarraikortasunez behintzat, K.o. 1911 arte iraun zuen.

Erromako herri-administrazio inperialaren akatsa senadore-aristokrazia zaharraren eta diktadura inperial berriaren arteko desadostasuna islatzea zen, Augustoren adostasun-politikak estali zuena, baina ez sendatu. Zurrun banandutako bi hierarkia ziren eta elkar baztertzen zuten bi karrera, non senadore ziren eta ez ziren funtzionarioek bakoitzak bere bidea egiten baitzuten. Zisma hura kristau-aroko hirugarren mendean bukatu zen, Senadore Ordena administrazio-ardurako postu guztietatik kendu zenean; baina garai hartarako bertako autogobernu zibikoaren gainbeherak hainbestearainoxe puztua zuen lan-kopurua, ezen Dioklezianok neurrigabe gehitu behar izan baitzituen herri-administrazio inperialeko langile iraunkorrak. Ondorioz, sartzeko eskatzen zen gizarte-maila jaitsi egin zen. Han dinastiaren herri-administrazioaren historiarekiko bestelakotasuna argigarria da. Gizarte-mailak kontuan hartu gabe, karrerak talentuari irekitzea hasieratik nagusitu zen: enperadoreak berak K.a. 196an, ordena berriro ezarri zuenetik sei urtera, agindu bat eman zien probintzietako herri-agintariei, herri-zerbitzurako hautagaiak merituen arabera aukeratu eta hiriburura bidal zituzaten, gobernu zentraleko ofizialek lanean ezarri edo errefusatzeko.

Herri-administrazio siniko berri honek Han Liu Pang-en ondorengo izan zen Han Wuti-rekin (K.a. 140tik K.a. 87ra erreinatu zuen) hartu zuen behin betiko forma, honek erabaki zuenean hautagaiei eskaturiko meritua konfuziar kanoneko literatura klasikoaren estiloa berregiteko gaitasuna izango zela, eta konfuziar filosofia interpretatzeko gaitasuna, garaiko konfuziar letratuen gogara. K.a. bigarren mendeko konfuziar eskolak, honela erregimen inperialak trebeki bere lankidetzara erakarri zuenak, Konfuzio bera ere harrituko zukeen, baina filosofia politiko deshidratatu hori ere inspirazio eraginkorra goa zen bizimodu profesional kolektibo batentzat Dioklezianoren aroan mundu helenikoan zegoen literatur kultura arkaiko hutsa baino. Pedantea izan bazitekeen ere, etika tradizional bat eskaintzen zuen, funtzionario sinikoen erromatar parekideen artean falta zena.

Han Inperioak eta Erromatar Inperioak herri-administrazioak beren gizarte eta kultur ondareetatik sortu zituzten bitartean, Pedro Handiak ezin izan zuen, bere arazoaren izaeragatik beragatik, antze-

rako ezer egin. K.o. 1717-18an hainbat administrazio-ikastetxe sortu zituen, errusiarrek Mendebaldeko administrazio-metodo berrietara bultzatzeko. Suediar gerra-presoa erabili ziren irakasle, eta errusiar aprendizak Königsberg-era bidali ziren prusiar trebakuntza lortzera.

Pedro Handiaren Errusiar Inperioan bezala, herri-administrazio inperiala atzerriko erakundeak kontzienteki imitatuz sortzen den lekuan, pertsonala trebatzeko neurri berezien premia nabaria izaten da; baina premia hori neurriren bateraino herri-administrazio guztietan sortzen da. Inka, Akemenestar, Erromatar eta Otomandar inperioetan enperadorearen etxe pertsonala gobernu inperialaren gurpilaren ardatza zen, baita administrazioaileentzat eurentzat trebakuntza-eskola ere, eta zenbait kasutan etxe inperialaren heziketa-funtzioa «morroien» edo, egungo hitzetan esanda, aprendizen kidego bat sortuta bete zen. Cuzcon, enperadore inkaren gortean, heziketa-ikastaro erregular bat zegoen, azterketak egiten zirelarik zenbait fasetan. Akemenestar Inperioan «jaiotzaz aitoren seme ziren pertsar mutil guztiak», Herodotoren arabera, «enperadorearen gortean hezten ziren, bost eta hogeitaz urte bitartean, hiru gauzatan eta hirutan bakarrik: zaldiz ibiltzen, tiroketan eta egia esaten». Otomandar gorteak pajeen heziketa antolatu zuen bere lehen egunetan Brusana, eta ongi zapaldutako bide horretatik zebilen oraindik Murad II.a sultanak (K.o. 1421-51 bitartean erreinatu zuen) printzeentzako eskola ezarri zuenean Adrianopolisen, haren garaian hiriburua zen tokian. Hala ere, haren ondorengo Mehmet II.a sultanak (K.o. 1451-81 bitartean erreinatu zuen) beste bide bat asmatu zuen bere herri-administrazioa langilez hornitu zuenean, ez jada osmanliar aitoren seme musulmanen semeekin, kristau-esklaboekin baizik, Mendebaldeko Kristandadeko fede-ukatzaille eta gerra-presoa barne, baita «zerga-haurrak» ere padisharen Ekialdeko mendeko kristau ortodoxoengandik kobratuak. Erakunde berezi hau Azterlan honen lehenagoko zati batean deskribatu da.

Otomandar padishek beren esklabo-etxe pertsonala, osmanliar askeak baztertuz, bizkor hazten ari zen inperioaren gobernurako tresna berariaz bihurtu zuten bitartean, erromatar enperadoreek, Zesarren Etxea antzeratsu erabiltzera behartuta aurkitu ziren arren, neurriak hartu zituzten administrazio inperiallean libertoen papera mugatzeko. Libertoen gotorlekua Erromatar Inperioaren administrazioan hasiera-ko egunetan gobernu zentrala zen, non Zesarren Etxeko bost adminis-

trazio-kargu ministerio inperial bihurtu baitziren; baina tradizioz libertoen esparru ziren postu haietan ere, libertoak politikoki jasangaitz bihurtu ziren, nabarmentzera iritsi orduko. Klaudio eta Neronen ministro libertoak neurrigabeko boterea zertzen ikusteak eragindako eskandaluak kargu erabakigarri haiek banan-banan Zaldi Ordenako kideengana eskualdatzera eramán zituen flaviotar enperadoreak eta ondorengoak.

Honela, Erromako herri-administrazioaren historian, zaldizko klaseak —merkatarienak, alegia— aurrera egin zuen esklaboén azpimunduaren eta senadore-aristokraziaren bizkar, eta lehiakideén gain izandako garaipena zaldizko funtzionarioek berén eginbeharretan erakutsitako eraginkortasun eta zuzentasunak justifikatzen zuén. Errepublikar erregimenaren azken bi mendeetan, utsiapén, zergatarako nekazaritza eta lukurreriaz aberats eta ahaltsu bihurturiko klase baten berrerospen hau izan zen agian Augustoren sistema inperialaren garaipenik ohargarriena. Britainiar Indiako funtzionarioak ere merkatariklasetik erreklutatzen ziren. Merkataritza-konpainia baten enplegatu gisa sortu ziren, diru-irabazia izanik haren helburua; etxetik urruti eta klima desatsegín batean enplegua hartzeko haién lehen pizgarrietako bat albo-merkataritza berén probetxurako egínez aberasteko aukera izan zen; eta, garaipén militar esanguratsu baten bidez, Ekialdeko Indietako Konpainia Mogolen Inperio kolapsatuaren probintziarik aberatsenaren jaun eta jabe bat-batean bihurtu zenean, zentzu guztietan izenean izan ezik, Konpainiako langileak, aldi labur batez, berentzat diru-irabazi izugarriak ateratzeko tentazioan erori ziren, erromatar *equites* haiek askoz denboraldi luzeagoan erakutsi zuten lotsagabekeria berberaz. Hala ere, britainiar kasuan, erromatar kasuan bezala, harpia harrapatzaileen talde bat funtzionario-kidego bihurtu zen, bere pizgarritzat jadanik irabazi pertsonala ez zuena eta botere politiko handia abusatu gabe erabiltzea ohoragarritzat hartzen ikasitakoa.

Britainiar administrazioak Indian zuén izaeraren erredentzio hau neurri batean Ekialdeko Indietako Konpainiaren erabakiari zor zaio, hots, bere langileak gainera etorri zitzaizkien erantzukizun politiko berriak hartzeko prestatzea. K.o. 1806an Konpainiak Hertford Castlen ikastetxe bat zabaldu zuén bere administrazio-zerbitzurako probaldian aukeratuentzat, eta hiru urte geroago Haileyburyra aldatu



zuen; eta ikastetxe honek paper historikoa jokatu zuen iraun zuen berrogeita hamabi urteetan. 1853an, Indiaren gobernua Konpainiatik koroara eskualdatzeko bezperan, aurrerantzean zerbitzua lehiaketa bidez hornitzeko Parlamentuak harturiko erabakiak atea ireki zien erakunde ez-ofizialen eremu zabalagoko hautagaiei: Erresuma Batuko unibertsitateak eta «public schools» delakoei, garai hartan hauetako jendeaz hornitzen zirelarik, batez ere, antzinako bi unibertsitate ingelesak. Haileybury College 1857an itxi zen eta, iraun zuen berrogeita hamabi urteetan, Arnold of Rugby doktorearen garaia iritsi eta iragan ere egin zen, eta haren joera guztiak herri-eskoletan zehar zabaldutuztzen antzeko pentsaera zuten maisuek. Batez besteko indiar funtzionarioak hemeretzigarren mendearen azken erdian hartua zuen, eskola eta unibertsitatearen bidez, jakintza zehatza ondorengoetan oinarritua: Mendebaldekoontzat «klasikoak» ziren hizkuntza eta literatura, eta kristau-ikuspegian, sarri zehaztasun eta dogmatismorik gabea izateagatik indar gutxiagokoa ez zena. Ezar liteke nolabaiteko paraleloa, ez erabat kapritxosoa, trebatze moral eta intelektual horren eta konfuziar klasiko sinikoei buruzko heziketaren artean, hogeiki mende lehenago ezarritako txinatar administrazioari oraindik ere eskatzen zitzaiona.

Aztertzen badugu orain estatu unibertsalek beren helburuetarako sortarazitako herri-administrazio inperialen onuradun nagusiak nor izan diren, onuradun nabarmenenak zalantzarik gabe inperio haien ondorengo estatuak izan ziren, ondare baliotsu hartaz baliatzeko argitasuna izan zutenak. Onuradunen zerrendatik Erromatar Inperioak Mendebaldean izandako ondorengo estatuak baztertuko genituzke. Hauek beren irakaspenak, hondatu zuten herri-administrazio inperialetik baino askoz gehiago, konbertitu zireneko Elizatik hartu baitzituzten; baina, ikusiko dugun bezala, Eliza bera erromatar herri-administrazioaren onuradun izan zen, eta, beraz, hemen ere, ondarea zeharka transmititu zen neurri batean. Ondorengo estatu onuradunen zerrenda osoa egiten ahalegindu gabe, hau idazteko garaian, asko ez dela sorturiko Indiar Batasuna eta Pakistan seinala daitezke Indiako herri-administrazio britainiarraren onuradun gisa.

Onuradunik garrantzitsuenak, hala ere, elizak izan ziren. Dagoeneko adierazi dugu Kristau Elizaren antolaketa hierarkikoa Erromatar Inperioarenean oinarritu zela. Antzerako oinarria eman

zion Egiptoko «Inperio Berriak» eliza panegipziakoari Amon Ra-ren apaiz nagusiaren pean Tebasen, eta Sasaniar Inperioak zoroastroar elizari. Amon Ra-ren apaiz nagusia Tebasko faraoiaren irudira sortu zen; Mobadh zoroastroar buruzagia, sasaniar shahinshah-ren antzera; eta aita santua, Dioklezianoren osteko erromatar enperadorearen antzera. Administrazio-korporazio sekularrek, hala ere, antolaketa-eredu bat emate hutsa baino zerbitzu sakonagoak ere eman zizkieten elizei. Hauen ikuspegietan eta ethosean ere eragin zuten, eta kasu batzuetan eragin intelektual eta moral hauek ez ziren transmititu jarraibide hutsez, baizik eta pertsonaren bat eremu sekularretik eliz eremura aldatuz, pertsona horrengan haragituak zeudelarik eragin horiek.

Hiru figura historiko erromatar administrazio inperial sekularretik atera ziren, bakoitzak eman ziolarik norabide erabakigarria. Eliza Katolikoak Mendebaldean izandako bilakaerari. Ambrosio (*circa* K.o. 340-97 bitartean bizi izan zen) Galietako prefektu-kargu pretoriarra bereganatzean bere lanbidearen gailurrera iritsitako funtzionario baten semea zen, eta gero San Ambrosio izango zena aitaren urratsu jarraitzen ari zen Liguria eta Emilia probintziako gobernadore gisa, K.o. 374an, bere atsekabe handiz, herri-oldarrak eginkizun ofizial ziur baten errutinatik atera eta Milango apezpiku-aulkian jarri zuenean, kargua uzteko zain egon gabe. Kasiodorok (*circa* K.o. 490-585 bitartean bizi izana) bere bizitza luzearen lehenengo zatia erromatar Italia administratzen eman zuen Teodoriko Ostrogodoa erregearen zerbitzura. Bere azken egunetan Italiaren hegoaldeko muturrean zeukan landa-jabegoa monasterio bihurtu zuen, San Benediktok Monte Cassinon egindako fundazioaren osagarri. San Benediktoren monje-eskolak, Jainkoaren maitasunagatik soroetako lan fisiko neketsetara emanak, ezingo zukeen Mendebaldeko Kristau Gizarte jaio berriaren alde egin zuen guztia egin, hasieratik ez balitz elkartu izan Kasiodororen eskolarekin, hau ere zio berberak bultzatuta buruz neketua zen zeregin batera emana: pagano klasikoen eta Elizako Gurasoen lanak kopiatzera, alegia. Gregorio Handiari dagokionez (*circa* K.o. 540-604 bitartean bizi izana), *Praefectus Urbi* izan ondoren, administrazio sekularra utzi egin zuen eta, Kasiodororen jarraibideari segitzeko, Erroman zuen arbaso-jauregia monasterio bihurtu zuen; honela, bere itxaropenaren eta desiraren kontra, aitasantutzaren sortzaileetako bat bihurtu zen. Funtzionario handi horietako bakoitzak

Elizaren zerbitzuan aurkitu zuen bere benetako bokazioa, eta aurrez funtzionario-karreraren lorturiko gaitasun eta tradizioak ekarri zituen Elizaren zerbitzura.

### *Hiritartasunak*

Estatu unibertsal batek, lehenengo unean zenbait parroki estatu lehiakideren batasun behartutik sortzen denez normalean, gobernari- eta gobernatuen artean leize handiarekin bizitzen hasteko joera izaten du. Alde batean komunitate inperiogilea izaten da, aurreko garaiko toki-komunitate lehiakideetako gobernari- eta gobernatuen artean bizitzen jarraitzeko borroka luzearen ondoren gutxiengo menderatzailean iraun dutenen ordezkaria; beste aldean, biztanleria konkistatua egoten da. Halaber, ohikoa izaten da eskubide zibilak benetan dituenak, denbora igaro ahala, erlatiboki zati handiago bihurtzea, mendeko gehien-goaren kideak onartzearen ondorioz. Hala ere, ez da ohikoa prozesu hori gobernari- eta gobernatuen arteko hasierako zatiketa erabat eza-batzeko punturaino joatea.

Salbuespenezko kasu nabarmena, eskubide politikoak orokortu egin zirelako —eta hau estatu unibertsalaren ezarpenetik mende-laurden batera—, mundu sinikoan gertatu zen. Tsin lehiakide garaileak beste sei parroki estatu konkistatuz K.a. 230-221ean ezarritako estatu unibertsal sinikoan, Han Liu Pang-ek K.a. 207an Hsien Yang, Tsin boterearen hiriburua, hartu zuenean bukatu zen Tsin-en nagusitasuna. Estatu unibertsal sinikoko biztanleria osoaren eskubidetze politikoa K.a. 196an data daiteke. Esan gabe doa lorpen politiko horrek ez zuela kolpe batean aldatu Gizarte Sinikoaren funtsezko ekonomi eta gizarte-egitura. Gizartean jarraitu zuela zergak ordaintzen zituen laborari-masa bat agintari-klase pribilegiatu txiki bati eusten; baina aurrerantzean paradisu ofizial siniko horretarako sarbidea benetan zabalik geratzen zitzaion talentuari, gizarte-klasea gorabehera.

Denboraldi luzean diharduten indar historikoek eragindako efektu bateratzailea ezin daiteke erreproduzitu, noski, estatus juridiko uniformeak ematen duen egintza lege-gile baten bidez. Europar, eurasiar eta asiarren estatus uniformeak Indian Britainiar Inperioaren pean, eta europar, kreol eta «indiarrenak» Espainiar Inperioan Indietan, kasu bakoitzean korroa baten mendeko gisa, ez zuen batere eraginik izan gobernari eta gobernatuen arteko leizea txikitzen erakunde politiko

horietan. Honen adibide klasikoa —alegia, hasierako leizea arrakastaz ezabatu zen behinolako gutxiengo pribilegiatu gobernaria bere mendeko izandakoen masan bat egin zelako pixkanaka— Erromatar Inperioaren historian aurkitzen da; eta hemen ere berdintasun politikoaren funtsa ez zen komunikatu erromatar hiritarraren estatus juridikoa emate hutsez. Karakalaren ediktua K.o. 212an promulgatu ondoren, Erromatar inperioko gizonezko aske guztiak, salbuespen txiki-txikiekin, erromatar hiritar izan ziren, baina, hala ere, ondorengo mendeko politika- eta gizarte-iraultza behar izan zen bizitzako errealtateak legearekin bat etortzeko.

Berdintasun politikoaren azken onuraduna —berdintasun horretarantz zihoan Erromatar Inperioa jada Printzerriaren garaian<sup>29</sup>, eta Dioklezianoren garaian iritsi zen— Kristau Eliza Katolikoa izan zen, noski. Kristau Eliza Katolikoak Erromatar Inperiotik hartu zuen hiritartasun bikoitzaren ideia nagusia, konstituzio-tresna honek konpondua zuelarik arazo hau: nola baliatu erkidego ekumenikoaren kide izatearen abantailez, leialtasun mugatuagoak zapuztu edo tokiko sustraiak moztu beharrik gabe. Printzerriaren mendeko Erromatar Inperioan —eta egitura horretan hazi zen Kristau Eliza— Erromako mundu-hiriko hiritar guztiak (benetan metropolian bizi zen kopuru txikia izan ezik) udalerriren bateko hiritar ere baziren, eta hau, erromatar gorputz politikoaren barrian egon arren, hiri-estatu autonomoa zen hiri-estatuaren forma heleniko tradizionalarekin eta tokian tokiko ama lurrak beretarren maitasunean zertzen duen atxikimendu tradizionalarekin. Erromatar eredu sekular horretan oinarrituz, hazten eta zabaltzen ari zen eliz elkarteak aldi berean tokikoa eta ekumenikoa zen antolaketa eta korporazio-sentipena eraiki zituen. Kristauak, bere atxikimendua Elizari ematean, hiri jakin bateko kristau-elkarteari ematen zion, baita, aldi berean, praktika eta doktrina uniformearen bidez tokian tokiko eliza horiek guztiak bere barne hartzen zituen kristau-elkarte katolikoari ere.

# VII. ELIZA UNIBERTSALAK

## XXVI. ELIZA UNIBERTSALEK ZIBILIZAZIO- EKIKO DUTEN ERLAZIOAREN IKUSPEGI ALTERNATIBOAK

### 1.

#### *Elizak kantzer gisa*

Ikusi dugu eliza unibertsal bat arazoaldian sortu ohi dela zibilizazio baten kolapsoaren ostean eta ondorengo estatu unibertsalaren esparru politikoan garatzen dela. Ikusi dugu, halaber, Azterlan honen aurreko zatian, estatu unibertsalek mantenduriko erakundeen onuradun nagusiak eliza unibertsalak izan direla; eta, beraz, ez da harritzekoa estatu unibertsal baten aldeko, beren zoria gainbehera doanean, ez gustatzea beren baitan eliza unibertsala hazten ari dela ikustea. Horregatik, gobernu inperialaren eta bere laguntzaileen ikuspegitik, normala da Eliza Estatuaren beheraldiaren erantzukizuna duen gizarte-kantzertzat hartzea.

Erromatar Inperioaren beheraldian salaketa bat, kristau-aroa-  
ren bigarren mendearen bukaera aldera Zelsok idatzitako erasoaz  
geroztik areagotuz joan zena, Inperioa hilzorian zegoenean iritsi zen  
bere gorenera Mendebaldean. Aurkako sentimendu hau K.o. 416an  
Erroma inperialaren aldeko galiar jarraitzaile «amorratua» zen Rutilio  
Namaziano fedegabearen bihotzean kristau-monjeek kolonizaturiko  
—edo berak esango zukeen bezala, kutsaturiko— uharte hutsen ikus-  
kizun tristeak piztu zuen.

*«Aurrera goazela Kapraria sortzen da  
itsasotik; uharte kaskarra, argitik ihesi  
doazenekin bete; beren buruari, greziar hitz batez,*

*«monje» ezizena ematen diote,  
bakarrik bizi nahi baitute, inork ikusi gabe.  
Fortunaren emaitzek izutzen dituzte,  
horren gaitzen beldur dira.  
Nork, saminari ihesi, aukeratuko luke bizitza samina?  
Buru gaixo baten zer erokeria da hau,  
txarraren beldur izanik, on den guztia baztertzeko?»<sup>30</sup>*

Bere bidaia bukatu baino lehen, bere aberkide bat liluratu zuen beste uharte baten ikuskizun tristeagoa jasan behar izan zuen Rutiliok.

*«Uhinez inguratua itsasoaren erdian dago Gorgon  
alde batean Pisa eta bestean Cynus.  
Labarretatik ihes egin nuen, azken hondamendiaren  
oroigarri baitira; neure arrazako bat  
hemen galdu zen heriotza beldurgarriaz. Azkenaldian  
geure nazioko batek —goi-mailakoa jaiotzaz,  
ondasun edo ezkon-ahaidetik falta ez zuena—,  
burua galduta, gizakiak eta lurra utzi  
eta, erbesteratze superstiziosoaren gisara,  
leku lotsagarria bilatu zuen ezkutatzeko.  
Dohakabe gizagaixoari iruditzen zitzaion  
jainko-txinparta ahuldadeaz biziagotzen dela,  
eta bere biziari ubeldura ankerragoak egin zizkion  
jainko irainduek eurek baino.  
Zirzeren drogak baino ahulagoa ote da sekta hau?  
Orduan gorputzak eraldatzen ziren, orain gizakien gogoak»<sup>31</sup>.*

Bertso horietan zehar oraindik paganoa den aristokraziaren espiritua arnasten da, Erromatar Inperioaren hondamenaren kausa panteoi helenikoaren tradiziozko gurtzaren bazterketan ikusi zuena.

Hondoratzen ari zen Erromatar Inperioaren eta igotzen ari zen Kristau Elizaren arteko eztabaida honek planteaturiko arazoak sentimenduak astindu zituen, ez soilik zuzenean ukituriko garaikideenak, baita denbora-tarte handia igarota gertaera hari begiratzen dioten ondorengoenak ere. «Barbarotasunaren eta erlijioaren garaipena deskribatu dut» adierazpenean, Gibbonek ez ditu bakarrik bere liburuiko hirurogeita hamaika kapituluak sei hitzetan laburtzen, baizik eta Zelso eta Rutilioren aldekotzat jotzen du bere burua. Hark ikusi zuen beza-la, historia helenikoaren kultur gailurra antoninotarren aroan oso garbi

bereizten zen hamasei mendeko denbora-tartearen —Gibbonentzat kultur sakonunea zen tartearen— bestaldean. Sakonune horretatik irtenez, Gibbonen aiton-amonen belaunaldiak, berandu bada ere, lortua zuen Mendebaldean beste mendi baten aldapan gora igotzea, handik iragan helenikoaren gailur bikoitza berriro ere bere handitasun guztian ikusten zelarik.

Ikuspegi hau, Gibbonen lanean inplizituki edo zeharbidez dagoena, bere arloan haren pareko den hogeigarren mendeko antropologo batek formulatu du argi eta zorrotz:

*«Ama Handiaren erlijioa, basakeria latza eta goranahi espirituala era bitxi nahasten zituena, sortaldeko hainbat eta hainbat antzeko federen artean fede bat gehiago besterik ez zen. Paganismoaren azken egunetan Erromako Inperioan zehar hedatu ziren fede horiek, eta europar herriak bizitza-eredu arrotzez aseztu, antzinako zibilizazioaren egitura osoari azpiak jan zizkioten.*

*«Grezia eta Erromako gizartea ideia honen gainean zegoen eraikita: norbanakoak komunitateari, hiritarrak Estatuari egin behar zioten men; guztien ongia ezarri zuten jokabidearen xede nagusitzat norberaren onaren gainetik, hala mundu honetan nola etorkizunekoan. Umetatik batere norberekoia ez zen eredu honetan hezita, herritarrek zerbitzu publikoari eskaintzen zioten bizia, eta prest zeuden beren buruak denentzako onagatik ukatzeko; edo sakrifizio nagusiaren aurrean atzera egiten bazuten, inoiz ez zitzairen bururatzen gaizki jarduten ez zutenik beren bizia herrialdearen interesen gainetik jarrita. Hau guztia aldatu egin zen sortaldeko erlijioak hedatutakoan: arima Jainkoarekin bat egitea eta betiko salbazioa aldarrikatzen zuten bizitzaren helburu bakar; helburu horien aldean Estatuaren ona eta izaitea bera ere ez ziren ezer. Doktrina norberekoia eta ez-moral honen ezinbesteko ondorioa sinetsia zerbitzu publikotik gero eta gehiago aldentzea izan zen, pentsamenduak bere emozio espiritualetan kontzentratzea, eta oraingo bizitzarekiko destaina haztea harengan, hau beste bizitza hobe eta betiereko baterako frogatzea gisa besterik ez baitzuen ikusten. Santua eta bakartia, lurreko destainaz eta zeruari begi emanda estasian, gizateriaren ideal gorena bihurtu ziren jendearen iritzian, aberrialearen eta heroiaren ideal zaharra baztertuz; hauek, beren buruak ahaztuta, prest daude beren herriaren mesedetan bizitzeko eta hiltzeko. Lurreko hiria pobrea eta mespretxagarria iruditzen zitzairen*

*begiak zeruetako laino artean, Jainkoaren Hiria noiz etorriko zain jarrita zeuzkaten gizakiei.*

*«Hala, grabitate-zentrua, nolabait esan, oraingo bizitzatik geroaldikora aldatu zen, eta beste munduak asko irabazi bazuen ere, ez da dudarik hemengo honek asko galdu zuela aldaketan. Gorputz politikoaren desegite orokorra etorri zen. Estatuaren eta familiaren lokarriak laxatu egin ziren: gizartearen egitura bere osagai indibidualetan deseginez joan zen eta, beraz, barbarotasunean eroriz; zeren eta zibilizazioa hiritarren lankidetzak aktiboaren bidez eta beren interes pribatuak denentzako onaren mende jartzearen bidez baita posible, ez bestela. Gizonek uko egin zioten beren herrialdea defendatzeari eta beren askaziari iraunarazteari. Beren arimak eta besteenak salbatzeko kezka, ez zitzaion axola mundu materiala beren inguruan desagertzen uztea, gaitzaren printzipioarekin identifikatzen baitzuten. Obsesio honek mila bat urtez iraun zuen. Erdi Aroa amaitzean, Europa bizitzaren eta jokabidearen jatorrizko ereduak itzultzen zela adierazi zuen Erromako legearen, Aristotelesen filosofoaren, antzinako artearen eta literaturaren berritzeak, munduaren ikuspegi sanoago eta gizatiarragoetara itzultzen zela. Amaitua zen zibilizazioaren martxan izandako etenaldi luzea. Sortaldeko inbasioaldiak atze-ara egin zuen azkenean. Oraindik ere atzera darrai»<sup>32</sup>.*

Eta oraindik atzeraka ari zen lerro hauek idazteko garaian 1948an, eta idazle honek galdetzen zuen zer esango ote zuen jakitun jatorrak, garai hartan *Urrezko Abarra* berrikusi behar izan balu laugarren argitaraldirako, pasarte probokatibo horren argitalpenetik igarotako berrogeita bat urteetan Europak «bizi eta portatzeko jatorrizko idealek» itzultzeko hartu zituen bideetako batzuei buruz. Frazer eta haren pentsaera bertsuko garaikideak kristau-aroan hamabosgarren mendean Italian lehenengoz sortu zen eskola arrazional eta toleranteko mendebaldar neopaganoen azken belaunaldia izan ziren. K.o. 1952rako, mendebaldar gizarte sekularizatu baten hondogabeko sokenetatik sortutako esku demoniako, emozional eta bortitzeko ondorengoek ezabatu zituzten eremutik. Frazerren hitzak Alfred Rosenberg-en ahotsak berresan zituen bestelako tonu batez. Hala ere, bai Rosenberg eta bai Frazer, biak ari ziren gibboniar tesi berbera proposatzen.

Azterlan honen lehenagoko zati batean jada aztertu dugu luze Gizarte Helenikoaren kolapsoa kristautasunaren edo honen lehiakide



arrakastagabeak izan ziren Ekialdeko beste edozein erlijioaren sarrera jasan baino askoz lehenago gertatu zela benetan. Gure ikerketetan ondorio honetara iritsi gara, hots, erlijio nagusiak oraindik ez direla inoiz zibilizazioen heriotzaren errudun izan, nahiz eta tragedia hau oraindik posibilitate bat izan. Gaiaren hondarreraino iristeko gure ikerketa makrokosmosetik mikrokosmosera eraman behar dugu, iragan historiako egitateetatik giza izaeraren ezaugarri iraunkorretara.

Frazerren iritzia zera da, erlijio nagusiak funtsean eta erremediorik gabe antisozialak direla. Giza interesaren ikuspegia zibilizazioen helmuga diren idealetatik erlijio nagusien helmuga diren etara aldatzen denean, egia al da gizarte-balioek, zibilizazioek erreklamatzeko dituzten horiek, ezinbestean nozitu behar dutela? Antitetikoak eta elkarren etsai ote dira espiritu- eta gizarte-balioak? Zibilizazioaren egitura azpia janda geratzen al da bizitzan helburu nagusitzat gizabanakoaren arimaren salbazioa hartzen bada? Frazerrek baieztatu erantzuna ematen die galdera horiei; eta haren erantzuna zuzena balitz, esan nahiko luke giza bizitza tragedia bat dela katarsirik gabe. Azterlan honen egileak uste zuen Frazerren erantzuna okerra zela eta erlijio nagusien nahiz giza arimen izaera gaizki ulertzean oinarritua zegoela.

Gizakia ez da ez inurri desinteresatua, ez ziklope tratagaitza, «animalia soziala» baizik, eta bere nortasuna beste pertsona batzuekiko harremanen bidez bakarrik adieraz eta garatu dezake. Alderantziz, gizarteak ez da gizabanako baten harreman-sarearen eta beste batena-  
ren arteko lurralde komuna baizik. Ez da existitzen gizabanakoen ekintzetan baizik, eta hauek, bestalde, ezin dira existitu gizartearen ezik. Ez dago ere desarmoniarik gizabanakoak lagun hurkoekin dituen harremanen eta Jainkoarekin duen harremanaren artean. Gizaki primitiboaren ikuspegi espiritualean elkartasuna dago nabarmen tribuki-  
dearen eta bere jainkoaren artean, eta hau, tribukideak elkarren artean ez urruntzeaz gain, beraien arteko gizarte-loturarik sendoenetakoa da. Gizakiak Jainkoarekiko duen betebeharraren eta auzokoarekiko duen-  
naren arteko harmonia honen ondorioak maila primitiboan Frazerrek berak aztertu eta argitu zituen, eta desintegratzen ari ziren zibilizazio-  
ek horren testigantza emana zuten gizartearentzat lokarri berri bat bilatu zutenean jainkoturiko Zesar baten gurtzan. Harmonia desadostasun bihurtzen ote dute «erlijio nagusiek», Frazerrek uste duen beza-  
la? Teorian nahiz praktikan erantzuna ezezkoa litzateke.

A *priori*-zko ikuspegian (planteamendu horretatik hasteko) pertsonak ezin dira irudikatu jarduera espiritualaren agente gisa baidiz; eta jarduera espiritualarentzat imajina daitekeen eremu bakarra espirituen arteko harremanetan datza. Jainkoa bilatzean, gizakia gizarte-egintza ari da zertzen; eta Jainkoaren maitasuna ekintza bihurtu bada mundu honetan Kristoren bidez gizadia berrerosiz, orduan gizakia bere irudira egin zuen Jainkoaren antzekoago bihurtzeko gizakiaren ahaleginetan Kristoren jarraibideari segitzeko ahaleginak sartu beharko lirатеke, lagun hurkoak berreroszeko bere burua eskaintzea, alegia. Jainkoa bilatuz norbere arima salbatzeko ahaleginaren eta auzokoarekiko eginbeharra betetzeko ahaleginaren arteko antitesia faltsua da, beraz.

*«Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiaz. Hori da agindurik nagusiena eta lehena. Eta bigarrena, ez garrantzi gutxiagokoa, hauxe da: Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala»<sup>33</sup>.*

Garbi dago lurreko Eliza militantean mundutar gizarteen helburu sozial onak askoz arrakasta handiagoz lortuko direla helburu horietara zuzenean —eta ez goragoko ezertara— jotzen duen mundutar gizarte batean baino. Beste era batera esanda, banako arimen aurrerapen espiritualak bizitza honetan beste edozein erataria lor daitekeen baino gizarte-aurrerapen askoz handiagoa ekarriko du berekin. Bunyan-en alegorian, Erromesak ezin izan zuen aurkitu portaera oneko bizitzarako sarbidea zen «ataka», askoz urrutirago, ostertzean «argi distiratsua» ikusi zuen arte<sup>34</sup>. Eta guk hemen kristautasunaren terminoetan adierazi duguna gainerako erlijio nagusi guztien hitzetara alda daiteke. Kristautasunaren muina erlijio nagusien muina da klase bezala, nahiz eta begien arabera leiho desberdin hauek, zeinetan zehar argitzen baitu Jainkoaren argiak gizakiaren arima, gardentasunaren mailan edota helarazten dituzten izpien aukeraketan desberdin du daitezkeen.

Teoriatik praktikara, giza nortasunaren izaeratik historiaren erregistrora igarotzen garenean, erlijio-gizonak gizartearen premia praktikoen zerbitzura egon direla frogatzeko zereginak errazegia irudi lezake. San Frantzisko Asiskoa, San Bizente Paulekoa, John Wesley edo David Livingstone aipatuko bagenitu, frogarik behar ez duena frogatzen ari garela aurpegira dakiguke. Beraz, normalean arauaren sal-

buespentsat hartu eta isekagai bihurtzen den pertsona-mota bat aipatuko dugu, berehala «Jainkoz horditurikoa» eta «antisoziala» den pertsona-mota bat, santu eta barregarria, zinikoaren isekarako egokia, «pertsona ona, hitzaren zentzurik txarrenean»: hau da, kristau-anakoretak, San Antonio basamortuan edo San Simeon zutarrian. Garbi dago, lagun hurkoengandik banatu edo bakartzean, santu horiek askoz erlazio aktiboagoan ari zirela sartzen askoz zirkulu zabalagoarekin, «munduan» iraun eta bizitza zeregin sekularren batean eman izan balute beren inguruan bilduko zuketena baino. Beren erretiro-lekuetatik eragin handiagoa izan zuten munduan enperadoreak hiriburutik baino, Jainkoarekin elkartasuna bilatuz santutasunaren bilaketa pertsonala gizarte-ekintzaren forma bat baitzen, politika-mailako gizarte-zerbitzu sekular orok baino askoz indar handiagoz hunkitzen zituen gizakiak.

*«Batzuetan esan izan da Ekialdeko Erromaren ideal aszetikoa bere garaiko mundutik erretiratze antzua zela; Joan Limosnariaren biografiak iradoki lezake bizantziarrek, premia izan zutenean, zergatik jo zuten, pentsatu gabe, laguntza eta kontsolamendu bila aszetarengana, haren sinpatia eta laguntza izateko erabateko ziurtasuna baitzuten... Lehenengo bizantziar aszetismoaren ezaugarri nabarmenetako bat gizarte-zuzentasunaren eta behartsu eta zapalduen alde egiteko zaletasun sutua da»<sup>35</sup>.*

## 2.

### *Elizak krisalida gisa*

Elizak zibilizazioaren ehun biziak jaten dituzten kantzerrak direlako ikuspegia eztabaidatu dugu; hala ere, bat etor gaitezke Frazerrek esandakoarekin, aipaturiko pasartearen bukaeran: kristautasunaren marea, Gizarte Helenikoaren azken aldian hain indartsu goratu zena, beheratzen hasia zela azken egunetan, eta goratu zen Mendebaldeko kristautasun-osteko gizartea kristautasun-aurreko helenikoaren ordena berekoa zela. Oharpen honek elizen eta zibilizazioen arteko harremanaren bigarren ikuspegi posible bat irekitzen du,

Mendebaldeko jakitun moderno batek ondorengo pasartean adierazitako ikuspegia:

«Zibilizazio zaharra kondenatua zegoen... Bestalde, kristau ortodoxoarentzat, Eliza, Aaron bezala, biziaren eta heriotzaren artean zegoen, geroko munduko eta oraingo honetako gauzen artean bitarteko zerbait bezala. Kristoren gorputza zen eta, beraz, betikoa; beraren alde bizitzea eta lan egitea merezi zuen zerbait. Hala ere, munduan zegoen, inperioa bera bezalaxe. Elizaren ideia balio ikaragarria zuen puntu finko bat izan zen, bere inguruan pixkanaka zertu zitekeelarik zibilizazio berri bat»<sup>36</sup>.

Ikuspegi honetatik eliza unibertsalen *raison d'être* delakoa zibilizazio gisa ezagutzen ditugun gizarte-motak bizirik gordetzea da, bizi-hazi baliotsua kontserbatuz interregno arriskutsuan, espeziearen ordezkari hilkor baten desegintzaren eta beste baten sorreraren artean. Honela eliza bat zibilizazioen ugaltze-sistemaren zati litzateke, tximeleta eta tximeleta artean arrautza, larba eta krisalidaren papera eginez. Azterlan honen autoreak aitortu beharra zeukan bera urte askotan konforme egona zela elizek historian izandako paperaren ikuspegi paternalista samar horrekin<sup>37</sup>; eta artean uste zuen elizen ikuspegi hau krisalida gisa, kantzertzat hartzen zituena ez bezala, egiazkoa zela oso-osorik; baina gero sinetsi behar izan zuen beraiei buruzko egia- ren zati txiki bat bakarrik zela. Hala ere, orain aztertu behar dugun egia- ren zatia da.

K.o. 1952an artean bizirik zeuden zibilizazioetan jartzen badi- tugu begiak, ikusiko dugu haietako bakoitzak eliza unibertsalen bat zuela beren atzean, haren bidez belaunaldi zaharragoko zibilizazioen baten filial izanik. Mendebaldeko Zibilizazioa eta Kristau Ortodoxoa, Kristau Elizaren bidez, Zibilizazio Helenikoaren filialak ziren; Ekialde Urruneko Zibilizazioa, mahayanaren bidez, Zibilizazio Sinikoaren filial; Hindu Zibilizazioa, hinduismoaren bidez, Indikoarena; Zibilizazio Iranikoa eta Arabikoa, Islamaren bidez, Siriakoarenak. Zibilizazio hauek guztiek elizak zeuzkaten krisalida- tzat, eta desagertutako zibilizazioetatik bizirik iraundako fosilak, Azterlan honetan lehenagoko zati batean jorratuak, eliz bildukian kontserbatuta zeuden guztiak: adibidez, juduak eta parsiak. Fosilak, izan ere, eliz krisalidak ziren, beren tximeletak sortzen huts eginda- koak.

Zibilizazio bat aurreko batekin ahaidetzeko prozesua, ondorengo adibideen azterketan hiru alditan analiza daitekeela aurkituko dugu, krisalida-elizaren ikuspegitik, «sorraldia», «ernaldia» eta «erditzea» dei genitzakeenak. Gainera, kronologikoki hiru aldi horiek zibilizazio zaharraren desintegrazio-aldiarekin, interregnoarekin eta zibilizazio berriaren sorraldiarekin pareka daitezke gutxi gorabehera.

Filiazio-prozesuaren sorraldia eliza bere ingurune sekularrak eskainitako aukeraz baliatzen denean gertatzen da. Ingurune horren ezaugarrietako bat zera da, estatu unibertsalak, ezinbestean, gerarazi egin beharko dituela gizarteari bere hazkundealdian, baita arazoaldian ere, bizitasuna eman dioten erakunde eta bizimoduetakoko asko. Estatu unibertsalaren xedea baretasuna da, baina horrek sorturiko lasaitasun-sentipena laster ezabatzen du frustrazio-sentipenak; zeren eta bizia ezin baita gorde geldiarazita bakarrik. Egoera honetan eliza jaio berriak geldi dagoen gizarte sekularrari honek behar-beharrezkoena duen zerbitzua emanez lor dezake bere zori ona. Gizadiaren alferrik galdutako energientzako bide berriak ireki ditzake. Erromatar Inperioan, *«Kristautasunak paganismoaren gain izandako garaipenak... deklamazio-gai berriak eman zizkion hizlariari eta eztabaida-puntu berriak logikariari. Batez ere, printzipio berri bat sortu zuen, haren eragina etengabe sumatu zelarik gizartearen alde guztietan. Geldi zegoen masa bere sakonenean astindu zuen. Demokrazia ekaiztsuaren grina guztiak suspertu zituen inperio haziagi bateko biztanleria gogogabeen. Heresiaren beldurrak egin zuen zapalkuntzaren zentzuak ezin zuena; ardiak bezala tirano batengandik besteagana pasatzen ohitutako gizakiak aldatu eta jarraitzaile sutsu eta errebelde setati bihurtu zituen. Hain luzaroan isilik egondako ele-edertasunaren doinuak berriro ozendu ziren Gregorioten pulpitotik. Filiposeko ordokie-tan itzali zen espiritua Atanasio eta Ambrosioren berpiztu zen»<sup>38</sup>.*

Hau egia bezain adierazgarria da, baina bere gaia bigarren fasea edo «ernaldia» da. Lehen faseak, garaipenaren aurreko borrokak, gizon eta emakume arruntei sakrifizio gorena egiteko aukera indargarria eman zien, beren arbasoen aintza eta tragedia izan zena bezalakoa, Erromatar Inperioak arazoaldi baten itzaltzaile gisa bere estatu unibertsalaren bake grisa ezarri aurreko egunetan. Honela, «sorraldian» elizak bere baitan hartzen ditu estatuak jada askatu edo erabili ezin dituen energiak, eta bide berriak sortzen ditu energia

horiek ibil daitezzen. Ondorengo «ernaldiaren» ezaugarria elizaren ekintza-eremuak izaten duen hazkunde handia da. Bere zerbitzura gizon ohargarriak erakartzen ditu, administrazio sekularrean beren talentuarentzako lekua aurkitzen porrot egindakoak. Sortzen ari den erakundearen aldeko lerradura gertatzen da, eta bere lastertasuna eta eremua desintegratzen ari den gizartearen kolapsoaren erritmoak erregulatzen du. Adibidez, desintegratzen ari zen Zibilizazio Sinikoan mahayanaren arrakasta askoz beteagoa izan zen Ibai Horiaren arroan, eurasiar nomadek inbadituan, Yangzi arroan baino, non atzera eutsi baitzitzaizen luzaroan. Mundu helenikoan probintzietan latindartuek laugarren mendean kristautasunerantz izandako lerratzea bat etorri zen gobernuaren erdigunea Konstantinoplara aldatzearekin eta mendebaldeko probintzien benetako abandonuarekin. Ezaugarri berberak ikus daitezke desintegratzen ari zen mundu siriakoan Islamak izandako aurrerapenean eta desintegratzen ari zen mundu indikoan hinduismoak izandako aurrerapenean.

Mitologia islamikoaren irudi arkaiko baina adierazgarrietan eliza, bere historiako aldi heroiko honetan, Mahoma profetaren gorabeherekin alderatu genezake, zubia —labanaren ahoa bezain estua, eta paradisura sartzeko bide bakarra— infernuko leizezulo aho-zabalaren gainetik ibilera sendoz zeharkatzen duen aharia bezala. Sinesgabeak, abentura horretara beren oinez ausartzen direnak, leizera erortzen dira hutsik egin gabe; zeharkatzeko bidea aurkitzen duten giza arima baka-rrak, beren bertute edo fedearengatiko sari gisa, ahariaren larruari hel- tzeke aukera dutenak dira, seinale beatifikatuen forma eramangarri egokian. Zeharkaldia behar bezala burutu denean, elizaren transmisio- zerbitzuan «ernaldiaren» ondoren «erditzealdia» dator. Elizaren eta zibilizazioaren paperak alderantzikatu egiten dira orain, eta elizak — lehenago, «sorraldian», bizitasuna zibilizazio zahar batetik lortuak eta, «ernaldian», interregnoko ekaitzen artean itsastatuak— bere sabe- lean sorturiko zibilizazio berriari ematen dio orain bizitasuna. Energia sortzaile hori, erlijiozko babespean, ubide sekularretara isurtzen ikus- ten dugu gizarte-bizitzako ekonomia, politika eta kulturaren mailan.

Ekonomiaren mailan, eliza unibertsal «erditu berri» batek sor- tzen ari den zibilizazio bati utzitako ondarerik zirrargarriena Mendebaldeko mundu garaikidearen ekonomi balentrietan ikus zite- keen. Hau idazteko garaian, milurteko-laurden bat igaroa zen gizarte

sekular berri batek Mendebaldeko Kristau Eliza Katolikoaren krisalidatetik irteteko prozesu luzea osatu zuenetik; hala ere, Mendebaldeko teknologiaren aparatu miragarri eta beldurgarria Mendebaldeko kristau-monakismoaren albo-produktua zen nabarmen. Eraikuntza material ahaltsu honen oinarri psikologikoa lan fisikoaren eginbehar eta duintasunari buruzko sinestea zen: *laborare est orare*. Lana zerbait arrunt eta morroi-neskameei zegokien gauzatzen hartzeko ikuspegi helenikotik aldentze iraultzaile hau ez zen ezarriko San Benediktoren Erregelak ez balu santifikatu izan. Zimendu horren gainean benediktarren ordenak Mendebaldeko ekonomi bizitzaren nekazaritza-oinarria jarri zuen, eta oinarri horrek eman zion zisterar ordenari industri gainegiturarako oinarria, argitasun handiz zuzenduriko beraien jarduerak eraikia zutena; baina monjeek altxaturiko Babelgo Dorre honen gutziak eraikitzaileen auzoko sekularren bihotzetan lorturiko mailagatik hauentzat ezinezkoa izan zen esku hartu gabe egotea. Monasterioetan indarrez ebastea izan zen Mendebaldeko ekonomia kapitalista modernoaren oinarrietako bat.

Politikaren eremuari dagokionez, Azterlan honen lehenagoko zati batean aitasantutza ikusi dugu *Respublica Christiana* modelatzen, gizadiari aldi berean parroki subiranotasunen eta estatu unibertsalen onurez goatzeko aukera agintzen ziolarik, bataren eta bestearen alderdi txarrak pairatu beharrik gabe. Eliz koroatzearen bidez erresuma burujabeen estatus politikoari bere bedeinkazioa ematean, aitasantutza bizitza politikora berriro ari zen ekartzen Gizarte Helenikoaren hazkundealdian hain emankor izandako aniztasuna eta aukera, eta bitartean Gizarte Helenikoa hondamenera eramana zuen batasunik eza eta desadostasun politikoa eztitu eta kontrolatu egiten ziren aginpide espiritual garrantzitsuenaren eraginez, eta hau aitasantutzak erreklamatzeko zuen Erromatar Inperioaren eliz oinordeko zen aldetik. Parroki printze sekularrak elkarrekin biziko ziren batasunean eliz artzain baten gidaritzapean. Hainbat mendetako proba eta hutsegiteen ondoren, politika- eta eliz esperimendu honek porrot egin zuen, eta porrotaren zergatikoak Azterlan honetan lehenago jorratu dira. Guk hemen aski dugu hori Kristau Elizak bere «erditzealdian» jokaturiko paperaren adibide gisa hartzea, eta brahmanen eliz ermandadeari Hindu Zibilizazio jaio berriaren egituraketa politikoan jokatzeko egozkitu zitzaion paperaz ohartzeko. Brahmanek zilegitasuna eman zieten

rajput dinastiei, Kristau Elizak antzeko zerbitzua Klovís edo Pepín-  
egin zien era bertsuan.

Kristau Elizak Kristandade Ortodoxoan eta mahayanak Ekialde Urrunean jokaturiko paper politikoa aztertzeari ekiten diogunean, elizaren ekintza-eremua mugatua ikusten dugu bi gizarte horietan aurreko zibilizazioko estatu unibertsalaren arimari egindako deiaz: Hang Inperioko Sui eta Tang berpizkundeari eta Erromatar Inperioko Ekialdeko erromatar (bizantziar) berpizkundeari Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusian. Ekialde Urruneko Gizartean mahayanak leku berria aurkitu zuen beretzat, elkarren ondoan zeuden eta publiko beraren premia espiritualak asetzen zituzten hainbat erlijio eta filosofiaren artean beste bat bezala. Ekialde Urruneko Gizartearen bizitzan oztoporik gabe sartzen jarraitu zuen, eta Korea eta Japonia Ekialde Urruneko bizimodura kulturalki bihurtzen lagundu zuen. Bere papera hemen alderagarria da Mendebaldeko Eliza Katolikoak Hungaria, Polonia eta Eskandinavia Mendebaldeko Kristandadearen orbitara erakartzen jokaturiko paperarekin, eta Ekialdeko Eliza Ortodoxoak Zibilizazio Kristau Ortodoxoaren kimua Errusiako lurrean landatzen jokatu zuenarekin.

Eliza «erditu berriek» zibilizazio jaio berriei egindako ekarpen politikoetatik kulturaletara igarotzen garenean, zera aurkitzen dugu: adibidez, mahayana, jokaleku politikotik kanporatuta, eraginkorki finkatu zela berriro kulturaren eremuan. Mahayanaren adimen-indar iraunkorra budismo primitiboaren filosofi eskolatik hartutako ondarearen parte zen. Kristautasuna, bestalde, bere sistema filosofikorik gabe hasi zen eta *tour de force* bat saiatu beharrean aurkitu zen, hau da, bere fedea eskola helenikoen buru-kontzeptu arrotzetan aurkeztea. Mendebaldeko Kristandadean buru-amalgama heleniko hori erabat nagusitu zen hamabigarren mendean Aristoteles «hartuta» berrindartu zenean. Kristau Elizak ekarpen garrantzitsua egin zion Mendebaldearen aurrerapen intelektualari unibertsitateak sortu eta babestuz, baina elizaren kultur eraginak arte ederren eremuan izan zuen bere ekarpenik handiena; eta baieztapen honek, hain nabaria denez, ez du argibiderik behar.

Dagoeneko osatu dugu elizen ikerketa beren krisalida-paperean; baina, orain, hegaztiak bezala, goitik ikusi ahal izango bagenu aldi berean historiak ezagutu dituen zibilizazio guztiak beren arteko harre-



manetan, berehala ohartuko ginateke eliza-krisalida ez dela bitarteko bakarra bere bidez zibilizazio bat bere aurrekoaren filial izateko. Adibide bat jarriko dugu: Gizarte Helenikoa Minoikoaren filiala zen, baina ez dago frogarik mundu minoikoan eliza bat garatu eta Gizarte Helenikoari eliza-krisalida bat eman ziola esateko; eta, erlijio nagusiaren oinarritzko formaren batzuk garatu arren lehen belaunaldiko zibilizazio batzuen barne-proletalgoetan (eta agian beste batzuetan ere garatu dira, ikerkuntza modernoak jakin gabe), garbi dago oinarri horiek ez zirela behar bezain urruti iritsi ondorengo zibilizazioentzat krisalida eraginkorrak izateko. Eskura dauzkagun adibide guztien azterketak erakusten du bigarren belaunaldiko zibilizazioetako —Heleniko, Siriako, Indiko, etab. etako— *bakar bat ere ez* zela aurrekoaren filial izan eliza baten bidez; ezagutzen diren eliza unibertsal *guztiak* bigarren belaunaldiko zibilizazioetan desintegratzen ari ziren gizarte-gorputzen baitan garatu zirela; hirugarren belaunaldiko zibilizazioetako bakar batek ere —nahiz eta beraietako batzuk kolapsatuta egon eta desintegratzen ari diren (eta guztiak egon daitezkeen)— ez duela erakusten eliza unibertsalen bigarren uztaldirik ekoizten ari den froga garbirik.

Beraz, serie historiko bat dugu honela sailkatuko duguna:

Gizarte primitiboak

Lehen belaunaldiko zibilizazioak

Bigarren belaunaldiko zibilizazioak

Eliza unibertsalak

Hirugarren belaunaldiko zibilizazioak

Zerrenda hori buruan dugula, gauza gara orain planteatzeko ea elizak zibilizazio-belaunaldi partikular baten ugaltzeko bitartekoak baino zerbait gehiago diren ala ez.

### 3.

*Elizak, gizarte-espezie nagusi gisa*

#### *a) Sailkapen berria*

Orain arte uste honekin lan egin dugu: zibilizazioak izan direla historian protagonistak eta elizen papera, eragozpen (kantzer) izan

ala lagungarri (krisalida) izan, mendekoa izan dela. Azter dezagun orain beste aukera hau: elizak protagonista izan zitezkeela, eta zibilizazioen historiak, ez beren patuaren arabera, baizik eta erlijioaren historian duten eraginaren arabera planteatzea eta interpreta daitezkeela. Ideia hau berria eta paradoxikoa izan liteke, baina azken batean Biblia deitzen dugun liburu-bilduman historia planteatzeko erabilitako metodoa da.

Ikuspegi horretatik berrikusi egin beharko ditugu gure aurreko usteak zibilizazioen *raison d'être* delakoari buruz. Pentsatu beharko dugu bigarren belaunaldiko zibilizazioak ez zirela sortu, ez beren lorpenak egiteko, ezta beren espeziea hirugarren belaunaldi batean ugaltzeko ere, erlijio nagusi erabat garatuei jaiotzeko aukera emateko baizik; eta, erlijio nagusi horien sorrera bigarren mailako zibilizazioen kolapso eta desintegrazioen ondorio zenez, zibilizazio horien historien azken atalak —berorien ikuspuntutik porrotak diren atalak— esanahi bat izateko eskubidetzat hartu beharko ditugu. Pentsamolde horren haritik, zibilizazio primarioak xede berberarekin jaio zirela pentsatu beharko dugu. Beren ondorengoak ez bezala, lehenengo zibilizazio haiek huts egin zuten erlijio nagusi erabat garatuak jaioarazten. Beren barne-proletalgoen erlijio nagusi garatu gabeak —Tammuz eta Istar-en gurtza eta Osiris eta Isis-en gurtza— ez ziren loratu. Hala ere, zibilizazio haiek zeharka bete zuten beren eginkizuna bigarren mailako zibilizazioak jaioaraztean, azkenean hauetatik sortu zirelarik erlijio nagusi erabat garatuak, eta lehenengo zibilizazioen erlijio-produktu garatu gabeek bigarren belaunaldiak sortutako erlijio nagusien inspirazioetara egin zuten beren ekarpena, denboraren harian.

Ikuspegi honetatik, lehen eta bigarren mailako zibilizazioen goraldi eta erorikoak beste testuinguru batzuetan ere oharturiko erritmo baten adibideak dira, non gorpil baten biraketak aurrera eramaten duen gorpilari atxikitako ibilgailua. Eta, galdetzen badugu zergatik zibilizazioaren gorpilaren biraketan beherantzko mugimenduak izan behar duen erlijioaren gurdia aurrerantz eramateko bidea, erantzuna egia honetan aurkituko dugu: erlijioa jarduera espirituala dela eta aurrerapen espirituala Eskilok bi hitzetan aldarrikaturiko «legearen» mende dagoela:  $\pi\acute{\alpha}\theta\epsilon\iota\ \mu\acute{\alpha}\theta\varsigma$ , «sufirimenduaren bidez ikasten dugu». Bizitza espiritualaren izaeraren intuizio hori kristautasunaren eta honen senide ziren erlijio nagusien —mahayana, Islam eta hinduis-

moaren— loratzean burutu zen ahalegin espiritualari aplikatzen badiogu, Tammuz eta Atis eta Adonis eta Osirisen nekaldietan Jesukristoren Nekaldiaren iragarpena suma genezake.

Kristautasuna Zibilizazio Helenikoaren kolapsoaren ondoriozko neke espiritualetatik sortu zen; baina hori istorio luzeagoaren azken atala zen. Kristautasunak judu- eta zoroastroar sustraiak zituen, eta sustrai horiek bigarren mailako beste bi zibilizazioen — Babiloniko eta Siriakoaren— lehenagoko kolapsotik erne ziren. Israel eta Judako erresumak, non baitaude judaismoaren sorburuak, mundu siriakoko parroki estatu gerrazale askotariko bi izan ziren; eta komunitate mundutar horien eraispena eta beren handinahi politiko guztien desagertzea izan ziren judaismoaren erlijioa sortarazi zuten esperientziak, eta hauek eragin zuten adierazpen gorena Zerbitzari Sufritzailearen elegian<sup>39</sup>, K.a. seigarren mendean konposatua arazoaldi siriakoaren hilzoriko azken uneetan, Akemenestar Inperioaren fudazioaren bezperan.

Hala ere, hori ez zen izan prozesuaren hasiera, zeren eta kristautasunaren sustrai judaikoak bere moisetar sustraia baitzuen, eta Israel eta Judako erlijioaren profetaurreko aldi hau aurreko hondamendi sekular baten emaitza zen, Egiptoko «Inperio Berriaren» kolapsoarena, hain zuzen, horren barne-proletalgoan sartu zituztelarik israeldarrak, berauen tradizioen arabera. Tradizio horiek beroriek ziotenez, beren historiako pasadizo egipziakoak aurrez hastapen sumerikoa izan zuen, non Abraham, egiazko Jainko bakarragandik errebelazioa hartu zuen, Ur-eko hiri inperial kondenatutik irteten baitzen, Zibilizazio Sumerikoaren desintegratioko uneraren batean. Honela, aurrerapen espiritualaren lehen urratsa, kristautasuneari burutuko zena, historialariek ezagutzen duten estatu unibertsal baten lehenengo kolapso-kasuarekin elkartua zegoen tradizionalki. Ikuspegi honetatik, kristautasuna aurrerapen espiritual baten gailurtzat har daiteke, zenbait hondamendiren gainetik bizirik iraun ez ezik, bere inspirazio metatua ere berorietatik atera zuen. Honen arabera, erlijioaren historiak unitarioa eta progresiboa dirudi, zibilizazioen historien aniztasun eta errepikakortasunaren kontrastez; eta denbora-dimentsioko kontraste hau espazio-dimentsioan ere agertzen da; zeren eta kristautasunak eta beste hiru erlijio nagusiek, kristau-aro hogeigarren mendean bizirik dirautenek, kidetasun estuagoa baitzuten beren arte-

an zibilizazio adinkideek beren artean eduki ohi zutena baino. Kidetasun hau bereziki estua zen kristautasunaren eta mahayanaren artean, Jainkoaren ikuspegi berbera baitzuten bere burua eskaintzen duen salbatzaile gisa. Islamari eta hinduismoari dagokienez, beraiek ere bazuten Jainkoaren izaerari buruzko sena, zentzu bereizgarria eta beren zeregina ematen ziena. Islama Jainkoaren batasunaren berrespena zen, egia garrantzitsu honek kristautasunean ahultzeko zuen jarreraren aurka, eta hinduismoak Jainkoaren nortasuna berretsi zuen giza debozioaren xede gisa, budismo primitiboaren filosofi sisteman nortasunaren existentziaz itxuraz egiten zen ukapenaren aurka. Lau erlijio nagusiak gai bakar baten lau aldaera ziren.

Baina, horrela bada, zergatik, orduan, jatorri judaikoa duten erlijioetan —kristautasunean eta Islamean— errebelazioaren batasunaz gizakiak duen susmoa espiritu gutxi eta bakan batzuetara mugatu izan da orain arte, ohiko ikuspegia aurkakoa zen bitartean? Erlijio nagusi judaiko bakoitzaren ikuspegi ofizialean bere leiho pribatutik dir-dir egiten zuen argia zen argi bete bakarra, eta bere senide zituen erlijio guztiak argitzalean eserita zeuden, ilunpetan ez bazeuden. Ikuspuntu berbera zeukan erlijio bakoitzeko sekta bakoitzak bere senide ziren sekta guztien aurka; eta hainbat denominazioen jarrera honek —guztien artean komun zutena ez aitortu eta bakoitzak beste-en errebindikazioak ez onartu nahi izatekoak— eman zion agnostikolari birao egiteko aukera.

Gauzen egoera tamalgarri honek mugarik gabe jarraituko ote duen galdetzen dugunean, testuinguru honetan «mugarik gabe» hitzek zer inplikatzeko duten gogoratu behar dugu. Alegia, gogoratu behar dugu giza endak bere teknika aurkitu berriak animali bizitza planetatik desagertarazteko erabiltzen ez baditu behintzat, giza historia oraindik bere haurtzaroan dagoela, eta balitekeela milaka urte zenbatezinetan horrela jarraitzea. Ikuspegi honetatik erlijio-txokokeriaren egungo egoerak mugagabe jarraitzearen nozioa zentzugabea gertatzen da. Edo elizek eta erlijioek elkar desagertaraziko dute bizitzatik, Kilkenny katuetatik haien ekintza bertuen bukaeran geratu zena baino ezer gehiago geratzen ez den arte, edo bestela giza enda batuak erlijio-batasunean aurkituko du salbazioa. Orain ea ezer aurreikus ote deza-kegun ikusi behar dugu, gutxi gorabehera bada ere, zein izan litekeen batasun horren izaera.

Erlijio apalagoak, beren izaeraz, tokian tokikoak izaten dira; tribu edo parroki estatuen erlijioak izaten dira. Estatu unibertsalak ezartzeak ezabatu egiten du erlijio horien *raison d'être*-a eta eremu zabalak ezartzen ditu, hauen barruan erlijioek —nagusiek edo bestelakoek— lehian jarduten dutelarik konbertituen bila. Erlijioa aukera pertsonal bihurtzen hasten da honela. Dagoeneko behin baino gehiagotan ikusi dugu Azterlan honetan hainbat erlijioek lehian jardun zutela kristautasunak Erromatar Inperioan irabazitako sariagatik. Zein izango litzateke emaitza, orain mundu-mailan, eremu bakar batean, aldi bereko misiolaritza berriro piztuko balitz? Akemenestar, Erromatar, Kushan, Han eta Gupta inperioen eremuetan zertutako jardueren historiek erakusten zuten emaitza bi aukeratako edozein izan zitekeela. Edo erlijio bakar bat gerta liteke garaile edo erlijio lehiakideak beren artean adiskidetu egin litezke elkarren ondoan bizitzeko, mundu sinikoan eta indikoan bezala. Bi amaierak ez ziren irudi lezaketan bezain desberdinak, zeren eta erlijio garaile batek normalean lehiakideen ezaugarri nagusietako batzuk bereganatuz lortzen baitzuen garaipena. Kristautasun garailearen panteoian, Zibeles eta Isisen figurak Mariaren, Jainkoaren Ama Handiaren, antzaldaketan berretsi ziren, eta Mitras eta Sol Invictus-en ezaugarriak Kristoren aurkezpen militantean ikus zitezkeen. Antzeratsu, Islam garailearen panteoian, Jainko haragitu kanporatua Ali jainkotuaren forman mozorrotuta itzuli zen isilka, idolatria debekatua fundatzailearen beraren egintzan berretsi zen bezala, Mekako Kaaban Harri Beltzaren gurtza fetitxea berriro sagaratu zuenean. Hala ere, bi bukaera alternatiboen arteko desberdintasuna garrantzitsua da; eta hogeigarren mendean mende-baldartzen ari zen munduko jendea ezin zen axolagabea izan bere kasuko etorkizunari buruz.

Zein zen emaitzarik gertagarriena? Iraganean, jatorri judaiko-ko erlijio nagusiak zelaian zeudenean intolerantzia izan zen nagusi, eta ethos indikoa nagusitu zen lekuetan «bizi eta bizitzen uztea» izan zen erregela. Kasu honetan erantzuna erlijio nagusiek beren bidean aurkitzen dituzten aurkarien izaerak emango luke.

Zergatik kristautasunak, Jainkoa maitasun den judu-intuizioa onartu eta aldarrikatu ondoren, onartu ote zuen berriro horrekin bat ez datorren Jainko jeloskorren judu-kontzeptua? Atzerakada hau, ordu-danik kristautasunari kalte espiritual larria pairarazi ziona, Zesarren

gurtzarekin hil ala biziko borrokan garaipena lortzeagatik ordaindu behar izan zuen prezioa izan zen; eta Elizaren garaipenaren bidez bakea berriro ezartzeak ez zuen desagertarazi, baizik eta, alderantziz, berretsi egin zuen Jahve eta Kristoren elkartze inkongruentea. Garaipenaren orduan kristau-martirien amorerik ez ematea kristau-jazarleen tolerantziarik eza bilakatu zen. Kristautasunaren historiako lehen atal hau gaitzesgarria zen hogeigarren mendean mendebaldarturiko munduaren itxaropen espiritualentzat, zeren eta Leviatanen gurtza, lehenengo Kristau Elizak erabakigarria zirudien porrota eragin ondoren, berretsi egin baitzen estatu-mota totalitario baten sorrera beldurgarriarekin, bertan antolaketa eta mekanizaziorako Mendebalde modernoko jeinua deabruzko inozotasunaz izan baitzen erreklutatua, gorputzak ez ezik arimak ere esklabo hartzeko xedeaz, iraganean asmorik txarreneko tiranoen eskumenean ere egon ez zen mailaraino. Mendebaldarturiko mundu modernoan, Jainkoaren eta Zesarren arteko gerra berriro piztuko zela ematen zuen; eta ematen zuen, egoera horretan, moralki ohoragarria baina espiritualki arriskutsua zen pape-ra, eliza militante gisa balio izateko papera, berriro ere kristautasunari egokituko zitzaiola.

Kristau-aroko hogeigarren mendera jaiotako kristauek kontuan izan behar zuten, beraz, Zesarren gurtzaren aurkako bigarren gerra batek Jahveren gurtzarantz bigarren atzerakada bat ekar diezaiokeela Kristau Elizari, lehenengotik suspertu baino lehen. Hala ere, federik baldin bazuten sinesteko azkenean Jainkoaren errebelazioak, Kristo sufritzailean haragituriko Maitasun gisa, harrizko bihotzak haragizko bihotz bihurtuko zituela, agian ausar zitezkeen erlijioak izan dezakeen etorkizunera begiratzen politikoki baturiko munduan, kristau-errebelazioak Jahveren gurtzatik nahiz Zesarren gurtzatik askaturiko munduan.

Kristau-aroko laugarren mendearen bukaera alderantz, Eliza garailea berekin elkartu nahi ez zutenak jazartzen hasi zenean, Simako paganoak protesta egin zuen hitz hauekin: «hain misterio handiaren bihotzera sekula ezin da iritsi bide bakar bati soilik jarraituz». Esaldi honetan paganoa gehiago hurbildu zen Kristorengana haren kristau-jazarleak baino. Karitatea da ulerkuntzaren ama, eta gizakiak benetako Jainko bakarrarenganako hurbilketan uniformetasuna ezi-nezkoa du, giza izaera markatua baitago Jainkoaren sorkuntza-lanaren

ezaugarri den aniztasun emankorrarekin. Erlijioa giza arimek jainko-argia hartu ahal izateko existitzen da, eta ezingo luke helburu hori bete, Jainkoaren giza gurtzaileen aniztasuna zintzo islatuko ez balu. Ikuspegi honetatik, suposa liteke erlijio nagusi bizietako bakoitzak eskainitako biziera eta Jainkoari buruz aurkezturiko ikusmoldea tipo psikologiko nagusietako batenak izatea gerta daitekeela, berauen ezaugarriak pixkanaka argitara eman dituztelarik giza jakintzaren arlo berri honetako aitzindariak hogeigarren mendean. Erlijio hauetako bakoitzak ez balu benetan asebate zabal sentituriko giza premiaren bat, nekez imajina daiteke horietako bakoitzak gizadiaren zati handi baten leialtasuna bereganatzen arrakasta izatea hain denbora luzean. Ikuspegi honetatik erlijio nagusi bizien aniztasunak behaztopa-harri izateari utziko lioke eta giza psikearen aniztasunaren beharrezko korolario gisa agertuko litzateke.

Erlijioaren etorkizunaren ikuspegi hau konbentzigarria balitz, zibilizazioen paperaren ikuspegi berri bat irekiko luke. Erlijioaren gurdiaren mugimendua etengabea balitz bere norabidean, zibilizazioen goraldi eta erorikoen mugimendu zikliko eta errepikatua, antitetikoa ez ezik, mendekoa izatea ere gerta liteke. Jaiotza-heriotza-jaiotzaren «gurpil neketsuak» lurlean aldizka emandako biraketen bidez, gurdia zerurantz igoarazten bete ahal izango luke bere helburua eta aurkitu bere esanahia.

Ikuspuntu honetatik lehenengo eta bigarren belaunaldietako zibilizazioek argi eta garbi justifikatuko lukete beren existentzia, baina hirugarren belaunaldikoen erreklamazioek, lehen begiratuan, dudazkoagoak emango lukete. Lehen belaunaldiak, bere beheraldian, erlijio nagusien hastapenak sortu zituen; bigarren belaunaldiak, hau idazteko garaian oraindik aktibo zeuden espezien lau ordezkari erabat garatu sortu zituen. Hirugarren belaunaldiko barne-proletalgoen emaitzen artean bereiz litezkeen erlijio berriek, hau idazteko garaian, oso gauza kaskarra erakusten zutela zirudien; eta, George Elliot-ek idatzi bezala, «profezia giza errakuntzaren erarik funsgabekoena» izan arren, arrisku handirik gabe iragar daiteke erlijio horiek ez dutela garrantzirik izango epe luzera. Agian, Mendebaldeko Zibilizazio modernoaren existentziarako imajina daitekeen justifikazio bakarra, orain aurkezten ari garen historiaren ikuspegitik, zera da: kristautasunari eta honen senide biziak diren hiru erlijioei mundu-mailako topa-

gune mundutar bat ematea, beren azken balio eta sinesmenen batasunaz ohartaraztea, eta guztiak berdin erronka baten aurrean jartzea, hots, idolatriaren susperraldiaren— gizakiak bere burua taldean gurtzeko forma bereziki kaltegarriaren— aurrean jartzea.

*b) Elizen iraganaren esanahia*

Kapitulu honen aurreko zatian hartutako jarrerak erasoak izan ditzake, bai erlijio guztiak asmakeria eta ameskeriatzat hartzen dituztenen aldetik, bai elizak, berauek aitortzen duten fedearrekiko, erabat eta beti ezduintzat jotzen dituztenen aldetik. Lehenengo eraso-bideaz arduratzea historiaren Azterlan honen eremutik kanpo legoke; eta, azkenekora mugatzen bagara, gogotsu onartuko dugu gure kritikariak material ugari duela bere salaketarako. Kristau Elizaren buruzagiak, adibidez, zaharrenetatik berrienetaraino hainbat garaitan, badirudi beren bidetik aldendu egin direla beren Fundatzailea ukatzeko juduen klerikalismoa eta fariseismoa berenganatuz, baita greziarren politeismoa eta idolatria, eta erromatarren herentzia zen interes pertsonalen defentsa legalista ere; eta beste erlijio nagusiak ez zeuden honelako kritiketatik babestuago.

Porrot horiek esplikatu daitezke, baina ez desenkusatu, noski, viktoriar gotzain buruargi baten eztenkadaren bidez; eliz gizonak hain zentzugabeak zergatik ziren galdetu ziotenean, erantzun omen zuen: «Eta zer espero duzue? Gu laikoen artetik bakarrik irteten gara». Elizak ez daude santuz osatuak, bekatariz baizik, eta edozein gizartetako eta edozein garaitako elizak, eskolak bezalaxe, ezin dira bizi, mugitu eta existitzen direneko gizartea baino askoz aurrerago ibili. Baina aurkariak berriro eraso eta gure viktoriar gotzainari zera erantzun diezaioke zakar: bere elizak laiko horien artetik ez duela onena aukeratu, azken hondarrak baizik. Politikoki pentsatzen zuten aurkariak Kristau Elizaren kontra Mendebaldeko mundu modernoan etengabe egin duten salaketa aurrerapenaren gurpiletan oztupo izatea izan da.

*«Kristautasunaren ondoko Mendebaldeko Zibilizazioa hamaazapigarren mendetik aurrera Mendebaldeko Kristandadetik aldenduta garatu zenean, Elizak, sekularismoa hedatzearen eta neopaganismoa itzultzearen beldur izanik arrazoiz, fedea desagertzen ari zen gizarte-sistemarekin identifikatu zuen oker. Honela, errakuntza «liberal», «modernista» eta «zientifiko» aurkako atzegoardiako jarduerak*



intelektuala gidatzen zuen bitartean, arkaismo politikoaren jarreran erori zen zuhurtzigabe, feudalismoa, monarkia, aristokrazia, «kapitalismoa» eta, oro har, ancien régime-ren alde eginez, eta ohiko arerio «iraultzailea» bezain antikristau ziren erreakzionario politikoen aliatu eta sarritan tresna bilakatu zen. Hemendik dator oso eredugarria ez den kristautasun modernoaren paper politikoa: hemeretzigarren mendean monarkiarekin eta aristokraziarekin elkartu zen demokrazia liberala salatzeke; hogeigarren mendean demokrazia liberalarekin elkartu zen totalitarismoa salatzeke. Honela, Frantziako Iraultzaz geroztik, bazirudien fase politiko bat atzeratuta zegoela denboran. Hau, jakina, mundu modernoan kristautasunari egindako kritika marxistaren muina da. Baliteke kristau-erantzuna zera izatea, hots, desintegratzen ari den zibilizazioko gadaratar txerriak buruz aurrera behearantz doazenean, Elizaren erantzukizuna atzealdean egotea izan litekeela, ahalik eta begirik gehienek atzerantz maldan gora begira dezaten»<sup>40</sup>.

Erlijioa txorakeria zela uste zutenei salaketa horiek eta egin litezkeen beste askok berretsi baino ez zieten egingo dagoeneko hartua zuten ikuspuntua. Bestalde, Azterlan honen autorea bezala, erlijioa bizitzako gauzarik garrantzitsuena zela sinesten zutenak, sineskizun honek oso ikuspegi luzea hartzera eramanez zitzakeen: labur samarra izan arren, antzinatearen laino artean desagertzen den iragana gogoan hartzera eta, hidrogenozko bonbaz edo Mendebaldeko teknologiaren beste *chef-d'oeuvre*-ren baten bidez gizadiak bere buruaz beste egiten ez badu, ia pentsaezina den denboraldi luzean garatzen jarraituko lukeen etorkizuna imajinatzen.

### *c) Bihotzaren eta buruaren arteko gatazka*

Jainkoaren bila zebiltzan arimak nola bereiziko zituzten erlijioaren funtsa eta bere akzidenteak? Mundu-mailan batzen ari zen *Oikoumenê* batean, kristau, budista, musulman eta hinduek, nola egingo zituzten aurrerapen handiagoak bide honetatik? Argi espiritualaren bilatzaile hauentzat zabalik zegoen bide bakarra bide gogorra zen, beren aurrekoek erlijiozko argitzapenaren mailaraino egina, kristauaroko hogeigarren mendeko erlijio nagusiak izanik horren ordezkari. Paganismo primitiboan gorpuzturiko etaparekin konparatuz, haien argitzapen erlatibo aurrerapen miragarria zen; baina ezin luzaroagoan jarraitu aurrekoen nekeetan oinarrituta, bihotzaren eta buruaren

arteko gatazkak —konpondu gabe utzi ezin zutena eta espiritualki aurrerago eginez bakarrik konpon zitekeena— atsekabeturik baitzeuzkan.

Gatazka hau konpondu ahal izateko nola sortu zen ulertu behar zen, eta zorionez bihotzaren eta buruaren artean orduan zegoen gatazka ez zen iluna. Mendebaldeko zientzia modernoak erlijio nagusietan izandako eraginak lastertu zuen, eta eragin horrek oraindik antzinako tradizioen masa handia berekin zeramaten aldian harrapatu zituen, edozein ikuspegitatik ere jadanik zaharkituta zeudenak, zientzi ikuspegi modernoak sortu ez balitz ere.

Hura ez zen erlijioaren eta arrazionalismoaren artean historian ezagututako lehen topaketa-kasua. Lehenagoko beste bi kasu gutxienez izan ziren. Bietako berriena aztertzeko lehenik, gogora dezagun lau erlijio nagusi bizietako bakoitzak arrazionalismoaren bertsio zaharrago batekin topo egin zuela —eta, kasu honetan, bakoitzak lortu zuela moldatzea— erlijio bakoitzaren historiako lehenagoko atal batean. Orain bakoitzaren teologia ortodoxoa ezarritako filosofia sekularrarekiko moldaketaren emaitza zen, sortzen ari zen erlijioak ezin izan baitzuen filosofia hori errefusatu, edo ezta kontuan hartu gabe utzi ere, pentsamendu-eskola honek gutxiengo landu baten giro mentala gobernatzen zuelako garai hartan elizaren misio-eremu zen gizartean. Teologia kristau eta islamikoa kristautasunaren eta Islamaren aurkezpena zen filosofia helenikoaren arabera, eta hindu-teologia hinduismoaren aurkezpena zen filosofia indikoaren arabera; mahayana, berriz, filosofia indikoaren eskola bat zen, erlijio bihurtua aldi berean filosofia izateari utzi gabe.

Hori ez zen izan, hala ere, prozesu honetan lehenengo atala; zeren eta filosofiak, sortzen ari ziren erlijioek haiek kontuan hartu behar izan zituztenean jadanik ideia-sistema gogortuak, garai batean mugimendu intelektual dinamikoak izan ziren; eta bizitza eta hazkunderaren gatzaro honetan —Mendebaldeko zientzia modernoaren hazkundealdiarekin parekagarria— filosofia heleniko eta indikoek erlijio paganoekin topo egin zuten, Zibilizazio Heleniko eta Indikoak gizaki primitiboagandik heredaturiko erlijioekin.

Lehen begiratuan badirudi bi aurrekari horiek lasaigarriak direla. Gizadiak bizirik iraun badu erlijioaren eta arrazionalismoaren artean iraganean izandako bi tokapetetan, ez al da hori seinale

ona egungo gatazkaren emaitzari begira? Erantzuna zera zen, aurreko bi topaketa horietako lehenengoan ez zela sortu ere egin egungo arazoa, eta azkenekoan, berriz, bere garaiko eta lekuko xedeetarako hain konponbide eraginkorra izan zuenez, bizirik iraun zuela hogei-garren mendeko mundu mendebaldartuak aurrean duen arazoaren gako bihurtzeko.

Sortzen ari zen filosofiaren eta paganismo tradizionalaren arteko topaketan, ez zen bihotza eta burua adiskidetzeko arazoa planteatu, ez zegoelako bi organoek elkar jotzeko eremu komunik. Erlijio primitiboaren muina ez da sinesmena, ekintza baizik, eta adostasunaren proba ez da kredo bat onartzea, errito-ekitaldietan parte hartzea baizik. Erlijiozko praktika primitiboa helburu bat da bere horretan, eta praktikatzaileei ez zaie bururatzen zertzen dituzten erritoez harantzago begiratzerik, errito horiek adieraz dezaketen egiaaren bila. Erritoeak ez dute esanahirik zuzen gauzatzeak ustez eragiten duen efektu praktikoz harantzago. Beraz, erlijiozko egoera primitibo honetan, filosofoak sortzen direnean gizakiaren inguramenaren mapa termino intelektualetan egiteko asmoz, horiei «egiazko» eta »gezurrezko» etiketak ezarri, ez da elkar jotzerik gertatzen filosofoak herentziazko erlijio-betebeharrak zertzen jarraitzen duen bitartean; eta bere filosofian ezer ezin egon hori egitea eragotz diezaiokeenik, errito tradizionaletan ez baitago ezer edozein filosofiarekin bateragarri izan ez daitekeenik. Filosofiak eta erlijio primitiboak elkar jotzerik gabe topo egin zuten, eta erregela honekiko nabaria dirudien salbuespen batek bestelako itxura hartzen du zorrotzago aztertuta. Sokrates ez zen martiri filosofiko bat, paganismo jazarleak heriotzara emana. Egoeraren azterketak garbi uzten du haren hilketa judiziala Peloponesoko gerran Atenasek izandako porrotaren ondoren alderdi lehiakideen arteko borroka politiko basatiaren gorabehera izan zela. Atenastar «faxisten» buruzagia ez balitz haren ikasleen artean izan, ziur aski Sokrates bere ohean hilko zen, mundu siniko paganoan haren «parekide» zen Konfuzio bezain baketsu.

Egoera berria sortu zen erlijio nagusiak jokalekuan azaldu zirenean. Egia esan, erlijio nagusi haiek arrastaka zekarten berekin tradiziozko erritoen zama astun bat, fede berriak lehenengoz agertu ziren gizarteetan nagusi zirenak; baina erlijiozko hondar hau ez zen, noski, beraien muina. Erlijio nagusien ezaugarri berria zera zen: leialtasuna-

ren erreklamazioa beren profetek hartu omen zituzten errebelazio pertsonaletan oinarritzen zutela; eta profeten mezu hauek, filosofoen proposizioak bezalaxe, «egiazko» edo «gezurrezko»tzat jo zitezkeen egitatezko adierazpen bezala aurkezten ziren. Horregatik, egia adimen-  
alor eztabaidatua bihurtu zen; aurrerantzean bi aginpide burujabe zeuden, errebelazio profetikoa eta arrazoi filosofikoa, eta bakoitzak erabateko eskumena eskatzen zuen adimenaren ekintza-eremu osoaren gain. Honela, ezinezkoa gertatu zen arrazoiarentzat eta errebelazioarentzat elkarrekin bizitzea eta bizitzen uztea, arrazoiaren eta erritualaren sinbiosi adiskidetsuaren aurrekari itxaropentsuan oinarrituta. Orain bazirudien «egiak» bi forma zituela, bakoitzak baliotasun erabateko eta nagusia erreklamatzeko zuelarik beretzat, bestea baztertu nahirik. Egoera berri eta jasangaitz honetan bi aukera bakarrik zeuden. Orain batera zeuden bi egi forma horien ordezkari lehiakideak ados jartzera iristea ala bata edo bestea zelaitik kanpo geratu arte borroka egitea.

Alde batetik filosofia heleniko eta indikoaren eta bestetik errebelazio kristau, islamiko, budista eta hinduaren arteko topaketetan, alderdiak moldaketa baketsura iritsi ziren: filosofiak, adierazi gabe, errebelazioaren mezuen aurka kritika arrazionala ez erabiltzea onartu zuen, eta trukean profeten mezuak sofisten hizkeran berriro formulatzea onartu zitzaion. Ez dugu zertan dudatu tratatu hori fede onez egin zela bi aldeetatik, baina ikusten dugu ez zela izan egia zientifiko eta profetikoaren arteko erlazioaren problemaren benetako konponbidea. Bi egi mota horien adiskidetze posiblea, teologia deituriko buru-diziplina berriaren arabera, hitzekoa baino ez zen izan, eta kredoetan finaturiko formulak ezin ziren inola ere iraunkorrak izan, aurkitu bezain anbiguo uzi baitzuten egiaren esanahi ekibokoa. Bigarren gatazkaren sasikonponbide hori belaunaldiz belaunaldi igarota zen, egungo mundu mendebaldartuan erlijioaren eta arrazionalismoaren gatazka konpontzeko laguntza baino eragozpen handiagoa delarik. Benetako konponbidea ezin zen aurkitu onartu arte «egia» hitza bera, filosofo eta zientzialariek erabiltzean edo profetek erabiltzean, ez dela errealtate berberei buruzkoa, bi esperientzi forma desberdinentzako homonimoa baizik.

Gatazka berriro ere piztu beharrekoa zen lehenago edo geroago, deskribatu dugun konpromisoaren ondorio gisa; zeren eta, errebe-

lazioaren egia hitzen bidez zientziaren egiaren arabera formulatu ondoren, zientzialariek ezin baitzuten zientifikoki egia omen zen doktrina-gorputz bat kritikatu gabe betiko jarraitu. Beste aldean, kristautasuna bere doktrina hizkera arrazionallean adierazi ondoren, ezin zen geratu arrazoimenaren bidezko eremuan sartzen ziren jakintza-arloen gain agintea erreklamatu gabe; eta, hamazazpigarren mendean, Mendebaldeko zientzia modernoa filosofia helenikoaren lilura apurtzen eta alor intelektual berrietara sartzen hasi zenean, erromatar elizaren lehen bulkada, esnatzen ari zen Mendebaldeko intelektuak Elizaren aliatu intelektual heleniko zaharraren aurka egindako erasoak gaitzestea izan zen, astronomiaren teoria geozentrikoa kristau-fedearen artikulua izan balitz bezala, eta Galileok egindako Ptolomeoren zuzenketa teologi errakuntza izan balitz bezala.

K.o. 1952. urterako zientzia eta erlijioaren arteko gerra honek hirurehun urte zeramatzan, eta eliz agintarien jarrera 1939ko martxoan Hitlerrek Txekoslovakiaren gerakina suntsitu zuenean Britainia Handi eta Frantziako gobernuak izandako bertsua izan zen. Berrehun urte baino gehiagoz, elizek ikusi zuten zientziak banan-banan kentzen zizkiela arloak. Astronomia, kosmogonia, kronologia, biologia, fisika, psikologia... txandaka guztiak hartu eta berregin ziren erlijio-irakaspen ezarriarekin bateraezinak ziren bideetatik, eta galera horiei bukararik ez zitzairen ikusten. Eliz agintari batzuek egoera ikusi zuten bezala, elizei geratzen zitzairen itxaropen bakarra erabateko intrantsigentzia zen.

Espiritu «gogor» honek Erromako Eliza Katolikoan K.o. 1869-70eko Kontzilio Vatikanoren dekretuetan izan zuen adierazpidea, eta 1907an modernismoaren aurka botatako anateman. Ipar Amerikako eliza protestanteen eremuan, «Bibli Gerrikoaren Fundamentalismoan» iraun zuen tinko. Antzeratsu agertu zen mundu islamikoan wahabismoaren, idrisismoaren, sanusismoaren eta mahdismoaren mugimendu militanteki arkaistetan. Horrelako mugimenduak, ez indarraren, baizik eta ahuleziaren sintoma ziren. Ematen zuen erlijio nagusiak erortzera zihoazela.

Erlijio nagusiek gizadiaren atxikimendua erremediorik gabe galtzeko perspektiba seinale txarra zen, erlijioa giza izaeraren funtsezko ahalmenetako bat baita. Jendea erlijio-gosez dagoenean, orduan jasan behar duten estutasun espiritual etsigarriak sutu egin

ditzake, erlijio-kontsolamenduzko zainak etorkizunik gutxieneko meatik ateratzeko. Honen adibide klasikoa filosofia guztiz inpertsonaletik sortzeko mahayana erlijioak egin zuen itxuraldaketa harrigarria zen, filosofia hori izan zelarik Sidarta Gautamaren ikasleen lehen ahalegina Budaren mezua formulatzeko. Kristau-aroan hogeigarren mendean, mendebaldarturiko munduan, marxismoaren filosofia materialistaren antzeko itxuraldaketa hastapenak bereiz zitezkeen agian beren erlijio-hazkurri tradizionalaz gabeturiko errusiar arimetan.

Budismoa filosofiatik erlijio izatera igaro zenean, erlijio nagusi bat izan zen zorioneko emaitza, baina, erlijio nagusiek eremitik kanpo geratu behar bazuten, beldur izatekoa zen erlijio apalagoek beteko zutela hutsunea. Hainbat herrialdetan ideologia mundutar berrietara —faxismora, komunismora, nazional sozialismora eta antzekoetara— konbertituak aski indartsuak izan ziren gobernuen kontrola hartzeko eta beren doktrina eta praktikak jazarpen errukigabearen metodoez ezartzeko. Baina gizakiak botere kolektiboaren panoplia antzina izandako bere buruaren gurtzaren areagotzearen adibide nabarmen horiek ez zuten gaixotasunaren egungo nagusitasunaren neurria ematen. Sintomarik larriena hau zen: argi eta garbi demokratiko eta kristau ziren herrialdeetan, sei biztanletatik bosten erlijioaren bost partetatik lau orain, praktikan, patriotismoaren izen finaren pean ezkutaturiko erkidego jainkotuaren gurtza pagano primitiboa zela. Are gehiago, autogurtza kolektibo hau ez zen inola ere mamu obsesibo hauetako *revenant* bakarra edo primitiboena; zeren eta bizirik iraundako gizarte primitibo guztiak eta mendebaldar ez ziren zibilizazioetako nekazari guztiak —ez askoz primitibotasun txikiagokoak—, gizadiaren belaunaldi biziko hiru laurden bazirenak, Mendebaldeko Gizartearen barne-proletalgo handituan sartzen ari baitziren; eta aurrekari historikoen argitan, bazirudien antzinako erlijio-praktikek, zeinen bidez jarraituko baitzuen erreklutatu berri apalen oste honek bere erlijio-premiak asetzeko bila, proletalgoaren ugazaba sofistikatuen bihotz hutsetarainoko bidea aurkituko zutela.

Ikuspegi honetatik, zientziak erlijioaren gain erabateko garai-pena izatea tamalgarria izango litzateke bi aldeentzat; zeren eta arrazoia, erlijioa bezala, giza izaeraren funtsezko ahalmenetako bat baita.

1914ko abuztuan bukatzen den milurteko-laurdenean Mendebaldeko zientzialariak uste inozo bat izan zuen, alegia, mundua gero eta hobea izateko berak egin behar zuen gauza bakarra aurkituntza berriak saldoan egitea zela.

*Zientzialariek zerbait gehiago aurkitzean  
aurrez ginen baino zoriontsuago izango gara*<sup>41</sup>.

Baina zientzialariaren ustea oinarritzko bi errakuntzak biziatura zegoen. Oker zebilen Mendebaldeko munduak hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetan zuen ongizate erlatiboa bere lorpenei egotztean; eta oker zebilen duela gutxi lorturiko ongizateak iraun egingo zuela uste izatean. Ez zen lurralde agindua, hondamenaren lurraldea baizik, kantoiairen bestaldean zegoena.

Egia zera da, gizatiarra ez den naturari buruzko agintea, zientziak bere esku duena, askoz ere garrantzi txikiagokoa dela gizakia-  
rentzat, bere buruarekiko, lagun hurkoekiko eta Jainkoarekiko harremanak baino. Gizakiaren adimenak sekula ez zukeen gizakia kreazioaren jaun bihurtzeko aukerarik izango, gizakiaren gizaurreko arbasoa animalia sozial bilakatzeko gaitasunaz hornitua izan ez balitz, eta gizaki primitiboa ez balitz aukera espiritual horretara igo, adimenak bere lan kooperatibo eta metakorra zertzeko ezinbesteko baldintzak diren gizartekoitasun-hastapenetan eskolatzera bere burua behartu zuen neurrian. Gizakiaren lorpen intelektual eta teknologikoak garrantzizkoak izan zaizkio, ez bere horretan, baizik eta gai moral batzuei aurre egin eta horiei heltzera behartu duten neurrian, bestela bazter utziko zituzkeen gaiak. Honela, zientzia modernoak garrantzi handiko gai moralak sortarazi ditu, baina ez du egin, eta ezin zuen egin, inolako ekarpenik horiek konpontze aldera. Gizakiak erantzun behar dituen galderarik garrantzitsuenetan zientziak ez dauka zer esanik. Irakaspen hau eman nahi izan zuen Sokratesek unibertsoa eratzeko eta gobernatzen duen botere espiritualarekin elkartasuna bilatzeko zientzia fisikoaren azterketa baztertu zuenean.

Erljioari zer eskatzen zaion ikusteko egoeran gaude orain. Prest egon behar du zientziari jakintza intelektualaren arlo guztiak uzteko, baita tradizionalki erlijioaren eremukoak izandakoak ere, horiekiko eskubidea ezartzen zientziak arrakasta izaten badu. Erljioak eremu intelektualetan izandako nagusitasun tradizionala halabehar historikoa izan da, eta irabazi egin zuen eremu horietako

nagusitasuna utzi zuenean, horiek kudeatzea ez zelako bere zeregina, hau da, gizakia bere benetako helburura gidatzea: Jainkoa gurtu eta berarekin elkartasuna iristera. Dударik gabe, erlijioak irabazi egin du astronomia, biologia eta dagoeneko zerrendatu ditugun gainerako arlo intelektual galduak zientziari uztean. Psikologiaren entrega bera ere, mingarria zirudien arren, mingarria bezain onuragarria gerta liteke, kristau-teologiatik ken litzakeelako estalki antropomorfitik horietako batzuk, iraganean giza arimaren eta bere Egilearen artean hesi guztietako setatienak gertatu zirenak. Honetan arrakasta izango balu, zientziak, arima Jainkorik gabe utzi ordez, ziur aski frogatuko luke urrats bat hurbilago ekarri duela arima bere bidaiaren helmuga ikaragarri urrutirantz.

Erlijioa eta zientzia, bakoitzak apaltasuna lortu eta autokonfiantzari eutsi ahal izango balio —autokonfiantza eta apaltasuna, haietako bakoitzarentzat, beren lekuan leudekeen eremuetan—. adiskidetzeko mesedegarria litzatekeen egoeran aurkituko lirateke agian; baina sentimendu-egoera mesedegarria ez da ekintzaren ordezkoa; eta adiskidetzera lortu nahi izatekotan, ahalegin bateratu baten bidez bilatu beharko lukete alderdiek.

Iraganean hori horrela onartu izan dute kristautasunaren eta filosofia helenikoaren, hinduismoaren eta filosofia indikoaren arteko topaketetako alderdiek. Bi topaketa horietan gatazka bat gerarazi egin zen, termino filosofikoetan erlijiozko errito eta mitoei adierazpide teologikoa emateko ekintza baketzailearen bidez; baina, ikusi dugun bezala, ekintza-bide hori, bi kasuetan, aberrazio bat izan zen, egia espiritual eta intelektualaren arteko erlazioaren gezurrezko diagnosian oinarritua. Egia espiritualak termino intelektualetan formula litekeen uste okerrean oinarritua zegoen. Hogeigarren mendean mendebaldarturiko munduan aholku ona litzateke bihotzarentzat eta buruarentzat azkenean porrot egindako saiakuntza hau gogoan hartzea.

Lau erlijio nagusi bizien teologia klasikoa baztertu eta ordez Mendebaldeko zientzia modernoaren arabera adierazitako teologia berri bat hartzea egingarri balitz ere, *tour de force* honen lorpen arrakastatsua aurreko hutsegitearen errepikapena izango litzateke soilik. Zientifikoki formulaturiko teologia (honetarako imajinatu ahal izango balitz), errotarriak bezala 1952an budista, hindu, kristau eta musulmanen lepoetan zintzilikatuta zeuden filosofikoki formulaturiko teo-



logiak bezain gogobetegarri kaskarra eta iragankorra izango litzateke. Ez litzateke gogobetegarria izango, adimenaren hizkera desegokia delako arimaren ikuspegia adierazteko; eta iragankorra izango litzateke, etengabe lekuz aldatzen eta aurreko konklusioak baztertzen ari den adimenaren merituetako bat delako.

Zer egin behar lukete orduan bihotzak eta buruak elkarrekin adiskidetzeko, teologiaren forman plataforma komuna eraikitzeko porrot historikoaren argitan? Ba al zegoen elkarren arteko egintzarako inolako biderik norabide itxaropentsuagoan? Hitz hauek idazteko garaian Mendebaldeko gizakiaren burua oraindik obsesionatua zegoen zientzia fisikoaren garaipen handiengatik, atomoaren egitura ikeritzeko lorpen ikaragarriarekin duela gutxi gailurrera iritsia. Hala ere, egia balitz gizakiak gizatiarra ez den naturaren kontrolean aurrera egindako milia bat garrantzi txikiagokoa dela bere buruarekin, lagun hurkoekin eta Jainkoarekin moldatzeko gaitasuna areagotzen irabazitako hazbete bat baino, orduan pentsa zitekeen Mendebaldeko gizakiak kristau-aroko hogeigarren mendean izandako lorpen guztietatik, atzera begiratuta garrantzirik handieneko balentria giza izaera ulertzeko eremuan alor berriak zabaldu izana litzatekeela. Argi-izpi bat atze-man daiteke garai honetako olerkari ingeles baten luma zorrotzetik irtendako pasarte honetan:

*Jada ez dira ontziak ozeanoan zehar itzultzen  
Lurraren azken ertzetatik, lur bira txopan,  
etxerantz, Europako bazter ñimiñora,  
tentsioan mundu aurkitu berriko albisteekin...  
Hala ere, aldaketa guztiak gorabehera,  
geratzen da mundu bat, non fantasia ibil daitekeen,  
urruti, itsaso misteriotu eta itsasbazter ziurgabeekin,  
duela gutxi bakarrik gizakiek esploratua,  
mamu-forma eta behelaino beldurgarrien mundu bat,  
ez marinelek, baizik psikologoek nabigatua,  
ekuatore, latitude edo polorik gabea,  
giza arimaren kaos estalia, zehazgabea<sup>42</sup>.*

Mendebaldeko pentsamolde zientifikoa bat-batean psikologiaren erresuma honetan sartzea, neurri batean, bi mundu-gerraren azpi-produktua izan zen, psikean ondorio suntsigarriak eragiteko gai ziren armaz zertu zirelarik gerrak. Honela lorturiko aurrekaririk gabeko

esperientzia klinikoari esker, Mendebaldeko adimenak psikearen sakonera subkontzienteak begiztatu zituen eta, une horretan, bere buruaren ikuspegi berria zertu zuen, leize psikiko aztergabe horren gainean esekitako kimera bat bailitzan.

Subkontzientea haurrarekin, basatiarekin, baita basapiztiarekin ere pareka daiteke, aldi berean zuhurragoa, zintzoagoa eta errakuntzara gutxiago emana delarik nortasun kontzientea baino. Kreazio-lan estatikoki perfektu horietako bat da, Egilearen geraleku diren horietakoa, eta giza nortasun kontzientea izugarri hurbilketa akastuna da askoz ere maila goragoko Izaki batengana, Berau izanik giza psikearen bi organo ezberdin baina banaezin horien egilea. Mendebaldeko buru modernoek subkontzientea aurkitu izan balute bertan idolatriazko gurtzarako gai berri bat aurkitzeko bakarrik, hesi berri bat jartzen ariko ziren beren eta Jainkoaren artean, Honengana hurbilagotzeko beste aukera bati heldu ordez. Zeren eta, zalantzarik gabe, aukera bat baitzen.

Zientziak eta erlijioak Jainkoarengana hurbiltzeko aukerari helduko baliote, elkarrekin Jainkoaren izaki aldakorra, psikea —bere sakontasun subkontzientean eta bere gainazal kontzientean— ulertzen saiatuz, zer sari espero lezake irabaztea, elkarrekiko ahalegin hori arrakastaz burutuz gero? Saria benetan zoragarria izango litzateke, zeren eta subkontzientea baita, ez adimena, gizakiak bere bizitza espirituala bizitzeko duen organoa. Poesiaren, musikaren eta ikus-artearen iturria da, eta arimak Jainkoarekin elkartzeko duen bidea. Bilaketa espiritualaren bidaia liluragarri horretan lehen helburua bihotzaren lanak ulertzen saiatzea litzateke; zeren eta «bihotzak bere arrazoiak ditu, arrazoiak ulertzen ez dituenak». Bigarren helburua egia arrazionalaren eta intuiziozko egiaren arteko aldearen izaera ikertzea litzateke, biak, bakoitza bere eremuan, benetako egia direla sinetsiz. Hirugarren helburua, egia arrazionalak eta intuiziozko egiak biek oinarritzat izan beharreko funtsezko egiaren azpiko harkaitza aurkitzea litzateke. Eta azken helburua, kosmos psikikoaren harkaitz-hondoraino iristen saiatzean, Jainkoaren —sakon-sakonean bizi denaren— ikuspen osoagoa lortzea litzateke.

«Jainkoak ez zuela atsegin izan bere herriari salbazioa dialektikan ematea»<sup>43</sup> zioen abisua, asmo oneko teologoen zoritxarrez kontuan hartu gabea, ebanjelioen leloetako bat da. «Utzi haurrei niregana

etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko». Arrazoiaren ikuspegitik, subkontzientea haur bat bezalako izakia da, bai Jainkoarekiko harmoniaren jarrera apalean, arrazoiak berdindu ezin duena, eta bai bere inkontsekuentzia indiziplinatuan ere, arrazoiak onetsi ezin duena. Alderantziz, subkontzientearen ikuspegitik arrazoa pedante bihozgabe bat da, naturaren gain mirarizko agintea lortu duena arimari traizio egitearen ordainetan, bere Jainkoaren ikuspenari egun-argitan desagertzen uzteagatik. Hala ere, arrazoa ez da, noski, Jainkoaren etsai, subkontzientearen erresuma, benetan, naturaren mugetatik kanpo ez dagoen bezalaxe. Arrazoa eta subkontzientea biak dira Jainkoaren sorkariak: bakoitzak ditu finkatuta bere arloa eta zeregina, eta ez dute zertan elkar eskandalizatu, muga horiek gainditzen ez badituzte.

*d) Elizen etorkizunari buruzko promesa*

Kristau-aroko hogeigarren mendean jaiotako belaunaldi batek aurrera begiratu ahal izango balu bihotza eta burua adiskideturik egongo lirakekeen egunerantz, bihotza eta burua konbentzitzea ere espero ahal izango luke, elizen iraganaren garrantziaren irakurketan bat etor daitezen, eta hau abiapuntu bat izango litzateke eliza eta zibilizazioen arteko harremanari buruzko gure ikerlanaren azken etapan sartzeko. Elizak ez direla kantzerrak eta bide batez krisalidak baino ez direla aurkitu ondoren, gizarte-mota nagusiago bat izateko aukera aztertu genuen. Gai honetaz ezin dugu epairik eman, geure buruari galdetu gabe ea elizen iraganak zer argibide eman dezakeen beren etorkizunaren promesari buruz; eta hemen gogoratu behar dugu lehen-lehenik, denbora historikoaren eskalan, erlijio nagusiak eta horiek gorpuzturiko elizak gazteegiak zirela oraindik. Bada himno bat, viktoriar gurtza-lekuetan oso ezaguna, bertso hau daukana:

*Mendeetan aurrera Kristau Eliza,  
bidaia ia burututa,  
bere bideari darraio  
helmugara iristeko irrikan.*

Jasota dago eliz onuradun batek bere kongregazioa prestatu zuela bigarren lerroa aldatu eta «bidaia hasi berria» abesteko, eta haren ekintza guztiz bat zetorren kasuko gertaerekin, Azterlan honen

idazleak ulertzen zituen bezala. Zibilizazioak atzoko izaki hutsak ziren gizarte primitiboen parean, eta erlijio nagusien elizek zibilizaziorik zaharrenen adinaren erdia baino gutxiago zuten.

Zein zen elizaren ezaugarria, zibilizaziotik eta gizarte primitibotik ezberdintzen zuena, eta hiru gizarte-mota horiek bere baitan hartzen zituen generoan elizak espezie ezberdin eta handiagotzat hartze-  
ra eraman gintuena? Elizen marka bereizgarria guztiek kide bezala egiazko Jainko bakarra izatea zen. Egiazko Jainko bakarrarekiko giza elkartasun honek, erlijio primitiboetan planteatua eta erlijio nagusietan lortuak, zenbait bertute eman zizkien gizarte horiei, gizarte primitibo edo zibilizazioetan aurkitu gabeak. Desadostasuna, gizartearen aspaldiko gaitzetariko bat, gaingintzeko ahalmena eman zien; historia-  
ren esanahiaren arazoari konponbide bat eskaini zion.

Desadostasuna aspaldikoa da giza bizitzan, gizakia delako gizakiak aurrean izan behar dituen munduko gauza guztietatik zaile-  
na; bera animalia soziala da eta aldi berean borondate askez hornitu-  
tako animalia. Bi elementu horien konbinazioak esan nahi du, giza kideez bakarrik osaturiko gizarte batean, borondate-gatazka etenga-  
bea izango dela, eta gatazka hori mutur suizidaraino eramango dela, gizakiak ez badu konbertsioaren miraria bizitzen. Gizakiaren konbertsioa beharrezkoa da gizakiaren salbaziorako, bere borondate aske eta aseeginak Jainkoagandik aldentzeko arriskuarekin emango diolako ahalmen espiritualak. Arrisku horrek ez ziokeen erasoko psike subkontzientearen mailaz gain goratzeko gaitasun espiritualaz bedeinkatu gabe-  
ko —edo madarikatutako— gizaki-aurreko animalia sozial bati; zeren eta psike subkontzienteak Jainkoarekin harmonia errazaz goza-  
tzen baitu, gizaki ez den izaki orori bere errugabetasunak ziurtatzen dion harmonia berberaz. Negatiboki zoriontsua zen Yin egoera hori, giza kontzientzia eta nortasuna Yang mugimenduaren bidez sortu zire-  
nean apurtu zen, «Jainkoak argitasuna iluntasunetik banatu zuenean». Gizakiaren nortasun kontzienteak, mirarizko aurrerapen espiritualak lortzeko Jainkoaren ontzi aukeratu izan daitekeenak, eroriko tamalgarri batera ere behartu dezake bere burua, Jainkoaren irudira egina izan-  
aren kontzientziak bere burua idolatratzeraino horditzen badu. Apetaldi suizida hau, harrokeriazko bekatuaren ordaina, aberrazio espiritualak da, arima etengabe horretaraxe emana delarik giza nortasunaren funtsa den oreka ezeagonkorrean; eta nortasunak ezin du bere

baitatik ihes egin *Nirvana*-ren Yin egoerara erretiratze espiritual baten bidez. Yin egoera berreskuratua, non gizakiak salbazioa aurkitzen baitu, ez da nerbiorik gabeko autosuntsipenaren bakea, tinko loturiko harmonia baizik. Psikearen zeregina haur-bertutea berreskuratzea da, «haurren gauzak bazter utzi» ondoren. Norberaren buruak haurrarena bezalako adiskidetzea lortu behar du Jainkoarekin, Jainkoak bere borondatea egiteko eman zion borondatearen erabilera indartsuaren bidez eta horrela Jainkoaren graziari dei eginez.

Hori baldin bada gizakiaren salbazio-bidea, bide gogorra dauka egin beharra; zeren eta gizakia *homo sapiens* bihurtu zuen sorkuntza-egintza ahaltsuak, aldi berean, ikaragarri zail egin zuen hura *homo concors* bihurtzea; eta *homo faber* den animalia sozialak kooperatiboa izan behar du, ez badu bere burua suntsitu nahi.

Gizakiaren berezko gizartekoitasunaren indarrez, gizarte guztiak potentzialki unibertsalak dira. K.o. 1952. urtea arte ez zen gizarterik inoiz mundu-mailakorik izan gizarte-jardueraren maila guztietan; baina Mendebaldeko Zibilizazio moderno sekularizatu batek lortua zuen azkenaldian benetako unibertsaltasuna ekonomia eta teknologian, politika edo kulturaren pareko arrakastarik lortu gabe; eta bi mundu-gerren esperientzia suntsigarriaren ondoren, ez zegoen ziur munduaren batasun politikoa ohiko «knock-out kolpe» beldurgarririk gabe lortuko ote zen, hauxe izanik zibilizazioen historietan batasun ekumenikoaren prezio tradizionala. Edozein kasutan gizadiaren batasuna ezin da lortu hain bide latzetik; Jainkoaren batasunean sinetsiz jokatzearen zeharkako emaitza gisa bakarrik lor daiteke eta lurreko gizarte unitario hau Jainkoaren Erkidegoko probintzia gisa ikusita.

Jainkoaren Erkidegoko gizarte irekiaren eta zibilizazio guztietan azaltzen den gizarte itxiaren artean dagoen leize handia, eta leize hau gainditzeko ezinbestekoa den jauzi espirituala, Mendebaldeko filosofo moderno batek deskribatu ditu:

*«Gizakia oso gizarte txikiatarako zegoen pentsatua. Gizarte primitiboak horrelakoak zirela orokorki onartua dago, baina erantsi behar da giza arima primitiboak existitzen jarraitzen duela, zenbait azturen pean ezkutatua, aztura hauek gabe zibilizazioak ezingo zirelarik sortu... Gizaki zibilizatua berak lortu duen jakintza- eta aztura-masa ikaragarriak bereizten du, batez ere, primitiboagandik... Gizaki naturala ia azpiratua dago lorturiko ezaugarrien pean, baina oraindik*

hor dago, ia aldatu gabe... Okerra zen 'kanporatu natura eta arrapaladan itzuliko da' esatea, ezin baita kanporatu. Hor dago denbora guztian. Lortutako ezaugarriek ez dute inola ere organismoan eragirik eta ez dira herentziaz transmititzen, jendeak uste ohi zuen bezala... Oso zapalduta egonda ere, izaera primitiboak kontzientziaren sakonean irauten du... bizi-bizirik dirau, gizarterik zibilizatuenetan... Gure gizarte zibilizatuak hasiera batean guretzat zen gizarte-motaren aldean oso ezberdinak izan arren, hala ere antzekoak dira funtsezko puntu batean. Biak dira gizarte itxiak. Zibilizazioek, oso zabalak izan daitezkeen arren gu berez moldaturik gaudeneko talde txikien aldean, hala ere jende bat sartzeko eta beste bat kanpoan uzteko ezaugarri bera dute. Nazioaren —oso handia izan arren— eta gizadiaren artean finitoaren eta infinituaren, itxiaren eta irekiaren arteko ezberdintasun osoa dago.

«Gizarte itxiaren eta irekiaren artean, hiriaren eta gizadiaren artean dagoen aldea ez da bakarrik mailari buruzkoa, mota ezberdinetakoak baitira. Estatu bateko elkartasuna lehenik eta behin beste estatu batzuen aurka bere burua babestu beharrak sortzen du; nork bere herrikideak maite izaten ditu atzerritarrek gorroto dituelako. Sen hau primitiboa da, eta oraindik hor datza gainazaleko zibilizazio-estalkiaren azpian. Oraindik berezko maitasuna sentitzen dugu geure ahaide eta auzokoenganako; gizadiarenganako maitasuna, berriz, zaletasun landua da. Lehenengoa zuzenean lortzen dugu; bestea bigarren eskukoa bakarrik, zeren eta gizakia Jainkoaren bidez bakarrik eramaten baitu erlijioak gizadia maitatzera; era bertsuan arrazoiaren bidez bakarrik irakasten digute filosofoek giza nortasunaren duintasuna, eta gizakiek duten eskubidea errespetatuak izateko. Ez kasu batean eta ez bestean gizadiaren ideia ez gara iristen etapaka, familiaren eta nazioaren bidez»<sup>44</sup>.

Ezin da gizadiaren batasunik izan Jainkoaren parte-hartzerik gabe; eta, alderantziz, pilotu zerutiarra bazter uzten denean, gizakia ez da bakarrik desadostasunean erortzen, bere berezko gizartekoitasunaren kontra dagoen zerbaitetan; gainera, izaki sozial izateari datzekion arazo tragiko batek atsekabetzen du, eta, beraz, zenbat eta arrakasta handiagoa izan bere izaera sozialaren eskakizun moralen arabera bizitzeko, orduan eta zorrotzago agertzen zaio arazoa, egiazko Jainko bakarra kide ez duen gizarte batean bere papera jokatzeko saiatzen den

bitartean, behintzat. Gakoa honetan datza, gizarte-ekintza, zeinetan errealizatzen baitu gizakiak bere burua, askoz ere luze-zabalagoa dela, bai denboran eta bai espazioan, gizabanakoak lurrean izaten duen bizialdia baino. Honela, historia, bertan partaide den gizabanako bakoitzaren ikuspuntutik bakarrik begiratuta, «idiota batek kontaturiko istorioa da, deus esan nahi ez duena». Baina itxuraz zentzugabea den «hots eta furia» horrek esanahi espirituala lortzen du, gizakiak egiazko Jainko bakarraren egintza sumatzen duenean historian.

Honela, zibilizazio bat behin-behinean azterketa-eremu ulergarri izan daitekeen bitartean, Jainkoaren Erkidegoa da moralki toleragarri den ekintza-eremu bakarra, eta *Civitas Dei* horretan kide izatea eskaintzen diete giza arimek erlijio nagusiek. Gizakiak lurreko historian izandako parte-hartze zatikako eta iragankorra benetan konpentsatua geratzen zaio lurrean Jainko baten laguntzaile boluntario gisa joka dezakeenean bere papera, Jainko horrek duen egoeraren nagusitasunak bestela hutsalak izango liratekeen gizakiaren ahaleginei jainkozko balio eta esanahia ematen dizkielarik; eta historiaren berrerospen edo erredentzio hau hain da baliotsua gizakientzat, ezen, Mendebaldeko mundu moderno sekularizatuan, historiaren filosofia kristo-kristauari ustezko kristau ohi arrazionalistek eusten baitzioten.

*«Fedea Biblian eta Ebanjelioan, kreazioaren istorioan eta Jainkoaren Erreinuaren iragarpenean jarri zutelako, kristauak ausar zitezkeen historiaren osotasunaren sintesia egitera. Gero egindako mota bereko ahalegin guztiek Erdi Aroko sintesiaren batasuna ziurtatzen zuen amaiera trazendentea ordeztu baino ez zuten egin, Jainkoaren ordezeko gisa balio zuten zenbait indar inmanenteren bidez; baina eginkizuna funtsean berbera zen, eta kristauak izan ziren lehenengo asmatu zutenak: hau da, historia osoari esplikazio ulergarri bat ematea, gizadiaren jatorria azaldu eta amaiera bat esleituko diona...*

*«Kartesiaren sistema osoa Jainko ahalguztidunaren ideian oinarritua dago, nolabait ere bere burua sortzen duena eta ondorioz, a fortiori, betiereko egiak sortzen dituen, matematikakoak barne, eta unibertsoa ex nihilo sortzen duena, eta etengabeko kreazio-egintza batez iraunarazten diona, hori gabe gauza guztiak berriro ezerezean eroriko liratekeelarik, bertatik atera zituelarik haren borondateak... Kontuan har dezagun Leibnitz-en kasua. Zer geratuko litzateke haren sistematik, zehazki kristau-elementuak kenduko balitzazkio? Ezta bere oina-*

*rrizko problemaren enuntziatua ere, hots, gauzen jatorri erradikala eta unibertsoaren sorkuntza Jainko aske eta betegin baten aldetik... Gauza bitxia da, eta ondo ohargarria, gure garaikideek dagoeneko ez badute jotzen Jainkoaren Hirira eta Ebanjeliora, Leibnitzek zalantzarik gabe egin zuen bezala, hori ez dela haien eraginpetik ihes egin dutelako. Garaikide horietako asko ahaztea erabaki zutenari esker bizi dira»<sup>45</sup>.*

Azkenik, egiazko Jainko bakarra gurtzen duen gizarte batean bakarrik egon daiteke Azterlan honen lehenagoko zati batean mime-siaren arrisku gisa deskribatu dena uxatzeko promesa. Zibilizazio baten gizarte-anatomian Akilesen orpoa, ikusi dugun bezala, mime-siarekiko (imitazioarekiko) mendetasuna da, gizadiko jende xeheak gidariei jarraituko diela ziurtatzeko «gizarte-trebakuntza» gisa. Yin egoeratik Yang ekintzarako aldaketan —gizarte primitibo baten izae-raren mutazio bidez zibilizazio baten sorreran gauzatzen den aldake-tan—, jende xeheak bere mimesia arbasoengandik bizi den belaunal-diko giza pertsonalitate sortzaileengana aldatzen du; baina gizarte-aurrerapenerako honela zabaldutako bidea heriotzaren ateetan buka daiteke, gizakia ezin baita sortzaile izan muga batzuen barruan izan ezik, eta orduan ere behin-behinekotasunean baino ez; eta, ezinbeste-ko porrotak era bertsuan ezinbesteko etsipena ekartzen duenean, ospea galdutako gidariek indarra erabiltzera jotzen dute moralki gal-dutako aginpideari eutsi ahal izateko. *Civitas Dei* delakoan arrisku hori mimesiaren transferentzia berriak uxatzen du: munduko zibiliza-zioetako gidari iragankorrengandik Jainkoagana, hau giza sormen guztiaren iturburu delarik.

Jainkoaren mimesi honek sekula ezin ditu horretara emandako giza arimak gizakirik jainkozkoenen mimesiak ere izan ohi dituen desilusioak jasateko arriskuan utzi, hauek, gertatzen direnean, orain menderatzaile hutsa den gutxiengoagandik proletalgo kezkatu baten urruntze moralera eramaten dutelarik. Arimaren eta egiazko Jainko bakarraren arteko elkartasuna ezin da honela endekatu esklaboa des-potarekin lotzen duen katea izatera, zeren eta erlijio nagusietako bakoitzean, neurri ezberdinean, Jainkoa Botere gisa ikustea Hura Maitasun gisa ikustekak antzaldatzen baitu; eta Jainko maitagarri hori hiltzen den Jainko haragitu gisa aurkeztea teodizea bat da, Kristoren imitazioa babestu egiten duelarik giza pertsonalitate onbideratu gabe-koengana zuzendutako edozein mimesitan dagoen tragediaren aurka.



## XXVII. ZIBILIZAZIOEN PAPER A ELIZEN BIZITZAN

### 1.

#### *Zibilizazioak obertura gisa*

Aurreko ikerlanak konbentzitu bagaitu erlijio nagusien gorputz bihurturiko elizak *Civitas Dei* bakar eta berera lurrean egindako hainbat hurbilpen direla, eta Jainkoaren Erkidego horrek soilik eta bakarrik ordezkutzen duen gizarte-espeziea zibilizazioek ordezkaturiko espeziea baino maila goragokoa dela espiritualki, anima gaitezke aurrera segitzera gure hasierako ustea —hots, historian zibilizazioen papera dela nagusia eta elizen papera mendekoa— alderantzikatzeko saioan. Elizak zibilizazioen arabera aztertu ordez, abiapuntu berria hartzera eta zibilizazioak elizen arabera aztertzea ausartuko gara. Gizarte-kantzer bat bilatzen badugu, ez dugu aurkituko zibilizazio bat ordezten duen elizan, baizik eta eliza bat ordezten duen zibilizazioan; eta eliza krisalidatzat hartu badugu, berorren bidez zibilizazio batek beste bat sortzen duelarik, orain zibilizazio sortzailea eliza baten epifaniaren oberturatzat hartu behar dugu, eta zibilizazio filiala goragoko mailako lorpen espiritual horrekiko atzerakadatzat.

Tesi honen egiaztapenerako proba gisa Kristau Elizaren sorrera hartzen badugu, eta esanahi eta erabilera sekularretik erlijiozkora izandako hitz-transferentziak emandako froga ahul baina esanguratsuak aipatzen baditugu, filologiaren lekukotasunak ikuspegi hau oinarritzen duela aurkituko dugu, hots, kristautasuna erlijiozko gaia dela obertura sekularrarekin, eta obertura hau ez zela estatu unibertsal

helenikoaren lorpen politiko erromatarra soilik izan, baizik eta helenismoa bera, bere fase eta alderdi guztietan.

Kristau Elizak bere izena bera ere arazo politikoaren eztabaidarako hiritarren batzar nagusia izendatzeko Atenasko hiri-estatuan erabiltzen zen termino teknikoari zor dio; baina, honela, *ecclesia* hitz mailegatua hartzean, Elizak esanahi bikoitza eman zion, Erromatar Inperioaren ordena politikoaren isla zena. Kristau-erabileran *ecclesia* bai tokiko kristau-elkartea eta bai Eliza Unibertsala adieraztera iritsi zen.

Kristau Eliza, tokikoa eta unibertsala, bi erlijio-klasetan egituratu zenean, «laikotza» eta «kleroa» alegia, eta kleroa bere aldetik «ordena»-hierarkian mailakatu zenean, beharrezko terminoak greko eta latinez zegoen hiztegi sekularretik hartu ziren era berean. Kristau Elizako «laikotza» grekozko hitz arkaiko batez (*laos*) izendatu zen, hitz horrek goiko agintariengandik bereizten zen jendea adierazten zuelarik. «Kleroak» bere izena *Klêros* grekozko hitzetik hartu zuen, horrek «lote» esanahi orokorra zentzu judizialean espezializatua zegoelarik heredaturiko finka batetik norbaiti dagokion parte adierazteko. Kristau Elizak kristau-elkartearen zati bat adierazteko hartu zuen hitza, Jainkoak bere apaizteria profesional gisa bera zerbitzatze-ko aukeraturiko zatia adierazteko, hain zuzen. «Ordenei» (*ordines*) dagokienez, izena erromatar gorputz politikoan zeuden politikoki pribilegiaturiko klaseetatik hartu zuten, «Senatari Ordena»tik, adibidez. Ordena nagusiko kideak «gainbegirale» gisa ezagutu ziren (*episcopoi*, apezpiku edo gotzain).

Kristau Elizaren liburu sakratua, *ta biblia* —Liburuak— hitzaz izendatu zen arte, erromatar barnealdeko zerga-hiztegian aspaldidanik erabilia zen hitz batez, *scriptura* delakoaz izendatzen zen. Bi «testamentuei» dagokienez, grekoz *diathêkai* deitzen zitzairen eta latinez *testamenta*, tresna legal edo itunen baliokidetzat hartzen baitziren, hauetan Jainkoak gizadiari adierazi zizkiolarik, bi epetan, munduan giza bizitza ordenatzeko bere «borondatea eta testamentua».

Lehenengo Kristau Elizan elite espiritual batek bere gain hartu zuen trebakuntzak (*ascêsis*, hemendik «aszetiko») bere izena olinpiar joko eta beste joko heleniko batzuetarako atleten trebatze fisikotik hartu zuen; eta, laugarren mendean, anakoreta izateko trebakuntzak martiri izateko trebakuntza ordeztu zuenean, kristau-atletaren eredu

berri honen ekintza, zeinen proba auzitegi kriminaleko eta anfiteatroko publikotasunari aurre egin ordez basamortuko bakardadean irautea baitzen, grekozko hitz batez izendatu zen: *anachorêtês*, jatorriz bizitza praktikotik erretiratuei aplikatzen zitzaien, bai beren buruak kontenplazio filosofikora emateko, bai gehiegizko zergen aurka protestatzeko. Hitza gogo sutsuko kristauei ezarri zitzaien, Egipton batez ere, Jainkoarekiko elkartasunaren bila eta munduko gaiztakeriaren aurka-ko protesta gisa basamortura ((*erêmos*-era, hango biztanleak eremutar edo ermitarrak zirelarik) erretiratu zirenei. Bakarti hauek (*monachoi*, monjeak), beren izenaren esanahi literala desafiatuz, elkarte diziplinatutan bizitzen hasi zirenean, terminoen kontraesan sortzaile honek —bakartien elkarte (*monastêrion*)— bere latinezko izena (*conventus*) erabilera sekularrean hiru hileko auzitegiaren eta merkataritza-ganbararen bi esanahiak batzen zituen hitz batetik hartu zuen.

Tokiko eliza bakoitzaren aldizkako bileretan jatorriz informalak ziren prozedurak errito finko bilakatu zirenean, erlijiozko «zerbitzu publiko» honek (*leitourgia*, liturgia) izenez borondatezkoak ziren gastuetatik hartu zuen izena, K.a. bosgarren eta laugarren mendeetako atenastar errepublikan, eufemistikoki izen ohoragarri horrekin eza-gutu zirelarik, benetan zerga gehigarriak zirela mozorrotzeko. Liturgia honetan errito nagusia Komunio Santua zen, zeinen bidez gurtzaileek Kristorengan eta Kristorekiko kideatasunaren bizipena lortzen baitzuten ogia jan eta ardoa edateko «sakramentua» (*sacramentum*) elkarrekin partekatuz. Kristau-sakramentu horrek bere izena erromatar errito pagano batetik hartu zuen, non soldadugai berriak zin egiten baitzuen Erromako armadako kide bihurtzeko. Komunio Santuak, sakramentuak zerturikoak, edozein gizarte-arazotan, baina lehenik eta batez ere komunitate politikoan, parte-hartzea adierazten zuen hitz batetik hartu zuen bere izena, bai grekozko forman (*koinônia*), bai latinezko itzulpenean (*communio*).

Esanahi material batetik esanahi espiritualak sortzea guk, Azterlan honen lehenagoko pasarte batean, «eterealizazio» deitu dugun eta hazkundearen sintomatzat hartu dugun prozesuaren adibide da. Greko eta latinezko hiztegiaren eterealizazioaren gure ikerketa —oso erraz luza zitekeena— aski da adierazteko helenismoa benetako *praeparatio evangelii* izan zela eta, helenismoaren *raison d'être* honek kristautasunaren obertura gisa zertutako zerbitzua bilatzerakoan, iker-

keta-bide itxaropentsuan jarri dugula hanka, nolanahi ere. Ikuspegi honetatik, zibilizazio baten bizitza eliza bizi baten jaiotzarako obertura izan denean, zibilizazio aitzindariaren heriotza ez hondamenditzat, baizik eta prozesuaren bukaera egokitzen har daiteke.

## 2.

### *Zibilizazioak atzerakada gisa*

Elizen historiak zibilizazioen historien arabera ikusteko Mendebaldean dugun aztura modernoarekin hautsi eta, horren ordez, alderantzizko ikuspegia hartuz gero, historiak zer itxura duen ikusten saiatu gara; eta horrek bigarren belaunaldiko zibilizazioak erlijio nagusi bizien oberturatzat hartzea eraman gaitu eta ondorioz, zibilizazio hauek, ez beren kolapso eta desintegrazioaz markaturiko porrot gisara hartzea, baizik eta erlijio nagusiei jaiotzen laguntzean egindako zerbitzuagatik arrakasta gisa hartzea. Analogia honetan hirugarren belaunaldiko zibilizazioak, aurreko zibilizazioen hondakinetatik sorturiko erlijio nagusiekiko atzerakadatzat hartu beharko lirateke, ziur aski; zeren eta, orain hilda dauden zibilizazioen porrot mundutarra beren ondoren espiritualagatik ordaindutzat hartu behar balitz, orduan zibilizazio bizien lorpen mundutarra —beren eliz krisalidetatik irten eta beren kasako bizitza sekular berri bat bizitzeari ekitea— ere, arimaren bizitzan izandako eraginaren irizpideagatik epaitu beharko genuke era berean; eta eragin hau argi eta garbi kontrakoa izan da.

Probarako kasu gisan, Mendebaldean Erdi Aroko *Respublica Christiana*-tik Mendebaldeko zibilizazio sekular modernoaren sortzea hartzen badugu, argigarria izan liteke, kapitulu honen lehenengo erdiko gure ikerketaren bidetik, esanahi eta erabilerazko aldaketa jasan zuten hitzen lekukotasuna aipatuz hastea, eta kleriko hitzarekin has gaitezke. «Ordena santuetako kleriko»ren ondo-ondoan *clerk* sekular apala daukagu, Ingalaterran bulegoko lan txikiak egiten dituen eta Amerikan dendako salmahaiaren atzean lan egiten duena. «Konbertsioa», garai batean arima Jainkoagana bihurtzea esan nahi zuena, erabiliagoa da orain ikatza argindar bihurtzea (konbertitzea)

edo %5eko interesa %3 bihurtzea (konbertitzea) bezalako testuinguruetan. Gutxi entzuten dugu «arimak sendatzeaz», baina asko droga bidez zertutako gorputzaren «sendatzeaz»; eta «holy day» (egun santua) «holiday» (opor, jai) bilakatu da. Horrek guztiak hizkuntz desete-realizazioa adierazten du, gizartearen sekularizazioaren ikurra baino ez dena.

*«Federiko II.a Inozentzio handiaren, Eliza Estatu bezala sortu zuenaren, ardurapeko eta ikaslea izan zen. Gizon intelektuala zen eta ez dugu harritu behar Inperioaz zuen ikuspegian Elizaren isla aurkitzeaz. Italiar-siziliar estatu osoa, Pedroren ondare gisa aita santuek gutiziatzen zutena, Augustoren ondare bilakatu zen monarka dohaintsu honentzat, Elizaren batasun espiritualean bat eginda zeuden botere sekular eta intelektualak askatu eta horietan oinarritua inperio berri bat eraiki nahi zuelarik... Uler dezagun Federikoren italiar-erromatar estatuaren esanahi osoa: panitaliar jaurgio ahaltsua, denbora labur batez estatu batean elementu germaniar, erromatar eta Ekialdekoak bildu zituen; Federiko bera, munduko enperadorea, jaun handia eta tirano handia, Erromako diadema eraman zuten printzeetako azkena, bere zesargoa ez zegoelarik germaniar erregetzarekin bakarrik elkartua, Bizargorrireña bezala, baita Ekialdeko siziliar despotismoarekin ere. Hau ulertu dugularik, Errenazimentuko tirano guztiak, Scala eta Montefeltre, Visconti, Borgia eta Medici bezalakoak, beren ezaugarri txikienetan ere, Federiko II.aren seme eta ondorengo direla ulertzen dugu, 'Bigarren Alexandro' honen diadokoak»<sup>46</sup>.*

Federiko Hohenstaufen-en «ondorengoen» zerrenda kristau-aroکو hogeigarren menderaino luza daiteke, eta Mendebaldeko mundu modernoaren zibilizazio sekularra, bere aldeetako batean, haren espiritutik sortutakotzat har daiteke. Zentzugabea litzateke, noski, elizaren eta printze sekularren arteko borrokan hutsegite guztiak alde batean zirela uste izatea, baina guk hemen aztertu behar duguna zera da: *Respublica Christiana* baten altzotik sorturiko zibilizazio sekular baten jaiotza beldurgarria estatu «absolutu» baten erakunde helenikoa berpiztuz izan zela egingarria, non erlijioa politika-  
ren atal bat izan baitzen.

Hirugarren belaunaldiko zibilizazio bat eliz gorputzetik irteten denean, bigarren belaunaldiko zibilizazio «gurasoa» berriro jaiotzea al da bide aldaezin eta ezinbestekoa hura gauzatzeko? Hindu

Zibilizazioaren historiari begiratzen badiogu, han ez dugu aurkituko Mauriar edo Gupta inperioen pizkunde paralelorik; baina Indiatik Txinara itzuli eta Ekialde Urruneko Zibilizazioaren historiari bere sorlekuan begiratzen badiogu, han bai aurkitzen dugu Erromatar Inperioaren pizkundearen baliokide dudaezin eta ohargarria Han Inperioko Sui eta Tang berpizkundean. Aldea honetan egon liteke, inperialismoaren pizkunde siniko hori askoz ere arrakastatsuagoa izan zela Erromatar Inperio Santuaren pizkunde helenikoa baino, eta benetan askoz ere arrakastatsuagoa Bizantziar Inperio baten pizkunde heleniko paraleloa baino, Ekialdeko Gizarte Kristau Ortodoxoaren erresuman. Gure ikerketa honen xederako esanguratsua da hirugarren belaunaldiko zibilizazioa, zeinen historian bere aurrekoaren pizkundera mailarik handienera iritsi baita, aldi berean aurrekoak sortarazitako elizaren oztopoetatik libratzen arrakastarik handienekoa izatea. Mahayaniar budismoa, kristautasunak hilzorian zegoen mundu helenikoa bereganatu zuen bezain osoki hilzorian zegoen mundu sinikoa bereganatuko zuen itzaropena emana, interregno post-sinikoaren nadirrean iritsia zen bere zenitera Ekialde Urrunean, baina bizkor egin zuen behera gero. Ikuspegi honetatik, hildako zibilizazio baten berpizkundeak erlijio nagusi bizi batetiko atzerakada sortzen duela ondorioztatu behar dugu eta zenbat eta aurrerago joan pizkundera, are handiagoa izango dela atzerakada.

## XXVIII. LURREAN MILITATZEAREN ERRONKA

Aurreko atalean ikusi dugu eliz gorputz batetik ihes egiten duen zibilizazio sekular bat gai dela bere bidea egiteko aurreko zibilizazioaren bizitzako elementuen laguntzaz, baina ikusteko daukagu oraindik nola sortzen den banatze horretarako aukera; eta, jakina, «gaitzen hasiera» hau lehertze hori eragin duen elizaren ahulune edo urrats okerren batean bilatu behar da.

Bere *raison d'être*-an bertan du eliza batek mami ikaragarria. Eliza bat militantea da lurrean mundu hau *Civitas Dei*-rentzat irabazteko, eta honek esan nahi du eliza batek arazo sekular nahiz espiritualetan aurre egin eta bere burua erakunde gisa antolatu behar duela lurrean. Erakundezko estalki handia, zeinez bere biluztasun etereoa estali beharrean aurkitzen baita eliza bat Jainkoaren eginkizuna giro uzkur batean gauzatu ahal izateko, inkongruentea da eliza baten izaera espiritualarekin; eta ez da harritzekoa Santuen Elkartasunak lurrean duen aitzindari-postua hondamendiak harrapatzea, ezin baitu mundu honek bere zeregin espirituala bete arazo sekularrei aurre egin gabe, horiei erakundezko tresnen bidez eraso behar dielarik.

Horrelako tragediarik ospetsuena Hildebrandoren aitasantutzaren historia da, eta Azterlan honen lehenagoko pasarte batean ikusi dugu nola Hildebrando amildegira eramanez zuen itxuraz ezinbestekoa zen kausa eta efektuen kateaketak. Ez zen Jainkoaren benetako zerbi-

tzari izango kleroa sexu- eta finantza-ustelkeriatik ateratzeko borrokari ekin izan ez balio; ezingo zuen kleroa erreformatu Elizaren antolaketa estutu gabe; ezingo zuen Elizaren antolaketa estutu Elizaren eta Estatuaren eskumenak mugatzera iritsi gabe; eta Elizaren eta Estatuaren funtzioak, aro feudalean, zeharo korapilatuta zeudenez, ezin zen Elizarentzat gogobetegarri zen mugaketara iritsi Estatuaren eremuan sartu gabe, hau arrazoiz haserretzeko moduan. Honela hasi zen gatazka, hasieran agiri-gerra gisara, laster indarrezko gerra izatera endekatu zena, non alde bakoitzaren baliabideak «dirua eta pistolak» baitziren.

Hildebrandoren elizaren tragedia atzerakada espiritualaren adibide nabaria da, eliza munduko arazoetan nahasteak eta ekintza-modu sekularretara emateak lastertu zuen atzerakada, bere eginkizuna betetzen saiatzeak bide batez ekarri zuen ondorioa. Bada, hala ere, beste bide zabal bat, espirituali suntsitzailea den mundutartasun berberera daramana. Eliza bat atzerakada espiritualean erortzeko arriskuan jartzen da bere arauen arabera bizitzeko egintzan bertan. Zeren eta Jainkoaren nahia gizarte mundutarren xede sozial zuzenetan dago neurri batean adierazia, eta ideal mundutar hauek modurik arrakastatsue-  
nean lor ditzakete, ez ideal horien atzetik berez helburu balira bezala dabiltzanek, goragoko zerbaiten atzetik dabiltzanek baizik. Lege honen funtzionamenduaren bi adibide klasiko San Benediktoren eta Gregorio Handia aita santuaren lorpenak izan ziren. Bi arima santu horiek Mendebaldean bizimodu monastikoa bultzatzeko xede espiritualera emanak zeuden; hala ere, haien lan espiritualaren azpi-produktu gisa, mundutar ez ziren bi gizon haiek ekonomi mirariak zertu zituzten, estatu-politikari sekularren ahalmenaz harantzago zeudenak. Haien ekonomi lorpena historialari kristauak nahiz marxistek goraipatuko zuten; hala ere, goraipamen horiek Benediktok eta Gregoriok beste munduan entzun ahal izanez gero, santu haiek ziur aski nolabaiteko errezeloz gogoratuko lukete beren Maisuak esana: «Ai zuek, mundu guztiak zue-  
taz ongi hitz egingo duenean»; eta beraien beldurra benetan atsekabe bihurtuko litzateke gai izango balira mundu hau berriro bisitatzeko eta lurreko bizialdian egin zuten ahalegin espiritualak gero izandako eragin ekonomikoen azken ondorio moralak beren begiez ikusteko.

Egia txundigarria zera da, *Civitas Dei*-ko neke espiritualen bigarren mailako fruitu materialak ez direla beren arrakasta espiritua-



laren ziurtagiriak soilik; tranpak ere badira, non Hildebrando sutsua politikan eta gerragintzan nahastuta galbideratu zen baino deabruzkiago harrapatuta gera baitaiteke atleta espirituala. Historia monastikoaren mila urteak, San Benediktoren garaia eta «Erreforma» delakoan eliz erakundeen arpilatzearen artekoak, ezagunak dira, eta ez dago sinetsi beharrik idazle protestante eta antikristauen alegazio guztiak. Ondorengo aipua idazle moderno baten lanetik hartua da, fraide-bizitzaren aurkakoa izateko susmorik gabea, eta esan behar da bere deskribapena ez dela normalean Erreforma aurreko fraide-bizitzaren azken eta okerrentzat jotzen den aldiari buruzkoa.

*«Abadearen eta konbentuaren artean agerturiko leizea aberatsun-metaketak eragin zuen neurri handi batean. Denbora igaro ahala, monasterioen ondarea hain handia bihurtu zenez, abadea bere lurren administrazioan eta horrek berekin zituen hainbat arduratan murgilduta geratu zen ia erabat. Ondare eta zereginen banaketa-prozesu antzekoa ari zen gertatzen aldi berean monjeen beren artean... Monasterio bakoitza ia departamentu banatueta zatituta geratu zen, bakoitza bere diru-sarrerekin eta erantzukizun bereziekin... Dom David Knowles-ek dioen bezala: 'Winchester, Canterbury eta Saint Albans bezalako monasterioetan izan ezik, non interes intelektual edo artistikoak indartsuak baitziren, horrelako arazoek berenganatzen zuten etxeko talentu guztia...'. Zeren eta horrelako administrazio-dohainak izan, baina horiek garatzeko inolako jabetzarik ez zutenentzat, monasterioek, beren ondare izugarriekin, eremu zabala eskaintzen baitzuten»<sup>47</sup>.*

Hala ere, negozio-gizon arrakastatsu izatera endekatu den fraidea ez da atzerakada espiritualak har dezakeen formarik larriena. *Civitas Dei*-ko hiritarrentzat mundu honetan zain dagoen tentaziorik txarrena ez da politikan murgiltzea, ez negozioetara lerratzea, baizik eta lurreko erakunde bat idolatratzea, horretan gorpuzten baita osagabeki baina ezinbestean Eliza militantea lurrean. *Corruptio optimi* delakoa *pessima* bada, eliza idolatratua da idolo bakarra gizakiek Leviatan gisa gurtzen duten giza erlauntza idolatratua baino kaltegarriagoa dena.

Eliza bat idolatria horretan erortzeko arriskuan dago sinesten badu bera ez dela egiazen gordailuzain hutsa, baizik eta egia osoaren gordailuzain bakarra bere errebelazio osoan eta behin betikoan; eta

Avernorako beherabide horretatik abiatzeko joera berezia izaten du kolpe gogorren bat jasan ondoren, kolpea bere etxekoek eman badiote, batez ere. Adibide klasikoa Erromako Eliza Katolikoaren Trentoko Kontrarreforma da, katoliko ez zirenek ikusi zuten bezala. Hau idatzi aurreko laurhun urteetan jadanik, eliza hori guardian egon da, jarra oso zurrunean eta zaintza lasaitugabeaz, aitasantutzaren kasketaz eta hierarkiaren bular-babeskiaz astun blindatua, eta etengabe Jainkoari armak aurkeztuz liturgia zorrotzaren erritmo errepikakorrean. Erakundezko panoplia astun horren helburu subkontzientea mundu honetako erakunde sekular garaikideetako gogorrera baino gehiago irautea zen. Kristau-aroko hogeigarren mendean kritikari katolikoak arrazoiz argudia zezakeen, historia protestantearen laurhun urteen argitan, Trento-aurreko katolizismoaren ekipamendu arinagoatik protestanteen pazientziarik eza goiztiarra izan zela. Hala ere, epai horrek, konbentzigarria izanda ere, ez luke frogatuko ekipajea abandonatzea huts egitea izan zenik beti, edota Trenton horiek ugaltzea ez zela errakuntza izan ere <sup>48</sup>.

Erlijio nagusietatik zibilizazio sekularren errepikapen hutsaletara egindako atzerakaden kausa batzuk seinalatu ditugu, eta kasu bakoitzean aurkitu dugu zorigaitza ez duela *saeva necessitas* batek edo kanpoko beste edozein indarrek lastertu, «jatorrizko bekatu» batek baizik, lurreko giza izaeran berezkoa dena. Baina erlijio nagusietatik atzerakadak jatorrizko bekatuaren ondorio badira, atzerakada horiek ezin bestekoak direla ondorioztatu behar ote dugu? Erantzuna baiezkoa bada, horrek esan nahiko luke militantziaren erronka lurrean gaindiezinki gogorra denez, elizarik ez litzatekeela epe luzera hori jasateko gai izango; eta ondorio horrek, bere aldetik, beste ikuspegi honetara eramango gintuzke: elizek ez dutela beste ezertarako balio hutsalki errepikakor diren zibilizazioen krisalida iragankor izateko baizik. Hau ote da azken hitza? Jainkoagandik datorren argia beti-beti iluntasun ulertezinak menderatuko duen iradokizuna etsipenez onartu aurretik, berriro ere bota ditzagun begiak erlijio nagusien epifaniek mundura ekarritako argitzapen espiritualen gain; zeren eta gerta bailiteke iraganeko historia espiritualaren kapitulu hauek eliza militanteak izan ohi dituen atzerakadetatik espirituali suspertzearen zantzu positiboak izatea.

Ohartarazi dugu gizakiaren aurrerabide espiritualean hurrenez hurren izandako mugarriak —Abraham, Moises, profetak eta

Kristoren izena dutenak— zibilizazio sekularraren ibilbidearen behatzaileak bidezulo eta zirkulazio-etenak ikusiko lituzkeen puntuetan daudela guztiak; eta proba enpirikoak eman digu oinarririk pentsatzeko gizakiaren erlijiozko historiaren goi-puntuen eta bere historia sekularraren behe-puntuen arteko kointzidentzia hori gizakiaren lurreko bizitzaren «legeetako» bat izan daitekeela. Horrela bada, beste hau aurkitzea ere espero beharko genuke: historia sekularraren goi-puntuak erlijiozko historiaren behe-puntuekin bat datozeela, eta beheraldi mundutarrekin batera zertutako erlijiozko lorpenak aurrerapen espiritual hutsak ez ezik, susperraldi espiritualak ere badirela. Prozesuaren bertsio tradizionalen susperraldi gisa aurkezten dira, noski.

Abrahamen deia, adibidez, hebrear kondairan beren buruaz ziur zeuden Babel dorrearen eraikitzaileek Jainkoari botatako erronkaren ondorio gisa agertzen da. Moisesen egitekoa Jainkoaren Herri Hautatua Egiptoko haragi-dupinen gozamenetik, espiritualki onuragarria ez zen gozamenetik, ateratzeko mugimendu gisa aurkezten da. Israel eta Judako profetak damua predikatzeke izan ziren inspiratuak, Israelek Jainkoak eman zion «esnea eta eztia zerion lurraldearen» ustiapena arrakasta material bihurtu zuenean egin zuen atzerakada espiritualarekiko damua predikatzeke, alegia. Kristoren ministerioa —zeinen Nekaldia, historialari sekular batek ikusi bezala, arazoaldi heleniko baten atsekabe guztiez bete baita— ebanjelioetan Jainkoaren beraren esku-hartze gisa aurkezten da, aurrez Jainkoak Israelekin egindako ituna gizadi osoari zabalatzeko helburuarekin egindako esku-hartzea, Israelen ondorengoek beren ondare espirituala fariseuen formalismo, saduzearren materialismo, herodetarren oportunismo eta zeloteen fanatismoarekin nahastua zutelarik.

Ikuspegi honetatik, lau argialdi espiritual ilunaldi espiritualen ondorio izan ziren, mundu-hondamendiekin batera gertatzeaz gain, eta suposa genezake hau ez dela ezustekoen atala. Azterlan honen lehenagoko zati batean ikusi dugu ingurune fisikoki gogorrek mundu-arrakasten hazleku izateko joera dutela, eta, analogia honetan, espero daiteke ingurune espiritualki gogorrek eragin bizigarria izatea erlijiozko ahaleginetan. Ingurune espiritualki gogorra, oparotasun materialak arimaren nahiak itotzen dituenekoa izango litzateke. Baina mundu-oparotasunaren miasmak, masa lelotzen duenak, ongi eragin

lezake mundu honetako xarrei buruzko mesfidantza arima espiritualki sentibera eta kementsuetan.

Kristau-aroko hogeigarren mendeko munduan erlijiora itzultea aurrerapen espiritualaren seinale izango ote litzateke ala ezagutzen dugun bizitzako gertaera gogorretatik ezinezko iheserako ahalegin doilorra izango litzateke? Gure erantzuna galdera horri hazkunde espiritualerako ahalbideei buruz uste dugunaren arabera dago neurri batean.

Dagoeneko aipatu dugu Mendebaldeko Zibilizazio moderno sekularraren mundu-mailako hedapenak laster samar forma politikoa har lezakeela estatu unibertsal baten ezarpenaren bidez, azkenean honek gauzatuko lukeelarik mota honetako gobernu baten ideala, muga fisikorik izango ez lukeen erkidego batean planetaren eremu osoa hartuta. Testuinguru berean, beste aukera hau ere aztertu genuen, hots, horrelako egitura baten barruan, lau erlijio nagusi bizien jarraitzaileak iritsiko ote liratekeen ohartzera garai bateko beren sistema lehiakideak Benetako Jainko Bakarrarengana hurbiltzeko beste hainbat era alternatibo direla, ikuspen beatifikoarean hainbat ikuspegi partzial eskaintzen dituzten bideetatik. Horren argitan, aniztasunean batasun horri eliza historiko biziak azkenean adierazpidea eman liezaioketela iradoki genuen, Eliza militante bakar baterantz elkarrekin gartuz. Demagun hau gertatzen dela; zeruko erreinua lurrean ezarri dela esan nahiko ote luke horrek? Kristau-aroko hogeigarren mendean Mendebaldeko munduan ezinbesteko galdera zen hau, nolabaiteko paradisu lurtar bat ideologia sekular gehienen helburua baitzen. Idazlearen iritziz, ezezkoa zen erantzuna.

Ezezko erantzunaren arrazoi nabarmena gizartearen eta gizakiaren izaerak erakusten du. Zeren eta gizartea ez baita pertsonen ekintza-eremuen arteko lurralde komuna baizik, eta giza nortasunak berezko gaitasuna du gaizkia egiteko ongia egiteko bezalaxe. Imajinaturikoa bezalako eliza militante bakar bat ezartzeak ez luke gizakia jatorrizko bekatutik garbituko. Mundu hau Jainkoaren erreinuko probintzia bat da, baina probintzia bihurria, eta, gauzen izaeraren arabera, horrela izango da beti.

# VIII. ARO HEROIKOAK

## XXIX. TRAGEDIAREN BILAKABIDEA

### 1.

#### *Gizarte-horma bat*

Hazten ari den zibilizazio batek kolapsoa jasaten duenean erakargarriro sortzaile zen gutxiengoa higuinngarriro menderatzaile bihurtu delako, ondorioetako bat zera izaten da, inguruan lehenengo gizarte primitiboetan zituen jarraitzaileak aldentzea, gizarte horietan zibilizazioa bere hazkundealdian maila ezberdinetan eragiten ari zelarik bere kultur irradiazioaren bidez. Jarraitzaile ohien jarrera aldatu egiten da, mimesian adierazitako miresmenetik gerrara daraman etsaitasunera, eta gerra honek bi emaitzetako bata edo bestea izan dezake. Tokiko *terrain* horrek zibilizazio erasokorrari berezko mugarantz aurrera egiteko aukera eskaintzen dion fronte batean —nabigatu gabeko itsaso, zeharkatu gabeko basamortu edo gainditu gabeko mendikateren baten forman—, barbaroak mendean har daitezke argi eta garbi; baina, horrelako berezko mugarik ez dagoen lekuan, barbaroen alde jokatzeko du geografiak. Atzera doan barbaroak, bere erretiradan, maniobra-eremu mugagabea ireki duenean, guda-fronte aldakorra, lehenago edo geroago, lerro batera iristen da, non zibilizazio erasokorraren nagusitasun militarra neutralizatu egiten duen erasotzailearen operazio-basetik frontera dagoen tarte oso luzearen eragozpenak.

Lerro horretan mugimenduzko gerra estatiko bihurtuko da, militarki erabakitzen iritsi gabe, eta bi aldeak beren posizioetan geldirik aurkituko dira eta horrela biziko dira bata bestearen ondoan, zibilizazioaren gutxiengo sortzailea eta haren jarraitzaile izan zitezkeenak

bizi ziren bezala, zibilizazioaren kolapsoak elkarren aurka jarri baino lehen. Baina bi aldeen arteko harreman psikologikoa ez da etsaitasunetik aurreko elkarreragin sortzaileraino itzultzen, eta ez da berriro ezarriko ere garai batean kultur truke hau gauzatu zeneko egoera geografikoa. Hazkundealdian, zibilizazioa pixkanaka inguruko barbarotasunera degradatu zen atalase zabal batean zehar, kanpotarrari sarbide erraza eskaintzen ziolarik barruko ikuspegi erakargarria. Adiskidetasunetik etsaitasunerako aldaketak kultur atalase eroankor hori (*limen*) fronte militar banatzaile (*limes*) bihurtu zuen. Aldaketa hau aro heroikoa sortu zuten baldintzen adierazpide geografikoa da.

Egia esan, aro heroikoa, *limes* baten kristalizazioaren ondorio sozial eta psikologikoa da; eta gure helburua orain gertaeren segida hori marraztea da. Eginkizun horretarako beharrezkoa da, ordea, hainbat estatu unibertsaleko *limites*-en hainbat zatitan aurre egin zuten gerra-talde barbaroak aztertzea, eta horrelako azterketa bat egiten jadanik ahalegindu gara Azterlan honen lehenagoko zati batean, eta han azpimarratu ditugu gerra-talde horien lorpen bereizgarriak erlijio sektarioaren eta poesia epikoaren arloetan. Oraingo ikerketan balia gaitzke aurreko azterketa hartaz, argibide gisa hura laburbildu beharrik gabe.

*Limes* militar bat jada irekita geratzen ez den haranean jarritako hormarekin pareka daiteke: izadiari erronka egiten dion giza trebetasun eta ahalmenaren oroitarri ikaragarria, eta hala ere badaezpada-koa, izadiarekiko erronka gizakiak zigorgabe planteatu ezin duen *tour de force* bat baita.

«Arabiar tradizio musulmanak kontatzen du garai batean Yemenen ingeniarietza hidraulikoko lan ikaragarri bat ikus zitekeela, Marib-eko eustorma edo dikea, alegia; han, Yemengo ekialdeko mendietatik jaisten ziren urak izugarritzko urtegi batean biltzen ziren eta handik herrialdeko eskualde handi-handi bat ureztatzen zen, labore-sistema intentsibo bati bizia emanez eta ondorioz biztanle asko mantenduz. Handik denbora batera, jarraitzen du tradizioak kontatzen, eustorma apurtu egin zen eta, apurtzean, dena suntsitu zuen, eta herrialdean bizi zirenak hain miseria gorrian utzi zituenenez, tribu askok emigratu egin behar izan zuten»<sup>49</sup>.

Istorio horrek arabiar Völkerwanderung baten hasierako bulkada azaltzeko balio izan du, azkenean arabiar penintsulatik indar han-

diz irten zena Tien Shan eta Pirinioetan zehar. Simil bezala hartuta, estatu unibertsal orotako *limes* guztien istorio bihurtzen da. Eustorma militarren leherketaren gizarte-hondamendi hori, ezinbesteko tragediada da ala saihas daitekeena? Galdera horri erantzuteko, zibilizazio baten eta bere kanpo-proletalgoaren arteko berezko harreman-bideetan horma eraikitzen ari direnak sartzearen ondorio sozial eta psikologikoak aztertu behar ditugu.

Horma bat eraikitzearen lehen ondorioa bere atzean urtegi bat sortzea da, noski; baina urtegiak, oso handia izanik ere, bere mugak izango ditu. Sekula ez du estaliko bere arroaren zati bat baino. Garbi bereiziko dira hormaren atzean urperatutako zatia eta atzerago goian eta lehor geratzen den zatia. Lehenagoko testuinguru batean jadanik aipatu dugu *limes* batek bere eremuan dauden barbaroen bizitzan zertzen duen eraginaren eta urrutiagoko hinterland-ean dauden herri primitiboen apatia barearen arteko aldea. Eslaviarrek lasai-lasai beren bizitza primitiboarekin jarraitu zuten Pripet-eko zingiretan bi milurteko tartean, eta orduan, lehenengo, barbaro akeoak ikusi zituzten «Minosko talasokraziaren» lehorreko muga europarraren hurbiltasunagatik asaldatuta, eta gero barbaro teutoiak ikusi zituzten esperientzia berbera jasaten Erromatar Inperioaren lehorreko muga europarraren hurbiltasunaren ondorioz. Zergatik daude beren «erreserban» barbaroak hain lasai? Eta nondik ateratzen dituzte ondorengo kemenaldi horiek, betiere *limes*-ak zeharkatzeko gai egiten dituztenak? Galdera horien erantzunak gure similari Ekialdeko Asian izan zuen kokapen geografikoaren arabera jarraitzen badiogu aurkituko ditugu.

Demagun gure similean *limes*-aren ikurra den irudizko eustorma, Txinako Shinsi eta Shansi probintzia modernoan barruan Harresi Handiak benetan zeharkatzen duen eskualdean goiko haranen batean hankalatraba eraikia izan dela. Non dago ur-masa ikaragarri horren azken sorburua, gero eta bolumen handiagoaz presionatzen duelarik urtegiaren aurreko horman? Ur guztia argi eta garbi urtegia baino goragotik behera etorri arren, azken sorburua ezin egon norabide hartan, eustormaren eta uren banalerroaren arteko tarte ez baita handia, eta banalerroaren atzean Mongoliako goi-ordoki lehorra hedatzen baita. Egia esan, azken iturburua ez da aurkitu behar eustorma baino gorago, beherago baizik, ez Mongoliako goi-ordokian, Ozeano Barean baizik, hemengo urak eguzkiak lurrundu eta ekialdeko haize-

ak eraman baititu, aire hotzak kondentsatu ondoren, euri-forman erortzen direlarik ura hartzen duen arroan. *Limes*-aren alde barbaroan metatzen den energia psikikoa oso neurri txikian bakarrik dator mugaz bestaldeko barbaroen gizarte-ondare kaskarretik; zatirik handiena zibilizazioaren biltegi handietatik ateratakoa da, berori babesteko eraiki zelarik eustorma.

Nola gauzatzen da energia psikikoaren eraldaketa handi hori? Eraldaketa-prozesua kultura bat desegin eta beste molde batean berregitea da. Azterlan honetan beste nonbait kulturaren gizarte-irradiazioa argiaren irradiazio fisikoarekin alderatu dugu, eta testuinguru hartan ezarri genituen «legeak» gogoratu behar ditugu orain.

Lehen legea hau da, kultur irrada integral bat, argi-irrada integral bat bezala, bere osagaien espektroan difraktatzen dela, gauzaki errefraktario batera sartzean.

Bigarren legea, difrakzioa gerta daitekeela, halaber, gizarte-gorputz arrotzean inolako inpakturik gabe, gizarte irradiatzailea dagoeneko kolapsoa izan eta desintegratzen ari bada. Hazten ari den zibilizazioa bere kulturaren osagaiak —ekonomikoa, politikoa eta, zentzu estuan, «kulturala»— elkarren artean harmonian dituen dela esan daiteke; eta, printzipio beraren arabera, desintegratzen ari den zibilizazioa hiru osagai horiek beren artean desadostasunean dituen dela esan daiteke.

Hirugarren legea zera da, kultur irrada integral baten abiadura eta sartze-ahalmena bere osagai ekonomiko, politiko eta «kulturalak» —difrakzioaren ondorioz, bakoitza bere aldetik dabilenean— izaten dituzten abiadura eta sartze-ahalmenen batez bestekoak dira. Osagai ekonomiko eta politikoak difraktatu gabeko kultura baino lasterrago ibiltzen dira; «kultur» osagaia astiroago ibiltzen da.

Honela, desintegratzen ari den zibilizazioak eta aldenduriko bere kanpo-proletalgoak *limes* militar batean duten gizarte-trukean, zibilizazioaren irradiazio difraktatuak pobretze tamalgarria jasaten du. Ia truke guztia deusezten da, ekonomikoa eta politikoa izan ezik: merkataritza eta gerra, alegia; eta hauetatik merkataritza, hainbat arrazoiengatik, gero eta murriztagoa izaten da eta gerra gero eta sarriagoa. Iragarpen beldurgarri hauen pean gertatzen den mimesi hautakorra barbaroen beren ekimenez gauzatzen da. Horiek beren ekimena



erakusten dute onartzen dituzten elementuak imitatuz imitatuaren sorburu desatsegina disimulatuko duen moduan. Bien adibideak, egokitzapen identifikagarrienak nahiz sorkuntza ia berrienak, dagoeneko eman dira Azterlan honetan lehenago. Hemen gogoratu besterik ez dugu egin behar «erreserbako» barbaroek alboko zibilizazio baten erlijio nagusia hartzera jotzen dutela heresiaren forman (gotoen ariotar kristautasun heretikoa, adibidez), eta albo-estatu unibertsalaren zesarismoa erantzunbeharrik gabeko monarkiaren forman, ez tribulegean baizik eta ospe militarrean oinarritua, eta sorkuntza orijinalerako gaitasun barbaroa, berriz, poesia heroikoan azaltzen da.

## 2.

### *Presioaren metaketa*

*Limes* baten ezarpenak sorturiko gizarte-eustorma eta urtegi baten eraikuntzak sorturiko eustorma fisikoa izadiko lege beraren mende daude. Eustorma baino gorago pilaturiko urak beheko urarekin maila berean egon nahi izaten du. Eustorma fisiko baten egiturari, ingeniariak segurtasun-balbulak jartzen ditu, uhateak alegia, egoerak eskatzen duenaren arabera zabaldu edo itxi egiten direnak, eta segurtasun-gailu hori *limes* militar baten ingeniari politikoei ez zaie oharkabea pasatzen, ikusiko dugun bezala. Kasu honetan, hala ere, gailu horrek hondamendia lastertu baino ez du egiten. Gizarte-eustorma bat mantentzean, presioa ezin da arindu urari modu erregulatuaren jareginez; urtegia ezin da eustorma hondatu gabe hustu; zeren eta eustormatik gorako ura, eguraldi busti eta lehorraren arabera gehitu eta gutxitu ordez, kasuaren izaeragatik, igo egiten baita etengabe. Erasoaren eta defentsaren arteko lasterketan, erasoak luze iraibazi egin behar du nahitaez. Denbora barbaroen alde dago. Denbora, hala ere, asko luza daiteke *limes*-aren atzeko barbaroek desintegratzen ari den zibilizazioaren eremu gutiziatuan sartzea lortu baino lehen. Denboraldi luze hori —zeinetan barbaroen espiritua sakon hunkitu eta desitxuratu baitu zibilizazioaren eraginak, berone-tatik kanporatuak izan zirelarik— «aro heroikoaren» beharrezko ata-

rikoa da, aro horretan *limes*-ak behea jo eta barbaroek gainditu egiten dutelarik.

*Limes* baten eraikuntzak gizarte-indar batzuen jokoa jartzen du mugimenduan, eraikitzaileentzat oso gaizki bukatu beharrekoa. Bestaldeko barbaroekin trukerik ezaren politika eginezina da. Gobernu inperialak zernahi erabakita ere, merkatari, aitzindari, abenturazale eta horrelakoen interesek mugaz bestaldera eramango dituzte ezinbestean. Estatu unibertsal bateko marka-gizonen arteko joera honen —mugaz haraindiko barbaroekin bat egitekoaren— adibide harrigarri bat, Erromatar Inperioaren eta eurasiar nomada hunoen arteko harremanen historiak ematen du, hunoak eurasiar estepatik kristau-aroko laugarren mendearen bukaera aldera irten zirelarik. Hunoak ezohiko basatasunezko barbaroak izan arren, eta haien agintea Erromatar Inperioko europar *limes*-ean iragankorra izan arren, hiru senidetze-kasu ohargarriren berri gorde da pasadizo labur honen garaiko kontaketen gerakin zatikatuen artean. Kasu hauetako harrigarriena Panoniako Orestes izeneko hiritar erromatar batena da, bere seme Romulo Augustulok ospe lotsagarria lortuko zuelarik Mendebaldeko azken erromatar enperadore gisa; Orestes hori berori hartu zuen aldi batez bere idazkari Atilak, hunoen gerra-jaun ospetsuak.

Eraginkortasunik gabeko *limes* banatzailean zehar kanpotik sartu ziren ondasun guztien artetik, gerra-armak izan ziren agian esanguratsuenak. Barbaroek ezingo zuten inoiz eraginkortasunez erasorik egin zibilizazioaren armategietan forjaturiko armak erabili gabe. Indiako Britainiar Inperioaren ipar-mendebaldeko mugan 1890etik aurrera, «errifle eta munizioa tribuen lurraldera sartzeak... erabat aldatu zuen mugako gerraren izaera»<sup>50</sup>; eta mugaz bestaldeko pathan eta balutxien Mendebaldeko arma txiki modernoek lehenengo hornidura-iturria Indiako britainiar armadei lerroaz bestaldean egindako lapurreta sistematikoa zen bitartean, «kezkatzeko arrazoi gutxi izango zen, gero arma-trafikoa ikaragarri hazi ez balitz Pertsiar golkoan, trafikori, Bushiran nahiz Muskatén, britainiar merkatarien esku zegoelarik hasieran»<sup>51</sup>; hori inperioaren mendekoek interes pribatuatarako, mugaz bestaldeko barbaroekin negozioa egiteko zuten joeraren adibide harrigarria da, gobernu inperialak barbaroei atzera eusteko zuen interes publikoaren aurka ekinez.

Mugaz bestaldeko barbaroa ez da, ordea, konformatzen alboko zibilizaziotik ikasi dituen taktika nagusiak praktikatze hutsarekin; hobetu ere egiten ditu sarritan. Adibidez, Karolinjioen Inperioaren eta Wessex-eko erresumaren itsas mugetan, eskandinaviar piratek, Mendebaldeko Kristandade jaio berrian, agian Frisiako itsas markagizonengandik ikasia zuten ontzigintza eta itsasketa-teknikari hain probetxu ona atera ziotenez, itsasoko agintea eskuratu zuten eta, horrekin batera, beraien biktima ziren Mendebaldeko kristau-herrialdeetako kostetan zehar eta ibaietan gora gerra erasokorraren ekimena zertu zuten. Ibaietan gora, nabigatzeko mugara iritsi zirenean, mailegaturiko arma bat utzi eta beste bat hartuz, zaldi lapurtuen gainean jarraitu zuten kanpaina, zaldiz borrokatzeko frankoen antzea frisiarren itsasketa-antzea bezain ongi ikasia baitzuten.

Gerra-zaldiaren historia luzean, kasurik dramatikoena Mundu Berrian gertatu zen, non barbaro batek berari eman zion zibilizazioaren beraren aurka erabili baitzuen arma hori; han zaldia ezezaguna zen, Kolonen ondorengo Mendebaldeko kristau arrotzek eraman zuten arte. Abere etxekotu baten ezagatik, Mundu Zaharrean abeltzain nomadaren bizimodua erabaki zuen zerbait, Mississippi Arroko Lautada Handiak, abeltzainen paradisu izan zitezkeenak, tribuen ehiz lurralde izaten jarraitu ziren, neke handiz oinez ibiltzen zirelarik ehi-zaren atzetik. Zaldi-lurralde ideal hartara zaldiaren iriste berantak ondorioak izan zituen etorkinaren nahiz bertakoaren bizitzan, bi kasuetan ondorio iraultzaileak, baina gainerako guztian ezberdinak. Texas, Venezuela eta Argentinako lautadetan zaldia sartzeak abeltzain nomada bihurtu zituen 150 laborari-belaunaldiren ondorengoak, eta aldi berean zaldizko gerra-talde mugikor bihurtu zituen Espainia Berriko espainiar erregeordeerriaren eta azkenean Estatu Batuak izan ziren kolonia ingelesen mugez handiko Lautada Handietan zeuden indiar tribuak. Maileguan harturiko armak ez zien mugaz bestaldeko barbaro haiei azken garaipena eman, baina azken porrota atzeratzeko gai egin zituen.

Kristau-aroko hemeretzigarren mendeak Ipar Amerikako belardietako indiarra europar arrotzen armetako bat jatorrizko jabearen aurka bihurtzen ikusi zuen, inportaturiko zaldiaren laguntzaz Lautaden edukitza eztabaidatzen ziolarik; hemezortzigarren mendeak jada ikusia zuen oihaneko indiarra europar mosketeaz baliatzen zela-

ta eta enboscada-gerran; gerra-mota horrek, oihanaren pantailarekin indiarraren lagungarri gisa, erraz menderatzen zituen garaiko europar gudu-taktikak: formazio itxiek, eboluzio zehatzek eta tiroketa egonkorrek beren suntsipena ekartzen zuten, europar mosketea amerikar oihaneko egoerara egokitua zuten kontrarioen aurka irudimenik gabe erabiltzen zirenean. Suzko armak asmatu aurreko egunetan, zibilizazio erasokor baten ohiko armak oihaneko egoerara antzeratsu egokitu ziren eta Ipar Europako Rhinez bestaldeko oihanetako biztanle barbaroak gai egin zituen artean basoz estalitako Germania erromatar konkistatik —Galia mendean hartu eta jada neurri batean soildu eta landua zuten konkistatik— salbatzeko, erromatarrei erabateko porrota eragin zitelarik Teutoburgoko Oihanean K.o. 9an.

Lerroak, zeinetan zehar ezarri baitzen, beraz, ondorengo lau mendeetan Erromatar Inperioaren eta Ipar Europako barbaroen arteko muga militarra, horretan du bere azalpena. Lerro horrez bestaldean, azken izotzaldiaz geroztik hor errege izandako oihana, artean nagusi zen zalantzarik gabe *Homo Agricola*-ren lanen gainetik, lan hauek ireki zutelarik bidea erromatar legioak Mediterraneotik Rhin eta Danubion gora joan zitezen. Lerro horretan zehar, Erromatar Inperioaren zoritxarrerako Europa kontinentalean zehar marraztu zitekeen luzeena, erromatarren armada inperialak pixkanaka bere kopurua gehitu behar izan zuen, mugaz bestaldeko barbaroen eraginkortasun militar gero eta handiagoa orekatzeko, bere zeregina baitzuen haiei atzera eustea.

Artean bizirik zirauten parroki estatuek barbaroen aurka zituzten toki-mugetan mendebaldartzen ari zen munduan —hau idazteko garaian lurbira bizigarri eta ibilgarri osoa, zati bat izan ezik, hartzen zuena— barbaro setatien bi aliatu ez-gizatiar jada jokoz kanpo utziak zituen Mendebalde modernoko industri teknikak. Oihana aspaldi izan zen altzairuaren biktima, eta estepan, berriz, sartuak ziren automobila eta hegazkina. Barbaroen mendi-aliatua, ordea, intxaur gogorragoa gertatu zen kraskatzeko, eta barbarotasunaren goi-lurretako atzegoardiak, bere azken eginkizun etsigarrietan, argitasun harrigarria erakutsi zuen, bere *terrain* hartan, Mendebaldeko industri teknika militarren gailu modernoetako batzuk bere probetxurako bihurtzean. *Tour de force* horren bidez, Marokoko espainiar eta frantziar eskualdeen arteko muga teorikoan hankalatraba zeuden Rifeko menditarrek K.o.

1921ean Annualetako hondamendia eragin zieten espainiarrei, keruskoek eta auzokoek Teutoburgoko Oihanean K.o. 9an Varusen hiru legioei eragindako suntsipenarekin pareka zitekeena, eta Frantziak Ipar-mendebaldeko Afrikan zuen gobernua bere oinarrietan kolokarazi zuen 1925ean. Trebetasun berbera erakutsiz, Vaziristango mahsudek britainiarren hainbat ahalegin zapuztu zituzten, beraiek mendean hartzeko laurogeita hemezortzi urtez egindako ahaleginak, K.o. 1849tik, britainiarrek barbaroen aurkako muga sikh-engandik heredatu zutenetik, 1947a arte, Indiako ipar-mendebaldeko mugaren arazo artean konpondu gabeaz libratu ziren arte, ondare izugarri hura Pakistani utziz.

K.o. 1925ean Rifeko erasoaldia, Marokoko frantziar eskualde benetan okupatua Frantziak Afrikako ipar-mendebaldean zuen gorputz nagusiarekin lotzen zuen korridorea mozteko zorian egon zen; eta, riftarrek hain tarte txikiz huts egin zuten ahaleginean arrakasta izan balute, Mediterraneoaren hegoaldeko ertzean Frantziak zuen inperio osoa jarriko zuketean arriskuan. Antzeko tamainako interesak zeuden jokoan Britainiar Inperioarentzat Indian, mahsud barbaroen eta Indiako Britainiar Inperioaren indar armatuen arteko indar-neurketan Vaziristango kanpainan 1919-20an. Kanpaina hartan, Rifeko gerran bezala, barbaro borrokalarien indarra honetan egon zen: Mendebalde modernoko arma eta taktika hauek, Mendebaldeko asma-tzaileen irizpide ortodoxoen arabera, erabiltzeko oso lagungarria ez zen *terrain* batera trebeki egokitzean, alegia. 1914-18ko gerrako europar borroka-lekuetan, armada antolatuen artean leku lauetan operazioak egiteko asmatu-rik ekipamendu sofistikatu eta garestiak askoz eraginkortasun txikiagokoak ziren mendien artean zelatan zeuden tribugizon-taldeen aurka<sup>52</sup>.

Mahsudek 1919an eta riftarrek 1925ean erakutsitako *expertise* militarren maila lortua duten mugaz bestaldeko barbaroak, behin betiko ez bada ere, menderatu ahal izateko, *limes* mehatxatuaren atzeko botereak ahalegin bat egin behar du, giza indar edo ekipamendu edo dirutan neurtuta, batere proportziorik gabea bere aurkako iteulien baliabide eskasekiko, haien aurka kontraeraso astun hau delarik erantzun eraginkorraren gutxienekoa, ezin txikitu dena. Egia esan, Gladstonek 1881ean «zibilizazioaren baliabideak»<sup>53</sup> deiturikoak ia lagungarri bezain eragozgarriak izan zitezkeen honelako gerra batean,

zeren eta Indiako britainiar indarren mugikortasuna oso murriztua geratzen baitzen nagusitasuna ezartzeko behar zituzten gailu askoren ondorioz. Bestalde, Indiako britainiar indarrek kopuru handiegiagatik ezin bazuten bizkor eta eraginkortasunez eraso egin, mahsudek zeri eraso askorik ere ez zuten eskaintzen. Zigor-espedizio baten xedea zigortzea da, baina nola zigor liteke horrelako jendea? Miserian utzita? Jadanik miseria gorrian zeuden; bizimodu hura normaltzat jotzen zuten, nahiz eta ez gozatu harekin. Haien bizitza —Thomas Hobbesek «Naturaren Egoeraz» egiten duen deskribapenaren arabera— bakarti, pobre, desatsegin, zabar eta laburra zen. Nekez egin zitekeen bakar-tiago, pobreago, desatseginago, zabarrago eta laburrago; eta, hori egin ahal izanda ere, nor egon ziur haiei asko axola izango litzaiekeela? Azterlan honetan lehenago beste testuinguru batean aztertutako puntura iristen ari gara: gizarte-gorputz primitibo bat errazago eta bizkorrago suspertzen dela zibilizazio material handia daukan gizarte-gorputza baino. Har apala bezala da, erditik moztan dutenean, ohartu ez eta lehen bezala jarraitzen duena. Baina itzul gaitezen orain riftar eta mashudengandik, orain arte ez baitute lortu zibilizazioei egindako erasoak arrakastaz burutzea, eta ekin diezaiogun tragediaren prozesuaren azterketari bere bosgarren ekitaldiraino garatu den kasuetan.

Muga-gerraren *crescendo*-ak, botere militarren orekan pixkanakako aldaketa hau eragin zuenak, poliki-poliki ahuldu egiten du horretan sartutako zibilizazioa, bere diru-ekonomia zerga-karga gero eta handiagoaren mende jartzen baitu. Bestalde, barbaroen gutizia militarra piztu baino ez du egiten. Mugaz bestaldeko barbaroak gizaki primitibo aldagaitza izaten jarraitu balu, bere energia guztien askoz proportzio handiagoa bideratuko zen bake-arteetara, eta eragin hertsatzaile handiagoa izango zuen harengan bere ahalegin baketsuen emaitzak zigor gisa suntsitzeak. Ordu arte primitibo izandako gizartea inguruko zibilizaziotik moralki urruntzearen tragedia zera da, barbaroak bertan behera utzi duela lehen zeukan bakezko emankortasuna mugako gerragintzan espezializatu ahal izateko, lehenengo bere burua babesteko, baina gero bide alternatibo eta kilikagarriagoa delako bizi-bidea irabazteko... ezpataz eta lantaz goldatu eta segatzeko, alegia.

Mugako gerragintzak bi gerra-egileentzat dituen ondorio materialen ezberdintasun deigarri hori haien artean *morealean* dagoen gero eta ezberdintasun handiagoak erakusten du. Desintegratzen ari den

zibilizazioko jendearentzat, mugako gerragintza amaiezinak gero eta finantza-karga handiagoak jasan beharra esan nahi du. Gerra-egile barbaroentzat, bestalde, gerra berbera ez da zama, aukera bat baizik, ez die estutasuna sortzen, alaitasuna baizik. Egoera honetan ez da harritzekoa *limes*-aren autore eta biktima den aldeak ez etsitzea bere patuarekin, bere aurkari barbaroa bere aldean erreklutatzeke azken bidea probatu gabe. Dagoeneko aztertu ditugu politika horren ondorioak Azterlan honetan lehenago, eta hemen orduan aurkitutakoa gogoratzea baino ez dugu egin behar: *limes* baten kolapsoa eragozteko baliabide honek eragotzi behar zuen hondamendia lastertu baino ez duela egiten.

Mugaz bestaldeko barbaroen aldera balantza ezinbestean makurtu ez zedin Erromatar Inperioak zertutako borrokaren historian, lagun barbaroei atzera eusteko barbaroak erreklutatzeke politikak bere burua suntsitu zuen —Teodosio I.a enperadorearen administrazioaren aurkako kritika bat sinesten badugu, behintzat—, barbaroak erromatarren gerragintza ikasten hasi baitziren, aldi berean inperioaren ahuldadea erakutsi zielarik.

*«Erromatar indarretan diziplina bukatu egin zen orduan, eta erromatarren eta barbaroen arteko bereizketa oro, desagertu. Bi kategorietako soldaduak elkarren artean erabat nahastuta zeuden lerroetan; zeren eta unitate militarretako soldaduen erregistroa ere ez baitzen eguneratuta edukitzen. Desertore (barbaroak) —(mugaz bestaldeko gerra-talde barbaroetatik erromatarren armada inperialera desertatuak)— aske aurkitzen ziren honela, erromatarren formazioetan sartu ondoren, berrirori beren etxera itzultzeko eta beren postura ordeztzeko bidaltzeko, beraiei ongi zetorkienean erromatarren mende zerbitzu pertsonalari berrirori ekitea aukeratu arte. Erromatarren formazio militarretan orduan nagusi zen desorganizazio ikaragarri hau ez zen barbaroentzat sekretu bat, ateak zabal-zabalik egonik trukerako, desertoreek guztiaren berri eman ziezaieketen eta. Barbaroek ateratako ondorioa zera izan zen: erromatarren gorputz politikoa hain zabarki kudeatua zegoenez, erasotzera gonbidatzen zuela argi eta garbi»<sup>54</sup>.*

Ongi trebaturiko mertzenario haiek *en masse* beste aldera igaro zirenean, ez da harritzekoa beraiek sarri gai izatea koloka zegoen inperioari *coup de grâce*-a emateko; baina, hala ere, azaldu beharrean gaude zerk bultzatu ote zituen beren enplegatzaileen aurka jartzera,

hain sarri egin zuten bezala. Ez ote dator bat haien interes pertsonala beraien eginbehar profesionalarekin? Orain hartzen ari diren ordain-sari erregularra handiagoa eta ziurragoa da noizbehinkako erasoaldietan lortu ohi zuten harrapakina baino. Zergatik, orduan, traidore bihurtu? Erantzuna zera da, babesteko alokatu duen inperioaren aurka jartzean, mertzenario barbaroa bere interes materialen aurka ari dela benetan jokatzeko, baina hori egitean ez dela ari ezer berezia egiten. Gizakiak nekez jokatzeko du lehen mailan *homo economicus* gisa, eta mertzenario traidorearen portaera ardura ekonomikoek baino bulkada indartsuago batek eragiten du. Kontua da gorrotatu egiten duela ordaintzen dion inperioa; eta bi aldeetan artean irekitako arrakala morala ezin dela etengabe konpondu merkataritza-tratu baten bidez, tratatu hori ez badu bermatzen, barbaroaren aldetik, zaintzeko ardura hartu duen zibilizazioan parte hartzeko inolako desirak. Bere jarrera zibilizazio horrekiko ez da jadanik begirune eta mimesizkoa, egun zoriontsuagoetan zibilizazio bera artean hazkundealdi erakargarrian zegoenean haien arabasoen izan zen bezalakoa. Mimesiaren joeraren norabidea aspaldidanik alderantzikatua zegoen, eta, barbaroaren begietara zibilizazioak bere ospeari eutsi ordez, barbaroa da orain ospea daukan zibilizazioaren ordezkariaren begietara.

*«Erromatarren lehenengo historia aparteko gauzak egiten zituen jende arruntaren historia bezala deskribatu da. Berant Inperioan aparteko gizon bat hartzen zen edozer egiteko, errutinari eustea izan ezik; eta, Inperioak hainbat mende zizkizkiz gizonak hazi eta trebatzen jardun zuen bitartean, azken garaietako gizonak aparte-koak —Estilikon, Aezio eta antzekoak— gero eta gehiago barbaroen mundutik sortuak ziren»<sup>55</sup>.*

### 3.

#### *Kataklistmoa eta bere ondorioak*

Hormak lehertzen direnean, eustormatik gora metaturiko ur-masa osoa maldan beheara itsasora joaten da bortizki, eta luzaroan eutsitako indar horien askapenak hondamendi hirukoitza eragiten du.



Lehenengo, apurtutako horma baino beherago gizakiak lur landuetan egindakoa suntsitzen du uholdeak. Bigarren, bizia sor zezakeen ura goitik behera itsasoraino joaten da, eta gizakiari bere helburuetarako inoiz zerbitzurik egin gabe galtzen da. Hirugarren, ur-deskargak urtegia husten du, eta honen ertzak goian eta lehor uzten ditu, horrela ihar-tu egiten delarik han sustraitzea lortutako landaretza. Labur esanda, hormak eusten zion bitartean emankorra zen urak hondamena eragiten du alde guztietan, bai agerian uzten dituen lurretan eta bai azpian hartzen dituen lurretan ere, horma lehertzeak horma horrek ezarria zien kontroletik askatu orduko.

Gizakiak izadi edo natura fisikoarekin duen lehiaren pasadizo hori *limes* militar baten kolapsoan gertatzen denaren konparazio egokia da. Ondorengo gizarte-katakismoa zoritxar handia da inplikaturiko guztientzat; baina suntsipenaren eragina ezberdina da eta espero zitekeenaren alderantzizkoa, pairatzaile nagusiak ez baitira estatu unitbertsal zenduaren mendeko izanak, garaile nabarmen diren barbaroak eurak baizik. Beraien arrakastaren ordua gertatzen da nahasmenaren okasio ere.

Zein da paradoxa honen azalpena? *Limes*-a ez zen izan zibilizazioaren gordeleku bakarrik, baita probidentziazko salbagailu ere barbaro erasotzailearentzat berarentzat, bere baitan zituen indar demoniakoki autosuntsitzaileen aurka. Ikusi dugu *limes* baten hurbiltasunak ondoeza sortzen duela mugaz bestaldean bere irispidean dau-den barbaroengan, haien aurretiazko ekonomia eta erakundeak energia psikikozko zaparradak desegiten baititu: energia hori *limes* barruan zibilizazioak sortzen du eta, harreman-truke beteago eta emankorragorako oztopo den hesian (uretan) zehar igarotzen da, truke hori izanik hazten ari den zibilizazioaren eta *limen* ireki eta erakargarriaz harantzagoko proselito primitiboen arteko harremanen ezaugarria. Ikusi dugu, halaber, barbaroak, mugaz harantzago dagoen bitartean, arrakasta izaten duela energia psikiko arrotzaren eragin honen parte bat, behintzat, kultur produktu —politiko, artistiko eta erlijioso— bihurtzen, neurri batean erakunde zibilizatuen egokitzapen direnak eta beste neurri batean barbaroen euren sorkuntza berriak. Hain zuzen, barbaroa mehatxatzen duen asaldura psikologikoari hormak eusten dion bitartean, berak dauzkan muga horien barruan ezin du sortu ondorio erabat etsigarria; eta galga salbatzaile hori *limes*-ak

berak ematen du, barbaroak suntsitu nahi izaten duena; zeren eta *limes*-ak, eusten dion bitartean, gizaki primitiboak —ohitura primitiboen moldea apurtu eta mugaz bestaldeko barbaro bihurtzen denean— izaten ez duen diziplinaren ordezkoa ematen baitu, neurri batean. *Limes*-ak diziplinatu egiten du betetzeko eginkizunak, lortzeko helburuak eta gainditu beharreko zailtasunak emanez, etengabe gogor ahalegintzera behartzen baitute horiek.

*Limes*-aren bat-bateko kolapsoak segurtagailu hori desagertarazten duenean, diziplina desagertu egiten da eta aldi berean berarentzat zailegiak diren zereginak betetzea eskatzen zaio. Mugaz bestaldeko barbaroa bere arbaso primitiboa baino izaki zakarragoa, baita sofistikatuagoa ere, baldin bada, geroagoko barbaroa, muga gainditu eta inperio zenduaren eremu abandonatuan ondorengo estaturen batez jabetu dena, aurretik baino askoz adoregabeago bihurtzen da. Oraindik *limes*-a zegoen artean, barbaroak bere aisialdiko orgiak, erasoaldi arrakastatsu baten harrapakina kontsumitzen ematen zituenak, bere erasoak eragingo zuen zigor-espedizioaren aurkako defentsaren gogortasun eta laztasunen bidez ordaindu behar izaten zituen; *limes*-a apurtuta gero, orgiak eta aisialdia inolako zigorrik gabe luza zitezkeen. Azterlan honetan lehenago ikusi dugun bezala, *in partibus civilium* zeuden barbaroek saien paper zikina betetzera behartzen zuten beren burua, sarraskiaz edo gorpuetan ugari zebiltzan harrez elikatuz. Konparazio horiek zakarregiak badirudite, barbaro garaileen hordak, estimatu ezin duten zibilizazio baten hondakinen artean erotuta lasterka dabiltzanak, gaztetxo biziotsuen taldeekin pareka ditzakegu, familiaren eta eskolaren kontrolpetik ihes egin eta kristau-aroko hogeigarren mendean gehiegi hazitako hiri-komunitateen arazoen artean zeuden horiekin.

«Gizarte hauen nolakotasunak, bai bertuteak eta bai akatsak, nerabezarokoak dira argi eta garbi... Ezaugarri nagusia... tribu-legearen loturekiko emantzipazioa —soziala, politikoa eta erlijiosoa— da... Aro heroikoen ezaugarriak, oro har, ez dira ez haurtzarokoak, ez heldtzarokoak ere. Aro Heroikoko gizaki tipikoa gaztearekin hobeto konpara daiteke... Benetako analogiarako, gurasoen ideiak eta kontrola biak gainditu dituen gaztearen kasua hartu beharko genuke; horrelako kasua guraso landugabeen semeen artean aurki daiteke, kanpoko eraginaren bidez eskolan edo beste edonon eskuratutako jakintzak ingurunearekiko nagusitasun-egoeran jartzen dituelarik»<sup>56</sup>.

Barbaro bihurturiko herri primitiboen artean ohitura primitiboaren endekapenaren emaitzetako bat zera da, lehen ahaide-taldeek zerturiko agintea gero *comitatus*-ari ematen zaiola, leialtasun pertsonala buruzagi bati ematen dioten banako abenturazaleen gorputzari. Zibilizazio batek bere estatu unibertsalaren barruan aginte-itxura bat mantentzen zuen bitartean, gerra-jaun barbaroek eta haien *comitatus*-ak, noizbehinka, arrakastaz betetzen zuten tapoi-estatz hornitzeko zerbitzua. Erromatar Inperioan Beheko Rhinen mugan zeuden saliar zaindari frankoen historia, kristau-aroko laugarren mendearen erditik bosgarren mendearen erdira artekoa, gauzen egoera horren adibide askotariko bat da. Baina estatu unibertsal desgertuen eremu izandakoen barruan barbaro konkistatzaileek ezarritako ondorengo estatuen patuak erakusten du jeinu politiko barbaro murriztu baten produktu zabar horrek ez zuela zerikusirik zamak eramane eta arazoak konpontzeko zereginarekin, aginte ekumeniko baten gobernu-gaitasunarentzat jada gehiegizkoak gertatu ziren zama eta arazoak. Ondorengo estatu barbaroa itsu-itsuan abiatzen da negozioetara porrot egindako estatu unibertsal baten sinesgarritasunik gabeko kredituetan oinarrituz, eta traukil hauek gobernuan lastertu egiten dute beren ezinbesteko patua, autotraizioaren bidez, proba moral baten indarpean, bere baitan halabeharrez faltsua den zerbait lehertaraziz; zeren eta, etsitu armatuen talde batek buruzagi militar arduragabe bati dion leialtasun aldakorrean bakarrik oinarrituriko erakunde politiko bat ez baita moralki egokia, ezta zibilizazioan arrakastarik gabeko ahalegin bat ere egin duen komunitatea gobernatzeko. Ahaide-talde primitiboa *comitatus* barbaroan desegin ondoren berehala dator*comitatus*-aren beraren desegitea mendeko populazio atzerritarren eskuetan.

*In partibus civilium* sartzen diren barbaroek, izan ere, beren burua kolapso morala pairatzera kondenatu dute, beren sartze horren ezinbesteko ondorio gisa; hala ere, ez dira beren patura makurtzen borroka espiritualik gabe, borroka horrek bere arrastoak mitoaren eta erritualaren eta jokamoldeen literatur erregistroetan utzi dituelarik. Barbaroen nonahiko mito nagusiak heroiak munstro batekin duen borroka garailea deskribatzen du, arerio beldurgarri hori gizadiari ukatzen ari zaion altxor bat berreskuratzeko. Hau da Beowulf-ek Grendel-ekin eta Grendelen amarekin izandako borrokaren *motif*

komuna; Siegfried-ek herensugearekin izandakoarena; eta Pertseok Gorgon-i lepoa moztean egindako balentriarena eta ondoren irensteko zorian zeukan itsas munstroa hil eta Andromeda onik ateratzean egindako balentriarena. *Motif* hori berriro agertzen da Jasonen urrezko ardilarrua zaintzen zuen sugea gainditzeko duenekoan eta Heraklesekin egiten duen Zerberoaren bahiketan. Mito honek barbaroaren beraren arimako borroka psikologikoaz kanpoko mundura egiten duen proiektzioa dirudi, hau da, gizakiaren altxor espiritual nagusia, bere borondate arrazionala, indar espiritual demoniako batetik erreskatatzeko borroka, indar hori Psikearen sakontasun subkontzienteetan aske dabilelarik, *limes*-etik kanpo dagoen inoren lurralde ezagunetik hesiaren kolapsoak zabalik utzi duen mundu xarmandura salto batean igarotzeko esperientzia asaldagarriak askatuta. Mitoa izan daiteke, benetan, exortismo-egintza erritual bat literatur narratibara pasatzea, non militarki garaile baina espiritualki atsekabetua dagoen barbaroa erremedio praktikoa aurkitzen ahalegindu den bere gaixotasun psikologiko suntsigarriarentzat.

Aro heroikoaren zirkunstantzia berezietara aplikatu daitezkeen jokabide berezien sorreran beste ahalegin bat ikus dezakegu, *limes*-aren hesi materiala erortzeagatik lur jotako zibilizazio baten jauna eta nagusi barbaroaren arimetan aske dabilen demonio baten triskantzei muga moralak jartzeko ahalegin bat, beste planteamendu batetik egin. Adibide ohargarriak akeoen *Aidôs* eta *Nemesis* homerikoak («Lotsa» eta «Haserre») dira eta omeiatarren *Hilm* historikoa (auto-kontrol landua).

«(Aidôs eta Nemesis)en ezaugarri nagusia, baita Ohorearena ere normalean, zera da, gizakia aske denean bakarrik agertzen direla: hertsapenik ez dagoenean. Hartzen badugu jendea... bere lotura zahar guztiak apurtu dituen, eta horien artean inoren beldur ez den buru indartsu eta istilutsuren bat aukeratzen bada, hasieran pentsatuko duzu gizon hori aske dela gogoak ematen dion guztia egiteko. Eta gero, izan ere, aurkitzen duzu, bere lege-gabetasunean, sortuko dela ekintza posibleren bat, nolabait ere ezeroso sentiaraziko duena. Egin badu, 'damua' izaten du egindakoaz eta obsesionatu egiten da. Ez badu egin, 'saihestu egiten du' egitea. Eta hau, ez inork behartzen duelako, ezta gero emaitza bereziren bat egokituko zaiolako ere, soil-soilik Aidôs sentitzen duelako baizik...»

«Aidôs zeure ekintza bati buruz sentitzen duzuna da; Nemesis beste baten ekintzagaratik sentitzen duzuna. Edota, sarriago, beste batzuek zuregaratik sentituko dutela pentsatzen duzuna... Baina demagun inork ez gaituela ikusten. Egintzak, ongi dakizun bezala, νεμεσιπτόν irauten du, berari buruz Nemesis sentitzeko gauza; kontua da han ez dagoela inor hori sentitzeko. Hala ere, zuk egin duzuna zeuk atsegin ez baduzu eta beragaratik Aidôs sentitzen baduzu, ezinbestean ohartzen zara norbaitek edo zerbaitek ez zaituela gogoko eta eze-tsi egiten zaituela... Lurra, Ura eta Aireia bizidun begiz beteta daude: theoi-enak, daimones-enak, kêres-enak... Eta horiek dira ikusi zaituztenak eta zurekin haserre daudenak egin duzunagaratik»<sup>57</sup>.

Aro heroiko postminoikoan, epika homerikoan deskribatu bezala, Aidôs eta Nemesis sentimenduak sortzen dituzten ekintzak koldarkeria, gezurra, zin-haustea, begirunerik eza eta babesgabearenganako ankerkeria edo maltzurkeria ekartzen dituztenak dira.

«Beraiei egindako ekintza okarren arazoa alde batera, pertsona-mota batzuk αἰδᾶσθαι-agoak dira, Aidôs-en xedeago, beste batzuk baino. Pertsona batzuen aurrean gizakiak lotsa sentitzen du, autokontzientzia, begirunea, ongi portatzearen garrantziaz ohikoa baino zentzu zorrotzagoa. Eta zer-nolako pertsonak dira, batez ere, Aidôs hori sortarazten dutenak? Jakina, badira erregeak, zaharrak eta jakintsuak, printzeak eta enbaxariak: αἰδᾶσθαι βασιλῆες, γέροντος eta horrelakoak: horiengana guztiengana begirunea sentitzen da berez, eta horien iritzi ona edo txarra garrantzitsua da munduan. Hala ere... ohartuko zara ez direla horiek, baizik eta oso bestelako batzuk, Aidôs sakonki pizten dutenak... horien aurrean are zorrozkiago jabetzen zarelarik zeure duintasunik ezaz, eta horien iritzi on edo txarrak, nolabait ere, gehiago pisatzen duela azkenean: Lurreko behartsuak, irainduak, babesgabeak, eta horien artean guztietan babesgabeenak, hildakoak, alegia»<sup>58</sup>.

Aidôs eta Nemesis-en kontrastez, horiek gizarte-bizitzaren alde guztietan sartzen baitira, *vertu des politiques* bat da Hilm<sup>59</sup>. Aidôs eta Nemesis baino sofistikatuagoa da, eta, beraz, ez hain erakargarria. Hilm ez da apaltasunaren adierazpena;

«bere helburua gehiago da kontrario bat apalaraztea: norberaren nagusitasunaren kontrastea aurkeztuz nahastaraztea; norberaren jarreraren duintasuna eta baretasuna erakutsiz harrituta uztea...

*Funtsean, Hilm, arabiar tasun gehienak bezala, arrandia eta erakuskeriazko bertute bat da, benetako mami baino nabarmenkeria handiagoarekin. Hilm ospea merke eskura daiteke keinu dotore edo mot soinuatsu baten bidez... egokiak batez ere milieu anarkiko batean, arabiar gizartea bezalakoetan, non indarkeriazko ekintza orok erruki gabe errepresalia sortarazten zuen... Hilm horrek, (Muauija-ren omeiatar ondorengoek) praktikatua bezala, arabiarrei heziketa politikoa emateko eginkizuna errazten zien; beraien ikasleentzat basamortuko askatasun anarkikoa subiranoen mesedetan sakrifikatu beharrraren garraztasuna gozatzen zuen, subirano haiek inperioa gobernatze-ko erabiltzen zuten burdinazko eskuaren gainean belusezko esku-zorroa eramateko behar hainbat amore-emaleak zirelarik»<sup>60</sup>.*

*Hilm, Aidôs eta Nemesis-en karakterizazio bikain horiek erakusten dute zein ongi egokitzen ziren jokabide horiek Aro Heroikoaren zirkunstantzia berezietara; eta, dagoeneko adierazi dugun bezala, Aro Heroikoa, berez, aldi iragankorra baldin bada, bere etorreraren eta atzerakadaren seinalerik ziurrenak bere berariazko idealen epifania eta eklipsea dira. Aidôs eta Nemesis bistatik desagertzen direnean, etsipenezko garrasia sortzen du desagerpenak. «Samina eta atsekabea da gizakientzat geratuko dena, eta ez da babesik izango egun txarraren aurka»<sup>61</sup>. Bere irudipenezko usteak atsekabetzen du Hesiodo, hots, Aro Iluneko jendeari eutsi zioten argi ahul hauen erretiratzeak betiko iluntasunaren hasiera iragartzen duela; ez da ohartzen gau-argien itzaltze hori egunaren itzuleraren seinale dela. Egia zera da, Aidôs eta Nemesis zerura igotzen direla berriro, zibilizazio berri baten jaiotza hautemanezinak horiek lurrian jarraitzea alferrikako bihurtu orduko, beste bertute batzuk jarri baitira zirkulazioan, sozialki eraiki-korragoak, estetikoki hain erakargarriak ez badira ere. Burdin Aroa, zeinetan jaio izana deitoratzen baitzuen Hesiodok, Zibilizazio Heleniko bizi bat hildako Zibilizazio Minoikoaren hondakinetatik sortzen ari zen garaia zen; eta abbastarrak, beren aurreko omeiatarren *arcanum imperii* hura izan zen Hilm-arekin zer egin ez zekitenak, omeiatarren aprobetxatzeko *tour de force*-ari zigilua jarri zioten estatu-politikariak ziren, Erromatar Inperioaren siriar *limes*-a ixtean estatu unibertsal siriakoari berriro hasiera emateko.*

Barbaroaren oinak eroritako *limes*-a zeharkatu orduko barbaroaren arimaz jabetzen den demonioa benetan zaila da exortizatze-ko,

biktimak bere buruari eman dizkion bertuteak berak galbideratzen ahalegintzen baita. Ongi esan liteke *Aidôs*-i buruz Madame Roland-ek askatasunari buruz esan zuena: «Zelako krimenak egin diren zure ize-nean!». Barbaroaren ohore-zentzuak «piztia harrapariak bezala egiten du orro, sekula ez dakielarik noiz dagoen asebeteta»<sup>62</sup>. Edonolako basakeriak dira Aro Heroikoaren ezaugarri nabarmenak, bai historian eta bai kondairan. Gizarte barbaro etsia, non zertzen diren balentria ilun horiek, hain ohitua dago horiek egiten eta hain sorgortua horien izugarrikeriarekiko, ezen gerra-jaunen oroimena betikotzeko eginkizuna duten bardoek ez baitute zalantzarik izaten beren heroiak agian egin ere ez zituzten bekatuekin zamatzeko, haien izaera belzteak beraien balentriak handitu baditzake. Eta heroiek ez dituzte beren basakeria beldurgarriak etsai ofizialen aurka bakarrik egiten. Troiako arpilaketaren izugarrikeriak gaingitu egiten dituzte Atreoko Etxeko famili feudoaren izugarrikeriek. Beren artean honela zatituriko «etxe-ek» ezin luzaroan iraun.

Itxurazko ahalguztiduntasunetik bat-bateko eroriko harrigarria da aro heroikoko botere barbaroaren ohiko patua. Adibide historiko ohargarriak, Atila hil ondoren hunoen eklipsea, eta Genseriko hil ondoren bandaloen eklipsea dira. Horiek eta historikoki egiaztaturiko beste adibide batzuek sinesgarritasuna ematen diote zerako tradizio hari, alegia, akeoen konkista-uhinak lehertu eta geratu egin zirela Troia irentsi ondoren, eta Agamenon eraila azken gerra-jaun panakeoa izan zela. Hala ere, gerra-jaun haien konkistak oso zabalak izanda ere, ez ziren gai izan erakundeak sortzeko. Karlomagno bezain gerra-jaun sofistikatu eta konparatiboki zibilizatuaren inperioaren patuak ezintasun horren adibide dramatikoa ematen digu.

## 4.

### *Fantasia eta errealitatea*

Egia bada aurreko kapituluan aurkezturiko koadroa, Aro Heroikoari buruzko epaiak oso gogorra izan behar. Epairik gozoenak pasarte hutsaltzat joko du, epailerik zorrotzenek izugarrikeria krimi-

naltzat salatuko duten bitartean. Hutsalkeriaren epaia viktoriar garai-ko letra-gizon baten olerki eztiaren bidez entzunarazten da, aro neo-barbaro baten izotza sentitzeraino bizi izan zena.

*Jarraitu gerrari ilehorien, godo garaien, bideari  
familia begi-urdinak atera,  
Vistulako larre-toki hotzetatik atera,  
Baltikon anbar-koloreko itsasertzeko  
bizitoki goibeleetik, eta gizontasunaren  
kemen kutsatu gabeaz,  
lurralde agindu ezezagunerantz bide marmartia entzunez,  
botere purpuraren ertz nahasiak urratu zituzten,  
eta gona zabalak oinperatu, armadak menderatuz,  
enperadorea hil eta hiriak errez  
Atenas eta Erroma arpilatu zituzten,  
Zesar ere ordeztuz,  
mundua gobernatu zuten, aurrez erromatarrek  
erreinatutako lekuan.  
Baina lapurreta eta odolezko  
gizagabetasun eta ankerkeria zentzugabeko  
hiru mende luze haietatik  
gutxi geratzen da... Godo haiek suntsitzeko  
bakarrik ziren indartsu;  
ez zuten idatzi edo forjatu, pentsatu edo sortu;  
baina soroa irakaz eta herdoildun gariz betea zegoenez  
haien segaketak irabazi zuen gorespenik: beste arrastorik ez  
zuten utzi<sup>63</sup>.*

Neurritasunezko iritzi horrek, hamabost mendeko leizean zehar emanak, nekez gogobete zezakeen «Minosko talasokraziaren» ondorengo barbaroek eragindako zulo moralean bizi izatearen kontzientzia garratza zeukan poeta heleniko bat. Kriminalitatea, eta ez hutsalkeria soil, da Hesiodok aro heroiko postminoikoaren aurka duen salaketaren kargua, haren garaian oraindik Zibilizazio Heleniko jaio berria obsesionatzen zuena. Bere iritzia errukigabea da.

*«Aita Zeusek gizaki hilkorren hirugarren arraza bat egin zuen: brontzezko arraza, inola ere ez zilarrezkoa bezalakoa, lizar-enborrez egin, ahaltsu eta beldurgarria. Beraien atsegina Are-sen balentria beldurgarrietan zegoen eta Harrokeriaren ὕβρις*



*delituetan. Inoiz ez zen haien ezpainetatik ogirik pasatu, baina haien bularretan zegoen bihotza diamantea bezain gogorra zen, eta inor ezin zen haiengana hurbildu. Handia zen haien indarra eta konkistaezinak sorbaldeetatik beren gorpuzkera indartsuen gainean hazten zitzaizkien besoak. Brontzezkoak ziren haien panopliak, brontzezkoak etxeak eta brontzez goldatzen zuten lurra (artean ez baitzen burdina ilunik). Eta hauek beren eskuz jaitsi ziren behera eta Hades izoztuaren egoitza haustura bideratu ziren, izengabe. Beraien adore ahaltsu guztia gorabehera, Heriok bere atzaparkada ilunean harrapatu zituen, eta eguzkiaren argitasun distiratsua utzi behar izan zuten»<sup>64</sup>.*

Barbaroek beren zorakeria kriminalengatik beren gain erakartzen duten atsekabe eta sufrimendu neurrigabeari buruzko geroaren iritzian, Hesiodoren olerkiko pasarte hori azken hitza izan zitekeen, poetak berak ondorengo hau ere esan izan ez balu:

*«Eta arraza hori ere lurra estali zuenean, laugarren arraza bat egin zuen berriro, Oro-Amaren aurpegian, Zeusek, Kronosen semeak: arraza hobia eta zuzenagoa, gizaki heroikoen jainkozko arraza, erdijainkoak deituak, garai batean Lur mugagabeen bizi izan zen arraza. Haiek Gerra gaiztoak eta Gudu beldurgarriak suntsitu zituen: batzuk zazpi ateko Tebasen aurrean, Cadmo-ko lurretan, Ediporen osteentzat borrokatu zirenean; beste batzuk suntsipenerako Troiara eraman zituzten ontziz itsasoaren leize handiaren gainetik, adats ederreko Helenarengatik. Han aurkitu zuten benetan beren bukaera eta Herioren besarkadan desagertu ziren; hala ere, bakan batzuei bizia eta bizilekua eman zien, gizaditik aparte, Zeusek, Kronosen semeak, Lurraren muturretan biziaraziz. Hortaz, han daude, bihotzean kezkarik gabe, Zorionekoen Uharteetan, ozeanoko lasterraren zurrumbilo sakonen ondoan... heroi zoriontsuak, soro emankorrek urtean hiru aldiz ezitia bezain uzta gozoak ematen dituztelarik beraientzat»<sup>65</sup>.*

Zer lotura du pasarte horrek bere aurrekoarekin, eta, batez ere, txertaturik dagoeneko arraza-katalogo osoarekin? Pasarte horrek katalogoko segida apurtzen du bi aldetatik. Lehenengo, hor aztertutako arraza, aurreko urrezko, zilarrezko eta brontzezko arrazak eta ondorengo burdinazko arraza ez bezala, ez da inolako meta-lekin identifikatzen; eta, bigarren, beste lau arrazak segidan joateko

eginda daude, goitik beherako meritu-hurrenkeran. Are gehiago, aurreko hiru arrazen hil ondorengo patuak lurrean izandako bizitzaren araberakoak dira. Urrezko arrazakoak «espiritu on bilakatu ziren Zeus handiaren borondatez, lurraren *gainetik* dauden espirituak, gizaki hilkorren zaintzaileak, aberastasun-emaileak». Zilarrezko arraza apalagoek ere «lur *azpiko* bedeinkatuen izena lortu zuten gizakien artean: aintzan bigarrenak; baina, halaz guztiz, hauei ere ohorez itxaroten zaie». Brontzezko arrazara iristen garenean, ordea, heriotzaren osteko zoria isiltasun kezkagarrian uzten dela aurkitzen dugu. Eredu horren arabera egituratutako katalogoan, laugarren arraza, hil ondoren, kondenatuen atsekabeak pairatzen aurkitzea esperoko genuke; hala ere, oso bestela, aukeratutako bakan batzuk gutxienez hil ondoren Eliseora eramanak aurkitzen ditugu, non, lurraren *gainetik*, urrezko arrazak bizi izandako bizitza berbera bizi dutela aurkitzen baitugu.

Heroien arraza bat brontzezko arrazaren eta burdinazko arrazaren artean sartzea garbi dago geroko burutazioa dela, olerkiaren sekuentzia, simetria eta zentzua apurtzen duena. Zerk bultzatu zuen olerkaria tartesartze trakets hori egitera? Erantzunak ondorengoa izan behar du: hemen aurkezturiko heroien arraza hain biziki zegoen olerkariaren eta haren publikoaren irudimenean sartua, ezen beharrezkoa baitzen hari leku bat aurkitzea. Heroien arraza, izan ere, brontzezko arraza zen, berriro deskribatua, ez Hesiodoren ikuspegi itzaltsuaren arabera, Homeroren fantasia liluragarriaren arabera baizik.

Gizarte-ikuspegitik, aro heroikoa zorakeria eta krimena da, baina emozionalki esperientzia handia da: barbaroen arbaso inbadi-tzaileei belaunaldi askotan atzera eutsi zien hesian zehar igarotzeko eta itxuraz mugarik gabeko mundura, aukera mugagabeak eskaintzen bide dituen mundura, sartzeko esperientzia kilikagarria. Salbuespen loriatsu batekin: aukera horiek guztiak Itsaso Hileko fruituak gertatzen dira gero; hala ere, barbaroen porrotaren erabatekotasun izugarriak gizarte- eta politika-mailan paradoxikoki haien bardoen sorkuntza-lanaren arrakasta eragiten du, zeren eta ertian gauza gehiago sortzen baita porrotetik arrakastatik baino; «arrakastazko istorioek» ezin dute tragedia baten altuerarik lortu. *Völkerwanderung*-ak eragindako alaitasunak, ekintza-gizonen arima hordituetan etsipenerantz endekatzten denak, olerkari barbaroa inspiratzen du bere heroien gaiztakerien

eta gaitasunik ezaren oroitzapena kantu hilezkor bihurtzeko. Poesia horren erresuma xarmangarrian *conquistadores* barbaroek benetako bizitzan eskuratu ez zuten distira lortzen dute beste batzuen bidez. Historia hila erromantze hilezkorrean loratzen da. Poesia heroikoak geroke miresleengan sortzen duen lilurak zera ikustera bultzatzen ditu: zibilizazio baten heriotzaren eta bere ondorengoaren jaiotzaren arteko interludio zikina aro heroiko edo heroien aro gisa ikustera, guk Azterlan honen terminologian, ez intentziorik gabeko ironiaz, deitu dugun bezala.

Ilusio horren lehenengo biktima, ikusi dugun bezala, «Aro Heroikoaren» ondorengo den «Aro Ilun» bateko poeta da. Atzera begiratuta nabaria den bezala, azken aro honek ez du zertan lotsatu iluntasunaz, barbaro su-emaileen suteek azkenean eurak erre zituztela esan nahi duen iluntasunaz; eta errauts-geruza batek sugarrek erretako lurgaina estaltzen badu ere, Aro Iluna sortzaile gertatu zen, Aro Heroikoa inola ere ez bezala. Denbora betetzean, bizi berria sortzen da ernamuin berde goxoekin errausgune emankorra estaltzeko. Hesiodoren poesia, Homerorenarekin parekatzean hain arrunta, uda-berriaren itzuleraren iragarpen horietakoa da; hala ere, egunsentiaren aurreko iluntasunaren kronikalari zintzo hau oraindik hain liluratua dago azken aldiko gau-suteek sortarazitako poesiaz, ezen fede onez hartzen baitu egia historikotzat heroi-arrazaren irudizko deskribapen homeriko bat.

Hesiodoren ilusioak arraroa dirudi, kontuan izanda, brontzezko arrazaz egiten duen deskribapenean, fantasia homerikoaren erreproduktzioarekin batera, barbaroaren agerpen errukigabea ematen digula, benetan den bezalakoa azalduz. Baina, arrasto hau gabe ere, mito heroikoa lehtaraz daiteke bere barne-nabaritasuna piztuz. Gertatzen da heroiak brontzezko arrazaren bizitza gaiztoak bizi eta heriotza ankerrez hil zirela, eta halaber Valhalla zulo zikin bat gertatzen da, argi artifizialak itzali eta eguneko argi soilaz borroka iskanbilatsu eta festa zaratatsuen idealizazio poetiko hau aztertzen dugunean. Valhallan onartuak izateko gai diren gerrariak eta haien balentrien xede izan diren demonioak berdin-berdinak dira benetan; eta, elkar suntsituz lurberatik desagertzean, beraien egintza zen pandemonium batetik askatu zuten mundua eta amaiera zoriontsua lortu zuten, beraientzat izan ezik, beste guztientzat.


Hesiodo izan zitekeen lehenengoa, baina inola ere ez azkena, epika barbaroaren distirak liluratutakoen artean. Ustez ilustratua zen kristau-aroko hemeretzigarren mendean, filosofo saltinbanki bat aurkitzen dugu, «arraza nordiko» barbaro osasuntsuaren mitoa zabaltzen, bere odolak «gizarte akitu» baten zainetan sartzean gaztetasunaren elixir gisara jokatzeko duelarik; eta are harrigarriagoa gerta dakiguke ikustea frantziar aristokrata zoliaren *jeu d'esprit* politikoa arrazazko mito bihurtzen dutela germaniar neobarbarismo demoniakoaren igarileek. Poetak bere Errepublikatik kanpo uzteko Platonen ardurak esanahi bizia lortzen du sagen egileen eta Hirugarren Reich-aren sortzailleen artean kausa eta efektuaren lerroari jarraitzen diogunean.

Hala ere, okasio batzuetan sarkin barbaroak zerbitzu apal bat egin izan dio geroari. Lehenengo belaunaldiko zibilizazioetatik bigarrenengoetarako trantsizioan, sarkin barbaroak kasu batzuetan lotura izan ziren zibilizazio zenduaren eta ondorengo jaio berriaren artean, bigarren belaunalditik hirugarrenetarako hurrengo trantsizioan krisalida-elizak lotura izan ziren bezala. Zibilizazio Siriako eta Helenikoak, adibidez, aurreko Zibilizazio Minoikoarekin lotuta zeuden horrela Gizarte Minoikoaren kanpo-proletalgo honen bidez, eta Zibilizazio Hitita erlazio berean zegoen aurreko Zibilizazio Sumeriko batekin, eta Zibilizazio Indikoa aurreko Indus kultura batekin (honek bere bizitza propioa izan baldin bazuen Zibilizazio Sumerikotik apartekoa). Honela zertutako zerbitzuaren apaltasuna krisalida-elizen paperarekin konparatuz nabaritzen da. Elizak eraikitzen dituen barne-proletalgoa, gerra-taldeak eratzen dituen kanpo-proletalgoa bezala, desintegratzen ari den zibilizazio batengandiko banatze psikologikoaren kimua den bitartean, barne-proletalgoak iraganaren ondare askoz aberatsagoa eskuratzen du eta ematen die ondorengo belaunaldiei. Hau garbi geratzen da Mendebaldeko Kristau Zibilizazioak Helenikoarekiko duen zorra Zibilizazio Helenikoak Minoikoarekiko duen zorrarekin konparatzen badugu. Kristau Eliza saturazio-punturaino helenizatua zegoen; olerkari homerikoek ia ezer ez zekiten Gizarte Minoikoaz: beren Aro Heroikoa *in vacuo* aurkezten dute, ustekabeko erreferentziaren bat bakarrik eginez gorpu ahaltsuari, zeinen gainean ari baitira beren sarraski-festak egiten bardoaren putre-heroiak, «hiri-arpilatzaileak», beren buruez harro esaten duten bezala.

Ikuspegi honetatik, akeoen eta transmisio-paper berbera jokatu zuten haien belaunaldiko beste barbaroen zerbitzua ia desagertzeko punturaino dela kaskarra irudi lezake. Zer ekarpen egin zuen benetan? Ekarpen hori, lotura barbaro mehe honen bidez aurrekoekin ahaidetuak zeuden bigarren belaunaldiko zibilizazioen patuak bigarren mailako beste zibilizazioen patuekin konparatzen ditugunean nabarmentzen da benetan. Bigarren mailako zibilizazio orok, bere aurrekoaren kanpo-proletalgoaren bidez filial ez denak, aurrekoaren gutxiengo menderatzailearen bidez izan behar filial. Hauek dira alternatiba bakarrak, zeren eta krisalida-elizarik ez baitzen sortu lehen mailako zibilizazioetako barne-proletalgoen erlijio nagusi garatu gabeetatik.

Bigarren belaunaldiko bi zibilizazio-talde ditugu, beraz: aurrekoen filial kanpo-proletalgoen bidez direnak eta aurrekoen gutxiengo menderatzaileen bidez direnak, eta beste alde batzuetatik ere bi talde horiek kontrako muturretan daude. Lehenengo taldea hain ezberdina denez bere aurrekoengandik, filiazioarena bera ere zalantzazkoa gertatzen da. Bigarrenak, berriz, hain estu loturik daudenez beren aurrekoei, aparteko izatea omen duten errebindikapena ere eztabaida liteke. Bigarren taldeko hiru adibide ezagunak hauek dira: Babilonikoa, aparteko zibilizaziotzat edo Sumerikoaren luzapentzat har daitekeena, eta Yucatandarra eta Mexikarra, antzeratsu ahaidetuak Maien Zibilizazioarekin. Bi talde horiek bereizi ondoren, berorien artean beste ezberdintasun bat aztertzen jarrai gezake. Bigarren mailako zibilizazio suprafilialen taldeak (edo lehen mailako zibilizazioen enbor hilak) porrot egin zuen erabat, beste taldeko zibilizazioek — Helenikoak, Siriakoak, Indikoak — arrakasta izan zuten puntuan; zibilizazio superfilialetako inork ez zuen, bera hil aurretik, eliza unibertsalik sortu.

Gogoratzen badugu gure ondorioa, hots, hurrenkera kronologikoan jarritako gizarte-moten segidak aldi berean behetik gorako balore-ordena adierazten duela, non erlijio nagusiak izango lirатеkeen orain arte lorturiko puntu gorena, esango dugu bigarren belaunaldiko (baina ez hirugarreneko) zibilizazioen krisalida barbaroek erlijio nagusien bilakaeran parte hartu izanaren ohorea izango luketela beren alde. Proposizioa modurik argienean ondorengo taularen bidez ager daiteke:



**OHARRA: «EMAKUMEZKOEN ERREJIMENTU BELDURGARRIA»**

Aro Heroikoa *par excellence* gizonezkoen aroa izatea espero zitekeen. Ez al daude frogak guztiak indar zakarraren aroa izan zela esateko? Eta indarrari aske uzten zaionean, zer aukera izan dezakete emakumeek, fisikoki nagusi den sexuaren aurka lehian jarduteko? *A priori*-zko logika hau, ordea, gezurtatu egiten dute, ez bakarrik poesia heroikoan aurkezturiko margolan idealizatuak, baita historiako gertaerak ere.

Aro Heroikoan hondamendi handiak emakumeen egintza izan ohi dira, nahiz eta emakumeen papera nabarmen pasiboa den. Albuinok Rosamundarengatik sentitzen zuen desira asegabeak gepidiarren suntsidura eragin baldin bazuen, sinesgarria da Troiaren arpilatzea Paris-ek Helenarengatik sentitzen zuen desira asebetetzeak eragin zuela. Ohikoagoa da emakumezkoak argi eta garbi ezbeharren egile izatea, beraien maltzurkeriak eramaten baititu heroiak elkar hiltzera. Brunildaren eta Kriemhild-en arteko liskar ospetsua, azkenean Etzel-eko danubiar jauregiko triskantzan bukatu zena, bat dator Brunilda historikoaren eta haren arerio Fredegundaren arteko liskarraren benetako gorabeherekin, Erromatar Inperioaren ondorengo merovingiar estatuari berrogei urteko gerra zibila ekarri ziotelarik.

Emakumezkoen eragina gizonezkoen gain Aro Heroikoan ez zen, noski, beren gizonak anaiarteko borroketara bultzatzeko maltzur-

kerian soilik agertu. Beste emakume batek ez zuen historian arrasto sakonagorik utzi Alexandroren ama Olinpiak eta Muauija-ren ama Hind-ek baino, biak hilezkortu zirelarik beren seme beldurgarrien gain bizitza osoan zertu zuten aginte moralagatik. Hala ere, Goneril, Regan eta Lady Macbeth-en zerrenda, historia egiaztatuaren erregistroetatik ateratakoa, mugarik gabe luza daiteke. Agian badira fenomeno honen bi azalpen-bide: bat soziologikoa eta bestea psikologikoa.

Azalpen soziologikoa honetan aurkitu behar da: Aro Heroikoa gizarte-interregno bat dela, non bizitza primitiboaren aztura tradizionalak galdu diren, oraindik ez duelarik «ohitura-molde» berririk eratu zibilizazio jaio berriak edo erlijio nagusi jaio berriak. Egoera iragankor honetan, gizarte-hutsunea indibidualismoak betetzen du, hain indibidualismo absolutua ezen gaingitu egiten baititu sexuen arteko berezko ezberdintasunak. Ohargarria da aurkitzea galgarik gabeko indibidualismo horrek feminismo doktrinariotik nekez bereiz daitezkeen fruituak ematen dituela, garai horietako emakume eta gizonen aukera emozional eta horizonte intelektualaz erabat harantzago. Arazoa psikologiaren aldetik planteatuz, zera iradoki daiteke, barbaroek bizitzeko zertzen dituzten borroka beldurgarrietan karta irabazleak ez direla indar hutsa, baizik eta iraunkortasuna, mendekua, gupidarik eza, azerikeria eta zitalkeria; eta ezaugarri horietaz oparo hornitua dago giza izaera bekataria emakumearengan gizonarengan bezalaxe.

Galdetzen badugu geure artean Aro Heroikoaren infernuan beren «errejimentu beldurgarria» osatu zuten emakume horiek heroiak edo doilorrak edo biktimak diren, ez gara erantzun garbi batera iritsiko. Garbi dagoena zera da, beraien anbibalentzia moral tragikoak gai paregabe bihurtzen dituela poesiarako; eta ez da harritzekoa, aro heroiko postminoikoaren ondare epikoan, *genre* kutunetako bat «emakumeen katalogoak» izatea, non mari-gizon ospetsu baten krimen eta atsekabeak kontatzeak beste baten kondaira sortzen baitzuen, ia amaierarik gabeko oroitzapen poetikoen katea osatuz. Emakume historikoek, zeinen abentura beldurgarriek aurkitu baitzuten oihartzuna poesia honen bidez, irribarre egingo zuketena, keinu bihurri batez, jakin izan balute oroitzapen baten oroitzapenak egunen batean *A Dream of Fair Women* sortuko zuela viktoriar poeta baten irudimenean. Zalantzarik gabe, gusturago sentituko ziren *Macbeth*-en lehenengo ekitaldiko hirugarren agerraldiko giroan.

# IX. ZIBILIZAZIOEN ARTEKO HARREMANAK ESPAZIOAN

## XXX. AZTERKETA-EREMUAREN HEDAPENA

Historiaren Azterketa honen hasierako lan-hipotesia zera zen: zibilizazio historikoak beste horrenbeste azterketa-eremu ulergarri direla; eta hori beraien historiako fase guztietan egia izatea gertatu balitz, gure zeregina betea izango genukeen orain. Benetan, zera aurkitu dugu ordea, zibilizazio bat bere sorrera, hazkundera eta kolapsoa kontuan hartzen ditugun heinean unitate ulergarria gertatu arren, ez dela hori gertatzen desintegrazioaldian. Ezin dugu zibilizazio baten historiaren azken fase ori ulertu gure adimenaren ikusmena haren mugez harantzago hedatu gabe eta kanpoko indarren eragina kontuan hartu gabe. Adibide nabarmen bakar bat aipatzearren, Erromatar Inperioak sehaska helenikoa eman zion inspirazio siriakoa zuen kristautasunari.

Erlijio nagusien sorreran hainbat zibilizazioen arteko topaketek jokaturiko paperaren garrantzia geografia historikoaren topikoetako batek argitzen du. Mapa batean erlijio nagusien sorlekuak markatzen ditugunean, Mundu Zaharreko lurrazal osoaren bi gune txiki samarretan eta beraien inguruan biltzen direla ohartzen gara: batetik Oxus-Jaxartes (Amu Daria-Sir Daria) arroan, eta bestetik Sirian, termino hau zentzurik zabalenean erabilita iparraldeko estepa arabiarak, Mediterraneo itsasoak eta Anatolia eta Armeniako goi-ordokietako hegoaldeko mendi-adarrek mugaturiko eremua hartzeko. Oxus-Jaxartes arroa mahayanaren sorlekua izan zen, Ekialde Urruneko



mundura hedatu zen forman, eta, horren aurretik, agian zoroastrismoarena. Sirian, kristautasuna Antiokian lortu zuen forman zabaldu zen gero handik mundu helenikora, lehen agerpena Galilean judaismo farisaikoaren aldaera gisa egin ondoren. Judaismoa eta haren senide zen samaritarren erlijioa Hego Sirian sortu ziren. Maroniten kristautasun monotelita eta drusoek xiismoa, Hakim gurtzen duena, Erdialdeko Sirian jaio ziren biak. Erlijio nagusien sorlekuen kontzentrazio geografiko hau are nabarmenagoa gertatzen da gure ikuspegia inguruko eskualdeetara zabaltzen dugunean. Siriaren hijazi-luzapena hegoalderantz Itsaso Gorriaren ertzeko goi-lurretan zehar kristauiheresia baten sorleku da, Islamaren erlijio berri bilakatu zena, eta, antzeratsu gure behaketaren erradioa Oxus-Jaxartes arroetik hedatzen dugunean, mahayanaren sorlekua bere lehen agerpenean Indus arroan ikusten dugu, eta hasierako budismoaren sorlekua, baita budismo osteko hinduismoarena ere, Gangesen erdiko arroan.

Zein da azalpena? Oxus-Jaxartes arroaren eta Siriaren ezaugarriei begiratzen badiegu eta elkarrekin alderatzen baditugu, ikusten dugu beraietako bakoitzari «biribilune» izateko gaitasuna eman diola izadiak: espazioko edozein puntutatik bertaratutako zirkulazioa beste edozein puntutara bidera dezakete konbinazio-aukera mugagabea. Siriar biribilunean ondorengo lekuetako bideak elkartzen ziren: Nilo arrokoak, Mediterraneokoak, Anatoliakoak —hego-ekialdeko europar hinterland-arekin—, Tigris-Eufrates arrokoak eta arabiar estepakoak. Antzeratsu, Erdialdeko Asiako biribilunean beste leku hauetako bideak elkartzen ziren: iraniar goi-ordokiaren bidez Tigris-Eufrates arrokoak, Hindu Kush mendiguneko igarobideetan zehar Indiakoak, Tarim arroaren bidez Ekialde Urrunekoak, eta alboko eurasiar estepakoak: azken honek jada lehortua zegoen «Bigarren Mediterraneoa» lekua hartu eta eroankortasuna heredatua zuen, baina lehen han izan zela erakusten zuen zatika iraun izanak Kaspiar itsasoan, Araleko itsasoan eta Balkash aintziran.

Bi zirkulazio-biribilune izan zitezkeen horiei izadiak honela esleituriko papera bakoitzak behin eta berririo jokatu zuen lehenengo zibilizazioak sortu ondorengo bost edo sei mila urteetan. Siria topaleku izan zen, hurrenez hurren, Zibilizazio Sumeriko eta Egipziakoaren artean; Zibilizazio Egipziako, Hitita eta Minoikoaren artean; Zibilizazio Siriako, Babiloniko, Egipziako eta Helenikoaren artean;

Zibilizazio Siriako, Kristau Ortodoxo eta Mendebaldeko Kristauaren artean; eta azken harreman-aldi batean, Zibilizazio Arabiko, Iraniko eta Mendebaldekoaren artean. Oxus-Jaxartes arroa antzeratsu topaleku izan zen, hurrenez hurren, Zibilizazio Siriako eta Indikoaren artean; Zibilizazio Siriako, Indiko, Heleniko eta Sinikoaren artean; eta Zibilizazio Siriako eta Ekialde Urrunekoaren artean. Topaketa horien ondorio gisa, bi eskualde bereziki «numenifero» (erlijio-sortzaile) horietako bakoitza hainbat zibilizazioen estatu unibertsaletan sartuta geratu zen, eta bi eremu horietan zibilizazioen artean izandako harreman bereziki aktiboak azaltzen du erlijio nagusien sorlekuen aparteko kontzentrazioa eman izana horien muga barruan.

Datu honetan oinarrituz, «lege» bat proposatzera ausar gaitzezke: erlijio nagusien azterketarako, eremu ulergarri txikiak zibilizazio bakar baten arloa baino handiagoa izan behar duela, bi zibilizazioek edo gehiagok elkarrekin topo egin duten eremua izan behar baitu. Gure hurrengo urratsa zenbait kasu historikotan erlijio nagusiak sorrarazi zituzten topaketa horien ikerketa zabalagoa egitea da.

Topaketa horiek, *ex hypothesi*, elkarren garaikide izan behar duten zibilizazioen arteko harremanak dira espazio-dimentsioan; baina honetan, Azterlanaren zati honen gaian, sartu aurretik, esan behar dugu zibilizazioek denbora-dimentsioan ere izan dituztela elkarrekiko harremanak, eta hauek bi eratakoak. Harreman-mota bat denboran gurasotasun eta filiazio-harremana da ondoz ondoko zibilizazioen artean, geurekin izan dugun gaia Azterlan honetan zehar. Bestea, hazitako zibilizazio baten eta aspaldi hildako aurrekoaren «arimaren» arteko harremana da. Honelako topaketei berpizkunde esan geniezaieke, fenomeno historiko honen adibide partikular bat — inola ere ez adibide bakarra — deskribatzeko frantziar idazle batek kristau-aroko hemeretzigarren mendean asmatu izenaz baliatuz. Denboran izandako zibilizazioen topaketa hauek Azterlan honen hurrengo zatirako utziko ditugu.

## XXXI. ZIBILIZAZIO GARAIKIDEEN ARTEKO TOPAKETEN AZTERKETA

### 1.

#### *Lan-plana*

Zibilizazio garaikideen arteko topaketen azterketari ekitean, labirinto historiko ikaragarri nahasiaren aurrean aurkitzen gara, eta, sasitza horretan murgildu aurretik, zuhur jokatu genuke sarbide egokia bilatuko bagenu. Gure kultur mapan hasieran kokaturiko zibilizazioen kopurua hogeita batekoa zen; eta, arkeologi aurkikuntzaren aurrerapenak aukera emango baligu Indus kultura Zibilizazio Sumerikotik aparteko gizartetzat hartzeko, eta Shang kultura Zibilizazio Sinikoaren aurrekotzat, zenbaketan egindako aldaketa honek gure bilduma hogeita hirura igoaraziko luke. Hala ere, garbi dago —nahiz eta lotura garaikiderik gabeko bi zibilizazioek ezin duten hemen axola zaigun motako topaketarik izan— zibilizazio garaikideen arteko topaketa-kopurua askoz ere handiagoa izan litekeela, eta askoz handiagoa da izan ere, zibilizazioen beren kopurua baino. Dagoeneko sarri esan dugun bezala, hiru zibilizazio-belaunaldi ditugu. Lehen belaunaldia dena aldi berean hil balitz, eta bigarrena ere bai, topaketen bilbea espazio-dimentsioan sinplifikatua geratuko litzateke. A, B, C, D eta E-ren —lehen belaunaldiko zibilizazioen— elkarrekiko topaketak hartu beharko genituzke kontuan, horietako inork F, G, H, I eta J-rekin —bigarren belaunaldiko zibilizazioekin— topaketarik izateko aukera onartu gabe; baina, noski, ez da horrela. Nahiz eta zibilizazio Sumerikoa begirune osoz lurperatua izan bigarren belaunaldiko gazte indartsuagoren batekin topatu ahal izan baino

lehen, lehen belaunaldiko Titon hura, Zibilizazio Egiptziakoa, oso bes-tela portatu zen.

Bazen beste faktore bat, garai «modernoak» arte, zibilizazio garaikideen arteko benetako topaketak espazioan matematikoki gertagarri zirenak baino askoz gutxiago izatea eragiten zuena zorionez; espazioa bera hain handia zelako edota bere izaeragatik, elkarreki-ko topaketa eragozten zuen. Adibidez, ez zen topaketarik izan Mundu Zaharreko eta Mundu Berriko zibilizazioen artean, Mendebaldeko Kristau Zibilizazioak itsasketa ozeanikoaren teknika menderatu zuen arte bere historiaren atal «modernoa» (*circa* K.o. 1475-1875). Lorpen hau mugarri historikoa da, eta aztertzeari ekin diogun labirinto historikoan sarbide bat aurkitzeko arrastoa eman diezaguke.

Kristau-aroko hamabosgarren mendean, Mendebaldeko Europako marinelek itsasketa ozeanikoaren teknika menderatu zute-nean, horri esker lurberako lurralde jendeztatu eta jende gabeko guz-tietara fisikoki iristeko bitartekoa lortu zuten. Beste gizarte guztien bizitzan Mendebaldearen eragina gizarte-indar goren bilakatu zen pixkanaka. Mendebaldearen presioa haien gain areagotu ahala, haien bizitzak hankaz gora gelditu ziren. Hasieran Mendebaldeko Gizarteak bakarrik ematen zuen munduaren gainerakoan eragiten ari zen honda-menak ukitu gabea zela bere bizimoduan; baina, Azterlan honen idaz-learen bizialdian, Mendebaldearen eta bere garaikideen arteko topa-ketetako batek ilundu egin zuen Mendebaldeko Gizartearen beraren etorkizuna.

Honela, Mendebaldearen eta atzerriko gizarte-gorputz baten arteko talkak Mendebaldeko arazoetan jokatu zuen paper nagusia bereizgarri berria zen Mendebaldearen azkenaldiko historian. Otomandarrek K.o. 1683an Vienari egindako bigarren erasoaren porrotetik Alemaniak 1939-45eko Mundu Gerran izandako porrota arte, Mendebaldea bere osotasunean munduaren gainerakoa baino askoz ere ahaltsuagoa zenez, Mendebaldeko botereek ia ez zuten kon-tuan hartzeko inor beren zirkulutik kanpo. Mendebaldearen botere-monopolio hori, hala ere, 1945ean bukatu zen, zeren eta, data horre-tatik aurrera, 1683az geroztik lehenengo aldiz, botere-politikaren pro-tagonistetako bat Mendebaldeko itxurarik ez zuen botere bat baitzen berriro ere.

Egia da bazela anbiguotasun bat Sobietar Batasunak eta ideologia komunistak Mendebaldeko Zibilizazioarekiko zuten harremanean. Sobietar Batasuna Errusiako Petritar Inperioaren oinordeko politikoa zen, Inperio hura bere borondatez Mendebaldeko bizimodura bihurtu zelarik kristau-aroko hamazazpigarren mendetik hemezortzigarrenera igarotzean, eta ordudanik Mendebaldeko jokoan parte hartu zuen, adierazi gabe ere ulerturik proselitoak errespetatuko zituela Mendebaldeko arau onartuak. Bestalde, komunismoa jatorriz, liberalismoa eta faxismoa bezala, Mendebalde modernoan kristautasunaren ordezkio gisa sorturiko ideologia sekularretako bat zen. Eta honela, ikuspegi batetik, Sobietar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko lehia munduko hegemoniagatik, eta komunismoaren eta liberalismoaren artekoa gizadiaren atxikimenduagatik, Mendebaldeko Gizartearen baitako barne-gatazkatzat hartu ahal izango litzateke. Beste ikuspegi batetik, ordea, Sobietar Batasuna, bere aurreko Petritar Inperioa bezala, Errusiako estatu unibertsal kristau ortodoxotzat har daiteke, erostasun eta moztasun gisa hartua zuen Mendebaldeko jantziarekin bizitzen saiatzen zena. Ikuspegi beretik, komunismoa Ekialdeko kristautasun ortodoxoaren ordezkio ideologikotzat hartu ahal izango litzateke, liberalismoaren ordezkio hautatua, liberalismoa Mendebaldeko ortodoxia zelako, eta komunismoa, berriz, jatorria Mendebaldean izan arren, heresia nardagarria zelako Mendebaldeko begietara.

Nolanahi ere, ukaezina zen errusiar sentimendu eta pentsamenduan Mendebaldearen aurkako joera biziki areagotzea izan zela Errusian 1917an izandako Iraultza Komunistaren ondorioetako bat, eta Sobietar Batasuna munduan bizirik zirauten bi botereetako baten gisan agertzeak kultur gatazka bat sartu zuela berririko politikaren borrokalekuan, aurreko 250 urteetan kultur izaera bertsozko botereen arteko barne-liskar politikoetarako gordea egon zen borrokalekuan. Esan beharra dago, halaber, mendebaldartzearen aurkako borrokari honela berrekitean, borroka hori aspaldidanik galdutzat eman ondoren itxuraz, errusiarrak ezartzen ari ziren jarraibidea 31 urte geroago jada txinatarrak jarraitzen ari zirela, denborarekin japoniarrek, hinduek eta musulmanek ere jarrai zezaketena, baita Mendebaldeko kolorez erabat blai eginda Hego-ekialdeko Europan zegoen Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusiak eta Mundu Berrian Kolonen aurretik zeuden hiru zibilizazio azpiratuek ere.

Gogoeta horiek adierazten dute Mendebalde modernoaren eta beste zibilizazio bizien arteko topaketen azterketa abiapuntu komenigarria izan litekeela. Beraz, aztertu beharreko hurrengo topaketa-saila Mendebaldeko Kristandadeak bere lehen denboraldian, Erdi Arokoa deiturikoan, garai hartako auzokoekin izandakoa litzateke, noski. Gero, gure plana orain desagertuta dauden zibilizazioen artean zera bereiztea izango litzateke: Mendebaldeak bere garaikideengan izandako eraginaren parekoa beren auzokoengan izan zutenak bereiztea, historiaren azterketa zehatzak aurki lezakeen topaketa bakoitza aztertzera konprometitu gabe.

Lan-plan horri ekin aurretik, hala ere, Mendebaldeko historiaren atal «moderno» zein datatan hasten den erabaki behar dugu.

Mendebaldekoak ez diren behatzaileek Mendebaldeko lehenengo itsasontziak haien itsasertzetan lehorreratu zirenean jarriko lukete hasiera hori; zeren eta Mendebaldekoak ez direnen begietara, *Homo Occidentalis* —hipotesi zientifiko baten arabera, bizia bera bezala— itsas jatorriko sorkaria baitzen. Ekialde Urruneko jakintsuek, adibidez, Mendebaldeko gizadiko lehen espezimenak ikustean Ming aroan, «Hego Itsasoko barbarotzat» jo zituzten iritsi berriak, nondik zetozen eta ageri zuten kultur maila kontuan izanda. Topaketa honetan eta beste batzuetan, Mendebaldeko marinel nonahikoek zenbait metamorfosi bizkor jasan zuten txundituta begiratzen zieten biktimen aurrean. Lehenengoz lehorreratu zirenean, ordu arte ezagutzen ez zuten arraza bateko itsas animaliatxo kaltegabeen itxura zuten; laster itsas munstro basatiak zirela erakutsi zuten; eta azkenean anfibio harrapariak gertatu ziren, beren ur-giroan bezain mugikorrek lehorreratu ere.

Mendebalde modernoaren beraren ikuspuntutik, Mendebaldeko gizakiak «Erdi Aroko» kristau-diziplina galdu izana, ez Jainkoari, baizik eta bere buruari eskertu zionean hasi zen bere modernotasuna. Aurkikuntza itxaropentsu hori lehenengoz Italian egin zen, eta Alpeez bestaldeko Mendebaldeko herri gehienek italiartzea ikusi zuen belau-naldia, atlantiar itsasertzeko Mendebaldeko herriek ozeanoaz egindako konkista ikusi zuen berbera izatea gertatu zen. Bi mugarri historiko horiek begien aurrean ditugula, Mendebaldeko historiaren atal modernoaren hasiera hamabosgarren mendearen azken laurdenean jar dezakegu uste osoz.

Mendebalde modernoaren eta munduaren gainerakoaren arteko topaketak aztertzeari ekitean, zera aurkituko dugu, ordean: drama-ren hasieratik igarotako lau mende eta erdiko denboraldia desegoki-ro laburra dela eta bukatu gabeko prozesu baten aurrean gaudela. Hau berehala nabarmentzen da mota bereko lehenagoko istorio bati jartzen badiogu arreta. Hau idazteko garaia arte Mendebalde modernoak bere garaikideengan izandako eraginaren historia, Zibilizazio Helenikoak Gizarte Hitita, Siriako, Egipziako, Babiloniko, Indiko eta Sinikoan izandako eraginarekin neurtzen badugu, eta, konparazio kronologiko honen xederako, Alexandrok K.a. 334an Helesponto zeharkatzea Kolonek K.o. 1492an Atlantikoa zeharkatzearekin parekatzen badugu, Mendebalde modernoaren historian 1952ra arte dau-den 460 urteak, beste historian K.o. 126ra arte bakarrik iristen dira, hau da, Trajano enperadoreak eta haren goi-mandataria zen Pliniok Bitinia eta Pontoko probintziako kristauen sekta ilun baten tratamen-duaz izandako posta-trukea baino urte gutxi batzuk geroago arte. Garai hartan, nork asma zezakeen geroago kristautasunak lortuko zuen garaipena? Paralelo historiko honek erakusten du 1952an zen-bateraino egon zitekeen etorkizuna ezkutuan Mendebaldeak mundua-ren gainerakoan izandako eragina aztertzen zuen Mendebaldeko baten buru-ikusmenarentzat.

Kristau-aroko hogeigarren mendean hau idazteko garaian, helenismoaren eta haren garaikideen arteko topaketa aspalditxo buka-tua zen, eta, beraz, historialariak hasieratik bukaera arte jarrai zezake-en prozesua; baina non aurkitu bukaera hori? Honetarako ikertzaileak ezin denboran kristau-aroko hamabigarren mendea baino atzerago egin bere garaitik, orduan erreakzionatu baitzuten helenismoaren era-ginaren aurka bai Ekialde Urruneko munduak eta bai mundu siriako-ak, zalantzarik uzten ez zuen kemenaz. Ekialde Urruneko munduan ikus-arteak oraindik eragin helenikoetan inspiratzen ziren, eta mundu siriakoan Aristotelesen filosofiak eta zientziak oraindik Ekialdeko pentsalariak estimulatzeko zituzten arabieraren bidez.

Gogoeta hauek, mugarik gabe garatu eta beste sorburu batzue-tatik adibideekin indartu daitezkeelarik, historia garaikidea idaztea ezinezkoa delako «esaera zuhurra» gogorarazten digute. Hala ere, his-torialariak saiatu gabe utzi nahi izaten ez duen ezinezko gauza horie-tako bat da, hain zuzen; eta horregatik, begiak zabalik ditugula eta ira-

kurlea behar bezala ohartarazita, «ezinezko» eginkizun honen eremu berezian sartuko gara; haxe da berehala aurrean dugun zeregina.

## 2.

### *Planaren arabeko lana*

#### *a) Mendebalde modernoko Zibilizazioarekin topaketak*

##### *(I) Mendebalde modernoa eta Errusia*

Errusiako estatu unibertsal kristau ortodoxoaren ezarpena, Novgorodeko errepublika Moskoviako dukerri handian sartzean, hamabosgarren mendeko zortzigarren hamarkadan, lortu zen; eta honela ia bat dator Mendebaldeko historiaren atal «modernoare» hasierarekin. Halaz guztiz, «Mendebaldearen arazoa» ezaguna zen errusiarrentzat data hura baino lehen, zeren eta hamalaugarren eta hamabosgarren mendeetan poloniar eta lituaniar gobernua errusiar Kristandade Ortodoxoaren jatorrizko ondarearen zati zabaletara hedatua baitzen. Hamasei, hamazazpi eta hemezortzigarren mendeetan Mendebaldeko Zibilizazioaren kontrola Polonia eta Lituaniako errusiar jendearen gain —bi erresuma horiek 1569an batu ziren— indartu egin zen mendeko errusiar komunitate kristau ortodoxoaren zati baten eta erromatar Eliza Katolikoaren arteko eliz batasunaz. Aristokrazia lurjabea neurri handi batean misiolari jesuitek konbertitu zuten; eta nekazarien zati handi bat, berriz, Eliza Uniatan sartu zen, honi utzi egin zitzaionalarik tradiziozko errito eta diziplina gehienarekin jarraitzen. Beraien kide ziren errusiar ekialdeko kristau ortodoxoengandik bananduriko errusiar eta ukrainiar zuri hauen atxikimenduagatik, Moskovia eta Mendebaldearen arteko «gatazka geldiezinak» 1939-45eko mundu-gerraren bukaera arte jarraitu zuen; orduan, nahi ala ez, haien azken gerakinak berriro errusiar eskortara bildu zituztelarik.

Hasieran errusiar baina gero erdimendebaldarturiko mugalruralde hau ez zen izan, hala ere, Errusiaren eta Mendebalde modernoaren arteko topaketa zertzeko eremu nagusia; zeren eta Mendebalde



modernoaren kulturari buruzko poloniar isla ahulegia baitzen errusiar arimetan sakon markatuta geratzeko. Topaketa erabakigarrian Mendebaldeko garrantzitsuenak Mendebaldeko munduaren gidaritza italiarrendik hartua zuten atlantiar kostako itsas herriak izan ziren. Talde nagusi horri Errusiaren auzoko hurbilenak elkartu zitzaizkion, Baltikoko ekialdeko kostan zeudenak; baina, baroi alemanek eta Baltikoko probintzietako *bourgeoisie*-ak beren kopuruarekin proportziorik gabeko eragina zertu arren Errusiako bizitzan, atlantiar herrien eragina, berau hartzeko Errusiako gobernu inperialak berariaz zabaldu zituen portuetatik sartu zena, askoz kontuan hartzekoagoa izan zen.

Harreman honetan, Mendebaldearen balentria teknologikoen eta independentzia espiritualari eusteko errusiar arimen erabakiaren arteko tirabira etengabea izan zen dramaren bilbea. Errusiarrek Errusiaren patuaren bakantasunaz zuten uste sendoak Konstantinopolaren —«Bigarren Erromaren»— kapa Errusiaren bizkarrera erori zelako sineskizunean aurkitu zuen adierazpidea. Moskuk kristau-ortodoxiaren gordailuzain bakar eta gotorleku izatearen papera bere gain hartzea Moskuko patriarka-hiri autozefaloaren ezarpenarekin burutu zen K.o. 1589an, hain zuzen ere errusiar eremua, Mendebaldearen Erdi Aroko usurpazioengatik jada oso murriztua, Mendebaldeko teknologia modernoaren lehenengo garaipenek mehatxatua sentiarazten zuten une berean.

Erronka horri Errusian hiru erantzun desberdin eman zitzaizkion. Bat, «zeloteen» erreakzio totalitarioa, bere adierazgarri tipikoak Sinesle Zaharren sekta fanatikoan aurkitu zituena. Bigarren erantzuna erabateko «herodianismoa» izan zen, Pedro Handiarengan aurkitu zuelarik adierazgarri jeinutsua. Petritar politika Errusiar Inperioa estatu unibertsal kristau ortodoxotik Mendebaldeko mundu modernoko parroki estatuetako bat bihurtzea zen. Petritar politika onartzean, errusiarrek, azken batean, beste nazioak bezalakoak izatea onartzen ari ziren etsipenez eta, zeharbidez, Moskuk zuen nahiari —ortodoxiaren gotorleku izateko patu paregabeari: Sinesle Zaharren arabera, giza-diaren etorkizun-itxaropenez ernalduriko gizarte bakar izateari— uko egiten ari ziren. Petritar politikak, itxuraz arrakastaz hartu bazen ere berrehun urte baino gehiagoz, sekula ez zuen bereganatu errusiar jendearen bihotz osoko laguntza. Errusiaren ahalegin militarrek 1914-18ko mundu-gerran izandako kolapso lotsagarriak oso garbi erakutsi

zuen, berrehun urte baino gehiagoz saiatu ondoren, medebaldar bihurtzeko petritar politika errusiarra ez izateaz gain, arrakasta gabea ere izan zela; ez zuen «agindutakoa bete» eta, egoera horretan, Errusiaren patuaren bakantasuna —luzaroan isilarazia— azpimarratzea berriro indartu zen iraultza komunistaren bidez.

Errusiar komunismoa, errusiar patuaren zentzu geldiezin hori eta Mendebalde modernoaren iaioetasun teknologikoarekin moldatu behar saihestezina bateragarri bihurtzeko ahalegina izan zen. Mendebaldeko ideologia moderno hau hartzea, nahiz eta Mendebaldean nagusi zen liberalismoaren aurka matxinaturiko ideologia baten bidez izan, ondare paregabe baten oinordeko izateko Errusiaren nahia, Mendebalde modernoaren aurka, berresteko era paradoxikoa zen. Lenin eta haren ondorengoak konturatu ziren Mendebaldearen aurka beronen arma-sorta batez borrokatuta ez zegoela arrakasta izaterik, armak termino materialetan bakarrik ulertzen baziren. Mendebalde modernoaren arrakasta harrigarriaren sekretua beso espiritualaren eta mundutarraren arteko lankidetza ezin hobean zegoen. Mendebaldeko teknologia modernoaren haize-boladak zabaldutako irekiuneetatik Mendebaldeko liberalismo modernoa sartu zen. Mendebaldearen aurkako Errusiaren erreakzioak arrakasta izan behar bazuen, liberalismoarekin parez pare borrokatuko zen fede baten aldeko agertu behar zuen. Fede horrekin armatua, Errusiak Mendebaldearekin lehiatu behar zuen beren jatorrizko kultur tradizioetan ez Mendebaldeko eta ez errusiar ez ziren gizarte bizi guztien atxikimendu espiritualak lortzeko; eta, horrekin konformatu gabe, gerra arerioaren zelaira eramateko ausardia izan behar zuen, errusiar fedea Mendebaldearen beraren sorterrian predikatuz. Gai honetara ezinbestean itzuli beharko dugu Azterlan honetan geroago.

## *(II) Mendebalde modernoa eta Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusia*

Mendebalde modernoaren kultura Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusian hartzea eta Errusian hartzea garai berean gertatu ziren. Bi kasuetan, mendebaldar bihurtzeko mugimendua kristauaroko hamazazpigarren mendearen bukaera aldera ezarri zen; bi kasuetan, aurrez luzaroan izandako aurkako jarreraren bat-bateko aldaketa eragin zuen mugimenduak; eta, halaber, bi kasuetan, kristau ortodoxoen arimetan izandako jarrera-aldaketa horren kausetako bat

aldeztatik Mendebaldean izandako aldaketa psikologiko bat zen, erlijio-fanatismo intolerantetik erlijio-gabeko tolerantziara: honek Mendebaldeko arimen desilusio sakona adierazten zuen, eta Mendebaldeko erlijio-gerra deitzen ondorena zen. Politikaren mailan, hala ere, kristau ortodoxoen bi mendebaldartze-mugimendu banatu horiek bide ezberdinak egin zituzten.

Aztergai dugun garaian, bi gizarte kristau ortodoxoak zeuden estatu unibertsalean elkarri lotuta, baina errusiar estatu unibertsala bertan sortua zen bitartean, Kristandade Ortodoxoko gorputz nagusiarena otomandar turkiarrek kanpotik ezarria zen. Honela, Errusian mendebaldar bihurtzeko mugimendua bertako gobernu inperiala indartzeko pentsatua zegoen eta tsar ere bazen jeinu iraultzaile batek goitik behera eragina izan zen bitartean, Otomandar Inperioan, mendebaldar bihurtzeko mugimenduek azkenean serbiar, greziar eta mendeko beste herri kristau ortodoxo batzuen burujabetasuna berreskuratzea nahi zuten otomandar boterea irauliz, eta behetik gora eraginak izan ziren, ez printzeek estatu-egintzak zertuz, gizabanako partikularren ekimenez baizik.

Kristau ortodoxoek Mendebaldearekiko zuten jarrean, hamazazpigarren mendean izandako iraultzak are aldaketa handiagoa ekarri zuen serbiar eta greziar bihotzetan errusiar bihotzetan baino, aurretiaz bakoitzak Mendebaldearekiko zuten aurkakotasunaren mailak konparatzen badira, behintzat. Kristau-aroko hamahirugarren mendean, grekoek bortizki erreakzionatu zuten laugarren gurutzadako «frankoek» mende-erdi batez ezarri zieten Latindar Inperio zeritzanaren aurka. Hamabosgarren mendean Eliza Ortodoxo eta Katolikoaren batasuna zapuztu zuten, Florentziako Kontzilioan K.o. 1439an paperean lortua, nahiz eta bazirudien batasun horrek eskaintzen ziela aukera bakarra Mendebaldeak laguntza emateko turkiar inbaditzailearen aurka. Nahiago izan zuten padisha aita santua baino. K.o. 1798a bezain berandu Konstantinoplako greziar prentsak Jerusalemgo patriarkaren adierazpen bat argiratu zuen, non esaten baitzien bere irakurleei

*«Konstantinoplako azken enperadoreak Ekialdeko eliza aita santuaren agintepean jartzen hasi zirenean, zeruaren onginahi bereziak Otomandar Inperioa sortarazi zuen grekoak heresiaren aurka babesteko, Mendebaldeko nazioen botere politikoaren aurka hesi bat jartzeko, eta Eliza Ortodoxoaren aldezkari izateko»<sup>66</sup>.*

Tesis «zelote» tradizional baten adierazpen hori ez zen, ordea, kultur borroka galdu bateko azken tiroa baizik, bere forma erabakigarria jada ehun urte baino lehenago hartua zuena. Kristau ortodoxoek otomandar nagusiengandik Mendebaldeko auzokoenganako kultur leialtasunean egin zuten aldaketaren hasiera-data janzkeran izandako aldaketen adierazle psikologikoki esanguratsuak aldarrikatzen du; eta jantzigintzaren lekukotasun hori kultur arloko frogek berresten dute. Hamazazpigarren mendeko zazpigarren hamarkadan otomandartzea zen *raiya*-en gizarte-nahia, garai hartan esan zuen bezala sir Paul Rycaut-ek, Konstantinoplako ingeles enbaxadako idazkari argiak:

*«Gizon zuhurrak ohartu behar luke grekoek eta kristau armeniarrek zein pozik imitatzen duten turkiar jantzia, eta ausartu adina hurbiltzen saiatzen dira; eta zein harro jartzen diren, okasio bereziren batean, beren kristau-bereizgarririk gabe agertzeko pribilegioa izaten badute»<sup>67</sup>.*

Bestalde, Demetrio Cantemir, errumaniar handiki kristau ortodoxoa, Ateak Moldaviako printze izendatu K.o. 1710ean eta hurrengo urtean errusiarren aldera desertatu zuena, garai hartako erretratu batean ileordea, jaka, txalekoa eta estokea dituela agertzen da. Janzkerako aldaketa horiek pentsaera-mailan zegozkien aldaketen kanpo-ikurrak ziren, noski. Cantemir, adibidez, gai zen latinez, italianoz eta frantsesez irakurri eta idazteko, eta turkiarren zerbitzura zeuden greziar kristau ortodoxo fanariotak Mendebaldeko bizimoduaz zekitenaren arabera balioesten zituzten hemezortzigarren mendean beraien turkiar ugazabek, garai hartan otomandar gobernu beharturik baitzegoen diplomazialari azeriak erabiltzera Mendebaldeko botereekiko harremanetan, jada ezin baitzituen guduan soilik menderatu.

Otomandar Atearen mendeko kristau ortodoxoen sufrimenduak, hemezortzigarren mendean, Inperioak, jada desagiteko bidean, izandako gobernu txarraren ondorio izan ziren neurri handi batean. Oso bestela, Mendebaldeko Kristandadean, erlijiozko eszeptizismoaren piztualdiarekin batera, administrazio-eraginkortasunean aurrerakada eta ilustrazio politikoaren sorrera gertatu ziren. Habsburgotarren monarkia katolikoak mendeko ez katolikoak jazartzeari utzi zion, eta haren mendeko serbiar kristau ortodoxoak —Otomandar Inperiotik ihes eginak eta Hungariako habsburgotarren monarkiak hartutako otomandar lurralde izandakoetan ezarriak— psikologikoki bitarteko erokale bihurtu ziren, beraien bidez sartu zelarik Mendebalde modernoa-

ren kultura serbiar herrian, oro har. Mendebaldeko kultur eraginaren beste bide bat Venezia bidezkoa izan zen, zeinek 1669. urtearen aurreko lau mende eta erdian Kretako greziar uharte kristau ortodoxoa bere mende izan baitzuen, baita denboraldi laburragoetan Europar Grezia kontinentalaren zati batzuetan gobernatu ere. Mendebaldar bihurtzeko beste indar bat Konstantinoplan zegoen Mendebaldeko diplomazi kidegoa zen: hura Inperioko erkidego guztientzako zegoen autonomia ez-lurraldezkoaren otomandar printzipio klasikoaz baliatu zen miniatuturazko *imperia in imperio* sortzeko, non erreinatu baitzuten, ez bakarrrik Otomandar Inperioan bizi ziren beren herrikideen gain, baita beraien babestu ofizial bilakatu ziren otomandar mendekoen gain ere. Eta oraindik beste bide bat greziar merkatarien komunitateek zabaldu zuten, Mendebaldeko munduan ezarri zirelarik urrutiko lekuetan, Londres, Liverpool eta New Yorken, adibidez.

Mendebalde modernoaren eragina, honela lehorreko eta itsasoko bide horietan zehar Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusira zabaldua, atzerriko estatu unibertsal baten mende bizi zen gizartean ari zen zertzen. Honela, Mendebalde modernoaren bizimodua onartzeko ahalegina hezkuntza-mailan egin zen, maila politikora hedatu baino lehen. Adhamandios Korais-ek Parisen edo Vuk Karadzic-ek Vienan egindako lan akademikoa Karajorje-ren eta Milos Obrenovic-en matxinaden aurretikoa izan zen.

Kristau-aroko hemeretzigarren mendearen hasieran ziur aurrean zitekeen Otomandar Inperioak Europan zituen lurraldeek nolabaiteko eraldaketa jasango zutela mendebaldartzeko, baina eraldaketa horrek hartuko zuen forma artean iluna zen. 1821ean bukatzen zen mendean patriarka ekumenikoaren ingurune fanariota greziarrak aldatu egin zuen bere amets zaharra —Erromatar Inperioaren ekialdeko erromatar arima berpiztea— eta amets berri bat egin zuen —Mendebaldeko arazoa maila politikoan konpontzea, Otomandar Inperioa ere Mendebaldeko «monarkia ilustratu» multinazional garaitzeko, habsburgotarren danubiar monarkia bezalakoen, erreplika bihurtuz, Pedro Handiak Errusiar Inperioa bihurtu zuen bezala—; eta greziar fanarioten gurari handinahi hori etengabeko arrakasta politikoen sail adore-emaila batek bultzatu zuen.

Hedatzen ari zen Otomandar Inperioaren Ekialdeko *raiyyah* kristau ortodoxo guztiaren buru ofizial patriarka ekumenikoa egitean,

sultanak aginpide politikoa eman zion Konstantinoplako prelatu horri, arabiarrek kristau-aroko zazpigarren mendean Siria eta Egipto konkistatu zituztenetik Konstantinoplako enperadoreen gobernupean inoiz egon gabeko kristau-herrien gain; eta hamazazpigarren eta hemezortzigarren mendeetan Fanar-aren botere politikoa are gehiago zabaldu zen beraien mendeko lagunkide musulman askeen ekintzaz. Suleiman Bikaina K.o. 1566an hil ondorengo ehun urteetan, musulman askeek Otomandar Inperioaren gobernuan eurak partaide hartze-  
ra behartu zuten padisharen esklabo-etxea, eta garaipen politiko horri jarraipena emateko greziar *raiayah* beren bazkidetzat hartu zuten. Otomandar grekoen trebezia Inperioaren zerbitzura erabiltzeko, Ateko dragoman eta Flotako dragoman karguak sortu ondoren, beste neurri batzuk hartu ziren greziarren mesedetan, greziarra ez zen *rai-yah* kristau ortodoxoaren bizkar.

K.o. 1821aren aurreko mende-erdian, greziar fanariotek Otomandar Inperioan nagusitasuna irispidean zutela pentsa zezaketen, garaikide zen Jose II.a errege-enperadorea habsburgotarren danubiar monarkian alemanei ziurtatzen ahalegindu izan zen bezalako nagusitasuna. Garai hartarako, ordea, fanarioten nagusitasuna azpijana zegoen Mendebaldeko iraultza-gertaeren ondorioengatik. Monarkia ilustratuak nazionalismoak ordeztu zituen bat-batean Mendebaldeko ideia politiko nagusi gisa, eta Otomandar Inperioan greziar ez zen *raiayah* kristau ortodoxoak ez zuen sortzen ari zitzaizkien gurari nazionalistak asetzeko modurik ikusten, menderakuntza turkiar musulmanaren ordeztu greziar fanariota onartuta; hori erakutsi zuen danubiar printzerrietako errumaniar jendeak 1821ean, 110 urtez greziar fanarioten gobernuaren esperientzia bertan izan ondoren, Hypsilandiren erasoari porrot eragin ziotenean: ez entzunarena egin zioten greko haren deia-ri berarekin elkar zitezen erkidego kristau ortodoxoko kide gisa, erkidego hark bere burua otomandarren gobernupetik askatuko zuelarik greziar fanarioten gidaritzapean armak hartuta.

Fanarioten «Ideia Handiaren» porrotak adierazten zuen populazio kristau ortodoxo multinazionalak Otomandar Inperioan, hau benetan ari zelarik Mendebaldeko bizimodua onartzen, hainbat parroki estatutan (greziar, errumaniar, serbiar, bulgariar, albaniar eta georgiarrean) banatu beharko zuela, Frantzia, Espainia, Portugal eta Holandaren ereduaren arabera, horietako bakoitzean hizkuntza parti-

kular bat baitzen, eta ez erlijio partikular bat, «herri-kideak» batzeko eta «atzerritarrengandik» bereizteko ezaugarria. Baina hemeretzigarren mendearen hasieran Mendebaldeko eredu moderno exotiko honen profila nekez bereizten zen. Garai hartan barruti gutxi zeuden Otomandar Inperioan, beren biztanleria gutxi gorabehera ere homogeneoa zutenak hizkuntz nazionalitatean, eta gutxi halaber estatu-kategoriaren hastapenak zituztenak. Mapa politikoa erabat berregiteak, Mendebalde modernoaren diseinu iraultzailera moldatzeko, miseria ekarri zuen milioika gizakirentzat, eta eragindako sufrimendua are zabalagoa eta biziagoa izan zen, oinarri nazionalisten gainean politikoki gero eta nekezago antola zitezkeen lurralde eta populazioetan prokrustear operazioa arrakastaz gauzatu ahala. Prozesu beldugarri horretan sartzen dira greziar nazionalistek 1821ean Morean gutxiengo otomandar musulmana suntsitzea, eta gutxiengo kristau ortodoxo greziarrak 1922an Anatoliatik saldoan egin zuen ihesa.

Nazio-estatu kristau ortodoxoek, egoera desegoki eta eskala ñimiño honetan sortuek, ezin zuten, noski, Mendebalde modernoaren *vis-à-vis*, Ekialdeko Erromatar Inperioak Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearen *vis-à-vis* jokatu zuen papera jokatzeko guraririk izan, mendebaldartzen ari zen Errusiar Inperioak bezala. Beraien energia apurrak lurralde-zati txikiei buruzko toki-eztabaidetan ahitu zituzten eta haien amorrurik garratzenak elkarrenganaokoak ziren. Kanpoko munduari buruz, *Pax Ottomanica* ezarri baino lehentxeagoko mendeetan haien aurrekoak egondako egoeraren antzekoan zeuden. Garai hartan greziar, serbiar, bulgariar eta errumaniarrak Erdi Aroko Mendebaldeko kristau-lagunen nagusigoaren ala osmanliarren nagusigoaren artean aukeratu beharrean aurkitu ziren. Otomandar osteko aroan, aurrean izan zuten aukera Mendebalde moderno sekularraren gizarte-gorputzean sartzea ala Errusiaren mende geratzea izan zen, lehenik Pedroren eta gero komunismoaren mende.

1952an errusiar ez ziren herri kristau ortodoxo haietako gehienak Errusiaren kontrol militar eta politikoaren mende zeuden benetan. Salbuespen bakarrak, batetik, Grezia —non errusiarrak Sobietar Batasunaren eta Estatu Batuen artean gerraosteko gerra deklaratu gabea izan baitziren menderatuak, bi aldeetako borrokalarriak atzerriko gerrarien greziar ahaldunak izan zirelarik— eta, bestetik, Jugoslavia izan ziren, honek gerraosteko errusiar hegemonia baztertu

eta amerikarren laguntza onartu zuelarik. Errusiar agintepeko estatuetan, ordea, garbi zegoen errusiar boterearen zeharkako ezarpena ere higuingarria zela guztientzat, komunisten gutxiengo txiki batentzat izan ezik, herrialde horiek sobietar gobernuaren agente gisa ari zirelarik gobernatzen.

Errusiar nagusitasunaren aurkako setakeria hori kontu zaharra zen, hemeretzigarren mendean, Errusian iraultza komunista gertatu baino askoz lehenagoko garaietan, Errusiak Errumania, Bulgaria eta Serbiarekin izandako harremanen historiak argitu zezakeena. Errusiar eta turkiarren artean 1877-8an izandako gerraren biharamunean, adibidez, Errusia saiatu zen erabateko eragina zertzen Serbiaren gain, hau onik atera berria zuelarik turkiar armaden eskuetan jasan zezakeen desegigotik; baita Errumaniaren gain ere, honi oparitu berria zio-larik Dobruja; eta, batez ere, Bulgariaren gain, hau *ex nihilo* sortarazia zuelarik errusiar armen indar hutsez. Baina ondorengoak frogatu zuen, aurrez ere sarritan eta leku askotan frogatua izan zen bezala, nazioarteko politikan ez dagoela esker onik.

Errusiar ez ziren herrialde kristau ortodoxoetan errusiarren aurkako sentimendu hori lehen begiratuan harrigarria gerta liteke, artean kristautasun ortodoxoa baitzen errusiar estatuan ezarritako erlijioa, eta «eslaviera zaharra» dialektoa, liturgi hizkuntza komuna errusiar, errumaniar, bulgariar eta serbiar eliza ortodoxoetan. Zergatik paneslavis-moak eta panortodoxiak balio izan zioten hain gutxi Errusiari herri horiekiko harremanetan, beroriei oso laguntza eraginkorra eman baldin bazien otomandarren sareetatik libratzeko borroketan?

Badirudi erantzuna hau dela, hots, otomandar kristau ortodoxoak Mendebaldearen lilurapean erori zirela eta, Errusiak nolabait ere erakartzen bazituen, ez zela hura eslaviar zelako, ezta ortodoxoa zelako ere, baizik eta mendebaldar bihurtzeko eginkizunean aitzindari zelako, herri horiek ere horretan ari zirelarik ahalegin guztiak egiten. Baina, zenbat eta gehiago ohitu Errusiarekin, mendebaldartzen ari ziren herri ez-errusiar haiek, orduan eta biziago ohartzen ziren petritar Errusiaren Mendebaldeko bernizaren axalkeriaz. «Hazka egin errusiar bati eta tartaro bat aurkituko duzu». Dokumentuzko froga ugari aurkeztu ahal izango litzateke erakusteko errusiar kultur ospea otomandar kristauen artean bere gorenean egon zela Katalina Handiaren garaian (K.o. 1762-96 artean erreinatu zuen) eta gero behe-



rantz egin zuela, Otomandar Inperioaren arazoetan errusiar esku-har-tzea gehitu ahala eta errusiar ezaugarriak ezagunago bihurtu ahala «kristau-herri zapalduentzat», hauen babesle bihurtu nahi izan zuela-rik Errusiak.

### *(III) Mendebalde modernoa eta hindu-mundua*

Hindu-munduak Mendebalde modernoarekin topo egin zuene-ko egoera zenbait puntutan oso antzekoa zen Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusiak esperientzia bera jasan zuen egoera-rekin. Zibilizazio horietako bakoitza jada sartua zen bere estatu uni-bertsalean eta kasu bakoitzean erregimen hau Zibilizazio Musulman Iranikoaren seme ziren atzerriko inperiogileek ezarria zen. Mogolen Indian, otomandar Kristandade Ortodoxoan bezala, gobernari musul-man horien mendekoak beren nagusien kulturaren erakarpena senti-tzen ari ziren Mendebalde modernoa haien ikusmiran agertu zenean, eta bi herrialdeetan beraien atxikimendua azkena sorturiko izar hone-tara aldatu zuten, Mendebaldea nabarmen ari baitzen indartzen eta Gizarte Islamikoa ahultzen. Baina antzekotasun-puntu horiek nabar-men uzten dituzte desberdintasun-puntu harrigarri batzuk ere.

Adibidez, otomandar kristau ortodoxoek, Mendebalderantz itzuli zirenean, aspaldiko ezinikusa gainditu behar izan zuten, zibili-zazio harekin Erdi Aroan izandako topaketaren zoritxarreko experien-tziaren ondorio zena. Hinduek, bestalde, beren kultur berbideratzean, ez zuten horrelako oroitzapen dohakaberik ahaztu beharrik izan; zeren eta hindu-munduaren eta Mendebaldearen arteko topaketa, Da Gama K.o. 1498an Calicut-en lehorreratu zenean hasi zena, bi gizarte horien artean inoiz izandako lehen harremana baitzen ia.

Gainera, aurrekarien desberdintasun hori ondorenean izandako desberdintasun askoz garrantzitsuago batek estaltzen du. Kristandade Ortodoxoaren historian atzerriko estatu unibertsalak bere sortzaile musulmanen eskuetan iraun zuen desegin zen arte; baina gerra-jaun mogul timurtarren ondorengo ahulek huts egin zuten baturik eduki-tzen, eta britainiar negozio-gizonek eraiki zuten berriro: hauek Akbar-en postua hartu zuten jabetu zirenean Indiako lege- eta ordena-egitu-ra, berau gabe Mendebaldeko inork ezin zuelarik han negoziarik egin, frantziarrek ezarriko zutela berriro, lehiakide hauei britainiarrek aurrea hartzen ez bazieten lana eurak eginez. Honela, hindu-mundua-

ren mendebaldartzea bere etapa kritikoa sartu zen, India Mendebaldearen gobernupean zegoen garaian; eta, ondorioz, Mendebalde modernoaren kultura hartzea Indian, Errusian bezala, goitik beherantz hasi zen, eta ez behetik gorantz otomandar Kristandade Ortodoxoan bezala.

Egoera honetan, Hindu Gizarteko brahman eta banya kastek, beren artean, arrakastaz jokatu zuten hindu-historian, greziar fanariotek historia kristau ortodoxo ez-errusiarrean saiatu eta huts egindako papera. Indian erregimen politiko guztien mende, brahmanen pribilegioetako bat estatuko ministro izatea zen. Paper hori jokatu zuten mundu indikoan Hindu Gizarte filialean jokatu aurretik. Mogolen aitzindari musulmanei eta, beren txandan, mogolei eurei komenigarri iruditu zitzairen ordeztzen ari ziren hindu-estatuen jarraibideari segitzea. Gobernari musulmanen zerbitzura zeuden ministro brahman eta beheragoko funtzionarioek atzerritar gobernu hura hinduentzat bestela izango zen bezain gorrotagarri ez izatea lortu zuten, eta Britainiar Inperioak, bere aldetik, Mogolen Inperioaren jarraibideari segitu zion, britainiar ekonomi ekimenak pareko aukerak irekitzen zituen bitartean banyentzat.

Indiako gobernu britainiar eskuetara aldatzearen ondorioz, pertsieraren ordezkari ingelesa administrazio inperialaren hizkuntza ofizial bihurtzeko eta, goi-mailako hezkuntzarako bitarteko gisa, Mendebaldeko literaturari literatura pertsiar eta sanskritoaren gainetik lehentasuna emateko britainiar politikak eragin handia izan zuen hinduen kultur historian, Pedro Handiaren mendebaldartze-politikak Errusiaren kultur historian izandakoa bezain handia. Bi kasuetan Mendebaldeko bizimodu-itxura bat modan jarri zen gobernu autokratiko ekumeniko baten baimenaz. Goi-kastako hinduek Mendebaldeko heziketa hartu zuten, gobernuak agindu zuelako heziketa hori izango zela giltza Indiako herri-administrazio britainiarrean sartzeko. Indiako negozio eta gobernuaren mendebaldartzeak Mendebaldeko bi lanbide liberal sortu zituen Indian, unibertsitateko irakaskuntza eta abokatutza, eta enpresa pribatuan oinarrituriko negozio-mundu mendebaldartuan aukerarik onuragarrienak ezin ziren Europako britainiar mendeakoen monopolio izan.

Ezinbestekoa zen Hindu Gizarteko elementu berri honek, otomandar Kristandade Ortodoxoan greziar fanariotek irrikatu zuten

bezala, zera irrikatzea: inperio ekumenikoa, zeinen mende bizi baitziren, eraikia zuten atzerritar eskuetatik hartu eta mendebaldartzen ari zen munduko parroki estatuetakoa bat bihurtzea, garai hartan nagusi zen eredu konstituzionalaren arabera. Hemezortzigarren mendetik hemeretzigarrenera igarotzean, fanariotek Otomandar Inperioa hemezortzigarren mendeko monarkia ilustratu bihurtzea amestu zuten. Hemeretzigarren mendetik hogeigarrenera igarotzean, hindu-munduko buruzagi politiko mendebaldartuek gorazarre egin zioten Mendebaldeko ideal politikoetan izandako aldaketari, Indiako Britainiar Inperioa Mendebaldeko nazio-estatu demokratiko bihurtzeko askoz lan zailagoari ekinez. 1947ko abuztuaren 15ean Indiako gobernu britainiar eskuetatik indiarretara aldatzea burutu eta bost urte igaro baino lehen, artean goizegi zen enpresa horren emaitza auresateko; baina jadanik esan zitekeen hinduen gobernugintza atzerritar adiskideek, batasun politikoa ahalik eta gehien salbatzeko ahalginetan, espero izatera ausartutakoa baino arrakastatsuagoa izan zela, batasun horixe izanik agian britainiar oparirik baliotsuena indiar azpikontinentearentzat. Gertaeren joeraren britainiar behatzaile askok auresan zuten Britainiar Inperioa erortzean azpikontinente osoaren «balkanizazioa» gertatuko zela. Iragarpena okerra gertatu zen, nahiz eta, hinduen ikuspegitik, batasuna hondatuta geratu, Pakistanen banakuntzarekin.

Indiako musulmanek behin eta berriro Pakistanen sorrera eskatzeko zioa ahuldadearen kontzientziatik sorturiko beldurra zen. Ez zuten ahaztua, kristau-aroa hemezortzigarren mendean, Mogolen Inperioak huts egin zuela ezpatak bakarrik konkistaturiko lurralde bati ezpataz eusten; eta ongi jabetzen ziren, bide beretik, mogolen agindupeko lurralde izandako gehiena ondorengo hindu-estaturen —maratha eta sikh estaturen— harrapakin izango zela, britainiarren esku-hartze militarrek Indiako historia politikoari ez balio beste norabide bat eman izan. Halaber, bazekiten, Britainiar Inperioaren mendean, berriro ere atzera utzi zituztela hinduek bi komunitate haien arteko gatazka etengabearen fase batean, non britainiar arbitroak agindua baitzuen luma izatea ezpataren ordezeko, lehia zuzentzeko tresna gisa.

Arrazoi horiengatik indiar musulmanek 1947an ondorengo estatu propio eta banandua edukitzea eskatu zuten behin eta berriro, eta, beraz, aurreko mendean Otomandar Inperioaren zatiketari jarraitu

zitzaizkion ondorio tragikoak berragertzeko mehatxua ekarri zuen zatiketak. Geografikoki nahasturiko komunitateak lurraldez banaturiko nazio-estatuetan banatzeko ahaleginak, administrazio eta ekonomia-aren ikuspegitik gaitzesgarriak ziren mugak ezartzea ezarri zuen. Eta prezio hori ordainduta ere, gutxiengo handiak utzi ziren lerro zatitzaileen alde okerrean. Izuak hartuta, milioika errefuxiatuk ihes egin zuen, etxeak eta jabegoak utzita, beren ibilaldi luze eta beldurgarrian arerio garraztuek presatuak, herrialde ezezagun batera behartsu iritsi zirelarik beren bizitza berriro hasi beharrean. Are okerragoa, India eta Pakistan arteko muga-zati batean gerra deklaratu gabea sortu zen Kaxmir-en jabetzagatik. 1952. urterako, hala ere, ahalegin eraginkor-rrak egin zituzten indiar estatu-politikariek, bai Delhin eta bai Karatxin, otomandar ibilbideak izan zuen bukaera garratzetik India salbatzeko. Honela, hau idazteko garaian, Indiaren etorkizuna, oro har, adore-emailea zen epe laburreko ikuspegi politikotik; eta Mendebalde modernoaren eraginak oraindik ere arrisku larriekin mehatxatzen bazuen hindu-mundua, arrisku horiek ez ziren gehienbat bizitzaren gainazal politikoan bilatu behar, bere azpialde ekonomikoan eta sakontasun espiritualetan baizik, eta agian denbora pixka bat beharko zuten gauzatzeko.

Mendebaldartzearen arrisku nabariak, hindu-munduak ulertu beharrekoak, bi ziren. Lehenik, Hindu eta Mendebaldeko zibilizazio-ek ia ez zuten kultur oinarri komunik; eta bigarren, Mendebalde modernoko kultura exotikoaren eduki intelektualaz jabetu ziren hinduak gutxiengo txiki bat ziren, nekazari ezjakin eta behartsuen multzo handi baten gainean kokatuak. Ez zegoen oinarriarik Mendebaldeko kulturaren sartzeko-prozesua maila horretan geratuko zela uste izateko, eta arrazoi sendoak zeuden aurreikusteko, azpiko nekazarien masa legamiatzen hasten zenean, han ere hasiko zela ondorio berri eta iraultzaileak sortzen.

Hindu Gizartearen eta Mendebalde modernoaren arteko kultur leizea ez zen dibertsitate hutsaren kontua; erabateko kontraesana zen; zeren eta Mendebalde modernoak bere kultur ondarearen bertsio sekularra fabrikatu baitzuen, erlijioa baztertuta uzten zuelarik; Hindu Gizartea, ordea, bihotzez erlijiosoa izana zen eta izaten jarraitzen zuen... eta izan ere «erlijiozkotasunaren» salaketa merezi izateko punturaino zen, hitz peioratibo horrek inplikatu bezala, benetan gehiegiz-

ko kontzentrazioerik egon badaiteke gizakiaren bilakuntzarik garrantzitsuenean. Sutsuki erlijiosoa ala berariaz sekularra den bizitzari buruzko ikuspegiaren arteko antitesi hau sakonagoa da bi erlijioaren arteko edozein desberdintasun baino; eta puntu honetan hindu, islamiar eta Erdi Aroko Mendebaldeko kristau-kulturak adosago zeuden beren artean, horietako edozein Mendebalde modernoaren kultura sekularrarekin baino. Erlijioera komun horren eraginez, hinduentzat posible izan da Islamera eta kristautasun erromatar katolikora konbertitzea tirabira espiritual jasangaitzik gabe, Ekialdeko Bengalako musulmanengan eta Goako erromatar katolikoengan nabari zen bezala.

Kultur eremu atzerriararen erlijiozko planteamenduaren bidez beren bidea egiteko hinduen gaitasun frogatu hau esanguratsua zen, zeren eta, erlijiozkotasuna baldin bazen haien zibilizazioaren bereizgarri nagusia, urruntasuna baitzen haren hurrengo bereizgarri nabaria. Jakina, urruntasun hau gaingitua zuten beren bizitza espiritualaren arlo intelektualean Mendebalde modernoko heziketa sekularra hartua zuten hinduek eta, beraz, Mendebalde modernoan oinarrituz, Indiako bizitzaren alde politiko eta ekonomikoa berreraikitzen paper bat jokatzeke gaituta zeudenek. Baina intelligentsia dohakabe horretako kideek beren ariman izandako zismaren ordainetan egin zituzten zerbitzu mesedegarriak. Britainiar Inperioak hazitako hindu-intelligentsia horrek bere bihotzean aldenduta jarraitu zuen haren gogoak ezagun zituen Mendebaldeko moduetatik; eta desadostasun horrek sakon sustaituriko egonezin espirituala sortu zuen, Mendebaldeko ereduaren arabera antolaturiko indiar nazio-estatuarentzat independentzia lortzearen panazea politikoak sendatu ezin zuena.

Mendebaldeko heziketa zuten hindu-gogoen urruntasun espiritual haustezin hori Mendebaldeko gobernarien arimetan zertutako urruntasun espiritual biziarekin batera eman zen, gobernari hauekin tratatu behar izan zuen hindu-intelligentsiak Britainiar Inperioaren mendean. K.o. 1786. urtearen —orduan hartu zuen Cornwallis-ek gobernu orokorra, administrazioa eraberritzeko aginduekin— eta 1858. urtearen —britainiar aginpide politikoa Ekialdeko Indien Konpainiatik Koroara eskualdatzea burutu zen— artean aldaketa sakona, eta oro har tamalgarria, eman zen Europan jaio eta Indian agintzen zuen britainiar klasearen jarreran Indian jaiotako mendekotenganako.

Hemezortzigarren mendean, Indian zeuden ingelesek herrialdeko ohiturei jarraitu zieten, botereaz abusatzekoa baztertu gabe, eta engainatu eta zapaltzen zituzten indiarrekiko harreman pertsonalen konfiantza-giroan bizi izan ziren. Hemeretzigarren mendean susperraldi moral ohargarria lortu zuten. Bat-batean lorturiko botereaz izandako mozkorraldia, Bengalako gobernari ingelesen lehen belau-naldia ohoregabetu zuena, arrakastaz gainditu zuen zintzotasun moralaren ideal berri batek, honek Indiako funtzionario ingelesari bere boterea herri-konfiantzazko gauzatzen —eta ez aukera pertsonaltzat— hartzea eskatzen ziolarik. Baina britainiar administrazioaren berrerospen moralarekin batera, Indian bizi ziren ingelesak eta auzoko indiarren arteko harreman pertsonalak gutxitu egin ziren, harik eta egun zahar txarretan gizatiarregi indiarturiko «nabob» ingelesa britainiar funtzionario profesionalak akasgabe eta pertsonalki hurbilgaitz bihurtu zen arte, eta 1947an agur esan zion Indiari, herrialde hari bere lanbizitza osoa emana ziolarik baina bere bizileku bihurtu gabe.

Zergatik desagertu ziren hain tamalgarriro garai bateko harreman pertsonal aske eta errazak, haien eragin onuragarria galtzea gutxien onar zitekeen garaian? Zalantzarik gabe, hainbat arrazoiren ondorio izan zen aldaketa. Lehenik, Indiako herri-administrazioan egon zen azkenaldiko britainiar funtzionarioak arrazoiz esan zezakeen bere urruntasuna bere eginbeharrak betetzeko zintzotasun moralaren ezinbesteko ordaina zela. Nola espero liteke gizon batek profesionalki jainko batek bezala jokatzeko, aldi berean ez badu jainkoarena bezalako urruntasuna mantentzen bere gizarte-harremanetan? Aldaketaren beste kausa bat, ez hain estimagarria, konkistak sorturiko harrotasuna izan zen agian; zeren eta 1849rako, eta zer esanik ez 1803rako, britainiarren botere militar eta politikoa Indian askoz ere indartsuagoa zen hemezortzigarren mendean izandakoa baino. Bi kausa horien eragina zorrotz aztertu du indiar-britainiar gizarte eta kultur harremanen historiaren hogeigarren mendeko aztertzaile ingeles batek.

*«(Hemezortzigarren) mendearen bukaera aldera, gizarte-giroaren aldaketa zertu zen pixkanaka. 'Elkarrekiko dibertsioen' maiztasuna gutxitu egin zen, indiarrekiko adiskidetasun minak desagertu egin ziren... Gobernuko goi-karguak Ingalaterratik izendatuta betetzen ziren; haren asmoak inperialagoak bihurtu ziren, eta haren jarre-*

ra harroagoa eta urrunagoa. Nawab musulman eta bons viveurs ingelesen arteko leizea, pandit<sup>68</sup> diplomatiko eta ingeles jakitunek aldi batez gainditua zutena, berriro handitzen hasi zen kezagarriro... 'Gehiagotasun-konplexua' eratzen ari zen, India ikusten zuelarik ez bakarrik erakunde txar eta usteldutako jendea zuen herrialde bezala, baita berez hobetzeko gai ez zen herrialde bezala ere...

«Indiar-europar harremanen ironietako bat Indian zera izan zen, administrazioaren purga arraza-leizea handiagotzearekin batera eman zela... Konpainiako langile ustelduen, oker egindako aberastasunen, ryot, zenana eta ezlegezko sexu-elkarteen zapalkuntzaren egunak izan ziren, halaber, ingelesak indiar kulturaz arduratu, pertsiar bertsoak idatzi eta pandit, maulvi eta nawab-ekin gizarte-berdintasun eta adiskidetasun pertsonalean elkartzen zireneko egunak. Cornwallisen tragedia zera izan zen... ustelkeriaren gaitz ezagunak sustraitik kentzean, gizarte-oreka asalatu zuela, hau gabe ezinezkoa zelarik elkarrekiko ulerkuntza... Cornwallisek... gobernari-klase berria sortu zuen, indiar guztiak gobernu-postu gorenetatik baztertzean. Ustelkeria desagertarazi zuen, baina berdintasun eta lankidetzaren ordainetan. Haren pentsaeran, normalean onarturiko ikuspegian bezala, beharrezko lotura zegoen bi neurrien artean; 'Hindustanen jaiotako oro', esaten zuen, 'bene-benetan uste dut usteldua dela'... Pentsatzen zuen ingeles ustelkeria zentzuzko lansariekin konpon zitekeela, eta ez zen hasi pentsatzen indiarren borondate onaren abantailak gutxienez merezi zuela probatzea indiar ustelkeriaren sendabide gisa. Sekula ez zitzaion bururatu indiar burokrazia inperiala sortzea Akbar-en mansabdar-en ereduaren arabera, burokrazia hori trabakuntza berezi, soldata egoki eta tratu, promozio eta ohore berdinen animoarekin Konpainiari atxikia egon zitekeelarik, funtzionario mogolak enperadoreari atxikiak zeuden bezala»<sup>69</sup>.

Urruntzearen hirugarren kausa India eta Ingalaterra arteko komunikazioen bizkortzea izan zen, horrela britainiarrek sarri bidaia baitzezaketen hara eta hona eta ingeles lurreen kokaturiko etxe batean helbideratuta egon psikologikoki. Baina agian izan zen laugarren kausa bat, gainerako guztiak baino ahaltsuagoa, Indiako ingelesa berorren biktima izan zelarik eta ez sortzailea. Azkenaldiko ingeles egoiliarren urruntasuna nozitua zuen indiarra errukiorrago senti zitekeen arrotzarekiko, ingelesak Indiara iritsi aurreko hiru mila urte-

etan agian, azpikontinenteak kastaren erakundea gainean izan zuela gogoratuz gero; Hindu Gizarteak areagotu egin zuela bere aurreko Indikoagandik heredaturiko gaitz bat; eta ingelesek alde egin ondoren, bertara iritsi aurretik bezala, Indiako jendeak bere burua nahigabetzen jarraitzen zuela berak sortutako gizarte-gaitz batez. Indiako historia-ren ikuspegi luzea hartuta, Britainiar Inperioak iraun zuen 150 urtee-tan ingelesek garatu zuten urruntasuna Indiako gaitz endemiko baten atake arintzat diagnostika liteke.

Azkenaldiko urruntasun ingelesaren eragin gaizkoatzailea Britainiar Inperioaren amaierak erremedia zezakeen bitartean, britai-niar administrazioak Indiako nekazarien egoera eta itxaropenetan era-gindako hobekuntza britainiar funtzionarioen ondorengo hinduen lepo inguruan jarritako errota-harria izatea gerta zitekeen.

*Pax Britannica*-ren pean azpikontinenteko natur baliabideen gabeziak hainbat erataraz bete ziren: burdinbideak eginez, ureztatuz eta, batez ere, administrazio trebe eta burutsuaz. Gobernari ingelesek alde egiteko garairako, Indiako nekazariak behar hainbat oharturik zeuden Mendebalde modernoko teknologiaren lorpen materialez eta kristau-muina zuen Mendebalde modernoko demokraziaren ideal politikoez beren aspaldiko pobrezia-zen zuzentasuna eta beharra ezta-baidatzen hasteko. Baina, aldi berean, amets horiek egiten hasitako indiar nekazariak egin zezaketen txarrena egiten zuten amets horiek zertzeko, bizibideen mugez gain hazten jarraitzen baitzuten, eta emai-tza ondorengo izan zen: Indiako janari-horniduraren gehikuntza, bri-tainiarren ekimenak eragina, ez zela bideratu nekazarien egoera per-tsonala hobetzera, nekazarien kopurua gehitzera baizik. Zatitu gabeko Indiako biztanleria K.o. 1872an 206.000.000 inguru izatetik 1931n 338.119.154 izatera eta 1941ean 388.997.955 izatera igaro zen, eta uholdeak goraka jarraitzen zuen. Britainiarren ondorengo hinduak, nola moldatuko ziren jada beren gain hartua zuten etxezaintzaren administrazioan gaitasun-gabeziarako aukerarik uzten ez zuen ondare politiko harekin?

Gainpopulazioaren sendabide tradizionala goseari, izurriari, desordena zibilari eta gerrari biztanleria murrizten uztea zen, bizirik irauteen zutenak berriro ere gai izan zitezen bizimodu tradizionala era-mateko ohiko maila apalean; eta Mahatma Gandhik, indiar indepen-dentziaren bilaketa setatian, malthusiar bukaera bera nahi izan zuen



Indiarentzat, baina beharrezko bitarteko barbaroak gura izan gabe. Hark igarri zion independentzia politiko hutsa gezurrezko burujabetza izan zitekeela Indiak mendebaldarturiko munduaren ekonomi kiribiletan nahastuta jarraitzen bazuen; eta huts egin gabe aizkora bota zion pikuondo ekonomiko horren sustrai teknologikoari makinaz egindako kotoi-gaiak erabiltzeari uzteko kanpaina abiaraziz. Haren kanpainaren erabateko porrotak frogatu zuen garai hartarako India zeharo nahaspi-latua zegoela mendebaldarturiko munduaren ekonomi bizitzan.

Indiako populazio-arazoa politikariek ere saihestu ezinezko krisi-punturaino iristen bazen, India gobernatzeko ardura zuten hindu-estatugizonak, mendebaldartzen ari zen munduko giro moralagatik, konponbide gizatiarrago bat hartzera behartuta aurkituko ziren, eta ez gandhitar-malthusiar konponbidea. Buru mendebaldartua zuten hindu-estatugizon haiek bilaturiko politikak huts eginez gero, zalantza gutxi egon zitekeen errusiar panazea lehiakidea sartuko zela Indiako nazio-programan; zeren eta Errusia komunistak, mendebaldartzen ari zen Indiak bezala, bere kultur iraganetik nekazari ahulduen arazoa heredatu baitzuen, eta, Indiak ez bezala, jadanik erronka hari emana baitzion erantzuna bere bidetik. Bide komunista hau izan zitekeen gupidagabeegia eta iraultzaileegia bai Indiako nekazariarentzat eta bai Indiako intelligentsiarentzat, berari gogo beroz jarraitu ahal izateko; baina are beldurgarriagoa zen era zaharreko despopatatzearen patuaren alternatiba gisa, bazen aukera, zoritxarreko egunen batean, programa komunistak bere bidea egiteko Indiako gobernuaren aztergai-zerrendaraino.

#### *(IV) Mendebalde moderno eta mundu islamikoa*

Mendebaldeko historiaren atal modernoaren hasieran elkarren senide ziren bi Gizarte Islamikok, bizkarrez bizkar, lehorreko sarbide guztiak ixten zituzten Mendebaldeko eta Errusiako Gizartearen eremuetatik Mundu Zaharreko beste alde batzuetara. Hamabosgarren mendearen bukaeran, Zibilizazio Arabiko musulmanak artean bazuen atlantiar itsasertza Afrikan Gibraltarreko itsasartetik Senegaleraino. Honela, Mendebaldeko Kristandadea banatuta zegoen lehorrez Afrika tropikaletik, eta arabiar eraginaren uhinak Kontinente Beltzaren gainean apurtzen ziren, ez bakarrik iparraldeko mugan, Sudanen, Saharatik zetozenak, baita ekialdeko

kostan ere, «Sawahil-ea», Indiar ozeanotik zetozenak. Izan ere, ozeano hori arabiar aintzira bihurtua zen, bertara ezin zirelarik sartu egiptoar bitartekarien merkataritza-bazkide veneziarrak; bitartean, arabiar itsasontziak goitik beheraino zebiltzan afrikar itsasertzean Suezetik Sofalaraino, eta gainera Indonesiaraino ere iritsiak ziren, uhartedia hinduismoari kendu Islamarentzat, eta ekialderantz jarraitu zuten aitzindari-postu bat Mendebaldeko Ozeano Barean jartze-ko, Hegoaldeko Filipinetako Malaysiar biztanle fedegabeak konbertituz.

Aldi berean Zibilizazio Iraniko musulmanak are sendoagoa zirudien posizio estrategikoa zeukan. Osmanliar inperiogileek Konstantinopla, Morea, Karaman eta Trebizond hartuak zituzten; eta Itsaso Beltza otomandar aintzira bihurtua zuten Krimeako genoar koloniak harrapatzean. Turkieraz mintzo ziren beste herri musulman batzuek Islamaren agintea Itsaso Beltzaren eta Volgaren bide ertaineraino hedatua zuten; eta mendebaldeko fronte horren atzean, mundu iranikoa hego-ekialderantz hedatzen zen ipar-mendebaldeko Kansu eta Shensi txinatar probintzietara, eta Iran eta Hindustanen gaindik Bengala eta Dekkan-era.

Bide-blokeo islamiko handi hori erronka bat zen, eta erantzun kementsua eragin zuen blokeaturiko bi kristau-gizarteetako komunitate aitzindarien partetik.

Mendebaldeko Kristandadean, atlantiar itsasertzeko herriek ozeanoan ibiltzeko ontzi-mota berria asmatu zuten hamabosgarren mendean, hiru masta eta sokateriaz hornitua, lehenengo latindar haize-oihalak eta gero txopatik brankara oihalak zituena, portura sartu gabe itsasoan hilabeteak emateko gai zelarik. Horrelako itsasontzietan portugaldar marinelek —*circa* K.o. 1420an Madeira eta 1432an Azoreak aurkituz itsas zabaleko itsasketan ontziak probatuak zituztenek— arrakasta izan zuten arabiar itsas frontea Atlantikoan gainditzen 1445ean Cabo Verde inguratuz, 1471n Ekuatorera iritsiz, 1487-8an Lurmutur Probintzia inguratuz, 1498an Calicut-en Indiako mendebaldeko kostan lehorreratuz, 1511n Malakako itsasartearen agintea hartuz eta Mendebaldeko Ozeano Barerantz bideratuz beren bandera 1516an Kantonen eta 1542-3an Japoniako kostan erakusteko. Oso denbora laburrean portugaldarrek arabiarren eskuetatik kendu zuten Indiar ozeanoko «talasokrazia».

Mendebaldeko munduaren itsasoz gaindiko bat-bateko hedape-  
nean ekialderantz zihoazen portugaldar aitzindariak mundu arabiko  
musulmana hegoaldean gainditzen ari ziren bitartean, ibaietan ontziz  
ekialderantz zihoazen kosakoak aurrekoak bezain bat-batean eta biz-  
kor errusiar munduaren mugak hedatzen ari ziren mundu iraniko  
musulmana iparraldean gaindituz. Bidea Muskoviako Ivan IV.a tsa-  
rrak zabaldu zien K.o. 1552an Kazan konkistatu zuenean; zeren eta  
Kazan izan baitzen mundu iraniko musulmanaren ipar-ekialdeko  
gotorlekua, eta hura erori ondoren ez zegoen oztoporik —oihana eta  
izotza izan ezik, kosako nomada borrokariaren ohiko aliatuak— erru-  
siar Kristandade Ortodoxoaren aitzindari haiei Uralak igarotzea era-  
gozteko eta Siberiako ubideetan zehar beren bidea ekialderantz egitea  
eragozteko, 1638an Ozeano Barearekin eta 1652ko martxoaren 24an  
Mantxu Inperioaren ipar-ekialdeko markekin topo egitean gelditu egin  
behar izan zuten arte. Muga berri horietara iristean, hedatzen ari zen  
errusiar munduak gainditua zuen mundu iranikoa ez ezik, eurasiar  
estepa osoa ere bai.

Honela, mende bat baino gehixeagoan, mundu islamikoa, non  
baitzeuden batuta Gizarte Iranikoa eta Arabikoa, gainditua ez ezik,  
erabat inguratua ere geratu zen. Hamaseigarren mendetik hamazazpi-  
garrenera igarotzerako, soka biktimaren lepo inguruan zegoen jada.  
Hala ere, mundu islamikoa urkamendi potentzial horretan oso bat-  
-batean erortzea baino harrigarriagoa izan zen musulmanen arerioek  
edo musulmanek berek behar izan zuten denbora luzea egoeraz jabe-  
tu eta neurriak hartzeko: Mendebaldearen eta Errusiaren aldetik,  
itxuraz babesgabea zen harrapakinari atzaparrak eranstea, eta,  
musulmanen aldetik, itxuraz etsigarriak ziren egoera larrietatik ihes  
egiteko. K.o. 1952an Dar-al-Islam artean ukitu gabe zegoen funtsean,  
kanpoko probintzia batzuk bakarrik zituelarik galduta. Erdiko muina,  
Egiptotik Afganistanera eta Turkiatik Yemenera, aske zegoen atzerri-  
tar gobernu politiko edota kontrol orotatik. Garai hartarako Egipto,  
Jordania, Libano, Siria eta Irak britainiar eta frantziar inperialismoa-  
ren uholdepetik gainera irtenak ziren guztiak, uholde horrek azpian  
hartu zituelarik bata bestearen ondoren 1882an eta 1914-18ko Gerra  
Orokorrean, eta mundu arabikoaren bihotzarentzat geratzen zen  
mehatxu-hondarra ez zetorren Mendebaldeko botereetatik, sionisten-  
gandik baizik.

Herri musulmanek «Mendebaldearen arazoa» nola planteatzen duten ulertzeko arrastoak hiru zirkunstantziatan aurkitu behar dira. Mendebalde modernoaren kultur eragina haien bizitzako arazo nagusi bilakatu zen garaian, herri musulmanak —errusiarrak bezala eta otomandar kristau ortodoxoak ez bezala, beren historian bakoitzak izandako krisietan— oraindik beren buruaren jabe ziren politikoki; halaber, tradizio militar handi baten oinordekoak ziren, Zibilizazio Islamikoaren balioaren bermea beretarren ikuspegitik; eta azkenaldiko gainbehera militarra bat-batean egiaztatzea, guduan menderatua izatearen logika eztabaidaezinen bidez, harrigarria bezain umilagarria zen haientzat.

Musulmanek beren balentria militar historikoei buruz zuten atsegina hain sakon sustraitua zegoenez, korronte militarra — Vienaren aurrean 1683an izandako porrotaren ondoren— beraien aurka bihurtzeak zeharbidez zeukan irakaspenak ez zuen oraindik zirrara ohargarririk eragin haiengan, ia ehun urte geroago ere irakaspen hori etxean bertan errepikatzeko zorian egon zenean. Otomandar Inperioaren eta Errusiaren artean K.o. 1768an gerra piztu zenean, turkiarrei esan zitzaien errusiarrek Baltikoan egindako ontzidi bat beraien aurka bidaltzeko asmoa zutela; haiek, ordea, setati uko egin zioten sinesteari bazela ubide bat Baltikoaren eta Mediterraneoaren artean, aipaturiko ontzidia benetan iritsi zen arte. Antzeratsu, hogeita hamar urte geroago, Murad Bey gerra-jaun mamelukoari veneziar negozio-gizon batek esan zionean Napoleonek Malta hartzea Egiptora jaistearen atarikoa izan zitekeela, barre batean hasi zen ideiaren zentzugabekeriagatik.

Hemezortzigarren mendetik hemeretzigarrenera igarotzean otomandar munduan, mende bat lehenago errusiar munduan bezala, Mendebalde modernoko gerra-makinak eragindako porrotaren ondorioa mendebaldartzeko mugimendua izan zen goitik beherantz, indar armatuen birmoldatzearekin hasita; baina puntu garrantzitsu batean behintzat desberdinak ziren otomandar eta petritar politikak. Pedro Handiak, jeinuaren zolitasunaz, mendebaldartze-politikak «dena ala ezer ez» izan behar zuela igarri zuen. Arrakasta izatekotan, ez bakarrik arlo militarrean, baizik eta bizitzako arlo guztietan ezarri behar ziela ohartu zen; eta, ikusi dugun bezala, Errusiako petritar erregimenak bizitzako hiri-gainegitura baino gehiago mendebaldartzea inoiz

lortu ez arren eta azkenean nekazari-orea legamiatzen huts egiteagatik agintea komunismoaren esku galduta zigorra ordaindu arren, Pedoren kultur eraso azkenean geratzea, bere helburuak erabat lortzeko gutxi falta zitziola, ez zen hainbeste izan bere aldetik ikusten huts egin zuelako, errusiar administrazio-makinak behar hainbat indar higiarazle ez zuelako baizik. Turkian, bestalde, errusiar eta turkiarren artean 1768an gerra piztu zenetik Lehen Mundu Gerra 1918an bukatu zen arteko mende eta erdian, otomandar gerra-indarrak mendealdartzeko politikara gogoz kontra konbertituek, behin eta berriro beren okerraren erakusketa mingarriak izan arren, jarraitu zuten amesten, atzerriko kultura batetik osagaiak hartzerakoan, posible zela horietatik aukeratu eta batzuk bakarrik hartzea. Osmanliarrek, aurpegia zimurtuz, denboraldi hartan beren buruari emandako mendealdartzeko-dosi guztiei buruzko epaia kondena-epaia da: «Bakoitzean gutxiegi eta beranduegi». 1919 arte ez zioten Mustafa Kemal eta haren lagunek argi eta garbi erabateko mendealdartzeko-politikari ekin, Pedro Handiaren moduan.

Mustafa Kemalen mendealdarturiko nazio-estatu turkiarrak, hau idazteko garaian, lorpen arrakastatsua ematen zuen. Hala ere, oraindik ez zen antzeko ezer lortu mundu islamikoaren beste alde batzuetan. Egiptoren mendealdartzeko, Mehmet Ali albaniar abenturazaleak kristau-aroko hemeretzigarren mendearen bigarren laurdenean gauzatu, mende berean turkiar sultanek saiatu edo lortutako beste guztiak baino sakonagoa izan arren, usteldu egin zen ondorengoan eta azkenean hibrido mendealdar-islamikoa gertatu zen, jatorrizko zibilizazioaren eta imitaturikoaren ezaugarriak txarrenetako batzuk zeuzkana. Mustafa Kemal imitatzeke Afganistango Amanullaren ahalegina, bere erresuma erdibarbaroaren arlo askoz ere zailagoan eginga, norberaren joeraren arabera, tragedia edo komedia-tzat har daitekeen esperimientua izan zen, baina edozein kasutan ere, porrot gisara hartu behar da nahitaez.

Kristau-aroko hogeigarren mendearen erdialdeko munduan, hala ere, Amanullarena bezalako esperimientu mugatuaren arrakasta edo porrotak ez zuen erabakiko mundu islamikoaren etorkizuna. Edonola ere, berehalako etorkizunean, mundu islamikoaren geroa Mendealdeko munduaren eta errusiar munduaren arteko indar-probaren mende egongo zen, bien artean inguratzen zutelarik mundu islamikoa. Borrokalari

hauentzat mundu islamikoaren garrantzia areagotu egin zen barne-errekuntzako motorearen asmatu zenetik, bai funtsezko produktuen sorburu gisara eta bai funtsezko komunikazioen bide gisara.

Mundu islamikoak Mundu Zaharreko aurreneko lau zibilizazioetako hiruren sorlekuak hartzen zituen bere baitan; eta nekazaritza-aberastasuna, orain desagertutako gizarte horiek beste garai batean landu ezinak ziren Behe Nilo, Tigris-Eufrates eta Indus ibarretatik ateratakoa, gehitu egin zen Egipton eta Punjabean, eta neurri batean berreskuratu Iraken, ura kontrolatzeko Mendebalde modernoko metodoak erabiliz. Hala ere, mundu islamikoko ekonomi baliabideei egin dako eransketa nagusia, inoiz nekazaritza-balio nabarmenik izan gabeko eskualdeetan, olio mineralaren lur azpiko gordailuak aurkitu eta erabiltzea izan da. Berezko «osinak», Islam-aurreko garaian, zoroastroar pietateak erlijiozko xedez Suaren santutasunaren ohoretan etengabeko sugarra piztuta edukitzeko aprobetxatu zituenak, K.o. 1723an Pedro Handiaren esploratzaile-begiak aurkitu zituen izan zezaketen balio ekonomikoarekin; eta artean 150 urte igaro behar izan baziren ere jeinuaren intuizioa Bakuko petrolio-alorraren merkataritza-ustiapenak berresteko, segidan bizkor egin ziren aurkikuntza berriek erakutsi zuten Baku maila bat baino ez zela urrezko katean, hego-ekialderantz Irakeko Kurdistan eta Pertsiaiko Baijtiyaristan-en zehar, garai batean iritzi orokorrean baliogabeak ziren Arabiar penintsulako lurraldeetara zihoan katean. Ondoren petrolioagatik sortu zen borrokaren emaitzek egoera politiko tirabiratsua eragin zuten, zeren eta Errusiaren tarta-puska Kaukason eta Mendebaldeko botereen puskak Pertsian eta arabiar herrialdeetan oso hurbil baitzeuden elkarrengandik.

Tirabira hori areagotu egin zuen komunikazio ekumenikoetarako gune gisara mundu islamikoaren garrantzia pizteak. Alde batetik, Errusia eta Mendebaldeko mundu zirkunatlantikoaren, eta bestetik India, Hego-ekialdeko Asia, Txina eta Japoniaren arteko biderik laburrenek, guztiek mundu islamikoa zeharkatzen zuten lehorrez, urez edo airez; eta bideen mapan, baita petrolio-mapan ere, Sobietar Batasuna eta Mendebaldea arriskugarriro hurbil zeuden.

#### *(V) Mendebalde modernoa eta juduak*

Edozein izanik ere gizadiaren azken epaia Mendebaldeko Zibilizazioari buruz bere historiaren atal modernoan, garbi zegoen

Mendebalde modernoko gizakia markaturik zegoela zitalkeria ezabaezinezko bi krimen egiteagatik. Bata, esklabo beltzak Afrikatik Mundu Berriko plantazioetan lan egitera eramatea izan zen, eta bestea judu-diasporaren suntsitzea bere europar bizilekuan. Mendebaldeko munduaren eta juduen arteko topaketaren gai tragikoa jatorrizko bekatuaren eta gizarte-zirkunstantzien bat-egite bereziaren arteko jokoaren ondorioa izan zen. Gizarte-zirkunstantzia horiek argitzea da gure zeregina.

Judueria, Mendebaldeko Kristandadearekin talka egin zuen forman, aparteko gizarte-fenomenoa zen. Beste forma guztietan desagerturiko zibilizazio baten erlikia fosildua zen. Judako parroki estatu siriakoa, nondik baitzetorren judueria, hainbat hebertar, feniziar, aramear eta filistear komunitatetako bat izana zen; baina Judaren senide ziren komunitateek —Gizarte Siriakoak auzoko Babiloniko eta Helenikoekin behin eta berriz talka egitean hartutako zauri hilgarrien ondorioz— beren nortasuna, baita estatu-kategoria ere, galdua zuten bitartean, erronka horiek beroriek bultzatu egin zituzten juduak eurentzat talde-bizitzarako modu berri bat sortzera, hala, beren estatua eta herrialdea galdu arren, bizirik irautea lortu zutelarik, gehiengo atzerriarraren artean eta atzerriarren gobernupean beren nortasunari eutsiz diaspora (barreiatuta) gisa. Bereziki arrakastatsua izan zen judu-erreakzio hori ez zen, hala ere, bakarra izan; zeren eta mundu islamiko eta kristauan gertaturiko judu-diasporak Indian parsien diasporan izan zuen baliokide historikoa, hau ere Gizarte Siriako beraren beste erlijio fosildu bat zelarik.

Parsiak Zibilizazio Siriakora konbertituriko iraniarretatik bizi-rik geratutakoak ziren, beraiek eman ziotelarik gizarte hari bere estatu unibertsala Akemenestar Inperioaren forman. Parsien komunitatea, juduena bezala, estatua eta herrialdea galdu arren bizirik irauteko borondate garailearen oroitarria zen; eta parsiek ere mundu siriakoa-  
ren eta auzoko gizartearen arteko hainbat talkaren ondorio gisa pairatu zuten galera hori. K.o. 135ean bukatutako hiru mendeetan juduek bezala, parsien zoroastroar arbasoek ere helenismo arrotza kanporatzeko arrakastarik gabeko ahaleginetan sakrifikatu zuten beren burua, eta porrotaren zigorra, juduei Erromatar Inperioak ezarri ziena, zoroastroar iraniarrei kristau-aroko zazpigarren mendean arabiar inbadi-tzaile musulman primitiboek ezarri zieten. Beren historiako krisi

antzerako horietan juduek eta parsiek beren nortasuna gorde zuten erakunde berriak asmatuz eta jarduera berrietan espezializatuz. Beren erlijio-legearen lanketan gizarte-zementu berria aurkitu zuten eta gurasoen lurraldetik deserriatzearen ondorio ekonomiko tamalgarriak erbestean merkataritzan trebetasun berezia garatuz gainditu zituzten eta, laborantzaren ordeztu besterik hiri-negozio batzuetan, erbestera lurgabeek jada ezin baitzuten zertu lanbide hori.

Baina judu eta parsien diaspora horiek ez ziren Gizarte Siriako desagertuak bere atzean utzitako fosil bakarrak. Kristautasunaren sorreraren eta Islamaren sorreraren arteko kristau-heresia antihelenikoek ere emanak zituzten «fosilak» eliza nestoriotar eta monofisitaren forman. Baina Gizarte Siriakoa ere ez zen izan, beren estatu-kategoria galdu eta beren lurraldetik deserrotu ondoren, eliz diziplina eta negozio-ekimenaren konbinazioari esker bizirik irauten arrakasta izandako komunitateak eman zituen bakarra. Atzerriko otomandar erregimenaren pean greziar komunitate kristau ortodoxo menderatua ere neurri batean deserrotua izan zen bere lurraldetik, eta bere gizarte-antolaketan eta ekonomi jardueran aldaketak eginez erantzun zuen, aldaketa horiek jada aipatu ditugunak bezalako diaspora bihurtzeko bidetik eraman zutelarik.

Egia esan, *millet* sistema Otomandar Inperioan gizarte-egitura komunalaren bertsio antolatua baino ez zen izan, mundu siriakoan berez hazioa, asiriar militarismoaren erasoek estatu-sistema siriakoa suntsiturik eta herri siriakoak zeharo nahaspilatuta utzi ondoren. Gizartearen ondorengo birrantolaketa —geografikoki banaturiko parroki estatuen mosaiko baten ordeztu geografikoki nahasturiko komunitateen sare bihurtuz— Gizarte Siriakotik heredatu zuten haren ondorengo musulman iraniko eta arabikoek, eta gero burumakur zegoen Kristandade Ortodoxoari ezarri zioten osmanliar inperiogile musulman iranikoek.

Ikuspegi historiko horretan garbi dago Mendebaldeko Kristandadearekin topo egin zuen judu-diaspora ez zela inola ere gizarte-fenomeno paregabea. Aitzitik, mundu islamikoan zehar tipo estandar bilakatu zen komunitate-mota baten lagina zen, mundu islamiko horretan, Mendebaldeko Kristandadean bezalaxe, zegoelarik barreiatuta judu-diaspora. Hortaz, galde daiteke ea juduen eta Mendebaldeko Kristandadearen arteko topaketa tragikoaren gizarte-



-gertaleku berezia ez ote zetzan Mendebaldearen aldeko berezitasunetan juduen aldekoetan bezainbat, behintzat; eta galdera hori egitean ikusten dugu Mendebaldeko historiaren norabidea berezia zela hiru puntutan behintzat, guztiak ere juduen eta sartaldearen arteko harremanen historiari dagozkionak. Lehen tokian, Mendebaldeko Gizartea geografikoki banaturiko parroki estatuen mosaiko gisa antolatu zen. Bigarren, nekazari eta lurjabeen gizarte ultra-landatarra izatetik pixkanaka eskulangile eta burgesen gizarte ultra-hiritarra izatera aldatu zen. Hirugarren, Mendebalde modernoko gizarteak, pentsaeraz nazionalista eta klase ertainekoa izanik, Erdi Aroko atal ilun samarretik irten eta munduaren gainerako guztia itzalpetu zuen laster.

Antisemitismoaren eta lurralde jakin bateko biztanle guztiak hartzen dituen komunitate homogeen baten Mendebaldeko kristau-idealaren arteko lotura estua judu-diasporak Iberiar penintsulan izandako historian agertzen da.

Komunitate erromatar eta bisigotikoen arteko leizea gainditu bezain laster bigarrenaren konbertsioarekin —ariotar izatetik kristau katoliko izatera igarotzearekin, K.o. 587an—, tentsioa areagotzen hasi zen Visigotian kristau-komunitate batuaren eta ondorioz argi eta garbiago berezia zen judu-millet-aren artean. Tentsio horren areagotzea juduen aurkako zenbait dekretutan agertzen da, kontraste mingarria aldi berean bisigodoen legeriak esklaboak ugazaben aurka babesteko zeukan gero eta gizatasun handiagorekiko. Bi dekretu-sailak, moralki gorantzakoak eta moralki beherantzakoak, Elizak Estatuan duen eraginaren froga dira. Egoera honetan juduek azkenean azpilana egin zuten Ipar Afrikako erlijio-kideekin, arabiar musulmanen esku-hartzea lortzeko. Dudarik ez, arabiarrek etor zitezkeen gonbit hori gabe ere. Edonola ere, etorri egin ziren; eta penintsulan bostehun urteko erregimen musulmana ezarri zuten (K.o. 711-1212), haren mendean judu-diaspora autonomoa ez zelarik «herri berezi» bat.

Iberiar penintsula arabiarrek konkistatzearen gizarte-ondorioa izan zen judu-komunitate hau berriro eroso sentitzea horizontalki eraturiko gizarte-egituraketa berrezarritik, konkistatzaileek mundu siria-kotik berekin ekarri zutena. Baina penintsulako judu-diasporaren ongizateak ez zuen iraun botere musulmana kolapsatzean, zeren eta Andaluziako Omeiatar Kaliferriaren Erdi Aroko kristau katoliko konkistatzaile barbaroak kristau-erkidego homogeen baten idealera ema-

nak baitzeuden, eta K.o. 1391 eta 1497 bitartean juduak deserriratzera edota kristautasunera konbertitzera behartu zituzten.

Komunitate-homogeneotasunaren ideala, Mendebaldeko Kristandadeak bere giroan arrotz ziren juduenganako izan zuen abegikortasun-falta bereziaren zio politikoa zena, indartu egin zen denboran zehar ekonomi eta gizarte-garapenagatik.

Mendebaldeko Gizartearen sorlekua mundu helenikoaren urrutiko eskualde bat zen, han helenismoaren hiri-kulturak ez zuelarik sustraitzea lortu. Erromatar Inperioaren mendebaldeko probintzietan nekazaritzako oinarri primitiboetan eraikitako hiri-bizitzaren gainegitura zama gertatu zen bizkorgarri baino gehiago; eta, Erromak eraikitako gainegitura exotiko hori bere pisuaren pean erori zenean, Mendebaldeak berriro atzera egin zuen aurreko ekonomi maila apalera, helenismoak Apeninoez harantzago edo Tirreno itsasoan zehar zabaltzen ahalegindu baino lehen zuen mailara. Ekonomi eragozpen berezi horrek bi ondorio izan zituen. Lehen etapan, Mendebaldeko Kristandadera judu-diaspora sartu zen, Mendebaldean bizibidea egiteko aukera aurkitu baitzuen gizarte landatarrari gutxieneko merkataritza-esperientzia eta antolaketa emanez, hori gabe Ruritania ere ezin baitzen bizi, baina Ruritaniak ezin zuen artean halakorik bere baliabideez egin. Bigarren etapan, Mendebaldeko kristau-jentilek beren judu bihurtzeko guraria izan zuten irabazi handiak ematen zituzten judu-antzeak menderatuz.

Denboran zehar, Mendebaldeko jentilen borondateak judu-helburu ekonomiko honetan izan zuen gero eta kontzentrazio demonia-koagoak sari bikaina izan zuen emaitza gisa. Kristau-aroko hogeigarren menderako, ekonomi eraginkortasunaren helbururantz egiten ari ziren ibilaldi luzean, Mendebaldeko herrien zutabearen ekialdeko atzegoardiak ere itxuraldaketa izango zuen, egokitasun berberaz modernizazio edo «judaizazio» dei daitekeen mugimendu baten Ipar Italiako eta flandestar aitzindariak mila urte lehenago lortua zutena. Mendebaldeko historian gizarte-modernitate hau lortu zen seinalea Antonio-klase baten sorrera izan zen, Shylock-ek egiten zuen gutzia egiteko gai zena eta, beraz, hura botatzeko irrikan zegoena.

Juduen eta Mendebaldeko jentilen arteko liskar honek hiru ekitaldi izan zituen. Lehen ekitaldian juduak ezinbestekoak bezain onartu gabeak ziren, baina ematen zitzaien tratatu txarra muga batzuen arte-

an, zegoen haien jazarle jentilak ez zirelako gai ekonomikoki haiek gabe moldatzeko. Bigarren ekitaldia, Mendebaldeko herrialdeetan batean eta bestean, *bourgeoisie* jentil jaio berriak behar hainbat esperientzia, trebetasun eta kapital propio lortu zuenean hasi zen, bertako juduen tokia hartzeko gauza sentitzen zelarik. Etapa hartan — Ingalaterra kristau-aroko hamahirugarren mendean, Espainia hamabosgarrenean, eta Polonia eta Hungaria hogeigarrenean iritsi zirelarik bertara— burgesia jentilak judu-lehiakideen kanporatzea ziurtatzeko erabili zuen botere lortu berria. Hirugarren ekitaldian, orain ongi ezarritako *bourgeoisie* jentila juduen ekonomi antzeetan hain maisu bilakatu zen, ezen juduekiko lehian galtzeko beldur tradizionalak jada ez baitzuen behartzen juduen trebetasuna jentilen nazio-ekonomiaren zerbitzura berriro erabiltzearen abantaila ekonomikoari uko egitera. Jarrera horrekin, Toskanako gobernuak Espainiatik eta Portugaletik ihesi joandako kripto-juduei Livornon ezartzen utzi zien K.o. 1593an eta gero; Holandak jada 1579an ireki zizkien ateak; eta Ingalaterra, 1290ean bere juduak kanporatzeko behar hainbat indartsu sentitu zena, 1655ean behar hainbat indartsu sentitu zen berriro sartzen uzteko.

Juduek Mendebaldeko historiaren Aro Modernoan izandako askapen ekonomiko horren ondoren berehala iritsi zen gizarte- eta politika-askapena, Mendebaldeko Kristandadean garai hartan zeuden erlijio eta ideologi iraultzen ondorio zena. Erreforma protestanteak Eliza Katoliko batuaren fronte etsaia hautsi zuen, eta hamazazpigarren mendean Ingalaterra eta Holandara ihes egindako juduei ongietorria egin zitzaaien herrialde protestante horien etsai erromatar katolikoen biktima gisa. Gero juduek, oro har, herrialde katoliko eta protestanteetan tolerantzia areagotzearen onuran ere parte izan zuten. K.o. 1914rako juduen emantzipazio ofiziala giza jardueraren maila guztietan aspalditxotik lorturiko zerbait zen Mendebalde modernoko munduaren eskualde guztietan, Errusiar Inperioak bereganaturiko eta jada desagerturiko Polonia-Lituaniako Erresuma Batuaren lurraldeetan izan ezik. Etapa honetan, pentsa zitekeen judu-arazoak bere konponbidea judu eta kristau-komunitateek elkarrekin bat-egitean aurkituko zuela, bi aldeek beren borondatez egindako batasunean. Baina itxaropen horiek ustel gertatu ziren. Hiru ekitaldi eta amaiera zoriontsuko drama bat zirudiena laster sartu zen laugarren ekitaldian, aurreko guztiak baino askoz beldurgarriagoan. Zer egin zen oker?

Gauza kaltegarri bat Mendebaldeko jentilen eta juduen artean hesi psikologikoak irautea izan zen, haien arteko hesi juridikoak ofizialki kendu ondoren. Oraindik bazen ghetto ikustezin bat, eta han Mendebaldeko jentilak judua sartzen jarraitu zuen eta, bestalde, han juduak Mendebaldeko jentilagandik bananduta jarraitzen zuen. Ofizialki baturiko gizartearen barruan, oraindik hainbat era sotiletan baztertuta sentitzen zen judua, eta jentila berriz frankmazoneria baten aurrean aurkitzen zen juduen artean, hauek gizarte batu bateko kide guztiei berdin egokitu beharko litzaizkiekeen onurak eskatzeko irrikan, emateko borondaterik gabe. Bi alderdiek jarraitu zuten jokabide bikoitza izaten —goragoko araua beren kriptokomunitateko kideekin tratatzeko, eta arau apalagoa, ustez jada existitzen ez zen gizarte-mugaren bestaldean, izenez herrikide zirenekin tratatzeko— eta hipokrisiazko gainjantzi berri honek, berdintasunik ezaren bizio zaharra baltsamatuz, alde bakoitza mespretxagarriago bihurtu zuen, baita ahulago ere, beste aldearen begietan, eta horregatik egoera amorragarriago bihurtu zuen, baita ez hain astuna ere, bi aldeentzat.

Bi komunitateen arteko harremanen ezegonkortasuna antisemitismoa gordintzeak erakutsi zuen, bertako biztanleen artean juduen proportzioa jentilekiko nabarmen gehitu zen alde guztietan. Joera hau 1914rako suma zitekeen Londres eta New Yorken, judu-inmigrazioaren —Errusiar Inperioan poloniar-lituanier izandako lurraldeetatik errusiar jazarpenaren presioz 1881az geroztik izandakoaren— ondorioz; eta 1918az geroztik joera hori oso bizitu zen alemaniar Austrian eta alemaniar Reich-ean, Galitziatik, «Kongresu Poloniatik» eta «Erdialdeko Inperioaren» ekialdeko probintzietatik Lehen Mundu Gerran izandako judu-inmigrazioaren ondorioz. Antisemitismo hori ez zen izan nazional sozialista alemanak agintera eramanez zituen indarretako ahulena. Ondoren nazional sozialista alemanek zertu zuten juduen «genozidioaz» ez dago hemen luzatu beharrik. Gertaerak ikaragarriak bezain ezagunak dira, eta nazio-mailako gaiztakeria erakusten dute, agian historian orain arte parekorik izan ez duena.

Mendebalde modernoko nazionalismoak aldi berean bi aldetatik eraso zion judu-diasporari Mendebaldeko munduan. Bere erakargarritasunagatik eta aldi berean haien gain zertzen zuen presioagatik, Mendebaldeko juduak beren nazionalismoa asmatzera bultzatu zituen, mendebaldartzeko era kolektibo gisa deskriba daitekeena, juduek

aurreko aroko, hemeretzigarren mendeko, liberalismoarekin lotzen zuten mendebaldartzeko era indibidualaren aldean. Banako judua judu-erlijioa mendebaldar burges bihurtzeko mendebaldartzearen idealak bezalaxe, judu-diaspora, edo beraren zati bat, nazio-estatu parrokiak batean —judu-biztanleriarekin soilik eta homogeneoki— biltzeko ideal alternatiboak ere, biek frogatzen zuten Mendebaldeko juduen askapena aski erreala izan zela Mendebaldean nagusi ziren idealen eraginpean haiek jartzeko. Aldi berean, sionismoa, bere sortzaile izan zen Theodor Herzl-ek berak aitortuaren arabera, larritasun baten erakusgarri zen: Mendebaldeko jentilen artean liberalismoaren orpoz orpo bizkor zetorren nazionalismoak beraien aurka banako asimilazioaren bidea berriro ere itxi egingo ote zuen beldurra, alegia. Ez da agian kasualitatea judu-sionismoa eta neo-antisemitismo alemana bata bestearen ondoren sortu izana eskualde geografiko berean, 1918az aurreko Austriar Inperioan alemanez hitz egiten zen lurraldeetan, alegia.

Historiaren ironia ilun guztietatik, inork ez digu giza izaeraz argitasun beldurgarriagorik ematen, honek baino: estilo berriko judu nazionalistek, beraien arrazak jasandako jazarpen askoren arteko izugarrienaren biharamunean, Palestinako arabiarren bizkar —hauen krimen bakarra juduen aurka, Palestina beraien antzinatiko bizileku izatea baino ez zen— erakutsi zuten naziek juduei pairarazitako sufri-menduetatik sionistek ikasitako irakaspena ez zela izan beraiek biktimak gisa jasandako krimena ez egitea, baizik eta, beraiei txanda egokitzean, beraiek baino herri ahulago bat jazartzea. Israeldar juduek ez zituzten palestinar arabiarrek kontzentrazio-esparruetan eta gas-ganbaretan suntsitzeko punturaino jarraitu nazien urratsak; baina gehienek, milioi-erdi baino gehiagori, kendu egin zizkieten haiek eta haien gurasoek belaunaldi belaunaldi izandako eta landutako lurak, baita ihesean berekin eraman ezin izan zituzten ondasunak ere, eta, horrela, «desplazaturiko pertsona» izatera mugatu zituzten.

Esperimentu sionistaren ondorio bat Azterlan honetan lehenago planteaturiko puntu bat frogatzea izan zen, hau da, judu-ezaugarriak, Mendebaldeko jentilek luzaroan beren arteko juduei esleituak, judu-diasporak Mendebaldeko munduan bizi izandako egoera bereziaren ondorio zirela eta ez heredaturiko arraza-dohain bereziren baten ondorio. Sionismoaren paradoxa hauxe zen: erabat judua izan-

go zen komunitate bat eraikitzeke ahalegin demoniakoan, Mendebaldean «judu-erlijio» burges edo burges agnostiko bihurtzea hautatzen zuen banako juduak bezain eraginkorki lan egiten zuela sionismoak juduak Mendebaldeko jentilen mundura asimilatzeke. Judueria historikoa diaspora zen, eta judu-ethos eta erakunde tipikoak —Moisesen legearekiko zaletasun zehatza eta merkataritzan eta finantzetan sekulako trebetasuna— diasporak denboran zehar gizartetalisman bihurturikoak ziren, geografikoki barreiatutako komunitate honi bizirik irauteko gaitasun magikoa eman ziotenak. Azkenaldiko judu-mendebaldartzaileak, eskola liberal nahiz sionistakoak izan, iragan historiko horrekin eteten ari ziren; eta sionismoaren etena izan zen bietatik gogorrena. Estatu Batuak, Hego Afrikako Batasuna eta Australiako Commonwealth sortu zituzten Mendebalde modernoko kristau protestante aitzindarien ereduaren arabera, lurralde batean kokaturiko nazio berri bat eraikitzeke diasporatik kolektiboki desertatzean, sionistak beren burua gizarte-giro jentil batekin parekatzen ari ziren; eta beren Eskrituretan inspiratzen ari ziren neurrian, inspirazioa ez zetorkien ez Legetik, ez Profetengandik, baizik eta Irteera eta Josue liburuetatiko narrazioetatik.

Espiritu honekin ekin zioten, erronkari eta gogoberoz, buru-langile izan ordez esku-langile izateari, hiritar izan ordez baserritar, bitartekari izan ordez ekoizle, finantzari izan ordez nekazari, dendaria izan ordez gerrari, martiri izan ordez terrorista izateari. Beren paper berrietan, zaharretan bezalaxe, gogortasun eta indar moral harrigarria erakutsi zuten; baina geroak zer daukan gordeta israeldarrentzat, orain horrela deitzen dutelarik beren burua palestinar juduek, geroak baka-rrik erakutsiko du. Bazirudien inguruko arabiar herriek arrotza beren artetik botatzeko erabakia zutela; eta Ilgora Emankorreko arabiar herriak kopuruz askoz gehiago ziren israeldarrak baino; hala ere, oraingoz, arabiarren kopuruzko nagusitasuna erabat ezabatu izan du energia eta eraginkortasunean duten eskastasunak.

Gainera, arazo guztiak orain mundu-mailako arazo bihurtu dira. Sobietar Batasunak eta Estatu Batuek, azkenean, zein aldetan aurkituko ote zituzten beren interesak Ekialde Ertainean? Hori zen arazoa; eta Sobietar Batasunari dagokionez, nekez auresan zitekeen erantzuna. Estatu Batuei dagokienez, bertako biztanlerian judu- eta arabiar osagaiek kopuru, aberastasun eta eraginean duten desberdinta-

sun ikaragarria izan da faktore erabakigarria Palestinako politikarako. Amerikar juduen aldean, amerikar arabiarrek ia ez zeuden kontuan hartzerik kopuruz, Libanoko kristau-jatorrikoak barne izanda ere. Amerikar hiritarren artean, berriz, judu-kontingenteak bere kopurua-ekin proportziorik gabeko botere politikoa zertu izan du; zeren eta New York hirian bilduta baitzeuden, eta, Estatu Batuetako barne-politikako botoen lehian, New York hiri erabakigarria zen estatu erabakigarrian. Baina amerikar politikari jentil zinikoen kalkuluak ez ziren, behatzaile halaber zinikoez sinesten omen zuten bezala, Estatu Batuetako gobernuak Bigarren Mundu Gerra bukatu ondorengo urte larrietan Israeli eman zion laguntza handiaren esplikazio osoa. Politika honek ez zituen bakarrik barne-kalkulu politiko hotzak islatzen, baita herriaren sentimendu desinteresatu eta idealista ere, nahiz eta agian gaizki informatua egon. Iparramerikarrak gai izan ziren juduek European nazien eskuetan jasandako sufrimenduetan sartzeko, beste judu batzuk giza figura ezagunak zitzaizkielako eguneroko bizitzan. Ez zegoen arabiar ezagunik Palestinako arabiarren sufrimenduez benetan ohartarazteko: eta «bertan ez daudenak beti oker daude».

#### *(VI) Mendebalde moderno eta Ekialde Urruneko eta Amerikako bertako zibilizazioak*

Mendebalde modernoarekin topo egin zutelako orain arte aztertu ditugun zibilizazio biziak, guztiek izan zuten Mendebaldeko Gizartearen esperientzia, honen eragina bere fase modernoan sentitzen hasi baino lehen. Hau egia da Hindu Gizarteari dagokionez ere, nahiz eta honen harremanak arin samarrak izan. Kontrastez, Mendebaldearen existentzia erabat ezezaguna zen Ameriketara eta ia ezezaguna Txinan eta Japonian, Mendebaldeko lehen itsasgizon modernoak haien kostetara iritsi arte. Ondorioz, Mendebaldeak bidaliak hasieran errezelarik gabe hartu zituzten, eta haiek eramandakoak berritasunaren xarma zuen. Baina, gero, bi prozesuek oso norabide desberdinak hartzea gertatu zen. Egoera zail batekin moldatzen amerikar zibilizazioek ez zuten arrakastarik izan; Ekialde Urruneko zibilizazioek, ordea, bai.

Erdialdeko Amerika eta Andeetako munduen espainiar konkistatzaileek armen indarraz berehala menderatu zituzten gaizki ekipaturiko eta susmo txarrik gabeko biktimak; ia suntsitu egin zituzten

hango biztanleen artean jatorrizko kulturen gordailuzain zirenak; haien orde zeurak ezarri ziren atzerriko gutxiengo menderatzaile gisa, eta landa-populazioa Mendebaldeko Kristau Gizartearen barne-proletalgo izateko estatusera murriztu zuten, haien eskulana espainiar *entrepreneur* ekonomiko eta erlijiosoaren esku jarritz, pentsatzen baitzuten landatzaile-misiolari hauek lankide izango zituztela beren giza abereak kristautasunaren aldaera erromatar katolikora konbertitzeko zereginean. Hala ere, hau idazteko garaian, ezin zen ziurtzat jo jatorrizko kulturak, nolabait ere, azkenean berriro agertuko ez zirenik, Gizarte Siriakoa ere berragertu eta berriro eratu zen bezala, mila urteko nagusitasun helenikoaren ondoren.

Bestalde, Ekialde Urruneko bi gizarteek, Txinan eta Japonian, bizirik iraun zuten, hasierako ezjakintasunagatik hiltzeko arriskuan egon ziren arren. Moldatu ziren Mendebaldeko Zibilizazioa balantzan pisatzeko, eskas aurkitu zuten, kanpo uztea erabaki zuten eta behar hainbat indar bildu zuten alegiazko autarki politika hausnartu ahal izateko. Baina hau ez zen izan prozesuaren bukaera. Mendebalde lehengotan agertu zitzairen bezala harekin harremanak etetea, txinatarrek eta japoniarrek ez zuten behin betiko konpondu «Mendebaldearen arazoa». Mendebalde errefusatuak bere burua eraldatu zuen, eta gero berriro azaldu zen Ekialdeko asiako jokalera, dohain nagusiztat bere teknologia aurkeztuz erlijioaren orde, eta Ekialde Urruneko Gizarteak aukera bikoitzaren aurrean aurkitu ziren: Mendebaldeko teknika berriaz jabetzea edo beraren mende erortzea.

Ekialde Urruneko drama horretan txinatarrek eta japoniarrek antzera portatu ziren gauza batzuetan eta desberdin beste batzuetan. Antzekotasun-puntu harrigarri bat, bigarren ekitaldian, Mendebalde modernoko kultura sekularizatuaren harrera behetik gorantz hasi izana da, bai Txinan eta bai Japonian. Txinan Mantxu Inperioak eta Japonian Tokugawa shogungoak berdin huts egin zuten ekimena hartzen, Errusian petritar tsarismoak ez bezala. Ekitaldi honetako hurrengo agerraldian, ordea, Japoniak, Txinak ez bezala, petritar bideari jarraitu zion. Bestalde, lehen ekitaldian, hau da, hamaseigarren mendeko topaketetan, Ekialde Urruneko bi gizarteek bide desberdinak hartu zituzten hasieratik. Mendebalde modernoaren kultura bere hamaseigarren mendeko eta hamazazpigarren mendeko fase erlijioso-



an, hasieran proba-modura onartu eta gero errefusatzean, ekimena goitik beherantz etorria zen Txinan eta behetik gorantz Japonian.

Ekialde Urruneko bi gizarteek azken lau mendeetan Mendebalde modernoarekiko izandako erreakzioak grafikoetan adierazi behar balira, japoniar kurbak txinatarrak baino askoz zorrotzagoak direla ohartuko ginatke. Txinatarrak inoiz ez ziren japoniarrak bezain urruti iritsi Mendebaldeko kulturaren mende jartzen okasio bakoitzean, edota hartatik beren burua urruntzen bitarteko xenofobia-aldian.

Hamaseigarren mendetik hamazazpigarrenera igarotzean, Japonia, zeinen batasun politikoa osaga bea baitzen artean, arrisku baten aurrean zegoen: batasun politikoa kanpotik ezartzekoa atzerriko *conquistadores*-en esku errukigabeek. Filipinen espainiar konkista K.o. 1565-71n eta Formosaren holandar konkista 1624an Japoniari gerta zekiokeen patuaren adibideak ziren. Bestalde, Txinako azpikontinente zabalak ez zeukan benetan zertan beldur izan Mendebaldeko itsas lapurren etorreragatik garai hartan. Itsas erasotzaile mekanizatu gabe haiek, gogaikarriak gerta bazitezkeen ere, ez ziren konkistatzailerik potentzialak. Garai hartan Txinako gobernu inperialari estutasun larria sortzen zioten arriskuak eurasiar estepatik etorritako lehorreko inbasioarenak ziren; eta hamazazpigarren mendean Ming dinastia mantxu erdibarbaro kementsuek ordeztu ondoren, kontinente barruko arrisku horren errepikapena ez zen beste berrehun bat urtez agertu.

Egoera geografiko-politikoan Txina eta Japoniaren arteko desberdintasun honek azaldu dezake zergatik atzeratu zen Txinan hamazazpigarren mendearen bukaera arte kristautasun erromatar katolikoren zapalkuntza, eta zergatik izan zen ez beldur politikoen, baizik eta eztabaida teologikoen ondorio; Japonian, ordea, kristautasun erromatar katolikoren zapalkuntza berehalakoa eta errukigabea izan zen, eta azkenean dena eten zen Japoniaren eta Mendebaldeko munduaren arteko loturan, holandar hari bakarti bat izan ezik. Japoniar gobernu zentral ezarri berriak emandako kolpe-saila Hideyoshiren 1587ko ordenantzarekin hasi zen, Mendebaldeko kristau-misiolari guztien debekua agindu baitzuen, eta 1636-9ko ordenantzekin burutu zen, japoniar mendekoei atzerri bidaiatzea eta portugaldar mendekoei Japonian bizitzea debekatu zietelarik.

Japonian, Txinan bezala, bakartze-politika uztea behetik gorantz etorri zen eta Mendebalde modernoko jakintza zientifikoaren

fruituak dastatzeko goseak sortu zuen. Mugimenduaren aitzindarietako askok martirioa pairatu zuten teknologian zuten fedeagatik K.o. 1840-50eko proskripzioetan, 1853an gertatu zen «Japoniaren irekitze» delakoa baino lehentxeago. Japonian mugimendua erabat sekularra izan zen. Bestalde, hemeretzigarren mendean Txinan izandako pareko mugimendua kristau-misiolari protestanteen ekintzekin lotu zen, horiek britainiar eta amerikar merkatariekin joan zirelarik hara, haien aurreko portugaldarrekin kristau-misiolari erromatar katolikoak Japoniara joan ziren bezala, eta Txinan misiolari protestanteen eragin honek iraun egin zuen. Sun Yat-sen, Kuomintang-aren sortzailea, kristautasun protestanterako konbertituriko baten semea zen, eta Txinako beste kristau-familia protestante batek funtsezko papera jokatu zuen Kuomintang-aren ondorengo historian, Sun Yat-sen andere, haren ahizpa Chiang Kai-shek andere eta haien neba T. V. Soong-ekin.

Japonia eta Txinako mendebaldartze-mugimenduak biak aurkitu ziren bertako erregimen ekumeniko ongi ezarria bukatu eta ordeztzeko zeregin ikaragarriaren aurrean, baina japoniar mendebaldartzailak erneago, bizkorrago eta eraginkorragoak ziren txinatarrek baino. Perry komodoroaren eskoadroia Japoniaren uretan K.o. 1853an agertu eta hamabost urteren buruan, ez zuten bakarrik Tokugawa erregimena eraitsi, honek huts egin zuelarik egoerak eskatzen zuen mailan egoten; haren lekuan beste erregimen bat, goitik beherantz mendebaldartze-mugimendu orokor bat abiarazteko gauza zena, ezartzeko egin kizun askoz zailagoa ere bete zuten. Txinatarrek 118 urte behar izan zituzten eginkizun horren erdi negatiboa egiteko. Lord Macartneyren enbaxada K.o. 1793an Pekingera iristea Perry komodoroaren eskoadroia Yedo badiara hirurogei urte geroago iristea bezain froga argigarria izan zen Mendebaldearen botere areagotuarena; hala ere, Txinan *ancien régime* ez zen eraitsi 1911 arte, eta orduan ez zuen ordeztu ordena berri mendebaldartzaila eraginkor batek, Kuomintang-ak gainditu ezin izan zuen anarkiak baizik, ustezko mendebaldartze-mugimendu liberal honek bere eskura izan zuen mende laurdenean (K.o. 1923-48).

Desberdintasuna, 1894-5eko gerra txino-japoniarrak<sup>70</sup> piztu ondorengo berrogeita hamar urteetan, Japoniak Txinarekiko izan zuen nagusitasun militarren mailaren arabera neur daiteke. Mende-erdi hartan Txina militarki Japoniaren mende egon zen; eta borroka honen

azken round-ean, Txina osoaren konkista eraginkorra Japoniaren baliabideen gainetik egon arren, garbi zegoen halaber, japoniar gerramakina ez balute Estatu Batuek suntsitu izan, txinatarrak, laguntzarik gabe, inoiz ez zirela gai izango japoniarren eskuetatik berreskuratze-ko haiek kendutako portu, industri eremu eta burdinbideak, Txina mendebaldartzeko erabakigarri zirenak.

Hogeigarren mendearen bigarren erdia hasterako, japoniar erbia eta txinatar dortoka ia aldi berean iritsiak ziren helmuga tamalgarri berera. Japonia pasiboki zetzan Mendebaldeko botere handienaren okupazio militarren pean, eta Txina, berriz, iraultzaren bidez, anarkiatik bere antitesira igaroa zen erregimen komunista baten kontrol zorrotzaren forman. Hau Mendebaldeko ala Mendebaldearen aurkakotzat hartzen dugula (jada Azterlan honetan eztabaidaturiko puntua), edozein kasutan ere atzerriko ideologia bat zen Ekialde Urruneko kulturaren ikuspegitik.

Non zegoen Ekialde Urruneko bi gizarte haien eta Mendebalde modernoaren arteko bigarren topaketaren lehen fasearen bukaera uniformeki tamalgarri honen azalpena? Bietan, Txinan eta Japonian, hondamendiak Asian eta Ekialdeko Europan konpondu gabe zegoen arazo komun batean zituen sustraiak, Mendebaldeak hindu-munduan izandako eragina aztertzerakoan jadanik agertu zaiguna. Zein izango zen Mendebaldeko Zibilizazioaren inpaktuaren ondorioz nekazari-herri primitiboetan, mendez mende iraupen hutsaren mugetan bizitzera ohituta egonak, orain nahigabe berri bat inokulatzen zitzaielarik, baina artean benetan planteatzen hasi gabeak ekonomi hobekuntza iraultza ekonomiko, sozial eta, batez ere, psikologikoaren ordainetan bakarrik egin zitekeela? Amaltearen adarretik oparotasuna atera ahal izateko, nekazari tradizional haiek iraultza egin beharko zuten lurra lantzeko eta lurren jabetzako metodo tradizionaletan, eta beren jaiotza-kopurua ere erregulatu egin beharko zuten.

Tokugawa shogungoaren mendean posible izan zen Japoniako bizitza politiko eta ekonomikoa egonkortzea —denboraldi hartan egonkortua egon zen neurriraino—, hura bermatzen demografiatzko oinarri egonkor bat egon zelako. Biztanle-kopuruari gelditi eutsi zitzaion hogeita hamar milioi inguruan hainbat baliabide erabiliz, abortoa eta haur-hiltzea barne. Erregimen hura bukarazi zenean, behartuta izozturiko japoniar gizarte-gorputza urtu egin zen, eta biz-

tanleria gehitzen hasi zen. Politika eta ekonomi mailako aldaketak ez bezala, murrizketarik gabe ugaltzen hastea ez zen Mendebaldeko eraginagatik izan, baizik eta nekazari-gizartearen ohiko azturetara itzultea izan zen, gizarte hura, *tour de force* psikologiko batez, mugatuta eduki ondoren Tokugawa Aroko giro izoztuan. Garai bereko mendebaldartzeak, hala ere, areagotu egin zuen aztura primitiboetara itultze horren ondorio demografikoa heriotza-tasa jaitsiz.

Egoera honetan Japoniak hedatu edota lehertu egin behar zuen, eta hedatzeko erabil zitzakeen bide bakarrak hauek ziren: munduaren gainerakoa konbentzitzea berarekin merkataritza egiteko edo lurralde, baliabide eta merkatu gehigarriak konkistatzea armen indarrez, horien jabeak militarki ahulegiak zirelako beren jabegoa babesteko militarki mendebaldarturiko Japoniaren erasoaren aurka. Japoniaren atzerri-politikaren historia K.o. 1868tik 1931ra aukerabide hauen arteko oszilazioen historia da. Nazionalismo ekonomikoa mundu-mailan areagotzeak japoniar herria alternatiba militaristara konbertitzen izan zuen pixkanakako eragina, 1929ko udazkenean Wall Streetera iritsi eta gero mundu osora hedatu zen hondamendi ekonomikoa esperientzia beldurgarriak burutu zuen. Ia bi urte geroago zehazki, Japoniak Mukdenen abiarazi zuen, 1931ko irailaren 18tik 19rako gauean, bere eraso-abentura handia, V-J egunean bukatu zena, 1945ean.

Txinatarrak ez zeudenez uharte txiki samarren sorta batera mugatuta, egundoko azpikontinente batean barreiatuta baizik, biztanleriaren arazoa ez zen Txinan Japonian bezain presa handiz agertu, ezta hain errukigabe tratatu ere. Luzera begiratuta, hala ere, ez zen larritasun gutxiagokoa, eta hura konpontzeko erantzukizuna Txinako diktadore komunisten bizkar zegoen orain. Komunismoak Txinan egin zuen konkista ideologiko hau Errusiak Ekialde Urruneko Gizartearen gorputz nagusian egindako erasoaren azken mugimendua izan zen, hirurehun bat urtez aurrera egiten ari zen eraso. Ez gara luzatuko haren lehenengo etapetan. Hemeretzigarren mendean, Japonia benetako lehiakidetzat hartu aurreko garaian, Errusia eta Mendebaldeko botereak erasotzaile lehiakide gisa agertu ziren hilzorian zegoen Txinatar Inperioaren gorpua marraskatzen. Etapa honetan arazoa zera zela zirudien, ea Hong Kong eta Shanghai hazkunde-puntuak izango ziren Txinan britainiar inperialismoarentzat, Bonbay eta Kalkuta Indian izan ziren bezala. Bestalde, Errusiak lortua zuen

Vladivostok-en gain subiranotasuna 1860an, eta askoz erdirago zegoen eta garrantzitsuagoa zen Port Arthur-en alokairua 1897an. Japonia izan zen errusiarren ahalegin hori sustraitik moztu zuena 1904-5ean erruso-japoniar gerra erabakigarrian. Lehen Mundu Gerra bukatzean berriro anarkian desegina ageri zen Errusia, bitartean Japoniak onura neurrigabeak atera zituelarik Mendebaldeko koalizio garailean gutxi-asko bazkide komandataria zen aldetik. Hala ere, errusiar tsarismoak porrot egin zuen lekuan errusiar komunismoak arrakasta izan zuen, era batera edo bestera, Azterlan honetan sarri-sarri aurkitu ditugun arrazoiengatik, luma ezpata baino ahaltsuagoa dela esaten digun maxima biribila bezalako paradoxa topikoetara murriztu daitezkeen arrazoiengatik. Marxen komunismoaren ebanjelio sekularrak erakarpen psikologikoa eman zion Errusiari, tsarismo biluzia egiteko gai izan ez zena. Horregatik, Sobietar Batasunak Txinan —beste edonon bezalaxe— «bosgarren zutabe» itzela ezar zezakeen. Orain Errusia komunistak tresnak, edo haietako batzuk, jartzen bazituen, txinatar miresleak haietaz balia zitezkeen Errusiaren ordez lana egiteko.

*(VII) Mendebalde modernoaren eta garaikideen arteko topaketen ezaugarriak*

Deskribatu ditugun topaketen konparaketatik sortzen den ondorioz esanguratsuen zera da, «moderno» hitzari «Mendebalde modernoko zibilizazio» terminoan konnotazio zorrotz eta zehatzagoa eman dakiokeela «klase ertaina» bezala itzulita. Mendebaldeko komunitateak «modernoak» bilakatu dira gizartean, elementu nagusi bilakatzeko gai den *bourgeoisie* bat sortu orduko. Mendebaldeko historian hamabosgarren mendearen bukaeran hasi zen atal berria «modernotzat» hartzen dugu garai hartan hasi zelako klase ertaina, Mendebaldeko komunitate aurreratuenetan, kontrola hartzen. Horren ondorioz, Mendebaldeko historian Aro Modernoan, atzerritarrek mendebaldartzeko zuten trebetasuna Mendebaldeko klase ertainaren bizimoduan sartzeko gaitasunaren mende zegoen. Behetik gorantz egindako mendebaldartze-kasuak, dagoeneko aipatuak, aztertzen ditugunean, zera aurkitzen dugu: Greziako kristau ortodoxoen, txinatarren eta japoniarren bizimoduan aurrez zegoen gizarte-egituran, adibidez, jadanik bazirela klase ertainaren elementuak, horien bidez ziharduelarik mendebaldartzearen legamiak. Bestalde, mendebaldar-

tze-prozesua goitik beherantz zertutako kasuetan, mendekoak *fiat* bidez mendebaldartzeari ekin zioten autokratak ezin ziren behartu gabeko bilakaera-prozesu baten zain egon benetan jatorri indigenako klase ertaineko agenteak emateko mendeko horiei, baizik eta behartuta aurkitu ziren bertan hazitako klase ertainaren ordezkoko artifiziak aurkitzera intelligentsia bat fabrikatuz.

Horrela sortarazitako intelligentsiek Errusian eta mundu islamikoan eta hinduan bazuten, beren egileek emanda, Mendebaldeko klase ertainaren tasunen benetako tindua. Errusiar kasuak erakusten du, hala ere, tindu hori iragankorra gerta zitekeela. Zeren eta errusiar intelligentsia, hasieran Errusia Mendebaldeko klase ertainaren artegira ekartzeko petritar tsarismoak sortarazia, tsarismoaren eta Mendebaldeko ideal burgesaren aurka errebelatu baitzen bere bihotzean, 1917ko Iraultza lehertu baino askoz lehenago. Posible zen Errusian gertatu zena beste edonon gertatzea beste intelligentsia batzuei ere.

Errusiar intelligentsiak jada burgesiaren aurka hartua zuen norabide horren argitan, merezi du agian Mendebaldekoak ez ziren intelligentsien eta Mendebaldeko klase ertainaren arteko antzekotasun eta desberdintasunei erreparatzea, azken honen papera jokatzeko zego-kielarik haiei Mendebaldekoa ez zen ingurune batean.

Haien historien ezaugarri komun bat zera zen, biak zirela ezarri zireneko gizartearen mugaz harantzagoetik etorriak. Ikusi dugu Mendebaldeko Gizartea, lehenengoz Goiz Erdi Arotik sortu zenean, nekazari-gizartea zela, non hiri-bizitzako ahaleginak hain baitziren exotikoak, ezen haietako batzuk hasieran atzerriko judu-diasporak zertu baitzituen, jentilek beren judu bihurtzeko zuten nahiagatik klase ertain jentila sortu zen arte.

Mendebalde modernoko klase ertainak eta intelligentsia garai-kideek komun zuten beste esperientzia bat zera zen, biek lortu zutela beren azken nagusitasuna hasierako ugazaben aurka matxinatuz. Britainia Handian, Holandan, Frantzia eta Mendebaldeko beste herrialde batzuetan, klase ertaina monarkien lekua hartu zuelako iritsi zen agintera, hauen babesgoak egin zuelarik oharkabea klase ertainaren fortuna<sup>71</sup>. Antzeratsu, aro modernoaren azkenaldian, Mendebaldekoak ez ziren gobernu-moduetan, intelligentsia, berak berariaz sortarazitako autokrata mendebaldartzaileen aurka arrakastaz

matxinatu zelako iritsi zen agintera. Petritar Errusian, azkenaldiko Otomandar Inperioan eta Indiako Britainiar Inperioan pasadizo komun honen ikuspegi sinoptikoa hartzen badugu, ikusiko dugu intelligentsiaren errebolta hiru kasuetan gertatzeaz gain gutxi gorabehera denbora-tarte bertsuaren ondoren gauzatu zela kasu bakoitzean. Errusian K.o. 1825ean zertutako Abenduko Iraultza abortatua, errusiar intelligentsiak petritar sistemaren aurka egindako gerra-deklaratzea zena, Pedro K.o. 1689an benetan agintera iritsi eta 136 urtera piztu zen. Indian, «egonezin» politikoa hemeretzigarren mendearen bukaera aldera hasi zen agertzen, hau da, britainiar gobernua Bengalan ezarri eta 140 urte igaro baino lehen. Otomandar Inperioan, Batasun eta Aurrerapenaren Batzordeak Abd-al-Hamid II. sultana eraitsi zuen K.o. 1908an, hau da, 1768-74an gerra erruso-turkiarrean izandako porrotaren astinduak Atea bere mendeko musulmanetako asko Mendebaldeko gerragintzan trebatzen hastera bultzatu eta 134 urte geroago.

Baina antzekotasun-puntu horiek desberdintasun ohargarri batek, behintzat, orekatzen ditu. Mendebalde modernoko klase ertaina bertako elementua zen menderatzera iritsi zen gizartean; zentzu psikologikoan, «etxean» zegoen han. Kontrastez, intelligentsiek eragozpen bikoitza pairatzen zuten, *novi homines* izatea eta gainera exotikoak. Produktu eta sintoma ziren, ez hazkunde naturalarenak, baizik eta atzerriko Mendebalde modernoarekin talka egitean euren gizarte-ek izandako nahasmenarenak. Ez indarraren baizik eta ahultasunaren ikurrak ziren. Bestalde, intelligentsiak oso jabetzen ziren inbidiazko desberdintasun horretaz. Beraiek gizarte-zerbitzu bat emateko sortu zituzten, eta horrek berorrek atzerriar bihurtu zituen zerbitzu hori ematen zuten gizartean. Beren zereginarekiko esker txarraren intuitzioak, beren gizarte-egoerari atxikitako uzkurduretatik sortzen zen ezinbesteko tentsio nerbiosoarekin batera, Mendebaldeko klase ertainaren aurkako gorroto ezkutua sortzeko konspiratzen zuen, hau zelarik haien jaun eta zigorra, haien erreferentzia eta obsesioa; eta eguzki pirata honenganako jarrera erabat anbibalentea, beraren planeta gati- buak zirelarik, zorrotz adierazia dago Katuloren biko errimatu elegia-koetan:

*Odi et amo: quare id faciam, fortasse requiris.*

*Nescio, sed fieri sentio et excrucior*<sup>72</sup>.

Mendebaldeko klase ertainaren aurka atzerriko intelligentsia-  
ren gorrotoaren bizitasunak Mendebaldeko klase ertainak lortutakoa  
berdintzeko bere gaitasunik ezaren susmoaren neurria ematen zuen.  
Garai hartara arte, aurrezagutza garraztu hau justifikatu izan zuen  
adibide klasikoa errusiar intelligentsiaren hondamenezko porrota  
izan zen, bi errusiar iraultzetako lehenengoaren ondoren, 1917an,  
huts egin baitzuen petritar tsarismoaren hondakinak, Mendebaldeko  
hemeretzigarren mendeko estiloaren arabera, konstituziozko estatu  
parlamentario bihurtzeko mandatu fantastikoa zertzen. Kerenskyren  
erregimena porrot hutsa izan zen, lastorik gabe adreiluak egiteko  
zereginaren zama baitzuen: hau da, gobernu parlamentarioa egitea,  
horretarako klase ertain sendo, gaitu, oparo eta eskarmentaturik izan  
gabe. Aitzitik, Leninek arrakasta izan zuen, egoerari aurre egingo  
zion zerbait sortzeari ekin baitzion. Haren Guztion Batasunerako  
Alderdi Komunista ez zen erabat aurrekaririk gabeko gauza. Historia  
iraniko musulmanean otomandar padisharen esklabo-etxean izan  
zuen aurrekari bat, safauienaganako jaieradunen Kyzylbash anaidian,  
eta Sikh Khalsa-n, hau mogolen nagusitasunaren aurka bere armekin  
borrokatzeko erabakiaz izan zelarik sortua. Anaidi islamiko eta  
hindu horietan errusiar alderdi komunistaren ethosa oso garbi bereiz-  
ten da jada. Leninek erreklamatzeko duen orijinaltasuna honetan  
datza: tresna politiko izugarri hori beretzat berriro asmatu izanean  
eta bere lehentasunean helburu berezi baterako erabiltzen:  
Mendebaldekoa ez zen gizarte batek Mendebalde modernoaren aurka  
irmo euts ziezaion gaitzeko, Mendebaldeko teknologiaren azken gai-  
luak menderatuz, baina, aldi berean, Mendebaldean nagusi zen ideo-  
logia ortodoxoa saihestuz.

Leninen alderdi bakarreko erregimen diktatorialaren arrakasta  
haren imitatzailen kopuruak erakusten du. Argi eta garbi beren burua  
komunistatzat daukatenak alde batera utzita, aski dugu Mustafa  
Kemal Atatürkek Turkiaren onbideratze larderiatsurako ezarri zuen  
erregimena aipatzea; Mussoliniren erregimen faxista Italian; eta  
Hitlerren erregimen nazional sozialista Alemanian. Komunista ez  
ziren alderdi bakarreko hiru erregimen horietatik, Turkiako ordena  
berriak bakarrik lortu zuen bi alderdiko erregimen bihurtzea,  
Mendebaldeko ildo liberalen arabera, trantsizio baketsuaren bidez,  
hondamendiaren prezioa ordaindu ordez.



(b) *Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearekin topaketak*

(I) *Gurutzaden itsasgora eta itsasbeherak*

«Gurutzada» terminoa normalean Mendebaldeko espedizio militar jakin batzuetara mugatzen da, aita santuak akuilaturik eta aita santuaren bedekinkazioarekin Jerusalemen kristau-erresuma konkistatzera, hari eustera edo berriro konkistatzera joan ziren espedizioetara, alegia. Guk hemen askoz zentzu zabalagoan erabiltzen dugu terminoa, Mendebaldeko Kristandadeak bere mugetan bere historiaren Erdi Aroko atalean izan zuen gerragintza guztia hartzeko: Islamaren aurka Espainian baita Sirian ere, Ekialdeko Erromatar Inperio lehiakidearen aurka, eta barbaro paganoen aurka ipar-ekialdeko muga. Gerragintza honi guztiari egoki dei dakioke gurutzada, zeren eta gerrariak ohar-tuki, eta ez erabateko hipokrisiaz, Kristandadearen mugak hedatzen edo defenditzen ari zirela uste baitzuten. Pentsa genezake Chaucer-ek onetsiko zukeela termino honen erabilera hedatua. Zalduna —«zaldun hobezin eta adeitsua»—, bere Canterburyko ipuinen *Hitzaurrean* erretratu idatzien galerian lehenengo agertzen dena, bere gaztaroan Crecy eta Poitiers-en borrokan jarduna izan zitekeen beterano bat zen, baina bere sortzaileari sekula ez zitzaion bururatu Mendebaldeko estatuen arteko halako famili borrokekin lotzerik. Aitzitik, Mendebaldeko Kristandadearen muga guztietan borrokan jarduna bezala erretratatzen du, Gernade/Granadatik Ruce/Rusia, Puce/Prusia eta Lettow/Lituaniaraino, eta, Chaucerrek benetan gurutzatu deitzen ez dion arren, bereziki kristau-gerran sartuta ibili den gerrari gisa dauka hura buruan argi eta garbi. Gure ardura orain, Mendebaldeko Kristandade erasokorrak beste zibilizazioetan izandako inpaktua aztertzeari ekin aurretik, Erdi Aroko hedatze-gerra horien norabide orokorraren ideia-aren bat ematea da.

Mendebaldeko Gizartearen Erdi Aroko hasiera, kristau-aroko hamaikagarren mendean, hamabosgarren mendetik hamaseigarrene-rako aldaketan izandako hasiera modernoa bezain zakarra izan zen, eta Mendebaldearen Erdi Aroko abenturaren azken kolapsoa hasiera-ko arrakasta bezain bizkor iritsi zen. Behatzaile buruargi batek, Txinako batek adibidez, kristau-aroko hamahirugarren mendearen erdialdera Mundu Zaharraren beste muturrera etorri balitz, ziur aski ez zukeen ikusiko Mendebaldeko arrotzak Dar-al-Islam eta

«Erromaniatik» (Ekialdeko Erromatar Inperioaren eremu kristau ortodoxotik) kanporatuak izateko zorian zeudela; jokalekura hirurehun urte lehenago iritsi izan balitz, ikusiko ez zukeen bezalaxe bi mundu horiek beroriek bisitari kultuaren *Oikoumene*-ko mendebaldeko muturrekoen, ordu arte itxuraz atzeratu eta kulturarik gabekoen, aldetik erasotuak eta menderatuak izateko zorian zeudela. Bi Kristau Gizarte Helenistikoak elkarren artean eta ia kristau-heresia zen Islamera konbertitzeko prozesuan zegoen Gizarte Siriakotik bereizten ikasi orduko, ziur aski ondorio honetara iritsiko zatekeen: Mediterraneo arroaren eta bere hinterland-en kontrolerako hiru lehiakide horietatik, Kristandade Ortodoxoak zeukala etorkizunik onena eta Mendebaldeko Kristandadeak okerrena.

Aberastasun, hezkuntza, administrazio-eraginkortasun eta gerra-arrakastari buruzko azterketa konparatiboetan, Kristandade Ortodoxoa egongo zen ziur aski hamargarren mendearen erdialdeko gure behatzailearen zerrenda-buruan eta Mendebaldeko Kristandadea azkenean. Mendebaldeko Kristandadea nekazari-gizartea zen orduan, non hiri-bizitza exotikoa baitzen eta txanpona gutxi erabilia; garai bereko Kristandade Ortodoxoan, berriz, merkataritza eta industria oparoan oinarrituriko diru-ekonomia zegoen. Mendebaldeko Kristandadean kleroa bakarrik zen eskolatua, eta Kristandade Ortodoxoan, berriz, bazen gobernari-klase bat, oso ongi hezia. Mendebaldeko Kristandadea berriro anarkian erori zen Karlomagnoren Erromatar Inperio berri abortatuaren porrotaren ondoren; Leon Isauriarrak zortzigarren mendean bertan Ekialdeko Kristandade Ortodoxoan sortu zuen Erromatar Inperio berria artean loratzen ari zen eta hasia zen berriro konkistatzen jatorrizko Erromatar Inperioak zazpigarren mendean arabiar konkistatzaile musulman primitiboen aurka galdu zituen lurak.

Konkista musulmanaren uholdeak, atzera egiten hasi zenean lehorrean, denbora batez aurrera jarraitu zuen itsasoz; eta bi kristandadeak zakar astindu zituzten bederatzigarren mendean Magrebeko<sup>73</sup> bukanero musulmanek. Kristandade Ortodoxoak, hala ere, haien erronkari Kreta berriro konkistatuz erantzun zion, baina ez da ageri antzerako erantzunik izan zenik Mendebaldeko Kristandadearen aldetik. Aitzitik, erasotzaile musulmanak artean lehorrean Rivieratik barrura bultzaka eta Alpeetako igarobideak betetzen ari ziren.

Gure txinatar behatzaile hipotetikoari eska diezaiokegun ikuspegi zorrotzago batek azpian dauden beste errealitate batzuk aurki zitzakeen, dudarik gabe. Kristandade Ortodoxoaren gainazal zirrargarriaren azpian hilzoriko ahultasuna aurki zezakeen. Mendebaldeko Kristandadeak, Mediterraneoan hain paper kaskarra egin zuenak, beste leku batzuetan, eskandinaviar eta magiar erasotzaile barbaroen aurka borroka adoretsua egin zuela ohar zitekeen. Musulmanen aurka ere, Mendebaldeko kristau-muga jadanik hasia zen aurrerapen mantso eta luzea egiten Iberiar penintsulan. Hamargarren mendeko Mendebaldeko Kristandadea, bere lehiakideak ez bezala, hazkunderaldiko zibilizazioa zen. Bere gotorleku espirituala monastizismoa zen, eta benediktar bizimodu monastikoaren hamargarren mendeko klunitar gaztetzeari izan zen Mendebaldean ondoren izandako gizarte-erreforma guztien, erlijioso nahiz sekularren, arketipoa.

Hala ere, hamargarren mendeko Mendebaldeko Kristandadearen bizitasun-seinale horiek ez dirudite erabat egokiak hamaikagarren mendean Mendebaldeko energiak izan zuen leherraldi harrigarria ulertzeko, leherraldi honetan auzoko bi gizarteren aurkako erasoak izan zelarik sormen gutxieneko eta mirespen gutxien merezi duten pasarteetako bat. Mendebaldeko kristauak Normandia eta Danimarkako eskandinaviar kolonizatzaileak konbertitzeko balentria osatu zuten, eskandinaviar gerra-taldeak beren eskortara ekarriz beren jatorrizko gordeleketan, baita Hungaria eta Poloniako barbaroak ere. Bizitza monastikoaren klunitar erreformak eliz sistema osoaren hildebrandotar erreforma ekarri zuen aita santuaren gidaritzapean. Iberiar penintsulan aurrerapena bizkortzearekin batera gertatu ziren Ekialdeko Erromatar Inperioaren eremuak Hego Italian eta musulmanen agintepeko lurraldeak Sizilian konkistatzea eta, abortatua gertatu zen arren, Adriatikokoan zehar Ekialdeko Erromatar Inperioaren bihotzerantz sartutako mehatxua ere bai. Puntu gorena Lehen Gurutzadarekin (K.o. 1095-9) iritsi zen, Islamaren bizkar, Mendebaldeko kristau-printzerrien kate bat ezarri baitzen Sirian, Antiokia eta Edessatik (Eufrates baino harantzago) Jerusalem eta Azlaraino (Itsaso Gorrira zabaltzen den Akabako golkoaren bururaino).

Mediterraneoaren arroan Erdi Aroko Mendebaldeko kristau-nagusitasun honen azken kolapsoa ere harrigarria gertatuko zitzaiokeen Ekialde Urruneko gure behatzaileari eszena berriro ikusi ahal izan

balu Lehen Gurutzadatik 150 urtera. Ordurako Mendebaldeko eraso-tzaileek ia galduak zituzten Sirian beren aitzindari-postu babesgabe guztiak. Iberiar penintsulan, bestalde, eremu musulmana Granada inguruko enklabe soil batera murriztua zegoen, eta mendebalдарrek, Sirian izandako galeren aurrean beren burua kontsolatzeko, Ekialdeko Erromatar Inperioaren Europako lurraldeak eraso eta berenganatuak zituzten. Printze franko bat ari zen erromatar enperadorearen lekua eta izena usurpatzen Konstantinoplan. Askoz ekialderago Mongoliar Inperio handi bat sortua zen, eta Mendebaldeko kristau-ameslariak Islama atzera uzteko ametsa egin zuten munduko botere berri honen gobernariak kristau-erlijioaren Mendebaldeko formara konbertituz. Aita santuaren misiolariak egin zuten bidaia luzea Karakorum-era. Marko Polo laster izango zen «Kublai Khan»en goterako bidean.

Hortik ez zen ezer sortu; eta, gure alegiazko txinatar behatzai-leari esleitu diogun datatik oso laster, «Latindar Inperioaren» eraikin zaharkitua behera erori zen Konstantinoplan (K.o. 1261). Greziako Inperio Kristau Ortodoxoa berriro ezarri zen, nahiz eta hemen etorki-zuna ez zen jada greziarrena, otomandar turkiarrena baizik. Mendebaldeko Kristandadeak bere energia erasokorrak ipar-ekialdeko mugara bideratu zituen orain. Zaldun teutonikoen Siria utzi eta beren zoriona Vistulan bilatu zuten prusiar, letoniar eta estoniar paganoen bizkar. Iberiar penintsulan, Hego Italian eta Sizilian bakarrik areagotu zen eta azken-azkeneraino jarraitu Erdi Aroko denboraldiaren hasieran egindako aurrerapena. Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadeak, garai batean bere guraso helenikoarenak izandako lur guztiak hartzeko, mugak hegoalderantz eta ekialderantz hedatzeko egin zuen ahaleginak huts egin zuen. Aberastasun eta biztanleria eta adimenari dagokionez Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearen baliabide materialak kontuan hartzen badira, nekez espero zitekeen beste emaitzarik.

## *(II) Erdi Aroko Mendebaldea eta mundu siriakoa*

Erdi Aroko Mendebaldeko kristauak mundu siriakoari eraso ziotenean kristau-aroko hamaikagarren mendean, biztanleak banatuta aurkitu zituzten beren leialtasun komunaletan Islamaren eta kristautasuna deshelenizatzeko arima siriakoek egindako ahalegin preislamiakoak ziren hainbat kristau-heresiaren —monofisismo, nestorianismo

eta beste batzuen— artean. Arabiar konkistaren ondorengo lehen denboraldian, Islama izan zen barbaro garaile haien erlijio bereizgarria, arianismoa Erromatar Inperioko zenbait probintziaren konkistatzaile teutoniko gehienaren erlijioa izan zen bezalaxe. Zortzigarren mendeko konkista musulmanaren eta hamaikagarrenaren bukaerako Lehen Gurutzadaren arteko denboraldian, hainbat arrazoiengatik, Islamera joera egonkorra eman zen mendeko herri haien artean, baina inola ere ez zen erabatekoa denboraldi haren bukaeran. Gurutzaden eragina joera hori lubizi bihurtzea izan zen. Gizarte Islamiko jaio berriak, Arabikoa eta Iranikoa, hildako mundu siriakoaren hondakinetatik sortu ziren.

Kontuan izanda musulman eta kristauak ofizialki «sinesgabeak» zirela batzuk besteentzat, eta fanatikoki eskusibistak ziren bi erlijio judaiko horien aldekoak kronikoki gerran zeudela, miragarria gerta dakiguke borrokalari haiek elkarrenganako sentitu zuten begirune-maila, baita Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadeak bide siriakotik bereganatu zuen kultur elikaduraren kopurua eta garrantzia ere, non arabiar poesiaren espiritua eta teknika hizkuntza erromantze batean Proventzako trobadoreen bidez iritsi baitzitzairen, eta filosofia helenikoaren ideiak arabieraz jakitun musulmanen bidez.

Ezpataren erresuman bi zelaietako kontrako gerrarien arteko sinpatia ustekabeko kidetasunaren aurkikuntzatik sortu zen. Andaluziako gudu-zelaietan andaluziar musulmanek eta mugaz harantzagoko ibeiar kristau-barbaroek batzuetan kidetasun handiagoa sentitu zuten elkarrekiko iberiar kristauk Pirinioez harantzagoko erlijoiokideekin edo iberiar musulmanek Ipar Afrikako erlijoiokideekin sentitu zutena baino. Siriako gudu-zelaietan kaliferriaren agintepeko lurrak inbaditzean Islamera konbertitu ziren turkiar barbaroak ez ziren arerio antipatikoak garai hartako kristau-zaldunentzat, hauek, zibilizazio-mailari dagokionez, ez zeudelarik Erromatar Inperioan indarrez sartzerakoan kristau bihurtu ziren arbaso barbaroak baino askoz gorago. Izan ere, normandoak, frankoen erasoaren lantza-mutur zirenak, seljuktarrak bezain konbertitu berriak ziren barbarotasunetik.

Lumaren eremuan gurutzatuek Sirian egindako aldi bateko konkistak eta, are gehiago, Sizilia eta Andaluziako konkista iraunkor-ragoak Dar-al-Islam-en bizkar, beste horrenbeste transmisio-estazio

bilakatu ziren, hauen bidez komunikatu zitzaizkiolarik Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadeari hiltorian zegoen mundu siriakoko altxor espiritualak. Erlijio-tolerantzia eta jakin-min intelektualaren giro bikaina, Palermo eta Toledoren Mendebaldeko kristau-konkistatzaileak beren ohiko fanatismoarekiko zeukan kontrasteagatik aldi batez liluratu zituen, berezkoa zen hasierako Islamean; baina kultur altxorrek —ingurune mesedegarri honetan, Mendebaldeko buruek ondorengo bi mendeetan musulmanen eta juduen eskuetatik hartu zituztenek— jatorri helenikoa eta siriakoa zuten. Gizarte Siriakoa ez zen Aristoteles lan benetako eta apokrifoen egilea, baizik eta garraiatzaile hutsa, obra horiek latinera eta arabierara egindako itzulpenengatik eskuratu ahal izan zituztelarik hamabigarren mendean Mendebaldeko jakintsuek.

Matematikan, astronomian eta medikuntzan, grekoen kristau-ikasle nestoriotarrek, sirieraz mintzo zirenek, eta nestoriotarren ikasle musulmanek, arabieraz mintzo zirenek, beren aurreko helenikoen lorpenak gorde eta menderatu ez ezik, irakaspenak ere hartu zituzten eskola indiko batean eta beren lan orijinal eta propioa egitera iritsi ziren. Arlo horietan Mendebaldeko Erdi Aroko Kristandadeak garai-ko zientzialari musulmanengandik ikerketa musulmanaren emaitzak hartu zituen, matematika-notazioko «arabiar» sistema delakoarekin batera, musulmanek Indiatik hartua; eta, maila intelektualetik poetikora altxatzen baditugu begiak, zera ikusiko dugu: hiltoriko kultura siriakoaren ordezkari ziren andaluziar musulmanengandik hartutako altxorra bertako arabiar lorpena zela, Mendebaldeko poesi eskola baten ondorengo lorpen guztiak inspiratuko zituen Mendebaldeko Zibilizazioaren Aro Modernoaren bukaera arte... egia baldin bazen Mendebaldeko eskola honetako proventzar trobadore aitzindarien ideia eta idealek, baita bertsifikazio eta errimak ere, andaluziar musulmanen artean izan zutela sorburua.

Mendebalde moderno bere herentzia musulmana baino askoz aurrerago joan zen zientziaren arloan; hala ere, Zibilizazio Siriakoak Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearen irudimen gaztekiro zirraragarrian izandako eragina oraindik bisualki aldarrikatzen zen arkitekturaren eremuan eraikin «gotikoen» bidez, hauek —hemezortzigarren mendeko antikuarioek ezarritako ezizen zentzugabea gezurtatuz— beren aurpegian zeramatelarik armeniar eliza eta seljuktar

karabansarai-en hondakinetan oraindik baziren ereduetatik zetoze la erakusten zuen ziurtagiri nabaria. Hogeigarren mendean Mendebaldeko Europako hiriak artean katedral «gotikoek» menderatuta zeuden, beren aurreko erromanikoak ordeztu zituztelarik, Erdi Aroan Mendebaldean, mundu siriakoko arkitektura-inpaktuak lasterragotuta, izan zen arkitektura-iraultzaren ondorioz.

### *(III) Erdi Aroko Mendebaldea eta Kristandade Greko Ortodoxoa*

Bi kristandade horiei nekezagoa gertatu zitzairen elkarren artean ongi moldatzea auzoko musulmanekin baino. Desadostasuna gertaera historiko honen ondorio zen: Zibilizazio Helenikoak senide ziren bi gizarte sortarazi zituela; zeren eta, aldi berean sortu eta biharamunean, kristau-aroko zazpigarren mendearen bukaera aldera, K.o. 1182-1204ko urte tragikoetan<sup>74</sup> beraien artean izandako azken apurketa baino bostehunen bat urte lehenago, bi gizarte horiek elkarrengandik aldentuta baitzeuden ethos desberdinengatik eta interes-gatazkagatik. Interes-gatazka Hego-ekialdeko Europan eta Hego Italian nagusitasuna lortzeko borrokan burutu zen, borroka hori Kristau Eliza unibertsalaren, Erromatar Inperioaren eta Zibilizazio Helenikoaren legezko oinordeko bakarra izateko errebindikazio kontrajarriek garraztu zutelarik.

Gatazka politikoa eliz eztabaiden itxurapean moztarotuta gera zitekeen. Adibidez, zortzigarren mendean Ekialdeko Kristandade Ortodoxoan irudi-gurtzari buruzko liskarrean Erromatar Aulkiak Ekialdeko erromatar gobernu inperialaren politika ikonoklastaren aurka esku hartu zuenean, zera aitortzen ari zen: Ekialdeko Erromatar Inperiotik Erdialdeko Italian geratzen ziren zatietako jendearen izenean, lonbardiarren aurka Alpeez harantzago —lehenengo Karlomag-noren aitona eta gero aitari— laguntza militarra eskatzeko erabaki politikoa, Konstantinoplatik lortu ezin izan zuen laguntza. Hamaikagarren mendearen erdialdera, liturgi uniformetasunaren alde Erromatik eta Konstantinoplatik sorturiko mugimendu aurkakoek talka egin zutenean, K.o. 1054ko zisma eragin zuen gatazka aldi berean lehia politikoa izan zen aitasantutzaren eliz mendekoen leialtasuna lortzeko Hego Italian, Ekialdeko Erromatar Inperioaren mendeko politikoak baitziren. Hala ere, bi gizarteen arteko haustura ez zen inoiz erabatekoa izan.

Lehen Gurutzadaren garaian, bi gatazka eklesiastiko-politiko horietako azkenekoa baino berrogei urte geroago, Ekialdeko Erromatar Inperioan erreinatzen zuen Alexio I.a Komnenok, zeini gurutzatuak bere lurraldeetatik igarotzeak izugarrizko larritasun politikoa eta egonezin pertsonala eragin baitzizkion, bere alaba Ana Komneno historialariak dioenez, eskrupulu handiak izan zituen bere soldaduei lagun kristauen odola isurtzen uzteko. Ekialdeko erromatar indarrak Anatolian zehar gurutzatuak eskoltatzera bidaltzeko Anak Alexiori egozten dion zioetako bat turkiarren sarraskitik onik ateratzeko ardura da. Alexiok (K.o. 1081-1118 artean erreinatu zuen) gogo txarrez gurutzatuenganako izan zuen tolerantzia hori aldatu egingo zen bilobarekin, Manuel I.a enperadorearekin (K.o. 1145-80 artean erreinatu zuen), honek lagun frankoen eta haien ohituren aldeko joera garbia izan baitzuen; eta prelatuak bi aldeetan izan ziren, baita estatu-politikariak Ekialdeko erromatar aldean ere, bi kristandadeen arteko haustura eragozteko kezka zutenak.

Orduan, eta guztiaren ondoren, zergatik gertatu zen haustura K.o. 1182-1204. urteetan eta gero handiagotu, harik eta hamabosgarren mendean Ekialdeko kristau ortodoxoek nahiago izan zuten arte turkiarren mendeko politiko izan Mendebaldeko aita santu kristauaren eliz nagusitasuna onartu baino? Zalantzarik ez dago okasio hartan erromatar baldintzak latzak zirela, baina hondamendiaren azken arrazoia bi kulturak elkarrengandik gero eta gehiago urruntzean aurkitu beharko da agian, zazpiehun edo beharbada mila urte lehenago agertzen hasitako urruntzea. Zirkunstantzia astungarri bat, hamaikagarren mendean, bi kristau-gizarteen indar eta perspektiba erlatiboan bat-bateko, ustekabeko eta egundoko alderantzikatzeta izan zen, kapitulu honen aurreko atalean ohartarazi duguna.

Zorien alderantzikatzeta politiko eta ekonomiko honen ondorio-etako bat zera izan zen: aurrerantzean, alde bakoitzak itxura jasangaitza aurkeztu zuela bestearen begietara. Ekialdeko kristau ortodoxoen ikuspegitik frankoak *parvenus* ziren, zoriaren kapritxo batek emandako indar zakarra zinikoki ustiatzen ari zirenak; frankoen ikuspegitik, bizantziarrak mandarinak ziren, haien gurari barregarriak ez zeudelarik ez merituz justifikatuak, ez indarrez babestuak. Greziarrentzat latindarrak barbaroak ziren; latindarrentzat greziarrak «levantetar» bihurtzeko bidean zeuden.



Frankoen eta bizantziarren arteko ezinikusia erakusten duen greko eta latinezko literatura ugaritik, alde bakoitzeko bozeramaile adierazgarri baten pasarte argigarri gutxi batzuk aipatuz konformatu beharko dugu. Frankoek bizantziarren aurka zuten aurreiritziaren froga gisa Ionbardiak Liutprando Cremonako gotzainaren txostena aipa genezake, Oton II.a Mendebaldeko erromatar enperadorearen izenean K.o. 968-9an Ekialdeko erromatar gorte inperialean bete zuen eginkizun bati buruzkoa. Bizantziarrek frankoen aurka zuten aurreiritziaren froga gisa, Ana Komneno greziar printzesa historialaria aipa genezake, frankoak era desatseginean ezagutzeko aukera izan zuelarik Lehen Gurutzada baino lehenago eta iraun bitartean ere bai.

Liutprando gotzainak eman zitzaion eginkizun diplomatiko zailean izan zituen kezkabide ofizialak areagotu egin ziren bere garai-ko Kristandade Ortodoxoan eguneroko bizitzan bigarren mailako xehetasun guztiakin izan zuen atsekabe pertsonalagatik. Berari egokitutako jauregia beti zen edo beroegia edo hotzegia, eta apartamentu higuinargi haietan bera eta bere segizioa bakartuta edukitzen zituen segurtasun-poliziak. Merkatariek iruzur egiten zioten. Ardoa edanezina zen eta elikagaiak janezinak. Lazeria gorrian bizi ziren greziar apezpiku guztiak ez ziren batere abegitsuak. Oheak harria bezain gogorrak ziren, eta ez zuten ez lastairarik, ez burkorik. Handik alde egitean eskola-umeen mendekua hartu zuen ostalarien aurka jauregi-ko horma eta mahaian latinezko hexametro-sorta iraingarria zirriborratuz, non bere poza agertzen baitzuen «garai batean oparo eta distiratsua zen, baina orain goseak joa, zin-hausle, gezurti, iruzurti, lapur, gutiziatsu, miserable eta ezjakin zen hiria» azken aldiz ikusteagatik.

Liutprandok Nizeforo enperadore eta haren ministroekin izandako elkarrizketak bi aldeetako ateraldi iraingarriek bizitu zituzten. Liutprandoren disparorik ohargarriena zera zen: «greziarrek sortzen zituztela heresiak eta Mendebaldekoek hiltzen zituztela haiek». Egia zen, zalantzarik gabe; zeren eta greziarrak intelektualak baitziren, eta hainbat mendez teologi huskeriak jorratzen ari izan ziren emaitza tamalgarriekin, eta latindarrak berriz legegizonak ziren, halako zentzugabekeriatarako pazientziarik gabeak. 968ko ekainaren 7an egin-dako oturuntza ofizial batean, bi inperioek erreklamatzeko zuten «erromatarrek» hitz su-pizleak su eman zion bi kristandadeen ordezkarien artean beti azpian egondako erresuminari.

«Nizeforok erantzuteko aukera ukatu zidan, eta iraingarriro erantsi zuen: ‘Zuek ez zarete erromatarrak; zuek lonbardiarrak zarete!’ Jarraitu egin nahi zuen, eta isilik egoteko keinua egin zidan, baina nik onetik aterata hitza hartu nuen. ‘Gertaera historiko nabaria da’, adierazi nuen, ‘Romulo, beragatik deitzen direlarik erromatarrak horrela, fratrizida eta emagaldu baten semea zela —legezko ezkontzatik kanpo jaioa, esan nahi dut— eta Altsazia bat ezarri zuela ordaintzen ez zuten zordun, esklabo iheslari, hiltzaile eta beste krimen nagusi batzuen egileentzat. Kriminal horiek babestu zituen, horrelako jendetza bat bildu eta erromatar deitu zituen. Aristokrazia fin horretatik datoz zuen enperadoreak, edo κοσμοκράτορες, zuek deitzen dituzuen bezala. Baina guk —eta ‘gu’ esatean lonbardiarrak, saxoniar, frantziar, lorrenar, bavariar, suabiar eta burgundiarrak esan nahi dut— hainbestearainoxe mespretxatzen ditugu erromatarrak, ezen, gure etsaiekin pazientzia galtzen dugunean, «erromatarra!» hitza da esan behar dugun guztia, gure hizkeran, izen gaizto bakar horrek doilorkeriaren, koldarkeriaren, gutiziaren, endekapenaren, faltsukeriaren aukera guztiak eta gainerako bizio guztiak hartzen baititu bere baitan’»<sup>75</sup>.

Liutprando bere onetik aterarazi zuenean, enperadoreak teutonieraz mintzo ziren Mendebaldeko lagunekiko elkartasuna aldarrikatzera akuilatu zuen latindar apopiloa, «erromatar» guztien aurkako ezinikusi komunean. Geroago elkarrizketa atseginago batean Nizeforok «frankoak» hitza erabili zuen latindarrak eta teutoiak biak barne hartzeko, eta erabilera hori Liutprandoren leherraldi adierazgarriak justifikatua zegoen. Nahiz eta Liutprando latindarretan latindarra izan bere kultura intelektualagatik —oso aditua baitzen literatura heleniko klasikoaren latinezko bertsioan—, kultur oinarri heleniko komunak ez zuen haren bihotzean kultura beraren oinordeko ziren greziar garaikideekiko kidetasun-sentimendurik sortu. Hamargarren mendeko italiar haren eta hamargarren mendeko greziar haien artean leize handia zegoen jada, baina ez zegoen halako leizerik Liutprandoren eta haren ugazaba saxoniarren artean.

Aipatu dugun guztiak, onartu beharra dago, asko argitzen du Liutprandoren nortasuna, baita zerbait garrantzitsuagoa ere, eta enperadorearen itxura pertsonalaz haren karrikatura zabarrak, aipua eman-go bagenu, are gehiago argituko luke. Lonbardiarrak gotzaina ezpal zaba-

rrekoa zen, eta haren aurrean jarritako bizantziar perlak itxurazko perlak bakarrik baldin baziren, hori ezartzean aldi berean eta zalantzarik gabe benetako txerri gisa agertzen da bera. Bizantziar Gizarteak garai bereko frankoen gain zuen nagusitasunaren neurria Liutprandoren *Relatio*-ren eta Ana Komnenok normandiar abenturazale Bohemundoz egiten duen erretrato objektibo eta zorrotzaren arteko aldeak erakusten du, nahiz eta piztia ilehori honen gerra-zaletasunak, saldukeriak eta handinahikeriak Anaren aita inperialari askoz arazo gehiago sortu zizkieten, Nizeforo enperadoreak inoiz Liutprandori eta haren saxoniar ugazaba inperialei sortu zizkienak baino. Gizon nordikoaren espezimen bikain horren fisikoaren deskribapen zehatzari —‘zeinen gorpuzkerak Polikletoren kanonaren proportzioak baitzituen’— hasieran Anak goraiamen\_eskuzabala egiten dio:

*«Hura bezalakorik ez zen ikusten Erromania osoan. Ez ze goen barbarorik edo grekorik harekin pareka zitekeenik. Ez zen bakarrik gauza miragarria ikusteko; kondairazko irudi bat zen, haren deskribapen hutsak arnasgabe uzten zintuelarik».*

Emakume-elokuentziaren leherraldi honen zatzada bukaeran zetorren:

*«Bere sudurzulo heroikoetan naturak irteera eman zion haren bihotzean irakiten zuen espiritu ahaltsuari, zeren eta aitortu beharra baitago bazela zerbait erakargarria gizon haren aurpegian, nahiz eta horren efektua ezkutuan geratu haren itxura orokorrak zertzen zuen zirrara beldurgarriagatik. Piztia harrapari baten errukirik eza zabalitzen zuen haren izaki osoak...; begiradan zuen zerbaitek salatzen zuen... eta haren barreak ere bai, beste batzuen belarrietan lehoiaren orroa bailitzan entzuten zena. Haren egitura espiritual eta fisikoaren arabera, basakeria eta gutizia beti neurrigabeak ziren harengan, eta bi grina horiek etengabe ari ziren ihesbide bila gerran».*

Anaren garaiko franko adierazgarrienetako baten deskribapen liluragarri hori ia berdindu egiten du bizitasunean frankoen ikuspegi orokorrak, Lehen Gurutzada Kristandade Ortodoxora joan zenekoa kontatzerakoan idazleak atariko gisa jartzen duena.

*«Frankoen armada ugariak hurbiltzen ari zirela jakiteak Alexio enperadoreari larritasun dezentea sortu zion. Berak oso ongi ezagutzen zituen frankoen oldar kontrolaezina, buru-aldakortasuna*

*eta sugestionagarritasuna eta Mendebaldeko barbaroen (Κέλτοι) aspaldiko beste ezaugarri —primario eta sekundario— batzuk. Halaber, ohitua zegoen gutizia aseezinarekin, barbaro haiek itunak hausteko edozein aitzakiaz baliatzeko zuten arinkeriaren sinonimo egin zituena. Horrelako ospea zuten orokorrean frankoek, eta erabat berretsi zuten beraien egintzek... Gertatua aurreikusitakoa baino askoz ere harrigarriago eta beldurgarriagoa izan zen. Gertatu zen Mendebalde osoa, Adriatikoaren mendebaldeko kostaren eta Gibraltarreko itsasartearen artean bizi ziren barbaroen tribu guztiak barne, migrazio masiboan abiatu zela eta Asiarako bidean zegoela, zaku eta fardel, European tartean zeuden eskualdeetan zehar».*

Lehen Gurutzada igarotzean Alexio enperadoreak pairatu zuen atsekaberik garratzenetakoa zera izan zen, ongi etorriak ez ziren eta begirunerik gabeko buru-kamuts haiek administratzaile saiatu bati mugarik gabe galarazi ziotela denbora baliotsua.

*«Egunsentia urratzean, edo behintzat eguzkia irtetean, Alexio tronu inperialean eseri ohi zen eta berarekin entzunaldia nahi zuen Mendebaldeko edozein barbaro harengana asteko edozein egunetan inolako murrizketarik gabe joan zitekeela jakinarazten zuen. Haren arrazoietako bat, berehalakoa, eskakizunak aurkezteko aukera ematea zen, eta beste bat, epe luzeagora begira, elkarriketa haiek eskaini ziezaioketen aukeraz baliatzea bere politikaren norabidean haiei eragiteko. Mendebaldeko baroi barbaro hauek badituzte nazio-ezaugarri maltzur batzuk —lotsagabekeria, oldarkeria, gutizia, sortzen zaien edozein grinari amore ematerakoan beren buruaren kontrolik eza eta, azkenik, baina ez garrantzi gutxienekoa, berritsukeria—, munduko marka dutelarik horietan; eta diziplina-gabezia tipikoa erakutsi zuten enperadoreagana iristeko erraztasunaz abusatzean.*

*«Baroi bakoitzak enperadorearen aurrera gogoak ematen zion adina jarraitzaile eramaten zituen berekin, eta bata bestearen atzetik igarotzen ziren etengabeko ilaran. Are okerrago, hitz egiten ari zirenean ez zioten beren buruari inolako denbora-mugarik ezartzen, Atikako hizlariak egin behar izaten zuten bezala. Urliak, sandiak eta berendiak bakoitzak nahi zuen adina denbora hartzen zuen enperadorearekin hitz egiteko. Ziren bezalakoak izanda —hizkera burlati desegokiarekin, enperadoreaganako erabateko begirune-ezarekin, denboraren zentzurik gabe, eta inguruko funtzionarioen suminarekiko senti-*

*beratasunik gabe—, haietako inori ez zitzaion bururatzen ilaran atzean zeudenentzat denborarik uztea; haiek hizketan eta eskean jarraitzen zuten bukaerarik gabe.*

*«Mendebaldeko barbaroen hizketaren aldakortasuna, izaera mertzenarioa eta hutsalkeria ezagunak dira, noski, izaera nazionalak aztertzen dituzten guztientzat; baina zuzen-zuzeneko esperientziak ezaguera sakonagoa eman die Mendebaldeko barbaroen izaeraz okasio haietan bertan egoteko zoritxarra izan zutenei. Ilunabarra etorri eta entzunaldiak bukatzean, enperadore zorigabea —baraua hausteko aukerarik gabe egun osoan lanean jarduna— aulkitik jaiki eta bere apartamentu pribatuetarantz abiatzen zen; baina seinale garbi honek ere ez zuen libratzen barbaroek gogait eragitetik. Han jarraitzen zuten beren arteko lehentasunagatik eztabaidan, eta joko hau ez zuten artean ilaran zeudenek bakarrik egiten; baizik eta egunean zehar beren entzunaldia izan zutenek ere itzuli eta aitzakia batez edo bestez baliatuz berriro hitz egiten zuten enperadorearekin; bitartean, gizagaixoak zutik egon behar, inguruan zuen barbaro-saldoaren hizkuntz nahaspila harekin moldatzeko. Ikustekoa zen biktima leial honek nolako adeitasunez jarraitzen zuen jendetzaren interpelazioei erantzuten, eta garai kanpoko berriketa hura ez zen amaitzen; zeren eta, txanbelanetako bat barbaroak isilarazten saiatzen bazen, bera isilarazten baitzuen enperadoreak, bai baitzekien frankoak zein erraz ateratzen ziren beren onetik, eta beldur zen probokazio hutsalen batek leherketa eragin eta Erromatar Inperioari kalterik larriena ekarriko ote zion».*

Espero zitekeen elkarrenganako hain ezinikusi handiak erabat ezabatuko zituela kulturalki elkarri eragiteko aukera guztiak; hala ere, gurutzaudek fruituak eman zituzten franko eta bizantziarren arteko, baita franko eta musulmanen arteko kultur ondasunen trukean.

Arabierara itzulitako literatura helenikoaren corpusaren laburpen filosofiko eta zientifikoa musulmanengandik lortu ondoren, Erdi Aroko Mendebaldeko kristauak berandu osatu zuten beren liburutegi helenikoa, kontserbatu ziren «klasiko» guztiak beren jatorrizko hizkuntzan eskuratuz. Ekialdeko Mendebaldearekiko zertu zuen zor kulturala ustekabekoagoa izan zen. Hamahirugarren mendean Konstantinopla eta Morea konkistatu zituzten frankoek greziar biktimei egin zieten ustekabeko baina garrantzi handiko literatur zerbitzua eta garai berean Txinaren konkistatzaile mongolek oharkabea txina-

tarrei egin zieten berdinak ziren. Txinan konfuziar letragizonen aldi bateko eraisketak aukera beranta eman zion murgilduta zegoen herri-literaturari bertako hizkuntza bizian Txinako gizarte-bizitzaren gainaldera irteteko, non sekula ez baitzuen aukerarik izan bere bizitasunaren erakusketa harrigarria egiteko konfuziar pentsaerako funtzionarioek kultur arloan zertu zuten gobernu zapaltzailearen pean, hauek antzinako klasiko sinikoen esklabo leial sendaezinak zirelarik. Barbaroz betetako Kristandade Ortodoxoan kausa berak ondorio bera eragin zuen eskala txikiagoan, lirika herrikoi eta poesia epikoaren loratzean. *Moreako Kronika*-ren moreatar autore frankoak bertako azentuzko bertso greziarrak erabili zituen, oztopo klasikoetatik erabat libre, hemeretzigarren mendearen hasierako greziar bertsoa iragarritz.

Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearen eta garai bereko Ekialdeko Kristandade Ortodoxoaren artean trukaturiko opari guztietatik garrantzitsuen aginte absolutuko estatuaren erakunde politikoa izan zen, Ekialdeko Erromatar Inperioan gorpuztua eta Mendebaldeari komunikatua bezala, hau da, Ekialdeko Erromatar Inperioak Apulia eta Sizilian izan zuen agintepeko lurraldean hamai-kagarren mendeko normandiar ezpatek eraturiko Mendebaldeko ondorengo estatuan bideragarri zen erakundea. Honek Mendebaldeko begi guztiak erakarri zituen —batzuek mirespenez eta beste batzuek gorrotoz begiratu arren— Federiko II.a Hohenstaufen-arengan gorpuztu zenean; zeren eta *Stupor Mundi* hau, normandiar amaren bidez Siziliako erresuma heredatzeaz gain, Mendebaldeko erromatar enperadore ere bazen, eta jeinu-gizona, gainera. Leviatar absolutismo honen azken gorabeherak, kristau-aroko hogeigarren mendean izan zituen adierazpen «totalitarioetaraino», dagoeneko jorratu ditugu Azterlan honetan lehenagoko orrialdeetan.

### *c) Lehenengo bi belaunaldietako zibilizazioen arteko topaketak*

#### *(1) Alexandro-osteko Zibilizazio Helenikoarekiko topaketak*

Historia helenikoaren Alexandro-osteko ikuspegi helenikotik, Alexandroren belaunaldiak iraganarekin haustura adierazi zuen eta aro berri baten hasiera, Mendebalde modernoaren historiaren Mendebalde modernoko ikuspegian, «Erdi Aro»tik «Aro Moderno»-

rako trantsizioa hamabosgarren eta hamaseigarren mendeen arteko abiapuntu harrigarri eta berrien koiuntura batek markatu zuen bezain zorrotz. Historiaren bi atal berri horietan, orainarekin konparatuta iragana gutxiesteko oinarriak nabariena bat-bateko botere-gehitzearen kontzientzia zen, bai beste gizaki batzuen gaineko boterea, konkista militarretan adierazia, bai izadi fisikoaren gaineko boterea, geografi esplorazioetan eta zientzi aurkikuntzetan adierazia. Akemenestarrak eraisteko mazedoniarren balentria inkak eraisteko espainiarren balentria bezain bizkorgarria izan zen. Baina hori ez zen guztia. K.a. hirugarren mendeko greko bati edo kristau-aroko hamaseigarren mendeko mendebaldar bati eskatu balitzaio aro berri baten hasieraren kontzientzia oinarritzeko zituen sentipenak adierazteko, ziur aski garrantzi gutxiago emango zion bere gizartearen botere materiala gehitzeari, ikuspegi mentala zabaltzeari baino. Ordu arte alegiazkoa zen Indiaren aurkikuntzak eragindako sentipenean —bertaraino joan zirelarik mazedoniarrek kontinentea zeharkatuz eta portugaldarrak ozeanoa menderatuz— botere-zentzua, bi okasioetan, mundu arrotz miresgarri baten agerpenak eragindako lilura-zentzuak mugatu eta areagotzen zuen. Mundu helenikoan Aristotelesen eta haren ondorengoen aurkikuntza zientifikoek eta Mendebaldeko munduan kultura helenikoaren «berpizkundeak» eragindako sentipenean, jakintza berritik sortutako botere-zentzua era berean ezintasun-zentzuak mugatzen zuen gizakiaren ezjakintasun erlatiboaz oroitzean, unibertsoaren ulerkuntzan gizakiaren aurrerapauso bakoitzak ekarri ohi duen oroitzapena, alegia.

Bi garaien arteko paraleloa urrutirago ere eramán daiteke. Badakigu Mendebalde modernoaren eragina mundu-mailakoa izan zela eta, pentsatu gabe, uste izan genezake zentzu honetan Alexandro-osteko Zibilizazio Helenikoak paper kaskar samarra zertzen duela. Baina ez da horrela. Alexandro-osteko Zibilizazio Helenikoak azke-nean Gizarte Siriako, Hitita, Egipziako, Babiloniko, Indiko eta Sinikoarekin izan zituen topaketak; hain zuzen ere, zibilizazio-prozesuan zeuden eta Mundu Zaharrean haren garaikide ziren gizarte guzti-guztiekin.

Baina orain desberdintasun garrantzitsu bati jarri behar diogu arreta. Mendebalde modernoak garaikideengan izandako eragina aztertzean, izan dugu aukera bereizteko Goiz Aro Modernoa artean,

non Mendebaldea bere kultura osoa ari baitzen zabaltzen, bere erlijioa barne, eta Berant Aro Modernoa, non Mendebaldea bere kulturaren laburpen sekular bat ari baitzen zabaltzen, bertatik erlijiozko osagaia kendu ondoren. Helenismoaren zabalkundearen Alexandro-osteko historian ez dago pareko atal-zatiketarik; zeren eta, Mendebaldearekiko konparazioz, helenismoa goiztiarra baitzen intelektualki. Helenismoa hornikuntza kaskarrarekin hasi zen erlijioaren eremuan, eta bere erlijiozko krisalidatik Alexandroren aroa hasi baino mende oso bat lehenago sortu zen.

Emantzipazio espiritualaren krisi heleniko horretan, Olinpoko panteoi barbaroaren arduragabeko moraltasunik ezarekiko atsekabea eta odolaren eta lurraren kultu «ktonikoek» ustiatzen zuten bitzta erlijiosoaren geruza espiritualki sakonagoa, baina baita ilunagoa ere, bizkor gainditu zituen janari espiritualaren gose asegabeak. Beraien konkista militar eta intelektualen aurrerapen garaileak Alexandro-osteko helenoak helenikoak ez ziren erlijio kementsuekin harremanetan jarri zituenean, esperientzia honek bihotz helenikoetan eragin zuen zirrarara perla baliotsu baten jabe pribilegiatuekiko inbidia irrikatsua gehiago izan zen iruzurrezko apaizgoaren biktimgenganako mespretxua baino. Mundu helenikoa atsekabez jabetu zen erlijiozko hutsunea ari zela pairatzen. Maila intelektual nahiz militarrean helenismoak gatibu hartu zituen gizartearen erlijioak onartzeko Alexandro-osteko konkistatzaile helenikoek izan zuten jarrera hori, eragin heleniko erasokorrek beste sei gizarteetan izandako garrantzi handiko erlijio-ondorioen kausa bat izan zen. Alejandro-osteko helenismoaren goraldi eta beheraldiaren neurria hartu behar dugu, haren ondorio erlijiosoak beren testuinguru historikoan ikusi nahi baditugu.

Mazedoniar eta erromatar erasotzaile militarren lehen helburua biktimen ustiatze ekonomikoa zen; hala ere, kultura helenikoa zabaltzeko xede bikainagoaren aitorpena ez zen gezurrezkoa, hitzetatik ekintzetara zenbateraino eraman zen ikusteak erakusten duen bezala. Kultura helenikoaren aberastasun espirituala banatzeko promesa betetzeko konkistatzaile helenikoek izan zuten tresna nagusia Greziatik kanpo hiri-estatuak sortzea izan zen, haietatik hiritar kolonizatzaile helenikoen nukleo batek helenismoaren argia zabalduko zuelarik. Politika hori Alexandrok berak hasi zuen eskala handian, eta gero, lau



mende eta erdiz, haren ondorengo mazedoniar eta erromatarrek jarraitu zuten Hadriano enperadoreaganaino.

Konkistatzaile helenikoek borondate on gehiago edo gutxiagorekin egindako kultura helenikoaren zabalkunde hori ez da, hala ere, greko ez zirenek berez egindako imitazioa bezain ohargarria, horren ondorioz Alexandro-osteko kultura helenikoak armada helenikoek inoiz okupatu gabeko —edo, okupatu bazituzten ere, Alexandro hil ondorengo beheraldian berehala abandonaturiko— lurraldeen konkistak baketsuak egin zituelarik. Arte helenikoaren lanketak (Baktar Inperio baten ondorengo Kusana estatuan, hindu-Kusanan zangalatraba, K.a. azken mendean eta kristau-aroko lehen mendean) eta zientzia eta filosofia helenikoaren lanketak (Seleukotar Greziar Inperio baten ondorengo sasaniar eta abbastar estatuetan) itxaron egin behar izan zuten uzta emateko, konkista militar helenikoaren esperientzia etorri ez ezik joan ere egin arte. Antzeratsu, mundu siriakoa ez zen hasi Greziako zientzia eta filosofian berezko interesa erakusten aginte helenikoaren mendetik libratzen hasi arte, bere buruari kristautasun propioa emanez heresia nestoriotar eta monofisiten eran, baita literatur baliabide propioa ere, hizkuntza siriakoaren eran.

Konkistatzaile helenikoek sekula zapaldu gabeko eskualdeetan kultura helenikoa era baketsuan sartzeak eta, menderakuntza militarra behera egin ondoren, helenismoaren hil ondorengo garaipen artistiko eta intelektualak irakaspen berbera ematen dute; eta irakaspen heleniko hori argigarria da zibilizazio garaikideen arteko topaketen azterketa orokorrerako. Argi hura ikusten zuten histori ikertzaileek Azterlan honen idazlearen belaunaldian, prozesu osoa ezagutzen zutelako; eta hori Mendebalde modernoarekin zeuden topaketen eza-gutzaren egoerarekin ez bezala, non, informazio zehatzaren uholde bat, historia helenikotik guregana iritsitako erregistro urriekiko batere proportziorik gabea, bat-batean prozesuaren erdian moztuta geratzen baitzen gizakiak etorkizunaz duen ezjakintasunaren burdinazko errezelaz.

Ea garaikideen arteko kultur merkataritzan indar-ezintasuna egunen batean argituko ote zen Mendebalde modernoaren historian, jada Alexandro-osteko historia helenikoan agertu zen bezala, oraindik erantzun gabeko galdera zen K.o. 1952an; eta galdera-ikur enigmatiko horrek aztertzaileari zera gogorarazteko balio zuen: berari hurbi-

len, dokumentatuen eta ezagunenak zitzaizkion gertaera historikoak zirela ondorioz argibide gutxienekoak bere ikerketaren xederako, giza arazoen norabide eta izaera orokorra ikertzeko, alegia. Bazirudien Gizarte Heleniko batekiko topaketen historia urrutienak eta dokumentatu gabeenak honetaz gehiago irakatsiko ziola, eta, batez ere, gehiago zibilizazioen arteko topaketen emaitzaz erlijio-mailan.

Hogeigarren mendeko Mendebaldeko historialariarentzat garbi zegoen, bere garaian, arte helenikoaren berezko onarpenak bosgarren mendeko mundu sinikoan, eta zientzia eta filosofia helenikoaren onarpenak bederatzigarren mendeko mundu siriakoan, mazedoniar eta erromatar armaden balentrien bide bera egin zutela. Alexandro-osteko helenismoaren eta bere garaikideen arteko transakzio artistiko eta intelektualak, militar eta politikoak bezalaxe, garai honetarako, kontu kitatuak ziren. Bestalde, topaketa horien emaitzen eragin eten-gabea hogeigarren mendeko gizadiaren bizitzan ondorengoak aldarrikatzen zuen, alegia, gizadian bizi zen belaunaldiaren gehiengo handi batek lau erlijioetakoren bati —kristautasun, Islam, mahayana eta hinduismoari— zion atxikimenduak, horien epifania historikoak atzera eraman zitezkeelarik jada desagertutako helenismoak, jada desagertutako Ekialdeko zibilizazioekin izandako topaketek gertakarietarinak; eta giza arazoen etorkizuneko bideak intuizio bat berretsiko balu —alegia, erlijio nagusiak gorpuzten zituzten eliza unibertsalak zibilizazioak baino baliabide egokiagoak zirela gizakiei giza ahaleginen helmugarantz beren erromesaldia egiten laguntzeko—, Alexandro-osteko helenismoarekiko topaketek histori azterketa orokor guztien gai nagusia argitzen dutela ondorioztatuko litzateke, Mendebalde modernoarekiko topaketek argitzen ez zutena.

## *(II) Alexandro-aurreko Zibilizazio Helenikoarekiko topaketak*

Alexandro-aurreko Gizarte Helenikoa protagonista izan zeneko drama, eta mila eta zortziehun urte geroago Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadeak paper nagusia izango zuen obra, Mediterraneoko jokaleku berean antzeztu ziren; eta bi antzezpenetan hiru aktore izan ziren oholtzan. Alexandro-aurreko helenismoaren bi lehiakideak senide zen Gizarte Siriakoa eta garaiz lehen suntsituriko Gizarte Hititaren gerakin fosildua ziren, azken honek Taurus-ko gotorlekuan iraun zuelarik bizirik. Mediterraneo arroa menderatzeko

alderdi horien arteko lehian, feniziarrek izan ziren Gizarte Siriakoaren ordezkari, eta itsasgizonak Hititaren ordezkari, azken hauek itsasoz bestaldean ezarri ziren lurraldeetan grekoz tirreniartzat eta latinez etruskotzat ezagutu zituztelarik lehiakide helenikoek.

K.a. zortzigarren mendean hasitako hiruren arteko lehia horretan sariak hauek ziren: Mendebaldeko Mediterraneoren kostaldeak, han bertakoak, kulturalki atzeratuak, ez zirelarik arrisku hiru gizarte lehiakide kanpotarrentzat; baita Itsaso Beltzaren ertzak ere, eurasiar esteparen mendebaldeko Badia Handira irekiak, honek sarbide ematen zuelarik esteparen ipar-mendebaldeko zerrendan zehar zegoen lur beltzeko zati goldagarria; baita aspaldidanik oso landua zegoen Egiptoko lurraldea ere, hango zibilizazioa iritsia zelarik zahartasun-puntu batera, non ez baitzen gai auzoko arrotzei atzera eusteko beste baten zerbitzuak erabili gabe.

Sari horiengatiko lehian, grekoek zenbait abantaila izan zuten beste bi lehiakideen aldean.

Abantailarik nabariena geografikoa zen. Operazio-base helenikoa Egeon Mendebaldeko Mediterraneotik hurbilago zegoen, eta Itsaso Beltzetik askoz hurbilago, etruskoen eta feniziarren baseak Mediterraneoren ekialdeko muturrean helburu horietako edozeinetatik baino. Gainera, grekoek bazuten beste abantaila bat biztanleriari zegokionez, historia helenikoaren aurreko atalean goi-lurren gain behe-lurrek izandako garaipenaren emaitza gisa metaturikoa. Ondorioz biztanleriak Helasko bizibideetan zertzen zuen presioak grekoen hedapenari indar lehergarria eman zion eta akuilatu egin zituen itsasoz bestaldean merkataritza-guneak jartzera, horrela mundu berri hau Magna Grezia bihurtu zutelarik landan nekazari-kolonizatzaile helenikoen ezarpen bizkor eta ugariaren bidez. Gure frogatik urriek iradokitzen dutenez, ez etruskoek eta ez feniziarrek ez zeukaten garai hartan harekin konparatzeko moduko jende-kopururik; eta, edonola ere, garbi dago haietako inork ez zuela berdindu lorpen helenikoa, hots, mundu berri bat bere egitea kolonizazioaren bidez.

Grekoek zeukaten hirugarren abantaila, lehenengoa bezala, beren egoera geografikoaren ondorio zen. Mediterranea lortzeko hiru lehiakide horien arteko lehiaren hasiera denboran bat etorri zen asiriar militarismoaren azkena eta okerreana izan zen erasoaldiaren hasierarekin, arrisku haren mende zeudelarik kontinente asiaticoa

feniziar eta etruskoak, grekoek, berriz, hartatik libratzeko aski mendebaldera bizitzeko zori ona zuten bitartean<sup>76</sup>.

Eragozpen horiek kontuan izanda, harrigarria da feniziarrek eta etruskoek jokatu zuten bezain ongi jokatzea. Itsaso Beltzarengatik lehian, espero bezala, erabat menderatu zituzten. Itsaso Beltza aintzira heleniko bilakatu zen; eta estepako barealdian, zimeriar eta eszitiar nomadak sartu ondoren, Itsaso Beltzeko nagusi helenikoak eta eurasiar estepako mendebaldeko badia handiko eszitiar nagusiak probetxuzko merkataritza-elkartzeari ekin zioten, lur beltzean eszitiarren mendeko sedentarioek hazitako labore-uztak itsasoz bestaldera eramaten baitziren Egeo arroan hirietako biztanleria helenikoa janaritzeko, errege-eszitiarren gustua asetzeko diseinaturiko luxuzko artikulu helenikoekin trukatzuz.

Mendebaldeko Mediterraneoan borrokak luzeago iraun zuen eta gorabehera asko izan zituen, baina han ere garaipen helenikoan bukatu zen.

Egiptorengatik lehia laburragoan ere —hiru helburuetatik honetan bakarrik ez zegoen hurbiltasun geografikoaren abantaila grekoen alde— zazpigarren mendeak berriro grekoak ikusi zituen saria irabazten, Psametiko I.a faraoi askatzailearen egiptoar gobernua «itsasotiko gizon lotsagabe» joniar eta kariarrez hornitzean, hauek asiriarrak goarnizioak Behe Niloko arrotik botatzeko eginkizunerako erreklutatu zituelarik K.a. 658-651n.

K.a. seigarren mendearen erdialdera, ematen zuen greziarrak, Mediterraneo arroarengatik itsas lehia irabazteaz gain, asiriarrak Hego-mendebaldeko Asian zuten inperio kontinentala heredatzeko bide egokian zeudela. Psametikoren mertzenario helenikoek asiriarrak Egiptotik bota baino mende-erdi bat lehenago, Senakerib sumindu egin zuen bere agintepeko lurren siziliar kostan «itsasotiko gizon lotsagabe» heleniko kanpotarren matxinada ausartak; eta ematen du Asiriarr Inperioaren ondorengo estatu neobabiloniarrak Egiptoren jarraibideari segitu ziola mertzenario helenikoak alokatzean, suposatzen badugu beste soldadu heleniko mertzenario batzuek Nabukodonosorren guardi taldean zerbitzatu zutela Lesbosko Antimenidasen ondoan, honen izena eta oroitzapena ahaztu gabe geratu direlarik Altzeo poetaren anaia izateagatik. Akemenestar Inperioa Alexandrok konkistatu aurretik eta iragarpen gisa, akemenestarrek

eurek mertzenario helenikoak erabili zituzten saldoan. «Alexandro» bat historiaren agertokian bere benetako data baino bi mende lehenago agertu balitz bezala ematen zuen. Baina benetan antzeztokian ez zegoen Alexandroren aitzindari zen mamu bat, benetako Ziro baizik.

Seigarren mendeko grekoek Egipton eta Hego-mendebaldeko Asian zituzten perspektibak bertan behera geratu ziren Zirok Lidiar Inperioa *circa* K.a. 547an konkistatu eta haren ondorengo Kanbisesek Egipto *circa* K.a. 525ean konkistatu bitartean gutxi gorabehera igarotako hogeitaz urteetan. Zioren kolpea, hiri-estatu helenikoetan Anatoliaren mendebaldeko itsasertzean zehar ohiko lidiar subiranotasunaren ordeztasunari pertsiar subiranotasun arrotza jarri zuena, bietako zorrotzeta eta harrigarriena izan zen; baina Kanbisesek Egipto konkistatzeak grekoei kolpe bikoitza eman zien; «gizon lotsagabeen» ospe militarri balioa kendu zion eta grekoen merkataritza-interesak Egipton pertsiarren borondate onaren mende utzi zituen. Are gehiago, ezbehar heleniko horiek areagotu egin ziren pertsiar inperiogileek sirofeniziarrei eman zizkieten onura bat-bateko eta garrantzitsuengatik.

Juduei Babiloniako gatibualditik itzultzen eta beren arbasoen hiria zen Jerusalem inguruan garrantzi politikorik gabeko tenplu-estatu eraikitzen utzi zien akemenestar politika berberak, kostako sirofeniziar hiriei eurentzako autonomia ez ezik beste siriar komunitate batzuen gain —akemenestar subiranotasunaren pean— agintea ere eman zien, eta horrek gutxienez mundu helenikoko hiri-estatu ahaltsuenen parean jartzen zituen. Ekonomikoki, are harrigarriagoak izan ziren haien irabaziak; elkarte batean partaide aurkitu ziren, elkarte hori lehorrean Mediterraneo Itsasoaren siriar ertzetik *Homo Agricola*-ren ipar-ekialdeko aurrepostuetaraino, ia kondairazko urruntasunean, eurasiar estepa handiaren Sogdianako ertzean zeudenetaraino, hedatzen zelarik.

Bitartean, mendebaldean sortua zen feniziar kolonia bat, bere sorleku izandako siriar hiria aberastasun eta boterean gauditua zuena, kristau-aroko hogeigarren mendean Mendebalde modernoak Ozeano Atlantikoaz bestaldean zuen «kolonia» nagusiak bere hiritarren jaitterri izandako europar estatuak gauditutik zituen bezala. Kartagok hartu zuen feniziar kontraerasoaren gidaritza, ikuspuntu helenikotik lehen gerra punikoa dei zitekeena, izen hori askoz geroago drama luze-luze

hartan bertan beste ekitaldi batek ez balu bereganatu izan. Emaizta zalantzazkoa izan zen, baina esan daiteke, K.a. seigarren mendea bukatu baino lehen, mundu helenikoaren hedapena alde guztietan gerarazita zegoela lehian zeuden gizarteetako kide mehatxatuen konbinazioz, eta, haren ondoren, espero izatekoa zen mundu helenikoaren eta siriakoaren artean ordu arte mugikor izandako ekialdeko eta mendebaldeko mugak akemenestar eta kartagoar inperiogileek marrazturiko lerroen arabera ezarrita eratuko zirela.

Hala ere, oreka hori K.a. bosgarren mendea ia hasi orduko geratu zen hautsita: historiako gerrarik ospetsuenetako baten atarian gaude. Nola azalduko zuen historialariak bukaera harrigarriro dohakabe hau? Giza arazoen aztertzaile helenikoak ezbeharraren kausa *hybris*-egintzaren batean aurkituko zukeen, erorikoaren aurretik sortzen den harrokerian, jainkoek suntsitu nahi dituztenei bidaltzen dieten eromenean; eta Mendebalde modernoko ikertzaileak, naturaz gaindiko azalpen horren eztabaidan sartu gabe, bere ikerketak giza maila hutsean eraman litzake aurrera.

Gatazka berritu zuen giza eragilea akemenestar politikaren errakuntza bat izan zen; eta errakuntza hau kalkulu oker bat izan zen, inperiogileak sarri erori ohi direlarik horretan ikaragarri konkista zabal eta bizkorrak egin dituztenean harrapakin errazak gertatu zaizkien herrien bizkar, aurretiko esperientzia beldurgarriengatik herri hauen espiritua jada hautsita zegoelako. Egoera horretan arrakasta erabat beren balentriari egoztera jotzen dute inperiogileek, aitzindarietara beren zorra aitortu gabe, nahiz eta haien golde errukigabeek urratu zuten lurra gero inperiogileak jokalekura iritsi baino lehen beren uzta erraza jasotzera; eta autokonfiantza harroputzak, beren garaitezintasunean zuten sinesmen okerrak eraginak, azkar asko hondamendira eramaten ditu oraindik makurtu gabeko herriei zuhurtzirik gabe eraso eginez, hauen erresistentziari espiritua eta gaitasunak uste-kabea harrapatzen dituelarik. Hauxe da jada jota zegoen Mogolen Inperioak Indian abandonaturiko eremuaren britainiar konkistatzaileek K.o. 1838-42an Afganistanen jasandako hondamendiaren kontua; izan ere, arinegi uste izan zuten Ekialdeko Irango menditar zaurigabeak azpikontinenteko jende jipoitua bezain otzan makurtuko zitzaizkiela, hauek bost mendez izandako gobernu atzerritarraren esperientzia etsigarria mende bateko anarkiaren min handiekin burutu zelarik.

Ziur aski Zirok uste izan zuen behin betiko muga ari zela ipar-mendebaldean uzten bere ondorengoei, aurretik Lidiaren subiranotasuna onartu zuten Asiako greziar komunitateak menderatu eta lidiar eremuen konkista osatu zuenean. Baina Apolok Lidiako Kreso erregeari egindako ohartarazpena, hots, Halis ibaia zeharkatzen bazuen botere handi bat suntsituko zuela, ikuspegi luzexeagoan aurrezagutza gutxiagorik gabe, Kresoren konkistatzaile izan zen Zirori zuzendua izan zitekeen, ibai berean beste aldeko ertzean zegoelarik geralditxo bat egiten; zeren eta Lidiar Inperioa konkistatzean, Ziro oharkabean mundu helenikoarekiko gatazka bat ari baitzen ondorengoei uzten, azkenean Akemenestar Inperioaren heriotza ekarriko zuena.

Ziro Lidiarekin zuen ibai-muga desatsegingarriaz libratu zen, Lidia konkistatuaren gain zuen agintea Anatoliako kostaraino hedatuz; Dariok uste izan zuen bera libra zitekeela Helasen gerakin burujabearekin zuen itsas muga desatsegingarritik Helas osoa bere subiranotasunaren mende jarrita. Asiako errebolta helenikoaren azken ilintiak K.a. 493an itzali ondoren, Europako Helasen aurkako ekintzak hasi zituen berehala. Ondorioa Maraton, Salamina, Platea eta Mikaleko porrot historikoak izan ziren, hogeigarren mendean Mendebaldean Helasen oinordeko direnek oraindik garaipen historikotzat gogoratzen dituztenak.

Asian zituen mendeko helenikoen erreboltari erantzutean, Europako haien kide eta lagunak konkistatzea erabakiz, Dariok, zazpi urteko altxamendua (K.a. 499-493) berrogeita hamaika urteko gerra (K.a. 499-449) bihurtu zuen, eta hori bukatzean akemenestarrek etsipenez onartu behar izan zuten beren mendebaldeko anatoliar itsasertzat galtzea. Denboraldi berean kartagoarrek helenoei Sizilian egindako erasoak hondamendi handiagoan bukatu zen erasotzailearentzat, eta Mendebaldean lehorrean izandako garaipen heleniko horren ondoren beste bat itsasoan izan zen, etruskoek mundu helenikoaren Campaniako aurrepostuari eraso ziotenean Kumas-en, Italiako mendebaldeko kostan, Naples baino mendebalderaxeago.

Hau zen egoera K.a. 431ko data zorigaiztokoan, anaiarteko gatazka sortu baitzen greziarren artean: Ateno-peloponesiar gerra. Gizarte Helenikoaren baitan honela hasi zen gerrak bere kolapsoa iragarri zuen; zeren eta, bakealdi laburrekin, Mazedoniako Filipo erregeak K.a. 338an konponbide bat ezarri zuen arte iraun baitzuen.

Jakina, gerra zibil helenikoa kartagoar eta akemenestarrentzat tentazio saihestezina zen beraien aurkari helenikoen mania suizida ematen zuen hartaz aprobetxatzeko. Tentazio horri amore ematean, kartagoarrek arrakasta txikia izan zuten, baina pertsiarrek handi samarra. Hala ere, arrakastak ez zien luze iraun; zeren eta Helasko anaiarteko gerraren ondorioetako bat helenoak gerragintzan oso maisu bihurtzea izan baitzen; eta Akemenestar eta Kartagoar Inperioak suntsituta geratu ziren mazedoniar eta erromatar gerra-jaunek arma heleniko berriak mundu helenikoaren ohiko etsaien aurka bihurtu bezain laster.

Honela, Gizarte Helenikoak auzokoen aurka zertu zuen eraso militar eta politikoa aurreko atalean aztertu dugun ikuspegi zabalagotan sartu zen; baina izan zuen kulturazko ekintza-maila bat ere, non Zibilizazio Helenikoak konkista iraunkor baketsuak egin baitzituen Alexandro Handiaren belaunaldia baino lehen, eta ondoren ere bai.

Sizilian jaioek, ahal zuten guztia egin zutelarik armen bidezko greziar konkistari aurre egiteko, aldi berean beren borondatez onartu zituzten greziar erasotzaileen hizkuntza, erlijioa eta artea. Kartagoarren «zurezko errezelaren» atzeko «zona debekatuan» ere, non ezin baitzen merkatari helenikorik sartu, kartagoarrek greziar produktuak inportatzen zituzten, beraiek ekoitzi zezaketen edozer baino erakargarriagoak zirenak; oso antzera, Napoleonen garaiko frantziar gobernuak, britainiar salerosgaiak baztertzeko komedia egin zuen Berlingo dekretuarekin, baina isil-ezkutuan britainiar botak eta gainjantziak inportatu zituen Napoleonen armadetan erabiltzeko.

Akemenestar Inperioaren mendebaldeko probintzietako herrien helenizazioa inperio hura sortu baino askoz lehenago hasi zen, kultura helenikoa Asiako greziar hirietatik Lidiako erresumaren bidez zabaldu zenean. Herodotoren orrialdeetan Kreso helenizatzailerik kartsu agertzen da. Baina Alexandro-aurreko helenismoaren kultur konkista emankorrenak etruskoen eta helenikoak ez ziren beste herri batzuen artean egin ziren Italian mendebaldeko kostan zehar. Etruskoak greziar bihurtuak ziren adopzioz erromatar inperiogileen agintepean jarri aurretik, hauen helenismoaren zati handi bat bigarren eskukoa izanik auzoko etruskoengandik hartua.

Erromaren helenizazioa izan zen, noski, greziarrek beren historiako edozein etapatan inoiz lortu zuten kultur konkistarik garrantzitsuena; zeren eta erromatarrek, zeinahi jatorritakoak izanda ere,



beren gain hartu zuten eginkizuna kolonizatzaile etruskoen ahalmenetik kanpo baitzegoen Italiaren mendebaldeko kostan beraien iparraldera, baita greziar kolonizatzaileenetik kanpo ere Italiaren mendebaldeko kostan beraien hegoaldera, eta helenismoaren masiliar aitzindarienetik kanpo Rodanoren deltatik hurbil. Greziar italiotak oskoen eta etruskoak zelten kontraeraso barbaroaren mende erori ondoren, erromatarrek helenismo latinizatua eraman zuten Apeninoen, Po eta Alpeen gainetik Mediterraneoko europar barrualde (hinterland) kontinentalean zehar ezarri zuten arte, Danubioren deltatik Rhinen bokaleraino eta, Dover-eko itsasartean zehar, Britainiaraino.

### *(III) Iraka eta garia*

Garaikideen<sup>77</sup> arteko topaketen ikerketak ikusarazi digu topaketa horien ondorio emankor bakarrak bake-egintzak direla, eta goibeltasun handiz ikusarazi digu truke baketsu sortzaile horiek benetan urriak direla bi kultura edo gehiago elkarren artean liskarrean hastean sortzen diren gatazka itogarri eta hondagarriekin alderatuz.

Berriro aztertzen badugu alor hau, Zibilizazio Indiko eta Sinikoaren arteko harremanetan truke baketsuaren adibide bat aurkituko dugu, lehen begiratuan bortizkeriaren akatsik gabea bezain emankorra dirudiena. Mahayana mundu indikotik sinikora transmititu zen, bi gizarteak elkarren aurka inoiz gerran jardun gabe; eta efektu historiko hau eragin zuen harremanaren bakezaletasuna Indiatik Txinara misiolari budisten eta Txinatik Indiara erromes budisten joateak adierazten zuen, bai itsasoz Malakako itsasartetik bai lehorrez Tarimgo arroan zehar, kristau-aroko laugarren mendetik zazpita bitartean. Hala ere, bietan erabiliena izan zen lehorreko bidea aztertzen dugunean, konturatzen gara ez zuela ireki bake-jende indiko edo sinikoak, baizik eta Gizarte Heleniko kanpotar baten baktiar greziar aitzindariak eta greziar haien ondorengo kusana barbaroek, eta gerra-jende honek eraso militararrerako xedearekin egin zuela: greziarrek Mauriar Inperio indikoaren aurka eta kusanek Han Inperio sinikoaren aurka.

Garaikideen arteko topaketa espiritualki emankor baten adibide bila bagabiltza, gatazka militarren inolako frogarik erakutsiko ez duen baten bila, bigarren belaunaldiko zibilizazioen aroa baino atzerago begiratu beharko dugu iraganean, Zibilizazio Egipziakoa jada

osatua zuen bizialdi baten luzapen ez-naturalera hiksoen inbasioaren astinduak galvanizatu baino lehenagoko garaira. Aurreko garai horretan, K.a. hogeita bigarren eta hogeita batgarren mendeetatik hemezortzigarren eta hamazazpigarren mendeetara igarotzerakoan, estatu unibertsal egipziakoa Erresuma Ertainaren forman eta estatu unibertsal sumerikoa Sumer eta Akad-eko Inperioaren forman elkarren ondoan bizi izan ziren, eta beraien artean zegoen lehorreko siriar zubiaren kontrola txandaka zertu zuten, dakigun neurrian behintzat inoiz ez zutelarik borroka armaturik izan. Dirudienez baketsua izan zen harreman hura, halaz guztiz, antzua ere izan zela ematen du, eta are atzera-go begiratu behar dugu bila gabiltzana aurkitzeko.

Zibilizazioen historietan hain atal goiztiarra aurkitzeko ikerketan Mendebalde modernoko arkeologi aurkikuntzak metaturiko jakintzak oraindik itsumustuka uzten du hogeigarren mendeko historialaria ilunabar historikoan; halaz guztiz, hori kontuan izanda ere, gure behin-behineko aurkikuntza gogora genezake: Isis eta Osirisen gurtza, bizitza espiritual egipziakoan hain paper erabakigarria jokatu zuena, desegiten ari zen mundu sumerikoaren oparia zela, non Emazte edo Ama Atsekabetuaren eta haren Senar edo Seme Sufritzailearen figura bihotz-urragarri eta aldi berean adore-emaileek beren lehenengo epifania Istar eta Tammuz-en izenpean egin baitzuten. Benetan egia bada beste erlijio nagusi guztien aitzindari izan zen gurtza bat borrokarik eta odol-isurtzerik gabe —garaikideen artean ondorengo topaketa asko hondatuko zituen borrokarik eta odol-isurtzerik gabe, alegia— transmititu zela bere sorleku izan zuen gizartetik zibilizazio garaikide batekoengana, baliteke guk bake-uztaia begiztatua izatea topaketako alderdiak emankortasunez elkartu diren zibilizazioetan berorien arteko harremanen historiaren gainera jaisten den hodeian.

## XXXII. GARAIKIDEEN ARTEKO TOPAKETEN DRAMA

### 1.

#### *Topaketen kateaketa*

Gizarte garaikideen arteko topaketak, ez bakarka, baizik eta kateaturik<sup>78</sup> ager daitezkeela K.a. bosgarren mendean Herodotok aurkitu zuen, orduan berria zen gatazka bat kontatzeari ekin zionean: Akemenestar Inperioaren eta hiri-estatu heleniko burujabeen arteko gatazka Europako Grezia kontinentalean. Bere historia ulergarri egiteko, bere aurrekari historikoen sokan jarri behar zuela ohartu zen, eta, ikuspuntu horretatik begiratuta, konturatu zen greko-pertsiar gatazka azken pasadizo bat izan zela izaera bereko eta kausalki loturiko talka-segida batean. Erasoaren biktima ez da konformatzen bere burua babeste hutsarekin; bere defentsa arrakastatsua bada, kontraerasoari ekiten dio. Zalantzarik gabe, Herodotoren dramaren lehen «ekitaldiak» irakurle moderno sofistikatuari argigarriak baino entretenigarriagoak iruditzen zaizkio, beraien argumetua emakume gazte erakargarriegien txandakako bahiketa-saila baita. Feniziarrek hasi zuten liskarra (istorioaren bertsio helenikoan espero zitekeen bezala) Io helenikoa bahitzean; helenoek mendekuz feniziar Europa bahitu zuten; gero helenoek koltxiar Medea bahitu zuten; troiarrek Helena helenikoa bahitu zuten, eta helenoek mendekuz Troia inguratu zuten. Hau guztia oso zentzugabea zen, «garbi baitzegoen emakume haiek ez zirela bahituak izango beraiek nahi izan ez balute», eta edonola ere Parisek huts egingo zuen bere andrea etxera ekartzen; zeren eta, halaber, garbi baitzegoen troiarrek

itzuliko zuketela, hori egiteko moduan egon izan balira, hamar urteko setiaketa jasan ordeztu. Gutxienez, honela irten egiten dira kondairak arrazionalismoaren dutxa hotzetik, Herodotoren hainbat ezaugarri jatorretako bat. Edonola ere, greziarrek Troiako gerra egitean, Aresek Afrodita ordeztu du, jardueren buru den jainko gisa; eta gu eszeptikoak izan arren bahitura-sailari buruz, onartu beharra dago Herodotok ulerkuntza sakona erakutsi zuela greko-pertsiar gerra barne hartzen zuen kateaketa hartan greko-feniziar topaketa egingtza goiztiartzat hartzean.

Ez daukagu hemen kateaketa partikular horren geure ikuspegia pertsiar gerretaraino laburbildu beharrik, baina berehala marraztuko dugu eraso eta kontraerasoen katea Herodoto-osteko denboretan, ea nora eramaten gaituen<sup>79</sup>.

Pertsiarrek Grezian egindako inbasioen porrot ikaragarria, eraso-egintza horrek bere egileen gainera ekarri zuen zigorraren lehen emanaldia baino ez zen izan. Azken nemesia Mazedoniako Filiporen erabakia izan zen, Akemenestar Inperioa konkistatuz egoera alderantzizkatzea; eta Alexandro Handiak, aitaren testamentu politikoa gauzatzeko ikaragarritzko arrakasta izan zuenak —Xerxes, berriz, bere aita Dariorena gauzatzen batere arrakastarik gabea izan zen—, drama berri baten lehen ekitaldia hasi zuen. Alexandrok K.a. laugarren mendean Akemenestar Inperioa suntsitzeak eta Erromak K.a. hirugarren mendean Kartagoar Inperioa suntsitzeak auzokoen gaineko nagusitasuna eman zioten Gizarte Helenikoari, merkataritza gisa Tartessos-era itsasoz joan edo mertzenario gisa Egipton edo Babilonian jardun zuten seigarren mendeko abenturazale helenikoen ametsik handinahienak erraz gainditu zituen. Baina Alexandro-osteko eraso helenikoaren ibilketa harrigarri horrek erreakzioa eragin zuen, bere garaian, Ekialdeko biktimen aldetik; eta erreakzio honen azkeneko arrakastak luzaroan hautsitako oreka berreskuratu zuen berandu, Alexandrok Dardaneloak igaro eta mila urte geroago, haren lanaren desagitea arabiar musulman primitiboek burutu zutenean, hauek zenbait kanpaina arin eta bizkorretan, garai batean lurralde siriako izandako guztiak askatu baitzituzten, Siriatic Espainiaraino, hau barne, kristau-aroko zazpigarren mendearen hasieran, artean Erromatar Inperioaren gobernupean edo haren ondorengo estatu bisigotikoaren mende zeuden lurraldeak.

Estatu unibertsal siriakoa Akemenestar eta Kartagoar inperioen eremu izandakoak hartzen zituen arabiar kaliferri baten forman berriro ezartzeak topaketan kateaketa hori bukarazi zezakeen. Zoritzarrez, eraso helenikoaren biktima izan zen Gizarte Siriako baten arabiar mendekatzailleak ez ziren konformatu erasotzailea sartu zen lurraldeetatik botatzearekin. Darioren okerra egin zuten berriro, hau da, kontraerasoan hastea, atzera egin ez zezan aurrera mugitu beharreko muga eustezin batean egotearen aitzakiarik gabe. Arabiarrek Tauroko muga naturala zeharkatu zuten Konstantinopla K.o. 673-7an inguratzeko eta berriro 717an; Pirinioetako muga naturala ere zeharkatu zuten Frantzian indarrez sartzeko K.o. 732an, eta hurrengo mendean itsasoko muga naturala zeharkatu zuten Kreta eta Sizilia eta Apulia konkistatzeko eta Mendebaldeko Kristandadean mediterranearen kostan zubi-buruak ezartzeko, Rodanotik Gariglianoraino. Zentzurik gabeko eraso horiek bidezko nemesia izan zuten bere garaian.

Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearen erreakzio lehergarriak, haren energia ezkutuak kristau-aroko zortzigarren eta bederatzigarren mendeetako eraso musulmanek sutu zituztelarik, gurutzaldietan aurkitu zuen adierazpidea, eta hauek, berriz, biktimen aldetik espero zitekeen kontrarreakzioa eragin zuten. Saladinoren ahaleginek, eta haren aurretik eta ondoren Islamaren aldeko beste batzuek, gurutzatu frankoak kanporatu zituzten Siriatik, eta osmanliarrek Greziako kristau ortodoxoen lan amaigabea osatu zuten, haiek «Romania»tik ere botatzekoa, alegia. Mehmet II.a Konkistatzailea otomandar enperadoreak (K.o. 1451-81 artean erreinatu zuen) bere bizitzako lana egin zuenean, hots, desintegratzen ari zen greziar mundu ortodoxoari estatutu unibertsal islamiko bat ematea, gatazka oreka-puntu batean uzteko beste aukera bat agertu zen... eta baztertu egin zen. Zortzigarren eta bederatzigarren mendeko arabiar musulmanak aukerarik ez zuten Mendebaldeko Kristandadean sartu ziren, Frantzian eta Italian eta beste edonon, eta horrekin Erdi Aroko Mendebaldearen kontraeraso kementsu baina azkenean arrakastarik gabea gurutzaldien forman eragin zuten bezalaxe, kristau-aroko hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetan turkiar musulmanak ere aukerarik ez zuten lekuan sartu ziren, Danubion gora bultza eginez Mendebaldearen sorlekuetarantz. Oraingoan Mendebaldearen erreakzioak forma orijinal eta harrigarriagoa hartu zuen.

Otomandar hilgoraren adarrek Mendebaldeko Kristandadea inguratzeak ia-ia lortu zuen mendebaldarrak konbentzitzea mediterranean *cul-de-sac*-en galdutakoa utzi eta beren energiak Ozeanoaren konkistan inbertitu behar zituztela, honek egingo baitzituen munduaren jabe; eta kristau-aroko hogeigarren mendearen erdialdean kokaturiko behatzailearentzat harrigarriro arrakastatsua izan zen Mendebaldearen erantzun horrek bazirudien kontraerantzun bat, edo agian bat baino gehiago, sortaraziko zuela. Urruti gaude Io eta Europaren bahiketetatik, eta bukaera ez da oraindik iritsi.

## 2.

### *Erantzun-aniztasuna*

Topaketen gure azterketak eta agian, are argiago oraindik, topaketen kateaketaren gure azterketak, horrelako seriearen adibidetzat hartu dugunak, zera iradokitzen du, topaketa bakoitzean erasotzaile bat izaten dela alde batean eta erasoaren biktima bat beste aldean. Hala ere, termino horiek epai moral bat inplikatzeko dutenez, hobe izango da agian moralki termino neutralak erabiltzea, eragilea eta berriragilea; edota Azterlan honetan lehenago ezagutu ditugun terminoak erabiliz, erronka egiten duena eta erronkari erantzuten diona. Orain gure xedea honela erronka jasan duten gizarteetan sortu den erreakzio edo erantzun-motak aztertu eta sailkatzea da.

Imajina daiteke, noski, jatorrizko eragilearen eraso hain zangarria izan eta erasoturiko alderdia menderatua, edota suntsitua, geratzea, batere erresistentzia eraginkorrik eskaini gabe. Zalantzarik gabe, hau izan da zibilizazioekin topo egiteko zoritxarra izan duten gizarte primitibo askoren patua. Desagertu egin ziren, Mendebaldeko gizaki modernoak Maurizioara iristean dodoa desagertu zen bezala. Beste batzuek, dodoa baino zorion gehiago edo gutxiagokoek, batere nabarmendu gabeko bizitza eraman zuten, antropologoaren interesgai bihurtuta, giza «zoo» edo erreserbetan. Baina gure ardura zibilizazioak dira, eta dagoeneko ikusi dugu arrazoirik zalantzan jartzeko zibilizazioen batek, baita Erdialdeko eta Andeatako Amerikako zibilizazio

hauskor eta itxuraz erremediorik gabe hondatutako zibilizazioek ere, inoiz patu hau jasan duenik. Bizitzan hilda luzaroan egon ondoren berriro sortu litezke, Gizarte Siriakoa, Gizarte Helenikoaren zamapean mila urte murgilduta egon ondoren, berragertu eta berriro bizitzen hasi zen bezala.

Zibilizazio erasotu batek izan ditzakeen erreakzio-mota alternatiboak aztertzean, sortarazi dituen ekintzaren mota bereko erantzunak direnekin hasiko gara, eta mota bereko erantzunaren forma nabariena indarrari indarrez erantzutea da. Adibidez, militarismo musulman iranikoari biktima hindu eta kristau ortodoxoek eurak militante bihurtuz erantzun zioten. Hau izan zen sikh eta maratek mogolei emandako erantzuna, eta greziar eta serbiar nazionalistek osmanliarrei emandakoa. Historia beterik dago adibidez, non militarki apalagoa den alde batek mota bereko erantzuna eman duen bere erasotzaileen teknika militarraz jabetuz. Errusiako Pedro Handia tsarrak, bere armadak Narvan Suediako Karlos XII.aren eskuetan porrot lotsagarria jasan ondoren, esan omen zuen: «Gizon honek bera nola menderatu erakutsiko digu». Benetan hitz horiek esan zituen ala ez jakiteak ez du garrantzirik, gertaerek berez hitz egiten baitute; eta gertaerak dira Karlosek irakatsi, Pedrok ikasi eta Karlos menderatua izan zela.

Petritar erregimenaren ondorengo komunistek Pedrok baino urrats bat aurrerago egin zuten. Bigarren Mundu Gerran eta gero Mendebaldean ondoz ondo Errusiaren etsai izan ziren Alemania eta Estatu Batuen teknika industrial eta militarraz jabetzearekin konformatu gabe, errusiar komunistek gerra-forma berria sortu zuten: indar fisikoaz borroka egiteko metodo zaharkituaren ordeztu, borroka espirituala hasi zuten, non arma nagusia propaganda «ideologikoa» izango baitzen. Propaganda-tresna, munduko botere politikoen borrokalekuan arma berri gisa komunismoak martxan jarri zuena, bere erabil-tzaile berriek ez zuten *ex nihilo* sortu. Erlijio nagusien misiolari-ek landu zuten lehenengo, eta gero Mendebalde modernoko gizarte-  
dendariek egokitu zuten salmenta-xedeekin.

Garaiko Mendebaldeko merkataritza-publizitatearen praktika, bere inbertsiogintzaren ugaritasunean eta «merkatu-ikerketaren» arduratasunean, propaganda komunistak nekez gaintu bazezakeen ere, desberdinak eta garrantzitsuagoak ziren emaitzetara jo zuen, eta bai lortu ere. Espiritualki gose ziren Mendebaldeko arimetan luzaroan

lo egondako gogo-berotasuna iratzartzeko gai zela erakutsi zuen, eta arima horiek hain gose ziren gizakiak bizi izateko behar-beharrezkoa duen ogiaz, ezen komunismoak eman zien hitza irentsi egin baitzuten, hura Jainkoaren ala Antikristoaren hitza ote zen galdetzeko pausarik gabe. Komunismoak kristau-osteko gizakiari zera eskatzen zion, «arrazoiz» ospe-gabeturiko beste mundu bateko utopiaren «umeke-riazko» nostalgiatik senda zezala bere burua, bere atxikimendua «ez dagoen» Jainko batengandik oso present dagoen Gizadira aldatuz, honen zerbitzura jar ditzakeelarik bere ahalmen guztiak Lurreko Paradisua lortzen lan eginez. Egia esateko, «gerra hotza» propaganda mailako erantzuna zen armamentu fisikoen mailako erronkari, eta hau ez zen erronka militar zaharkituari militar ez zen mailan emandako lehenengo erantzuna.

Errusia komunistaren erantzun «espirituala» ez zen espiritual-ki hain zirraragarria Mendebaldekoarentzat honek gogoratzen zuenean —gogoratu beharrik baldin bazuen— propaganda ideologiko hori arma laguntzaile bat besterik ez zela botere inperialistaren armadian, jada leporaino armatua zegoelarik indar fisikozko armekin. Beste kasu batzuetara igaroko gara: indarrari erantzuteko indarra erabiltzea erabat baztertua zegoen kasuetara, eta hemen ere okerra litzateke inolako nagusitasun moralik egozte. Kasu hauetan normalean zera aurkitzen da, edo indarraren erabilera egokia ezinezkoa zela edo indarra erabiltzen saiatu eta huts egin zela.

Erronka militar bati emandako erantzun baketsuaren adibide harrigarri bat akemenestarren aroan Gizarte Siriakoak mundu babilonikoari egin zion inguraketa izan zen, estatu unibertsal baten gober-nari bihurtuak ziren iraniar barbaroen kultur konbertsioaren ondorioz. Kultura siriakoaren misiolariak, honela iraniar arimak gatibu hartzea-ri zegokionean beren konkistatzaile babilonikoak menderatu zituzte-nak, ez ziren abenturazale ez militarrek ez merkatariak: «lekuz alda-tuak» ziren, asiriar edo babiloniar gerra-jaunek erbesteratuak, honela beren Israel edo Juda maitearen botere militar eta politikoa berriro ezartzea behin betiko ezinezko bihurtzeko helburuarekin; eta haien konkistatzaileen kalkulua zuzena gertatu zen beren muge barruan. Militarista babilonikoen biktima siriakoek azkenean beren zapaltzai-leen eskuetatik ekimena kentzeko izan zuten erreakzioa zapaltzaileen irispidetik harantzago zegoen. Zapaltzaileek hain erabat huts egin



zuten kultur mailako erantzunaren aukera kontuan hartzen, ezen, eurek beren eskuez, jarri baitzituzten beren biktimak kultur misio-eremu batean, atzerriratu haiek inoiz bisitatuko ez zuketena, han ez balituzte indarrez eta gogoz kontra jarri izan.

Honela bere kultur eragina jentilen gain zertzean, zeinen artean jarri baitzuten, diaspora siriakoa bere talde-nortasuna gordetzeko kezka mugitu zuen. Juduen eta beste *déraciné* batzuen historietan, kezka bera gehiago agertzen zen kontrako politikan, beren burua bakartzeko politikan; eta gogait eragindakoan nork bere burua bakar-tzea erantzun hori eragin duen ekintzarekiko maila desberdinean dagoen erreakzio-motaren beste aldaera bat da. «Isolazionismoaren» politika hori bere habitata gotorleku fisikoa duen gizarte batek praktikatzen duenean agertzen da bere formarik xumeenean. Uharteetako japoniar gizarteak, industrializatu aurreko Mendebaldearekin izan zuen lehenengo topaketan, honela erreakzionatu zuen portugaldar kanpotarren aurrean, eta garai bertsuan eta kanpotar berberei erantzun berbera eman zieten arrakastaz abisiniarrek beren mendi-gotorlekuan. Antzeratsu Tibeteko goi-ordokiak ia gotorleku iristezin bat eskaintzen zuen desagertua zen Gizarte Indikoaren mahayaniar fosil tantrikoa-rentzat. Baina faktore geografikoek lagundutako isolazionismo fisikozko gertaera horiek, interes historikoaren aldetik, ezin dira konparatu isolazionismo psikologikoarekin, hau izanik diasporaren erantzuna bizirik irauteko mehatxu beraren aurrean; zeren eta diaspora batek, ez lagundu baizik eta auzokoen esku uzten duen egoera geografikoan egin behar izaten baitio aurre mehatxu horri.

Horrelako isolazionismoa prozedura negatibo hutsa da, eta, inoiz inolako arrakastarik izan badu, maila positiboagoko beste erreakzio batzuekin batera aurkituko da. Diaspora baten bizitzan, bere bakartze psikologikoa ezinezkoa gertatuko litzateke hori zertzen dutenek, aldi berean, ez balute ekonomi mailan eraginkortasun berezi bat garatuko beraiei zabalik utzitako aukera ekonomikoez baliatzeko. Ekonomi espezializaziorako ia misteriotsua den jarrera eta tradiziozko legea bere xehetasun txikienetan zehazki betetzea dira diasporaren bi baliabide nagusiak muga menderaezinen edo trebetasun militarren ordeko artifizialak bere buruari emateko.

Indarrari kultur mailako erantzunez ihardesteko baliabidea botere arrotz baten eraginak gogor jotako gizarteek ere erabili izan

dute, nahiz eta ez geratu diasporaren egoera oso larrira murriztuta. Osmanliarren *raiyyah* kristau ortodoxoak eta mogolen *raiyyah* hinduak biek izan zuten arrakasta ezpata-gizon hauen egoera aldatzen lumaren kontraerasoaren bidez. India eta Kristandade Ortodoxoaren konkistatzaile musulmanak iraganeko garaipen militarrei begira itsu geratu ziren historiaren hurrengo atalaren errealitateak ikusteko, haien erresuma zatitu eta frankoei eman zitzaielarik. *Raiyyah*-ek aurrez ikusi zuten Mendebaldearen garaipena eta ordena berrira egokitu ziren.

Baina indarraren erronkari emandako erantzun ez-bortitz hauek guztiak, orain arte aztergai izan ditugunak, gainditu egiten ditu, noski, erlijio nagusi bat sortzearen erantzunak, ezin baketsuagoa eta aldi berean ezin positiboagoa dena. Gizarte Helenikoak bere ekialdeko garaikideengan izandako eraginari era honetara erantzun zitzaion Zibelezen gurtza, Isisen gurtza, mitraismo, kristautasun eta mahayanaren epifaniaren bidez; eta Gizarte Babilonikoak Siriakoan izandako eragin militarrek judaismoaren eta zoroastrismoaren epifania sortarazi zuen. Erlijiozko erantzun-mota honek, hala ere, gure Azterlan honen mugetatik kanpora garamatza: zibilizazio batek beste batek egindako erronkari erantzuteko dituen era ezberdinetara; zeren eta, bi zibilizazioen arteko topaketa batek erlijio nagusi bat agertzeko aukera ematen duenean, aktore berri honen sarrerek antzerki-lan berri baten hasiera esan nahi du, aktore-banaketa eta argumentu desberdinarekin.

# XXXIII. GARAİKIDEEN ARTEKO TOPAKE- TEN ONDORIOAK

## 1.

### *Arrakastarik g abeko erasoen emaitzak*

Zibilizazio garaikideen arteko topaketa baten ondorioa asaldagarria izan ohi da bi aldeentzat, baita zirkunstantziarik mesedegarri-  
netan ere, hazkundealdian dagoen zibilizazio batek eraso bati arrakas-  
taz kontra egiten dionean, adibidez. Akemenestar Inperioak egin zion  
erasoa errefusatzek Gizarte Helenikoan izan zuen eragina da horren  
adibide klasikoa.

Garaipen militar horren lehen gizarte-ondorio hautemangarria  
helenismoari bizkorgarri bat ematea izan zen, jarduera-arlo guztietan  
loratuz erantzun ziolarik horri. Hala ere, berrogeita hamar urteren  
buruan, topaketa horren berorren ondorio politikoa hondamendi bate-  
an iritsi zen gailurrera, Helasek lehenik eragozten jakin ez zuena eta  
gero konpontzen ere ez; eta Salaminakoaren osteko hondamen politi-  
koaren sustraia Atenasen bat-bateko goraldi distiratsuan bertan zego-  
en, kultur lorpen helenikoak Salaminakoaren ostean izandako piztual-  
diaren sustraia ere hantxe zeudelarik.

Azterlan honetan beste nonbait esan dugu, pertsiar gerra han-  
diaren aurreko aroan, Helasek iraultza ekonomikoa gauzatu zuela eta  
hari esker gai izan zela gero eta biztanleria handiagoa mantentzeko  
jada zabalago egiten ez zen esparru batean, erregimen ekonomiko  
zaharraren ordeztasuna —non hiri-estatu heleniko bakoitza ekonomikoki  
unitate autonomoa baitzen— espezializazioa eta elkarrekiko mende-  
tasuna zituen erregimen ekonomiko berria ezarri. Ekonomiaren

iraultza horretan Atenasek jokatu zuen paper erabakigarria; baina ekonomi erregimen berriak ezin zezakeen iraun ordena bereko erregimen politiko berri baten egitura kokatu gabe. K.a. seigarren mendea bukatu baino lehen, batasun politikoaren formaren bat lortzea bihurtu zen mundu helenikoaren gizarte-premiarik presazkoena, eta bazirudien konponbidea ez zuela aurkituko Solon eta Pisistratoren Atenasek, Kilon eta Kleomenesen Espartak baizik.

Tamalez, Helas europarra asiaticoa bezalaxe akemenestarren gobernupean jartzeko Darioren erabaki zorigaiztokoak Helasi planteatu zion krisian, Espartak Atenasi utzi zion *beau role*-a jokatzen, eta ondorioz batasunaren bidez salbazioa behar zuen Helas gutxi gorabehera indar bertsuko bi salbatzaile lehiakiderekin aurkitu zen. Emaizta Peloponesoko gerra izan zen eta handik aurrerako guztia.

Polarizazio politikoaren egoera larri haxe bera izan zen mundu helenikoaren ondorengoa, Kristandade Ortodoxoa, harrapatu zuen patua ere, jaio zen une berean are garaipen harrigarriagoa lortu ondoren arabiar kalifaldiaren forman berrezarritako gizarte siriako baten gain. Arabiarrek K.o. 673-7an Konstantinopla hartzeko ahaleginaren biharamunean, Kristandade Ortodoxoa bere buruaz beste egiteko zorian egon zen, anatoliar armada-gorputz batek eta beste armeniar batek nagusitasunaren bila anaiarteko borrokan hasteko mehatxua egin zutenean. Egoera Leon III.aren eta haren seme Konstantino V.aren jeinuak salbatu zuen, aurkako armada-gorputzak konbentzitu zituztelarik beren liskarra Ekialdeko Erromatar Inperio batuan bat egitea onartuz konpon zezaten, errefusatu ezinezko moduan eskatzen zielarik leialtasuna hildakoen artetik piztutako Erroma bezalaz aurkeztuz. Amets baten berpizte hori, ordea, ez da ordainik gabe har daitekeen salbazio-bidea; eta Kristandade Ortodoxo jaio berria estatu erabat autoritarioaren zamapean jartzean, zoritxarrekoa, eta epe luzera oso txarra, gertatu zen norabidea eman zion Leon Isauriarrak gizarte haren garapen politikoari.

Orain, historian izandako eraso arrakastarik gabeko erasoen emaitzen adibideak hartzen baditugu, ez garaile erantzundakoarenak, porrot egiten duen erasotzailearenak baizik, ohartuko gara *a fortiori* latzak izan zirela ondorengo erronkak.

Hititak, adibidez, K.a. hamalagarren eta hamahirugarren mendeetan Egiptoko asiarrak konkistatzeko egin zuten ahale-

gin arrakastarik gabeko ahaleginaren gehiegizko esfortzuak hain etsigarriro ahulduta utzi zituenez, gero Völkerwanderung postminoikoa-  
ren uhinak azpian hartu zituen, eta aurrerantzean komunitate fosil  
mordo batean iraun zuten bizirik, Tauron hankalatraba. Siziliako gre-  
koek beren lehiakide feniziar eta etruskoen aurka zertutako eraso huts  
eginaren emaitzak elbarritasun politikoaren forma leunagoa hartu  
zuen, beraien jarduera artistiko eta intelektualak geldiarazi ez zituen.

## 2.

### *Eraso arrakastatsuen emaitzak*

#### *a) Gizarte-gorputzean izandako ondorioak*

Azterlan honetan lehenago esan dugunez, garaikideen arteko topaketetan, non erasotzailearen inpaktuaren ondorioa gorputz eraso-  
tuan arrakastaz sartzea izan baita erasotzailearen kultur irradiazioa-  
ren bidez, topaketako bi alderdiak jada desintegrazio-prozesuan ego-  
tea gertatu izan da; eta dagoeneko esan dugu, halaber, desintegrazio-  
rako irizpideetako bat gizarte-gorputzaren zisma dela: gutxiengo bat,  
sortzaile izan ordez menderatzaile soilik bilakatu dena, eta proletal-  
go bat, bere gidari izandakoengandik moralki alienatua, orain «uga-  
zaba» soilik bilakatu zaizkiolarik. Baliteke gizarte-zisma hau jadanik  
gauzatua izatea gizarte baten gorputzean, beronen kultur irradiazioa  
auzokoetako baten gizarte-gorputzean arrakastaz sartzen ari denean;  
eta baliteke arrakasta beti negatibo eta sarri nahigabeko honen ondo-  
riorik garrantzitsuena den gizarte-sintoma barne-proletalgoaren alie-  
nazioak edozein kasutan ere planteatzen duen arazoa larriagotzea  
izatea.

Proletalgoa berez elementu ezerosoa izaten da gizarte batean,  
baita erabat bertan garatutako produktua denean ere; baina ezerosota-  
suna biziki areagotzen da kopuruz duen indarra gehitu eta kultur egi-  
tura nabartu egiten duenean atzerriko jendearen sarrerak. Historiak  
inperio batzuen adibide harrigarriak ematen ditu, nahi izan gabe ere  
beren arazoak gehitu zituztelarik atzerriko proletalgoak gehitzean.

Erromako Augusto enperadoreak berariaz eragotzi zien bere armadei mugak Eufratesetik harantzago zabaltzen ahalegintzea. Austriako Habsburgoen Inperioak, bai hemezortzigarren mendean eta bai gero, Lehen Mundu Gerraren lehen erdiko garaipen alemanen garaian, antzeko uzkurtasuna erakutsi zuen bere mugak hego-ekialderantz zabaltzeko eta horrela jada nabarregia zuen biztanlerian eslaviar elementuak gehitzeko. Amerikako Estatu Batuak, gerra beraren bukaran, helburu bera ziurtatu zuten guztiz bestelako baliabideekin, hau da, itsasoz bestaldetik haien lurraldera sar zitezkeen etorkinen kopurua zorrotz murriztuz 1921 eta 1924ko promulgazioen bidez. Israel Zangwill eleberrigile juduak «arragoa» izena eman zion printzipio baikor baten arabera jokatu zuen Estatu Batuetako gobernuak hemezortzigarren mendean. Alegia, uste zen etorkin guztiak, edo Europatiko etorkin guztiak, behintzat, berehala bihurtuko zirela amerikar abertzale «porrokatu», eta, beraz, Batasuneko lurralde zabalak industrialki gutxiegi populatuak zeudenez, Errepublikak ongiatorria egin behar ziela guztiei, «zenbat eta gehiago, hobe» printzipioan oinarrituz. Lehen Mundu Gerraren ondoren, ikuspegi ilunagoa nagusitu zen. Arragoa gehiegi erabiltzeko arriskuan zegoela sumatu zuten. Atzerriko proletarioen gorputz fisikoak kanporatzeak atzerriko proletarioen ideia espiritualak —japoniarren esieran «pentsaera arriskutsua»— kanporatzea bermatuko zuen ala ez beste kontu bat zen, eta horren erantzuna ezezkoa gertatu zen.

Arrakastatsu erasokorra den zibilizazioak ordaindu beharreko gizarte-prezioa bere atzerriko biktimen kultura exotikoa gizarte erasotzailearen barne-proletalgoaren bizi-lasterrean iragaztea izaten da, eta proletalgo alienatu horren eta ustezko gutxiengo menderatzailearen artean jada irekia dagoen leize moralaren proportzioan zabaltzea. Erromako Juvenal satiragilea, kristau-aroko bigarren mendearen hasiera aldera idazten zuelarik, ohartua zen Orontes siriakoak Tiberrera zeramatzala urak. Mendebalde modernoko gizartean, bere eragina lurbira bizigarri osora hedatua zuelarik, ez Orontes txikia bakarrik, baita Ganges handiak eta Yangzi handiak ere Tamesi eta Hudsonera zeramatzaten beren urak; Danubiok, berriz, bere bidea alderantzikatu eta errumaniar, serbiar, bulgariar eta greziar proselitoren kultur alubioi bat utzia zuen ibaian gora, jada gainezka zegoen Vienako arragoan.

Eraso arrakastatsuaren ondorioak alde erasotuaren gizarte-gorputzean konplexuagoak izaten dira, baina ez hobeak. Alde batetik, aurkituko dugu kultur elementu batek, bera eroso dagoen gizarte-gorputzean kaltegabea edo onuragarria izan delarik, ondorio berri eta suntsigarriak izan ohi dituela sartzen den gorputz arrotz batean; lege hau esaera honetan laburbiltzen da: «baten elikagaia bestearen pozoia». Bestalde, kultur elementu bakartu batek gizarte erasotu baten bizitzan sartzen arrakasta izan duenean, ondoren jatorri bereko beste elementu batzuk eraman ohi dituela aurkituko dugu.

Gizarte-ingurune atzerritarreen sartzen den kultur elementu erbusteratu batek jokaturiko paper suntsigarri horren adibideak dagoeneko ezagutu ditugu. Adibidez, aztertu ditugu Mendebaldeko munduaren erakunde politiko bereziaren inpaktuak Mendebaldekoak ez diren zenbait gizarteri eragindako tragedia batzuk. Mendebaldeko ideologia politikoaren ezaugarri nagusia, elkartze politikoaren printzipio gisa behin eta berriro hurbiltasun geografikoaren akzidente fisikoa hartzea izan da. Mendebaldeko Kristau Gizarte baten hasieran, ideal hau Visigotian sortu zela ikusi dugu, eta bizitza jasangaitz bihurtu zuela bertako judu-diasporarentzat. Visigotian honela zertutako hondamena mundua atsekabetzen hasi zen Mendebaldeko Kristandadearen sorlekutik kanpo, Mendebalde modernoaren kultur eraginaren uhin indartsu batek munduko alde guztietara Mendebaldeko ideologia politiko berezi hori eraman zuenean, orduan intentsitate berri bat hartu zuelarik ideologia horrek parroki estatuetan gorpuzturiko lurralde-subiranotasunaren erakunde zaharraren gain demokraziaren espiritu berriak izandako eraginagatik.

Ikusi dugu, K.o. 1918an bukatu ziren ehun urteetan, hizkuntz nazionalismoak danubiar habsburgotarren monarkia desegin zuela. Mapa politikoaren berrikuspen iraultzaile honek askapen politiko iragankor baten dudazko bedeinkazioa eman zien Polonia-Lituanianeko erresuma batu izandako herri murgilduei, Habsburgo, Hohenzollern eta Romano-tarren Inperioen artean zatikatua izan zelarik erresuma hura hemezortzigarren mendearen bukaera aldera. Hiru inperio zatitzaile horiek K.o. 1918an izandako kolapsoaren ondoren, poloniar nazio pribilegiatuaren *Lebensraum* baterako hesi gisan 1772az aurretiko mugak berrezartzeko poloniarren gurari megalomanoak lituaniar eta ukrainiarren aurkakotasun sutsua eragin zuen, hauek lehen polo-

niarren parekide izanak, eta ez mendeko, K.o. 1569an eratu zen nazioz gaindiko komunitatean. Ondorengo urteetan hiru herri horien artean izandako gatazka beldurgarriak, hizkuntz nazionalismoaren espiritu gaiztoak eraginak, bidea prestatu zuen, lehenik, erruso-germaniar banaketa berrirako K.o. 1939an eta azkenean, agonia beldurgarrien ondoren, 1945ean ezarri zen errusiar komunismoaren tiraniarako.

Mendebaldeko erakunde tradizional baten errefinamendu modernoak Mendebaldeko munduaren Ekialdeko Europako marketan zertutako hondamena ez zen nazionalismoaren birus berak otomandar gorputz politikoan izandako ondorioa bezain tragikoa, zeren eta, ez hemezortzigarren mendeko Polonia-Lituanian anarkia ez-praktikoa, ez Austriako habsburgotarren monarkia tarteka ilustratua, ezin baitziren konparatu otomandarren millet sistemarekin, geografikoki nahastutako komunitateak zituen elkartearantzat konstituzio politiko egingarri bat aurkitzeko arazo komunaren konponbide alternatibo gisa zuen balioaren aldetik, komunitate horiek antzekotasun handiagoa zutelarik Mendebaldeko Europako ofizio eta lanbideekin Mendebaldeko Europan lurralde aldetik banaturik zeuden nazionalitateekin baino. Otomandar milletak erauzi eta nazio-estatu erabat burujabeen forma exotikoan ebakitzeko prokrustear metodoak jada aipatu dira zati honetan lehenagoko orrialde batean, eta ez dago hemen laburtu beharrik. Hemen zera bakarrik esan behar dugu, Indiako Britainiarren Inperioa elkarren etsai ziren India eta Pakistan «nazio»-estatuen artean zatitzeak ekarri zituen ankerkeria beldurgarriak, eta britainiar mandatu zen Palestinako lurraldea elkarren etsai ziren Israel eta Jordania estatuen artean banatzeak ekarritakoak, geografikoki nahastutako komunitateen gizarte-ingurunera zabalduriko nazionalismoaren Mendebaldeko ideologiaren ondorio negargarrien adibideak zirela, ingurune horretan komunitate horiek aurrez gai izan zirelarik elkarrekin bizitzeko millet-etan antolatuta zeudelako.

Kultur elementuek, beren markotik erauzi eta gizarte-ingurune atzerritar batean sartzen direnean, erakutsi ohi dituzten ahalmen suntsigarriak ekonomi mailako adibideek ere argitzen dituzte. Mendebaldeko industrialismo inportatuaren ondorio desmoralizatzailea, adibidez, bereziki nabarmena izan zen Hego-ekialdeko Asian, non industri iraultza exotiko batek, Mendebaldeko ekonomi ekimen dese-



gokiak bizkortua, sozialki artean suberatu gabeko komunitateen nahastura geografikoa eragin baitzuen bere ekonomi laberako giza erregaia biltzeko prozesuan.

*«Mundu modernoan edonon ekonomi indarrek teinkatu egin dituzte kapital eta lanaren, industria eta nekazaritzaren, hiri eta landaren arteko harremanak; baina Ekialde modernoan tentsioa handiagoa da arraza-irizpideen arabera banaketagatik. Ekialdeko atzerri-tarra ez da europarraren eta bertakoaren arteko motelgailua bakarrik, baita bertakoaren eta mundu modernoaren arteko hesia ere. Eraginkortasunaren gurtzak Mendebaldeko etxe-orratz ikaragarri bat Ekialdeko lurrian eraikitzea baino ez zuen egin, bertakoak oinarrian zirela; guztiak herrialde berean bizi ziren, baina eraikina beste mundu batekoa zen, bertakoak sartzerik ez zuen mundu modernokoa. Askotariko ekonomia honetan, lehia askoz zorrotzagoa da Mendebaldeko munduan baino. 'Materialismoa, arrazionalismoa, indibidualismoa eta arreta ekonomi helburuetan jartzea askoz osoago eta erabatekoagoak dira Mendebaldeko lurralde homogeneousetan baino; erabateko zurrupatzea trukean eta merkatuan, mundu kapitalista bat negozio-kezka gaitzat duela, kapitalismoaren ezaugarri askoz ere tipikoagoak dira herrialde kapitalista deritzanetan uste daitekeena baino, astiro-astiro iraganetik sortuak eta oraindik ere ehundaka sustrairen bidez hari loturiko herrialdeetan'<sup>80</sup>... Honela, nahiz eta dependentzia hauek itxuraz Mendebaldeko irizpideen arabera birmoldatuak izan, benetan ekonomi sistema bezala izan ziren birmoldatuak, ekoizpenerako eta ez gizarte-bizitzarako. Erdi Aroko estatua, bat-batean, lantegi moderno bihurtuta geratu zen»<sup>81</sup>.*

Kultur hedatze eta hartzearen gure bigarren «legea» gizarte-gorputz emisore batean ezarri den kultur ereduak gizarte-gorputz hartzaile batean berresteko duen joera da, transmisio-prozesuan banatu egin diren kultur elementu osagarriak bildu eta elkartz. Joera horrek aurkako joerarekin borrokatu behar du, erasotutako gizarteak erresistitzeko duen joerarekin, baina erresistentzia honek normalean ezin du prozesua mantsotzea baino gehiago lortu. Infiltrazio-prozesu neketsu hau aurrera egiten eta bukaera garratzera —Madiango oste setiatzaile guztia Israelgo defentsa inguratuen barrura— eramaten ikusten dugularik, ikaragarritzko mirari honen alde harrigarria ez da, jakina, orratzaren zuloa eragozgarria izatea, gameluaren desegokita-

sunak baizik. Kanpotik sarturiko kultur elementuak ezin dira banatu, uste izan zitekeen bezala, eta «gauza batek bestea dakar».

Egia esateko, gizarte erasotuak ez dira betiitsuak izaten, kultur elementu itxuraz hutsal eta kaltegabeenari sartzen utziz gero ziur aski etor litezkeen ondorioei buruz. Jadanik aztertu ditugu zenbait topaketa historiko, non gizarte erasotuak arrakasta izan duen erasotzailearen erasoak errefusatzeko, aldi batez bertan egoteko aukerarik ere eman gabe; eta nork bere burua bakartzeko politika zorrotza, garaipen bakan hauek lortu zituenak, beste kasu batzuetan ere saiatu zen eta haietan huts egin zuen. Politika honi guk zelotismoa deitu diogu, izena «Lurralde Santutik» kultura helenikoa guztiz eta erabat errefusatu edo kanporatu nahi zuen judu-alderditik hartuta. Zelotearen ethos berezia emozionala eta intuitiboa da, baina politika hori egin daiteke hotz-hotzean oinarri arrazionalen arabera. Azken jarrera honen kasu klasiko bat Japonia eta Mendebaldeko munduaren artean harremanak moztea izan zen, sakon hausnartu ondoren, Hideyoshik eta haren ondorengo tokugawa-tarrek K.o. 1638an bukatu ziren berrogeita hamaika urteetan pixkanaka zertu zutenak. Are harrigarriagoa da atzerriko sartutako kultur eredu bateko elementu desberdinek berez duten elkarren mendekotasunaren antzeko kontzientzia aurkitzea arabiar herrialde apartatu eta atzeratu bateko gobernari zaharkitu baten buruan, arrazoibide bertsua eginez antzeko ondorioa iritsi zelarik.

Zelote arrazionalista baten buru-jarrera oso argi erakusten du 1920ko urteetan izandako elkarriketa batek Sana-ko Yahya iman zai-diaren eta britainiar mandatariaren artean, honen eginkizuna imana konbentzitzea izanik Adengo britainiar protekturatuaren zati bat, 1914-18ko mundu-gerran bereganatua, bakean itzul zezan. Azken elkarriketan, misio hark ez zuela bere xedea lortuko garbi geratu ondoren, britainiar mandatariak, elkarriketari beste norabide bat eman nahirik, imana zoriondu zuen eredu berriko bere armadaren itxura militarragatik. Laudorioa imanari ongi hartu zuela ikusita, honela jarraitu zuen mandatariak:

*«—Eta Mendebaldeko beste erakunde batzuk ere hartuko dituzula pentsatzen dut!*

*—Ez dut uste —esan zion imanari irribarre batez.*

*—O, benetan? Interesatzen zait hori. Eta zilegi bazait horretarako arrazoiak berri izatea?*

—Ba, zera, ez dut uste Mendebaldeko beste erakunde batzuk atsegin izango nituzkeenik —esan zion imanak.

—A, ez? Zein erakunde, adibidez?

—Ba, parlamentuak adibidez —esan zion imanak—. Niri gobernuia neu izatea gustatzen zait. Parlamentua nekagarri gerta dakidake.

—Horregatik bada —esan zion ingelesak—, esan diezazuket ordezkarien gobernuia, parlamentuari erantzun behar diona, ez dela gure Mendebaldeko zibilizazioaren aparatuan ezinbesteko zerbait. Begira Italiari. Bertan behera utzi du hori eta Mendebaldeko botere handietako bat da.

—Alkohola ere hor dago —esan zuen imanak—, ez dut hori neure herrialdean ikusi nahi, oraingoiz eta zorionez ia erabat ezezaguna baita.

—Oso normala —esan zion ingelesak—, baina, horregatik bada, esan diezazuket alkohola ere ez dela Mendebaldeko zibilizazioaren ezinbesteko osagarria. Begiratu Amerikari. Bertan behera utzi du hori, baina bera ere Mendebaldeko botere handietako bat da.

—Tira, edonola ere —esan zion imanak beste irribarre batez, elkarriketa bukatu zela adierazteko moduan—, nik ez ditut atsegin parlamentuak eta alkohola eta era horretako gauzak».

Istorio honen irakaspena zera da, bere intuizioaren zolitasuna agertzean, imanak zeharbidez bere helburuaren gaitza ere salatu zuela. Bere armadarentzat Mendebaldeko teknikaren hastapenak onartzean, jada sartua zuen gaitz askoren hasiera izan zitekeena; hasia zuen kultur iraultza bat, azkenean jemendarrak alternatibarik gabe beren biluztasuna Mendebaldeko oihalez egindako jantzi osoz estaltzera eramango zituena.

Imanak bere hindu-garaikidea, Mahatma Gandhi, ezagutu izan balu, horixe da hindu estatu-politikari santuak esango ziokeena. Bere hindu-herrikideei beren kotoia berriro eskuz irun eta ehotzeko eskatzean, Gandhi bide bat erakusten ari zitzaien Mendebaldeko ekonomi amaraunaren sare ikuskorretatik libratzeko; baina Gandhiren politika hori bi ustetan oinarritua zegoen, biak ere justifikatu beharrekoak, politika hark bere helburua lortzea nahi bazen. Lehen suposizioa, hinduak prest egotea zen politika hark eskatzen zituen sakrifizioak egiteko; eta, jakina, ez zeuden. Baina, Gandhiri bere herritarren eskuza-

baltasun ekonomikoaz zituen itxaropenek huts egin ez baliote ere, haren politikak berdin porrot egingo zukeen bigarren uste inplizituaren faltsutasunagatik, hau da, kanpotik sartutako kulturaren nolakotasun espiritualari buruzko uste okerragatik, alegia. Gandhik Mendebaldeko zibilizazio moderno berantean gizarte-egitura sekularra baino ez zuen ikusi nahi, non teknologiak ordeztua baitzuen erlijioa. Dirudienez, ez zitzaion bururatu hain maisuki erabiltzen zituen antolaketa politiko, publizitate eta propagandako metodo garaikideak berak erasotzen zituen kotoi-lantegiak bezain «mendebaldarrak» zirela. Baina hori baino urrutirago joan behar da; zeren eta Gandhi bera Mendebaldeko kultur irradiazioaren produktu bat baitzen. Gandhiren «arima-indarra» askatu zuen gertaera espirituala topaketa bat izan zen, arimaren santutegian zertua, hinduismoaren espirituaren eta kristau-berriaren espirituaren arteko topaketa, eta Adiskideen Elkartearen bizitzan gorpuztua. Mahatma santua eta iman martziala ontzi berean zeuden.

Oro har, zibilizazioen arteko topaketetan, alderdi erasotuak erasokorki erradiaktiboa den kulturaren elementu aitzindari bakar bati ere bere gizarte-gorputzean kokatzea eragozten ez badio, irauteko aukera bakarra iraultza psikologikoa egitea du. Oraindik ere gai izan daiteke bere burua salbatzeko zeloteen jarrera utzi eta «herodetarren» kontrako taktikak hartzen baditu, alegia, erasotzaileari bere armekin aurre egiten ikastea. Osmanliarrek Mendebalde moderno berantarekin izandako topaketatik adibidea hartzeko, Abd al-Hamid II.a sultanaren politika uzkurak, ahalik eta gutxien mendebaldartzekoak, porrot egin zuen bitartean, Mustafa Kemal Atatürk-en politika sutuak, ahalik eta gehien mendebaldartzekoak, salbazio-bide praktikoa eskaini zuen. Hutsala da pentsatzea gizarte batek mendebaldartu dezakeela bere armada eta beste alderdi batzuetan lehen bezala jarraitu, eta uste horren hutsalkeria argitu dugu jadanik petritar Errusiaren, hemeretzigarren mendeko Turkiaren eta Mehmet Ali-ren Egiptoren kasuetan. Eta kontua ez da bakarrik mendebaldarturiko armadak mendebaldarturiko zientzia eta industriaren, hezkuntza eta medikuntzaren laguntza behar duela. Armadako ofizialek berek Mendebaldeko nozioak ikasten dituzte, beren trebakuntza profesionalarekin zerikusirik gabeak, batez ere atzerrira bidaltzen badituzte lanbidea ikastera; eta hiru herrialde horien historiak berezitasun paradoxiko bat erakusten du:

armadako ofizial-taldeak iraultza «liberalak» gidatzen. Horrelako ikuskizuna eman zuen bai Errusian «abenduko» iraultza abortatuak K.o. 1825ean, bai Arabi pasha-k K.o. 1881ean Egipton zuzendutako iraultza abortatuak, eta bai Batasun eta Aurrerapen Batzordeak Turkian K.o. 1908an zertutako iraultzak, hau ez abortatua, baina hon-damendian bukatu zena hasi eta hamar urtera.

## *b) Arimaren erantzunak*

### *(I) Deshumanizazioa*

Garaikideen arteko topaketen gizarte-ondorioetatik psikologi-koetara eramatean gure arreta, komenigarria izango da, berriro, «era-gile» eta «erreaktibo», erasotzaile eta erasotuaren paper antitetikoak jokatzen dituztenengan izandako ondorioak aparte aztertzea; eta onena lehenengo eragilearengan zertutako ondorioa aztertzea izango da, bera baita topaketan ekimena izan duena.

Atzerriko gizarte-gorputz batean sartzen arrakasta izan duen zibilizazio erasokorki erradioaktibo baten ordezkariak fariseuaren hybris-ari amore emateko joera dute, honek Jainkoari eskerrak ematen dizkiolarik ez delako besteak bezalakoa. Gutxiengo menderatzaileak atzerriko gizarte-gorputz menderatu batetik bere barne-proletalgora sarturiko erreklutei gizazpiko «galtzaileak» balira bezala begiratu ohi die. Hybris-mota berezi horri dagokion nemesia bereziki ironikoa da. Une batez mendean duen gizakia galtzailetzat tratatzean, «gainean» dagoena oharkabean egiaztatzen ari da gezurtatu nahi duen zerbait. Egia zera da, arima guztiak berdinak direla Egilearen ikuspegitik; eta bere lagun hurkoei gizatasuna kendu nahi dien gizakiak lortzen duen emaitza bakarra bereaz gabetzea da. Gizagabetasunaren adierazpen guztiek, ordea, ez dute higuigarrikeria bera.

Ankerkeria gutxieneko gizagabetasun-forma arrakastaz eraso-kor den zibilizazioaren ordezkariak erakutsi ohi dute, horien kultur ereduan erlijioa izanik gobernatzen eta orientatzen duen elementua. Halako gizarte batean galtzailearen gizatasuna ukatzeak bere erlijio-ezgaitasuna baieztatzearen forma hartuko luke. Kristandade menderatzaileak bataiatu gabeko fedegabetzat estigmatizatuko du; Islam

menderatzaileak, erdaindu gabeko sinesgabetzat. Aldi berean, galtzailearen gutxiagotasuna erlijio-konbertsioz senda daitekeela onartuko da, eta kasu askotan irabazleek sendabide hori erabili izan dute, agian beren interesen aurka ere bai.

Elizaren unibertsaltasun potentziala, Erdi Aroko Kristandadeko ikus-artearen, hiru errege magoetako bat beltza izate horren konbentzioan zegoen sinbolizatuta; eta, Mendebalde modernoaren hasierako Kristandadearen praktikan, ozeanoetako itsasketa menderatzeko balentriaz beste gizarte bizi guztiei bere presentzia ezarri ziena, Elizaren unibertsaltasunaren zentzu berak bere zintzotasuna erakutsi zuen espainiar eta portugaldar *conquistadores*-ak prest agertzean gizarte-trukean edozer egiteko, ezkontzea barne, kristautasun erronkatar katoliko trentotarrera konbertituekin, «kolorea» kontuan hartu gabe. Peru eta Filipinen espainiar konkistatzaileek, beren hizkuntza irakasteko baino beren erlijioa irakasteko askoz gogotsuago zeudenez, herri konkistatuaren berezko hizkuntzak gaztelaniari kontra egiteko bitartekoz hornitu zituzten eta hizkuntza haiek garatu zituzten liturgia eta literatura katolikoa transmititzeko bide gisa.

Honela, beren erlijiozko uste sendoen zintzotasuna erakustean, espainiar eta portugaldar inperiogileei musulmanek hartu zieten aurea, hauek, hasieratik, beren konbertituekin ezkondu izan baitziren arraza-desberdintasunari begiratu gabe. Baina musulmanak urrutirago joan ziren. Gizarte Islamikoak, Koraneko testuetan jasotako agindu batetik, zera heredatu zuen: bazirela islamikoak ez ziren erlijio batzuk, beren egokitasunik eza gorabehera, jainko-egiaren benetakoa errebelazio partzialak zirenak. Aitorpen hori, hasieran judu eta kristauei onartua, gero zoroastroar eta hinduengana hedatu zen. Hala ere, musulmanek nabarmen huts egin zuten maila tolerante samar honetara igotzen *Sunna* eta *Xii*-aren arteko desberdintasun sektarioekin topo egin zutenean beren erlijio-komunitatearen barruan. Honetan, «hasierako Elizako» edo «Erreformaren garaiko» kristauak antzeko egoeran bezain gaitzesgarri agertu ziren.

Irabazleak galtzailearen gizatasunaz egiten duen ukoetatik kalterik gutxieneko hurrengo forma galtzailearen kultur ezgaitasuna baieztatzea da erlijio-krisalida tradizional batetik irten eta bere balioak termino sekularretara aldatu dituen gizarte batean. Bigarren belau-naldiko zibilizazioen kultur erasoaren historian, hau zen helenoen eta

«barbaroen» artean ezarritako bereizketaren konnotazioa; eta Mendebalde moderno berantean gizadiaren kultur dikotomia horrek frantziarren aurkitu zituen adierazgarriak Ipar Amerikako indiarrekin hemezortzigarren mendean izandako harremanetan, eta magrebier eta vietnamiarrekin hemeretzigarren mendean, eta Saharaz hegoaldeko afrikar beltzekin kristau-aroko hogeigarren mendean. Jarrera bera hartu zuten holandarrek Indonesiako Malaysiar herriekiko harremanetan; eta Cecil Rhodes-ek kultur ideal berbera piztu nahi izan zuen holanderaz eta ingelesez mintzo ziren hego-afrikarren bere eslogana asmatu zuenean: «Eskubide berdinak Zambesiren hegoaldeko gizaki zibilizatu ororentzat».

Hego Afrikan idealismoaren txinparta hori itzali egin zuen, 1910ean Batasuna ezarri ondoren, afrikanerren holandar nazionalismo estu eta bortitzaren erupzioak, bantu, indonesiar eta indiar jatorriko hego-afrikar herriekideen gain bere agintea ezarri nahi zuelarik, ez kultur edo erlijio-nagusitasunean oinarrituz, arraza-nagusitasunean baizik. Bestalde, frantziarrak oso urrutira joanak ziren beren kultur uste sendoei eragin politikoa ematean. Algerian, adibidez, eta 1865az geroztik, fede islamikoa zuten algeriar mendekoek Frantziako zuzenbide zibilarren eskumena onartzen baldin bazuten, erabateko frantziar hiritartasuna lortu zezaketen, zuzenbide zibilarren arlo erabakigarri bat barne, estatutu pertsonal gisa ezaguna, erabateko frantziar hiritartasunaren estatusak bere hartzaileei automatikoki ezartzen ziena.

Frantziarren zintzotasuna, Mendebalde moderno beranteko kulturaren frantziar bertsioan arrakastaz graduaturiko edonori ate politiko eta sozial guztiak irekitzeko idealaren arabera jokatzekoa, gertaera batek erakutsi zuen, Frantziaren ohorea errebindikatzean Bigarren Mundu Gerraren emaitzan eragin nabarmena izan zuen gertaera batek. Frantzia 1940ko ekainean erori zenean garrantzi handiko kontua zen ea Vichyko gobernuak ala Erresistentziak izango ote zuen arrakasta Frantziar Inperioko afrikar lurraldeak bere kausara erakartzen. Une hartan frantziar Afrika ekuatorialean Txad probintziako gobernadorea Afrikako arraza beltzeko frantziar hiritar bat zen; eta kultur adopzioz frantziarra zen beltz hark behar bezala zertu zuen bere erantzukizun ofiziala Frantziar Erresistentziaren aldeko aukera eginenez, eta honela mugimendu hari, ordu arte erabat Londresen oinarrituari, Frantziar Inperioan lehenengo sarrera segurua emanez.

Zapaltzaileen eta zapalduen arteko marra egiteko kultur irizpi-deak, erlijiosoak bezalaxe, eragozpen asko jar dakizkiokeen arren, ez du leize gaindiezina finkatzen giza familia banatzen duen bi zatien artean. «Fedegabeek» konbertsioaren bidez igaro dezakete marra; «barbaroek» azterketa gaindituz igaro dezakete marra. Zapaltzaileak urrats garrantzitsua egiten du beherantz zapalduari ez «fedegabe» edo «barbaro» baizik eta «bertako» deitzen dionean. Atzerriko gizarte bateko kideak beren etxean «bertakotzat» estigmatizatzean, zapaltzailea gizatasuna ukatzen ari zaie haien ezgaitasun politiko eta ekonomikoa baieztatziz. «Bertakotzat» izendatzean Mundu Berri zapaldu gabe bateko fauna eta flora ez-gizatiarrarekin parekatzen ari da zeharbidez, mundu hori giza aurkitzaileen zain egon delarik han sartu eta hartaz jabetzeko. Premisa horietan fauna eta flora erauzi beharreko piztia eta belar txar-zat har daitezke, edo iraunarazi eta ustiatzeko natur baliabidetzat.

Aurreko testuinguruetan ere aurkitu ditugu filosofia higuingerri honen praktikatzaile klasikoak, herri sedentario konkistatuen gain beren agintea ezartzen noizean behin arrakasta izan zuten eurasiar horda nomadetan. Lagun hurkoak ehiza edo ganadu balira bezala tratatzean, otomandar inperiogileak frantziar inperiogileak beren mende-koak barbaro gisa erabiltzean bezain gupidagabeak eta erabat logikoak izan ziren; eta, egia izanik ere emantzipatu gabeko frantziar mende-koak otomandar *raiya*-ak baino askoz ere hobeak zirela, egia zen halaber giza etxabere batek, giza artzain osmanliarrak giza ardi-txakur izateko heziak, bere talentuentzat are karrera distiratsuagoa aurkitzen zuela, afrikar *évolué* batek frantziar funtzionario edo letra-gizon bilakatzen arrakasta izandakoan espero zezakeena baino.

Berant Aro Modernoan, Mendebaldeko Gizartearen itsasoz gaindiko hedapenean Europako aitzindari mendebaldar protestante ingeles-hiztunak izan ziren txarrenak inperiogile nomaden bekatua egiten, «bertakoak» giza arimen artetik ateratzeko bekatua egiten, alegia; eta krimen zahar baten errepikapen honetan berezitasun makurrena beste urrats bat beherantz egiteko jarrera izan zen, osmanliarrak sekula iritsi gabeak haraino, eta bertakoen ezgaitasun politiko eta ekonomikoaren aldarrikapenari heltzeko joera izan zen, «arraza kaskarra-goien» hazitzat estigmatizatuz.

Zapaltzaileak zapalduari ezarri zizkion lau estigmatetik, arraza-gutxiagotasunari buruzko estigma zen maltzurrena, eta hau hiru



arrazoiengatik. Lehenengo, zapalduaren ezdeustasuna baieztatzea esan nahi zuen inolako koalifikaziorik gabeko gizaki gisa, «fedegabe», «barbaro» eta «bertako» deiturak, gutxi-asko iraingarriak izan arren, soilik giza ezaugarri partikular baten edo bestearen ukatze eta haiei zegokien giza eskubide partikular baten edo bestearen errefusatzek ziren bitartean. Bigarren, gizadiaren arraza-dikotomia hori erlijio-, kultur, politika- eta ekonomi dikotomiekiko desberdina zen gaindiezina zen leizea ezartzerakoan. Hirugarren, arraza-estigma erlijio eta kultur estigmekiko desberdina zen (baina ez estigma politiko-ekonomikoarekiko) bere irizpidetzat giza izaeraren alderdirik axaleko, hutsal eta ezdeusenak —larrazalaren kolorea edo sudurraren forma— aukeratzean.

## *(II) Zelotismoa eta herodianismoa*

Alderdi erasotuaren erantzuna aztertzeari ekiten diogunean, aukera kontrako bi ekintza-bideren artean daukala aurkitzen dugu, horietarako dagoeneko aurkitu ditugularik, eta Azterlan honetan hainbat aldetan erabili ere bai, Itun Berriko narrazioetatik harturiko izenak.

Garai hartan helenismoa gogor ari zen presionatzen judaismoaren gain gizarte-jardueraren maila guztietan. Ez zegoen judurik, edozein aldetara jota ere, ihes egin edo bazter zezakeenik heleno bihurtzeko edo ez bihurtzeko arazoa. Zeloteen fakzioa erasotzaileari atzera eusten saiatu eta beren judu-ondarearen gotorleku espiritualera erretiratzeke bulkada zuen jendearen artetik erreklutatzen zen. Haiek animatzen zituen fedea uste honetan oinarritzen zen: arbasoen tradizioaren arabera jokatzeko bazuten, hura oso-osorik betez eta ez beste ezer, arduratsu gorderiko bizitza espiritualaren iturburutik naturaz gaindiko indarra etorriko zitzailela, erasotzailea errefusatzeko gai egingo zituena. Herodesen fakzioa, bestalde, estatu-politikari oportunista baten jarraitzaileen artetik zegoen erreklutatua, idumear jatorriak bere jeinu pertsonalarekin batera gai egiten zuelarik makabeoen erresuman sartu berria zen probintzia jentil bateko seme hura arazoa aurreiritzi gutxiagoz ikusteko. Herodes Handiaren politika helenismotik ikastea zen helburu zentzuzko eta praktikoa hau lortzeko juduentzat beharrezko izan zitekeen guztia: berenean tinko iraun eta bizitza eroso samarra izatea mundu helenizatuan, hura baitzuten gizarte-inguru saihestezina.

Judu-herodetarrek Herodes baino askoz lehenago ere izan ziren. Alexandriara emigraturiko judu-komunitatearen borondatzeko auto-helenizazioaren hasierak aurkitzen ditugu arragoa izan zen hiri haren haurtzaroan bertan, fundatzailea hil eta berehala; eta, Judeako herrialde menditsuan ere, Josue-Jason apaiz nagusia, gobernu-eskola herodetarren arketipoa dena, lanpeturik zebilen K.a. 160a baino lehen bere deabru-lana egiten (horrela ikusten zuten zeloteek, behintzat): lagun gazteenak limurtzea palestra heleniko batean gorputzak lotsagabeki erakutsi eta buruak arrunki ezkuta zitzaten *petasus* helenikoaren hegala zabalaren azpian; eta probokazio honek garaiko zelote-erreakzioa eragin zuen, Makabeoen bi liburuetan agertzen den bezalala. Eta judu-zelotismoa ez zuen desagertarazi erromatarrek K.o. 70ean Jerusalem arpilatzeo hondamendiak, ezta K.o. 135ean berriro eta behin betiko suntsitzeak ere; zeren eta erronka hari Johanan ben Zakkai errabinoak erantzun baitzion judaismoari erakundezko egitura bizigabeki zurruna eta aztura psikologiko pasiboki setatia emanez, honek gai egin zuelarik bere talde-bizitza bereizgarria gordetzeko politikoki ahalgabea zen diasporaren buztinezko bizileku hauskorrean.

Juduak, hala ere, ez ziren komunitate siriako bakarra, ezta Gizarte Siriakoa ere Ekialdeko zibilizazio bakarra, helenismoaren erronkak herodetarren eta zeloteen arloetan banatu zuena. Siziliako siriar plantazioetako esklaboek K.a. bigarren mendean egindako matxinada zeloteak orekatu egin zituen Erroman, ondorengo inperio-arloan, helenismora konbertituriko liberto siriakoen uholde herodetarrek. Aitzitik, Gizarte Siriakoaren geruza aberats eta sofistikatuagoaren herodianismoa, zeini gizarte-partaidetza emateko prest baitzegoen gutxiengo menderatzaile helenikoa, judaismoaz gain beste erlijio nagusi siriako batzuen erreklutatzek orekatu zuen, eginkizun zelote nekagarria, espiritualki garrantzirik gabea eta profanatzailea, bete zezaten: kultur gerra sekular bat egiteko tresnak izatea. Zoroastrismoak, nestorianismoak, monofisismoak eta Islamak guztiek jarraitu zioten judaismoaren norabideari espiritualki negargarria zen desbideratze honetan erlijioaren benetako bidetik. Hala ere, galbideraturiko hiru erlijio-mugimendu horietako hiru azkenekoek azkenean ordaindu egin zuten beren aberrazio zelotea herodetar ekintza baten bidez, beren liturgi hizkuntzetara filosofia eta jakintza helenikoaren lan klasikoak itzuliz.

Orain, Erdi Aroan Mendebaldeko Kristandadearekin topo egin zuten gizarteetan agerturiko erreakzio psikologikoei begiratu bat ematen badiegu, historian ezagutu diren herodianismoaren praktikatzailerik erabatekoenak pagano izandako eskandinaviar barbaro inbaditzaileengan aurkituko ditugu, Mendebaldearen kultur garaipen goiztiar eta garrantzitsuenetako baten ondorioz, Mendebaldeko kristau-bizimoduaren normandiar adierazle eta zabaltzaile bihurtu zirelarik. Normandiarrek ez zuten erlijioa soilik hartu, baita haiek Karolinjiar Inperioaren bihotz giliarrean beretzat sorturiko ondorengo estatuan zegoen eta erromani-koz mintzo zen jatorrizko jendearen hizkuntza eta poesia ere. Frantziar izeneko Taillefer normandiar juglareak Hastings-eko gudura zihoazenean bere zaldun-kideei amore emateko ahotsa altza zuenean ez zien *Völsungasaga* kantatu eskandinavia zaharrean, baizik eta Errolanen Kantorea frantsesez; eta, Ingalaterrako Gilermo Konkistatzaileak, berak ezpataz irabazitako probintzia atzeratu eta bakartuan, despota moduan Mendebaldeko Kristau Zibilizazio jaio berriaren hazkundera sustatu baino lehen, beste normandiar abenturazale batzuk sartuak ziren Mendebaldeko kristau-munduaren mugak zabaltzeko zereginean beste aldeko muturrean, Kristandade Ortodoxoaren eta Dar-al-Islam-en bizkar Apulian, Calabrian eta Sizilian. Are ohargarriagoa izan zen beren sorleketan jarraitu zuten eskandinaviarrek Mendebaldeko kristau-kulturaz egindako onarpen herodetarra.

Eskandinaviarrek atzerriko kulturekiko izan zuten jarrera hartzaile hori ez zen Mendebaldeko Kristandadekora mugatu. Halaber, arte eta erakunde bizantziar eta islamikoei Siziliako normandiarrengan zertutako eraginean ere aurkitzen dugu; baita Irlandako biztanle daniarrek eta mendebaldeko uharteetara joandako iparraldeko kolonoek lortu zuten Mendebalde Urruneko kultura kristau zeltikoaren tinduran ere; eta Dnieper eta Neva-ren arroetako eslaviar barbaroen konkistatzaile izan ziren errusiar eskandinaviarrek kultura kristau ortodoxoaz egindako onarpenean.

Erdi Aroan Mendebaldeko Kristandadearekin topo egin zuten beste gizarte batzuetan bulkada herodetar eta zeloteak askoz berdina- go orekatuta aurkitzen ditugu. Adibidez, Dar-al-Islam-go erreakzio zelotea gurutzaden aurka, neurri bateraino, Mendebaldeko kristau-bizimodura konbertitu ziren Ziliziako armeniar monofisiten normandiar joerako herodianismoak orekatu zuen.

Gure erreakzio psikologiko antitetikoen pareak aurki daiteke, halaber, Kristandade Ortodoxoak eta hindu-munduak Zibilizazio Musulman Iraniko erasokorrarekin izandako topaketan historietan. Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusian, Otomandar Inperioaren mende, gehiengoak arbasoen erlijioari atxikitzen zitzaion, haren eliz independentzia gordetzea aukeratu zuelarik atzerriko erregimen politiko baten mende jartzearen truke. Hala ere, zelotismo hori, neurri batean, baita erlijio-mailan ere, gutizia sozial edo politikozko arrazoiengatik musulman bihurturiko gutxiengo batek orekatzen zuen; eta askoz jende gehiago erori zen herodianismoaren mende beren nagusien hizkuntza ikasi eta haien janzkera imitatze modu hutsalagoan, baina ez garrantzi gutxiagokoa. Raja mogolarekiko hinduen erreakzioak bide bertsutik joan ziren; baina, Indian, konkistatzaileen erlijiora konbertitzea askoz ere eskala handiagoan eman zen, batez ere sozialki zapalduak eta Ekialdeko Bengalan hinduismora konbertitu berriak ziren paganoen artean, kristau-aroko hogeigarren mendean haien ondorengoak ekialdeko Pakistan probintzia banatu bilakatu zirelarik.

Garaikideek Mendebalde modernoarekin izandako topaketak jada aztertu dira Azterlan honen zati honetan lehenagoko kapitulu batean. Aurrekari haiek gure oraingo ikuspegi psikologikotik aztertu bagenitu, guztietan aurkituko genituzke zelotismoaren eta herodianismoaren bulkada antagonisten artean txandakatzeak eta gatazkak. Ekialde Urruneko Gizartearen kasua Japonian adibide bereziki argitzat har daiteke. Lehenengo esperimendu bat herodianismoarekin egin ondoren, japoniarrak zorrotz eta arrakastaz mantenduriko aldi zelote batean sartu ziren, Tokugawa shogungoak harremanak eten zituenean Japoniaren eta Mendebaldearen artean. Hala ere, herodetar gutxiengo txiki batek iraun egin zuen beren atzerriko fede debekatuari berrehun urte baino gehiagoz isilpean leial atxiki zitzaizkion kriptokristauegan, K.o. 1868ko Meiji iraultzaren ondoren berriro agerian bizitzeko aukera izan zuten arte. Data hori baino lehentxeago, ordea, bigarrena eta desberdina zen japoniar mugimendu herodetar batek indartu zituen, Mendebalde moderno berant sekularizatuaren zientzia berria, ordurako, holandarren bidez, ezkutuan aztertzen ari ziren kripto-iker-tzaileak animatzen zituen mugimendua. Meiji iraultzaren ondoren, herodianismo asmatu berri honek japoniar politikaren kontrola bereganatu zuen, mundua ikaratuko zuten emaitzekin.

Baina erabat herodetarra al zen azken fase hau? Nolabaiteko anbibalentziaren aurrean aurkitzen gara hautaturiko konparazio-terminoetako batean, eta agian, bietan. Zelotismoarentzat helburua garbi dago: «Greziarren opari ikaragarriak» baztertzea. Baina horretarako bideak asko dira: hasi makabeoenaren tankerako gerra irekiaren metodo positibotik eta nork bere burua bakartzeko metodo negatiboraino, bai Japonian bezala muga itxi zuen gobernu-ekintzaren bidez, edo bai gizabanakoen ekintzaz, ekimen pribatuz eusten ziotelarik herri berezi baten berezitasunari Sakabanaketako juduen erara. Bestalde, herodianismoari dagokionez, bitartekoak garbi daude. «Greziarren opariak» esku zabalik onartzea, erlijioak izan edo gailuak izan. Baina helburuari buruz, zer? Herodetar, eskandinaviar, iparretar edo normandiar guztien artean bene-benetakoenen helburua —agian oharkabean bilatua, baina edonola ere eraginkortasunez lortua— topo egindako zibilizazioarekin erabat bat-egitea zen. Erdi Aroko Mendebaldearen historian jakina da normandiarrek bizkortasun harrigarriaz igaro zirela konbertsio, buruzagitza eta desagertze-faseetatik. Azterlan honetan lehenagoko orrialde batean garaiko behatzaile baten lerro-pare bat aipatu ditugu, Gilermo Apuliakoarenak:

*Moribus et linguâ, quoscumque venire videbant,  
Informant propriâ, gens efficiatur ut una.*

«Beraiekin topo egindakoen ohitura eta hizkuntzetara konbertitzen dira, eta arrazazko bat-egitea da emaitza».

Baina hori da beti herodetar helburua? Zuzen interpretatu baldin badugu Herodes Handiaren politika, herodianismoaren heroe epónimo hark sinesten zuen —oker, beste kasu batzuk aztertzean aditzez— eman dugun legez— helenismo-dosi homeopatikoko bat izango zela bitartekorik onena judaismoaren iraupena ziurtatzeko; eta Japoniako herodianismo modernoa, zalantzarik gabe, hurbilago zegoen Herodesi egotzi diogun politikatik normandiarren praktikatik baino. Japoniako estatu-politikari modernoen iritzia zen Japonia Mendebaldeko tankean botere handi bihurtuko zuen iraultza teknologikoak baino ezer gutxiagok ez ziola japoniar gizarteari bere aparteko nortasuna gordeztea eragotziko; eta hori zeloteen helburua herodetar bitartekoen bidez lortu nahi izatea zen. Diagnosi honen berrespena K.o. 1882ko dekretuan aurkitzen da: teknologikoki mendebaldarturiko japoniar gobernua mantendu zen Estatu Shinto baten antolaketa ofizialerako, non

budismo-aurreko paganismo berpiztua erabiliko baitzen japoniar herri, erkidego eta estatu bizi bat jainkotzeko bide gisa. Hori gauzatzeko berriro aktibatu zen Eguzki jainkosaren kimutzat jotzen zen dinastia inperialaren kultu arkaiko baten sinbolismoa. Kultu horrek bere herentziazko jainkotasun kolektiboa eskaintzen zuen, hemen eta orain gurtzeko, erreinatzen zuen enperadorearen pertsonan betikoz haragituriko jainko baten epifanian.

Gure termino alternatiboen aplikazioari dagozkion zailtasunak, hasieran oso dikotomia sinplea ziruditenak, nonahi geratzen dira nabarmen. Adibidez, nola sailkatu behar genuke mugimendu sionista? Errito-tradizioaren zale ziren puritano zeloteen gaitzespena bereganatu zuen, haien begietara sionistak fedegabeziaren errudun baitziren, beren ekimen eta indarrez Lurralde Agindura fisikoki itzultzeko ustea zutelako, berez Jainkoaren pribilegio zen zerbait, Hark ongi iritzita-koan beteko zena; baina halaber argi eta garbi herodetar asimilazio-nista zirenen gaitzespena ere bereganatu zuen; hauek juduak «herri berezi bat» zirelako sineskizun irrazionala deitoratzen zuten, eta gehiago edo gutxiago azkenaldiko tesi liberal modernoa onartzen zuten, alegia, judu-fedea, beste fede batzuk bezalaxe, bere xedea bete zuen krisalida bat zela.

Hogeigarren mendeko figura handienetako bik —Leninek eta Gandhik— era bereko enigma zaila aurkezten digute; zeren eta badi-rudi biek, erromatarren Jano jainkoak bezalaxe, bi jokabideei egiten dietela aurre aldi berean. Mendebaldearen eta honen egintza guztien abusuen antologia monotono eta bukaezina atera daiteke haien idatzietatik, nahiz eta beraien irakaspena Mendebaldeko tradizio-ko elementuz josita dagoen: Leninen irakaspena Marxengandik datorren tradizio materialistaz; Gandhiren irakaspena kristau-tradizioaz, George Fox-en jarraitzaileek transmitituaren arabera. Gandhi, kastaren hindu-erakundea gaitzesten duenean, Mendebaldeko berri ona predikatzen ari da, oso harrera onekoa ez den hinduen misio-eremuan.

Gizarte erasotuen gorputz politikoetako kideentzat aukeran zeuden politikatzat hartuta, zelotismoa eta herodianismoa, eztabaida honen hasieran aipaturiko kasu sinple —eta agian larregi sinplifika-tu— bakan batzuetan izan ezik, autokontraesanen lainotan desager-tzen direla dirudi; baina gogoratu behar dugu ez genituela jarrera sozio-politiko gisa eztabaidatu nahi, banako arimen erantzun gisa bai-

zik. Alde horretatik, arkaismo eta futurismo deitu ditugun erreakzio alternatiboen adibidetzat har daitezke, Azterlan honetan lehenagoko zati batean aztertu ditugunak, kolapsatu eta desintegrazioan sartu diren zibilizazioetan agertzen den «giza arimako zisma» jorratzen ari ginenean. Testuinguru hartan, arkaismoa honela definitu dugu: arazoaldietan, zenbat eta atzerago geratu orduan eta bizikiago deitoratzen —eta agian historikotasun gutxiagoz idealizatzen— diren egoera zoriontsuago haietako batera itzultzeko ahalegina. Definizio honetan argi eta garbi sartzen da zelotismoa. Testuinguru berean honela ezau-garritu genuen arkaismoa:

*«Porrot-giroak edota, porrot positiboa ez bada ere, hutsalke-riak inguratzen ditu aztertu ditugun arkaismo-adibide ia guztiak; eta arrazoa ez da urruti bilatu behar. Arkaista beharturik dago, bere eginkizunaren izaeragatik beragatik, iragana eta oraina beti bat egiten saiatzera... Oraina kontuan izan gabe iragana berrezartzen saiatzen bada, orduan beti aurrera egiten duen bizitzaren oldarrak zati-zati eginda utziko du eraikin hauskorra. Bestalde, iragana ber-pizteko apeta oraina funtzionagarri bihurtzeko zereginaren mende jartzea onartzen badu, haren arkaismoa itxurazkoa baino ez da izan-go»<sup>82</sup>.*

Testuinguru hartan futurismoa honela definitu genuen: orainaldi desatseginetik ihes egiteko ahalegina, ezezaguna den eta ezagutu ere ezin daitekeen etorkizunera salto eginez; eta maniobra hori ere hondamendian bukatzen da. Herodianismoari dagokionez, beste gizarte bateko erakundeen eta ethosaren imitazioa da, bigarren esku-koa; eta kasurik onenean, ziur aski oso miresgarria ez den orijinal baten parodia izango da, eta kasurik txarrean elementu bateraezinen konbinazio adostasun gabea izango da.

### *(III) Ebanjelismoa*

Zelotismoaren eta herodianismoaren auto-porrot uniformearen historiaren orakuluak esan behar zuen azken hitza ote zen, topaketen ondorio espiritualei buruzko argibideak eskatzean? Benetan hori balitz azken hitza, orduan gizadiarentzako etorkizuna iluna izango litzateke, zeren eta gure egungo zibilizazio-eginkizuna igo ezinezko aldapa igotzeko ahalegin burutu ezina dela ondorioztatu beharko bai-kenuke.

Gogora dezakegun bezala, eginkizun handi hori abiapuntu berri batekin hasi zen: giza izaeraren irudimen-, ausardia- eta alda-kortasun-ahalmenak giza historian etapa garrantzitsu hartan gizadiak lortu ahal izan zuen orientabide-aldaketari zegozkion zailtasunen parekoak gertatu ziren. Gizon primitibo batek, atzera —lokatzetan geratutako zahar eta arbasoengana— zuzendutako bere mimesi-ahalmenaren epimetear norabideagatik aspalditxo geldi geratuak, orain berriro askatu zuen bere prometeear *élan*-a sozialki ezinbestekoa den ahalmen hori berori pertsonalitate sortzaileengana, aitzindari bide-urratzaile gisa agertzen zitzaizkionengana, zuzenduz. Mugimendu berri honek noraino eramango ote zituen —galdetzen zion geroko ikertzaileak bere buruari— kultura primitiboko heroi haien ondorengoak? Eta, bere bultzaldia agortu ondoren, gai izango ote ziren energia psikikoaren gordekin ezkuturen bat ateratzeko sorkuntzazko egin-tza errepikatuz? Azken galdera honen erantzuna ezezkoa izanez gero, egoera txarra izango litzateke zibilizazioaren prozesuan erdierretako gizakiarentzat.

Zelotea atzerantz begiratzen duen gizakia zen; herodetarra, aurrerantz begiratzen zuela uste izan arren, benetan alboetara begira-tzen eta auzokoei kopiatzen ahalegintzen zen. Hau ote zen guztia-  
ren bukaera?

Agian benetako erantzuna zera da: hau izan litekeela bukaera prozesu guztia zibilizazioaren historian sartuta egongo balitz, baina ez gizakiak zibilizazioan egiten duen ahalegina gizakiaren eta Jainkoaren arteko betiereko topaketaren prozesuan atal bat bakarrik izango balitz. Uholdearen mitoan, Hasierako liburuan kontatzen zaigun bezala, Adamen ondorengotza bere Egile irainduak suntsituta utzi zueneko hondamendiaren ondoren, Sortzaileak Noeri eta haren ontzi-lagun sal-batuei emandako itun-hitza etorri zen: «ez duela uholdeak berriro bizidunik hondatuko»; eta, egia esateko, dagoeneko aurkitu dugu, arkaismoaren eta futurismoaren porrotaz idazterakoan, badela hiruga-  
rren aukera bat.

Indar dinamiko berri edo mugimendu sortzaileraren baten sorre-rak barrutik bizitzari erronka egiten dionean, gizabanako edo gizarte bizia ez dago horregatik bi horien artean hutsalki aukeratzera behar-tuta: edo lehenagoko egoera batean izugarrikeria deitu duguna betiko-tuz kolapsatzera edo iraultza piztaraziz kolapsatzera. Irekita dago,



halaber, salbaziorako erdibide bat, non ordena zaharraren eta abiapuntu berriaren arteko egokitzapena harmoniara irits daitekeen goragoko maila batean. Hauxe da, hain zuzen, Azterlan honetan zibilizazioen hazkundeaz jardun dugun zatian aztertu dugun prozesua.

Antzeratsu, jada gauzatu den kolapso batek erronka egiten diotenean bizitzari, bizitzaren aldeko borrokan Patuari ekimena kentzeko borrokatzen ari den gizabanako edo gizarte bat ez dago aurrekoa bezain hutsala den aukera hau egitera behartuta: orainalditik iragane-ra salto egiten saiatzea edo lortu gabeko etorkizunerantz salto egiten saiatzea. Hemen ere bada erdibide bat: desatxikitze-mugimenduaren bidez erretiratzea, eta ondoren antzaldaketaren modura adierazita itzultzea. Agian mamia eman geniezaieke termino abstraktu horiei, berriro ere itzultzen bagara kristau-aroko lehen mendera eta Erromatar Inperioko izkina ilun hartara —non zeloteak eta herodetar-  
rrak, zeinen alderdi-izenei konnotazio zabalagoa ematera ausartu garen, beren bideitsuak ari baitziren arakatzen—, eta orain gure arreta, ez sektario-talde horietako batean edo bestean, baizik eta berorien garaiko pertsona batengan jartzen badugu.

Paulo Tarso hiri jentilean hazi zen fariseu —kultur bakarzale— bat bezala, eta aldi eta leku berean greziar heziketa hartu zuen eta erromatar hiritar izan zen. Honela, haren aurrean zelotearen eta herodetar-  
raren bidea zeuden zabalik, eta gazte izanik zelotismoa aukeratu zuen. Baina Damaskoko bidean izandako ikuskariak hasierako zelote-  
-bide maltzur hartatik kendu zuenean, ez zen herodetar bihurtu. Bide sortzaile bat erakutsi zitzaion, beste bi bideak gainditzen zituen. Erromatar Inperioa zeharkatu zuen predikatuz ez judaismoa helenismoaren aurka ez helenismoa judaismoaren aurka, bizimodu berri bat baizik, lehian zeuden bi kultura haien aberastasun espiritualaz baliatzen zena, aurreiritzirik gabe. Ezin zen kultur mugarik egon Ebanjelioaren bide hartan, zeren eta Kristau Eliza ez baitzen lehena-  
go beren arteko topaketetan aztertu ditugun zibilizazioen espezie bereko gizarte berri bat; bestelako espezie bateko gizarte zen.

#### *OHARRA. «ASIA» ETA «EUROPA»: EGITATEAK ETA FANTASIAK*

Bere historiaren sarreran, Herodotok aitortzen du pertsiar azalpena emango duela akemenestarrak helenoei eraso egitera bultzatu zituen arrazoiak. Berak kontatzen duenaren arabera, pertsiarrek uste

zuten ezinikusi beldurgarria heredatu zutela; helenoen aurka mendeku hartu beharraren zama ikusten zuten beren gain, Troiako inguraketa eta suntsipenagatik. Honela, bi gerra handiak, troiarra eta pertsiarra, «Europa» eta «Asiaren» artean historikoki etengabea zen liskarraren baitako gorabeherak ziren. Esan gabe doa, historiari dagokionez, pertsiarrek ez zirela halako betebeharrak batere jabetzen; Homero aztertzen ez zutenez, ziur aski ez zuten Troiako gerraren berri... hura benetakoa gertaera historikoa izan baldin bazen. Halaber, esan gabe doa Herodotoren deskribapena historikoki fantastikoa dela, behintzat onartzen bada, hark egiten duen bezala, troiarren eta pertsiarren artean, biak «asiar» ziren aldetik, sentimendu-kidetasuna zegoela. Horren zentzugabekeria argitzeko imajina dezagun liskar historiko oso antzekoa Europa eta Amerikaren artean, Dario-Washingtonek «Europaren» aurka mendeku hartu nahi duelako lehenago Agamenon-Cortés batek Mexikoren aurka egindako erasoagatik.

Halaz guztiz, Herodotoren mitoa interesgarria eta garrantzitsua da «Europa» eta «Asiaren» kontzeptuak zirkulazioan jarri zituelako erakunde lehiakide eta aurkari gisa, oraindik gure mapetan irauten duten erakundeak beren arteko muga kontinental batekin, nolabait ere garrantzi handirik gabeko muinoen —Ural mendiak deituen— kate luzean marrazturiko mugarekin. Herodotok ez zuen asmatu kontzeptu hori, zeren eta «Asia» jadanik Pertsiar Inperioaren sinonimo arrunta baitzen Eskiloren *Persae* (Pertsiarrek) delakoan, K.a. 472an eginikoa; baina «Europa eta Asiaren arteko liskarra» da Herodotoren lanaren gai nagusi eta bateratzailea, eta haren trebetasunaren maisutasuna da neurri handi batean bosgarren mendeko fantasia heleniko hura gero modan jarri izanaren erantzule.

Bi geografi izen heleniko tradizionalai, «Europa» eta «Asia»-ri, marinelaren mapatik publizistaren mapa politikora eta soziologoaren kultur habitaten diagramara aldatuz buru heleniko irudimentsuren batek esanahi-aldaketa iraultzailea eman zienean sortu zen fantasia hura. Irudimenaren egintza honek zoritxarreko inspirazioa izan zuen. Marinelaren bereizketa, Mediterraneoaren eta Itsaso Beltzaren artean ubide-katean zeuden aurkako kosten artekoa, normala eta erabilgarria zen haren xederako, baina ubide-kate hori inoiz ez zen bat etorri muga politiko batekin giza historiaren hasieratik lan hau idazten ari naizen garairaino, bi denboraldi laburretan izan ezik: K.a. 547-513 eta K.a.

386 eta 334 bitartean. Marinelaren «kontinenteak» zenbait kulturaren eremuekin identifikatzeari dagokionez, historialariak ezin du seinالاتu denboraldi bat, Bosforo eta Helesponton aurrez aurre zeuden itsasertzetako «asiar» eta «europar» okupatzaileen artean kultur aniztasun garrantzitsua izan zela esateko modukoa, bi itsasarte horiek ez direlarik Hudson baino zabalagoak eta hurbildu ere ez Amazonasen zabalerara.

Marinel helenikoak Egeo itsasoko bere elementuan mugitzeko askatasunaren ekialdeko muga zen kontinentea adierazteko erabiltzen zuen «Asia» terminoa, badirudi Kaistro ibaiaren ibarrean zegoen zingira baten garaiko toki-izen batetik datorrela; eta arkeologi aurkikuntza egin berriek erakutsi dute izena Mendebaldeko Anatolian hamahirugarren mendean zegoen printzerri batena zela, hititen erregistro publikoetan aipatua.

«Asia» ez da ziur aski greziar hiztegira bidea aurkitu zuen izen hitita bakarra. Uste da *basileus* hitza, grekoz «errege» adierazteko nabarmen greziarra ez den hitza, Biyassilis benetako errege hitita baten izenetik datorrela; errege honek Eufratesen dagoen Karkemisen gobernatu zuen, K.a. hamalagarren mendean, pirata akeoak panfiliar kostarekin lehen kontaktuak zertzen ari ziren garaian gutxi gorabehera. Eratortze hori zuzena bada, *basileus* parean jartzen du *kral* hitzarekin, honek «errege» esan nahi duelarik hainbat eslaviar hizkuntzatan, eta jakina denez Karolus Magnus-en, *alias* Karlomagnoren, izenetik dator. «Europa» hitzaren jatorria zalantzazkoagoa da. Izan liteke feniziar *ereb* hitzaren (arabierazko *gharb-i* dagokionaren) greziar mozerroketa, eguzkia mendebaldean sartzen den eskualde iluna adierazten duena; edo, ez bada termino tekniko bat feniziar marinelengandik hartua, baizik eta jatorriz hitz grekoa, «aurpegi zabaleko» *terra firma* adieraz lezake uharteekiko kontrastez; edota izan liteke jainkosa baten izena, «aurpegi zabalekoa», behia zelako.

Nolanahi ere, bi izenek kontinentearen eta uharteen artean marinelek egiten zuten bereizketa ezartzen zuten. Kontinenteko asiar edo europar kostan zehar iparrerantz bide egitean, hiru itsasartetik igarotzen zen: Dardaneloak, Bosforoa eta Kertx-ekoa, baina azkeneko hau igaro ondoren, Azov itsasoa zeharkatu eta Don ibaian gora nabigatu ondoren, aurkako kontinenteek beren identitate banatuak galtzen

zituzten puntu batera iristen zen. Itsaso Beltzaren iparraldeko lehorrekoentzat, eurasiar estepako nomadak izan edo —Karpatoetako ekialdeko aldapetatik Altaiko mendebaldeko aldapetara hedatzen den— Lur Beltz zerrendako eurasiar nekazariak izan, Europa eta Asiaren arteko bereizketak ez zuen zentzu ulergaririk.

Europa eta Asiaren dikotomia Mendebalde modernoak mundu helenikotik hartutako legatueta erabilgarritasun txikienekoa zen. Ikasgeletako bereizketa «Europako Errusiaren» eta «Asiako Errusiaren» artekoa zentzugabea izan da beti, baina ziur aski ez dio inori kalterik egin. «Europako Turkiaren» eta «Asiako Turkiaren» arteko bereizketa paraleloa pentsaera nahasi askoren iturburua izan da. Zibilizazioen habitat-en arteko benetako mugek ez dute zerikusirik antzinako fikzio horiekin. Bada eztabaidatu ezin den errealitate geografiko bat, Eurasia izenekoa. Hain handia eta hain forma irregularrekoa denez, gure komenentziarako zenbait azpikontinentetan zati genezake. Horietatik garbien zehaztua, Himalayako lehorreko mugari esker, India da. Europa da beste bat, zalantzarik gabe; baina Europaren lehorreko muga, Indiakoa ez bezala, gehiago izan da *limen limes* baino, eta Ural mendiak baino askoz mendebalderago dago benetan.

# X. ZIBILIZAZIOEN ARTEKO HARREMANAK DENBORAN

## XXXIV. BERPIZKUNDEEN AZTERKETA

### 1.

*Sarrera.-«Err enazimentua»*

Dirudienez, frantziar idazle bat, E.J. Delécluze (K.o. 1781-1863), izan zen *la renaissance*<sup>83</sup> (birjaiotzea<sup>84</sup>) terminoa erabili zuen lehenengoa zera deskribatzeko, Zibilizazio Heleniko hilak Mendebaldeko Kristandadean zertutako eragina denbora eta leku jakin batean, hau da, Berant Erdi Aroan Iparraldeko eta Erdialdeko Italian. Hildakoak biziarengan izandako eragin berezi hau ez da inola ere historiak eskaintzen duen mota horretako adibide bakarra, eta hemen horrelako fenomenoentzako izen orokortzat hartuko dugu terminoa eta berorien azterketari ekingo diogu. Horretan hastean, kontuz ibili behar dugu nahi duguna baino gehiago ez sartzeko. Kultura heleniko hori artearen eta literaturaren alorretan —terminoa erabilera konbentzionaletan horietara mugatzen da— bizantziar jakitunekiko harremanaren bidez iritsi zelarik Italiara, ez zen, noski, hildako zibilizazio batekin denboran izandako topaketa, baizik eta zibilizazio bizi batekin espazioan izandako topaketa, eta Azterlan honen aurreko zatian aztertuturiko gaiari dagokio. Halaber, «Greziak Alpeak zeharkatu» eta italiar Errenazimentuak Frantziako eta Alpeez bestaldean Mendebaldeko beste herrialde batzuetako arteari eta literaturari eragin zienean, hau ere, garai hartako Italiatik etorri zen neurrian, eta ez zuzenean «antzinako» Greziatik, ez zen zorrotz hartuta berpizkunde bat izan, baizik eta gizarte baten atal aitzindariak lortutakoa gizarte bereko beste atal batzuei transmititzea, eta, alde horre-

tatik, «hazkundearen» gaian sartzen da eta, testuinguru honetan, Azterlan honen hirugarren zatian aztertu genuen. Baina bereizketa logiko hauek mehe samarrak izan daitezke, eta praktikan zaila eta beharrik gabea gerta liteke berpizkunde «puruaren» —hildako gizarte batekin zuzenean izandako topaketaren zentzuan— eta aipatu berri ditugun era bateko edo besteko nahastura duen berpizkundearen artean bereiztea.

Halaber, berpizkunderen ikerketan murgildu aurretik, esan behar dugu fenomeno hauek bereizi beharra dagoela orainaren eta iraganaren arteko beste bi topaketa-motatatik. Bata hiltzen ari den edo hildako zibilizazio baten eta bere ondorengo umeki edo jaioberriaren arteko gurasotasun eta filiazio harremana da. Gai honek dagoeneko luze idatzi dugu eta fenomeno normal eta beharrezkotzat jo daiteke, horri gurasotasun eta seme-alabatasunaren analogia aplikatu diogunean suposatzen zen bezala. Berpizkunde bat, bestalde, hazitako zibilizazio baten eta aspaldi hildako gurasoaren «arimaren» arteko topaketa da. Aski ohikoa izan arren, anormaltzat jo daiteke, eta azterketak erakutsiko digu sarri kaltegarria izaten dela. Orainaren eta iraganaren arteko beste topaketa-mota, berpizkundeetatik bereizi beharrekoa, guk arkaismo deitu dugun fenomeno da, hitz hau arkaizanteen gizartearen garapenean lehenagoko aldi batera itzultzeko ahaleginak adierazteko erabili dugularik.

Orainaren eta iraganaren arteko hiru topaketa-mota horien artean beste bereizketa-puntu bat ere ezarri behar dugu oraindik. Gurasotasun eta filiazio-erlazioan garbi dago harremanetan dauden bi gizarteak garapen-fase oso desberdinetan, egia esateko kontrakoetan, daudela. Gurasoa bere txotxaldian desintegratzen ari den gizartea da; kimua jaioberri jostaria da. Gainera, garbi dago gorputz arkaizante bat maitemindu egin dela berearen aldean oso bestelakoa den gauza-egoera batez; bestela, zergatik arkaizatu? Bestalde, berpizkunderen sartzen den gizarteak bere gurasoaren arimari deitzen dionean, baliteke guraso hori orain ondorengoak duen garapen-fase berdinerira iritsi zenean zen bezalakoa deitzea. Hamletek almenetan nolako aita-ari-marekin topo egin nahi duen aukeratu ahal izango balu bezala da: «zilar-koloreko» bizardun aita edota, bestela, semearen adin bereko aita zena.

## 2.

### *Idea eta erakunde politikoen berpizkundeak*

Italian Berant Erdi Aroan helenismoaren berpizkundeak eragin iraunkorragoa zertu zuen Mendebaldeko bizitzan politikan literatura edo artean baino. Are gehiago, agerpen politiko horiek, estetikoek baino gehiago iraun ez ezik, sortu ere lehenago sortu ziren. Lonbardiako hiriak gotzainen kontrolpetik hiritarren aurrean erantzule ziren magistratu-batzordeek administraturiko komunen eskuetara igarotzean hasi ziren agerpen horiek. Hamaikagarren mendeko Italian hiri-estatuaren erakunde helenikoaren pizkunde honek, italiar kultura Mendebaldeko Kristandadean Alpeez bestaldeko probintzietara hedatzearen ondorioz, Mendebaldeko monarkia feudaletako jendeengan ere bere eragina zertu zuen. Bai bere eremu lehenengo eta estuagoan eta bai geroagoko eta zabalagoan, *revenant* heleniko honen eragina berbera izan zen. Azaleko eragina konstituziozko gobernuaren gurtza zabaltzea izan zen, azkenean bere buruari demokraziaren titulu helenikoa emango ziona, baina konstituzionalismoaren zailtasun eta hutsegiteek bidea ireki zuten tiranoaren figura, hau ere helenikoa, sortzeko, lehenengo Italiako hiri-estatuetan eta gero eskala handiagoan eta, beraz, tamalgarriagoan.

Beste arima heleniko bat aurkeztu zen Erdi Aroko fasean Leon III.a aita santuak Karlomagno erromatar enperadore koroatu zuenean San Pedron, K.o. 800. urteko Eguberri-egunean. Erakunde hark ere historia luzea zuen bere aurrean. Enperadore «mamu» hauen arteko helenizatzailer sutsuki pedanteena Oton III.a saxoia izan zen (K.o. 983-1002 artean erreinatu zuena); hark gobernuaren egoitza Erromara aldatu zuen, garai hartan lurralde komuna zen lekura, bi Kristandadeen eremuak elkarren gain jartzen zirelarik. Hiri inperial izandako hartan ezartzean, Oton III.ak indartzea espero zuen erromatar botere inperialaren kopia ahuldua, Mendebaldeko Kristandadeari sartu zitzaiona, bizantziar moldeko metal gogorragoaz indartuta. Beste testuinguru batean ikusi dugun bezala, Oton III.aren esperimentua, hura goiz hil ondoren desegin zena, bi mende baino geroago errepikatu zuen, askoz ere egoera hobean eta askoz ere emaitza kezkagarriagoekin, jeinu-gizon batek, Federiko II.a Hohenstaufen-ek.

Hainbat mende geroago, Rousseauk helenismoaren plutarkar bertsioa zabaldu zuen. Ondorioz, frantziar iraultzaileak sekula ez ziren nekatu Solon eta Likurgo aipatzen, eta beren andereak eta Direktorioko kideak ustez soineko «klasikoak» zirenez jantzi zituzten. Zer izan zitekeen naturalagoa Napoleon lehenak, «kontsul»-mailaren gainetik altxatu nahi izan zuenean, bere burua «enperadore» izendatzea eta bere seme eta oinordekoari «Erromako Errege» titulua ematea baino, Erdi Aroan Mendebaldean «erromatar enperadore santu» kargurako hautagaiek eraman zuten titulua, Erroman aita santuak koroatu arte (haietako askok lortu ez zuten sagarapena)? Bigarren (*soi-disant* hirugarren) Napoleoni dagokionez, benetan hark idatzi zuen, edo bere izenpean argitararazi zuen, Julio Zesarren bizitza. Azkenik, Hitlerrek arima baten arimari ordaindu zion zerga bere landa-egoitza Berchtesgaden-en Bizargorriren koba santu sorgindua zeukan labar batean ezarriz eta Karlomagnoren intsigniak onartuz, habsburgotarren museo batetik lapurtuak.

Baina beste arima bat eta onginahi handiagokoa ere bazezilen Mendebaldeko kristau-monarkiaren erakundearen inguruan. Mendebaldeko Erromatar Inperioaren suspertze formalari K.o. 800ean Eguberri-egunean emandako erlijiozko berrespenak, aita santuak koroatu zuelako errege franko bat erromatar enperadore bihurtu zenean, ez zeukan aurrekaririk historia helenikoan. Egun hartan Erroman zertutako zeremoniak bazuen hala ere aurrekari bat Soissons-en K.o. 751n egindako zeremonia batean, Pepin austrasiar maiordomoa frankoen errege bihurtu zenean Zakarias aita santuaren ordezkari zen San Bonifaziok koroatu eta gantzutu zuelako. Eliz sagaratzearen Mendebaldeko errito hori —jada ohikoa bisigodoen Espainian— israeldar erakunde baten berpiztea zen, Samuel eta Erregeak liburuetan agertzen dena. David erregearen sagarapena Samuel profetak egina eta Salomon erregearen sagarapena, Tzadok apaizak eta Natan profetak egina, dira Mendebaldeko Kristandadean egindako errege-erreginen koroatze guztien aurrekariak.



### 3.

#### *Lege-sistemen berpizkundeak*

Dagoeneko ikusi dugu erromatar-zuzenbidea —Justinianoren kodetzearekin bukaturiko hamar mendeetan, lehenengo erromatar herriaren eta, gero, Gizarte Heleniko osoaren premiei erantzuteko astiro eta nekez landua izan zena— bizkor geratu zela bertan behera hark arautu beharreko bizimodua kolapsatzean, eta hori ez bakarrik mundu helenikoaren mendebaldeko erdian, baita ekialdekoan ere. Gero, gainbeheraren sintomen ondoren bizitza berriaren sintomak etorri ziren lege- nahiz politika-mailan. Gizarte bizi bati lege bizi bat emateko bulkadak ez zuen bere lehenengo irtenbidea erromatar legea berpizteko inolako mugimendutan aurkitu, kristau-aroko zortzigarren mendean garaiko buruak baino askoz gorago zegoelarik kokatua lege hori, Noeren kutxa kultura heleniko desagertuaren itzelezko mausoleoaren teilatuan bezala. Bi Kristau Gizarte berrietako bakoitzak, Ekialdekoak eta Mendebaldekoak, kristau-ordenan zuten fedearen zintzotasuna erakutsi zuten, saiatu zirenean, lehenengo, kristau-lege bat sortzen ustezko kristau-herri batentzat. Bi Kristandadeetan, hala ere, abiapuntu berri honen ondoren berpizkundera etorri zen, lehenengo Kristandadeak juduengandik heredaturiko Eskrituretan zegoen moisetar legearena, eta bigarren erromatar legearena, Justinianoren kodean petrifikatuta zegoen bezala.

Kristandade Ortodoxoan kristau-abiapuntu berria Ekialdeko Erromatar Inperioaren bi siriar fundatzaileen —Leon III.aren eta haren seme Konstantino V.aren— erreinaldi bateratuan iragarri zen, K.o. 740an «lege-liburu kristau bat» promulgatu baitzuten, «kristau-printzipioak aplikatuz Inperioaren lege-sistema aldatzeko berariazko ahalegina» izan zelarik<sup>85</sup>. Hala ere, kristau-lege berri baten jaiotzaren ondoren judu-legearen berpizkundera etortzea ia saihestezina zen, Kristau Eliza, agian zuhurtzearik gabe eta ez erabat pozik, lege hori bere Eskrituren kanonean sartzen ahalegindu zelarik. Siriari enperadoreek ezarritako lege-sistema, moisetarra nahiz kristaua izan, gero eta desgokiagoa gertatu zen bizantziar gizartearen gero eta konplexutasun handiagoarekin moldatzeko, eta K.o. 870aren ondorengo urteetan mazedoniar dinastiaren fundatzaileak, Basilio I.ak, eta haren seme eta

ondorengoek zera ohartarazi zuten, «erabat errefusatu eta baztertu zituztela isauriarrek promulgaturiko zentzugabekeriak», hots, haien aurreko siriari enperadoreek promulgatuak. Beren aurrekoen mespretxu bizi horrekin, mazedoniar enperadoreak Justinianoren Kodea berpizteko zereginean saiatu ziren. Horrela jokatzear, benetan erromatar izaten ari zirela uste zuten, arkitekturaren alorrean hemeretzigarren mendeko berpizle gotikoek benetan gotiko izaten ari zirela pentsatzen zuten bezalaxe. Baina suspertze edo berpizkunde guztien arazoa zera da, beraiek ez direla, eta gauzen izaeran ezin izan, «benetako artikulua». Oso desberdinak dira benetakoaren aldean, Madame Tussaud-en ezkozko irudiak eta haiek ikusteko torniketeetatik igarotzen direnak oso desberdinak diren bezalaxe.

Halaber, lege-dramaren argumentua, non kristau-abiapuntu berri baten ondoren Moisesen eta Justinianoren arimak altxatu baitziren, Mendebaldeko agertoki batean ikusten da, Karlomagnok jokatu zuelarik Leon Isauriarraren papera.

*«Karolinjiar legeriak... Mendebaldeko Kristandadearen gizarte-kontzientzia berriaren sorrera markatzen du. Ordu arte Mendebaldeko erresumen legeria barbaroen tribu-kode zaharren kristau-eranskin gisako bat izan zen. Orain, lehen aldiz, erabat hautsi zen iraganaldiarekin, eta Kristandadeak bere legeak promulgatu zituen, gizarte-jardueraren eremu osoa hartzen zutenak Elizan eta Estatuan eta gauza guztiak kristau-ethosaren neurri bakarraren arabera neurtzen zituztenak. Hori ez zegoen inspiratua aurrekari ez germaniko, ez erromatarretan<sup>86</sup>.*

Hala ere, Mendebaldeko Kristandadean, Ortodoxoan bezalaxe, Moisesen arima apostoluen eta ebangelarien orpoz orpo zebilen.

*«Karolinjiar enperadoreek, Itun Zaharreko errege eta epaileen espirituan, Jainkoaren herriari Jainkoaren legea aldarrikatuz eman zioten legea kristau-herri osoari. Kataulfok Karlosi honen erreinaldiaren hasieran zuzendu zion gutunean, Jainkoak lurrean duen ordezkari bailitzan hitz egiten du idazleak erregeaz, eta Jainko Legearen Liburua gobernurako bere eskuliburu gisa erabiltzeko aholkatzen dio Karlosi, Deuteronomioa 17,18-20ko aginduaren arabera, non agintzen zaion erregeari legearen kopia egiteko apaizen liburutik, beti berekin eramane eta etengabe irakur dezan, horrela Jaunari begirune izaten ikasi eta haren legeak bete ditzan, eta haren bihotza bere herri-*

*kideen gainetik harrotu ez dadin eta ez ezkerrera, ez eskuinera, desbi-dera ez dadin».<sup>87</sup>*

Hala ere, Mendebaldeko Kristandadean, Ortodoxoan bezalaxe, berragertzen ari zen Moisesi gain hartu zion berragertzen ari zen Justinianok.

Kristau-aroko hamaikagarren mendean Lege Eskola Inperialak, Konstantinoplan K.o. 1045ean egintza ofizialez ezarriak, bere parekoa Bolognan izan zuen Mendebaldeko Kristandadean, han berez unibertsitate autonomo bat sortu zelarik Justinianoren *Corpus Iuris*-a aztertzeko; eta, Mendebaldeko Kristandadean erromatar lege berpiztuak azkenean huts egin zuen arren Erromatar Inperio berpiztua bermatzeko xedean, indartsu bete zuen ordea xede alternatiboa: hasierako erakunde politiko heleniko baten —parroki estatu subirano burujabearen— berpiztea bultzatzea Mendebaldeko lurraldean. Bolognan eta haren alaba ziren unibertsitateetan hezitako legelari zibilak administratzaile bihurtu ziren, ez Mendebaldeko «Erromatar Inperio Santu» huts eginarenak, baizik eta Mendebaldeko parroki estatu subirano eraginkorrenak, eta haien zerbitzu profesionalen eraginkortasuna izan zen erakunde honek Mendebaldeko Kristandadean jatorrizko gizarte-egituraren azpian politikoki antolatzeko zeuden beste forma alternatibo guztien gain pixkanaka lortu zuen garaipenaren kausetako bat.

Bolognako zibilak Ipar eta Erdialdeko Italiako hiriak administratzailez hornitzen zituzten bitartean —haien gaitasunak gai egiten zituelarik komunak printze-gotzainak eraisteko eta autogobernu zibilaren lasterketan abiatzeko—, kanonistak zuzenbide zibileko Bolognako eskola senide zen eliz zuzenbideko fakultate batekin ari ziren osatzen, Grazianoren *Decretum* (K.o. 1140-50) entziklopedikoa argitaratu ondoren. Kanonistek, halaber, parroki estatu sekularra garatzen ere lagundu zuten, nahiz eta beraiek kontrako norabidean joan. Haien benetako lorpena historiaren ironia ilunetako bat da, zalantzarik gabe.

Esan liteke Aulki Santuak tresna gisa erabili zituela kanonistak aitasantutzak bere lehiakide sekularrarekin, Erromatar Inperio Santuarekin, izan zuen gerra berbatsuan; baina adierazpen zehatzagoa litzateke kanonistak Aulki Santuaz jabetu zirela esatea. Aita santu handi guztiak —hasi Alexandro III. arekin (K.o. 1159-81), Federiko

Bizargorriren aurka eliz gotorlekuari eutsi zionarekin, segi Inozentzio III. arekin (K.o. 1198-1216), arlo politikoan aitasantutzaren absolutismoa zer izan zitekeen bere munduari dastarazi zionarekin, eta Inozentzio IV. arekin (K.o. 1243-54), honek berea bezain eskrupulugabezia setatia zuen *Stupor Mundi* handiarekin topo egin zuelarik, eta Bonifazio VIII. aganaino (K.o. 1294-1303), honek tamalgarriro talka egin zuelarik Frantzia eta Ingalaterrako monarkia indartsuekin—, ezta horien arteko tarteak bete zituzten maila apalagoko aita santu gehienak ere, ez ziren teologoak (Jainko-aztertzaileak), kanonistak baizik (lege-aztertzaileak). Lehenengo emaitza Inperioa erortzea izan zen; bigarrena, aitasantutzaren hondamena, haren ondoren bere legalismoak ekarri zion ospe-galtze moral eta erlijiosotik sekula oneratu ez zena, banakuntza protestantearen hondamendiaren *ondoren* (eta ez aurretik) bizitza berrira suspertu arte. Inperioaren eta aitasantutzaren erorialdiek bidea garbi utzi zuten Mendebaldean parroki estatuak aurrera egiteko.

## 4.

### *Filosofien berpizkundeak*

Arlo honek ia garaikide izandako berpizkunde-parea aurkezten du eurasiar kontinentearen aurkako muturretan, hau da, mundu sinikoko konfuziar filosofiaren susperraldia Ekialdeko Asiako Zibilizazioaren kimu hartan, Ekialde Urruneko Gizartean, eta mundu helenikoko Aristotelesen filosofiaren susperraldia Mendebaldeko Kristandadean.

Gure lehenengo adibidea bazter utzi ahal izango litzateke argudiatuz konfuziar filosofia ez zela benetan hil bera sortu zuen gizartearekin batera, baizik eta hibernazio-aldi bat jasan zuela soilik, eta hil ez dena berez deskalifikaturik dagoela «arima» bezala berragertzeko. Onartu beharrean gaude eragozpen horren indarra, baina, hala ere, jaramon handirik egin gabe utz dezakegu; zeren eta Tang enperadoreak, Tai Tsung-ek, K.o. 622an, funtzionario inperialak hautatzeko metodotzat konfuziar klasikoei buruzko azterketa ofiziala berriro

ezartzeak badauzka berpizkunde baten funtsezko ezaugarriak, eta, gainera, gauza bat erakusten du: politikaren arloan, taoistek eta budistek konfuziarrak ordeztuko aukera bat utzi zutela igarotzen, interregno post-sinikoan beraien eskura zirudien zer bait, konfuziarren ospea hondatua baitzegoen beraiek bat eginda zeuden estatu unibertsalaren kolapsoagatik.

Mahayana budistaren porrot politiko horren eta Kristau Elizari Mendebaldeko Europan bere aukera politikoak eskuratzeko bidea eman zion arrakastaren arteko kontraste honek zera nabarmentzen du: kristautasunaren aldean, mahayana gaitasunik gabeko erlijioa zela politikoki. Ipar Txinako parroki printzeen babes, Tsin Inperio Batuaren kolapsoaren ondorengo hiru mendeen zatirik handienez izan zuena, ez zen mahayanarentzat baliotsuagoa izan lehenago Kanishka kusana enperadorearen babes ahaltsuagoa izan zena baino. Hala ere, Ekialde Urruneko lurrean mahayanaren eta konfuzianismoaren arteko topaketa maila politikotik espiritualera aldatu orduko, haien gerra ia odolgabearen zoria dramatizatu alderantzizatu zen. Gai honetan aditua den txinatar moderno batek esaten digu «neo-konfuziarrak sendotasun handiagoz atxikitzen zaizkiela taoismoaren eta budismoaren ideia nagusiei taoistak eta budistak eurak baino»<sup>88</sup>.

Ekialde Urruneko historian filosofia konfuziar sinikoaren berpizkundetik Mendebaldeko kristau-historian Aristotelesen filosofia helenikoak izandako berpizkundera igarotzen garenean, obraren argumentuak beste norabide bat hartzen duela konturatzen gara. Neo-konfuzianismoa espirituali mahayanaren mende erori zen bitartean, neo-aristotelismoa Kristau Elizaren teologian ezarri zen, honen ikuspegi ofizialean Aristoteles ezinbestean fedegabea izanik. Kasu bakoitzean agintean zegoen alderdia aurkari batek hartu zuen mendean, honek bere berezko meritua baizik ez zituelarik gomendatzeko. Ekialde Urruneko kasuan, funtzionario-zerbitzu filosofiko bat atzerriko erlijio baten espirituaren mende geratu zen; Mendebaldeko kasuan eliza ezarri bat atzerriko filosofia baten mende geratu zen.

Aristotelesen arimak Mendebaldeko Kristandadean mahayana bizi batek Ekialde Urruneko munduan zertu zuen adimen-indar harri-garri berbera erakutsi zuen.

*«(Mendebaldeko) Europak ez zituen (erromatar tradizioetik) atera adimen kritikoa eta ikerketa zientifikoaren espirtu nekaezina,*

*Mendebaldeko Zibilizazioa grekoen oinordeko eta ondorengo bihurtu dituztenak. Ohikoa da elementu berri honen etorrera (italiar) berpizkundetik eta greziar azterketen susperralditik hamabosgarren mendean datatzea, baina benetako abiapuntua hiru mende lehenago kokatu behar da... Parisen jada Abelardoren (vivebat K.o. 1079-1142) eta Jon Salisburukoaren egunetan (vivebat circa K.o. 1115-1180) dialektikaren grina eta espekulazio filosofikoaren espiritua hasiak ziren eraldatzen (Mendebaldeko) Kristandadearen giro intelektuala; eta garai hartatik aurrera goi-mailako ikasketetan eztabaida logikoaren teknika nagusitu zen: quaestio eta eztabaida publikoa, Erdi Aroko (Mendebaldeko) filosofiaren forma, bere ordezkariak handienengan ere hain neurri handian eratu zuena. ‘Ezer ez da ongi-ongi ezagutzen eztabaidaren haginekin mastekatua izan ez bada’, dio Roberto Sorbonakoak; eta gai guztiak, nabarmenenetik nahasienera, mastekatzeko-prozesu horren mende jartzeko joerak ez zituen bakarrik buruargitasuna eta pentsamendu-zehaztasuna bultzatu, baita, eta batez ere, kritika eta duda metodikoaren espiritua garatu zuen, beroni hainbeste zor izan ziotelarik Mendebaldeko kulturak eta zientzia modernoak»<sup>89</sup>.*

Mendebaldeko pentsamenduaren espirituan, baita forman ere, marka iraunkor hori utzi zuen Aristotelesen arimak haren substantzian ere utzi zuen efektu iragankorra; eta, hemen utzitako marka hain iraunkorra ez izan arren, hala ere aski sakona izan zen gero buru-borrokalaren kanpaina luze eta neketsua behar izateko, hura behin betiko desagertzeko prezio gisa.

*«Unibertsoaren koadro osoan (Erdi Aroan Mendebaldeko begiek ikusita bezala) gehiago dago Aristotelesena kristautasunarena baino. Aristotelesen eta haren ondorengoen autoritatea izan zen nolabaiteko eliz zaporea duela iruditzen zaigun irakaspen horren ezaugarrien erantzulea ere: zeruen hierarkia, esfera birakariak, planetak mugiarazten dituzten adimenak, elementuen mailaketa beren nobleziaren arabera, eta gorputz zerutiarrak muin hustelezin batez osaturik dauden ikuspegiak. Benetan, esan dezakegu Ptolomeo baino gehiago Aristoteles bota behar izan zela hamaseigarren mendean, eta Aristoteles izan zela oztopo handia jarri ziona Kopernikoren teoriari»<sup>90</sup>.*

Kristau-aroko hamazazpigarren menderako, Mendebaldeko bertako jeinu intelektuala Bacon-en ildoetatik naturaren mundua iker-

tzeari ekinez finkatu zenean, Elizaren teologia hain murgildua zegoen aristotelismoan, ezen Giordano Brunok bizia galdu eta Galileok eliz zentsura pairatu baitzuen, kristau-erlijioarekin, Itun Berrian agertzen den bezala, inolako loturarik ez zuten zientzi heresiengatik.

Hamazazpigarren mendea baino lehen, Mendebaldean Alpeez bestaldeko zientzialari eta filosofoek Aristoteleseko —«beraien diktadorearekiko», Baconek deitu zion bezala— zuten mendekotasunagatik eraso zieten eskolastikoei, hamabosgarren mendeko italiar humanistek latin txarragatik eraso zieten bitartean. Baina teologia aristotelikoa estilo klasikoko ezagutzaileen iseken aurka prestatua zegoen. Egia da kritikari horiek jakitun aristoteliko ospetsua zen Duns Scotoren izenetik «dunce»<sup>91</sup> izen peioratiboa atera zutela, ez pertsona ezjakina, baizik eta jakintza-sistema zaharkituaren zalea adierazteko; baina, hau idazteko garaian, iritsia zen humanisten txanda. Kristau-aroan hogeigarren mendean, zientzia naturalak eta teknologiak dena aurrean zeramatela zirudienean, bazirudien «dunce» horiek garai batean nagusi izandako «alde klasikoan» gero eta gutxiago geratzen zirenen artean aurkitu behar zirela.

## 5.

### *Hizkuntza eta literaturen berpizkundeak*

Hizkuntza bizi bat lehenik hizketa-modu bat da, hitza bera mihia esateko latinezko hitzetik (*lingua*-tik lengoaia) etortzeak iradokitzen duen bezala; haren literatura bere albo-produktua izango litzaiteke. Hala ere, hizkuntza eta literatura baten arimak heriotzatik altxatzen direnean, bien arteko erlazioa alderantzikatu egiten da. Hizkuntza ikastea aurrebaldintza mingarri bat baino ez da literatura irakurtzeko. Guk *mensa* bokatiboak «O, mahaia!» adierazten duela ikasten dugunean ez gara ari ilunpetan mahai-hankaren kontra oin-puntarekin jotzen dugunean sentitzen duguna adierazteko hiztegi berria geureganatzen, baizik eta lehenengo urrats labur bat egiten ari gara Virgilio, Horazio eta gainerako latindar klasikoak irakurtzeko urrutiko helbururantz. Ez gara saiatzen hizkuntza hori hitz egiten eta, hori idazten

ahalegintzen garenean, «antzinako» maisuen lana hobeto preziatzeko bakarrik egiten dugu.

Aspaldidanik bertan behera utzitako literatur inperio bat berriro hartzeko lehen urratsa inperio politiko bizi baten baliabideak mobilizatzea eska dezakeen lana da. Literatur berpizkunde baten monumentu tipikoa bere lehen fasean antologia, corpus, thesaurus, lexiko edo entziklopedia bat izaten da, printze baten eskariz jakitun-talde batek bildua; eta lankidetzazko erudizio-obra horien printze-babeslea, sarritan, estatu unibertsal berpiztu baten gobernaria izan da, estatu hori berori politika-mailako berpizkundearen emaitza izanik. Era honetako bost ordezkari nabarmenenetatik —Asurbanipal, Konstantino Porfirogenito, Yung Lo, Kang Hsi eta Chieng Lung— azken laurak horrelakoak izan dira. «Hildako» literatura klasiko batek bizirik iraundako lanak bildu, editatu, anotatu eta argitaratzeko zeregin honetan, estatu unibertsal siniko berpiztu bateko Ekialde Urruneko enperadoreak beren lehiakide guztiak baino askoz aurrerago joan ziren.

Egia da sumertar eta akadiar literatura klasikoaz Asurbanipalek zituen buztinezko bi liburutegien tamaina ezezaguna zela arkeologo modernoentzat; hauek bi asiriar bilduma handi haien bilketaz eta barreiatetik Niniveko aztarnategian indusketa-lanetan oholtxo batzuk berreskuratuz jakin zuten; zeren eta, errege-jakitunaren heriotzatik ez agian hirurogei urte baino geroago, haren bi liburutegietan zegoena hiri gorrotagarriaren hondakin artean geratu baitzen barreiatuta, K.a. 612an eraso eta arpilatua izan zelarik. Asurbanipalen bilduma klasiko sinikoen konfuziar kanona baino handiagoa izango zen agian, hau ez baitzen erraz irarria izan buztin bigunean, harri gogorrean nekez grabatua baizik, Si Ngan-en, Tang dinastiaren hiriburu inperialean, K.o. 836 eta 841 artean, eta mende bat geroago inprimatu egin zen, iruzkindua, 130 liburukitako edizioan. Hala ere, nolabaiteko ziurtasunez pentsa genezake karaktere kuneiformeen kopurua Asurbanipalen bilduman askoz txikiagoa izango zela Yung Lo-k, Ming dinastiako bigarren enperadoreak, K.o. 1403-7an elkarturiko bilduman zeuden karaktere sinikoen kopurua baino, bilduma honetan ez baitzeuden 22.877 liburu baino gutxiago, 11.095 liburuki betetzen zituztenak, edukien aurkibideak aparte. Horrekin alderatuta, Ekialdeko erromatar enperadore Konstantino Porfirogenitoren (K.o. 912-59 artean erreina-



tu zuen) bilduma helenikoak hutsaren hurrengoak dirudi, nahiz eta hau ere harrigarria izan Mendebaldeko adimenareztat.

Atariko zeregin hauetatik, literatura klasikoen imitazioak egiteko jakitunaren ahaleginera igarotzen garenean, horretara bideratu baitzuen bere lana, estatistikariei utzi behar diegu erabakitzen ea Txina inperialeko administrazioko azterketetarako hautagaiek, azterketa horiek K.o. 622an berrezarri zirenetik K.o. 1905ean kendu ziren arte igarotako 1.283 urteetan, estilo siniko klasikoan egindako saiakera-kopurua handiagoa ala txikiagoa zen latin eta grekozko prosan eta poesian Mendebaldeko munduko jakitun eta ikasleek hamabosgarren mendearen eta hau idazteko garaia artean egindako idazlanen kopurua baino. Baina hizkuntza klasiko berpiztuak literatur helburu serioetarako erabiltze horretan, ez Mendebaldea eta ez Ekialde Urruna ezin dira konparatu bizantziar historialariek, antze horretan maisu-maistra izan ziren hamargarren mendeko Leon Diakonoa eta hamabigarren mendeko Ana Komneno barne, hauek beren literatur adierazpidea *koinê* greko atikoaren berpizkundean aurkitu zutelarik.

Baliteke irakurleak pentsatzea literatur berpizkundeei buruzko gure oharrak orain arte bereziki aplikaezinak direla bere buruan lehen mailan dagoen literatur berpizkundeari: Berpizkunde edo Errenazimentuari, alegia. Ziur aski literatura helenikoak Berant Erdi Aroan Italian izandako berpizkunde, nahiz eta bere babesleak Lorenzo Medici-koa bezalako handiki politikoen artean egon, funtsean erudizio antolatu gabeko mugimendu bat-batekoa izan zen. Agian horrela izan zen, nahiz eta ez den gutxietsi behar hamabosgarren mendeko aita santuen babesgoa, eta Nikolas V aita santuarena (K.o. 1447-55) bereziki. Aita santu horrek hizkuntza klasikoetako ehundaka aditu eta antzinako eskuizkribuen kopistak erabili zituen, 10.000 florin eman zituen Homero latinez bertsotan jartzeko, eta 9.000 liburukitako liburutegia bildu zuen. Hala ere, geure buruari uzten badiogu Mendebaldeko historian atzera egiten, «Errenazimentuaren» garaia baino zenbait mende lehenago, aztertzen ari izan garen adibideekin askoz adosago dagoen zerbait aurkituko dugu. Karlomagno aurkituko dugu, hildako zibilizazio baten estatu unibertsalaren berpizlea, Asurbanipal, Yung Lo eta Konstantino Porfirogenito-rekin bat egin nahian dabilena.

Mendebaldeko Kristandadean helenismoaren literatur berpizkundera zertzeko lehenengo ahalegin arrakastarik gabea Mendebaldeko Kristau Zibilizazioaren jaiotzarekin batera eman zen. Ingalaterrako elizak zazpigarren mendearen bukaeran Islamak Ekialdean bereganaturiko lurralde kristau ortodoxotik ihesi etorritako greko bati zor izan zion bere antolaketa, Teodoro Tarsoko artzapezpikuari, eta berpizkunde helenikoaren profeta Mendebaldean Northumbriako bat izan zen, Beda beneragarria (K.o. 673-735). Northumbriako beste batek, Alkuino Yorkekoak (K.o. 735-804), Karlomagnoren gortera eraman zuen hazia eta Eskandinaviatik etorritako barbarotasun-bolada batek mugimendua garaiz lehen desagertarazi baino lehen, haren kultibatzailleek, literatur kultura helenikoa bere latindar soinekoaz berpizten hasteaz gain, grekozko hastapenak ere lortuak zituzten. Alkuino, Karlomagnoren babesaz lagunduta, Frankoniako lurraldean Atenasen arimari dei egiteko gai izango zela amestera ausartu zen. Ikuspen iheskorra izan zen; eta Mendebaldeko Kristandadea «bederatzigarren mendeko iluntasuna» deitu den horretatik irteten hasi zenean, onartu zen arima ez zen izan literatura heleniko klasikoarena; «Aristoteles eta haren filosofia»ren<sup>92</sup> arima izan zen. Eskolastikaren mendeak iritsi eta igaro ziren Alkuinoren ikuspena gauzatu baino lehen.

Puntu honetan geratzen bagara aztertzeko zergatik atzeratu ziren hainbeste mendez Alkuinoren eta haren lagunen itxaropenak, desberdintasuna aurkituko dugu espazioan zerturiko topaketen, Azterlan honen aurreko zatian aztertu ditugun haien, eta denboran zerturiko topaketen, orain aztertzen ari garen hauen, artean. Espazioan zerturiko topaketa espazioko talka bat da, eta talkak normalean istripuak izaten dira. Balentria militarrek edo ozeanoetan itsastatzen lorturiko trebetasun berriak edo esteparen lehorketa izan daitezke gizarte bat beste baten gainera oldarrarazten duten kausa kulturalki garrantzirik gabeak, deskribatu ditugun kultur ondorioekin. Denboran zerturiko topaketa bat (berpizkunde bat), bestalde, nekromantzi egintza da, arima bati dei egitea; eta nekromanteak huts egingo du arimari dei egiten bere lanbideko trikimailuak ikasi arte. Beste era batera esanda, Mendebaldeko Kristandadeak ezin zuen onartu arima, edo arrotz, heleniko bat, bere etxea bisitaria hartzeko prest egon arte. Liburutegi helenikoa fisikoki bertan zegoen denbora guztian, baina ezin zen eraginkortasunez ireki Mendebaldeko jendea edukiak irakurtzeko gai izan arte.

Adibidez, Mendebaldeko kristau-gizarteak, baita Mendebaldeko Goiz Erdi Aroaren nadir beltzenean ere, fisikoki beti izan zituen Virgilioren lanak, eta beti jakin zuen behar hainbat latin haren perpausak interpretatu ahal izateko. Hala ere, zortzi mendez gutxienez, zazpigarrenetik hamalaugarrenera, hau barne, Virgilioren poesia Mendebaldeko kristau-ikasle gaituenen ulermenetik kanpo egon zen, ulertze-neurritzat Virgiliok adierazi nahi izan zuen esanahia atzemaiteko gaitasuna hartzen badugu, haren garaiko gogaideek eta ondorengoek, esan dezagun, San Agustinen belaunaldiraino behar bezala ulertu zuten esanahia. Dantek ere, haren espirituan hasia zelarik helenismoaren italiar berpizkunde baten lehenengo distira argitzen, Virgiliorengan ikusi zuen figura Virgilio historikoak ez zukeen bere giza nortasuntzat hartuko, Orfeo bezalako pertsonaia mitiko agurgarriren batena bezala baizik.

Antzeratsu, Mendebaldeko Gizarteak beti izan zituen Aristotelesen lan filosofikoak, berant helenismoko letra-gizon batek, Boeziok (K.o. 480-524) gaitasunez latinera itzuliak; hala ere, sei mendez, Boezioren heriotzatik zenbatuta, haren itzulpenak Mendebaldeko kristau-pentsalaririk zorrotzenen ulermenetik harantzago egon ziren. Azkenean, Mendebaldeko kristauak Aristoteles ulertzeko moduan egon zirenean, ingurabide batez eskuratu zuten, arabierazko itzulpenen bidez. Mendebaldeko Kristandadeko seigarren mendeari Aristoteles latinera itzulita eskaintzean, Boezio borondate oneko baina irizpide okerreko osaba bat bezalakoa zen, bere ilobari hamahiru urte betetzean T. S. Elioten poemak oparitzen dizkiona bezalakoa, adibidez. Ilobak, begiratu labur baten ondoren, bere liburutegi txikiko zokorik ilunenean ipintzen du liburua eta, oso zentzuz, dena ahazten du hari buruz. Sei urte geroago —bakoitzaren nerabezaroaren denboraldi laburrean zenbait menderen baliokidea—, ilobak berriro aurkitzen ditu olerki horiek, Oxfordeko ikasle den garaian, beroriek liluratu egiten dute, B.H. Blackwell jaunei erosten die eta ikaragarri harrituta geratzen da, oporretan etxeratzean, liburu hori denbora guztian bere apaletan egon dela konturatzean.

Eta Virgilio eta Aristotelesekin gertaturikoa, berdin gertatu zen greziar literaturako maisulanekin, bizantziar liburutegietan bildutakoekin, Italiako berpizkunde helenikoaren elikagai nagusi izango zirelarik horren literatur aldean. Mendebaldeko Kristandadea harreman

estuan egon zen bizantziar munduarekin, hamaikagarren mendetik aurrera gutxienez. Hamahirugarren mendearen lehenengo erdian konkistatzaile frankoek zeuzkaten Konstantinopla eta Grezia benetan hartuta. Kulturalki ezer ez zen sortu hortik garai hartan; zeren eta Mendebaldean «klasikoak» artean «kabiarra bezala baitziren gehientzat». Azalpen gisa, esan liteke harreman haiek etsaitasunezko harremanak zirela, mendebaldarra literatur helenikoko liburutegi bizantziarrarekiko jarrera onean jartzen ez zutenak; baina horri erantzun behar zaio politika- eta eliz harremanak ez zirela etsaitasun txikiagokoak hamabosgarren mendean, «Errenazimentua» loraldi betean zegoenean. Kultur ondorioetan izandako desberdintasunaren arrazoa sinplea da: Noiz gertatuko da hildako kultura baten berpizkundea? Gizarte filial bat bere aurrekoak orain berpiztu nahi diren lorpenak zertu zituenean zeukan mailara igotzen denean.

Mendebaldeko Kristandadean eta Txinan literatur berpizkundeen heriotzak aztertzen ditugunean, Mendebalde modernoko Zibilizazioaren forman inolako erronkarik gabe iraun zutela aurkitzen dugu, atzerriko sarkin larderiatsu batek eraitsi zituen arte, zibilizazio horrek bereganatu zuelarik Mendebaldeko Kristandadearen arima kristau-aroa hamazazpigarren mendean eta Txinaren arima hemeretzigarren mendetik hogeigarrenera igarotzean. Mendebaldeko Gizarteari bere arima helenikoarekin borrokatzen utzi zitzaion, kanpoko interferentziarik gabe; baina hamazazpigarren mendetik hemezortzigarrenera igarotzerakoan zertu zen panfleto-gerrak —Swiftek «Liburuen gudua» deitu zuenak, bertan lehiakideek «antzinakoen» eta «modernoen» meritutu erlatiboen arazoa eztabaidatzen zutelarik— haizeak zein aldetatik jotzen zuen erakutsi zuen. Honek zirudien eztabaidagai: ea Mendebaldeko kultura leku batean sustraituta geratuko ote zen, atzera begiratu eta «antzinakoen» mirespenez eta imitazioz mugitu ezinik, edota aurrera egin behar ote zuen ezezagunerantz, «antzinakoak» atzera utzita. Honela jarrita, galderak zentzuzko erantzun bakarra onar zezakeen, baina galderak aurretiko beste galdera bat eskatzen zuen: ea atzera begiratu eta «antzinakoen» mirespen eta imitazioak —«Mendebalde modernoaren heziketa klasikoa» dei genezakeenak, termino horren zentzurik zabalenean— garapen «moderno» oztopatu ote zuen.

Galdera horri emandako erantzuna «antzinakoen» aldekoa zen argi eta garbi, eta esanguratsuena zera zen: azterketa helenikoen

aitzindarietako batzuk, Petrarka eta Boccaccio adibidez, argi gidariak izan zirela Italiako bertako literaturaren garapenean. Herri-literaturen aurrerapena inola ere oztopatu gabe, azterketa helenikoen berpizkundeak bultzada berria eman zien. Ciceronen latinean Erasmok lortutako maisutasunak ez zituen eraman Mendebaldeko lagunkideak beren ama-hizkuntzen literatur lanketa bertan behera uztera. Erabat ezinezkoa da kausa eta efektuaren arteko kultur lotura zehaztea, adibidez, Ingalaterran hamaseigarren mendeko azterketa helenikoen eta mende beraren bukaeran distira paregabea izan zuen olerki ingelesaren loral-diaren artean. Shakespeareren «latin gutxi eta greko gutxiago» delakoak lagundu ote zion bere antzerki-lanak egiten? Nork esan lezake? Pentsa liteke agian Miltonek latin eta greko gehiegi zekiela, baina horietatik ezer izan ez balu, ez genukeen ez *Paradise Lost* ez *Samson Agonistes* izango.

## 6.

### *Ikus-artearen berpizkundeak*

Hildako zibilizazio baten ikus-arteetako bat edo bestea bere ondorengoaren historian berpiztea fenomeno komuna da. Adibide gisa, ondorengoak aipa ditzakegu: «Erresuma Zaharreko» eskultura eta pintura-estiloaren berpizkundea, bi mila urteko tartearen ondoren, saita aroan azkenaldiko mundu egipziakoan K.a. zazpigarren eta seigarren mendeetan; baxuerliebeak grabatzeko estilo sumerikoaren berpizkundea K.a. bederatzigarren, zortzigarren eta zazpigarren mendeetako mundu babilonikoan; eta baxuerliebean grabatzeko estilo helenikoaren berpizkundea, miniaturan, horren adibiderik bikainenak K.a. bosgarren eta laugarren mendeetako maisulan atikoak izan zirelarik, kristau-aroko hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren mendeetako bizantziar diptikoetako bolietan. Ikus-artearen hiru berpizkunde horiek, hala ere, oso atzera utzi zituen, bai hartu zuen eremuaren zabalera, bai aurreko okupatzaileak kanporatzeko ankerkerian, ikus-arte helenikoek Mendebaldeko Kristandadean izandako berpizkundeak, bere lehen agerpena Italian Berant Erdi Aroan egin eta gero

Mendebaldeko munduaren gainerakora hedatu zelarik. Ikus-arte helenikoen arimari deitze hori arkitektura, eskultura eta pinturaren hiru arloetan egin zen, eta arlo bakoitzean estilo *revenant* horrek dena hain erabat aldatu zuenez, bere indarra akitu zenean, nolabaiteko hutsune estetikoa gertatu zen, eta Mendebaldeko artistek ez zuten jakin nola adierazi luzaroan murgilduta izandako beren bertako jeinua.

Istorio arraro berbera, mamu-bisitarien esku drastikoek garbitu eta berriri altzarituarena, Mendebaldeko ikus-artearen hiru arlo horietako bakoitzean errepikatzen da, baina hiruretako gertakaririk harri-garriena *revenant* heleniko batek Mendebaldeko bertako jeinuaren gain lortutako arrakasta izan zen eskulturaren arloan oro har; zeren eta arlo horretan Mendebaldeko estilo orijinal baten adierazgarri ziren hamahirugarren mendeko Ipar Frantziakoek maisulanak eginak baitzituzten, merituz eskola heleniko, egipziako eta mahayaniar budistak lanik onenen parekoak; pinturaren arloan, berriaz, Mendebaldeko artistek artean gainetik astindu gabe zeukaten beren senide zen gizarte kristau ortodoxoaren arte goiztiarragoaren babesaz; eta arkitekturaren arloan estilo erromanikoa —bere azkenaldiko etiketak adierazten duenez, aurreko Zibilizazio Heleniko baten azken garaik heredaturiko gaiaren barietate bat zena— jada erabat menderatua zuen kanpotik sartutako «gotikoak», jadanik aipatu dugun bezala, abbastar eta andaluziar kalifaldien mundu siriakoan sortuak.

Hogeigaren mendeko londrestar baten ilustraziorako, Mendebaldeko bertako ikus-artearen, bi aldiz menderatuen, eta erasotzaile siriako eta helenikoen arteko borroka hilgarriko borrokariak oraindik zutik zirauten, harri bihurtuta, Westminsterreko abadiari Enrike VII. erregearen babespean erantsitako kaperaren arkitekturan eta eskulturan. Sabaiaren ganga-forma hilzorian zegoen estilo gotikoren garaipen beranta da. Azpiko hilobien gainean etzanda dauden brontzeko irudien hirutasun helenizatu italiartu batera begiratzen duten eta *in excelsis* dauden harrizko irudi-pilan, Mendebaldeko bertako kristau-eskulturan Alpeez bestaldeko eskola batek azken kantu isila abesten du ezpain izoztuen artean. Jokalekuaren erdian Torrigianiren (K.o. 1472-1522) maisulan helenizatzaileak daude; Torrigianik —destainaz baztertuz ingurune zabarra, non trebeki biribildutako bere obra zertzeko gogoa izan baitzuen— bere ingurura begiratzen zuen atseginez, eta itxaropen sendoa zuen florentziar maisu

baten erbesteko emaitza horiek Alpeez bestaldeko begirale guztien erakargune izateko. Egia esan, Benvenuto Celliniren autobiografiatik dakigunez, Torrigiani hori berori «oso jarrera harrokoa» zen, asko harrotzen zelarik «ingeles piztien artean gorteiatzen egindako balentriez»<sup>93</sup>.

Arkitektura «gotiko» bat, hamaseigarren mendeko lehenengo laurdena arte Londresen —eta hamazazpigarren mendeko lehen erdia arte Oxforden— irmo iraun zuena, ordurako aspaldi kanporatua zegoen Ipar eta Erdialdeko Italiatik, non sekula ez baitzuen Alpeez bestaldean bezain arrakasta garbirik izan estilo erromanikoa ordeztzen.

Arkitekturaren eremuan helenismoaren berpizkundeak Mendebaldeko jeinuan eragin zuen antzutasuna industri iraultzaren erdiminetatik inolako uztarik ateratzen izandako porrotak erakusten zuen. Burdinazko haga sortu zuen industri teknikaren mutazioak Mendebaldeko arkitektoaren eskuetan oso aldakorra zen eraikuntza-material berri bat jarri zuen, arkitektura-tradizio helenizatzailea argi eta garbi ahitua zegoen garai batean. Hala ere, erremintariak burdinazko hagaz eta probidentziak arbel garbiaz hornituriko arkitektoek ezin zezaketen egokituriko hutsunea betetzeko era hoberik pentsatu berpizkunde heleniko bat susperraldi «gotiko» batez burutzea baino.

Burdinazko haga argi eta garbi kontuan hartzea, bere arruntasunaren gainean estalki «gotiko» bat lotsati zabaldu gabe, Mendebaldean lehenengo pentsatu zuena ez zen arkitekto profesional bat izan, amateur irudimentsu bat baizik; eta Estatu Batuetako hiritarra zen arren, bere egitura historikoa Bosforoko itsasertzen gain eraiki zuen eta ez Hudsonen ibaiertzetan. Robert Collegearen erdigunea —Hamlin Hall, Mehmet Konkistatzailearen Europako gaztelua dominatuz— Cyrus Hamlinek eraiki zuen K.o. 1869-71n; hala ere, Hamlinek ereindako hazia ez zen uzta ematen hasi hurrengo mendea arte Ipar Amerikan eta Mendebaldeko Europan.

Mendebaldeko jeinu artistikoaren antzutzea aurrekoa bezain nabarmena izan zen pintura eta eskulturaren eremuetan ere. Danteren garaikoa zen Giottoen (K.o. 1337an hil zen) belaunalditik hasita milurteko-erdi bat baino luzaroago, Mendebalde modernoko pintura-eskola batek, ikus-arte helenikoen fase postarkaikoko ideal naturalistak dudarik gabe onartu zituenak, argitzalaz egindako inpresio bisualak adierazteko zenbait metodo asmatu zituen bata bestearen ondoren,

harik eta teknika artistikoaren mirarien bidez argazkiaren efektuak sortzeko ahalegin luze hori argazkilaritzaren beraren asmakuntzak zentzugabetu zuen arte. Mendebalde modernoko zientziaren eragiketa honek hain begirune gutxiz azpia jan ondoren margolaritzari, margolariak «mugimendu prerrafaelita» bat egin zuten, hain luzaroan arbuaturiko bizantziar maisuen norabidean, psikologiaren mundu berri bat aztertzea pentsatu aurretik: mundu hori zientziak eman zien konkistatzeko, itxura naturaleko mundu zaharraren konpentsazio gisa, hau berak lapurtua eta argazkilariari emana baitzion. Honela sortu zen Mendebaldeko margolarien eskola apokaliptiko bat, benetan abiapuntu berria izan zuena, argi eta garbi pintura erabiliz esperientzia espiritualak adierazteko inpresio bisualen ordezt; eta Mendebaldeko eskultoreak, beren bitartekoaren mugen barruan, bilaketa kilikagarri berean hasiak ziren orain.

## 7.

### *Erliziozko ideal eta erakundeen berpizkundeak*

Kristautasunak judaismoarekiko zuen erlazioa ezeztatzina zen juduen begietara eta gogaikarriro anbigua zen kristau-kontzientzientzat. Juduen ikuspegitik, Kristau Eliza juduen fedea ukatzen zuen sekta bat zen, Eskrituraren kanonari baimenik gabe jarritako eranskinan oinarrituz desbideratu eta zorigaitzoko galilear fariseuaren irakaspenaren aurka bekatu egina, haren izena lotsagabeki alferrik hartua zutelarik fariseismoaren traidore hauek. Juduen begietara, kristautasunak Gizarte Helenikoan zertu omen zuen lilura miragarria ez zen inola ere «Jaunaren egintza». Judu-errabino baten hil osteko garaipena —haren jarraitzaileek, jentilen erara, giza ama baten bidez jainko-semetzat onartua— Dionisos eta Herakles bezalako kondairazko «erdijainko» ahaidetuen lehenagoko garaipenen maila bereko balentria pagano bat zen. Judaismoak harro esaten zuen berak aurea hartu ahal izango ziela kristautasunaren konkistei kristautasunaren mailara beheratuta ekin izan balio konkistatzeari. Kristautasunak, nahiz eta inoiz ez zuen gaitzetsi judu-Eskrituren agintea —egia esateko, haiek



bereekin lotu zituen—, bere konkista errazak, juduen ikuspegitik, bi printzipio judaiko nagusiei, Hamar Aginduetako lehenengoari eta bigarrenari, alegia: monoteismoari eta anikonismoari («irudirik» ez) traizio eginez zertu zituen. Hortaz, oraindik paganismo heleniko damugabearen —kristautasunaren geruza azpian garbi ikus zitekeena— aurrean, juduen lema Jaunaren Hitz eternalaren testigantza ematen jarraitzea zen.

Hunkitu gabeko judu mugigaitzek harrigarriro arrakastatsua zen kristautasunari buruz agertzen zuten «destaina sakon egonarritsu» hori ez zen kristautentzat hain gogaikarria gertatuko, kristautasunak berak ez balu monoteismoaren eta anikonismoaren judu-ondarearekiko leialtasun teoriko zintzoa konbertitu helenikoen politeismo eta idolatriari egindako amore-emate praktikoekin konbinatu izan, hauxe salatzen ziotelarik judu-kritikariek. Kristau Elizak egin zuen Eskritura juduen birsagarapena, kristau-fedearen Itun Zahar gisa, ahulgune bat zen kristautasunaren armaduran, handik zehar zulatzen zutelarik kristau-kontzientzia judu-kritikaren geziek. Itun Zaharra zen kristau-erai-kinaren oinarrietako bat; baina baita Hirutasunaren doktrina, santuen gurtza, eta santuena ez ezik, baita jainkozko Hiru Pertsonen irudikapena ere hiru dimentsioko eta bi dimentsioko ikus-arteetako lanetan. Kristau-apologistek zer erantzun ziezaioketen judu-salaketari: hau da, Elizaren praktika helenikoa bateraezina zela bere teoria judaikoarekin? Erantzunen bat behar zen, judu-argudio hauetan mamiarik ez zegoela kristau-gogoak konbentzitzeko, zeren eta argudio horien indarra kristau-arimetan sortzen zuten bekatu-uste sendoan baitzegoen.

Mundu heleniko jentilak kristau-aroko laugarren mendean ize-nezko konbertsioa, *en masse*, egin ondoren, Elizaren baitako barne-eztabaidak kristau eta juduen arteko polemikak itzalpetzera jo zuen; baina fronte zaharrago honetan zerturiko gerra teologikoa badirudi piztu egin zela seigarren eta zazpigarren mendeetan judaismoan gauzaturiko garbiketa puritano baten ondorioz, Palestinako judu-komunitatean bosgarren mendearen azken aldera hasi zena. Judaismoaren barruko kanpaina horrek, sinagogetako horma-dekorazioaren gaian kristautasunarena bezalako lasaikeriaren aurkakoak, bere ondorioak izan zituen judu eta kristauen arteko gudu-tokian. Baina Kristau Elizaren barruan ikonofilo eta ikonofoboan artean izandako eztabaida paraleloa aztertzen dugunean, harritu egiten gaitu bere iraunkortasun

eta nonahikotasunak. «Gatazka geraezin» hori Mendebaldeko Kristandadeko probintzia gehientsuenetan eta kristau-aroko mende gehientsuenetan aurkitzen dugu. Ez dago hemen adibideen zerrenda luze bat egin beharrik, Elvirako Kontzilioko (*circa* K.o. 300-11) hogeita hamaseigarren kanonarekin hasiko litzatekeena, elizetan margolanak erakustea debekatzen zuelarik hark.

Kristau-aroko zazpigarren mendean faktore berri bat sartu zen argudiaketan aktore berri baten forman, aparteko agerpen distiratsua egin zuelarik agertoki historikoan. Judaismoaren gerripetik, kristautasuna sortu zen bezala, beste erlijio bat sortu zen orain, baina oraingo hau heldua. Islama edozein juduk nahi izan zezakeen bezain fanatiko ki monoteista eta anikonista zen, eta haren jarraitzaileek arlo militarrean —eta laster baita misiolaritzan ere— izan zituzten garaipen izugarriek zer pentsa berria eman zioten Kristandadeari. Komunismoaren jarraitzaileen garaipen militar eta misiolariak Mendebalde modernoko arimak Mendebaldeko gizarte- eta ekonomi antolamendu tradizionalak berriro sutsu balioestera bultzatu zituzten bezala, era berean arabiar konkistatzaile musulman primitiboen garaipenek erregai berria eman zieten kristau-«idolatriaren» arazoaren inguruan luzaroan su txikitan egondako eztabaidei.

K.o. 726an ikonofobia judaikoaren arima, luzaroan airean gelditu egona, agertokiaren erdira ekarri zuen Ekialdeko erromatar enperadore handiaren, Leon Isauriarraren, Dekretu Ikonoklastak. Erlijio-arloan berpizkundearen pareko zena aginte politikoaren bidez ezartzeko ahalginak porrot egin zuen. Aitasantutzak herri-oposizio «idolatrarekin» bat egin zuen gogotsu, eta horrekin urrats handia egin zuen bizantziar agintetik bere burua askatzeko. Leon Isauriarraren politikarantz Karlomagnok Mendebaldean, ziur aski ahul samar, egin zuen hurrengo mugimenduak Adriano I.a aitasantuaren gutxiespen erabakigarria jaso zuen. Mendebaldeak ia beste zortzi mende itxaron behar izan zuen bere berpizkunde judaikorako; eta hau iritsi zenean behetik gorako mugimendua izan zen; honen Leon Isauriarra Martin Lutero izan zen.

Mendebaldeko Kristandadeak izandako Erreforma protestantean, anikonismoa ez zen izan finkatzea lortu zuen amets judaiko bakkarra. Sabbatismo judaikoak aldi berean liluratu zituen Erromako Eliza Katolikotik banandurikoak; eta judaismoaren beste elementu honen

berpizkundera zailagoa da azaltzen, erbestealdiaren ondorengo juduek zapatua gordetzen jarri zuten zehaztasun ikaragarria herri berezi batek erronka berezi bati emandako erantzuna baitzen; judu-diasporaren teknikaren zati bat zen bere talde-bizitzari eusteko. Protestanteek adierazitako helburua hasierako Elizaren jatorrizko praktikara itzultzea zen; hala ere, hemen hasierako kristautasunaren eta judaismoaren arteko desberdintasun bat ezabatzen ikusten ditugu, hasierako Elizak behin eta berriro azpimarratu zuena. «Bibliaren kristau» hauek baztertu ote zitzaizkieten ebanjelioetako pasarte ugari, non Jesus zapatuaren tabuari erronka egiten azaltzen baita? Pasa ote zekiekeen oharkabean Paulo, beraiek pozik ohoratzen zutena, moisetar legea arbuiautzeagatik nabarmendu zela? Azalpena zera zen, erlijiozale kartsu haiek, Alemanian, Ingalaterran, Eskozian, Ingalaterra Berrian eta beste edonon, berpizkunde indartsuenetako baten mende zeudela eta imitazio-ko judu bihurtzeko joera izan zutela, Italiako artista eta jakitun kartsuek imitazioko atenastar bihurtzeko joera izan zuten bezala. Bataiatzerakoan beren haurrei Itun Zaharreko izenak, batere teutonikoak ez zirenak, jartzeko praktika hildako mundu bat piztu nahi izateko mania honen sintoma adierazgarria zen.

Dagoeneko sartu dugu, inplikazioz, hirugarren elementu bat Mendebaldeko protestantismoaren berpizkunde judaikoan, bibliolatria alegia, testu sakratu baten idolatria irudi sakratuen idolatriaren ordeiz. Zalantzarik gabe, Biblia herri-hizkuntzetara itzultzeak eta jende xeheko belaunaldiek, gainerantzean ezer gutxi irakurtzen zutenek, etengabe irakurtzeak kultur onura handia ekarri zuen, fede handiko protestante edo puritanoentzat ez ezik, Mendebaldeko arimentzat oro har. Honek ikaragarri aberastu zituen herri-literaturak eta herri-hezkuntza suspertu zuen. «Bibliako istorioak», beren erlijiozko balioa gorabehera, folklore bihurtu ziren, giza interesaren aldetik Mendebaldeko gizakiak bere jatorrizko sorburuetatik atera zezakeen edozer baino askoz gorago jarri zena. Gutxiengo sofistikatuago baten-tzat, testu sakratuaren azterketa kritikoa goragoko kritikan ikasteko bidea izan zen, geroago jakintza-arlo guztietan erabil zitekeena, benetan gertatu zen bezala. Aldi berean, Idazti Deunak jainkotzearen nemesi moral eta intelektuala protestanteen morrontza izan zen, trentotar katolizismoak, artean apaizgoan oinarrituak, izan ez zuena. Itun Zaharra —gero eta argiago erlijio eta historiaren aldetik meritu-maila

desberdineko giza konposizioen bildumatzat, edo hobeto esanda amalgamatzat, ikusten zena— Jainkoaren Hitz hutsezintzat hartzeko erabakiak erlijiozko bultzada emana zion ergelkeria setatiari, honen-  
gatik egozten ziolarik Matthew Arnold-ek bere viktoriar garaiko klase ertain bertutetsuari «urlo hebraizantean» bizitzea.

# XI. LEGEA ETA ASKATASUNA

## HISTORIAN

### XXXV. ARAZOA

#### 1.

##### «Legearen» esanahia

K.o. 1914aren aurreko ehun urteetan, Mendebaldeko gizakia gutxi kezkatzen zen guk orain aztertu behar dugun arazoaz, ebazpide-mota batek besteak bezain ona ematen baitzuen. Gizakiaren patua gizagaineko lege batek gobernatzen bazuen, lege hori aurrerapenaren legea zen, erabat asegarria. Bestalde, horrelako legerik ez bazegoen, arriskurik gabe onar zitekeen gizaki aske eta adimentsuen ekintzek emaitza berbera ziurtatuko zutela. Hogeigarren mendearen erdialderako egoera oso desberdina zen nabarmen. Bagenekien zibilizazioek kolapsoak izan zituztela iraganean, eta Mendebalde modernoko gizakiak eraikitako etxe-orratz handinahikoak pitzadura beldurgarriak zeuzkala orain. Ba ote zen lege bat, Oswald Spengler-ek K.o. 1919an argitaratutako *Mendebaldearen Gainbehera* lan pontifikalean ezartzen zuena bezalakoa —hots, zibilizazio honek bere aurrekoen bideari jarraitu behar ziola— ala aske ote ginen geure akatsak zuzentzeko eta geure patua eratzeko?

Gure ikerketan egin behar dugun lehen urratsa testuinguru honetan «lege» hitzarekin zer esan nahi dugun erabakitzea da. Noski, ez dugu esan nahi gizakiak egindako legeria, hemendik, hain ezaguna zaigulako oharkabean pasatzen zaigun metafora baten bidez, orain aztergai dugun testuingurura aldatua izan zelarik. Orain aztergai dugun «legeak» badu antza gizakiak egindako erakunde ezagun horrekin: giza arazoak gobernatzen dituen arau-multzo bat da, baina des-

berdina ere bada, ez delako gizakiak egina eta honek ezin duelako aldatu. Azterlan honetan lehenagoko zati batean nabarmendu dugu jadanik, legearen ideia honek, maila metafisikora aldatzerakoan, itxuraz antitetikoak diren bi kontzeptutan polarizatzen jotzen duela. Giza legegilearen nortasuna berak administratzen duen legea baino handiago ikusten dutenek beren buruan, unibertsoa gobernatzen duen «lege» metafisikoa Jainko ahalguztidun baten «legetzat» hartzen dute. Beste batzuek, legegilearen edo gobernariaren pertsona berak administratzen duen legearen nozioak itzalpetzen duenentzat, unibertsoa gobernatzen duen «lege» metafisikoa natura uniforme eta halabeharrezko baten lege inpersonaltzat hartzen dute.

Adigai horietako bakoitzak ditu ezaugarri kontsolagarriak eta beldurgarriak. «Naturaren legeen» ezaugarri beldurgarria horien halabeharrezkotasuna da, eta, hala ere, honek berekin darama bere kontentsazioa. Lege horiek halabeharrezkoak direnez, giza adimenak egiaztagarriak dira. Natura ezagutzea gizakiaren buru-irispidean dago, eta ezagutze hau boterea da. Gizakiak naturaren legeak ikas ditzake hau bere helburuetarako erabili ahal izateko. Eginkizun honetan gizakia ikargarri arrakastatsua izan da. Atomoa banatzea ere lortu du..., eta zer emaitzarekin?

Bekatua egin duela aitortu eta Jainkoaren graziaren laguntzarik gabe bere eraberritzea ezin duela lortu konbentzitu den giza arimak, Davidek bezala, Jaunaren eskuetan erortzea hautatuko du. Gizakiaren bekatua errukirik gabe zigortzea, argitan jartzea bezalaxe, «Naturaren legeen» Azken Judizioa dena, «Jainkoaren legearen» eskumena onartuz bakarrik gaindi daiteke. Atxikimendu espiritualaren aldatze horren prezioa zera da: ezaguera intelektual zehatz eta behin betiko hori galtzea, naturaren esklabo bihurtzearen ordainetan beraren nagusi izateaz pozik dauden giza arimen sari materiala eta zama espirituala den ezaguera, alegia. «Beldurgarria da Jainko biziaren eskuetan erortzea», zeren eta, Jainkoa espiritu bada, hark giza espirituekin izango dituen tratuak aurreikusi ezinak eta ezin asmatuzkoak izango baitira. Jainkoaren legera jotzean, giza arimak ziurtasuna utzi behar du itxaropena eta beldurra besarkatzeko; zeren eta borondatearen adierazpide den legea askatasun espiritualak animatzen baitu, eta hau naturaren uniformetasunaren antitesi hutsa da; eta lege arbitrario bat maitasunean edo gorrotoan berdin inspira daiteke. Jainkoaren legepe-

an jartzean, giza arima gai da horrek dakarrena aurkitzeko. Horregatik, gizakiak Jainkoaz dituen nozioak Jainko Aitaren ikuspegitik Jainko Tiranoaren ikuspegira artekoak dira; eta bi ikuspegiak bat datoz Jainkoaren irudiarekin, mozerro antropomorfikoa duen pertsona gisa, eta giza irudimenak ez dirudi gai denik harantzago joateko.

## 2.

### *Mendebalde modernoko historialarien antinomismoa*

«Jainkoaren lege» baten ideia israeldar eta iraniar profeten ari-men lanak gauzatu zuen historia babiloniko eta siriakoaren erronkei erantzunez; «naturaren legeak» kontzeptuaren azalpen klasikoa mundu indiko eta helenikoen desintegrazioaren behatzaile filosofikoei eratu zuten. Baina bi pentsamendu-eskolak ez dira logikoki bateraezinak elkarren artean eta oso ondo imajina daiteke bi lege-mota horiek elkarren ondoan jardutea. «Jainkoaren legeak» pertsonaren adimenak eta borondateak lortu nahi duten xede iraunkor bakarra adierazten du. «Naturaren legeak» mugimendu errepikari baten erregulartasuna erakusten dute, bere ardatzaren inguruan biratzen den gurpil batena bezalakoa. Imajinatu ahal izango bagenu gurpil-egilearen egintza sortzailerik gabe egindako eta gero inolako helbururik gabe beti biraka dabilen gurpil bat, errepikatze hauek benetan alferrikakoak izango lirateke; eta hau izan zen filosofo indiko eta helenikoen ateratako ondorio ezkorra, «bizitzako gurpil atsekabezkoa» *in vacuo* betiko biraka ikusi zutelarik. Benetako bizitzan ez dugu gurpilik aurkitzen gurpil-egilerik gabe, ezta gurpil-egilerik gurdizainek gurpilak egiteko eta gurdiei jartzeko mandatua eman gabe aritzen denik ere, gurpilen biraketa errepikatuak gurdiak eraman ditzaten gurdizainek nahi duten lekura. «Naturaren legeak» badute zentzurik Jainkoak bere orgari ezarritako gurpiltzat hartzen badira.

Unibertsoa bizitza osoa «Jainkoaren legeak» gobernaturik dagoelako sineskizuna judaismoaren herentzia zen, kristauen eta musulmanen gizarteek ere berenganatua, eta harrigarriro antzekoak baina elkarrekiko batere loturarik ez duten bi jeinu-lanetan adierazia

dago: San Agustinen *De Civitate Dei*-n eta Ibn Khaldun-en *Berbereen Historia*-ri egindako *Prolegomena*-n. Historiaren ikuspegi judaikoa-ren agustindar bertsioa ziurtzat jo zuten Mendebaldeko kristau-pentsalariek mila urte baino gehiagoz, eta horrek zilegizko azken adierazpidea Bossuet-en *Discours sur l'Histoire Universelle*-n izan zuen, K.o. 1681ean argitaratua.

Mendebalde moderno berantak historiaren filosofia teozentriko horretaz egindako errefusapena esplikatu eta desenkusatu egin daiteke; zeren eta Bossuetek aurkezturiko koadroa, azterketapean jartzean, ez baitzen ez kristautasunaren arabera, ez zentzuzkoa. Haren akatsak errukirik gabe azaltzen ditu R. G. Collingwood-ek, historialari nahiz filosofo gisa ospea lortu zuen hogeigarren mendeko idazle batek:

«Kristau-printzipioetan oinarrituriko historia oro unibertsala, probidentziala, apokaliptikoa eta aldika banatua izango da nahitaez... Historian nolabaiteko plan objektiboa zegoela nola zekien azaltzeko erronka eginez gero, Erdi Aroko historialariak hori errebelazioz zekiela erantzungo zuen; Kristok Jainkoari buruz gizakiari errebelaturikoaren zati zela. Eta errebelazio honek ez zuen Jainkoak iraganean egindakoaren giltza ematen soilik; Jainkoak etorkizunean zer egingo zuen ere erakusten zigun. Honela, kristau-errebelazioak munduko historia osoaren ikuspegi bat ematen zigun, iraganeke sorreratik etorkizuneko bukaeraraino, Jainkoaren ikuspen denboragabe eta betikoan ikusita bezala. Erdi Aroko historiografia honek aurrerantz begiratzen zuen Historiaren bukaerarantz, Jainkoak aurre-antolaturiko eta errebelazioaren bidez gizakiak aurrez jakindako zerbait bezala. Honela, eskatologia bat zeukan bere baitan.

«Erdi Aroko pensamenduan Jainkoaren helburu objektiboaren eta gizakiaren helburu subjektiboaren arteko aurkakotasun erabatekoak —Jainkoaren helburua, gizakiaren helburu subjektiboak batere kontuan hartu gabe, historian plan objektibo jakin bat ezartzea bezala ulertuta— ideia honetara darama ezinbestean: gizakiaren helburuek ez dutela inolako eraginik historiaren martxan, eta hori erabakitzen duen indar bakarra Jainkoaren izaera dela»<sup>94</sup>.

Honela, kristau-errebelazioa desitxuratzean, Erdi Aroko pentsaera zuten Goiz Aro Modernoko Mendebaldeko historialariak erasopean jartzen ari ziren, Berant Aro Modernoko bai dogmatismo zien-



tifikoaren aldetik eta bai eszeptizismo agnostikoaren aldetik. Historialari hauek (berrir Collingwood aipatuz) «etorkizuna iragar zezaketela pentsatzeko okerra egin zuten», eta, «historiako plan orokorra aurkitzeko zuten irrikagatik, eta plan hau Jainkoarena zela, eta ez gizakiarena, uste izateagatik, historiaren funtsa historiati at bilatzeraz jo zuten, gizakiaren ekintzetatik bista urrunduz Jainkoaren plana aurkitzeko».

*«Ondorioz giza ekintzen benetako zehaztasuna garrantzi gutxi samarrekoa bihurtu zen haientzat, eta historialariaren eginbehar nagusia baztertu zuten: benetan zer gertatu zen jakiteko ahalegin mugagabeak egiteko borondatea izatea. Honengatik da Erdi Aroko historiografia hain ahula metodo kritikoan. Ahultasun hori ez da kasualitatea. Ez zen adituen eskura zeuden informazio-bide eta materialen mugapenak eragindakoa. Mugapena ez zen haiek egin ahal zutenari buruzkoa, haiek egin nahi zutenari buruzkoa baizik. Haiek ez zuten nahi historiako benetako gertaeren azterketa zorrotz eta zientifikoa; haiek jainko-atributuen azterketa zorrotz eta zientifikoa nahi zuten, teologia bat... prozesu historikoan zer gertatu ote zen eta zer gertatuko ote zen a priori erabakitzeko gai egingo zituen».*

*«Horren ondorioa zera da, Erdi Aroko historiografiari historialari jakintsu hutsaren, gertaerei buruzko zehaztasunaz bakarrik kezkatzen den historialariaren ikuspuntutik begiratzen zaionean, ez duela ematen gogobetegarria eta bai berariaz eta nazkagarriro okerbideratua; eta hemeretzigarren mendeko (Mendebaldeko) historialariek, historiaren izaeraz normalean jakintsuaren ikuspegi hutsa zutenek, oso begikotasun gutxiz begiratu zioten»<sup>95</sup>.*

Erdi Aroko ikuspegiarekiko aurkakotasun hori ez zen azkenaldiko historialarien belaunaldi baten berezitasuna bakarrik, haien agnostizismo lasaiak beraien bizitzen baretasun atsegina islatzen zuelarik. Tenperatura altuagoaz haien aurrekoak eta ondorengoak ere berotu zituen. Azken hauek lehenengo hartuta: hogeigarren mendeko belaunaldi bat —giza diktadoreek, mendekoei bost urteko planak ezarri, harat-honat eramana izatearen esperientzia desatsegina dastatzen ari zena— bortizki errebelatuko zatekeen jainko diktadore bat sei mila urteko plan bat ezartzen ari zitzaizela aditzera emanaz gero. Hemezortzigarren mendeko Mendebaldeko gizakiak, haren aurre-aurrekoek Erdi Aroko kontzeptuei zieten leialtasuna erlijio-gerren

agoniarekin ordaindu zutelarik, ezin zezakeen Bossueten tesia superstizio barregarri eta zaharkitu gisa baztertu. Harentzat «arerioa» zen eta *Ecrasez l'Infâme* zen Voltaireren garaiko kontsigna. Han ez zegoen funtsezko desberdintasunik deisten —Jainkoaren izatea onartzeko prest zeudenak, Britainia Handian Hannover-eko errege batek bezala, erreinatu baina gobernatzen ez bazuen— eta ateisten artean, hauek Jainkoa ezeztatu zutelarik, naturaren burujabetasuna aldarrikatzeko atariko gisa. Handik aurrera naturaren legeak aske zeuden erabat hala-beharrezkoak izateko eta, beraz, guztiz ulergarri bilakatzeko prozesuan zeuden. Newtonen auto-arautzen den unibertsoaren garaia zen, eta Paleyren jainkozko erlojugilearen garaia, honek aldi berean bere erlojua eta bere negozioa eratu zituelarik.

Honela, «Jainkoaren legea» baztertuta geratu zen ilunpetako ameskeria gisa, handik irteten ari zelarik Berant Aro Modernoan Mendebaldeko gizakia; baina zientzialariak, Jainkoa kanporatutako eremu horretaz jabetzeari ekin ziotenean, ohartu ziren bazela arlo bat, non ezin baitzen aplikatu beraien agindua, «naturaren legeak». Zientziak esplikatu zezakeen gizakiarena ez zen izaera; giza gorputzaren funtzioak ere esplikatu zituzkeen, beste ugaztun batzuen gorputzek zituztenen oso antzekoak; baina gizadiaren ekintzak tartean zeudenean, ez animal gisa, baizik eta zibilizazio-prozesuan dauden gizaki gisa, zientziak atzera egiten zuen. Hemen zientziaren legeetara menderatu ezinezko kaosa zegoen; gertaera-segida esanahirik gabea, hogeigarren mendeko eleberrigile ingeles batek, poeta saritua ere bazenak, *Odtai* deitu zuena, horrekin esan nahi zuelarik «gauza zahar bat beste baten atzetik». Zientziak ezin zion horri zentzurik atera, horregatik gutizia gutxiagoko gremio bati utzi zitzaion, historialarierari, alegia.

Hemezortzigarren mendeko kartografo metafisikoek zatitu egin zuten unibertsoa. Haien marra banatzailearen alde batean, gizakiarenak ez ziren arazoen eremu ordenatua aurkitu zuten, non «naturaren legeak» zeudela indarrean uste baitzen, eta, beraz, adimen-lan metakorraren bidez giza ikerketak pixkanaka ezagutu zezakeela; beste aldean, giza historiaren eremu kaotiko bat utzi zuten, handik, beraiek ikusten zuten bezala, istorio interesgarriak baizik ezin zirelarik atera, gero eta zehaztasun handiagoaz jaso zitezkeenak, baina ezer «frogatu» ezin zutenak; eta hau da norbaitek (Henry Ford amerikar automobil-

-egilea izan omen zen) adierazi nahi zuena historia «txorakeriak» zirela esan zuenean. Ondoren, hau idazteko garaia arte, etorritako denboraldiaren ezaugarri nagusia zera zen: hasieran historialariei utzitako eremuaren hainbat arlo bereganatuz joan zela zientzia, arrakasta handiago edo txikiagoarekin: adibidez, antropologia, ekonomia, soziologia eta psikologia. Beraien eremu gero eta txikiagoan, non oraindik ez baitzuen hanka jarri beti aurrera zihoan zientziak, «gertaerak aurkitzeko» jarduerarekin jarraitzen zuten historialariek, ikaragaitz.

Baina Mendebaldeko gizakiaren fede nagusia sineskizun hau izan zen beti: unibertsoa legearen mende zegoela eta ez kaosaren esku; eta fede honen aro moderno beranteko bertsio deista edo ateista hau zen: unibertsoaren legea «naturaren legeen» sistema bat zela. Lege hauen eremua, egia esateko, etengabe hedatu zen. Zientziaren historiako izen handiak, azaleko kaos-itxuran zehar, azpian zegoen ordena ikusi zutenenak izan ziren. Adibidez, Newton, Darwin eta Einstein ospetsu egin zituen horrelako argitze-lana izan zen. Eta nor ausartuko zen marra bat egiten, marraz harantzago ez zutelarik beren lana eraman behar *conquistadores* intelektual horiek? Unibertsoko eremu bat —zibilizazioaren prozesuan gizakiak harturiko eremu metropolitarra— aginte nagusi izengaberen batek kaosarentzako santuario gisa gorde zuela aldarrikatzea asegarria izan zitekeen historialari antinomikoentzat, baina blasfemiatzat hartuko zuketzen zientziaren jarraitzaile zintzo guztiek.

Egia esateko, Mendebalde modernoko historialariak ez ziren uste zen bezain antinomikoak izaten, hogeigarren mendearen erdialdean historialari-lanbidea zuen ospetsu batek zioena onartzen bada:

*«Belaunaldi jakin bateko gizonak normalean ez dira ohartzen beren garaiko historiari zenbateraino begiratzen dion norberak onarturiko esparrutik, gertaerak forma jakin batzuetan sailkatuz edo zenbait molderen barruan kokatuz, amets-giro batean bezala onartzen direlarik batzuetan. Erabat oharkabean egon daitezke beraien gogoak zenbateraino behartzen dituen prozesuaren errutinazko formulazioak; eta mundua desberdina denean bakarrik, eta onarturiko marko horretan jaiotzatik itxi gabeko belaunaldi berri bat sortzen denean, orduan ikusten du mundu guztiak nabarmen marko horren estutasuna... Histori idazleen eta beste irakasle batzuen hutsegitea da imajinatzea beraiek kristau ez badira aske daudela Historia inolako auresuposi-*

*ziorik gabe aztertze. Historialarien artean, beste arlo batzuetan bezala, itsuen artean itsuenak beren auresuposizioak aztertze gai ez direnak dira, eta horregatik batere auresuposiziorik ez dutela itsuki uste dutenak»<sup>96</sup>.*

Bere kateez ohartzen ez den preso baten koadroa da hori, eta testuinguru honetan ezin dugu aipatu gabe utzi bigarren aldiz pasarte bat, bere fintasunagatik eta oso liburu distiratsu baten hitzaurrea izanik, fedegabezia antinomikoaren aitorpen klasiko bilakatu dena.

*«Zirrara intelektual bat... ukatu zait. Ni baino gizon zuhurrago eta ikasiagoek historian bilbe bat, erritmo bat, aurrez erabakitako egitura bat bereizi dute. Harmonia horiek ezkutatu egin zaizkit niri. Nik ezustekoen atzetik ezustekoak ikusten ditut bakarrik, uhinaren atzetik uhina datorren bezala; gertakari handi bakar bat, zeinetaz, gertakari bakarra delako, ezin baitaiteke orokortzerik egin; erregela seguru bakarra dago historialariarentzat: kontingentearen eta aurreikusigabearen papera onartu beharko lukeela giza patuen garapenean»<sup>97</sup>.*

Eta, hala ere, honela historia «gauza zahar bat beste baten ondoren» delako dogmari bere atxikimendua publikoki aldarrikatu zion historialaria, bere liburuari *Europako Historia* deituz, ia arnasaldi berean, predeterminaturiko egitura batekin konprometitu zen, non «kontinente» bereiztezin baten historia gizadiaren historia osoarekin parekatzen baitzen; eta Mendebalde moderno berantaren konbentzio historiko honetara Mendebaldeko *religio historici* arrunt baten artikulua oharkabea onetsiz iritsi zen. «Europaren» existentzia sinesteko behar ziren buru-eragiketa inkontzienteak hain ziren landuak, ezen adierazi gabe onarturiko artikuluen kopurua gutxienez hogeita hemeziretzira iritsiko baitzen.

## XXXVI. GIZA ARAZOEN MENDEKOTASUNA «NATURAREN LEGEEKIKO»

### 1.

#### *Datuen ikerketa*

##### *a) Gizabanakoen arazo pribatuak*

Gure ikerketaren xederako, has gaitezen suposatuz eztabaidagai dela ea «naturaren legeek» inolako zereginik duten zibilizazio-prozesuan dagoen gizakiaren historian. Orduan, giza arazoen hainbat arlo azertu beharko ditugu jakiteko ea gai hori, zehatzago aztertuta, ez ote den guk orain uste dugun bezain eztabaidagarria. Komenigarria izan daiteke gure lehen ikerketak jende pribatuaren arazo arruntetan egitea, historialari modernoek ekarpen zoragarriak egin zituztelarik gai horretan Gizarte Historia izenburupean. Hemen, zibilizazioen historiak gobernatzen dituzten legeak bilatzerakoan aurkitzen dugun zailtasuna ez da agertzen. Erregistraturiko zibilizazioen kopurua, bi dozena baino gutxiago, eragozkarririo txikia da orokortzeak egin ahal izateko; eta horietako batzuez dugun ezaguera oso zatikatua da. Gizabanako pribatuak, berriaz, milioiak dira, eta beraien portaeraz, Mendebalde modernoko egoeran, estatistika-azterketa zehatzak egin izan dira, horietan oinarrituz gizon praktikoek aurreikuspenak egin dituztelarik, beren ospea ez ezik, dirua ere arriskatuz. Industria eta merkataritza kontrolatzen zituztenek honelako edo halako merkatuak honelako edo halako salerosgaiak hartuko zituen uste osoa izaten zuten. Batzuetan huts egiten zuten, baina gehienetan ez, bestela negozioetatik kanpo geratuko baitziren.

Batez besteko legea gizabanakoen arazoetara aplikatu zitekeela modurik argienean erakusten zuen negozio-jarduera aseguru-

rena zen. Zalantzarik gabe, ez ditugu aseguru-mota guztiak lasterregi hartu behar «naturaren legeak» giza arazoetara aplikatu daitezkeen argumentuaren alde erabiltzeko, azken termino hau erabiltzen ari garen zentzuan. Bizi-asegurua giza gorputzaren probabilitateekin lotua zegoen, eta fisiologia zientziaren eremuan sartzen zen argi eta garbi. Aldi berean ezin zen ukatu arimak bazuela zer esanik arazo honetan; zeren eta bizitza fisikoa luza baitzitekeen zuhurtziaren bidez eta laburtu zuhurtziarik ezaren zenbait formaz, heroismotik hasi, erokeriatik igaro eta aberekeriaraino iritsiz. Itsasontzien eta haien zamen aseguruak ere, antzeratsu, meteorologiaren azterketa eskatzen zuten, hori ere zientziaren atal bat zena, nahiz eta orain arte gobernagaitz samarra izan. Baina lapurreta edo suteen aurkako aseguruari heltzean, bazirudien aseguru-etxeek batez bestekoen legeekin espekulatzen zutela, gizakiaren tasun bereizgarri diren kriminalitate eta axolagabeziari aplikatuta.

#### *b) Mendebalde modernoko gizarte baten industri arazoak*

Hornitzaileen eta bezeroen tratuetan eskariaren eta eskaintzaren gorabeheretan suma daitezkeen estatistika-ereduak «goraldien» eta «beheraldien» segida batean adierazten ziren nabarmen; baina negozio-ziklo horien eredua, hau idazteko garaian, ez zegoen oraindik aseguru-etxeak negozioaren adar berri bat irekitzera —hots, negozioetatik sortzen ziren arrisku izugarrien aurka aseguratzeak primak jartzera— animatzeko behar hainbat zehatz ezarria. Hala ere, ikertzaile zientifikoek jada asko zekiten gai hone-taz.

Mendebaldeko industri gizartearen historia intelektualean, merkataritza-zikloen fenomenoak jada enpirikoki aurkitua zegoen zuzeneko gizarte-behaketaren bidez estatistikoki berretsia izan baino lehen. Horren lehenengo deskribapen ezaguna K.o. 1837an eman zuen britainiar behatzaile batek, S. J. Loyd-ek, gero lord Overstone izango zenak. Lehenengoz K.o. 1927an argitaratu eman zen liburu batean, negozio-zikloen amerikar aztertzaile izan zen W.C. Mitchell-ek bere uste bat aitortu zuen: «negozio-zikloen ezaugarriak aldatzea espero litekeela antolaketa ekonomikoa aldatu ahala». Beste amerikar aditu batek, W. L. Thorp-ek, bildutako «negozio-

-analetan» oinarrituta, estatistikoak ez ziren datuetatik hirugarren aditu amerikar batek, F.C. Mills-ek, merkataritza-ziklo «labur» baten batez besteko uhin-luzera industrializazioaren lehenengo etapetan 5,86 urtekoa zela kalkulatu zuen, 4,09 urtekoa ondorengo trantsizio lasterreko aroan, eta 6,39 urtekoa ondorengo aro egonkor samarrean.

Beste ekonomialari batzuek beste ziklo batzuk proposatu zituzten, ziklo horietako batzuek ustez uhin-luzera askoz luzeagoak zituztelarik. Beste batzuek iradoki zuten «uhin» horiek baretzeko joera erakusten zutela oreka-egoera batean. Baina beraien artean ez zegoen horretaz akordio orokorrik, eta azterketa, egia esan, hasi berria zen. Ez daukagu aurrerago jarraitu beharrik. Guri ezartzea dagokigun puntua zera da, industri iraultza Britainia Handian sortu eta berrehun urtera, Mendebaldeko zientzia ekonomikoaren gurasoak, ekonomiaren historiak aurkezten zien datu-masaren artean, lege-multzto bat argitu nahian ari zirela, gizakiaren tasun bereizgarriak jokoan sartzen diren giza jardueraren arlo ekonomikoa gobernatzen duen lege-multztoa.

### *c) Parroki estatuen lehiak: «Botere-oreka»*

Ekonomiaren historiari aplikatu dakizkiokeen lekeen funtzionamendua aztertzeko ekonomialariak beren ikerketen emaitzak erabiltzen ikusi ondoren, guk, noski, jardueraren eremu politikora jo behar dugu bertan antzeko zerbait egin ote daitekeen ikusteko; eta politikaren eremu honetan operazio-zelai gisa, Mendebalde modernoko parroki estatuen lehia eta gerrak aukeratuko ditugu. Mendebaldeko historiaren aldi modernoa hamabosgarren mendearen bukaera aldera hasi zela onar dezakegu Alpeez bestaldeko Europako estatu-sistemaren italianizazioarekin; hortaz, lau bat mende ditugu geure eskura ikerketa honen xedeetarako.

«Edozein eskola-umek daki», Macaulayren estimazio baikoarra da, lau okasiotan, bakoitza bestetik ehun bat urtez banatua, ingeles (edo britainiar) herriak, bere uharte-gotorlekuak ematen zion immunitate konparatiboaz baliatuz, lehenengo errefusatu eta gero suntsitzen lagundu zuela botere kontinental bat, Mendebalde-

ko Kristandadea estatu unibertsal batez hornitzeko eskaintza, edo mehatxua, egiten ari zena, eta, edonola ere, hizkera tradizionalan esateko, «botere-oreka aldatzen» ari zena. Lehen okasioan eraso-tzailea Espainia zen, Espainiar Armada, 1588; bigarren okasioan, Luis XIV.aren Frantzia, Blenheim, 1704; hirugarren okasioan, Iraultzaren eta Napoleonen Frantzia, Waterloo, 1815; laugarren okasioan Gilermo II.aren Alemania, Armistizio-eguna, 1918, eta gero Hitlerren mende gaizkoatua, Normandia, 1944. Eredu zikliko garbia dago hemen, uharteko ikuspegitik begiratuta, lau «gerra handi»ko sail bat, erregulartasun bitxiaz banatuak, bakoitza bere aurrekoa baino handiagoa, bai gerragintzaren intentsitatean eta bai beligerantzi eremua deituko dugun horretan. Serieko lehenengoa Atlantikoko estatuen —Espainia, Frantzia, Herbehere eta Ingalaterraren— arazo bat da. Bigarrenak Erdialdeko Europako estatuak inplikatzan ditu, eta Errusia ere bai erruso-suediar gerra «Espainiako ondorengotza-gerraren» nolabaiteko eraskintzat hartzen bada. Hirugarren (Napoleonen) borrokaldian Errusia da gerra-egile nagusia, eta agian Amerikako Estatu Batuak ere sar daitezke bertan, «1812ko gerra» gerra napoleonikoaren eranskintzat hartzen bada. Laugarrenean, Amerika sartzen da gerra-egile nagusi gisa, eta borrokaren izaera orokorra zera honek adierazten du: haren segidako erasoaldiak Lehenengo eta Bigarren Mundu Gerra deitu zirela.

Mendebalde modernoan estatu unibertsal baten ezarpena eragozteko lau gerra horietako bakoitza gutxi gorabehera mende bateko denbora-tarteaz banatuta egon zen bere ondorengotik eta bere aurrekotik. Gerrarteko hiru mendeak aztertzeari ekiten badiogu, kasu bakoitzean tarteko edo osagarritzko dei genezakeen gerra edo gerra-multzo bat aurkitzen dugu, kasu bakoitzean nagusitasu-nagatiko borroka bat, ez Mendebaldeko Europan bere osotasunean, baizik eta bere erdialdeko eremuan, Alemanian. Gerra horiek batez ere Erdialdeko Europakoak zirenez, Britainia Handia ez zen horietako bakar batean ere leporaino sartu, eta horietako batzuetan bate-  
re ez zuen esku hartu; beraz, ez daude benetan «edozein eskola-umek (edozein eskola-ume britainiarrek esan nahi da, noski) dakien» horretan sartuta. Tarteko gerra horietako lehenengoa



Hogeita Hamar urteko gerra izan zen (1618-48), bigarrenean gehienbat Prusiako Federiko Handiaren gerrak sartzen ziren (1740-63), eta hirugarrena Bismarckekin lotua dago, nahiz eta askoz gehiago hartu bere baitan, eta 1848-71n datatu beharko litzateke.

Azkenik, lau ekitalditako drama honek obertura bat izan zuela esan ahal izango litzateke: hots, ez dela hasten Espainiako Felipe II.aren, baizik eta bi belaunaldi lehenagoko habsburgo-valois-tarren «italiar gerrekin». Gerra horiek Frantziako Karlos VIII.a erregeak Italian egin zuen inbasio ikaragarri hutsal baina beldurgarriarekin hasi ziren; eta data hori, 1494, hezkuntza-agintariek sarri erabili dute Berant Erdi Aroa eta Goiz Aro Modernoa banatzeko komeni den lerro zurrin gisara. Espainian geratzen zen azken lurralde musulmanaren kristau-konkista eta Kolonek Mendebaldeko Indietan egin zuen lehenengo lehorreratzea baino bi urte geroago izan zen.

Hau dena taula moduan adieraz daiteke; eta Alexandro-osteko historia helenikoan eta Konfuzio-osteko historia sinikoan gerra- eta bake-zikloak aztertuz gero<sup>98</sup>, beren egituran eta beren denbora-tarteetan hemen Mendebalde modernoaren historian begiztatu ditugunen antzekoak diren «eredu» historikoak agertzen dira.

#### *d) Zibilizazioen desintegrazioa*

Une batez atzera begiratzen badiogu Mendebalde modernoko gizarteko gerren eredu ziklikoari, gauza batek harrituko gaitu: ez dela lau aldiz *in vacuo* birakatzen eta aldi bakoitzean abiapuntura itzultzen den gurpil baten kasua soilik. Errepidean bereziki beldurgarria den norabidean aurrerantz mugitzen den gurpil baten kasua ere bada. Alde batetik, ahalguztidun eta harroa den auzoko baten aurka beren burua babesteko taldean elkartzten diren estatuen lau kasu daude hemen, azkenean erakusten diotelarik auzokoari bere harrokeriak erortarazi duela. Bestalde, bada hemen puntu bat eredu ziklikoak erakusten ez duena, baina historiaren oinarri-oinarritzko jakintzak azaltzen



duena: lau borrokaldi horietako bakoitza estentsiboagoa, bortitzagoa, suntsigarriagoa izan zen, material eta moralki, bere aurrekoa baino. Beste gizarte batzuen historian, helenikoan eta sinikoan adibidez, lehiakide guztiak, bat izan ezik, zelaitik kanpo direla bukatu izan dira horrelako borrokaldiak, orduan bakar horrek estatu unibertsala ezartzen duelarik.

Erritmo zikliko baten autoamortizazio hori, parroki estatuen artean existentziagatik borroketan joera nagusi gertatzen dena, jada agertu zaigu zibilizazioen desintegrazioak aztertzerakoan; eta ez da harritzekoa kidetasun hori egotea argi eta garbi elkarri lotuta dauden bi prozesuen erritmoen artean. Desintegrazioen abiapuntu diren kolapsoen azterketak zera erakutsi digu, sarritan gizartea osatzen duten parroki estatuen artean gerra izugarri bortitza piztu izana dela kolapsoaren okasio, sintoma edota kausa ere. Inperio ekumenikoak estatu borrokalariai ordeztu ondoren, bortizkerialdiak ez dira erabat bertan behera geratzen, baizik eta forma berrietan agertzen dira, gerra zibil edo gizarte-altxamenduen forman; eta honela, desintegrazio-prozesuak, aldi batez geraraziak, jarraitu egiten du.

Halaber, ikusi dugu desintegrazioak, parroki estatuen gerrak bezala, fluktuazio erritmikoen serie batean zertu zirela, eta, hainbat kasuren azterketatik, ziurtatu dugu, erorialdi eta susperraldien erritmo ziklikoak —non desintegraziorantzako joera nagusia gudu luzean borrokatu baita erresistentzi mugimenduaren aurka— hiru pultsazio eta erdi izan ohi zituela —erorialdia, susperraldia, erorialdi berria, susperraldia, erorialdi berria, susperraldia, erorialdi berria— zibilizazio baten kolapsotik bere azken deuseztapenerako bidaia historikoa egitean. Lehen erorialdiak gizarte kolapsatua arazoaldian murgiltzen du, lehen susperraldiak arintzen dio hori, baina bigarren paroxismo bortitzago batek jarraitzen dio gero. Erorialdi berri honi bigarren susperraldi iraunkorrago batek jarraitzen dio, estatu unibertsalaren ezarpenean agertzen dena. Honek, bere aldetik, erorialdia eta susperraldia izaten ditu, eta azken susperraldi horren ondoren azken deuseztapena.

Ikusiko den bezala gizarte-desintegrazioaren dramak, orain arte gertatutakoetatik epaitzekotan, argumentu zehatz eta erregularragoa du botere-orekaren dramak baino, eta estatu unibertsalen gure taula aztertzen badugu zera aurkituko dugu, gertaeren bilakaera kanpoko gizarte-gorputzen eraginak asaldatzen ez duen kasuetan, lau-

rehun urte inguruko aldia betetzen duela erorialdi, susperraldi, erorialdi berri eta susperraldi eraginkorrangoaren mugimenduak, hasiera-ko kolapsotik estatu unibertsalaren ezarpeneraino doana; eta luzera bertsuko beste aldi bat hartzen duela ondorengo mugimenduak: erorialdi berria, azken susperraldia eta bukaerako erorialdia, estatu unibertsala ezartzen denetik bere deuseztapeneraino doana. Baina estatu unibertsal bat nekez hiltzen da, eta Erromatar Inperioak, sozialki atzeratutako mendebaldeko probintzietan Adrianopoliseko hondamendien biharamunean K.o. 378an (Augustok ezarri eta lauhun urte geroago, hain zuzen) zatitu zenak, ez zuen bide bera egin erdialdeko eta ekialdeko probintzietan Justiniano hil arte K.o. 565ean. Antzeratsu Han Inperioak, bigarren kolpea K.o. 184an hartu eta ondoren Hiru Erresumetan apurtu zenak, une batez berrosatzea lortu zuen Tsin Batuarien Inperioan (K.o. 280-317), bere azken deuseztapenera bideratu aurretik.

#### *e) Zibilizazioen hazkundeak*

Gure arreta gizarte-desintegrazioetik gizarte-hazkundera aldatzen dugunean, Azterlan honen lehenagoko atal batean aurkitutakoa gogoratu behar dugu: hazkundeak, desintegrazioak bezala, ziklikoki erritmikoa den mugimendu bat erakusten duela. Erronka batek erantzun arrakastatsua sortarazi eta honek bere aldetik beste erronka bat sortarazten duenean gertatzen da hazkundea. Ez genuen berezko arrazoirik aurkitu prozesu hau mugagabeki ez errepikatzeko, nahiz eta hau idazteko garaia arte jaiotako zibilizazio gehienek huts egin zuten, historiak erakusten duen bezala, hazkunderari eusten, ez zutelako lortu —segidan gutxi samarretan izan ezik— erantzun bat, bera sortarazi zuen erronkarekiko eraginkorra eta aldi berean beste erantzun bat eskatzen zuen erronka berri baten sortzaile emankorra izango zena.

Ikusi genuen, adibidez, Zibilizazio Helenikoaren historian, barbarotasun anarkikoaren hasierako erronkak erantzun eraginkorra sortarazi zuela erakunde politiko berri baten, hiri-estatuaren, forman, alegia; eta erantzun horren arrakastak erronka berri bat sortarazi zuela, oraingoan ekonomiaren mailan, biztanleriaren gero eta presio handi-agoaren forman. Bigarren erronka honek eraginkortasun desberdineko hainbat erantzun alternatibo sortarazi zituen. Adibidez, espartarren erantzun tamalgarria, Espartaren auzoko helenikoen landa jaki-emai-leak indarrez bereganatzekoa; edo aldi batez eraginkorra izan zen

korintiar eta kaltzidiarren kolonizazioaren erantzuna, hau da, heleno-entzat landa berriak irabaztea itsasoz bestaldean goldatzeko, Mediterraneoaren mendebaldeko arroan herri atzeratuagoei kendutako lurretan; edo iraunkorki eraginkorra izan zen atenastarren erantzuna: mundu heleniko handiagotu honetan, bere hedatze geografikoa feniziar eta tirreniar lehiakideen erresistentziak gerarazi ondoren, emankortasun orokorra gehitzea iraultza ekonomiko baten bidez: irau-peneko nekazaritzaren ordez dirua egiteko nekazaritza ezarri zen, eta esportaziorako ekoizpen industrial, inportaturiko oinarritzko jakien eta lehengaien trukean.

Ekonomi erronka bati emandako erantzun arrakastatsu horrek, ikusi genuen bezala, beste erronka bat sortarazi zuen maila politikoan; zeren eta ekonomikoki elkarrekiko mendeko zen mundu helenikoa lege eta ordenazko sistema politikoa eskatzen baitzuen eskala eku-menikoan. Zegoen parroki hiri-estatuen sistema, ordoki-zati bakartu bakoitzean nekazaritza-ekonomia autarkikoa garatzea eragin zuena, jada ez zen egitura politiko egokia orduan egitura ekonomiko unitarioa zeukan Gizarte Helenikoarentzat. Hirugarren erronka honi ez zitzaion garaiz erantzun Zibilizazio Helenikoaren hazkundea kolapso batek etenda utz ez zezan.

Mendebaldeko Zibilizazioaren hazkundean ere ikusten dugu erronka-serie bat erantzun arrakastatsuak sortarazten, eta serie hori helenikoa baino luzeagoa da, hirugarren erronkak ere erantzun arrakastatsua aurkitu baitzuen, lehenengoak eta bigarrenak bezalaxe.

Hasierako erronka helenoek aurrean izan zuten interregno baten barbarotasun anarkiko berbera izan zen, baina erantzuna desberdina izan zen, hau da, eliz erakunde ekumeniko bat sortzea hildebrandotar aitasantutzaren forman; eta horrek bigarren erronka bat eragin zuen; zeren eta hazten ari zen Mendebaldeko Kristandadea, eliz batasuna lortua zuelarik, politikoki eta ekonomikoki eraginkorra izango zen parroki estatuen sistemaren baten beharrean aurkitu baitzen. Italia eta Flandesen hiri-estatuaren erakunde helenikoa berpiztuz erantzun zitzaion erronkari. Konponbide honek, hala ere, zenbait arlotan aski baliagarria izan zelarik, huts egin zuen lurraldez zabalak ziren monarkia feudalen eskakizunei erantzuten. Mendebaldeko bizitza politiko eta ekonomikoan parroki organo eraginkorrak sortzeko arazoaren konponbidea, Italian eta Flandesen hiri-estatu sistemaren bidez

lortua zena, izan ote zitekeen Mendebaldeko munduaren gainerakoa-  
rentzat baliagarria italiar eta flandestar eraginkortasun hori nazio-mai-  
lako terminoetara aldatuz?

Arazo hau, ikusi dugun bezala, Ingalaterran konpondu zen, lehenik maila politikoa Alpeez bestaldeko Erdi Aroko parlamentua-  
ren erakundeari eraginkortasuna emanez, eta gero ekonomiaren mai-  
lan industri iraultzaren bidez. Mendebaldeko industri iraultza horrek,  
hala ere, Atenasko ekonomi iraultzak historia helenikoan bezala,  
parroki autarkia ekonomikoaren ordeaz elkarrekiko mendekotasun  
ekonomiko ekumenikoa ezartzeko ondorioa izan zuen. Honela,  
Mendebaldeko Zibilizazioak, hirugarren erronkari emandako eran-  
tzun arrakastatsuen ondorioz, Zibilizazio Helenikoak bere bigarren  
erronkari emandako erantzun arrakastatsuen ondoren aurrean izan  
zuen erronka berri berberarekin topo egin zuen. Hau idazteko garaian,  
hogeigarren mendearen erdialdera, Mendebaldeko gizakiak oraindik  
ez dio arrakastaz erantzun erronka politikoa horri, nahiz eta berorren  
mehatxuaren kontzientzia bizia izan.

Bi zibilizazioen hazkundeei emandako begiratu labur hauek  
aski dira erakusteko ez dagoela uniformetasunik horien historien arte-  
an erronka eta erantzunen kateaketako maila-kopuruari dagokionez,  
erronka eta erantzun horien bidez lortu delarik gizarte-hazkundera; eta  
behar hainbat ongi dokumentaturiko beste zibilizazio guztien histo-  
rien azterketak ondorio hori berretsiko luke. Horregatik gure ikerketa  
honen emaitza badirudi zera dela, «naturaren legeen» jarduera zibili-  
zazioen hazkunderen historietan ia ikusezina dela, desintegrazioen his-  
torietan nabarmena den bezainbat. Geroagoko kapitulu batean aurki-  
tuko dugu hori ez dela ustekabekoa, baizik eta hazkunde-prozesuaren  
eta desintegrazio-prozesuaren arteko berezko desberdintasun bati  
datzekiolar.

*f) «Ez dago armadurarik patuaren aurka»*

«Naturaren legeek» zibilizazioen historietan duten jarduera  
aztertzean, aurkitu dugu lege horiek azaltzeko duten erritmoa indar  
desberdineko bi joeren arteko borroka batek sortu ohi duela. Bada  
joera nagusi bat, epe luzera, aurkako mugimendu errepikatuen kon-  
tra gainditzten dena, mugimendu horietan finkatzen delarik aurkako  
joera setatia. Borrokak ezartzen du erredua. Joera ahulenak porrotean

etsitzeari uko egin eta jarrera horretan irauteak esplikatzten ditu topaketaren errepikapenak ziklo-serie batean; joera indartsuagoaren nagusitasuna lehenago edo geroago serie hori bukaraziz sentiarazten da.

Ildo honetatik parroki estatuen artean existentziagatiko borrokak ikusi ditugu —hiru edo lau gerra-ziklo alde batean botere-oreka hausteko, eta beste aldean horri eusteko—, bide hori kasu bakoitzean oreka hautsita bukatzen delarik. Halaber, kolapsaturiko gizarte batek desintegratzeko duen joeraren eta galdutako osasun-egoerara itzultzeko kontra-ahaleginaren arteko borroka ikusi dugu, kasu bakoitzean bere deuseztapenean bukatzen den bidea. «Naturaren legeek» Mendebaldeko industri gizarte baten arazo ekonomikoetan duten eragina aztertzerakoan, mugimendu errepikatu horiek, merkataritza-zikloen ikertzaile adituen ustez, etengabe laster batean doazen uren gainean kizkurtzen ziren uhinak izan zitezkeela aurkitu dugu, urlasterren aurrerapenak azkenean fluktuazio erritmiko horiek bukaraziko zituelarik. Puntu honetan, aurkitu dugun zerbait gogoraziko dugu: desintegratzen ari den zibilizazio baten eta bere mugaz harantzagoko barbaro-multzo setatien arteko gatazka mugimenduzko gerra izatetik estatu unibertsal baten *limes*-ean zehar gerra egonkor izatera igaro den garaian eta lekuan, denboraren igarotzeak normalean *limes*-aren babesleen aurka eta barbaro erasotzaileen alde jokatu duela, azkenean eustorma lehertu eta barbarotasunaren uholdeak aurrez zegoen gizarte-egitura mapatik garbitu arte.

Hauek guztiak gure aurkikuntza orokorrago baten adibideak dira, hots, mugimendu ziklikoek giza historian, gurdi-gurpil baten biraketa fisikoek bezalaxe, monotonoki errepikakorra den mugimenduko zirkularraren bidez, erritmo luzeagoko beste mugimendu bat eragiteko modua dutela, eta hau, kontrastez, norabide batean aurrerapen metakortzat har daitekeena dela, azkenean bere helmugara iristen dena eta, hara iristean, seriea bukarazten duena. Hala ere, ez dago joera batek beste baten gain izandako garaipen horiek «naturaren legeen» adibidetzat interpretatzeko bermerik. Enpirikoki behaturiko gauzak ez dira nahitaez halabeharrezko patu baten emaitzak. Frogaren pisuak determinista gezurtatzen du hemen, ez agnostikoa, Spenglerrek bere determinismo dogmatiko eta dokumentatu gabearekin kontuan hartu ez zuen puntua.

Hala ere, eta historian legearen eta askatasunaren artean oraindik erabaki gabeko arazoari buruz aurreiritzirik gabe, gure argudiobi-dea aurrerago eramaten saiatu aurretik, beste zenbait pasadizo nabarmendu nahi dugu, non jarreraren bat sendotu egin den bere aurkako zenbait altxamenduren kontra. Gatazka-indarren horrelako ebazpene-tan Spenglerrek «patuaren» eskua ikusten zuen, baina, halabeharrez-kotasunaren dogma hau zuzena ala okerra zen ia ez da ahalegintzen frogatzen. Balentria militarren bidez, nagusitasun helenikoa Hego-ekialdeko Asian ezartzeak sortu zuen egoerarekin hasiko gara.

Nahiz eta nagusitasun heleniko honek mila urte baino gutxi-xe-ago izan, kristau-aroko zazpigarren mendean gerra-talde arabiar musulmanek eraitsi zutenean, helenismoak, Taurus-en hegoaldean, inoiz ez zuen arrakastarik izan atzerriko kultura exotiko bat baino gehiago izaten, hiri heleniko edo helenizatu bakan batzuetako aitzin-dari-postuetatik ahul zabalduz bere eragina era aldaezinean siriakoa edo egipziakoa zen landara. Masa-konbertsioak lortzeko helenismoa-ren gaitasuna proban jarri zuen Antioko Epifanes seleukotar heleniza-tzaileak (K.a. 175-163 artean erreinatu zuen), Jerusalem Antiokia bezain heleniko bihurtu nahi izan zuenean; eta eginkizun militar kul-tural honen porrot ozenak kultura kanpotarraren azken desagertze era-batekoa iragarri zuen. Haren existentzia beti gaixoka hainbat mendez luzatu zen, erromatarrek hartu zutelako kontrola ahultzen ari ziren seleukotar eta ptolomeotarrengandik.

Nagusitasun helenikoa Gizarte Siriako eta Egipziakoaren gain armen indarrez ezarri eta mantendu zen; eta, menderatutako gizarteek era berean erantzunez erreakzionatu zuten neurrian, porrotaren bila aritu ziren. Prozesuaren hurrengo atalean, ekialdeko probintzietan kristau-aroko hirugarren mendean biztanleriak kristautasunera egin-dako masa-konbertsioak badirudi bide batez Antiokok saiatu eta huts egin zuena egin zuela helenismoarentzat; zeren eta probintzia horietan Kristau Eliza Katolikoak liluratuta baitzeuzkan bertako nekazari men-deratuak, baita aldi berean hiritar nagusi helenikoak ere; eta kristauta-sunak bere aurrerapen garailea jantzi helenikoarekin egin zuenez, ematen zuen Ekialdekoek azkenean oharkabea hartu zutela, kristau-tasunarekin elkartuta, adulteratu eta mozturatu gabe eskaini zitzaie-nean beraiek hain kartsu errefusaturiko kultura. Kristautasun heleni-zatua onartu zutelarik, Ekialdekoek beren erlijioa deshelenizatzeari



ekin zioten heresiak berenganatuz hurrenez hurren, nestorianismoa izanik horietako lehena. Honela, eztabaida teologikoaren forma ez-militarrean, helenismoaren aurka Ekialdeko erresistentzi mugimendua berriro hartzean, Ekialdekoek kultur gerraren teknika berri bati heldu zioten, azkenean nagusitu egin zirelarik horretan.

Kultur eraso anti-heleniko hori hainbat mendetan agertu zen dagoeneko ezaguna zaigun eredu ziklikoan. Nestoriotar uhina altxatu eta erori egin zen, ondoren uhin monofisita etorri zen, eta ondoren uhin musulmana, dena bere aurrean eraman zuena. Esan liteke garai-pen musulmana konkista militarren metodo gordinera itzultzea izan zela. Egia da, zalantzarik gabe, gerra-talde arabiar musulmanak nekez har daitezkeela Tolstoy eta Gandhiren bortizkeriarik gabeko erresistentzi doktrinen aurrekaritzat. Siria, Palestina eta Egipto «konkistatu» zituzten K.o. 637-40. urteetan, baina Garibaldik K.o. 1860an lortu zuenaren antzeko konkista izan zen, Sizilia eta Napoles alkandora gorridunen 1000 boluntarioko indar batekin «konkistatu» zituelarik, inolako munizioz ere hornitu gabe erakusteko baino eraman ez zituzten bi kanoi txikiren laguntzaz. Bi Sizilien Erresuma *Italia Una*-ko misiolari martzialak konkistatu zuen, konkistatua izan nahi zuelako, eta Erromatar Inperioaren ekialdeko probintzietako jendeak arabiar gerra-taldeenganako zituen sentimenduak eta siziliarrek Garibaldiren-ganako zituztenak ez ziren batere desberdinak.

Eman berri dugun adibidean protesta heretikoaren andana bat ikusten dugu nahi gabeko uniformetasun baten aurka, eta horietako hirugarrenak arrakasta izan zuen. Frantziaren historiak kristau-aroko hamabigarren mendetik aurrera eredu berbera erakusten du beste testuinguru batean. Mende hartatik Erromako Eliza Katolikoa Frantzian bertako eliz batasuna, herrialde katoliko gisa, ezartzeko borrokan — beti aldi batean bakarrik arrakastatsua — murgilduta egon zen banatzeko joeraren aurka, beti forma berriren batean finkatzen zen joera aurreko adierazpen bakoitza ezabatu ondoren. Kristautasun katolikoaren aurkako errebolta, lehen aldiz Frantziaren hegoaldean hamabigarren mendean piztu zenean katarismoaren forma hartu zuena, hamahirugarren mendean erauzi egin zuten handik, berriro eskualde berean agertzeko hamaseigarren mendean kalbinismo gisan. Kalbinismo gisa zokoratua, laster agertu zen jantsenismo gisa, altzo katolikoaren baitan, kalbinismora gehien hurbildu zitekeen planteamendua. Jantse-

nismo gisa zokoratua, deismo, arrazionalismo, agnostizismo eta ateismo gisa agertu zen berriro.

Beste testuinguru batzuetan ikusi dugu monoteismo judaikoaren patua behin eta berriro agertzen zen politeismoaren erasopean egotea zela, eta, halaber, egiazko Jainko bakarraren traszendentziaren ikuspegi judaiko kidearen patua Jainko haragitu bat izateko irrikek behin eta berriro zertutako erasopean egotea zela. Monoteismoak Baal eta Astarteren gurtza eraitsi zuen, Jahve jeloskor baten lehiakide zokoratuak isilka-misilka judu-ortodoxiaren altzora itzultzen ikusteko bakarrik Jaunaren «Hitzaren», «Jakinduriaren» eta «Aingeruaren» pertsonifikazioen moztasunaz, eta gero kristau-ortodoxiaren altzora ezartzeko Hirutasun Santuaren doktrinan eta Jainkoaren Gorputz eta Odolaren, Jainkoaren Amaren eta Santuen gurtzetan. Politeismoaren sarraldi horiek monoteismoa erabat finkatzea eragin zuten Islamean, baita protestantismoan ere hain sakon ez bada ere, eta bi mugimendu puritano horiei, beren aldetik, arimak duen jainko-aniztasunaren gose aseeginak eraso zien unibertso indar naturalen itxurazko aniztasuna islatzeko.

## 2.

*«Naturaren legeak» historian duten balioaren azalpen posibleak*

Azterlan honetan zehar bereizi ditugun errepikapen eta uniformetasunak benetakotzat hartzen badira, beraien bi azalpen posible daudela irudi luke. Horiek gobernatzen dituzten legeak edo gizakiaren ingurune ez-gizatiarrean arruntak diren legeak —historiaren bidean kanpotik ezartzen direnak— edo giza izaeraren egitura psikikoari eta jardunari datxekion legeak izan daitezke. Lehenengo hipotesiari begiratuz hasiko gara.

Egunaren eta gauaren zikloak, adibidez, eragin nabaria du jende arruntaren eguneroko bizitzan, baina bazter dezakegun zerbait da testuinguru honetan. Gizakia, zenbat eta aurrerago egin egoera primitibotik, orduan eta gaituago bihurtzen da «gaua egun bihurtzeko» berak behar duen eran eta garaian. Beste ziklo astronomiko bat, giza-

kia haren esklabo izan zelarik garai batean, urtaroen zikloa izan zen. Garizuma kristau-abstinentziaren sasoi bihurtu zen, kristautasuna munduan agertu baino hainbat mende lehenago, neguaren bukaera gizakiak normalean janaria urritu beharreko garaia zelako, hori espiritualki berarentzat ona izan ala ez. Baina, hemen berriro, Mendebaldeko gizakia eta mendebaldartua burujabetu egin ziren naturaren legearen aurrean. Hozketaren eta, teknologikoki baturiko planeta-azalera-aren gainean, garraio lasterraren bidez, edozein haragi, landare, fruitu edo lore edozein urte-sasoitan munduko edozein aldetan lor dezake orain ordaintzeko dirua duenak.

Urteko itzuli ezaguna ez zen ziur aski lurreko florak jasaten zuen eta, beraz, gizakia, iraupeneko nekazaritzaren mende zegoen bitartean, zeharka esklabo bihurtzen zuen ziklo astronomiko bakarra. Metereologo modernoek askoz denbora-tarte luzeagoko eguraldi-zikloen agerpenak argitu dituzte. Nomadek «basamortutik» «ereintzara» egindako sarraldien ikerketan, seiehun urteko denboraldia zuen eguraldi-ziklo baten zeharkako frogak aurkitu genituen, ziklo horietako bakoitzak idortasun eta hezetasun-aldiak zituelarik txandaka. Hau idazteko garaian, ziklo hipotetiko honek ematen zuen ez zegoela mota bereko beste ziklo jakin batzuk bezain ongi ezarria, bi zenbaki edota agian bakarreko uhin-luzerak zituztenak, artifizialki erein eta baldintza modernoan pean bildutako uzten fluktuazioak gobernatzen bide zituztenak bezain ongi, alegia. Esan izan da bazegoela korrespondentziarik eguraldi eta uzta ziklo hauen eta zenbait ekonomialarik marrazturiko industri ziklo ekonomikoen artean. Baina azkenaldiko adituen iritzi nagusia ikuspegi horren aurkakoa zen. Ikerketa-arlo honetan viktoriar aitzindari izandako Stanley Jevons-en iradokizun distiratsuak —hots, merkataritzako zikloak eguzkiaren irradiaktibitatean izandako fluktuazioen efektuak izan litezkeela, eguzki-orbanen agertze eta desagertzeek adierazten zuten bezala— babes guztia galdu du gaur egun. Jevonsek berak onartu zuen, ondorengo urteetan, «(merkataritzaren) aldizkako kolapsoak benetan mentalak direla beren izaeran, atsekabetasun, itxaropen, zirrara, etsipen eta izuikaran gertaturiko aldakuntzen mende daude eta»<sup>99</sup>.

Cambridgeko ekonomialari bat den A.C. Pigouk K.o. 1929an ikuspegi hau azaldu zuen, hots, uzta-aldaketen garrantzia, edonolakoa dela ere, industri jardueran fluktuazioak eragiten dituen faktore gisa,

askoz txikiagoa zela bera idazten ari zen garaian berrogeita hamar edo ehun urte lehenago izandakoa baino. G. Haberler-ek, Pigouk baino hamabi urte geroago idaztean, ikuspegi bera azaldu zuen, eta hau idazteko garaian zegoen ekonomi iritzi ortodoxoaren adibide gisa aipatuko dugu hemen.

*«Oparotasunaren urritzea, haztea bezala, ez da izango kanpotoiko «kausa asaldagarrien» eraginez, baizik eta negozio-munduarien beraren baitan zertzen diren prozesuen eraginez.*

*«(Fluktuazio hauei) buruz gauza misterioitsua zera da, ezin direla esplikatu «kanpoko» kausengatik: eguraldiak eragindako uza txar, gaitz, greba orokor, lantegi-ixte, lurrikara, nazioarteko merkataritza-bideen bat-bateko butxadura eta antzekoengatik. Huts egindako uza, gerra, lurrikara eta ekoizpen-prozesuen antzeko eragozpen fisi-koen ondorioz ekoizpenaren bolumen, benetako diru-sarrerara edo enplegu-mailan zerturiko murritzte larriek gutxitan erasaten diote ekonomi sistemari bere osotasunean, eta benetan ez dira depresioak negozio-zikloen teoriaren zentzu teknikoan. Zentzu teknikoan depresioak esatean ekoizpen-bolumen, benetako diru-sarrerara eta enpleguaren erorialdi luze eta nabarmen horiek esan nahi ditugu, ekonomi sistemaren beraren barruan sorturiko faktoreen eragiketak bakarrik esplika ditzakeenak, eta, lehen instantzian, diru-eskariaren urritasunak eta prezioaren eta kostuaren artean behar hainbat marjinarik ezak.*

*«Hainbat arrazoiengatik desiragarria dirudi, negozio-zikloaren esplikazioan, kanpoko asalduren eraginari ahal den garrantzirik txikiena ematea... Negozio-zikloa eratzeko, negozio-sistemaren erantzunek prima facie garrantzitsuagoak dirudite kanpoko astinduek baino. Bigarren, badirudi esperientzia historikoak zera frogatzen duela, mugimendu ziklikoak joera bizia duela irauteko, nahiz eta ez egon eragin arrotz nabarmenik jardunean horren erantzuleztat har daitekeenik. Honek adierazten du berezko ezegonkortasun bat dagoe-la gure ekonomi sisteman, alde batera edo bestera mugitzeko joera, alegia»<sup>100</sup>.*

Bada beste natur ziklo bat, oso bestelakoa, ezin dena baztertu, hau da, giza belaunaldiaren zikloa jaio, hazi, ugaltu, zahartu eta hiltzeko. Horren garrantzia histori arlo berezi batean biziki argitu zion Azterlan honen idazleari K.o. 1932an New Yorkeko estatuan Troy

hirian bazkari ofizial batean izandako elkarriketak. Hango Herri Hezkuntzako zuzendariaren ondoan eserita zegoelarik, galdetu zion ea, bere eginkizun profesional askoren artean, zein zen berarentzat interesgarriena. «Aiton-amonentzako ingeleseko eskolak antolatzea», erantzun zuen berehala. «Eta ingelesa hitz egiten den herrialde batean, nola iritsi liteke aiton-amona izatera ingelesa menderatu gabe?», galdetu zuen asko pentsatu gabe britainiar bisitariak. «Ba, begira», esan zuen zuzendariak, «Troy Estatu Batuetan lepoko zuriak egiteko industri gune nagusia da, eta inmigrazioa murrizteko 1921 eta 1924an emandako Legeen aurretik, hemengo laneku gehiena atzerriko etorkin eta haien familietatik hartzen zen. Orduan, emigratzaileak esportatzen zituzten herrialde nagusietatik etorritakoek beren famili iraganiari ahalik eta estuen helduta jarraitzeko jokaera izaten zuten, beren herrikideekin ezkonduz. Nazio-jatorri bereko etorkinek ez zuten elkarren ondoan lantegi berberetan lan egiten bakarrik; apartamentu-etxe berberetan elkarren auzoko ere izaten ziren; eta horrela, erretiroa hartzeko garaia iristen zitzairenean, haietako gehienek ez zuten jakiten Amerikako itsasertzean lehorreratu zirenean baino askoz ingeles gehiago. Eta ez zeukaten hori baino gehiago jakin beharrik beraien bizitzako amerikar atalean, etxean hazitako interpretarien zerbitzuak zeuzkaten eta. Haien seme-alabak bere garaian lantegira sartu aurretik eskola publikora joateko behar bezain gazteak iritsi ziren Amerikara, eta amerikar hezkuntzaren eta, esan dezagun, italiar haurtzaroaren konbinazioak erabat elebidun bihurtu zituen haiek; ingelesa hitz egiten zuten lantegian, kalean eta dendetan, eta italianoa gurasoen etxean, ia ohartu ere egin gabe hizkuntzaz aldatzen ari zirela etengabe; eta haien elebitasun erraz eta nekegabea oso komenigarria zen beraien guraso zaharrentzat. Egia esateko, honek gurasoen joera bultzatzen zuen, fabrikari lan egin zuten bitartean hartutako ingeles-hastapenak ere, erretiroa hartu ondoren, ahazteko joera, alegia. Hala ere, kontua ez da hemen bukatzen; zeren eta bere garaian etorkin erretiratuaren seme-alabek ezkondu eta beren seme-alabak izaten baitzituzten; eta hirugarren belaunaldiaren ordezkari hauentzat ingelesa zen etxeko nahiz eskolako hizkuntza. Haien gurasoak Estatu Batuetan hezi ondoren ezkondu zirenez, bietako bat sarri ez zen jatorriz italiarra izaten, eta beraz ingelesa izango zen aita eta ama elkarrekin komunikatzeko *lingua franca*. Beraz, guraso elebidunengandik Amerikan jaiotako haurrek ez zuten jakiten aiton-amonen italiar ama-hizkuntza, eta, are

gehiago, ez zioten erabilgarritasunik ere ikusten. Zergatik hasi behar zuten atzerriko hizkuntza bat ikasten, beraien jatorri ez-amerikarra salatuko zuena, hori gainetik kendu eta ahazteko irrikan baldin bazeuden? Hortaz, aiton-amonek aurkitu zuten ez zegoela bilobak beraiekin komunikatzera behartzerik eurek erosotasunez hitz egin zezaketen hizkuntza bakarrean; eta bat-batean, zahartzaroan, beren ondorengoe-kin inolako giza harremanik ezartzeko gai ez izatearen aukera beldur-garriaren aurrean aurkitu ziren. Italiarrentzat eta ingelesik hitz egiten ez duten beste europar kontinental batzuentzat, famili elkartasunaren zentzu sakona zutelarik, aukera hori jasanezina zen. Lehenengo aldiz haien bizitzan, orain bazuten bultzagarri bat hartu zituen herrialdeko hizkuntza, ordu arte erakargarri ez zena, menderatzeko, eta iaz laguntza eske niregana jotzea bururatu zitzaien. Noski, ni irrikan nengoen beraientzat eskola bereziak antolatzeke; eta, garbi dagoen arren atzerriko hizkuntza bat ikastea gero eta zailagoa dela zahartu ahala, ziurta diezazuket aiton-amonentzako ingeleseko eskola hauek gure departamentuak esku artean inoiz izan duen eginkizunik arrakastatsuen eta pozgarrienetakoa izan dela».

Troyko pasadizo honek erakusten digu hiru belaunalditako serie batek nola lortu dezakeen, ondoz ondoko bi zesuren eragin metatuaren bidez, belaunaldi bakar baten ordezkariak bizitza baten denboraldian inoiz lortuko ez zuten gizarte-metamorfosia. Italiar familia batek bere burua amerikar familia bihurtzeko prozesua ezin zen ulertzeko moduan aztertu edo deskribatu bizialdi bakar baten arabera. Horretarako hiru belaunaldiren arteko elkarrekintza eskatzen zen. Eta nazionalitate-aldaketa horietatik erlijio- eta klase-aldaketak aztertzeraz igarotzen garenean, aurkitzen dugu hor ere familia dela, eta ez giza-banakoa, unitate ulergarria.

Klase-kontzientzia duen eta K.o. 1952an idazle honen begiradapean azkar disolbatzen ari zen Ingalaterra modernoan, normalean hiru belaunaldi behar ziren langile-klaseko edo klase ertain beheko familia bat «familia oneko jende» bihurtzeko; eta erlijioaren arloan, ohiko uhin-luzeera berdina izan zela dirudi. Erromatar munduan paganismoaren erauzketaren historian, intoleranteki erlijiozalea zen kristau jaiotako Teodosio I.a enperadoreak pagano izandako Konstantino I.a konbertituari jarraitu zion, ez ondorengo belaunaldian, hirugarrenean baizik; eta hamazazpigarren mendeko Frantzian,

protestantismoaren erauzketaren historian, denbora-tarte berbera izan zen intoleranteki erlijiozalea zen katoliko jaiotako Luis XIV.aren eta kalbinista izandako aitona Enrike IV.aren artean. Frantzian hemeretzigarren mendetik hogeigarrenera igarotzean belaunaldi-kopuru bera behar izan zen ofizialki konbertituriko burges agnostiko edo atoeen biloben artean benetako katoliko erlijiozaleak sortzeko: izan ere, berriro katolizismora itzuli ziren Elizak balio berria hartu zuelako haientzat sozialismoaren eta beste ideologia batzuen goraldiaren aurka hesiarena egiteko erakunde tradizional gisa, ideologia horiek *bourgeoisie* eta langile-klasearen arteko desberdintasun ekonomikoa ezabatzeke mehatxua zekartelarik. Mundu siriakoan ere, omeiatarren kalifaldian, hiru belaunaldi behar izan ziren benetako musulman erlijiozaleak sortzeko kristau edo zoroastroar izandako aiton-amonen artean, Islama onartu zutelarik arabiar musulman primitiboen klase gobernariari onargarri gertatzeko. Omeiatar erregimenaren iraupena, konkistatzailearen nagusitasunaren alde egiten zuena, jatorrizko konbertituengandik musulman jaiotako bilobak historiaren agertokira ekartzeko igaro behar izan zuten hiru belaunaldien denborak mugatu zuen. Arabiar nagusitasunaren omeiatar agenteak musulman guztien berdintasunaren abbastar ordezkariak ordeztu zituzten, erlijio-printzipio islamikoen izenean, konbertitu zinikoen biloba musulman fede handikoek Laodizeako arabiar konkistatzaile musulmanen laodizear biloba musulmanekin indarrak neurtu zituztenean.

Honela, hiru belaunaldiren kateaketa baldin bada gizarte-aldaketaren ohiko baliabide psikikoa erlijioaren, klasearen eta nazionalitatearen hiru arloetan, ez litzateke harritzekoa lau belaunaldiren kateaketa aurkitzea antzeko papera jokatzen nazioarteko politikaren eremuan. Dagoeneko aurkitu dugu, zibilizazioen arteko topaketen eremuan, intelligentsia baten sorreraren eta horren egileen aurkako erreboltaren arteko denbora-tarteak batez beste 137 urte inguruko luzera izan duela hiru edo lau adibideko sailean; eta ez da zaila ikustea nola lau belaunaldiko kateaketak mugatu lezakeen gerra eta bake-zikloaren uhin-luzera, onartzen badugu gerra orokor baten agoniak zirrara sakanagoa eragiten duela psikean konparatiboki eztiagoa den gerra osagarrien sail batek baino. Hala ere, gogoeta hau Mendebaldeko Europa modernoko gerra eta bake-zikloi aplikatzen badiegu, oztopo batekin

topo egingo dugu konturatzean gerra «osagarri» horietako bat, hau da, Hogeita Hamar Urteko gerra, nahiz eta bere eragin geografikoa Erdialdeko Europara mugatu, ziur aski suntsigarriagoa izan zela, eta ez gutxiago, bere irismen geografiko estuagoan, haren aurreko eta ondorengo «gerra orokorrak» baino.

Gerra eta bake-ziklo hau ez da itxuraz benetakoak, baina zehatzak ez, diren erregularitate eta errepikapen horietako azkena, ezta luzeena ere, guk horien azalpena bilatu behar dugularik. Ehun urte inguruko ziklo horietako bakoitza serie baten zati bat baino ez da, bere osotasunean, zibilizazio baten kolapsoaren ondorengo arazoaldia deitu duguna osatzen duelarik; eta arazoaldi honek, bere aldetik —historia helenikoan eta sinikoan, adibidez—, estatu unibertsalera darama, honek ere dagoeneko aipatu ditugun erritmoak erakusten dituelarik. Prozesu osoak, hasieratik bukaerara, orokorki zortzi ehun eta mila urte inguru artean hartzen ditu. Giza arazoetako erregularitateen azalpen psikologikoak, orain arte nahikoa baliagarri izan zaigunak, balio izango ote digu hemen? Gure erantzunak ezezkoa izan beharko zukeen, gure begietara, psikearen gainazal intelektual eta bolitiboa psikearen osotasuna izan balitz.

Mendebaldeko munduan idazle honen belaunaldian, psikologiaren zientzia bere haurtzaroan zegoen oraindik; hala ere, aitzindariak aski urruti eramanak zituzten beren azterketak, eta C.G. Jung gai zen adierazteko leize subkontzientea, zeinen gainean baitzeuden flotatzen banako giza nortasunaren borondate eta adimen kontzientea, ez zela kaos bereizgabe bat, unibertso egituratu bat baizik, non jarduera psikikoaren geruza baten azpian beste bat bereiz zitekeen. Gainazaletik hurbilen zegoen geruzak subkontzientzia pertsonala zirudien, pertsonak bere bizitzan zehar izandako banako esperientzien metaketa; aztertzaileek orain arte ikertutako geruzarik sakonek arraza-subkontzientzia zirudien, ez gizabanakoren baten bereizgarria, gizaki guztientzat komuna baizik, han ezkutaturiko irudi primordialak gizadiaren esperientzia komunaren isla baitziren, giza arrazaren haurtzaroan, edota gizakia erabat gizatiar bilakatu aurreko garai batean, bertan metaturiko esperientziak. Ikuspegi honetatik, agian ez litzateke zentzugabea uste izatea, subkontzientiaren goren eta behearen geruzen artean, Mendebaldeko zientzialariek orain arte arrakastaz ulertu ahal izan dituzten horien artean, egon litezke-



ela tarteko geruzak, ez arraza-esperientziak ez esperientzia pertsonalak metatuak, maila supra-pertsonal baina infra-razialeko talde-esperientziak baizik. Egon litezke esperientzi geruzak, familia edo komunitate edo gizarte batentzat esperientzia komunak; eta, gizadi osoarentzat komunak diren irudi primordialen gaineko hurrengo mailan, gizarte partikular baten ethos berezia adierazten duten irudiak egotea gertatuko balitz, horien aztarnak psikean esplika lezake zenbait gizarte-prozesuk garatzeko behar bide duten denboraldien luzera.

Adibidez, gizarte-irudi horietako bat, hazkunde-prozesuan zegoen zibilizazio bateko jendearen bizitza psikiko subkontzientean sakon irartzeko gaitasun nabarmena zuena, parroki estatu subiranoren idoloa zen; eta erraz imajina daiteke, idolo hori bere jarraitzaileei kartagoarrek Baal Hammon-i edo bengaliak Juggernaut-i inoiz ordaindutakoak bezain giza sakrifizio ankerrak eskatzen hasi ondoren ere, biktimek —eurek deituriko demonioaren biktimek, alegia— esperientzia lazgarri bat behar izatea, ez bizialdi bakar batekoa, ezta hiru belaunaldiko zikloen kateaketakoa ere, baizik eta laurehun urteko denboraldikoa gutxienez, beren bihotzetik idolatria beldurgarri hori erauzi eta berengandik urrunarazteko. Erraz imajina daiteke, halaber, biktima horiek, ez laurehun urte, baizik eta zortziehun edo mila urte behar izatea zibilizazio baten aparatu osotik bereizteko —zibilizazio horren kolapsoa eta desintegrazioa arazoaldi batek utzi zituelarik agerian— eta erlijio nagusiek errepresentaturiko espezie bereko edo espezie desberdineko beste gizarteren baten marka har dezaten beren bihotzak irekitzeko. Zeren eta zibilizazio baten irudiak ziur aski oraindik dei indartsuagoa egiten baitio psike subkontzienteari edozein parroki estaturen irudiak baino, hauetan egituratzen direlarik zibilizazioak maila politikoa, azkenean estatu unibertsal batean sartzen diren arte, behintzat. Ikuspegi mental beretik uler genezake, halaber, estatu unibertsal batek, behin ezarri ondoren, batzuetan nola lortzen duen mendeko izandakoen —edo baita bere benetako suntsitzaileen— bihotzetan hainbat belaunaldiz, edo agian hainbat mendez, bere kontrolari eustea, bere erabilgarritasuna, baita ahalmena ere, galdu eta ia aurreko parroki estatuak bezain zama astun bilakatu ondoren, haiek desegiteko sortua izan zelarik bera.

*«Belaunaldi heldu baten ordezkariak sentituriko kanpo-hers-  
turen —sentitzen dituen jendearen gizarte-posizioak zuzenean bal-  
dintzaturiko hersturen— eta jende horren seme-alabek sortzen ari  
den belaunaldian dituzten barne-hersturen —automatikoki dihardu-  
ten horien— arteko erlazioa, dudarik gabe, garrantzizko fenomenoa  
da arlo zabal batean... Hainbat belaunaldiren segizioak ezartzen  
duen zigilua —bai gizabanakoen garapen psikikoan eta bai aldaketa  
historikoaren bidean—, geure behaketak eta pentsatze historikoa  
belaunaldi-kate luzeen arabera egiteko orain baino gaitasun handia-  
goa izaten dugunean bakarrik hasiko gara ulertzen orain baino ego-  
kiago»<sup>101</sup>.*

Zibilizazioen historietan nagusi diren gizarte-legeak psike sub-  
kontzientearen geruza infrapertsonalen bat gobernatzen duten lege psi-  
kologikoen islak badira benetan, horrek esplikatu luke zergatik gizar-  
te-lege horiek izan behar duten, aurkitu dugun bezala, askoz argiago  
adieraziak eta askoz zehazkiago erregularrak zibilizazio kolapsatu  
baten historiako desintegrazioaldian aurreko hazkundealdian baino.

Nahiz eta hazkundealdia, desintegrazioaldia bezalaxe, erronka  
eta erantzunen txanda-sail bezala azter daitekeen, aurkitu dugu ezi-  
nezkoa dela uhin-luzera estandar eta komunik bereiztea txanda-segi-  
darentzat, honetan zehar zertzen delarik gizarte-hazkundera, eta berdin  
dio erronken arteko bitarteak neurtzea edo erantzun eraginkorren arte-  
ko bitarteak neurtzea; eta halaber ikusi dugu, hazkundealdian, segida-  
ko erronkak eta segidako erantzunak mugagabeki anitzak direla.  
Aitzitik, aurkitu dugu desintegrazioaldiko etapak behin eta berriro  
erronka beraren agertzeak markatzen dituela, desintegratzen ari den  
gizarteak erantzuten huts egiten duelako errepikatzen delarik; eta  
halaber aurkitu dugu, aztertu ditugun gizarte-desintegrazioa iragan  
kasu guztietan, segidako etapa berberak hurrenkera berean gertatzen  
direla beti, etapa bakoitzak gutxi gorabehera denboraldi bertsua har-  
tzen duelarik, eta horrela desintegrazioaldiak, osotasun gisa, prozesu  
uniforme baten itxura duela, kasu bakoitzean iraunaldi uniformeare-  
kin. Egia esateko, gizarte-kolapsoa gertatu orduko, hazkundealdiaren  
ezaugarri den aniztasun eta desberdintasunerako joera uniformetasu-  
nerako joerak ordeztu du, eta honek bere ahalmena erakusten du  
lehentxeago edo geroxeago bai kanpotiko interferentziak bai barneti-  
ko aurkakotasuna garaituz.

Adibidez, ikusi dugu nola, lehenengo estatu unibertsal siriakoa eta gero indikoa garaiz lehen, estatu unibertsal baten bizialdi arrunta osatu baino lehen, kanpotik sarturiko Zibilizazio Helenikoak laburtu zituenean, gizarte atsekabetu eta murgildua ezin zela edo ez zela hil, kanpoko gizarte-gorputz baten eragin asaldagarria gorabehera, harik eta gizarte kolapsatu baten desintegrazioaren ibilbide erregularra behar bezala osatu arte, eta hori azkenean etendako fasean berriro sartuz eta estatu unibertsal berreskuratu batean iraunez bere iraupen normalaren prozesua osatu arte.

Gizarte-desintegrazioko fenomenoaren erregularutasun eta uniformitatearen eta gizarte-hazkundeko fenomenoaren irregularutasun eta aniztasunaren arteko kontraste harrigarri hau sarritan aipatu dugu Azterlan honetan gertaera historiko gisa, nahiz eta orain arte ez garen ahalegindu esplikatzen. Zati honetan, giza arazoetan Legeak eta Askatasunak duten erlazioari buruzkoan, arazo honi heltzea dagokigu; eta problema ebazteko gakoa psikearen gainazaleko nortasun kontzientearen eta azpian datzan bizitza psikikoko maila subkontzienteen izaren arteko desberdintasunean aurki daiteke.

Kontzientziaren dohainak daukan ahalmen bereizgarria auke-ratzeko askatasuna da; eta kontuan izanda askatasun erlatiboa haz-kundealdiaren ezaugarrietako bat dela, espero behar da, gizakiak zirkunstantzia hauetan beren etorkizuna erabakitzeko aske diren bitartean, beraiek jarraitzen duten bidea benetan, dirudien bezala, bide bihurria izatea, «naturaren legeen» gobernuarekiko setatia izatearen zentzuan. Hala ere, askatasunaren erregetza, honela atzera eusten dielarik «naturaren legeei», behin-behinekoa da, bi baldintza zorrotz betetzearen mende baitago. Lehen baldintza zera da, nortasun kontzienteak psikearen azpimundu subkontzienteari borondate-aren eta arrazoiaren kontrolpean eutsi behar diola. Bigarren baldintza hau da, berak ere saiatu behar duela beste nortasun kontzientee-kin «batasunean bizitzen», era batera edo bestera horiekin bizi behar duelarik *Homo Sapiens*-aren lurreko bizitzan, eta hau gizaki izan aurretik animal sozial izan zen eta animal sozial izan aurretik organismo sexual. Askatasuna zertzeko beharrezko bi baldintza horiek benetan banaezinak dira bata besteagandik; zeren eta, egia bada ere «gaiztoak haserretzen direnean zintzoek merezitako arrakasta lor-tzen dutela», hori bezain egia baita pertsonak haserretzen direnean,

psike subkontzienteak haietako bakoitzaren eta guztien kontrolpetik ihes egiten duela.

Honela, kontzientziaren dohainak, bere eginkizuna psikearen leize subkontzienteen gain gobernatzen duten «naturaren legeetatik» giza espiritua askatzea izanik, bere burua hondatzeko joera izaten du bere *raison d'être* den askatasuna gaizki erabiliz, nortasun baten eta bestearen arteko anaiarteko gatazkarako arma gisa; eta giza psikearen egitura eta funtzionamenduak esplikatzen du aberrazio tragiko hori, Bossueten hipotesi fedegabeaz baliatu beharrik gabe, hots, Jainko ahalguztidun baina jeloskor baten aldetiko esku-hartze bereziak dau dela giza borondateek, elkar ezabatuz, elkarri ezintasunean eutsiko diotela ziurtatzeko.

### 3.

*Halabeharrezkoak ala kontrolagarriak dira historian zertzen diren naturaren legeak?*

Gure aurreko ikerketak konbentzitu bagaitu giza arazoak naturaren legeetara makur daitezkeela eta lege horien nagusitasuna eremu honetan ere, neurri bateraino behintzat, esplika daitekeela, jarrai genezake orain ikertzen ea giza historian nagusi diren naturaren legeak halabeharrezkoak diren ala kontrolagarriak. Gure aurreko prozedurari atxikitzen bagatzaizkio hemen —lehenengo giza izaera ez duten legeak kontuan hartzea, giza izaera duten legeak baino lehenago, alegia—, zera aurkituko dugu, giza izaera ez duten legeei dagokienez, ia erantzun geniola galdera horri aurreko kapituluan.

Erantzun laburra zera da, gizakiak ahalmenik ez badu ere giza izaera ez duen edozein lege aldatzeko edo bere jarduna eteteko, nola-bait alda dezakeela lege horien eragina lege horiek bere helburuetarako baliagarri izateko norabidean gidatuz. Hau da jadanik aipatu dugun «poetak» esan nahi zuena zera idatzi zuenean:

*Zientzialariek zerbait gehiago aurkitzen dutenean  
aurretik baino zoriontsuago izango gara.*

Mendebaldeko gizakiak giza izaera ez duten legeek bere arazoetan zuten eragina aldatzen izandako arrakasta aseguru-sarien kuotek izandako murrizketan geratu zen jasota. Itsas mapen hobekuntzak, eta ondoren irratia eta radarrak ontzietan jartzeak itsasoan hondoratzeko arriskua gutxitu egin zuten; Hego Kalifornian lainoztatzeke poteek eta Connecticut ibarrean gasa-pantailek izotzak uzteke kalte egiteko arriskua gutxitu zuten; isurkari pestizidak inokulatu edo lainoztatzeke gailuek gutxitu egin zuten uzta, arbola eta ganaduari izurriek kalte egiteko arriskua; eta gizakientzat ere, zenbait metodoen bidez, gaixotasunaren eragina gutxitu egin zen eta bizi-itxaropena luzatu.

Giza izaerako legeen eremura igarotzen garenean, kontu berarekin topo egiten dugu, baina are duda gehiagorekin. Mota askotako istripuen arriskua murriztua zegoen heziketan eta diziplinan izandako hobekuntzengatik. Lapurreta-arriskua alderantzizko proportzioan aldatzen zen lapurrak hazten ziren gizarte-ingurunearen egoerarekin, eta, beraz, gizarte-hobekuntzako neurriekin lotu zitekeen.

Mendebaldeko jarduera ekonomikoaren txandakako goraldi eta beheraldi horiek —merkataritza-ziklo deitu direnak— aztertzen ditugunean, faktore kontrolagarri eta kontrolaezinen artean bereizketa egiten aurkitzen ditugu aztertzaile profesionalak, eta ziklo horiek bankarien nahitako jardunak eragiten zituela esateraino iristen zen eskola bat. Gehienek, ordea, zioten bankarien jardun arrazionalak eragin txikiagoa zuela psikearen beheko maila subkontzienteetatik irteten diren irudimenaren eta sentimenaren joko kontrolatu gabeek baino. Ez *chez la banque* baizik eta ezagunagoa den *chez la femme* delakoak adieraziko luke arlo honetako autoritate nagusietako batzuen buruek hartzen zuten norabidea:

*«Dirua egitearekin konparatuta, dirua gastatzea atzerantzko arte edo antzea dela esateko arrazoi bat zera da, familiak jarraitzen duela dirua gastatzeko antolamendu-unitate nagusi izaten, eta dirua egiteko, berriz, familia oso atzera utzi duela askoz antolaketa handiagoko unitate batek. Etxekoandrea, munduko erosketen zati handi bat egiten duena, ez da aukeratzen kudeatzaile gisa duen eraginkortasunagatik, ezta baztertzen ere bere eraginkortasunik ezagatik, eta, beraz, gai dela erakutsita ere, aukera gutxi du bere eragina beste etxe batzuetara hedatzeko. Ez da harritzekoa munduak kontsumoaren arteaz ikasi duena*

*gutxiago izatea kontsumitzaileen ekimenagatik ekoizleenagatik baino, hauek merkatua irabazi nahi dutelarik beren salgaientzat»<sup>102</sup>.*

Gogoeta horiek adierazten zuten negozio-jardueraren kopuruan fluktuazioek segi zezaketela kontrolik gabe, kontsumo-unitateak etxeak ziren eta ekoizpen-unitateak aske lehiatzen ziren gizabanako, enpresa edo estatuak ziren bitartean, hauen borondate gatazkatsuek ekonomiaren borroka-lekua zabalik uzten zutelarik indar psikiko subkontzienteen jokorako. Aldi berean ez zirudien arrazoirik zegoenik Jose patriarka hebrearraren arrakasta ospetsua —mundu egipziakoan hikosoen erregimenaren azken egunetan ekonomi intendente gisa, zetozen gabezi urteetarako oparotasun-urteetan horniketa egitea— eskala globalean ez berdintzeko azkenaldian ekonomikoki mendebaldarturiko munduan, planetaren azalera osoaren hedapen bereko bilakatua zen munduan. Ez zirudien arrazoirik zegoenik Jose historiko amerikar edo errusiarren batek egunen batean gizakiaren ekonomi bizitzaren batura guztia kontrol zentral baten mende ez jartzeko, kontrol horrek, onginahizkoa ala maltzurra izan, bere eraginkortasunean fantasia moises-tar edo marxistaren hegaldirik ausartenak gaudituko lituzkeelarik.

Urte gutxi batzuetako iraupena duten negozio-zikloetatik mende laurden eta heren baten arteko uhin-luzera duen belaunaldi-ziklora igarotzen garenean, ikusten dugu edozein kultur ondarek nozitu ohi duen galera murrizten ari zela maila fisikoan inprimatze, fotostatika eta beste teknika batzuen bidez, eta maila espiritualean heziketaren hedapenez.

Honaino, gure ikerketaren emaitzek adoregarriak dirudite; baina uhin-luzera askoz handiagoko gizarte-prozesuetara —adibidez, kolapso eta desintegraziozko zortzi edo hamar mendetan biratzen den «atsekabezko gurpilara»— igarotzen garenean, Mendebaldeko munduan, belaunaldi bakar baten barruan, Bigarren Mundu Gerra izandakoaren biharamunean gero eta jende gehiagori behin eta berriro agertu zaion arazo batekin topo egiten dugu. Zibilizazio batek kolapsoa izan duenean, ezinbestean norabide oker horri jarraitu beharrean al dago bere azken garratzeraino? Ala egin dezake atzera bere urratsetan? Idazle honen Mendebaldeko garaikideek zibilizazio-prozesuko gizakiaren historiaz azterketa sinoptikoa egiteko dudarik gabe zuten interesaren arrazoi praktikorik indartsuena hau zen agian: beren zibilizazioko historian erabakigarria iruditzen zitzaien une batean histori-

koki orientatzeko irrika. Krisi honetan Mendebaldeko herriak, eta agian amerikar herria batez ere, ohartzen ziren erantzukizun-zamaz; eta, gidatuko zituen argiaren bila, iraganeko esperientziara begiratzean, inoiz gizadiaren eskura egon zen jakinduriaren giza iturburu baka-rrera jotzen ari ziren. Baina nola jokatu behar zuten jakiteko ezin zuten Historiara jo, aurrez atariko arazo bat planteatu gabe: ematen al zien historiak eurak eragile aske ziren ziurtasunik? Azken batean, his-toriaren irakaspena zera izan zitekeen, ez aukera bat bestea baino hobe-za zela, baizik eta aukeratzeko aske ziren sentipena ilusio bat zela; aukeraketak eraginkorrak gertatu ziren garaia, inoiz halako garairik izan bazen, orain igarota zegoela; eta beraien belaunaldia ere igarota zegoela H. A. L. Fisher-en fasetik, non edozer etor baitzitekeen zer-nahiren atzetik, Omar Khayyám-en fasera, non

*Mugitzen den hatzak idazten baitu; eta, idatzi duelarik,  
mugitzen jarraitzen du; eta ez zure jaierak, ez jeinu guztiak  
ez dute lortuko lerro-erdi kentzea,  
ezta zure malko guztiek ere hitz bat ezabatzea.*

Galdera horri gaur arte zibilizazioen historiek aurkezturiko fro-gen argitan erantzuten saiatzen bagara, zera esan behar dugu: hamalau kolapso-kasu garbietatik, kasu guztietan anaiarteko gerraren gaitza ez dela bukatu estatu gerra-egile guztiak, salbu bat, suntsituta baino era eztiagoan. Baina aurkikuntza beldurgarri hau onartzean, ez dugu utzi behar horrek desanima gaitzan; zeren eta arrazoiketaren metodo induktiboa tresna osagabea baita nabarmenki proposamen negatibo bat frogatzeko; eta, zenbat eta txikiagoa izan azterturiko adibideen kasua, orduan eta ahulagoa. Hamalau bat zibilizazioen esperientzia 6.000 urte inguruko denboraldian ez da oso froga indartsua beste aukera honen aurka: zibilizazio aitzindari hauek mendean hartu dituen erronkari erantzunez, gizarte-forma berri samar honen beste ordezkari-aren batek egunen batean arrakasta izan lezakeela orain arte ezezagun den bideren bat zabaltzen, aurrez ezagutu gabeko aurrerapen espiri-tuala egiteko, anaiarteko gerraren gizarte-gaitza sendatzeko estatu unibertsal bat bortxaz ezartzea bezain garestia izango ez den bide bat aurkituz.

Aukera hau gogoan dugula, orain, berriro, atzera begiratzen badiegu kolapsotik azken deuseztapenera arteko *via dolorosa*-ren luzera guztia egin duten zibilizazioen historiei, ikusiko dugu horieta-

ko batzuek gutxienez begiztatu zutela salbazio-bide alternatiboa, nahiz eta inork ez izan arrakastarik hori lortzen.

Mundu helenikoan, adibidez, homonoia edo harmoniaren ikuspena, indarrak inoiz ezin zuena egin zezakeena, arima heleniko gutxi batzuek zalantzarik gabe atzeman zuten arazoaldi baten estres espiritualaren pean, Peloponesoko gerra K.a. 431-404an piztu zenean hasi zelarik arazoaldi hori. Mendebaldeko mundu post-modernoan, ideal bera gorpuztu zen Nazioen Ligan K.o. 1914-18ko gerra ostean eta Nazio Batuen Erakundean 1939-45eko gerra ostean. Historia sinikoan Gizarte Sinikoak kolapsoaren ondoren izandako lehen susperraldian, jokabide eta errito-kode tradizionala berpizteko Konfuzioren grina jaieratsua, eta Lao-Tsek Wu Wei-ren indar subkontzienteen berezko jardunerako eremu libre bat uzteko zuen sinesmen kietista, biak ziren sentipenaren iturburuak —harmonia espiritualezko ahalmen salbatzaile bat aska lezaketena— ukitzeko irrikak sortaraziak, eta ahalegin bat baino gehiago egin zen ideal horiek erakunde eraginkorretan gorpuzteko.

Maila politikoan helburua erdibide bat aurkitzea zen bi mutur beldurgarriren —parroki estatuen borroka suntsigarriaren eta *knock-out* kolpearen bidez ezarritako bake suntsigarriaren— artean. Sinplegade adamantino horien artetik arrakastaz igarotzearen saria, ordu arte han itsastatzen ahalegindutako itsasontzi guztiak apurtu zituztelarik haien baraillezur mugikorrek, argonauten kondairazko esperientzia izan liteke: ordu arte gizadiak inoiz itsastatu gabeko itsaso zabalera irtetea, alegia. Garbi zegoen, hala ere, irteera hau ziurtatzeko ez zegoela konstituzio federal baten inolako talisman-aurreproiekturik. Gizarte-gorputzaren egiturari aplikaturiko ingeniari-tza politikorik trebeenak inoiz ez luke balioko arimen berrerospen espiritualaren ordezkotzat gisa. Estatuen gerran edo klaseen arteko borrokan kolapsoaren hurbileko kausak gaixotasun espiritualaren sintomak baino ez ziren. Esperientziaren aberastasunak aspaldi frogatu zuen erakundeak ez zirela gauza arima errebeldeak beren buruari eta bata besteari ezbeharra eragitetik libratzeko. Noski, zibilizazio-prozesuan dagoen gizakiaren etorkizuna, amildegiko labarrean gora iritsi gabeko eta ikustezina den goiko irtenunerantzako igoera neketsuan, leize horren kontrol galdua berreskuratzeko ia iotasunaren arabera baldin bazegoen, hori bezain garbi zegoen gai hau gizakiaren harremanek



erabakiko zutela, ez lagun hurkoekiko eta bere buruarekiko harremanek, baizik eta, batez ere, Jainko Salbatzailearekikoek.

## XXXVII. GIZA IZAERAREN SETAKERIA NATURAREN LEGEEKIKO

Naturaren legeak inguratuz edota bere zerbitzura jarritz, giza-kiak bere arazoak kontrolatzeko duen trebetasunaz bildu ditugun bezalako frogek galdera bat sortzen dute, ea egoeraren batzuetan giza arazoek ez ote duten erabat naturaren legeetatik ihes egiten. Aukera horren azterketa gizarte-aldaketaren erritmoa ikertuz has genezake. Tempoa aldakorra gertatzen bada, honek frogatuko du, berari dago-kion neurrian, giza arazoak setatiak direla naturaren legeekiko, den-bora-dimentsioan gutxienez.

Histori tempoa aldaketarik gabekoa gertatuko balitz egoera guztietan, hamarkada edo mende bakoitzeko igarotzeak psikologi eta gizarte-aldaketaren quantum behin betiko eta uniformea sortzen duela ikusteko moduan, zera ondorioztatuko litzateke: jakingo bagenu quan-tum horren balioa serie psiko-sozialean edo denbora-tartearena den-bora-seriean, gai izango ginatekeela kopuru ezezagunaren magnitudea kalkulatzeko beste serieetan. Suposizio hau egin zuen historia egip-ziakoan aditu ospetsu batek gutxienez, eta astronomiak aurkezturiko data kronologiko bat errefusatu zuen honetan oinarrituz: hura onar-tzeak harentzat beste proposizio ametiezin hau ere onartzea esan nahi-ko zukeelako, hots, gizarte-aldaketaren tempoak mundu egipziakoan dezente bizkorragoa izan behar zuela berrehun urteko denboraldi batean bere aurre-aurreko luzera bereko denboraldian izan zena baino. Hala ere, ezagun zaigun adibide-multzo bat aipa daiteke erakusteko

egiptologo ospetsu honek zerturiko proposizioa benetan aspaldiko egia historikoa dela.

Adibidez, badakigu Atenasko Partenoia K.a. bosgarren mendean eraiki zela, Hadrianoren mausoleoa K.o. bigarren mendean, eta Konstantinoplako Santa Sofia eliza K.o. seigarren mendean. Gure egiptologoak oinarritzat hartutako printzipioaren arabera, askoz tarte laburragoa egon behar luke eraikin horietako lehenengoaren eta bigarrenaren artean —gutxi gorabehera estilo berekoak direlarik— bigarrenaren eta hirugarrenaren artean baino —erabat estilo desberdinetakoak direlarik—; baina eztabaida ezinak diren zenbait datuk erakusten dutenez, kasu honetan, bi tarte arteko laburrena estilo desberdineko bi eraikinen artean izandakoa da.

Era berean gaizki bideratuta ibiliko ginateke gure konfiantza *a priori*-zko printzipio berean jarriko bagenu, Mendebaldeko Inperioaren azken egunetan erromatar soldadu batek, Oton I.a erromatar enperadore santuaren soldadu saxoi batek eta Bayeux-eko tapizerian irudizaturiko zaldun normandiar batek izandako ekipamenduen artean denbora-tarte erlatiboak kalkulatzeko saiatzerakoan. Kontuan izanda, Otonen soldaduen ekipamenduko ezkutua biribil eta gladiadoreen gantza karratuko kasketak azken erromatar enperadore Majorianoren soldaduen ekipamenduaren aldaera hutsak diren bitartean, Gilermo Konkistatzailearen soldaduak sarmatiar kasket koniko eta ezkatatzeko armadura-jakaz ekipatuak daudela, kometa formako ezkutuekin, aldaketaren tempoan aldagaiztasunaren hipotesiak hemen ere zera uste izatera eramango gintuzke: Oton I.aren (K.o. 936-73 artean erreinatu zuen) eta Gilermo Konkistatzailearen (Normandian K.o. 1035-87 bitartean gobernatu zuen) arteko tarte askoz luzeagoa izango zela Majoriano (K.o. 457-61) eta Otonen arteko tarte baino.

Bestalde, Mendebaldeko gizonezkoen janzkera zibilaren ikuspegi sinoptiko bat K.o. 1700ean eta 1950ean hartzen duenak begiratu batean ikusiko du 1950eko janta, gerrontzea, praktak eta euritakoa K.o. 1700eko janta, gerrontze, galtza eta ezpataren aldaera hutsak direla, eta biak oso desberdinak direla K.o. 1600eko jipoi eta gergizkoen aldean. Kasu honetan, aurreko bien alderantzizkoa, aurretikoa eta laburragoa den denboraldi batek aldaketa handiagoa erakusten digu geroagoko denboraldi luzeago batek baino. Istorio moral hauek, giza

okupazioaren hondakin-geruzak leku batean metatzeko beharko zuten denbora-tartea kalkulatzeko oinarri gisa, aldaketa-tempoan aldaezintasunaren hipotesiaz fidatzeko arriskuaren aurka ohartarazten gaituzte, hango historia arkeologoaren aitzurrak lurpetik ateratako froga materialetatik bakarrik berregin behar delarik, erregistro idatziek emandako datu kronologikorik ezean.

Agian zilegi zaigu hipotesi honi —kultur aldaketaren erritmoa aldagaitza delakoari— egin diogun hasierako erasoari jarraipena ematea adibide batzuk aipatuz: lehenengo bizkorraldiarenak, gero makalaldiarenak eta, azkenik, txandakako erritmoarenak.

Bizkorraldiaren adibide ezaguna iraultzaren fenomeno da; zeren eta hau, Azterlan honetan aurreko testuinguru batean aurkitu dugun bezala, bi komunitateren arteko topaketak sorturiko gizarte-mugimendua da, horietako bat bestearen aurretik jarri delarik giza jardueraren arloetako batean edo bestean. K.o. 1789ko Frantziar Iraultza, adibidez, bere lehen fasean, ahalegin espasmodikoa izan zen auzoko Britainia Handiak aurreko bi mendeetan astiro lortutako aurrerapen konstituzionalarekin lehitzeko. Are gehiago, Mendebaldeko «liberalismo» kontinentalari —hemeretzigarren mendeko hainbeste iraultza, gehienak eragotziak, sortarazi zituenari— historialari kontinental batzuek anglomania deitu zioten.

Ohiko bizkorraldi-mota bat justu zibilizazio baten ertzean dauden marka-gizonen portaeran aurkitzen da, edota mugaz bestaldean bertan dauden barbaroen portaeran, auzoko aurreratuagoekin lehia-tzera bultzatuak sentitzen direlarik bat-batean. Azterlan honen egileak biziki gogoratzen du Estokolmoko Nordiska Museet-era 1910ean egindako bisitak eragin zion zirrara. Zenbait gelatik igaro ondoren, non eskandinaviar paleolitiko, neolitiko, brontze-aro eta kristau-aurreko Burdin Aroko kulturen laginak baitzeuden ikusgai, harrituta gertatu zen italiar errenazimentuaren tankerako eskandinaviar tresnak zeuden gela batean aurkitzean. Erdi Aroko produktuez ohartu gabe nola igaro ote zen bere buruari galdezka, atzera jo zuen berriro; eta han zegoen, noski, Erdi Aroko gela; baina edukia hutsaren hurrengoa zen. Orduan hasi zen konturatzen Eskandinavia ziztu bizian igaro zela Berant Burdin Arotik, non hasi baitzen sortzen bere zibilizazio berezi bat, Goiz Aro Modernora, orduan bihurtu zelarik Mendebaldeko kristau-kultura italiartu estandarizatu baten partaide bereizgabea.

Bizkorraldi-balentria honengatiko prezioaren zati bat Nordiska Museetek erakusten zuen kultur pobretzea izan zen.

Eta kristau-aroko hamabosgarren mendean Eskandinaviarekin gertatu zena, Mendebaldekoa ez zen baina bizkor mendebaldar bihurtzen ari zen mundu osoarekin gertatzen zen aztertzaile honen garaian. Topikoa da esatea afrikar herriak, adibidez, Mendebaldeko europar herriek mila urte edo gehiagotan lorturiko politika-, gizarte- eta kultur mailako aurrerapena belaunaldi batean edo bitan lortu nahian zebiltzala, afrikarrak beste herri horiek imitatzen eta aldi berean horiei kontra egiten ari zirelarik. Herri horiek exajeratzera —eta Mendebaldeko begiraleak, agian, gutxiestera— jotzen zuten Afrikak benetan lorturiko bizkorraldia.

Iraultzak bizkorraldiaren adierazpen dramatikoak badira, makalaldiaren fenomenoak gorputz nagusiaren mugimenduarekin batera ibiltzeari atzeratuak egiten dion uko gisa hartzen da. Adibide bat Ipar Amerikako Batasunaren hegoaldeko estatuetan esklabotasunaren erakundeari setati iraunaraztea izan zen, Britainiar Inperioaren mendebaldeko Indietako uharteetan deuseztua izan eta belaunaldi oso bat geroago ere. Beste adibide batzuk herrialde «berrietara» joan ziren kolonizatzaileek eman zituzten eta beren sorlekuetatik irten zirenean, haietan nagusi ziren bizi-arauak mantendu zituzten herrialde berrietan, herrialde «zaharreko» lehengusuek arau haiek bertan behera utzi eta aurrera egin eta askoz geroago ere. Kasu hau oso ezaguna zen, eta aski zen kristau-aroko hogeigarren mendean Quebec, Appalacheetako goi-lurrak eta Transvaal aipatzea, eta eskualde horiek garai bereko Frantzia, Ulster eta Herbehereekin konparatzea. Azterlan honen aurreko orrialdeetan bizkorraldiaren eta makalaldiaren adibide asko aurkeztu dira, irakurleak berak gogora ditzakeenak. Begi-bistakoa da, adibidez, guk herodianismoa deitu duguna bizkorraldiarekin lotua dagoela eta zelotismoa deitu duguna makalaldiarekin. Nabaria da, halaber, aldaketa onerako nahiz txarrerako gerta daitekeenez, bizkorraldia ez dela nahitaez ona eta makalaldia ere ez nahitaez txarra.

Txandakako abiadura-aldakuntzen kateaketa, ez bi, baizik eta ziur hiru eta agian lau fase hartzen dituen, Mendebalde modernoan ontzigitza eta itsasketaren historian aurkitzen da. Prozesua bat-bateko bizkorraldi batez hasten da, K.o. 1440-90 arteko berrogeita hamar urteetan bi teknika horiek irauli zituen. Leherraldi honen ondoren

makalaldi bat etorri zen hamasei, hamazazpi eta hemezortzigarren mendeetan iraun zuena, eta ondoren, pausaldi luze haren atzetik, bat-bateko beste bizkorraldi bat K.o. 1840-90 bitarteko berrogeita hamar urteetan. K.o. 1952an hurrengo aldia enigmatikoa izan zen, artean garatzen ari baitzen, baina ezjakin baten ikuspegitik, orduan gauzatzzen ari ziren aurrerapen teknologikoak, ohargarriak izan arren, bazi-rudien ez zirela izango viktoriar mende-erdiko lorpen iraultzaile haien parekoak.

*«Hamabosgarren mendean... aldaketa bizkor eta garrantzi handikoa eman zen ontzigintzan... Berrogeita hamar urteko tartean itsasoan ibiltzeko belaontziak, masta bakarrekoak izatetik hiru masta-koak izatera igaro ziren, bost edo sei oihal eramanez»<sup>103</sup>.*

Eta iraultza teknologiko honek ez zien bere egileei munduko alde guztietara iristeko aukera bakarrik eman; nagusitasuna ere eman zien beraiekin topo egin zezaketen eta Mendebaldekoak ez ziren marinel guztien gain. Itsasontzi berriaren bertute bereizgarria, horretan bere ondorengoak bere aurrekoak bezain nabarmen gainditzen zituelarik, ia mugarik gabeko denboraldian portura jo beharrik gabe itsasoan egoteko ahalmena zen. «Ontzia» —bere *floruit* garaian horrela deitu zitzaion *par excellence*— zenbait eraikuntza eta aparailu tradizionalen arteko uztartze zoriontsu baten kimua zen, bakoitzak zeuzkalarik bikaintasun bereziak, baina baita mugapenak ere. Mendebaldeko itsasontziak, K.o. 1440 eta 1490 bitartean sortuak, aspaldi Mediterraneoan arraunez ibili zen «ontzi luzearen», *alias* galeraren, puntu indartsuak gutxienez ondorengo hiru belaontzi hauen ezaugarriekin elkartzen zituen: garai berean Mediterraneoan ibiltzen zen aparailu karratuko «ontzi biribila», *alias* karraka; latindar aparailuko Indiar ozeanoko «karabela», haren aitzindaria Egiptoko itsas espedizio baten erregistro bisualetan agertzen delarik marraztua, Ekialdeko Afrikara Punt lurraldera Hatshepsut enperatrizaren erreinaldian (K.a. 1486-68) egindako espedizioan; eta eraikuntza astuneko belaontzia, Atlantikoan ibiltzen zena, K.a. 56an Zesar harritu zuena, gero Britainia deituko zen penintsula hartu zuenean. Diseinu berria, lau eredu horien punturik onenak konbinatzen zituen, hamabosgarren mendearen bukaerarako osatua zegoen, eta orduan itsasoratu ziren ontzirik onenak funtsean ez ziren Nelsonen garaikoekiko desberdinak.

Gero, hiru mende eta erdiko makalaldiaren ondoren, Mendebaldeko ontzigintza berriro ere bizkorraldi baten bezperan aurkitu zen; eta oraingoan abiadura handiko sortze-lanak bi bide paralelotan egingo zuen aurrera. Alde batetik, lurrun-makinak haize-oihala ordeztuko zuen; eta garai berean belaontzien eraikuntza bere loaldi luzetik esnatu zen eta langintza zaharrari ordu arte amestu gabeko perfektio berriraino aurrerarazi zitzaion, hala, eta xede berberetarako, belaontziak lehian jardun ahal izan zuen baporearekin K.o. 1840-90 arteko mende-erdi sortzailean.

Orain bizkorraldi eta makalaldi hauen azalpen bila hasten bagara, naturaren legeen mende dauden gizarteetan esperoko genukeen mugimendu-uniformetasunetik hain desbideratze harrigarriak izanik, erronka eta erantzunaren formulak aurkituko dugu azalpena, Azterlan honen lehenagoko zati batean aztertu eta argitu genuena luze eta zabal. Har dezagun aipaturiko azken kasua, hau da, Mendebaldeko ontzigintza eta itsasketaren historian izandako bi bizkorraldi handiena, bien artean makalaldi luze batekin.

K.o. 1440-90 arteko mende-erdian, Mendebalde modernoko itsasontziaren sorrera eragin zuen erronka politikoa izan zen. Erdi Aroaren bukaera aldera, Mendebaldeko Kristandadea porrot egina zen hego-ekialderantz Dar-al-Islam-en sartzeko ahaleginean («Gurutza-detan», alegia), eta gainera turkiarrek Danubion gora eta Mediterraneoan zehar kontraerasotzeko arriskupean zegoen. Mendebaldearen posizioaren arriskua garai hartan areagotu egiten zuen Mendebaldeko Kristau Gizarte eurasiar kontinenteko penintsuletako baten muturrean egoteak; eta hain egoera badaezpadakoan kokaturiko gizarte bat lehenago edo geroago itsasora bultzatua sentituko zen Mundu Zaharraren bihotzetik irtendako indar ahaltsuagoen presioagatik, gizarte inguratu horrek ez bazuen hondamendia aurreikusten bere bide itsutik irten eta beste nonbait lurralde zabalagoetara irtenez. Bestela, espero zitekeen lehen ere, hainbat mende lehenago, Mendebalde Urruneko Kristandade huts eginean, «zerrenda zeltikoa», pairatua zuen patua sufritu beharko zuela Islamaren eskuetan. Gurutzadetan, latindar kristauak, Mediterraneoan aukeratu zutelarik gerra-bidetzat eta egitura mediterranearen tradizionaleko ontzietan zeharkatuz, beren kristau-fedearen sehaiaz jabetzeko irrikak mugiarazten zituen. Huts egin zuten eginkizun honetan; eta ondorioz

Islamaren aurrerapen mehatxagarriak Islamaren Mendebaldeko antagonista etsiak deabruaren eta itsaso sakonaren artean jarri zituen. Itsaso sakona aukeratu zuten eta ontzi berria asmatu zuten... Enrike Nabigatzailea printze portugaldarraren jarraitzaileetako baikorrenaren ametsik ausartenak ere gainditu zituzten ondorioekin.

Hamabosgarren mendean Mendebaldeko ontzigileek Islamaren erronkari emandako erantzunaren arrakasta ikaragarriak esplikatzen du makalaldiak luzaroan zertutako lilura, Mendebaldeko ontzigintzaren merkataritzan ondoren etorri zena. Bizkorraldiaren bigarren lilura arlo honetan oso bestelako kausa batek eragina izan zen, iraultza ekonomiko berriak alegia, hemezortzigarren mendearen bukaera aldera Mendebaldeko Europako zenbait aldetan eragiten hasi zenak. Iraultza horren bi ezaugarri nabariak biztanle-kopuruaren bat-bateko hazkundera erritmo bizkorrean eta merkataritzaren eta manufaktura-industriaren igoera izan ziren, hauek nekazaritzari gain hartu ziotelarik. Ez daukagu hemen hemezortzigarren mendean Mendebaldeko industri hedapenaren prozesu nahasi baina ezaguna eta garai bereko biztanleriaren hazkundera aztertzen hasi beharrik; hazkunde hau, Mendebaldeko mendebaldar Europako «Mundu Zaharreko» zenbait sorlekutako biztanle-kopurua hainbat gradutan biderkatzeaz gain, Mendebaldeko aitzindariak itsasoz bestaldean lorturiko lurralde berrietan espazio ireki handiak betetzen ere bizkor hasi zen. Garbi dago garraio ozeanikoa garapen horiek eragozteko «botila-mutur» itogarria gertatuko zela, ontzigileek ez baliote erronkari erantzun izan laurhun urte lehenago erantzun zioten bezain gogotsu eta eraginkor-ki.

Gure adibidea giza arazoaren arlo materialetik aukeratu dugu: ondoz ondoko erantzun teknologiko-pare bat langintza partikular batean erronka-pare bati, lehenengoa politikoa eta militarra, bigarrena ekonomikoa eta soziala. Baina erronkaren eta erantzunaren printzipioa berbera da eskalan gora eta behera, ogia eskatzen duten sabel hutsen erronka izan, nahiz Jainkoa eskatzen duten arima gosetien erronka izan. Zernahi dela ere, erronka beti Jainkoak giza arime-  
i eskaintzen dien aukeratzeko askatasuna da.



## XXXVIII. JAINKOAREN LEGEA

Azterlanaren zati honetan legearen eta askatasunaren artean historian izandako erlazioa ulertzeko ahaleginetan ari gara; eta, orain geure gaira itzultzen bagara berriro, dagoeneko erantzun bat lortu dugula ohartuko gara. Zer lotura du askatasunak legearekin? Gure probak erakusten du gizakia ez dela lege bakar baten mende bizi; bi legeren mende bizi da, eta bi horietako bat Jainkoaren legea da, askatasuna bera alegia, baina beste izen argigarriago batekin.

«Askatasuna ematen duen lege bikaina», Santiagok bere gutunean deitzen dion bezala, Maitasuna lege bat ere bada; zeren eta gizakiaren askatasuna Maitasuna bera den Jainko batek bakarrik eman ziezaiokeen gizakiari, eta jainko-opari hau gizakiak askatasunean bizia eta Jainkoa aukeratzeko erabil dezake, eta ez heriotza eta deabrua, gizakiak, bere aldetik, Jainkoa aski maitatzen badu bakarrik, maitasun arduratsu honek eraginda Jainkoarekin konprometitzeko Jainkoaren nahia bere eginez.

*Gure borondateak geure dira, ez dakigu nola;  
gure borondateak geure dira, zure egiteko*<sup>104</sup>.

«Historia... beste edozeren gainetik, deia da, bokazioa, egitasmo bat gizaki askeek entzun eta erantzun behar dutena; labur esanda, Jainkoaren eta gizakiaren arteko elkarrekintza»<sup>105</sup>. Legea eta askatasuna historian gauza bera dira, gizakiaren askatasuna Maitasun berbe-

ra den Jainko baten legea baita. Baina aurkikuntza honek ez du gure arazoa ebazten; zeren eta gure jatorrizko galderari erantzutean, beste berri bat sortu baitugu. Askatasuna legearen bi kodeetako baten berdin-berdina dela aurkitzean, beste galdera hau sortu dugu: ea zer lotura duten bi kode horiek elkarrekiko. Lehen begiratuan zera izango litzateke erantzuna: Maitasunaren legea eta giza izaera subkontzientearen legea, biek argi eta garbi eskumena dutelarik giza arazoetan, desberdinak ez ezik, kontraesankorrak eta bateraezinak ere badirela; zeren eta psike subkontzientearen legeak lotuta edukitzen baititu Jainkoak askatasunean berekin lan egitera deitu dituen arimak. Zenbat eta zorrozkiago alderatu bi «lege» horiek, orduan eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak. Naturaren legea Maitasunaren legearen neurriarekin baloratzen badugu eta naturak egin duen guztia Maitasunaren begiez ikusten badugu, dena oso txarra da.

*Ai, begira: zeru goiak eta lurra dena gaixo lehen oinarritik;*

*Bihotza erdiratzeko gogoeta guztiak hemen daude, eta denak alferrik*<sup>106</sup>.

Unibertsoko gaitz moralaren giza ikusleek ateratako ondorioetako bat zera da, izugarrikerien ganbera hau ezin daitekeela izan Jainkoaren egintza. Epikureotarrek esaten zuten atomo suntsiezinen ustekabeko esku-hartzearen emaitza pentsatu gabea zela. Bestalde, kristaua bi aukerabideren artean hautatu beharrean aurkitzen da, biak izanik larriki txundigarriak: Maitasun den Jainkoa nabarmen akastun den unibertso baten egilea da, edota unibertsoa Maitasunaren Jainkoa ez den beste Jainkoren batek egina izan behar du.

Martzion herexeak kristau-aroko bigarren mendearen hasieran eta Blake poetak hemeretzigarren mendearen hasieran, biek hartu zuten aukerabide horietako azkena. Enigma moral honi haiek emandako irtenbidea kreazioa ez maitale eta ez maitagarri zen jainko bati egozteia izan zen. Jainko Salbatzaileak arimak maitasunez irabazten zituen bitartean, Jainko Egileak lege bat ezarri baino ezin zezakeen egin eta zigor beldurgarriak jarri lege horren urratze formalengatik. Jainko kontramaisu malenkoniatsu hau, Martzionez moisetar Jehovahekin identifikatzen zuena eta Blakek Urizen izena eta Nobodaddy gaitzizena ematen diona, nahiko txarra izango litzateke bere eginkizunak bere argitasun mugatuaren arabera eraginkortasunez beteko balitu; baina garbi dago huts egiten duela horretan, eta huts-

gite horrek gaitasunik ezagatik edo maltzurkeriagatik izan behar du. Jakina, ez dago inolako harreman ulergarririk munduko bekatuen eta munduko sufrimenduen artean.

Kreazioa gaizkiari lotua dagoela esatean Martzion oinarri sendoen gain dagoen bitartean, ontasun eta maitasunarekin zerikusirik baduela ukatzerakoan oinarri ahulen gain dago; egia zera baita, Jainkoaren maitasuna gizakiaren askatasunaren iturburua dela eta kreazioari irteera ematen dion askatasunak bekatuari atea zabaltzen diola. Erronka guztiak har daitezke bai Jainkoagandiko dei gisa edo deabruak egindako tentazio gisa. Martziona Jainkoaren maitasunaz bere batasuna ukatzearen trukean egiten duen errebindikazioa egiatik urrutiago dago Ireneok Egilearen eta Berreroslearen identitateaz egiten duen errebindikazioa baino, hau giza ikuspegitik moralki bateraezinak diren Jainkoaren bi epifania identifikatzearen ordainetan. Are gehiago, Mendebalde modernoko zientziak harrigarriro errebindikatu du paradoxa logiko eta moral baten egiaz kristau-esperientziak ematen duen lekukotasuna. Jainkoaren bi epifania bateraezin bateratzen ahalgintzeko lanak, santu eta adituen gogoia atsekabetu zuenak, jadanik atsekabetu zuen psike subkontzientea aurreko borrokaldi batean, Mendebaldeko psikologoek azkenaldiko eskola batek gutxienez esaten zuenez; borroka haren bidez geroiko santu eta adituaren nortasun moralak haurtzaroaren hasierako etapa batean lortu zen, gero Jainkoak arimaren unibertsoan hartuko zuen lekua haurtxoaren amak betetzen zuelarik.

*«Haurra hasten denean... goiz... jaio osteko bizitzaren bigarren urtean... bere eta kanpoko errealtatearen artean bereizketa egiten, ama bihurtzen da kanpoko munduaren ordezkari eta munduak haurraren duen eraginaren bitartekari. Baina haurraren kontzientzia gero eta handiagoari kontrako bi aldetatik aurkezten zaio ama. Ama da haurraren maitasun-gai nagusia, eta asetasun, ziurtasun eta bakearen iturburu da. Baina, halaber, autoritatea ere bada, aginte-iturri nagusia, haurraren gain misterioski zertua eta bulkada batzuk arbitrarioki zapaltzen dituen, hauen bideetatik bizitza berria kanporantz irteten delarik. Haur-bulkaden frustrazioak haserrea sortzen du, gorrotoa, eta gurari suntsitzailleak —psikologoek normalean erasotzat jotzen dituztenak—, autoritate zapaltzailearen aurka zuzenduak. Baina autoritate gorrotatu hau ama maitatua ere bada. Honela, haur-*

*txoa lehenengo gatazkaren aurrean aurkitzen da. Bi bulkada-sail bateraezin zuzentzen dira objektu bererantz, eta objektu hori haurra bera inguratzen duen unibertsoaren erdigunea da»<sup>107</sup>.*

Honela, teoria psikologiko baten arabera, heldutasunaren gatazka moral kontzientea subkontzienteki aurreratua agertzen da haurtzaroaren hasieran; eta haur-borrokan, helduarenean bezala, garaipen espiritualak prezio espiritual bat izaten du. «Maitasun primitiboak gorroto primitiboa konkistatzen du, erruduntasun primarioaren kargarekin zamatzean»<sup>108</sup>; eta honela psikologiak ere Martzionen aurka Ireneok egindako kristau-aurkikuntza berresten du, hots, maitasuna eta gorrotoa, zuzentasuna eta bekatua, askaezinik elkarri lotuta daudela kreazioaren katean:

*«Amarik gabe, ez dago maitasun indartsurik objektu pertsonal batera zuzenduta; horrelako maitasunik gabe, ez dago eragin bateraezinen gatazkarik, ez dago erruduntasunik; eta, horrelako erruduntasunik gabe, ez dago zentzu moral eraginkorrik»<sup>109</sup>.*

## XII. MENDEBALDEKO ZIBILIZAZIOAREN ETORKIZUNA

### XXXIX. IKERKETA HONEN BEHARRA

Azterlanaren zati hau idazteko bolaluma hartu zuenean, idazleak bazuen nolabaiteko desatsegina bere buruari ezarritako zeregin honengatik, espekulaziozko gai baten arriskuekiko berezko gogo-uzkurtasuna baino zerbait gehiago zena. Garbi zegoen, noski, 1950ean egindako iragarpenak gertaerek gezurtatuta utz zitzaketela eskuizkribua inprimatu eta argitaratu baino askoz lehenago. Hala ere, barregarri geratzeko arriskua gogoeta nagusia izan balitz idazlearen buruan, horrek Azterlanaren beste edozein zati idazten hastea ere eragotziko ziokeen; eta, zoriari jada hamaika bahitu eman ondoren, lanaren hamabigarren zatiari ekitean, gogoeta batek eman ziezaiokeen adore: Mendebaldeko Zibilizazioaren etorkizuna garai hartan ez zela inola ere 1929. urteko lehen hilabeteetan —zati honen lehenengo oharrak, orain ondoan dauzkanak, idazten zituen garaian— zena baino ilunagoa. Depresio Handiak, bere ondorio guztiekin —Bigarren Mundu Gerra barne— orduantxe zertzeko zorian zegoenak, erabat ezabatua zuen, 1950a baino askoz lehenago, 1929an nagusi zen ilusioa, hots, gauzak oro har ez zirela oso desberdinak 1914a baino lehen izandakoen aldean.

Beraz, gai honekiko idazlearen gogo-uzkurtasuna nabarmen gutxitu beharko zukeen tartean historiako bi hamarkada argigarri igaro izanak, arazoa iragarpenaren arriskuen aurrean atzera egitea

izan balitz soilik. Bere higuinak, hala ere, zerikusi gutxi edo batere ez zuen Mendebaldeko Zibilizazioaren etorkizuna kalkulatzeko zailtasunarekin, baizik eta Azterlan honen planteamendua arautzen duen printzipio nagusietako bat ez baztertzeko gogoan sustraitzen zen. Egilea beldur zen ikuspegi bat bertan behera utzi beharraz, bere ustez, hortik bakarrik ikus zitekeelarik benetako perspektiban gizarte-mota baten historia osoa, zeinen ordezkari bat baino ez baitzen Mendebaldeko Zibilizazioa; eta ikuspuntu ez-mendebaldar honen zuzentasunean duen sinesmena berretsi egin dute, bere ustez, historiaren mapa ikuspuntu ez-mendebaldarretik irakurtzeko ahaleginetan igarotako bi hamarkadetako emaitzek.

Azterlan honi ekitera idazlea bultzatu zuten akuiluetako bat Berant Aro Modernoko Mendebaldean ohikoa den konbentzio baten aurkako errebolta izan zen, hots, Mendebaldeko Gizartearen historia «Historiarekin» —letra larriz idatzita— identifikatzekoa. Konbentzio hau ilusio egozentriko distorsionatzaile baten kimua iruditzen zitzaion, Mendebaldeko Zibilizazioaren seme-alabak horretan erori zirelarik gainerako zibilizazio eta gizarte primitibo ezagun guztietako seme-alabak bezalaxe<sup>110</sup>. Uste egozentriko horretatik urruntzeko erarik onena kontrako ustea hartzea zela ematen zuen, hots, edozein gizarte-motaren ordezkari guztiak elkarren parean daudela filosofikoki. Idazleak kontra-suposizio hau onartu zuen, eta Azterlan honen lehenengo sei zatietan fede hori justifikatuta geratzen zela iruditu zitzaion. Zazpigarren zatian aurkitu zuen zibilizazioen balioa ez zela berdina saio baten frogetan oinarrituz, non froga-harria erlijioen historian zibilizazioen kolapsoek eta desintegrazioek jokaturiko papera izan baitzen; baina test haren emaitza ez zen Mendebaldeko Zibilizazioa berriro goraipatzea izan. Aitzitik, aurkikuntza zera izan zen, garrantzi eta eragin handieneko zibilizazioak bigarren belaunaldiko zibilizazioak izan zirela —siriakoa, indikoa, helenikoa eta sinikoa—, historiaren gida-lerroa mundu honetan zehar igarotzen diren giza arimentzat gero eta aukera espiritual gehiago eskaintzea dela ikusten duen behatzailearen ikuspuntutik.

Idazleak bereganaturiko ikuspuntu honek areagotu egin zuen Mendebaldeko Zibilizazioari tratamendu berezia emateko hasieran zuen uzkurtasuna. Hala ere, 1950ean erabaki zuenean lehenengoz 1927-9an pentsaturiko planari jarraitzea, hiru gertaeraren logikara,

tarteko urteetan beren balioa batere galdu ez zutenetara, makurtzen ari zen.

Gertaera horietako lehenengoa, kristau-aroko hogeigarren mendeko bigarren laurdenean zera zen, Mendebaldeko Zibilizazioa zela bere espezieko ordezkari bakarra, desintegrazio-seinale ukaezinik ageri ez zuena. Beste zazpietatik, bost —hau da, Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusia eta haren errusiar kimua, Ekialde Urruneko Zibilizazioaren gorputz nagusia eta haren korear eta japoniar kimua, eta Hindu Zibilizazioa— ez bakarrik estatu unibertsalaren aldian sartuak, baizik eta bertatik igaroak ere baziren; eta Zibilizazio Musulman Iraniko eta Arabikoen historien azterketak froga sendoak ematen zituen bi gizarte horien kolapsoaz ere. Agian Mendebaldeko Gizartea bakarrik zegoen oraindik bere hazkundealdian.

Bigarren gertaera zera zen, Mendebaldeko Gizartearen hedapenak eta Mendebaldeko kulturaren irradiazioak beste zibilizazio guztiak eta beste gizarte primitibo guztiak mundu-mailako eremu mendebaldarrera ekarri zituela.

Ikerketa hau egin beharreko bihurtzen zuen hirugarren gertaera kezkarria hau zen, nonbait: lehenengo aldiz gizadiaren historian, gizadiaren arrautza guztiak behin-behineko otarre eder batean bilduta zeudela.

*Joan ziren itsasoz edo mendiz gizadian zabaltzea  
erokeriari eragozten zitzaioneko egunak:  
Neron-ek soka gainean inozokeriak egitean  
jakinduriak Pekinen agintzen zuen, asaldatu gabe;  
eta Jainkoak atseginez Budaren aurpegian egiten zuen irribarre,  
nahiz eta Kalbinok Genevan predikatu grazia.  
Gure mundua elkar-lotua hain txiki bihurtu denez,  
Hitler batek guztiontzat esan nahi ditu egun txarrak.  
Mundu osoan zehar zabaltzen dira kezka-uhinak  
eta Ipoh beldur da Ipsden ere beldur den gerragatik<sup>111</sup>.*

Hirugarren mundu-gerra batean, arma atomiko edo bakteriologikoekin, ezinezkoa zirudien Heriotzaren aingeruak ez ikustea gizakiaren lurreko habitat-eko gordeleku eta zokoak, duela oso gutxi arte edo erakargarritasun gutxikoak edo iristezinak edota biak zirenak, haietako biztanle behartsu, ahul, atzeratuei immunitate birtuala ema-

teko militarista «zibilizatuen» adeitasun gogaikarriaren aurka. Errusiar presioaren aurka Grezia eta Turkiari amerikar laguntza emateko Truman doktrina (1947ko martxoaren 12an) aldarrikatu baino hiru aste lehenago Princetonen emandako hitzaldi batean, idazleak irudimenari jokoa eman zion eta mendebaldartzen ari zen mundua hirugarren mundu-gerran erortzen bazen, ondorioa Platonen mitoetako bat benetako bizitzan zertzea izan zitekeela esan zuen: Atenasko filosofoak mendietako artzainak imajinatzen ditu aldika beren gotorlekuetatik irteten zibilizazio berri bat eraikitzeko, aldizkako hainbat kataklismoren azkenekoan desagertu zen zaharrak hutsik utzitako lekuan. Psike subkontziente kolektiboaren irudietan, artzainak sorkuntzarako giza gaitasun primitibo gastatu eta hondatu gabeen ikur bilakatu ziren, Jainkoak oraindik erreserban zituenak gizadiaren gehiengo sofistikatu bat zenbait tentaziotara eramanez ondoren, Kain nekazaria, haren seme Enok hiri-egilea eta haien ondorengo Tubal-Kain errementaria galdu zituzten tentazioetara, alegia. Orain arteko giza eginkizunetako berrien eta agian arriskutsuenetako honetan ahalgintzean zibilizazio-prozesuko gizakiak porrot egin zuenean, beti uste izan zuen gai izango zela bere kide primitiboengan erreserban gordetako ahalmenaz baliatzeko, kide horiek berak bota zituelarik Lurrean bereganatu eta bere agindupean jarritako zati aukeratuetatik, «ardi- eta ahuntz-larruz jantzita basamortu eta mendietan noraezean ibiltzeko»; eta iraganean, bizirik iraundako Abelen seme-alaba konparatiboki errugabe hauek Kainen seme-alabak lotsagorritan utzi zituzten gaitzaren ordeztu ongia itzulita, beren hiltzaileen erreskatara etorritik kaintarrak beren bekatuek salatu zituztenean. Askrako artzain batek, Helikon inguruko mendietan, historia helenikoaren tragediaren hitzaurrea egin zuen, eta Negeb-eko artzainak, arabiar basamortuaren ertzetan, kristautasunaren sehaska ondoan egon ziren Belenen. Bere *jeu d'esprit* platonizatzailean, idazle honek K.o. 1947an iradoki zuen, Mendebaldeko Zibilizazioak, non baitzeuden inplikaturak bera eta bere entzuleak, hondamendi izugarriren bat zertu behar bazuen *Oikoumenê*-n, azken bost edo sei mila urteetan zutik egondako kultur eginkizun bati berriro ekiteko zeregina tibetarrei egokituko zitzaizela agian, ordu arte beren goi-ordokietako murruek atzean seguru eta eroso egonak, edo eskimalei, ordu arte errugabeki latza zen izotz-geruzaren kontra eroso habian babestuta egonak, izotz hori edozein *homo homini lupus* baino auzoko hobe zutelarik. Hitzaldi hura eman



zuenetik lerro hauek unibertitate-hiri beraren esparru oraindik bake-tsuan idatzi bitartean igarotako hiru urte eta erdian, irudikaturiko gertagarri haiek gertaera historikoez gezurtatu eta eraitsi zituzten. Hau idazteko garaian, 1950eko abenduan, Txinako espedizio-indar komunista erasotzaile bat *en route* omen zegoen Lhasarantz; eskimalak, berriz, izadia izan ezik beste etsai edo adiskiderik ez zutelako zoriontsu izanak, bonbaketa-bide transpolarrean aurkitzen ziren Volga eta Mississippi arroen artean, eta *ventre-à-terre* inbasio-bidean, Bering itsasarteko izotz-pusketan zehar, Asiako Errusiaren ipar-ekialdeko muturreko biztanle primitiboen garai bateko habitat bakartutik Alaskarantz, Estatu Batu kontinentalen gorputz nagusitik «poloniar korridore» kanadar batez bakarrik banatuak.

Honela, orain alde guztietan dagoen Mendebaldeko Gizarteak gizadi osoaren patua zuen bere esku, eta une berean Mendebaldearen beraren patua Moskuko gizon baten eta Washingtingo beste baten hatz-puntan zegoen, botoi bat sakatu eta atomo-bonba lehertaraz baitzezaketen.

Gertaera hauek idazlea gogoz kontra eraman zuten 1950ean 1929an ere gogoz kontra zertutako ondorioa berrestera, alegia, Mendebaldeko Zibilizazioaren etorkizuna ikertzea beharrezko zatia zela historiaren hogeigarren mendeko azterketan.

## XL. A *PRIORI*-ZKO ERANTZUNEN KONBENTZIGARRITASUNIK EZA

Zein zen Mendebaldeko Zibilizazioaren bizi-itxaropena K.o. 1955ean? Lehen gogoetetan Historiaren aztertzaileak Mendebaldearen egungo itxaropena beherantz kalkulatzeko joera izan dezake, ongi ezaguna den naturaren oparotasuna kontuan hartuta. Mendebaldeko Zibilizazioa, azken batean, bere espezieko hogeita bat ordezkarietako beste bat baino ez zen. Zentzuzkoa al zen espero izatea proban jarritako hogeita batgarren zibilizazioak arrakasta izango zuela beste guztien patua izandako porrota saihesten? Kontuan izanda lurreko bizi-eboluzioaren iragan historian garesti lortutako arrakasta bakoitzaren prezioa izandako porrot-kopurua, ezinezkoa eman zezakeen, zibilizazioak bezain gazte zen espezie baten historian, hirugarren belaunaldiko edozein ordezkari ordu arte ibili gabeko bide bat aurkitzeko pape-ra jokatzeko pentsatua egotea, hots, mugarik gabe bizi eta haztea, edota bestela gizarte-espezie berri bat sortuko zuen aldaketa bat sortzea.

Hala ere, horrelako inferentzia bat bizitzako esperientziatik ateratakoa beharko zukeen izan, ez giza mailan, giza aurreko mailan baizik. Izan liteke egia, natura errudimentuzko organismoen eboluzioan inplikaturik egon zenean, milioika espezimen sortzeko gai izan zela, zortealdi baten aukera, diseinu berri eta hobea sortuko zukeena, bere buruari eskaintzeko. Landare, intsektu, arrain eta antzekoen eboluzioan, hogeitaz espezimen, zailentzarik gabe, kopuru barregarriro txikia

litzateke naturak beraiei buruz lan egiteko; baina garbi dago ezin justifikatuzkoa izango litzatekeela animala edo landare-organismoentzat saihestezinak izan litezkeen eboluzio-arauak zibilizazio-prozesuan dauden gizarteak bezain desberdinak diren «espezimenentzat» ere nahitaez aplikagarriak izan behar dutela uste izatea. Izan ere, naturaren oparotasunaren argudioa, testuinguru honetan, ez da inolako argudioa. Planteatu baldin badugu, baztertzeko baino ez da izan.

Gure galderari emandako *a priori*-zko erantzun emozional-pare bat geratzen zaigu, zibilizazioen euren lekukotasuna aztertu baino lehen kontuan hartu beharrekoa. Bi erantzun emozionalak elkarrekiko kontraesankorrak dira, eta Azterlan honen idazleak, K.o. 1889an jaioak, Mendebaldea bi sentimendu horietako batetik bestera igarotzen hasia zela ikusi zuen bere bizitzan.

Britainia Handian klase ertaineko jendearen artean nagusi zen ikuspegia hemeretzigarren mendearen bukaeran parodia bateko aipu baten bidez adieraz daiteke ongien; parodia bi eskola-maisuk idatzia da, ikasle batek bere azterketan historiaz adierazitako nozioei buruzkoa, eta *1066 and All That* izenburua zuena.

«Historia bukatu egin da orain; historia hau azkena da, beraz».

*Fin-de-siècle*-ko klase ertain ingelesaren ikuspegi hori Mendebalde modernoko azken gerraldietako garaile alemaniar eta iparramerikarren seme-alaba garaikideek partekatzen zuten. K.o. 1792-1815eko gerra orokorraren emaitzaren onuradunak ez ziren artean susmatzen hasiak, ez haien «parekide» ingelesak baino gehiago, Mendebaldeko historiaren aro modernoa burutua zela, esperientzia tragikoz beteriko aro postmodernoa hasteko bakarrik. Imajinatzen ari ziren, beren onurarako, bizitza moderno osasuntsu, seguru eta gogobetegarria miragarriro present zegoela bat-batean hasitako orainaldi denboragabea. Intenporaltasunaren zentzua, adibidez, viktoriar garaiazen hirurogei urteetan hazi egin zela ematen zuen, nahiz eta, egia esan, *Sixty Years a Queen* Diamantezko Jubileuko antzerki-lan ospetsuko koadroen azterketa kasualak bizkor mugitzen zen aldaketa-ikuskizuna erakusten zuen bizitzako arlo guztietan, teknologiatik jantziataraino.

Garai hartan, klase ertain ingeleseko kontserbadoreak, haienztzat jada iritsia zelarik milurtekoa, eta klase ertaineko liberalak, haienztzat kantoiaren bestaldean zegoelarik, ohartzen ziren langile klaseak

klase ertainaren oparotasunean zuen partea harrigarriro urria zela, eta britainiar mendekoak Erresuma Batuaren kolonia eta dependentzia gehienetan ez zirela autogobernuaz gozatzen ari, hau Erresuma Batuko eta britainiar koroaren agindupeko beste lurralde gutxi batzuetako mendeko kideen pribilegioa izanik; baina desberdintasun hauek liberalentzat konpongarriak ziren eta kontserbadoreentzat ezinbestekoak. Garai berean Estatu Batuetako iparraldeko hiritarrak jabetzen ziren haien oparotasun ekonomikoan ez zutela parterik hegoaldeko herri-kideek. Garai berean Alemaniako Reich-aren mendekoak ohar-tzen ziren Frantziatik berenganaturiko «Reichsland»eko biztanleak artean frantziar zirela bihotzez eta frantziar nazioaren gainerakoak artean ez zuela onartzen departamentu horien mozketak. Frantziarrek artean *revanche*-rako gogoetak egiten zituzten, eta Altsazia-Lorenan mendeko biztanleak artean azken askapenaren amets bera ari ziren amesten, mendeko beste herri batzuk Eslovakian, Polonian, Mazedonian eta Irlandan bezalaxe. Herri horiek ez zuten onartzen «Historia bukatuta zegoen» sineskizun erosorik. Hala ere, haien uste sendoak —beraienez jasangaitza zen sistema ezarri bat, lehentxeago edo geroxeago, denboraren «ezinbesteko lasterrak» aurrean eramango zuelakoak— zirrara txikia eragiten zuen, garai hartan, nagusi ziren botereen ordezkarien irudimen traketsetan. Esan daiteke, zalantzarik gabe, K.o. 1897an, ez zegoela gizon edo emakume bizirik, ezta iraultza nazionalista edo sozialistaren profetarik odoltsuenen artean ere, nazio-burujabetasunaren eskaerak ondorengo hogeita bost urteetan Habsburgo, Hohenzollern eta Romanov inperioak eta Britainia Handiko Erresuma Batua eta Irlanda apurtuko zituela amesten zuenik; edota gizarte-demokraziaren eskaria Mendebaldeko munduan goiz industrializaturiko probintzia gutxi batzuetako hirietako langile-klasetik Mexiko eta Txinako nekazariengana zabalduko zela amesten zuenik. Gandhi (K.o. 1869an jaioa) eta Lenin (K.o. 1870ean jaioa) artean izen ezezagunak ziren. «Komunismo» hitzak iraganeko pasadizo beldurgarri baina labor eta itxuraz garrantzirik gabeko zerbait adierazten zuen, jada itzalita zegoen «Historiaren» sumendiaren azken erupzio-tzat hartzen zena. Parisko azpimunduan K.o. 1871n izandako basakeriaren piztaldi beldurgarria hondamendi militar izugarri baten astinduak eragindako erreakzio atabikotzat hartzen zen, eta ez zegoen Hirugarren Errepublikak burges baten estalki bustiaren azpian mende laurden batez itzalita egondako gerra pizteko beldur nabarmenik.

Klase ertainaren baikortasun atsegin hau ez zen gauza berria Victoria erreginaren Jubileuaren garaian. Ehun urte lehenago aurkitzen dugu Gibbonen periodo handietan eta Turgot-ek Sorbonan K.o. 1750ean eman zuen *Second Discourse* delakoan: *Kristautasuna ezartzeak gizadiari ekarri dizkion abantailei buruz*. Ehun urte lehenago berriro aurkitzen dugu Pepysen ohar kasualetan. Egunerokoaren kronikalari zorrotzak igoera sumatu zuen barometro politiko eta ekonomikoan; «1649 eta hori guztia», San Bartolomeko sarraskia eta espainiar Inkisizioa barne, iraganeko gauzak ziren. Egia esateko, Pepysen belaunaldia guk Berant Aro Modernoaren (K.o. 1675-1875) hasieratzat jotakoa da, eta Berant Aro Moderno hau fede-aro handietako bat da, fedea aurrerapenean eta giza hobegarritasunean. Pepysena baino bi belaunaldi lehenago, fede honen profeta ozenago bat aurkitzen dugu Francis Baconengan.

Hirurehun urtez bizi izan den fede bat nekez hiltzen da, eta horren adierazpena, K.o. 1914an itxuraz *knock-out* kolpea hartu eta hamar urte geroago detektatzen dugu, uholde aurreko belaunaldiko historialari ospetsu eta herri-funtzionario baten, sir James Headlam-Morley (K.o. 1863-1929) delakoaren hitzaldi batean.

«(Mendebaldeko) kultura honen gure azterketan nabarmenduko dugun lehen egitate handia zera da, nahiz eta dudarik gabe Mendebaldeko Europa osoarentzat historia komun eta zibilizazio komun bat egon, jendea ez zegoela elkartuta batasun politiko formal batean, eta herrialde guztia ere ez dela inoiz gobernu komun baten mende egon. Une batez, egia da, bazirudien Karlomagnok bere agintea ezarriko zuela eremu osoan; itxaropen horrek, dakigun bezala, porrot egin zuen; inperio berri bat sortzeko haren ahaleginak huts egin zuen, ondorengo ahalegin guztiek huts egin zuten bezala. Behin eta berriro egin zituzten ahaleginak Berant Inperioak, Espainia eta Frantziako gobernariak, Mendebaldeko Europa osoa estatu edo inperio handi batean batzeko. Gauza bera aurkitzen dugu beti: tokiko abertzaletasunerako eta askatasun pertsonalerako deiak sortarazten duen erresistentziak konkistatzaile guztien ahaleginak hausten ditu. Eta horregatik izan da Europaren ezaugarri iraunkor bat kritikak anarkia deitzen duena; zeren eta gobernu komun baten ezak gatazka, borroka eta gerra esan nahi baitu, etengabeko nahasmena gobernu-unitate kontrarioen artean (elkarren lehian) lurraldea eta nagusitasuna lortzeko.

«Egoera hau askorentzat oso harrigarria da. Zalantzarik gabe, energi gastatze handia esan nahi du, aberastasun-suntsitze handia, batzuetan bizi-galtze handia ere bai. Ondorioz, asko dira gobernu komun baten pixkanakako ezarpena ikustea nahiago izango zuketenak, eta Europaren historia, honen desabantailarako, Erroma inperialaren edo, gaur egun, Amerikako Estatu Batuen historiarekin kontrastatzen dutenak. Asko dira Danteren egunetatik aurrera gobernu ordenatu hori nahi izan dutenak, Jainko Probidentziaren benetako isla eta tresna izan litekeena. Zein sarri entzuten dugun, Amerikako lurreen, ingeles eta italiar eta poloniar eta ruteniar eta aleman eta eskandinaviarrak guztiak elkarrekin bakean eta pozik bizi badaitezke, zergatik ezin daitezkeen horrela bizi beren sorlekuetan.

«Ez dut gaur etorkizuneko idealei buruz hitz egingo; iraganaz ari gara, eta egin behar dugun guztia zera adieraztea da: anarkia hau, gerra hau, aurkakotasun hau bazirela Kontinenteko energiak beren gorenean zeuden mementoan bertan. Halaber, esan dezagun, dirudienez, mediterranear munduko energiek —bizi-indarrak, espiritu artistikoak, buru-argitasunak— pixkanaka baina egonkortasunez behera egin dutela, eta beherakadaren hasiera bat etorri zela gobernu komun baten ezarpenarekin. Gerta ote daiteke desadostasuna eta desordena benetan ez izatea energi suntsitze hutsa, energia sortzen zuen kausa baizik?»<sup>112</sup>.

Arraroa da Gibbonen ahots lasaigarriaren oihartzuna oraindik Ingalaterran entzutea, non turuta apokaliptikoaren ahots beldurgarria entzuten baitzen. Hala ere, K.o. 1924an, sentimendu antitetikoa, aurretiko Zibilizazio Helenikoaren gainbehera eta erorikoaren esanahiaren irakurketa desberdinean adierazia, jada areagotzen ari zen Mendebaldeko mundu atsekabetuan.

Headlam-Morleyk bere adierazpenak egin eta bost urte geroago, Paul Valéryk oso adierazgarriro aldarrikatu zuen zibilizazio guztiak hilkorrak zirela. Spengler gauza bera ari zen esaten garai berean. Orain ikusten dugu aurrerapenaren doktrina zenbait premisa faltsutan oinarritua zegoela. Baina hori aitortzeak halabeharraren doktrina onartzera behartzen al gaitu? Oso arrazoiketa sinplea litzateke hori. Era berean, norbaitek argudia lezake Jon Txoriburu etsipenaren lupetzan erori delako, ez dagoela inolako biderik hori zeharkatzeko. Valéryren ezkertasuna eta Gibbonen baikortasuna biak dira emozioen arrazionalizazioak, gaingiroki egokiak beren bizitzen denbora-tarte laburretarako.

## XLI. ZIBILIZAZIOEN HISTORIEN LEKUKOTASUNA

### 1.

*Mendebaldeko esperientziak Mendebaldekoak ez diren aurrekariekin*

Azterlan honen lehenagoko zatietan saiatu gara zibilizazioen kolapsoen kausak eta berorien desintegrazio-prozesuak pixka bat ulertzen, gertaera historiko garrantzitsuak aztertuz; eta kolapsoak aztertzean horien kausa, kasu bakoitzean, autodeterminazioaren nolabaiteko porrota izan dela aurkitu dugu. Kolapsoa izandako gizartea aukeratzeko askatasun osasungarria galdua zuena izaten zen, berak egindako idoloren baten mende erori izanagatik. Kristau-aroko hogeigarren mendearen erdialdera, Mendebaldeko Gizartea nabarmen zegoen zenbait idoloren gurtzara emana; baina, horien artean, bat nabarmentzen zen besteen gainetik, parroki estatuaren gurtza, alegia. Mendebalde postmodernoko bizitzaren ezaugarri hau seinale beldurgarria zen bi aldetatik: lehenik, idolatria hau mendebaldarturiko biztanleen gehiengo handi baten benetako erlijioa zelako, ez aitortu arren; eta bigarren, erlijio faltsu hori izan zelako erregistraturiko hogeita bat zibilizazioetako gutxienez hamalauren, eta agian hamaseiren, heriotza eragin zuena.

Anaiarteko gerra gero eta bortitzaagoak izan ziren heriotza-kausa arruntena hiru belaunaldietako zibilizazioen artean. Lehenengo belaunaldian Zibilizazio Sumeriko eta Andetarra, eta ziur aski Minoikoa, suntsitu zituen. Bigarren belaunaldian Babilonikoa, Indikoa, Siriakoa, Helenikoa, Sinikoa, Mexikarra eta Yucatandarra suntsitu zituen. Hirugarren belaunaldian Kristau Ortodoxoa suntsitu

zuen, bai bere gorputz nagusian eta bai errusiar kimuan, Ekialde Urruneko bere japoniar kimuan, Hindua eta Iranikoa. Gainerako bost zibilizazioetatik, Mendebaldekoa kanpo utzita, pentsa genezake Hitita ere bere barnean izandako anaiarteko gerrak eraman zuela hondamenera, mundu egipziako petrifikatu baten kontra bete-betea jo baino lehen, ondorioz Völkerwanderung barbaro baten mende erori zelarik. Maien Zibilizazioak orain arte ez zuen eman anaiarteko gerraren frogarik. Zibilizazio Egipziakoak eta Ekialde Urrunekoak Txinan, dirudienez, beste idolo bati sakrifikatu zioten bizia, hau da, gero eta burokrazia bizkarroiagoa zuen erakunde politiko ekumeniko bati. Geratzen den espezipen bakarra Gizarte Arabikoa da, erakunde nomada bizkarroi baten zamak suntsitu zezakeena nomada ez zen mundu batean —egiptoar mamelukoen esklabo-nagusigoan—, gizarte hau atzerriko erasotzaile batek suntsituriko kasu bakar bat ez bada, behintzat.

Are gehiago, Mendebaldeko historiaren atal postmodernoan, parroki estatu subiranoak idolatratzearen ondorio beldurgarriak deabruzko oldar batek areagotzen zituen. Desagertua zen eliza unibertsal baten eragin murriztailea. Demokraziaren eraginak nazionalismoaren forman, kasu askotan ideologia berriren batekin batera, gerra latzagoa izatea ekarri zuen, eta industrialismoak eta teknologiak emandako bultzadak gero eta arma suntsitzaileagoak eman zizkien borrokalariei.

Industri iraultza, kristau-aroko hemezortzigarren mendean Mendebaldeko munduari eragiten hasi zena, K.a. seigarren mendean mundu helenikoa ezustean harrapatu zuen iraultza ekonomikoaren baliokide ukaezina zen. Bi kasuetan, aurrez beren bizimodua gutxi-asko bakartuta eta iraupeneko nekazaritzaz egin zuten komunitateak orain lankidetzaren ekonomikoan hasi ziren beren ekoizpena eta sarrerak gehitzeko, salerosgai espezializatuak ekoizten eta trukatzeko ikasiz. Hori egitean autarkikoak izateari utzi zioten, eta jada ezingo ziren autarkiara itzuli, nahi izan balute ere. Bi kasuetan ondorioa zera izan zen, gizarteari maila ekonomikoan egitura berri bat eman ziotela, maila politikoan zuten egiturarekin inkongruentea zena; eta «akats» horren zoritxarreko emaitza Gizarte Helenikoaren egitura sozialean dagoeneko behin baino gehiagotan aztertu ahal izan dugu.

Mendebalde modernoaren historian sintoma etsigarri bat, lehenengo Prusian eta gero Alemanian oro har, militarismoa sortzea izan



zen, beste zibilizazio batzuen historietan hilgarri izandakoa. Militarismo hau lehenengoz prusiar errege Federico Gilermo I.aren eta Federico Handiaren (K.o. 1713-86) erreinaldietan agertu zen, Mendebaldearen geroagoko historiako aro guztiekin konparatuta, gerraren gidaritza izugarri formala eta suntsigarritasuna maila txiki-  
nekoa zen garaian. Bere azken fasean, hau idazteko garaia arte, Alemania nazional-sozialistaren militarismo amorratua *furor assyriacus*-arekin bakarrik konpara zitekeen, bere tenperatura gradu gorene-  
raino igo ondoren Teglathalasar III.ak (K.a. 746-727 artean erreinatu  
zuen). Gerra-makina nazional-sozialistaren suntsipen gogorrak, aurrekaririk gabeak, mendebaldartzen ari zen munduaren alde guztie-  
tan suntsitu ote zuen militarismoaren nahia, hau idazteko garaian, askoz zalantzatsua goa zirudien.

Seinale txar horien aurka sintoma hobeago batzuk ere bazeu-  
den. Bazen erakunde zahar bat, ez gerra baino hobe, Mendebaldeko  
Zibilizazioak bere gainetik kendua zuena. Esklabotasuna deusezten  
arrakasta izandako gizarte batek ziur aski har zezakeen bihotz kristau-  
-ideal baten aurrekaririk gabeko garaipen honetatik, garai bereko  
gerra-erakundea deusezteko zereginari ekiteko. Gerra eta esklabota-  
suna zibilizazioaren minbizi bikiak izan ziren beti gizarte-mota hau  
lehenengoz sortu zenetik. Horietako baten konkista seinale ona zen  
bestearen aurkako kanpainan itxaropena izateko.

Are gehiago, Mendebaldeko Gizarteak, artean gerrak honda-  
tuak, har zezakeen bihotz beste gudu-zelai espiritual batzuetan lortu-  
takotik ere. Jabetza pribatuaren erakundean industrialismoaren eragi-  
nak aurkezturiko erronkari emandako erantzunean, Mendebaldeko  
Gizarteak jada herrialde askotan nolabaiteko aurrerapena egin zuen,  
murritzetarik gabeko indibidualismo ekonomikoaren Eszilararen eta  
ekonomi jardueraz Estatuak egindako kontrol totalitarioaren  
Karibdisen artean bidea zabalduz. Gainera, demokraziak hezkuntzan  
izandako inpaktuarekin moldatzen ere nolabaiteko arrakasta lortua  
zuen. Altxor intelektualen etxe bat, zibilizazioaren egunsentitik  
gutxiengo txiki batek arretaz gorde eta zanpagarriro ustiaturiko priba-  
legio bat, guztiei irekita uztean Mendebalde modernoaren demokrazi  
espirituak itxaropen berri bat eman zion gizadiari beste arrisku baten  
aurrean jartzearen ordainetan. Arriskua oinarritzko heziketa unibertsal-  
ak propagandarako irekitzen zuen aukera zen, eta aukera horri hel-

tzeko publizitate-saltzaileek, albiste-agentziek, presio-taldeek, alderdi politikoek eta gobernu totalitarioek trebetasuna izan zuten, eta eskrupulurik ez. Itxaropena, berriz, honetan zegoen: erdihezitako publiko baten ustiatzaile horiek ez zirela beren biktimak «baldintzatzeko» gai izango, ez behintzat ustiakuntza horren aurka immune bihur zitzakeen punturaino heziketan jarraitzea eragozteko bezain sakon.

Baina gudu espiritual erabakigarria ez zen maila militar edo sozial edo ekonomiko edo intelektualean zertuko; zeren eta K.o. 1955ean Mendebaldeko gizakiak aurrean zituen arazo nagusiak erlijiozkoak baitziren guztiak.

Erlijio judaiko positiboki fanatikoak erremediorik gabe belztuta utzi ote zituen egozten zitzairen eta haien fede-aitorpena gezurtatzen zuen intolerantzi historiak? Ba ote zen inolako bertuterik erlijiozko tolerantzian, non baretu baitzen Mendebaldeko mundu desilusionatua kristau-aroko hamazazpigarren mendearen bukaera aldera? Noiz arte jasan ahal izango zuten Mendebaldeko arimek erlijiorik gabe bizitzea? Eta orain, hutsune espiritual baten ezerosotasunak nazionalismoa eta faszismoa eta komunismoa bezalako deabrueri atea zabaltzera tentatu zituelarik, noiz arte jasango zuen proba azkenaldian tolerantzian zuten sinesmenak? Tolerantzia erraza izan zen epeltasun-arogan, non Mendebaldeko kristautasunaren aldaerek galdua zuten beren agintea Mendebaldeko bihotz eta gogoetan, hauek artean ez zutelarik aurkitu beren debozio frustratuentzako objektu alternatiborik. Orain beste jainko batzuen atzetik prostituitzeari ekin ziotelarik, hemezortzigarren mendeko tolerantziak eutsiko ote zion bereari hogeigarren mendeko fanatismoaren aurka?

Mendebaldeko basamortuan noraezean zebiltzanak —arbasoen egiazko Jainko bakarrarengandik aldenduta, esperientzia desilusionatzaile batek irakatsi zielarik parroki estatuak, eliza sektarioak bezala, ez bakea baizik eta ezpata ekartzen zuten idoloak zirela— tentatuta egon zitezkeen gizatasun kolektiboari heltzeko, idolatratzeko objektu alternatibo gisa. «Gizatasunaren erlijio» batek, Comte-ren positibismoaren molde zurrunean tiraketan huts egin zuenak, mundua sutan jarri zuen komunismo marxistaren kanoi-zulotik disparatu zutenean. Arimak salbatzeagatik hil ala biziko borroka, Dea Roma eta Divus Caesar-en kultuetan gorpuzturiko gizatasun kolektiboaren gurtza helenikoaren aurka kristautasunak bere gaztaroan egin eta irabazi

zuena, berriro egin beharra ote zegoen bi mila urte geroago Leviatan beraren gurtzaren azkenaldiko haragitzeren baten aurka? Aurrekari helenikoak galdera hori planteatzen zuen, erantzuna eman gabe.

Orain Mendebaldeko munduan kolapsoaren sintometatik desintegrazioaren sintometara igarotzen bagara, gogoratuko dugu, «Zisma Gizarte Gorputzean» ataleko azterketan, hiruko zatiketa bereizgarriaren agerpenaren arrasto ukaezinak aurkitu genituela, Mendebaldeko azkenaldiko munduan: gutxiengo menderatzailea, barne-proletalgoa eta kanpo-proletalgoa.

Mendebaldeko kanpo-proletalgoak apenas azterketarik behar duen, zeren eta barbaro izanak desagertzen ari baitziren, ez suntsituta, baizik eta Mendebaldeko barne-proletalgoaren lerroetara pasaraziak zirelako, gizadiko belaunaldi biziaren gehiengo handi bat bere baitan hartzera iritsia zen barne-proletalgoaren lerroetara. Honela behartuta otzanduriko barbaroak Mendebaldeko Gizartean hogeigarren mendeko barne-proletalgoa osatzen zuten kontingente txikienetako bat ziren benetan. Askoz kopuru handiagoa Mendebaldekoak ez ziren zibilizazioetako jendeak, mundu-mailako sare mendebaldarrean harrapatuak, osatzen zuen. Hirugarren kontingente bat, hiruretako zoritxarrekoena eta, beraz, aktiboki disidenteena, hainbat jatorritako *déraciné*-ena zen, Mendebaldekoak edo ez Mendebaldekoak, hertsadura-maila desberdinak jasandakoak. Hor ziren afrikar beltz esklaboen ondorengoak, bortxaz Atlantikoan zehar eramanak; hor ziren kontratupeko indiar eta txinatar langileen ondorengoak ere, haien emigrazioa itsasoz bestaldera Afrikako esklaboena bezain nahi gabea izan zelarik. Baziren beste batzuk, itsasorik zeharkatu gabe, beren erroetatik erauziak. Proletarizazioaren adibiderik nabarmenenak Estatu Batuetako «Hegoalde Zaharrean» eta Hego Afrikako Batasunean «zuri behartuak» ziren, beren kide kolonizatzaile arrakastatsua goen afrikar esklabo inportatuen edo bertakoen gizarte-mailara eroriak. Baina multzo zorigabe nagusi horien guztien gainetik, esan zitekeen, eskubidez zegokiena Mendebaldeko gizarte-sistemak ez ziela ematen sentitzen zuten jendetzak, landatar edo hiritarrak, zeuden lekuan barne-proletalgo bat zegoela; zeren eta «proletalgoaren» gure definizioa, Azterlan honetan zehar, psikologikoa izan baita, eta, beraz, fisikoki gizarte batean sartuta aurkitzen ziren arren, espiritualki jada gizarte horretakoak «ez zirela» sentitzen zutenak adierazteko erabili dugu definizio hori.

Gutxiengo menderatzailearen aurkako erreakzio proletarioak adierazpide bortitza aurkitu zuen hainbat garaitan eta hainbat lekutan, Erdi Aroko nekazari-gerretatik Frantziar Iraultzako jakobinismoraino. Kristau-aroko hogeigarren mendearen erdian aurrez sekula baino indartsuago ari zen adierazten hori, eta bi bidetatik adierazi ere. Kexak, batez ere, ekonomikoak zirenean bide hori komunismoa zen. Politika edo arrazari buruzkoak zirenean, bidea errebolta nazionalista zen kolonialismoaren aurka.

K.o. 1955ean Mendebaldeko Zibilizazioari bloke komunista erruso-txinatarretik zetorkion mehatxua nabarmena zen. Aldi berean, kontuaren beste aldean baziren zenbait sarrera, ez hain harrigarriak, baina ez derrigorrez garrantzi gutxiagokoak.

Lehen puntua, Mendebaldeko Zibilizazio mehatxatu baten alde egon zitekeena, errusiar nazionalismoa komunismo ekumenikoan nahastuta egotea zen, paulotar jaiera pixka batekin, judu eta grekoen arteko bereizketa higuingarri ororen gainetik zegoela aldarrikatzen zuen komunismoan. Zintzotasun-gabezia hori akats bat zen komunismoaren armadura moralean. Ekialdeko Asian, Mendebaldeko kausa ezbehar larria pairatzen ari zen une batean, Kremlinako estatu-politikari ezpainixien bihotzetara begiratzeko gai zen Mendebaldeko telepatista ohar zitekeen beraien txinatar aliatuen arrakasta ikusgarriak sentimendu nahasiekin hartzen zituztela. Mantxuria, Mongolia eta Sinkiang-en etorkizuna, azken batean, askoz garrantzi handiagokoa zen Txinarentzat eta Errusiarentzat, Indotxina, Hong Kong eta Formosaren etorkizuna baino. Pentsa zitekeen Malenkov edo haren ondorengo Khrushchev edo Khrushcheven ondorengo posiblea, artean horizontean agertu gabea, beste Tito bat bilaka zitekeela, eta, Mendebaldeak Alemania eta Japonia berriro armatu ondoren, eta Sobietar Batasunak Txina, Mendebalde izutuak Errusia izutua aldarrika zezakeela «gizaki zuriaren itxaropen» gisa. Aspaldidanik ospe-gabeturiko Gilermo II.a kaiserrak ohartarazi zuen arrisku horiaz eta zorotzat jo zuten beldur horiengatik; hala ere, zenbait idazlek oraindik jarraitzen zuten pentsatzen kaiserra ez zela borondate oneko gizona soilik, baita oso buruargia ere; eta esanguratsua da puntu honetan Hitler bera ere kaiserraren iritziaz baliatu izana.

Lehen begiratuan konbentzigarria ez den pronostiko horrek oinarri sendoa zuen bi gertaera ukaezinetan. Errusia zen arraza

zuriaren ondarearen eremu nagusi bakarra, non biztanleria hazten ari baitzen hogeigarren mendean Mendebaldeko Europan eta Ipar Amerikan hemeretzigarren mendean hazi zen erritmo berean; eta Errusia zen, halaber, arraza zuriaren ondarearen eremua, Txina eta Indiako muga kontinentalekin mugakide zena. Bi azpikontinente horietako batek, edo biek, bakoitzak bere baitan zeukalarik ia giza-diaren laurden bat, arrakasta izaten bazuen mendebaldartze-prozesuan teknologiaren eta antolaketaren mailan, txinatar edo indiar giza baliabideek beren kopuru hutsaren proportzioan munduko balantza militar eta politikoan pisatzen hasteko punturaino, espero izatekoa zen hala indarturiko Sansonek ordu arte munduko lurralde eta natur baliabideen banaketa zabarki desberdina zorrotz berrikustea eskatu-ko zuela. Kasu horretan, Errusia, bizirik irauteko borrokan, beraren babespean eroso zegoen Mendebaldeko munduaren alde paper hau jokatzen aurki zitekeen nahigabe ere: indargetzaile edo motelgailua-rena egiteko zerbitzu sarigabea, Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusiak garai batean Mendebaldeko mundu berarentzat jokatua, eskualde lehargarria, ez India edo Txina, baizik eta arabiar musulman primitiboen gidaritza dinamikopean baturiko Hego-mendebaldeko Asia zenean.

Hauek oso iragarpen espekulatiboak ziren, bistan ez zegoen etorkizunari buruzkoak. Agian oinarri gehiago zegoen adore izateko beste honetan: muturrez aurrera txinatarrekin Korean talka egin eta Indotxinan ere etsigarriro nahastuta egon zen Mendebaldeko komunitateak lortua zuen indonesiarrekin ondo moldatzea, hauek japoniarrengandik askatzea lortu ondoren, eta bere borondatez utzi zuen filipinarren, zingales, birmaniar, indiar eta pakistandarren gain zuen agintea. Aurrez Britainiar Inperioaren mendeko izan ziren zenbait komunitatek ordezkaturiko Asiaren eta aro modernoaren azkenaldiko mendebaldar inperialismoaren dramatikotasunaren protagonistek ordezkaturiko Mendebaldeko Gizartearen arteko adiskidetzak itxaropen bat ireki zuen, hots, mundu-mailako barne-proletalgo mendebaldarrean zegoen asiarrak kontingente handiaren zati batek, gutxienez, mendebaldar gutxiengo menderatzaileagandik banatzera jo zuenak, bere norabidea aldatu eta helmuga alternatiborantz jo zezakeela, Mendebaldeko nagusi izandakoekin berdintasunean bazkide bihurtze-  
ra, alegia.

Mundu islamikoko asiar eta ipar afrikar probintzietan antzeko arazoa sortzea espero zitekeen, baita Saharaz hegoaldeko Afrika gehienera ere. Arazo latzagoa aurkezten zuten beste eremu batzuek: Mendebaldeko europarra, bere agintea ez ezik, bere bizilekua ere ezartzera tentatu zuen klimakoek; eta arazo bera sortu zen, ez hain era mehatxagarrian, gizaki zuriaren lan desatsegin eta oinarritzkoenak egiteko zuria ez zen jendea inportatu zen eskualdeetan. Mehatxu-mailako desberdintasuna, zuriaren ikuspuntutik, bertako biztanleriaren arraza-osaeraren estatistiketan agertzen zen. Zuria ez zena bertakoa zen lekuetan, Hego Afrikan adibidez, normalean askoz gehiago ziren kopuruz zuri menderatzaileak baino. Bortxaz inportatua izan zen lekuetan, Estatu Batuetan bezala, proportzioak alderantzizkoak ziren.

Estatu Batuetan, hau idazteko garaian, «arraza-oztopo» bat Indiaren bidetik kasta-bereizgarri bihurtzeko joerari aurka egiten zion kristautasunaren espirituaren kontra-eraginak; eta kontraeraso kristau hau itxaropenik gabeko zerbait ala «etorkizuneko uhina» zen esatea ezinezkoa izan arren, seinale ona zen, Estatu Batuetan Indian bezalaxe, espiritu ona ekinean jardun izana bi aldeetan. Gehiengo zuri menderatzailearen bihotzetan beltzen esklabotasuna deuseztu beharra azpimarratu zuen kristau-kontzientzia emantzipazio juridiko hutsa nahikoa ez zela ohartzera iritsi zen, eta beste aldean koloreko gutxiengo proletarioak ere espiritu berberaz erantzuteko seinaleak adierazi zituen.

Barne-proletalgoaren alienazioa, Azterlan honen lehenagoko zati batean aurkitu dugunez, zibilizazio baten desintegrazioaren sintomarik nabariena da; eta, hau gogoan dugula, aztertu dugu ea zer proba egon ote zitekeen, bai alienazioarena eta bai adiskidetzearena, Mendebaldeko Gizartearen baitan, hau kristau-aroko hogeigarren mendearen erdian zegoen bezala. Orain arte aztertu ditugun proletalgoaren osagaiak ez ziren jatorriz Mendebaldekoak, baizik eta Mendebaldeko Gizartearen mugen barnera Mendebaldearen mundu-mailako hedapenak ekarritakoak ziren. Artean geratzen zen, zer esanik ez, bere gutxiengo menderatzaileagandik arrazaz bereiztezina zen proletalgoaren zati hori guztia; Mendebaldeko gizon eta emakumeen gehiengo zabal hori, «goi-mailakoek», hemeretzigarren mendeko gutxiengo pribilegiatu mendebaldarrean jaioek, honelako izenez aipatzen zutena: «langile-klaseak», «beheko klaseak», «jendaila»,

«masak» eta (nolabaiteko gutxiespen isekariz) «narrats handia» (herri xehea) ere bai. Hemen gaiaren neurrigabetasuna etsigarria da. Nahikoa bedi esatea ia Mendebaldeko herrialde guztietan, eta berezi-kiago Mendebaldeko herrialderik industrializatu eta modernizatu-  
netan, iragan mende-erdian izugarrizko aurrerapen praktikoa egin zela gizarte-zuzentasunerantz bizitzako arlo guztietan. Indiak Britainiar Inperiotik burujabetasuna lortzeko egin zuen iraultza politikoa ez zen ohargarriagoa Britainia Handian zerturiko gizarte-iraultza baino; honen bidez Mendebaldeko herrialde bat —non boterea, aberastasuna eta aukera guztiak, gogora zitekeen denboran, higuinarrirako txiki eta eskandalagarriro pribilegiatua zen gutxiengo batentzat gordeak baitzi-  
ren— eraldatu egin zen, alde bateko nahiz bestekoei oso kalte txikia eginez, gizarte-zuzentasunaren zati handi bat askatasun indibiduala-  
ren sakrifizio txikiena ordaindu ziurtatu zuen komunitate bilakatu zen.

Mendebaldeko Zibilizazioak barne-proletalgoaren banakuntza-  
rengatik porrot egiteko aukeraz lehen aipatu diren aurkako datuek, baita aldekoek ere, bi ondorio hipotetiko iradokitzen dituzte. Lehenik, adiskidetze-indarrek indartsuagoak ziruditen, Gizarte Helenikoan bere historian zegokion fasean jardundako indarrek baino. Bigarren, Mendebaldeko munduaren aldeko desberdintasun honek bazirudien, batez ere, kristautasunaren espirituaren etengabeko eraginari zor zitzaioela, artean galdu gabea zuelarik bere agintea Mendebaldeko gizon-emakumeen bihotzetan, nahiz eta hauen gogoek errefusatu-  
zuten kristautasunaren egia iraunkorrak filosofia heleniko paganoaren hizkera iragankorrera aldatu zituen sinesbidea.

Erlijio nagusi baten bizitasun iraunkorra, garai batean Mendebaldeko larba-gizarte bati bere krisalida eman ziona, nabarmen falta izandako elementua zen gainerantzean alderagarria zen egoera helenikoan; eta suposa zitekeen bazela nolabaiteko erlazioa kristau-  
tasunaren muin espiritualaren itxurazko garaitezintasun horren eta erli-  
jioen uzta berriaren gutxitasun eta idortasunaren artean, erlijio hauek garai hartan han-hemenka burua altxatzen ari zirelarik mendebaldar-  
tzen ari zen munduan.

Horregatik esan dezakegu Mendebaldekoak ez ziren aurreka-  
rien frogak, Mendebaldeko Zibilizazioaren etorkizunari buruzkoak, ez zirela erabakigarriak.

## 2.

### *Aurrekaririk gabeko Mendebaldeko esperientziak*

Orain arte Mendebalde postmodernoaren egoeran aztertu ditugun elementuak beste zibilizazioen historietako elementuekin parekagarri direnak izan dira, baina halaber badira elementuak beste zibilizazioen historietan parekorik ez dutenak. Paralelorik gabeko ezaugarri horietako bi oso nabarmen daude. Lehen, Mendebaldeko gizakiak gizatiarra ez den naturaren gain lorturiko nagusitasuna hedatzea; bigarrena, nagusitasun horrek zekarren gizarte-aldaketaren lastertasun azeleratua.

Gizakia aurrerapen teknologikoan paleolitikoaren beheko fase-tik goikora igaro zenetik, gizadia beti izan zen kreazioaren jaun lurrean zentzu honetan: garai hartatik aurrera natura bizigabeari edo beste edozein izaki ez-gizatiarri ezinezkoa zitzaiolako gizadia suntsitzea, edo baita giza aurrerapena etetea ere. Aurrerantzean, ezer ezin zen lurrean, salbuespen bakar batekin, gizakiaren bidean jarri edo gizakia hondamenekarri; baina salbuespen hori ikaragarria zen, gizakia bera, alegia. Ikusi dugun bezala, gizakiak ekarria zion bere buruari atsekabea hamalau edo hamabost zibilizazioetan izandako portaera txarraz. Azkenean, K.o. 1945ean, bonba atomikoa lehertzeak garbi utzi zuen gizakiak gizatiarra ez den naturaren gain lortua zuen kontrol-mailak jada ezinezko bihurtzen zuela bi gaitzen erronka luzaroagoan saihestea, bere buruari gizarte-mota berri bat —zibilizazio-prozesuan zeuden gizarte formak— emateko egintzan bertan berak mundura ekarritako gaitzak. Bi gaitz horiek gerraren gaitz bakarraren bi adierazpen desberdin ziren, nahiz eta komenigarria litzatekeen bereiztea izen desberdinak emanez: gerra, normalean ulertzen den bezala, eta klase-gerra: gerra horizontala eta gerra bertikala, beste era batera esanda.

Gizadia oso gaizki prestatua zegoen egoera horri aurre egiteko. Bere etorkizuna aztertzeke, gure zeregina sinplifikatuko dugu banatuta aztertzen baditugu, lehenengo teknologia, gerra eta gobernua, eta gero teknologia, klase-gatazka eta enplegua.



## XLII. TEKNOLOGIA, GERRA ETA GOBERNAMENDUA

### 1.

#### *Hirugarrenmundu-gerrarenaukera*

Bi mundu-gerraren ondorioz, botere handien kopurua aniztasun aldakorretik —estatu batzuek, Italiak adibidez, titulua adeitasunez eramane zuten, nahiz eta mundu guztiak zekien ezingo ziotela eutsi— bira bakarrik murriztu zen: Estatu Batuak eta Sobietar Batasuna. Sobietar Batasunak Ekialdeko Alemaniaren gain ezarri zuen bere agintea, baita Habsburgo eta Otomandar Inperio izandakoen ondorengo estatu gehienek gain ere, Hirugarren Reich aleman nazional-sozialista iragankorrak, Bigarren Mundu Gerran, bere mende hartutakoen gain. Mendebaldeko Alemania eta gerra-arteko Austriar Errepublika auzokoen atzetik 1956rako Errusiaren sabelera ez joateko arrazoi bakarra zera izan zen: tarte horretan Estatu Batuen eta Mendebaldeko Europako aliatuen babespean jarriak zirela. Garai honetarako garbi zegoen independentzia eustezinaren ordeztu Estatu Batuen protektoratu bat hartzea zela aginte errusiar (edo txinatarraren) aurkako aseguru bakarra, epe luzera edozein estatuturi munduko edozein aldetan eragin-korra izateko aukera eskaintzen ziona.

Paper hori, Estatu Batuentzat Mundu Zaharrean paper berria zena, aspaldidanik ezaguna zitzaion hari Mundu Berrian. Aliantza Santuaren egunetatik Hirugarren Reicharen egunetaraino Monroe doktrinak salbatu zituen espainiar eta portugaldar inperioen ondorengo estatuak Ameriketara europar botereren baten mende erortzetik, baina espainiar edo portugaldar administrazio kolonialaren ordeztu

Estatu Batuen hegemonia hartzearen ordainetan. Ongileak nekez izaten dira ospetsuak, eta beraien onegintzak erabat desinteresatuak ez badira, behintzat, baliteke erabat ez merezi izatea ere. Adibidez, frantziarrak Estatu Batuekiko zituen sentimenduak K.o. 1945az geroztik ez ziren oso desberdinak, brasildarrek azken ehun urteetan edozein unetan izandakoen aldean.

Nolanahi dela ere, Sobietar Batasuna eta Estatu Batuak K.o. 1956an elkarren aurrean aurkitu ziren, lur gainean bizirik zirautez bi botere handi bakar gisan; eta nazioarteko botere-orekan bi, kasurik onenean ere, kopuru txarra zen. Egia zen, hogeitaz hamar urte lehenago Alemania eta Japonia ez bezala, biak ekonomikoki herrialde «aseak» zirela, laneku guztientzat, ondorengo hamarkada askotan, beren lurraldeak lantzen enplegu baketsua aurki zezaketenak. Baina iraganezko historiak erakutsia zuen elkarrenganako beldurra ekonomi gabezia bezain gerra-sortzaile indartsua zela. Errusiar eta amerikar herriak gaizki prestatuta zeuden elkar ulertzeko. Errusiar herriaren ohiko izaera etsipen otzana zen, amerikar herriarena urduritasun zalapartatsua; eta izaera-desberdintasun hau gobernu arbitrarioarekiko zuten jarrera desberdinean islatzen zen. Errusiarrek ezinbestekotzat onartzen zuten bitartean, amerikarrek beren historiatik ikasia zuten erakunde gaiztotzat hartzen, nahi izanez gero edozein herri ere izateko. Amerikarrek beren *summum bonum*-a askatasun pertsonalean ikusten zuten bitartean, berdintasunarekin oso nekez identifikatzen zutena, errusiar gutxiengo menderatzaile komunistak bere *summum bonum*-a berdintasun teorikoan ikusten zuten, askatasunarekin are nekezago identifikatzen zutena.

Temperamentu eta doktrina mailako desberdintasun horiek zail bihurtu zuten bi herrientzat elkar ulertu eta elkarrez fidatzea; eta elkarrekiko mesfidantza horrek beldurra ekarri zuen, elkar mehatxatzen zuteneko borroka-lekua ia ezagutu ezin zen moduan aldatu baitzuen teknologiaren arloan sekula ezagutu gabeko aurrerapen bizkorrak, eta honek garai batean zabala zen mundua oso neurri txikietara murriztu zuen, aurrerantzean ezinezkoa izanik lehiakideentzat borroka-leku horretan egotea elkarren ondo-ondoan egon gabe.

Honela teknologikoki baturiko munduan, bazirudien munduko boterea lortzeko Sobietar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko lehia epe luzera gizadiko belaunaldi biziaren hiru laurdenen bozka-

tzeaz erabakiko zela, zibilizazioaren egunsentitik bost edo sei mila urte geroago, bizitzako maila materialean artean neolitikoan bizi ziren baina bizi-maila hobea posible zela ohartzen hasiak ziren hiru laurdenen bozkatzeaz, alegia. Amerikar eta errusiar bizimoduen artean orain aurrean zuten aukera hori egitean, orain arte murgilduta egondako gehiengo horrek bietatik zera aukeratuko zuela espero zitekeen: esnatzen ari zen gehiengoaren gurari iraultzaileak asetzeko egokiena zirudiena. Hala ere, azken hitza ordu arte murgildutako gizadiaren gehiengo ez-mendebaldar horrek izan zezakeen arren, bazitekeen, epe laburrera, erruso-amerikar balantzaren plateretan pisu erabakigarria ez izatea munduko biztanleen hiru laurden horiek, baizik eta munduko egungo gerra-potentziala industrialaren laurdena, oraindik Mendebaldeko Europan kokatua. Oro har hitz eginda, esan zitekeen orain kontinente bakarra zegoela, Eurafasia, bi uharte handiz inguratua, Ipar eta Hego Amerikaz. Ikuspegi global honetan, Errusia botere kontinental gisa agertzen zen, eta Estatu Batuak uharte-botere gisa.... Mendebaldeko historia-  
ren aro «modernoan» «europar» gerra interparrokialetan Britainiak uharte-boterearen papera eta Espainiak, Frantziak eta Alemaniak ondoz ondo Britainiaren etsai kontinental izateko papera jokatu zuten bezalaxe. Borroka-leku postmoderno globalean Mendebaldeko europar sektorea artean erabakigarria zen, uharte-boterearen zubiburu kontinental baitzen. Iragan garaietan, Flandes izan zen Mendebaldeko Europako «oilartegia», non parroki estatu gerrari zentzagitzez beren guduak egin baitzituzten. Orain, Mendebaldeko Europa osoak zirudien markatua, beste gerra orokor bat gertatuz gero, mendebaldartzen ari zen munduko «oilartegi» izateko. Agian, bazen justizia poetiko bat mapa estrategikoa-  
ren eraldaketa honetan; baina honek ez zuen Mendebaldeko europar-  
rentzat K.o. 1946az geroztik «oilartegi» batean bizitzea atseginago bihurtzen, flandestarrentzat hamabosgarren mendearen bukaera baino lehenagotik izan zena baino.

Teknologiaren aurrerapenak ez zeukan ahalmenik giza sentimenduek giza arazoen martxan zuten nagusitasuna gutxitzeko. Militarismoa ez da teknologiaren arazoa, psikologiarena baizik: borrokatzeko borondatea. Gerrak kilikagarriak dira beste nonbait eta beste batzuek egiten dituztenean. Agian pasatu eta eginda gero

izaten dira kilikagarrienak; eta zibilizazio guztietako historialariek tradizionalki beren arloko gairik interesgarrientzat jo izan dituzte. Armadarik gehienak iraganean txiki samarrak ziren, eta neurri handi batean borrokatzea beste zeregin batzuk baino nahiago zuen jendeak osatzen zituen. Baina Frantzia iraultzailean K.o. 1792an *levée en masse* egin zenetik, Mendebalde modernoko gerragintza askoz gauza serioagoa bihurtu zen; eta etorkizuneko gerragintzak askoz gauza serioagoa izateko mehatxua zeukan. Gerrak, orain, esperimentatu zuten herrien militarismoa akabatu egin ohi zuen, eta herriaren borondatea gobernu autokratiko batek ere azkenean onartu behar duen indarra da. Lehen Mundu Gerran gehien sufritu zuten herrialdeen artean, Frantziak ia uko egin zion bigarrena jasateari. Hitlerrek arrakasta izan zuen beste militarismo-kolpe batera alemanak suspertzen; baina K.o. 1956an ez zegoen ziur beste Hitler batek —beste bat sortu balitz— *tour de force* bera lortu ahal izango zuenik berriro. Esanguratsua zen diktadore komunisten ohiko epiteto kutuna «bake-maitale» izatea. Napoleonek Santa Elenan gerra *belle occupation* gisa deskribatu zuen; baina duda egitekoa da hitz horiek gerra atomikoaz ere esango zituenik, gerraren etorrera ikusteko bizi izan balitz.

Gogoeta horiek lehenengo zibilizazio aurreratuetako herriei aplikatu zekizkiekeen, hogeigarren mendeko gerragintza zuzen-zuzenean esperimentatu zutenei. Asiako herrien ohiko otzantasunak, bestalde, aspaldi-aspalditik, gobernu arbitrarioekiko obedientzia pasiboaren forma politikoa hartu izan zuen; eta mendebaldartzearen kultur prozesuak Mendebaldeko teknika militarra eskuratzearen oinarritzko lorpena baino askoz urrutirago iritsi beharko zuen, Asiako nekazari-soldadua bere bizitza sakrifikatzeko aginduak eztabaidatzea, edo ez betetzea, pentsatzen hasi baino lehen, nahiz eta berari pertsonalki ezer esaten ez zion eraso-gerra bat izan. Hogeigarren mendearen erdialdeko asiarrak gobernuak noraino jarrai zezaketen mendekoengan sakon sustraituriko otzantasuna ustiatzen xede militarretarako? Mendebaldekoen begietara, bazirudien Txina eta Errusiako nekazari-soldaduak bere gobernuari txeke zuria eman ziola bere bizitzaren gain; hala ere, Historiak erakutsi zuen bazela muga bat eta ez txinatar, ez errusiar gobernuak ezin zirela ausartu muga horretaz harantzago joaten, zigorrik gabe. Txinako errejime-

nek, Tsin erregimenetik Kuomintang-eraino, torlojuari bira bat gehiegi ematen ausartu zirenek, behin eta berriro ordaindu zuten gehiegikeria arin hori gobernu-mandatua galduz; eta errusiar historian gauza bera gertatu zen.

Tsarismoak, 1860ko erreformak eginez Krimeako gerran sufritzen ari zen errusiar herriaren gainetik eztena kentzeko zuhurtzia izan zuenak, bere bizitzarekin ordaindu zuen arazoari aurrea hartu nahi ez izateko setakeria ondoz ondoko porrot militarrengatik zegokion erreskatea ordainduz: lehenengo K.o. 1904-5eko japoniar gerran, azken urte honetako errusiar iraultza huts egina eragin zuena, eta gero Lehen Mundu Gerran, K.o. 1917ko iraultza bikoitza eragin zuena. Ematen zuen, beraz, bazirela muga batzuk, non Errusiaren edo beste edozein nekazari-herrialderen *moralak* kolapsoa izan baitzezakeen. Hala ere, gertagarriagoa zirudien Sobietar Batasuneko gobernuak Estatu Batuekiko gerra baten izugarrikeriei aurre egitea Estatu Batuei amore-emate politikoak egitea baino, hau, errusiarren begietara, amerikar nagusitasunaren mende jartzea bezala izango zen eta.

Honela, gertagarria bazirudien egoera batzuetan Sobietar Batasuna gerrara joan zitekeela eta joango zela bere tamainako potentzia baten aurka, iragar ote zitekeen gauza bera Estatu Batuei buruz? K.o. 1956an erantzunak baiezkoa zirudien. Hamahiru Kolonietako zaharrenaren lehenengo ezarpenetik, amerikar herria militarismo txikieneko bat izan zen, nahiz eta aldi berean, Mendebaldeko nazioen artean, martzialenetakoa izan. Militarismorik gabea izan zen desatsegin zitzaiolako diziplina militarren mende jartzea eta ez zuelako gutizia galikorik bere herrialdea loria militarra irabazten ikusteko. Martziala izan zen, *circa* K.o. 1890ean muga itxi zen garaia arte, beti izan zuelako bere artean muga-gizonen kontingente bat, armak eramaten ez ezik, beren eginkizun pribatuetan nahierara erabiltzen ere ohituta zeudenak: egoera hau aspalditxo gaundituta zegoen Mendebaldeko Europa gehiengan. Amerikar muga-gizonen hamar belaunaldiren espiritu martziala Ipar Amerikako indiarrek edozein unetan ezagutuko zuten, britainiar uharteetatik joanda gizon zuria amerikar kostetan lehenengoz lehorreratu zenetik; ingeles kolonizatzaileen frantziar lehiakideek, hemezortzigarren mendean; eta haien biktima mexika-

rrek, hemeretzigarren mendean; eta Ipar Amerikaz jabetzeagatik anglo-amerikar muga-gizonen eta lehiakideen arteko topaketa hauek erakusten zuten muga-gizonak ez ezik, amerikar herri osoa zegoela prest, salbuespen gisa eta aldi baterako, diziplina militarren mende jartzeko, hau gabe muga-gizonen espiritu eta balentria pertsonalak ezingo zirelarik nagusitu beren kultur mailako antagonisten kontra.

Amerikar herrian oro har ezkutuan zeuden nolakotasun militarrek 1917-18 eta 1941-45eko aleman-amerikar gerretan agertu zitzaizkien aurkari alemanei; baina amerikar adore, diziplina, estrategia eta iraunkortasunaren erakusketarik zirraragarriena amerikarrek elkarren aurka zertutako gerra batean eman zuten. K.o. 1861-5eko gerra, Batasunaren eta Konfederazioaren artekoa, Napoleon erori zenetik Lehen Mundu Gerra piztu arte Mendebaldeko munduan egin diren gerra guztietako luzeena, setatiena, hildako gehien eragin zituen eta teknologi berrikuntzetan emankorrena izan zen. Gainera, bi mundu-gerrek, belaunaldi baten bizitzan egindakoek, amerikar gerra zibilak Hegoaldea bezain gogor Alemania eta beraren errusiar eta Mendebaldeko europar biktimak suntsitu zituztenek, ia kalterik gabe utzi zituzten Estatu Batuak. Bi mundu-gerrek bizitza baten iraunaldian Mendebaldeko europarren *morealean* eragin zituzten ondorio psikologikoak apenas sumatu ziren Atlantikoaren amerikar aldean; eta K.o. 1956an ezin zen duda egin amerikar herria prest zegoela Sobietar Batasunarekiko gerra baten izugarrikeriei aurre egiteko Sobietar Batasunari inolako amore-ematerik egin baino lehen, hau, amerikarren begietara, errusiar nagusitasunaren mende jartzea bezala izango zen eta.

Baina aurreko frogabide historiko hori, zenbait zirkunstantzietan amerikar eta errusiarren aldetik gerrarako borondatea egon zitekeela adierazten zuena, gerragintza atomikoak izandako garapenaren eta honen eragin psikologikoaren argitan aztertu behar da, hogeigarren mendearen erdialdeko egoeran, garapen teknologikoak eurak baino askoz atzerago geratzen ez zen eraginaren argitan. Herrialde edo kausa baten alde hiltzea heroismo-ekintza alfer eta zentzugabe bihurtzen da ziur froga daitekeenean herrialde hori patriotarekin batera galduko dela, eta kausa bere jarraitzailearekin batera, dena barne hartuko duen hondamendian.

## 2.

### *Etorkizuneko mundu-ordenarantz*

K.o. 1955erako gerra deusezte beharrezko bihurtu zen; baina ezin zen deuseztu energia atomikoaren kontrola aginte politiko bakar baten eskuetan biltzen ez bazen, behintzat. Garaiko arma nagusiaren kontrolaren monopolio honek aginte hori gaitu eta, egia esateko, behartu egingo zuen munduko gobernuaren papera bere gain hartzeko. Gobernu honen benetako egonlekuak, K. o. 1955eko egoeran, edo Washingtonen edo Moskun egon behar zuen; baina ez Estatu Batuak, ez Sobietar Batasuna zeuden prest elkarren mende jartzeko.

Pauso zail honetan erresistentzia psikologiko txikieneko ildo tradizionala, dudarik gabe, era zaharreko baliabide batera jotzea zen, guduaren ordaliara. Ikusi dugun bezala, «knock-out kolpea» zen kolapsaturiko zibilizazioak beren arazoalditik estatu unibertsalera igarotzeko baliabide basatia. Baina okasio honetan *knock-out* kolpeak jokoz kanpo utz zezakeen ez aurkaria bakarrik, baita garailea, epailea, boxeoko ring-a eta ikusle guztiak ere.

Egoera honetan, Estatu Batuetako eta Sobietar Batasuneko gobernuak eta herriek «baterako bizikidetasun baketsua» delako politikan irauteko pazientzia izatea zen gizadiaren etorkizunerako itxaropenik onena. Ongizatearen aurkako eta, egia esanda, giza arrazaren iraupenerako mehatxurik handiena ez zen arma atomikoak asmatzea, baizik eta bizidunen giza arimetan Goiz Aro Modernoan Mendebaldeko munduan ehun bat urtez, *circa* K.o. 1560an Mendebaldeko erlijio-gerrak piztu zirenean hasita, nagusitu zen bezalako jarrera bat sortzea. Hogeigarren mendearen bigarren erdiaren hasieran baziren kapitalistak eta komunistak, haien aurreko katoliko eta protestanteak bezalaxe, benetako fedearen (berenaren) eta heresia gaitzesgarri baten (etsaienaren) artean gizartearen leialtasuna banatuta uztea denboraldi mugagabe batez ezinezkoa eta toleragaitza aurkitzen zutenak. Baina Mendebaldeko erlijio-gerren historiak erakusten zuen arazo espiritua-lak ezin zirela arma bidez konpondu; eta gizadiak arma atomikoak eskuratzeak ohartarazten zuen ez zegoela kapitalista eta komunisten-tzat aukerarik erlijiozko gerren hutsalkeria probaldi luze baten meto-do enpirikoaren bidez ikasteko, nahiz eta hau egingarria izan zen kato-

liko eta protestanteentzat gizakiaren armarik txarrenak ezpatak, astamakilak eta mosketeak ziren garaian.

Hain egoera prekario eta ilunetan, baikortasun dogmatikoa ezkortasun dogmatikoa bezain justifikaezina zen; eta gizadiaren belaunaldi biziak ez zuen beste aukerarik, aurrean zeuzkan gaietan bere existentzia bera jokoan egon zitekeela eta emaitza zein izango zen asmatzea ezinezkoa zela jakitearekin ahalik eta ongien adiskidetzeari baizik. K.o. 1955ean Noeren Kutxan zeuden etengabeko haur abandonatu hauek Thor Heyerdahl eta bost lagun bikingoak enborrez egindako almadia batean 1947ko abuztuaren 7ko goizean aurkitu ziren egoeran zeuden. Goiz tamalgarri hartan mendebalderantz zihorantz itsas lasterrak, *Kon-Tiki* almadia 4.300 milia Ozeano Barean zehar eramanez zuenak, orain Raroia uharrietarantz zeraman. Hesi haren gainetik katxoen lerroaz harantzago hurbiltzen ari ziren marinelek palmondoen adaburu lumatsuak begizatzen zituzten, eta bazekiten palmondo haiek uharte idilikoak apaintzen zituztela aintzira bare batean; baina beraien eta babes-portu haren artean uharri apartu eta trumoiatsuak zeuden «lerro batean ostertzetik ostertzera»<sup>113</sup>, eta urlasterrak eta haizeak ez ziren nabigatzaileei ingurabidez hurbiltzeko aukerarik ematen. Saihestezinezko ordaliarantz zihorantz halabarharrez; eta egoera hartan edozein bidaiarik izan zitzakeen alternatibak zein ziren jakin arren, ezin zuten asmatu alternatiba haietatik zein izango zen beren sagaren bukaera.

Almadia katxoen artean desegiten bazen, tripulazioa zati-zati eginda utziko zuten koral zorrotzek, heriotza mingarri hartatik bizkor itota salbatzen ez baziren, behintzat. Almadiak osorik irauten bazuen eta, katxoiek —almadia uharrien gainera eta lehorrera botaz— beren maltzurkeria desegin arte, eskifaiak almadiari helduta jarraitzea lortzen bazuen, naufragoak aintzira barean igerian zeharkatu eta palmondoz hornituriko uharte haietako batera iritsi ahal izango ziren bizirik. Almadia uharrietara iristeko unea bat etorritik gero itsasgora batekin, uharriak urpean murgilduta uzten zituen katxoiek baretzera behartuz, *Kon-Tiki*-k, azken batean, zeharkatu ahal izango zuen heriotzaren marra ur lasaietan, eta kalterik gabe iritsi honela. Gertatu zena zera izan zen, itsasgora etorri zela egitura zigortu hura uharrietatik aintzirara eramanez katxoiek koral-multzo soildu baten gainean utzi eta egun batzuk geroago; baina 1947ko abuztuaren 7ko goizean *Kon-Tiki*



gainean zegoen inork ezin zezakeen esan patu gertagarri haietatik zein izango zen berea.

Eskandinaviako sei nabigatzaile gazte haiek egun hartan izandako esperientzia gizadiak kristau-aroko hogeigarren mendearen bigarren erdiaren hasieran oraindik aurrean zeukan probaren alegoria egokia zen. Zibilizazio-kutxa bat, bost edo sei mila urteko denbora-distantzia egin zuena Historiako ozeanoan zehar, uharrietarantz zihotan, eskifaiaik ezingo zuelarik haiek inguratuz nabigatu. Aurrean zeukaten arrisku saihestezina amerikar eta errusiar eremuetan zatituriko munduaren eta aginte politiko bakar baten kontrolpean baturiko munduaren arteko trantsizio arriskutsua zen, aginte honek, arma atomikoen garaian, egungo aginte-banaketa ordeztu behar zuelarik, lehenago edo geroago, era batera edo bestera. Baketsua ala hondagarria izango zen trantsizioa? Eta hondagarria izanez gero, hondamendia erabatekoa eta konponezina izango ote zen, ala partziala eta azkenean suspertze geldo eta mingarria lortu ahal izateko elementuak utziko ote zituen bere atzean? Hitz hauek idazteko garaian inork ezin zuen aurrez jakin zein izango zen munduak aurrean zeukan ordaliaren emaitza.

Hala ere, gertatu ondorengo jakinduria errazaren zain egon gabe, behatzaileak agian espekula dezake onuragarriro etorkizun dau den gauzen formaz, betiere sistema ekumeniko batek Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren inguruan gauzatu ziren bi sistema erdimundutar haietako bakoitzarekin bide zeuzkan elementu komunetara mugatzen badu etorkizuneko mundu-ordenari buruzko gogoeta.

Teknologiak garraiorako erraztasunak eman zitzakeen, eta ematen zituen neurrian, mundu-mailako gobernu oso proposamen egingarria zen jada. Baina teknologiaren mailatik giza izaeraren mailara igo —edo jaitsi— orduko, lureko paradisua, *homo faber*-aren argitasunak trebeki eratua, *homo politicus*-aren maltzurkeriak zentzugabearen paradisu bihurtua aurkitzen dugu. «Gizakiaren parlamentua» —bere inaugurazioa Tennyson profetak gutxi gorabehera aireplanoaren asmakuntzarekin sinkronizatzen zuela zirudien— Nazio Batuen Erakundearen izen prosaikoagoarekin zegoen orain; eta NBE (UNO) ez zen gertatu bere kritikariek batzuetan esaten zuten bezain eraginkortasun gutxikoa. Bestalde, garbi zegoen NBE ez zela gai munduko gobernu baten enbrioi bilakatzeko. Botere-banaketaren

errealitatea ez zegoen islatuta errealista ez zen «estatu bat, boto bat» printzipioa gorpuztu zuen konstituzio baten zabarkerian, gero estatuen berdintasun fiktizioa errealitate latzaren ildora ekartzeko ez zuelarik bide hoberik asmatu bost botereri —hauetako bat Txinatik Formosara murriztua— betoa ematea baino, izenez parekide zirenei ukaturiko betoa. NBERentzat ikusten zen etorkizunik onena foro hutsa izatetik konfederazio izatera igarotzea zen; baina leize handia dago estatu burujabeen konfederazioaren eta herrien konfederazioaren artean, herri hauetan gobernu zentral bat dagoelarik batasuneko hiritar bakoitzaren zuzeneko leialtasun pertsonala eskatu eta hartzen duena; eta garbi zegoen erakunde politikoen historiak ez zuela ezagutzen kasurik leize hori gainditua zuenik jauzi iraultzailearen bidetik izan ezik.

Honen arabera, NBEk ez zirudien erakunde-gunea izango zenik, nondik azkenean ezinbestean haziko baitzen munduko gobernu bat. Gertagarriagoa zirudien hau, ez NBERen garapenez, baizik eta bi «enpresa» politiko zaharren eta gogorrenetako baten edo bestearen, Estatu Batuetako gobernuaren edo Sobietar Batasuneko gobernuaren, garapenez eratzea.

Gizadiko belaunaldi bizia horien artean aukeratzeko aske izan balitz, Mendebaldeko behatzaile ororen buruan zalantza gutxi zegoen, gai honetaz iritzia emateko gai ziren gizon-emakume bizi guztien gehiengo handi batek Estatu Batuen mendeko izatea aukeratuko zukeela Sobietar Batasunaren mendeko izatea baino lehen. Estatu Batuak askoz ere nahigarriago bihurtzen zituzten bertuteak oso nabarmen zeuden errusiar komunismoarekin alderatuz.

Amerikaren bertute nagusia bere oraingo eta etorkizuneko mendekoen ikuspegitik zera zen: argi eta zintzo oso gogo gutxi zuela inola ere paper hori jokatzen hasteko. Amerikar hiritarren belaunaldi biziaren zati garrantzitsu bat, baita eurak etorkinak ez ziren amerikar hiritar guztien arbasoak ere, sustraiak Mundu Zaharretik kentzera eta bizitza Mundu Berrian berriro hastera kontinente zaharreko arazoetatik libratzeko irrikak bultzatu zituen, eta garbi zegoen hango hautsa astindua zutela oinetatik; eta erretiratze hori egiteko izan zuten itxaropenaren baikortasuna bat zetorren amerikarren belaunaldi bizia bere nahitaezko itzulera egiten ari zen damuaren bizitasunarekin. Nahitaezkoatasuna, ikusi dugun bezala, Mundu Zahar eta Berria bakar eta banaezin egiten zituen «distantzia deuseztearen» alderdi bat zen;

baina nahitaezkotasun hau gero eta garbiago aitortu arren, onartzeko zegoen uzkurtasuna ez zen gero eta txikiagoa.

Amerikarren bigarren bertute nabarmena haien eskuzabaltasuna zen. Estatu Batuak eta Sobietar Batasuna botere «aseak» ziren, baina haien egoera ekonomiko eta soziala zentzu orokor honetan bakarrik zen berdina, hots, Errusiak, Amerikak bezalaxe, ustiatu gabeko baliabide handiak zituela. Amerika ez bezala, Errusia ia hasi gabe zegoen bere ahalbideak ustiatzen, eta, giza ahalegin eta sufri-menduari dagokionez kostu izugarriarekin, K.o. 1941ean alemanek egin zioten erasoaren aurre-aurreko hamabi urteetan lortua zuen garapena inbasioak hondatu zuen neurri handi batean. Gero, errusiarrak irabazleen aldean aurkitzearen abantaila bidegabeaz baliatu ziren eta, alemanek Errusiako industri plantak suntsitu izanaren kalte-ordaina hartzeko, plantak hartu eta eraman egin zituzten, ez bakarrik errudun zen Alemaniatik, baita Eki eta Erdialdeko europar herrialdeetatik ere —errusiarrek adierazten zutenenez, naziengandik askatzen ari zirenak— eta Mantxuriako txinatar probintzietatik —errusiarrek ziotenez, japoniarrengandik askatzen ari zirenak—. Honek benetan kontrastatzen zuen gerraosteko amerikarren berreraikitze-politikarekin, Marshall Planaren eta beste neurri batzuen bidez gauzatuarekin: politika honetan zenbait herrialde, bizitza gerragatik desantolatuta zutenak, altxatu egin ziren berriro Washingtingo Kongresuak bozkaturiko diruaz, amerikar zerga-ordaintzailearen borondate onaz, haren patrikatik irten behar baitzuen diru hark guztiak. Iraganean botere garaileek ez ematea baizik eta hartzea zen ohitura, eta ohitura txar horretatik ez zen urrundu Sobietar Batasunaren politika. Marshall Planak arau berri bat ezarri zuen, halakorik aurrez historian ez zelarik izan. Esan zitekeen politika eskuzabal hau, luzera eta argitasunez begiratuta, Amerikaren beraren intereserako zela; baina egintza onak ez dira txarragoak, aldi berean, zuhurrak izateagatik.

Mendebaldeko europar herrialdeetako hiritarrak, hala ere, beldur ziren amerikar erabakiren batek, horretan Mendebaldeko europar herriek zer esanik izan gabe, errusiarren arma atomikoak buru gainera ekarriko ote zizkien, errusiar probokazioren bati amerikarrek emandako erantzun zalapartatsuaren nahigabeko ondorio gisa. Amerikar Batasunaren estatu sateliteek, ikuspegi gehienetatik, ekin-tza-askatasun inbidiagarria zuten arren, Sobietar Batasunaren satelite-

ei erabat ukatzen zitzaiena, haiek ere egoera etsigarri berean aurkitzen ziren hil ala biziko gai hauetan.

K.o. 1895ean, Britainiar Guayana eta Venezuela arteko mugaren kokapenari buruzko anglo-amerikar eztabaidaren bati lotuta, amerikar estatu-idazkari zen Richard Olneyk adierazpen ospetsua egin zuen, haren izenari oraindik baduen hilezkortasuna eman ziona.

*«Gaur egun Estatu Batuak ia subiranoak dira kontinente hone-tan, eta beren fiat-a lege da beraiek esku hartzen duten gaietan. Zergatik? Ez da adiskidetasun hutsagatik edo beraierenganako boron-date onagatik. Ezta ere soilik estatu zibilizatu gisa duten goi-izaera-gatik, ezta zuhurtzia eta zuzentasuna eta ekitatea direlako ere Estatu Batuen tratuen ezaugarri betikoak. Beste horiez guztiez gain, arrazoia zera da, bere baliabide mugagabeek, bere posizio bakartuarekin bate-ra, egoeraren jabe bihurtzen dituztela eta ia erasoezin beste edozein botereren edo botere guztien aldetik».*

Hitz hauek ez zuten batere baliorik galtzen Latinoamerika bakarrik baino hegemoni eremu askoz zabalago bati aplikatzean, eta iparramerikar ez zena konforma zitekeen arren iparramerikarren zar-tailuak errusiarren eskorpioiak baino hobe zirela pentsatuz, «filosofo-ari» (Gibbonen hitzetan) utz zekiokeen «bere ikuspegiak zabaltzen» ikusiz herri sateliteen bizitza eta zoria jokoan jartzen zituzten politi-kak erabaki eta gauzatzeko benetako monopolioak, botere goren baten aldetik, arazo konstituzional bat zuela bere baitan, nolabaiteko bata-sun federal baten bidez bakarrik konpon zitekeena. Nazioz gaindiko ordena baten etorrerak planteaturiko arazo konstituzionalak ez zeuden erraz edo bizkor konpontzerik, baina gutxienez bazegoen seinale on bat, alegia, Estatu Batuak beren historiagatik konprometituta zeudela printzipio federala onartzera.

## XLIII. TEKNOLOGIA, KLASA-GATAZKA ETA ENPLEGUA

### 1.

#### *Arazoaren izaera*

Enplegu hitzaren esanahia zabaldu badaiteke ez bakarrik lan eta aisiaren kopurua eta banaketa hartzeko, baina baita lan egiteko espiritua eta aisiari ematen zaion erabilera ere, egia litzateke esatea Mendebaldeko teknikak, sekula baino ahaltsuagoak, mundu-mailan mendebaldartzen ari zen gizartean —oraindik hainbat klase banatutan egituratua, bizi-maila oso desberdinekin— Mendebaldeko Zibilizazioaren oinordekoak enpleguaren arazoaren aurrean jarri zituela, aurreko kapituluan aztertutako gobernu-arazoarekin parekatzeko moduko arazo baten aurrean.

Gobernuaren arazoa bezala, enpleguaren arazoa ez zen berez berria; zeren eta beste zibilizazio batzuen kolapso eta desintegrazioen lehen kausa —borondatez eta bere garaian gobernuaren irispidea parroki mailatik maila ekumenikora hedatuz—, gerra saihesteko porrota izan bada, bigarren kausa —borondatez eta bere garaian lanaren presio eta emaitzan eta aisiaren gozamen eta erabileran aldaketak eginez— klase-gatazka saihesteko porrota izan da. Arlo honetan, hala ere, beste hartan bezala, izadi ez-gizatiarraren gain mendebaldar modernoak zertzen zuen nagusitasunaren eta aurrez izandako edozein giza nagusitasunen arteko desberdintasuna mailari zegokionean bezain handia zen motari zegokionean. Ekonomi ekoizpenari inoiz ez bezalako bultzada berri indartsua ematean, teknologia modernoak ohiko gizarte-bidegabekeria konpongarria zen itxura eman zuen eta

ondorioz jasangaitza zela sentiarazi. Industri iraultzaren hazia erein eta uzta bildu zuten *entrepreneur* mendealdar haientzat industria mekanizatuaren kornukopia berriak saldoan aberastasun ikaragarria ekoitzi zuenean, zergatik monopolizatu behar zuen gutxiengo pribilegiatu batek aberastasuna eta aisia? Zergatik ez oparotasun aurkitu berri hau Mendealdeko kapitalisten eta Mendealdeko industri langileen artean banatu, eta Mendealdeko industri langileen eta asiar, afrikar eta indiar-amerikar nekazarien artean, mundu osoa hartzen zuen Mendealdeko Gizartearen barne-proletalgora *en masse* eramana izan zirelarik?

Ugaritasuna gizadi osoarentzat izateko aukeraren amets berri honek inoiz ez bezalako eskabide premiatsu eta larriak sortarazi zituen «gabeziatik askatzeko»; eskabide hauen nonahikotasunak zera planteatzen zuen, ea kornukopiaren emankortasuna uste bezain agortezina ote zen; eta galdera horri ekuazio bat ebatziz bakarrik erantzun zekiokeen, ekuazio horretan hiru kopuru gutxienez bazirelarik ezezagunak.

Kopuru ezezagun horietako lehena hau zen: ea teknologiaren gaitasun potentzialak zenbateraino ase ote zitzakeen gizadiaren gero eta eskari handiagoak, gizadiak ugaltzen jarraitzen zuelarik, baita aisia eskatzen hasi ere. Zenbatekoak ziren planetaren erreserbak baliabide material ordezkazezinetan, mineraletan adibidez, eta baliabide material ordezkagarrietan, ur-argindar eta uzta eta ganadu eta lanesku eta giza trebetasunean? Eskuratutako baliabide horiek zenbateraino gehitu zezaketen beren produktibitatea, eta gizadiaren hartze-ko urriak zenbateraino konpentsa zitezkeen ordu arte ustiatu gabeko baliabide alternatiboak aprobetxatuz?

Mendealdeko zientziaren garai hartako aurkikuntzek, zirudie-nez, teknologiaren gaitasuna ikaragarria zela adierazten zuten; baina aldi berean giza izaeraren erreakzio garaikideek nabarmen uzten zuten, giza mailan, mugapen praktikoak egon zitezkeela gaitasun teknologikoaren termino abstraktuetan ia mugagabea izan zitekeen produktibitatearentzat. Teknikoki posible zen ekoizpena ezin zen errealtatatera aldatu, palankak erabiltzeko giza eskuak aurkitzen ez baziren; baina izadi ez-gizatiarraren gaineko boterearen gehitze potentzial izugarri horren prezioa langileen arauketan proportziozko torloju-biraketa izan zen; eta langileek beren askatasun pertsonalean horrelako

inbasioen aurka zuten ezinbesteko erresistentziak teknologikoki egin-garri zenaren aurkako militantzia ekarri behar zuen.

Zenbateraino zeuden langileak prest beren askatasun pertsona-la sakrifikatzeko pastelaren tamaina handitzeko, beronen zati gero eta handiagoa eskatzen zutelarik? Noraino iritsiko ote ziren hirietako industri langileak «kudeaketa zientifikoaren» mende jartzen? Eta gizadiko nekazari primitiboen gehiengoa noraino iritsiko zen Mendebaldeko nekazaritza-metodo zientifikoak onartzen eta tradizio-nalki sakrosantua zen ugaltzeko eskubide eta betebeharraren mugape-nak onartzen? Fase honetan, esan zitekeen gehiena zera zen, ekoizpe-na gehitzeko teknologiararen gaitasun potentziala lehian ari zela indus-tri langileen eta nekazarien berezko giza uzkurtasunarekin. Munduko nekazari ugalkorrek aurrerapen teknologikoaren onura deusezteko arriskuan jartzen zuten, munduko biztanleen kopurua hazten jarrai-tzen baitzuten *pari passu* bizibideetan lortutako gehikuntza bakoitza-rekin. Aldi berean industri langileek aurrerapen teknologikoaren onura deusezteko arriskuan jartzen zuten, sindikatuen murrizte-prak-tiken bidez ekoizpena mugatuz, *pari passu* produktibitatearen poten-tzialtasunetan lortutako gehikuntza bakoitzarekin.

## 2.

### *Mekanizazioa eta enpresa pribatua*

Maila ekonomiko eta sozialean ezaugarri nagusia industria mekanizatuak ezarritako arauketaren eta arautua izatearen aurkako giza erresistentzia setatiaren arteko borroka zen. Egoeraren gakoa honetan zetzan: mekanizazioa eta polizia zoritxarrez banaezinak zire-la. Behatzaileari gerta zekiokeen bere iritzietan eragina izatea eszena ikusterakoan zeukan argiak. Teknikariaren ikuspuntutik industri langi-le tematiaren jarrera umekeria eta zentzugabea zela eman zezakeen. Jende hura ez al zen benetan ohartzen gauza desiragarri orok zuela bere prezioa? Uste al zuten «gabeziatik askatzea» lortuko zutela beren gabeziak ase ahal izan aurretik bete beharreko baldintzetara makurtu gabe? Baina historialariak ikuskizuna beste begi batzuekin ikus zeza-

keen. Gogoratuko zuen industri iraultza hemezortzigarren mendeko Britainia Handian hasi zela, gutxiengo batek arauketarekiko aparteko askatasun-maila handia izan zuen garaian eta lekuan, eta gutxiengo horretako kideak izan zirela ekoizpen mekanizatuaren sistema sortu zutenak. Industriaurreko enpresa-askatasuna, industrialismoaren aitzindari horiek aurretiko gizarte-sistematik jarauntsia, izan zen haien ekimenak sortarazitako sistema berriaren inspirazio eta bizi-odola.

Gainera, *entrepreneur* industrialaren industriaurreko askatasun-espirituak, industri iraultzaren iturri nagusi izanak, indar eragile izaten jarraitu zuen prozesuaren hurrengo atalean. Hala ere, industriaren kapitainek honela, aldi batez, beraiek egindako martimuloak zantutatu geratzeko patuari ihes egiten zioten bitartean, patu hori zen hirietako langile-klase industrial berriaren jaiotza-marka, hasieratik sentitu baitzituen teknologia garaileak izadi ez-gizatiarraz nagusitzen izandako arrakastak giza bizitzan zituen ondorio zantpagarriak. Lehenagoko testuinguru batean teknologia gau eta egunaren zikloaren eta urtaroen zikloaren tiraniatik gizakia askatzen ikusi dugu; baina, antzinako morrontza horietatik askatzeko egintzan beste baten esklabo bihurtu zuen.

Sindikatuak, langile-klase industrial berriak gizartearen egitura berriari egindako ekarpen bereizgarriak, industriaren kapitainak sortarazi zituen enpresa pribatuaren industriaurreko paradisu beraren legatuak ziren, benetan. Ugazabekiko borrokan tinko eusteko langileak gaitzen zituen tresna gisa hartuta, sindikatu horiek eta beren antagonista kapitalistak gizarte-sistema beraren sorkariak ziren. Ethos-komunitate honen froga honetan aurkitzen da: Errusia komunistan ugazaba pribatuen likidazioaren ondoren sindikatuen arauketa etorri zen bitartean, Alemania nazional sozialistan, berriz, sindikatuen likidazioaren ondoren ugazaba pribatuen arauketa etorri zen. Bestalde, Britainia Handian, K.o. 1945eko hauteskunde orokorren ondoren, gobernu laborista baten azpian, zeinen programa industri enpresen jabetza esku pribatuetatik kentzea baitzen askatasun pertsonalean esku sartu gabe, industria nazionalizatuetakoa langileek sekula ez zuten pentsatu beren sindikatuak deusezteza edo beren kideen interesak bultzatzeko eskubideari uko egitea, desjabeturiko «metatzaille» pribatuen aurka erabili zituzten bitarteko guztiez baliatuz; eta ekintza-bide hori ezin zen baztertu ilogikotzat joz; zeren eta sindikatuen helburua



arauketari aurre egitea baitzen, kapitalista pribatuak nahiz batzorde nazional batek ezarri hori.

Zoritzarrez, ugazaba baten eskuetan arautuak izateari langileek jarritako erresistentziak beren buruak arautzera eraman zituen. Lantegian robot bihurtzeko patuaren aurka borrokatzean, sindikatuetan robot gisa jarduteko patua ezarri zioten beren buruari, eta patu horretatik ez zirudien ihes egiterik zegoenik. Beste honetan ere ez zegoen inolako kontsolamendurik, hots, beren aspaldiko etsai ezaguna, *entrepreneur* pribatua bera ere, orain arautua eta robotizatua zegoela desagertzeko zorian. Arerioa ez zen jada giza tirano ulergarri bat, amorrua sutzen zenean begietara madarikatu eta leihoak apurtzeko modukoa. Langileen azken arerioa talde-botere inpersonala zen, edozein gizaki higuigarri eta, beraz, identifikagarri baino ahaltsuago eta iheskorragoa.

Industri langileen auto-arauketa iraunkor hori seinale iluna baldin bazen, izua sortzen zuen ikuskizuna ere bazen Mendebaldeko klase ertaina Mendebaldeko langile-klase industrialak luzaroan jarraituriko bidea hartzen hasten zela ikustea. K.o. 1914an bukatzen zen mendea Mendebaldeko klase ertainaren urrezko aroa izan zen; baina aro berriak ikusia zuen klase hori, bere aldetik, ezbeharrean erortzen, aurrez ezbehar berera eramanak zituelarik industri iraultzak industri langileak. *Bourgeoisie*-aren deuseztea Sobietar Batasunean aparteko seinalea izan zen; baina etortzen ari zenaren adierazgarri zehatzagoa iraultza politikorik jasan gabeko Britainia Handiko eta ingeles-hiztun ziren beste herrialde batzuetako garaiko gizarte-historietan aurkitzen zen.

Industri iraultzaren eta Lehen Mundu Gerraren hasieraren arteko denboraldian, Mendebaldeko klase ertainaren ezaugarri psikologiko bereizgarria, esku nahiz bulegari «langile»-klasearena ez bezala, lanerako irrika izan zen. Jarrera-desberdintasun horren adibide hutsal baina, hala ere, esanguratsua kapitalismoaren gotorlekuan ikusi zen Manhattan Island-en K.o. 1949an. Urte hartan Wall Street-eko finantza-etxeak beren takimekanografoak konbentzitzeko ahaleginetan ari ziren —arrakastarik gabe—, aparteko orduak ondo ordaintzeko sari bereziak eskainiz, aurrerantzean larunbat goizetan bulegoetara ez joateko talde-erabakia berriro azter zezaten. Takimekanografoen ugazabak irrikan zeuden larunbat goizetan lanean jarduteko, lan-astea laburtzea onartzen baldin bazuten galduko zituzten mozkinak eusteko; baina jada

ez ziren gai beren lana takimekanografoen laguntzarik gabe egiteko, eta ez ziren gai izan beren diru-egiteko negozioan ezinbesteko ziren laguntzaile horiek larunbatetan lan egiteak merezi zuela konbentzitzeko. Takimekanografoek pentsatzen zuten egun bateko, edo baita egun-erdiko, aisialdi gehigarriak gehiago merezi ziela atsegin honen eskaria erretiratzeko edozein dirusarik baino. Diru gehiago poltsikoan alferrikakoa zen haientzat aisialdi gehigarriari uko egitearen ordainetan irabazi behar baldin bazuten, hau gabe ez baitzuten astirik izango gastatzeko. Diruaren eta astiaren arteko aukera horretan, bizitza hautatu zuten nahiz eta dirua galdu, eta ugazabek ez zuten lortu haien pentsaera aldatzerik. K.o. 1956an bazirudien, Wall Streeteko takimekanografoak diru-sarien bidez Wall Streeteko finantzarien ikuspuntura inola ere ekarri ez, eta azkenean ekonomi ezbeharrak finantziariak aldaraziko zituela takimekanografoen ikuspuntura; zeren eta garai hartarako Wall Street ere hasia baitzen haizexka bat sentitzen, garai batean baikorrak ziren Lombard Streeteko bihotzak jada hoztuak zituen haizexka.

Kristau-aroko hogeigarren mendean negozio probetxagarriak egiteko Mendebaldeko klase ertainak zituen aukerak gero eta murriztagoak ziren Mendebaldeko jarduera-gune kapitalista guztietan; eta ekonomi ezbehar horiek eragin etsigarria ari ziren zertzen klase ertainaren ethosean. Klase honen lanerako ohiko irrika hozten ari zen enpresa pribatuaren eremua gero eta murriztagoa zelako. Inflazioak eta zergek zentzurik gabe uzten zituzten irabazi neketsuen eta urritasunezko aurrezkien bertute tradizionalak. Bizi-kostuaren igoerak, eta aldi berean bizi-mailaren igoerak, azpilana egiten zuen familien tamaina murrizteko. Etxean neskame eta morroiak galtzeak klase haren eraginkortasun profesionala ere hondatzeko arriskuan jartzen zuen. Aisialdia galtzeak haren kultura jartzen zuen arriskuan. Gainera, klase ertaineko emakumea —biografia ugariak erakusten duten bezala, ama horren esku zegoen, batez ere, klase ertainaren bizi-maila altuari eustea— klase ertaineko gizona baino kolpe gogorragoak ari zen hartzen.

Klase ertaina pixkanaka enpresa pribatutik herri-zerbitzuetara edo hauen baliokide psikologikora —gubernukoak ez diren korporazio handien zerbitzura— irteteak irabaziak eta galerak ekarri zizkion Mendebaldeko Gizarteari. Irabazi nagusia mozkinaren zio egoista herri-zerbitzuaren zio altruistaren mende jartzea izan zen, eta aldaketa honen gizarte-balioa beste zibilizazio batzuen historietan izandako

pareko aldaketen ondorioengatik neurtu zitekeen. Adibidez, Zibilizazio Heleniko, Siniko eta Hinduen historietan estatu unibertsalen ezarpenarekin hasitako gizarte-susperraldiak ordu arte harrapari izandako klasearen trebetasunak herri-zerbitzura berbideratuz bereizi eta lortu ziren neurri handi batean. Augustok eta haren ondorengoek funtzionario zibil onak atera zituzten erromatar negozio-gizon harriparietatik; Han Liu Pang eta haren ondorengoek aristokrazia txiki feudal harriparitik atera zituzten; Cornwallisek eta haren ondorengoek Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainiako merkataritza-agente harriparietatik atera zituzten. Hala ere, kasu bakoitzean, nahiz eta era ezberdinetan, emaitzek ahulezia bereizgarriak erakutsi zituzten, eta azken porrota funtzionarioen ethosaren anibalentziak azaltzen zuen, non zintzotasunaren bertute nagusia ardurarik ezak eta iniziatiba hartu edo arriskatzeko joerarik ezak uzten baitzuen indar gabe. Ezaugarri hauek hogeigarren mendeko Mendebaldeko klase ertaineko funtzionarioek erakusten zituzten orain, eta honek ez zuen ezer onik iragaritzen lehenago edo geroago aurrean izango zuten zeregin handia — munduko gobernu antolatua eta mantentzeko zeregina— arrakastaz betetzeko aukerei buruz.

Funtzionarioaren ethos horren kausak aztertzen ditugunean, makina batek zerturiko presioaren erronkari emandako erantzuna zela aurkitzen dugu, ez zuen giza arimetan gozoago eragiten material psikikoaz, eta ez metalezkoaz, eginga izateagatik. Mendeko milioi asko administratuz, oso antolaturiko estatu baten makineriari eustea arimak suntsitzen zituen eginkizuna zen, lantegian zientifikoki kudeaturiko mugimendu fisikoen edozein serie tipiko zertzea bezainbat. Izan ere, formalitate burokratikoak burdina baino hertsatzaileagoak gerta zitezkeen; eta formalitate burokratikoak funtzionarioaren ariman sartuta zeuden orain, eta formalitateek eta errutinak lanpeturiko funtzionarioengan jokaturiko papera gero eta zurrin eta diziplinatuagoa zen alderdi-sistemak jokatzeko lanpeturiko legislatura hautatueta.

Egungo sistema «kapitalistaren» etorkizunerako joera horien guztien esanahia ez zen neurtzen zaila. Mendebaldeko klase ertainaren industriaurreko energia psikikoaren fondoa kapitalismoaren indar eragilea izan zen. Energia hori orain indargabetzen ari baldin bazen, eta aldi berean enpresa pribatutik herri-zerbitzura desbideratzen ari bazen, prozesu honek kapitalismoaren heriotza iragartzen zuen.

*«Kapitalismoa ekonomi aldaketako prozesua da funtsean... Berrikuntzarik gabe, ez dago enpresaririk; enpresa-lorpenik gabe, ez dago irabazi kapitalistarik, ez bultzada kapitalistarik. Industri iraultzen —«aurrerapen»— giroan bakarri iraun dezake kapitalismoak... Kapitalismo egonkortua kontraesana da terminoetan»<sup>114</sup>.*

Ematen zuen industri teknologiak ezarritako arauketak enpresa pribatuaren industriaurreko espirituari bizia kenduko ziola; eta aukera honek beste arazo bat sortzen zuen. Industri mekanizatuaren sistema teknikoa gai izango ote zen enpresa pribatuaren gizarte-sistema baino gehiago irauteko? Eta ez bazen, Mendebaldeko Zibilizazioa bera gai izango ote zen industria mekanizatua hil eta gero bizirik irauteko, honi bahituak eman zizkiolarik bere biztanleriari edozein ekonomia ez-industrialek jasan zezakeen baino gehiago hazten uztean makinaren aroan?

Ukaezina zen industri sistemak berari eragiteko energia psikiko sortzailearen erreserbaren bat zegoen bitartean bakarrik funtziona zezakeela, eta ordu arte indar eragile hori klase ertainak eman zuela. Beraz, honek zirudien funtsezko galdera: klase ertainaren energia indargabetua edo desbideratua gertatzen bazen, ea ba ote zegoen energia psikikoaren iturri alternatiborik, xede ekonomiko berberetarako erabilgarria, mendebaldartzen ari zen munduak erabil zezakeenik. Alternatiba praktikoa lortzeko modua baldin bazegoen, munduak soseguz begira ziezaiokeen sistema kapitalistaren heriotzari. Baina ez bazegoen alternatiba hori, orduan panorama nahasgarria zen. Mekanizazioak arauketa esan nahi bazuen, eta arauketa horrek langile-klase industrialari eta ondoren klase ertainari espiritua kentzen bazien, posible ote zen giza eskuek makina ahalguztiduna kalterik gabe erabiltzea?

### 3.

#### *Planteamendu alternatiboak gizarte-harmoniarako*

Gizadiak aurrean zeukan gizarte-arazoa ikuspegi desberdinetatik planteatzen zen hainbat herrialdetan. Planteamendu bat Ipar

Amerikakoa zen, beste bat Sobietar Batasunekoa, eta hirugarrena Mendebaldeko Europakoa.

Ipar Amerikako planteamendua Mundu Berri batean lurreko paradisua sortzeko idealak inspiratzen zuen, eta lurreko paradisu hau enpresa pribatuaren sisteman oinarritzen zen, iparramerikarren ustez (eta hemen Kanadako ingeles-hiztunak eta Estatu Batuetako jendea sartzen dugu) osasun betean eduki zezaketena, zeinahi izanik ere sistema horren patua beste edonon, soldatapeko klaseen bizi-maila ekonomiko eta soziala klase ertainen mailara igoz, eta honela neutralizatuz aurreko atalean industri mekanizazioaren berezko ondorio psikologiko gisa deskribatu duguna. Fede inspiratzailea baina sinpleegia zen, agian; izan ere, zenbait ilusiotan oinarritua zegoen, horietako guztiak isolazionismoaren funtsezko ilusiora murritzut zitezkeelarik. Mundu Berria ez zen bere miresleek desira zezaketen bezain «berria». Giza izaerak, jatorrizko bekatua bere baitan zuela, Atlantikoa zeharkatu zuen lehenengo etorkinekin eta haien ondorengo guztiekin. Hemeretzigarren mendean ere, isolazionismoa maila politikoan egingarria zirudienean, lurreko paradisu honetan suge ugari zegoen, eta, hogeigarren mendeak aurrera egin eta ilundu ahala, gero eta nabaria goa zen munduen dualtasuna, Zaharra eta Berriarena, egitateekin bat ez zetorren teoria zela. Gizadia «osorik ontzi berean» zegoen orain; eta bere osotasunari aplikatu ezin zitzaion bizi-filosofia bat epe luze- ra ezingo zitzaion aplikatu ezein zatiri ere.

Klase-gatazkaren arazoaren errusiar planteamendua, amerikarra bezala, lurreko paradisu bat sortzeko idealak inspiratzen zuen, eta, amerikarra bezala, klase-zatiketa ezabatuz klase-gatazkatik libratzeko politikan gorpuztu zen; baina hemen bukatzen zen antzekotasuna. Amerikarrak langile-klase industrialak klase ertainarekin berdintzen saiatzen ziren bitartean, errusiarrek deuseztu egin zuten klase ertaina eta enpresa pribaturako askatasun guztia debekatu zuten, kapitalisten- tzat ez ezik, baita sindikatuentzat ere.

Errusiako politika komunistan baziren puntu indartsuak, Sobietar Batasunaren Mendebaldeko lehiakideek gutxietsi ezinezkoak; eta gauza positibo horietako lehena eta handiena komunismoaren beraren ethosa zen. Epe luzera, gerta zitekeen ideologia hau ez izatea erlijioaren ordezkot asegarria, baina epe motzera etxea hutsik, eskobatu eta hornitua zuen edozein arimari berehala ase ziezaiokeen giza-

kiaren erlijio-premia sakonenetako bat, bere xede pertsonal hutsalak gainditzen zituen helburu bat eskainiz. Mundua komunismora konbertitzeko eginkizuna kilikagarriagoa zen munduan irabaziak egiteko edo greba egiteko eskubidea babestea baino. «Errusia santua» gerra-oihu zirrargarriagoa zen «Amerika zoriontsua» baino.

Errusiar planteamenduaren beste puntu indartsu bat hau zen: Errusiaren kokapen geografikoak ezinezko bihurtzen zuela errusiarrrentzat isolazionismoaren ilusiorik egitea. Errusiak ez zeukan «berezko mugarik». Gainera marxismoak, Kremlinek predikatua bezala, dei indartsua egiten zien munduko nekazariei Txinatik Peruraino eta Mexikotik Afrika tropikaleraino. Bere egoera sozial eta ekonomikoan, Errusiak Estatu Batuek baino askoz kidetasun handiagoa zuen gizadiko hiru laurden behartsuekin, horien atxikimenduaren bila zebiltzalarik lehian bi botereak. Errusiak esan zezakeen, egiantz engainagarritz, bere burua salbatu zuela bere ahaleginez eta munduko proletalgoaren gainerakoa salbatuko zuela bere jarraibidea eskainiz. Proletalgo horren zati bat Estatu Batuen barruan bizi zen; eta dei marxista horren ahalmenaren aurrean amerikar sektore antikomunista batzuen larritasuna ez zen ezkututzen eta, bere agerpen batzuetan, histerikoa zen.

Klase-gatazkaren arazoa konpontzeko Mendebaldeko Europaren planteamendua —batez ere, Britainia Handian eta eskandinaviar herrialdeetan nabarmendu zen planteamendua— ez zen amerikarra eta errusiarra bezalakoa, ez baitzen hain doktrinarioa. Mendebaldeko munduaren bazterretan sortzen ari ziren erraldoien mesedetan boterea eta aberastasuna galtzeko prozesuan zeuden herrialdeetan —bertako industri langileak «hitzarmen berri» bat eskatzen ari ziren une berean, hain zuzen—, garbi zegoen Mendebaldeko europar klase ertainarentzat ezinezkoa zela, Ipar Amerikako klase ertainari jarraituz, langile-klaseari esku betean eskaintzea bi gauza erakargarriok: klase ertainaren bizi-maila eta norberaren gurariak asetzeko aukera-ugaritasuna. Are ezinezkoagoa izango zen mendebaldeko Europako langile-klaseari erregimen totalitario baten alkandora hertsagarria eskaintzea. Beraz, garai hartako anglo-eskandinaviar planteamendua erdibide bat aurkitzeko ahalegina zen, enpresa pribatua eta gizarte-justiziaren interesetan gobernu-arauketa konbinatzeko proba eginez. Politika hori sarritan «sozialis-

moarekin» identifikatzen zen, britainiar miresleen ahotan goresgarria zen terminoa, baina amerikar kritikarien ahotan gutxiesgarria. «Ongizate estatuaren» britainiar sistemari zegokionez, pixkanaka eta dogmatismorik gabe alderdi politiko guztien legegintzazko ekarpenen bidez eraiki zen.

## 4.

### *Gizarte-zuzentasunak izan ditzakeen kostuak*

Gizarte-bizitza ezinezkoa da gizakiarentzat, neurri bateraino bai askatasun pertsonala eta bai gizarte-zuzentasuna izan gabe. Askatasun pertsonala ezinbesteko baldintza da edozein giza lorpen, on nahiz txar, egiteko, eta gizarte-zuzentasuna, berriz, giza harremanen jokoaren arau gorena da. Galgarik gabeko askatasun pertsonalak ahulena hormara eramaten du, eta gizarte-zuzentasuna ezin da behartuta ezarri askatasuna kendu barik, hau gabe giza izaera ezin delarik sortzailea izan. Gizarte-konstituzio ezagun guztiak bi mutur teoriko horien artean kokatzen dira nonbait. Bai Sobietar Batasunean eta bai Estatu Batuetan indarrean zeuden konstituzioetan, adibidez, askatasun pertsonalaren eta gizarte-zuzentasunaren osagaiak zeuden proportzio desberdinetan konbinatuta; eta hogeigarren mendearen erdialdean mendealdartzen ari zen munduan nahastura horrek, zernahi zela ere, «demokraziaren» txartela eramaten zuen beti, termino hori, hiztegi politiko helenikotik ateratakoa —non sarri zentzu peioratiboan erabili baitzen—, bere burua errespetatzen zuen alkimista politiko ororen nahitaezko lema bilakatua zelarik.

Horrela erabilia, «demokrazia» terminoa ke-pantaila bat besterik ez zen askatasunaren eta berdintasunaren idealen arteko benetako gatazka ezkutatzeko. Bi ideal gatazkatsu horien artean benetako adiskidetzeta bakarra anaitasunaren ideal bitartekarian aurkitzen zen; eta, gizakiaren gizarte-salbazioa ideal nagusi hori errealitatera aldatzeko zeuzkan aukeren mende baldin bazegoen, konturatuko zen politikarien buru-argitasunak ez zuela urrutira eramaten, anaitasuna lortzea gizakion irispidetik harago baitzegoen, horiek beren ahalmenaz

bakarrik fidatzen ziren bitartean. Gizakiaren anaitasuna Jainkoaren aitatasunetik zetorren.

Balantza kulunkarian, non askatasun pertsonala eta gizarte-zuzentasuna ari baitziren pisatzen elkarren kontra, teknologiaren giltza ingelesa plater antilibertarioan zegoen jarrita. Aurkikuntza hau, oraindik irispidean ez egon arren, jada begi-bistan zegoen gizartearen etorkizuneko egoerari behatuz, argitu eta bermatu zitekeen. Eman dezagun, argudioaren xedeetarako, teknologia ahalguztidun batek jada bete dituela bere programako hurrengo eginkizun nagusiak. Bonba atomikoa gizakiaren eskuetan jartzean, gerra deuseztera behartuko zuen, eta, aldi berean, prebentziozko medikuntzaren onurak klase guztiei eta arraza guztiei inpartzialtasunez ematean, hilkortasun-tasa aurrez inoiz ez bezalakoa maila apalera murrizteko gaitzen zuen. Demagun, halaber —benetan gertagarria zen eta— hobekuntza miragarri horiek bizi-egoera materialetan oso bizkor gauzatu zirela, kultur aldaketak ezin izan zirelarik horiekin batera zertu. Uste horiek zera irudikatzea eskatzen digute: gizadiko hiru laurden nekazariak ez zutela oraindik bizibideen muga-mugaraino ugaltzeko ohitura galduko; eta uste honek bere aldetik eskatzen digu irudikatzea biztanleriaren gehikuntzak kontsumitzen dituela bizibide gehigarri guztiak, mundu-ordena baten ezarpenak bere atzetik ekarritako bakeak, poliziak, higie-neak eta janari-ekoizpenari zientzia aplikatzeak bere esku jarritako bizibideak, alegia.

Honelako iragarpenak ez lirateke alegiazkoak; aspaldidanik datozen joeren etorkizunerako proiektzioak izango lirateke. Txinan, adibidez, biztanlerian izandako hazkundeek bizibideetan izandako hazkundeak irentsi zituzten, azken hauek aurrez ezezagun ziren uztak hamaseigarren mendean Ameriketatik eraman izanak eta hamazazpi-garren mendean *Pax Manchuan*a ezarri izanak eman zizkielarik. Txinan *circa* K.o. 1550ean artoa, *circa* K.o. 1590ean patata gozoak, eta urte batzuk geroago kakahueteak bertakotu izanari esker, biztanleria K.o. 1578ko zentsuak emandako 63.599.541eko kopurutik, K.o. 1661ean gutxi gorabehera 108.300.000 izatera igaro zen. Gero gehiago hazi zen, 143.411.559ra K.o. 1741ean, 300.000.000 ingurura hemeretzigarren mendearen erdialdera, eta 600.000.000 ingurura hogeigarren mendearen erdialdera. Datu hauek hazkundeak ez ezik progresio geometriko bizian egindako hazkundeak ere erakusten dute,



eta hau plaga eta izurrite, gose, gudu, hilketa eta bat-bateko heriotzak gertatu arren. Biztanleriak Indian, Indonesian eta beste alde batzuetan garai berean egindako mugimenduaren datuek gauza bera erakusten dute.

Gauza horiek atzo gertaturiko kontuak baldin badira, zer espero zitekeen biharko? Nahiz eta zientziaren kornukopiak malthusiar ezkortasuna gaur arte gezurtatzeko moduko ugaritasuna eragin zuen, lurreko azaleraren bukarritasun gaindiezinak muga bat jartzen dio gizakiaren jaki-horniduraren hazkunde progresiboari; eta gertagarria bezain gertagaitza zirudien nekazariak muga-mugaraino hazteko joera gainditu baino lehen iristea noizbait goren muga horretara.

Honela, Malthusen igurikapenen betetze postumoa iragartzean, halaber, «gosete handiaren» garairako, planetako biztanleria osoaren oinarrizko premia materialak asetzeaz aginte ekumenikoren batek arduratu beharko lukeela ere iragartzen dugu. Arazoen egoera honetan, haurrak sortzea ez litzateke jada senar-emazteen arazo pribatua izango eta nonahiko diziplina-botere inbertsonal baten ardura publikoa izango litzateke. Orain arte gobernuek bizitza pribatuaren *sancta sanctorum* horretan sartzeko gehienez ere egin dutena ezohiko familia handien gurasoentzat sari negatibo edo positiboak ezartzea izan da, agintariak «lanerako» edo «gerrarako» giza baliabideak gehitzea nahi baldin bazuten; baina sekula ez zuten pentsatu izan beren mendekoak familien tamaina murriztera behartuko zituztenik, ugaltzera bultzatu ez zituzten bezalaxe. Egia esateko, haurrak izateko edo ez izateko askatasuna hain arduragabe jotzen zen gauza naturaltzat, ezen, K.o. 1941ean ere, Roosevelt presidenteari ez baitzitzaion bururatu giza askatasun axiomatikoen kopurua, bere Atlantiar Gutunean ezarria, lautik bostera gehitzea, bertan gurasoek familiaren tamaina erabakitzeko duten eskubide sakratua argi eta garbi ipiniz. Eta orain bazirudien etorkizunak erakutsi zezakeela nahigabeko logika bat Rooseveltek puntu honetan izandako isiltasun tolesgabean, zeren eta azken batean zera agertzen baitzen, «gabeziatik askatze» berri bat ez zegoela ziurtatzerik ohikoa zen «haurgintzarako askatasuna» kendu gabe. Hau nola egin behar zen erabakitzeak oso kontuzko zenbait arazo sortzen zuen.

Haurgintza kanpoko aginte batek arautu beharko lukeen garaia iritsiko balitz benetan, askatasun pertsonalaren mozketak hau, nola har-

tuko ote luke, alde batetik, gizadiko gehiengo nekazariak eta, bestetik, zalantzan jarri gabeko ohitura batekiko nekazariak duten mendekotasunik industri teknologiaren bidez jada burujabetutako gutxiengok? Gizadiko bi zati horien arteko eztabaida bazitekeen garrantz samarra izatea, alde bakoitzak bestearen aurkako arrangura izango baitzuen. Industri langileak mindu egingo lituzke murrizketarik gabe gehituriko nekazari-ahoen zat hornigaiak sortzea moralki beraiei dagokiela uste izateak. Nekazariak, bestalde, irainduta sentituko lirake haurrak ugaltzeko ohiko askatasuna galtzeko arriskuaren aurrean, goseak ez akabatzeko irtenbide bakarra horixe dutela alegatuz gero; zeren eta sakrifizio hori beren bizi-maila behartsuaren eta industri langileen arteko leizea Mendebaldeko edo mendebaldar bihurturiko herrialdeetan aurrez inoiz izan den baino handiagoa bihurtu den garaian eskatuko bailitzaieke.

Egia esanda, leize hori pixkanaka zabalduz joatea zen espero behar zen ondorioetako bat, zuzen baldin bagabiltza iragartzerakoan, elikagaien ekoizpen globala mugara iristen ari zen garaian, nekazariak oraindik beren hornigai gehigarri gehienak kopurua gehitzeko ariko zirela gastatzen, eta langile industrializatuak, berriz, beren bizi-maila igotzeko gastatzen. Egoera honetan nekazariak ez lukete ulertuko, beraiei giza eskubideetako sakratuenari uko egiteko eskatu aurretik, zergatik ez zaion gutxiengo dirudun horri eskatzen premiarik gabeko gastu probokatzailen zati handiagoa emateko. Honelako eskari bat Mendebaldeko elite sofistikatuari erabat zentzugabea irudituko litzaioke. Mendebaldeko edo mendebaldarturiko elitea, oparotasuna bere buru-argitasun eta aurreikuspenari zor diena, zergatik zigortu nekazarien aurreikuspenik gabeko kontinentziarik eza ordaintzera? Eskari honek erabat zentzugabea emango luke, kontuan izanda Mendebaldeko bizi-mailaren sakrifizioak ez lukeela uxatuko munduko gosearen mamua, baizik eta atzera eutsiko liokeela soilik denboraldi batez, tarte horretan sakrifizioak herrialderik aurreratuenak atzeratuenen mailara ekarriko lituzkeelarik.

Honelako erreakzio latza ez litzateke lagungarri izango arazoa konpontze aldera; eta, jakina, aurreikus zitekeen, azkenean guk iragarri dugun bezalako janari-krisia gertatuz gero, Mendebaldeko gizakia-  
ren erreakzio nagusia ez zela izango erruki gabeko bide horietatik. Norberaren interes zuhurraren kalkulu hotzak, atsekabea arintzeko

giza nahiak eta dogmatikoki bazterturiko kristautasunetik bizirik iraundako legatu espirituala izango litzatekeen betebeharrak moral baten zentzuak —asiar eta afrikar herrialdeetan bizi-maila igotzeko jada nazioartean hainbat ahalegin sortarazten ari zen motiboen elkartzetak— bultzatuko lukete Mendebaldeko gizakia samaritar onaren pape-  
ra jokatzerako, apaizarena edo lebitarena baino lehen.

Eztabaida hau sortuko balitz eta sortzen denean, gertagarria irudi luke ekonomiaren eta politikaren mailatik erlijioaren mailara ekartzea, eta hau hainbat gauzatan oinarritua. Lehenik, beren elikagai-horniduraren gainetik hazteko nekazarien tema erlijiozko kausa baten gizarte-ondorioa zen, nekazarien jarrera eta ikuspegi erlijiosoa aldatzeko gabe aldatu ezinezkoa. Erlijiozko ikuspegia, nekazarien ugaltzeko ohiturak argudioekiko hain itxiak bihurtzen zituen, agian ez zen zentzugabea izan jatorrian, zeren eta gizartearen egoera primitibotik zetorrena baitzen, orduan etxea zelarik nekazaritza-ekoizpenaren kausa gizarte- eta ekonomi unitate onena. Teknologia mekanizatuak bazter utzia zuen orain gizarte- eta ekonomi testuinguru hura, non famili ugalkortasunaren gurtzak zentzu ekonomiko eta soziala izan baitzuen; baina kultuaren iraupena, jada batere zentzurik ez zuenean, subkontzientearen mailan psikearen abiadak duen geldotasun erlatiboaren ondorioa zen, adimenaren eta borondatearen abiadarekin konparatuta, behintzat.

Nekazarien arimetan erlijiozko iraultzarik gertatu gabe, zail ikusten zen munduaren malthusiar arazoa konpontzea; baina nekazariak ez ziren egoera horretan bihotz-aldaketa lortu behar zuen alderdi bakarra, gizadiak irteera zoriontsua aurkitu nahi bazion berehalako hondamendiari. Zeren eta, egia baldin bazen «gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi», orduan gustura zegoen Mendebaldeko gutxiengo oparoak bai baitzuen zer ikasirik nekazarien ethosean mundu honetakoa ez zen jarreratik.

Mendebaldeko gizakia bere arima galtzeko arriskuan zegoen bere ongizate materiala gehitzeko ahalegin izugarri arrakastatsuan jarritako arretagatik. Salbazioa aurkitzekotan, bere lorpen materialen emaitzak materialki arrakasta txikiagoa zuen gizadiko gehiengoarekin partekatuz bakarrik aurkituko zuen. Jaiotzak kontrolatzen zituen ingeniari agnostikoak nekazari inkontinente eta superstiziosoagandik honek ingeniariagandik adina zeukan ikasteko. Bi alderdiak hezitzeko

eta elkarren artean ados jarrazteko munduko erlijio nagusi histori-koek zer eginkizun bete behar zuten oraindik erantzun ezinezko gal-dera zen.

## 5.

### *Gero betiko zoriontsu bizi?*

Irudikatu ahal izanez gero mundu-gizarte bat, non gizadia libratu den lehenik gerra eta klase-gatazkatik eta lortu duen biztanle-riaren arazoa konpontzea, pentsa genezake gizadiaren hurrengo ara-zoa gizarte mekanizatuaren bizitzan aisiaren papera izango litzateke-ela.

Aisiak jadanik garrantzirik handieneko papera jokatua zuen historian; zeren eta, beharra izan bazen zibilizazioaren ama, aisia izan baitzen haren inudea. Zibilizazioaren ezaugarri bereizgarrietako bat, bizimodu berri honek bere potentzialtasunak garatzeko abiada izan zen; eta oldar hori gutxiengo baten gutxiengoak eman zien zibiliza-zioei: klase pribilegiatu bateko gutxi batzuek, hain zuzen, horien pri-bilegioa astiaz gozatzea zelarik. Gizakiak arte eta zientzietan eginda-ko lorpen handi guztiak gutxiengo sortzaile horrek probetxuz erabili-tako aisiaren emaitzak izan ziren. Baina industri iraultzak irauli egin zuen —eta hau hainbat eratan— aisiaren eta bizitzaren artean aurrez zegoen harremana.

Aldaketa hauetako garrantzitsuena psikologikoa izan zen. Mekanizazioak industri langilearen buruan tirabira sortu zuen bere lanarekiko sentimenduen eta bere aisiarekiko sentimenduen artean, tirabira hori ez zuelarik izan ez gehiengo nekazariak, ez gutxiengo pri-bilegiatuak, industriaurreko aroan. Nekazari-gizarte batean urtaroen zikloak, nekazariaren egutegia zenak, gutxiengo astitsua erentzat ere denboraren banaketa ezartzen zuen: justizia egin eta gerrara joatearen artean edo parlamentuan eseri eta ehizara edo arrantzara joatearen artean. Nekazariak nahiz haien gobernariak lana eta aisia Yin eta Yang erritmoan txandakako fasetzat hartuak zituzten, etengabe errepikatzen ziren gau eta egunaren, uda eta neguaren zikloek ezarrita. Fase bako-

tza bestearikiko konpentsagarria zen. Baina lanak eta aisiak industriaurrean elkarrekiko zuten mendekotasun eta parekotasun hori desegina geratu zen langilea gau eta egun urte osoan lanean jarrai zezaketen makinaren zaintzaile bihurtu zenean. Industri gerra kronikoak, makinek eta haien jabeek hiltzeraino lan eragin ez ziezaioten orain langileak egin behar zuen gerra horrek lan-bizitzarekiko etsaitasuna sortu zuen haren gogoan, arbaso nekazariak normaltzat hartu izan zuten lan-bizitza; eta lanarekiko jarrera berri honek aisiarekiko jarrera berria ekarri zuen berekin; zeren eta, lana berez gaitz bat baldin bazen, aisiak balio absolutua izan behar baitzuen berez.

Giza izaeraren erreakzioa lantegiko eta bulegoko errutinaren aurka, hogeigarren mendearen erdialderako, jada urruti iritsia zen, eta gehiegizko lan-presiotik askatzearen balioa garrantzitsuagoa zen langileak ahal zuen guztia lan eginez eskura zezakeen sariaren balioa baino. Baina aldi berean teknologiaren aurrerapen ordu arte galgarik gabea txantxa praktikoa sardonikoa ari zitzaien zertzen bere giza biktimei. Hiltzeraino lan eginarazteko arriskuan jartzen ez zituenean, «langabezian» uzteko arriskuan jartzen zituen. Hortaz, sindikatuen praktika murriztaileak, makinaren oldar hiltzaileari galga jartzeko deseraginkortasun antolatua forma bezala asmatuek, langileen beste xede baterako balio izan zuten: itxuraz giza eskuetatik ihes egiten ari zen enpleguaren hondarra luzatzeko<sup>115</sup>. Aurreikus zitekeen *Lurreko Paradisu Berreskuratu* bat, non «enplegu beteko» sisteman gizabanako bakoitzak, berari esleituriko lan-zatiak egunaren hain zati txikia hartuko liokeenez, aspaldi desagerturiko «aberats astitsuen» klase pribilegiatuak bezainbat asti izango bailuke ia, hura gaitzesten irakatsi bazioten ere arbasoek. Egoera hartan, aisialdiaz egindako erabilera ordu arte inoiz izan zena baino garrantzitsuagoa bilakatuko zen, noski.

Nola erabiliko zuen gizadiak etorkizuneko aisialdi unibertsal hau? Arazoa, benetan kezagarria, sir Alfred Ewing-ek planteatu zuen, lehendakari gisa Britainiar Elkarteari zuzendutako mezu batean 1932ko abuztuaren 31n.

*«Batzuek urrutian utopia bat begiztatzen dute, lanaren eta honen emaitzen arteko egokitzapen hobeizina izango dena, enplegua eta soldatak eta makinek sortzen dituzten erosotasun guztiak oso hedatuz. Hala ere, arazoak hor dirau: nola erabiliko du gizakiak berak irabazitako aisia, bere zama ia guztia esklabo mekaniko nekaezin bati*

*eman diolako? Espero al dezake aisia hori ongi erabiltzeko gaituko lukeen hobekuntza espiritualik? Jainkoak eman diezaiola horren alde borrokatu eta lortu ahal izatea! Hori bilatuz bakarrik aurkituko du. Nik ezin dut pentsatu gizadiaren patua atrofiatzea denik eta, azken batean, Jainkoaren ahalmenen antzekoenetakoa den hori —ingeniararen buru-argitasun sortzailea— lantzeari uztea».*

*Pax Romana* delakoa, giza existentziarako eman zuen erosotasunari dagokionez, oso urruti geratu zen gu orain begiztatzen ari garen etorkizunetik; baina, hala eta guztiz ere, *Estiloaren Sublimitatea*-ri buruzko tratatu baten egileak, Erromatar Inperioaren gailurreko data zehazgabe batean idazten zuelarik, estatu unibertsal helenikoaren ezarpenari zor zitzaion tentsioaren lasaipena giza nolakotasunaren kalterako izan zela sentitzen zuen.

*«Belaunaldi honetan jaiotako arimetan bizitza espiritualaren kantzerretako bat tentsio espiritual apala da, gure arteko espiritu aukeratu gutxi batzuek izan ezik besteek beren egunak horretan igarotzen dituztelarik. Gure lanean, eta bai gure atsedendian ere, helburu bakarra ospea eta gozamina dira. Ez dugu kezkarik sentitzen benetako altxor espiritualak lortzeko, bihotz osoa egiten ari garen horretan jarritakoan eta edukitzea benetan merezi duena lortutakoan aurkitzen dena».*

Kritikari heleniko baten aurkikuntza horiek, espiritu zientifiko modernoaren aitzindarietako batek berretsi zituen Mendebaldeko historiaren Aro Modernoaren hasieran. Ondorengo pasartea *The Advancement of Learning* liburuan aurkitzen da, Francis Baconek K.o. 1605ean argitaratuan.

*«Ongi ohartu izan den bezala, bertutea hazten ari den garaietan loratzen diren arteak militarrek izaten dira; eta bertutea geldidagoen bitartean loratutakoak, liberalak; eta bertutea gainbehera doan bitartean loratutakoak, atseginzaleak. Beraz, duda egiten dut munduaren aro hau nolabait ere gurpilearen beheeratzearen gainetik dagoenik. Arte atseginzaleekin batera jostatze-praktikak ipintzen ditut; zeren eta zentzumenak engainatzea baita zentzumenen atseginetako bat».*

«Jostatze-praktika» horiek hartuko lukete aisialdiaren zati handi bat irratiares eta telebistaren aroan. Langile-klaseak klase ertain-

naren bizi-maila materiala lortzea klase ertainaren zati handi baten bizitza espirituali proletarizatzearekin batera ematen zen itxuraz.

Zirtzeren oturuntzako mahaikoak laster aurkitu ziren txerritegian itxita; galdera zen ea han jarraituko ote zuten mugagabeki. Etsipenez onartuko ote zuen gizadiak patu hori? Gizadia benetan kontentatuko ote zen «gero betiko zoriontsu bizitzearekin» Mundu Berri Bikain<sup>116</sup> batean, non aldaketa bakarra aisialdi zozoaren monotoniatik lan mekanikoaren monotoniara igarotzea izango baitzen? Horrelako iragarpen batek ziur aski ez zuen kontuan hartu gutxiengo sortzailea, historiaren aro guztietan munduko gatza izan dena. *Estiloaren Sublimitateaz* tratatu heleniko berantiarraren egilearen diagnostiko ilunak ez zuen kontuan hartu bere aurrean zeukan egoeraren garrantzi handiko osagai bat; badirudi ez zela konturatu kristau-martiriez.

Irudi luke —eta benetan horrela da— bide luzea dagoela lan-gabezia teknologikoaren ikuspegitik beste Mendekoste Egun baten itxaropenera; eta irakurleak galdera eszeptiko hau egiteko joera izan dezake: «Nola izan litezke gauza hauek?». Kristau-aroko hogeigarren mendearen erdialdean ezinezkoa zen nola gerta litekeen esatea; hala ere, dagoeneko zerbait esan liteke horrelako itxaropena «ameskeria» bakarrik ez zela adierazteko.

Bizirik bere buruari bizirik eusteko *tour de force*-a zertzeko bideetako bat zera izaten da, bere arloetako batean duen gabezia edo soberakoa beste batean soberakoa metatuz edo gabezia eraginez konpentsatzea. Ondorioz, guk espero genezake, ekonomi eta politika-arloetan askatasun-gabezia eta gehiegizko arauketa daukan gizarte-ingurune batean, horrelako natur lege baten eragina erlijioaren eremuan askatasuna estimulatzea eta arauketaren tirania lasaitzea izango litzatekeela. Bide hau egin zuten, ezin da ukatu, Erromatar Inperioaren garaiko gertaerek.

Gertakari heleniko honen irakaspen bat zera zen, bizitzan beti dagoela energia psikikoaren gutxieneko menderaezin bat, bide batetik edo bestetik irteteko ekinean jardungo duena; baina, halaber, egia da badela bizitzak erabil dezakeen energia psikikoaren kopuruan gehieneko muga bat. Hemendik zera ondorioztatzen da, energia gehitu behar bada jardura bati bultzada handiagoa emateko, eskatzen den hornidura gehigarria beste alde batzuetan energia aurreztuz lortu beharko dela. Bizitzak energia aurrezteko duen bidea mekanizazioa

da. Adibidez, bihotzaren taupadak eta biriken txandakako uzkuarte eta hedatzeak automatiko bihurtzean, bizitzak giza pentsamendua eta borondatea beste erabilera batzuetarako aske utzi ditu eta ez unez uneko bizitasun fisikoari etengabe eusteko. Pentsamenduaren egintza kontziente bat eta borondatearen egintza bat beti beharrezko izan balira arnasketa bakoitzaren eta bihotz-taupada bakoitzaren hasieran, gizakiak sekula ez zuen izango adimen- edo borondate-energiarik soberan, justu-justu bizirik irauten gatzatzeko izan ezik; edo, puntu hau berau zuzenago adierazteko, azpizakiak inoiz ez zuen arakastarik izango gizaki bihurtzen. Gizakiaren gorputz fisikoaren bizitzan energia aurrezteak duen eragin sortzaile horren analogiaz, suposa genezake, bere gizarte-gorputzaren bizitzan, erlijioa ziur aski goseak akabatuko lukeela pentsamendua eta borondatea ekonomiaz arduratuta leudekeen bitartean (Mendebaldean egon diren bezala industri iraultza gertatu zenetik), edo politikaz arduratuta (Mendebaldean egon diren bezala estatu heleniko jainkotu baten mendebaldar berpizkundeaz geroztik). Alderantziz, uste izan genezake Mendebaldeko Gizartearen bizitza ekonomiko eta politikoa orain ezartzen ari zen arauketak ziur aski aske utziko zituela Mendebaldeko arimak gizakia- ren benetako helburua betetzeko: Jainkoa gorestea eta berriro ere hartaz gozatzea.

Perspektiba espiritual zoriontsuago hau, gutxienez, aukera bat zen, Mendebaldeko gizon-emakumeen belaunaldi etsituak argi goxo baten izpi erakargarria hauteman ahal izateko.



# XIII. BUKAERA

## XLIV. NOLA IRITSI ZEN LIBURU HAU IDATZIA IZATERA

Jendeak zergatik aztertzen du Historia? Idazle honen erantzun pertsonala izango litzateke historialari batek, bizitzan helmuga bat izateko zoriona izan duen beste edonork bezalaxe, Jainkoagandiko deian aurkitu duela bokazioa «Haren arabera sentitzeko eta Hura aurkitzeko». Ikuspegi askoren artean, historialariarena beste bat baino ez da. Bere ekarpen bereizgarria Jainkoaren jarduera sortzailea mugimenduan ikustaraztea da, gure giza esperientzian sei dimentsio erakusten dituen markoan. Ikuspegi historikoak kosmos fisikoaren mugimendu zentrifugoa erakusten digu espazio-denboraren lau dimentsio-ko markoan; gure planetako bizitza erakusten digu, bere eboluzioan mugitzen delarik, bizitza-denbora-espazioaren bost dimentsioko markoan; eta giza arimak erakusten dizkigu, Espirituaren dohainez seigarren dimentsiora goratuak, beren askatasun espiritualaren erabilera erabakigarriaren bidez, beren Egileaganantz edo Harengandik urrundu doazelarik.

Zuzen bagaibiltza Historian Jainkoaren kreazioa mugimenduan ikustean, ez gara harrituko aurkitzean giza gogoetan, zeinen berezko harmena Historiaren markarekiko ziur aski beti bertsua baita batez beste, marka horren benetako indarra aldatu egiten dela hartzailearen zirkunstantzia historikoen arabera. Harmen hutsa sendotu egin behar du jakin-minak, eta hau gizarte-aldaketaaren prozesua biziki eta bortizki nabarmen bihurtzen denean estimulatu da. Nekazari primiti-

boek sekula ez dute jarrera historikorik izan, beraien gizarte-inguruak beti hitz egin dielako, ez historiaz, baizik eta naturaz. Beraien ospakizunak ez ziren uztailaren 4koa, Guy Fawkes Eguna edo Armistizioaren Eguna<sup>117</sup>, baizik eta nekazaritza-urte errepikakorreko egun gorri eta beltzak, ez historikoak.

Hala ere, gizarte-inguruneak historiaz hitz egiten dion gutxien-goarentzat, gizarte-ingurune historiko baten irradiazioaren mende egotea berez ez zen nahikoa historialari bat inspiratzeko. Jakin-minezko zirrara sortzailerik gabe, Historiako monumenturik ezagun eta zirrargarrienek alferrik emango dute beren informazio mutua, zeren eta, beraiek begi batzuetara zuzenduta egon arren, ikusten ez duten begiak baitira horiek. Egia hau —txinparta sortzaile bat ezin dela piztu erantzun bat gabe eta erronka bat gabe— Mendebalde modernoko filosofo erromes zen Volneyri ulertarazi zitzaion K.o. 1783-Sean mundu islamikoa bisitatu zuenean. Volney zibilizazioen historiaren korrontera Bigarren Gerra Punikoaren garaian iritsi zen herrialde batetik zetorren, eta bera bisitatzen ari zen eskualdea historiaren gertaleku izana zen hiru edo lau mila urte gehiago Galia baino, eta proportzionalki ongi hornitua zegoen iraganeko erlikia ikusgarriekin. Hala ere, kristau-aroko hemezortzigarren mendearen azken laurdenean, Ekialde Erdiko belaunaldi bizia itzalitako zibilizazioen hondakin harrigarrien artean kuzkurtuta zegoen monumentu horiek zer ziren ikertzera bultzatuta sentitu gabe, eta bitartean galdera horrek berorrek eramane zuen Volney bere jaioterri zuen Frantziatik Egiptora, eta, Volneyren arrastoan, frantziar *savant*-en konpainia bikaina, Bonaparteren espedizio militarrek hamabost urte geroago eskainitako aukerari heldu ziona. Napoleonek bazekien bere armadako soldadu xehe hezigabeenek ere erantzuteko moduko nota ari zela jotzen, Imbabah-ko gudu erabakigarrian ekintzan hasi aurretik, piramideetatik begira historiako berrogei mende zeuzkatela gogorarazten zienean. Egon gaitezke ziur Murad Bey, kontrako indar mamelukoen agintariak, sekula ez zuela bere arnasarik gastatu halako mezurik zuzentzen jakin-minik ez zuten bere arma-lagunei.

Napoleonen atzetik Egipto bisitatu zuten frantziar *savant*-ak, konkistatzeko jakin-min asegaitza zuen Mendebalde modernoko gizartearentzat Historiaren dimentsio berri bat aurkitzeagatik bereizi ziren; eta data hartatik, gutxienez hamaika zibilizazio galdu eta ahaz-

tu berpiztu ziren: Egipziakoa, Babilonikoa, Sumerikoa, Minoikoa eta Hitita, Indus kultura eta Shang kulturarekin batera, Mundu Zaharrean, eta Maien, Yucatandar, Mexikar eta Andeetako zibilizazioak Mundu Berrian.

Jakin-minaren inspiraziorik gabe inor ezin daiteke historialari izan; baina hori ez da nahikoa; zeren eta, ez badago zuzenduta, helbururik gabeko omniszientzia baten atzetik ibil baitaiteke. Historialari handietako bakoitzaren jakin-mina bere belaunaldiarentzat esanahi praktikoa zuen galderaren bati erantzuteko zereginera bideratu izan zen beti, oro har honela formula daitekeena: «Nola sortu da hau beste hartatik?». Historialari handien historia intelektualak aztertzen badiugu, ikusiko dugu, kasurik gehienetan, gertaera publiko garrantzitsuren bat, eta normalean txundigarria ere bai, izan zela diagnosi historiko baten forman erantzuna eragin zuen erronka. Gertaera hau beraiei lekuko izatea suertaturiko bat izan zitekeen, edota bertan paper aktiboa jokatu zutenetako bat, Tuzididesek Peloponesoko gerra handian eta Clarendon-ek Matxinada Handian bezala; edo aspaldi iragandako gertaera bat izan zitekeen, haren ondorioek oraindik erantzun bat sortaraz zezaketelarik gogo historiko sentikor batean, Erromatar Inperioaren beheakada eta erorikoaren erronka intelektual eta emozionalak Gibbon, hainbat mende geroago Kapitolioko hondakinen artean paseatzen ari zela, akuilatu zuen bezala. Estimulu sortzailea gertaera garrantzitsu bat izan zitekeen, satisfakziorako kausa eman bide zezakeena, Herodotok pertsiar gerratik hartu zuen erronka mentala, adibidez. Baina, gehienetan, historiako hondamendi handiak dira, gizakiaren berezko baikortasunari erronka egitean, historialaria- ren ahaleginik onenak eskatzen dituztenak.

Idazle hau bezala, K.o. 1889an jaiotako historialariak, 1955ean oraindik bizirik baldin bazegoen, jada aldaketa-hots luzea zuen entzuna historialariaren funtsezko galderari buruz: «Nola sortu da hau beste hartatik?». Lehenik eta, batez ere, nola gertatu da bera bizirik egotea bere aurre-aurreko belaunaldiaren itxaropen zentzuzko samarrak hain zabarki huts eginda ikusteko? Espiritu liberaleko klase ertaineko zirku- luetan Mendebaldeko herrialde demokratikoetan K.o. 1860 ingur- uan jaiotako belaunaldian, begi-bistakoa zirudien, hemeretzigarren mendearen bukaerarako, arrakastaz aurrera zihoan Mendebaldeko Zibilizazioak giza aurrerapena eramana zuela lurreko paradisua

hurrengo kantoiairen bestaldean aurkitzea espero zitekeen punturaino. Nola zitekeen belaunaldi hau hain larriki etsita geratzea? Zehazki, zer ibili ote zen gaizki? Mende berriak berekin ekarria zuen gerra eta maltzurkeriazko nahastean, nola aldatu ote zen mapa politikoa, ezagutze-ko modurik gabe uzteraino, eta nola zortzi botere handiren lagunkidetzaz ederra bira mugatu, biak ere Mendebaldeko Europatik kanpo kokatuta?

Honelako galderen zerrenda mugarik gabe luza zitekeen, eta beste horrenbeste ikerketa historiko egiteko gaiak ematen zituzten. Definizioz historialariaren paradisu zen arazoaldi batean jaioa izateko zorte on profesionalari esker, idazle hau egungo gertaerek berari ekarritako enigma historikoetako bakoitzaz arduratzeraz bultzatuta aurkitu zen. Baina bere zorte on profesionala ez zen hemen bukatzen. Justu-justu jaio zen helenismoan hezia izateko garaian, Mendebaldearen Goiz Aro Modernoko «Berpizkunde» oraindik diluitu gabea-ri zegokion heziketan, alegia. K.o. 1911ko udarako hamabost urte eginak zituen latina ikasten eta hamabi urte grekoa ikasten; eta heziketa tradizional honek bere hartzailak kultur txaubinismoaren gaitzaren aurka immune bihurtzeko ondorio orokorra izan zuen. Helenikoki hezitako mendebaldar bat ezin zen Mendebaldeko Kristandadea posible ziren mundu guztietako onena bezala hartzeko okerrean erraz erori, eta bere garaiko Mendebaldeko gizarte-inguru-neak planteatzen zizkion arazo historikoak Helas baten orakuluekin lotu gabe ere ezin zituen aztertu, bertan aurkitua zuelarik bere egoitza espiritualak.

Adibidez, ez zen gai pentsaera liberaleko zaharren itxaropenen porrota ikusteko Platonek Periklesen demokrazia atikoarekin izan zuen desilusia gogoratu gabe. Ezin zuen K.o. 1914ko gerraren esperientzia bizi ohartu gabe K.a. 431n gerra sortzeak esperientzia berdina ekarri ziola Tuzididesi. Bere esperientziak, lehenengo aldiz, Tuzididesen hitz eta esaldien, aurrez berari ezer gutxi edo batere esaten ez ziotenen, barnekotasuna azaltzen ziola aurkitu zuenez, 2300 urte baino lehenago beste mundu batean idatzitako liburu bat esperientzien gordailu izan zitekeela konturatu zen, esperientzia horiek, irakurlearen munduan, bere belaunaldiarengana iristen hasiak bakarrik zirelarik. Zentzu batean bi datak, K.o. 1914 eta K.a. 431 filosofikoki garaikideak ziren.

Ikusten den bezala, idazle honen gizarte-ingurunean bi faktore zeuden, bat ere ez berea pertsonala, Historiaren azterketarako egin zuen planteamenduan eragin erabakigarria izan zutenak. Lehenengoa bere Mendebaldeko munduaren egungo historia izan zen eta bigarrena bere heziketa helenikoa. Etengabe elkarri eraginez, idazleak historiaz zuen ikuspegia binokular bihurtu zuten. Orduko gertaera hondagarriren batek historialariaren funtsezko galdera («Nola sortu da hau beste hartatik?») aurkeztzen zionean idazleari, honen gogoan galderak forma hau hartzen zuen: «Nola sortu da hau beste hartatik Mendebaldeko historian eta bai historia helenikoan?». Honela iritsi zen bera historia bi terminoko konparaziotzat hartzera.

Historiaren ikuspegi binokular hau Ekialde Urruneko garaikideek preziatu eta onetsia izan zitekeen, artean tradizionala zen haien heziketan aurreko zibilizazio baten hizkuntza eta literatura klasikoak ez zuelarik jokatu garrantzi gutxiagoko papera. Konfuziar literaturgile batek, idazle honek bezalaxe, ezingo zukeen gertaera igarokorrik aurkitu horrek paralelo klasikoren bat gogorarazi gabe, berarentzat balio handiagokoa, eta agian errealitate biziagoa ere bai, jakintza siniko klasiko ezagun bat hausnartzeko zeregin atseginean gogoa jarrarazi zion gertakari postklasikoa baino. Ikuspegi mentalaren desberdintasun nagusia, berant Ching aroko konfuziar pentsaerako txinatar jakintsuaren eta berant viktoriar aroko pentsaera helenikoko garaikide ingelesaren artean, zera izan zitekeen: giza arazoen txinatar aztertzailea konforme gera zitekeela bere konparazio historikoak bi terminotan bakarrik eginda, eta bitartean berant viktoriar aroko ingelesa, behin historikoki bi terminotan pentsatzen hasi zenean, ezin zela geratu bere kultur aukera eremu zabalagora hedatu arte.

Txinatar jakintsuarentzat, bere heziketa klasiko tradizionala kristau-aroko hemeretzigarren mendearen bukaera aldera hartzen ari zena, oraindik ideia berria zen sinikoa edo haren ondorengo Ekialde Urrunekoa ez zen beste edozein zibilizaziok inolako arreta seriorik merezi zezakeenik; baina antzeko ikuspegi mugatua ezinezkoa zen belaulaldi bereko edozein mendebaldarrentzat.

Ezinezkoa zen, aurreko lauhun urteetan, berari zegokion Mendebaldeko Gizartea harremanetan egon zelako, gutxienez bere espezieko beste zortzi ordezkariarekin Mundu Zaharrean eta Berrian; eta ordudanik bi aldiz ezinezko bihurtu zelako Mendebaldeko buruek

ez jakitea, berenaz eta helenikoaz gain, beste zibilizazio batzuk ere bazirela, edo ezinezkoa horien garrantzia ukatzea, azken mendean, mendebaldar bilatzaile asegaitz hauek, aurrez Kolon eta Da Gamaren arrastoari jarraituz jada ozeano birjin bat konkistatua zutenek, kanpora aterea zutelako aurrez lurperatutako iragana. Ikuspegi historiko zabal hau lortua zuen belaunaldian, Mendebaldeko historialaria, bere heziketa helenikoak konparazio historikoak bi terminotan egitera eramana zuena, ezin zen konforme geratu berak, azterketa konparatiboaren bidez, aurki zitzakeen bezainbat gizarte-espezie aurkitu arte, helenikoa eta Mendebaldekoa horien bi ordezkari baino ez zirelarik.

Bere konparazio-terminoak hamar baino gehiagoz biderkatzen arrakasta izan zuenean, jada ezin zuen bazter utzi galdera nagusia, haren bi terminoko hasierako konparazioak ia sortua zuena ordurako. Zibilizazio Helenikoaren historian gertaerarik harrigarriena gizarte baten azken deusezteea zen, haren kolapsoa K.a. 431n gertatu zelarik Peloponesoko gerra handia piztean. Inolako baliorik baldin bazuen idazlearen prozedurak, historia helenikoaren eta Mendebaldekoaren artean konparazioak egitekoak, badirudi zera ondorioztatu beharko litzatekeela: Mendebaldeko Gizarteak, azken batean, ez duela immune izan behar horrelako patu baten aukerarekiko; eta idazlea, azterketa zabalagoei ekitean, berak bildutako zibilizazioen gehiengo garbi bat jada hilda zegoela konturatzean, heriotza zibilizazio orok, baita bereak ere, aurrean zuen aukera bat zela ondorioztatu beharrean aurkitu zen.

Zer zen «Heriotzaren Ate» hori, garai batean loretsu zegoen hainbeste zibilizazio jada handik desagertua zelarik? Galdera horrek eraman zuen idazle hau zibilizazioen kolapso eta desintegrazioak aztertzeri; eta honek haien sortze eta hazkunde azterketa osagarriak egitera eraman zuen. Eta horrelaxe idatzi zen Historiaren Azterketa hau.

# ERANSKINAK

## TAULAK

### LABURTZAILEAREN OHARRA

Taula hauetako lehenengo lauak Toynbee jaunaren jatorrizko lanean dauden bezalaxe aldatu ditugu hona. Ikuspegi bat ematen dute zein egintza ahaltsuak diren gizarte-desintegrazioaren albo-produktuak. Bosgarren taula *Theology To-day*-tik (1. bol., 3. zka.) hartu dugu, John A. Mackay dk. editoreak eta Edward D. Myers doktoreak eskuzabaltasunez baimena eman digutelarik; azken honek prestatu zuen taula zenbaki horretan azaltzen zen bere artikulu baten argigarri «Some Leading Ideas from Toynbee's *A Study of History*». Myers doktorearen taulak Toynbee jaunaren lehenengo sei liburukietako eremu osoaren gain-ikuspegi bat ematen du.

Argitalpen laburtu honen irakurleak testuan aurkitu ez dituen zenbait izen eta gertaerarekin topo egingo du taula hauetan. Arrazoiak zera da, noski, laburpen honen egilea, normala eta ezinbestekoa denez, behartuta aurkitu dela jatorrizko lanean emandako adibide historikoetako asko baztertzerak, eta beste adibideetatik xehetasun asko kentzerak ere bai, laburtzearen ordainetan bakarrik sartu zitezkeelarik hemen. Taulek, beraz, ez dute balio egilearen ikerketaren emaitzetako batzuk laburbiltzeko bakarrik, baita laburpen honen irakurleari gogorarazteko ere zenbat galdu duen biderik errazenari heldu eta bidezidoretik jarraitzeagatik.





## II. TAULA. Filosofiak

<i>Zibilizazioa</i>	<i>Filosofia</i>
Egipziakoa	Atonismoa (abortatua)
Andetarra	Viracochaismoa (abortatua)
Sinikoa	Konfuzianismoa
	Moismoa
	Taoismoa
Siriakoa	Zervanismoa (abortatua)
Indikoa	Hinayaniar budismoa
	Jainismoa
Mendebaldekoa	Cartesianismoa
	Hegelianismoa
Helenikoa	Platonismoa
	Estoizismoa
	Epikureismoa
	Pirronismoa
Babilonikoa	Astrologia

### III. TAULA. *Erlijio nagusiak*

Zibilizazioa	Erlijio nagusia	Inspirazio-iturria
Sumerikoa	Tammuzen gurtza	bertakoa
Egipziakoa	Osirisen gurtza	atzerritarra [?] (sumerikoa [?])
Sinikoa	Mahayana	atzerritarra (indo-helena-siriakoa)
	Neotaoismoa	bertakoa baina imitatzailea (Mahayanarena)
Indikoa	Hinduismoa	bertakoa
Siriakoa	Islama	bertakoa
Helenikoa	Kristautasuna	atzerritarra (siriakoa)
	Mitraismoa	atzerritarra (siriakoa)
	Manikeismoa	atzerritarra (siriakoa)
	Mahayana	atzerritarra (indikoa)
	Isisen gurtza	atzerritarra (egipziakoa)
	Zibelesen gurtza	atzerritarra (hitita)
	Neoplatonismoa	bertakoa ( <i>ci-devant</i> filosofia)
Babilonikoa	Judaismoa	atzerritarra (siriakoa)
	Zoroastrismoa	atzerritarra (siriakoa)
Mendebaldekoa	Bahaismoa	atzerritarra (iranikoa)
	Ahmadiyah-a	atzerritarra (iranikoa)
Kristau Ortodoxoa (gorputz nagusia)	Imami xiismoa	atzerritarra (iranikoa)
	Bedreddinismoa	erdiatzerritarra (tindu iranikoa)
Kristau Ortodoxoa (Errusian)	Sektarianismoa	bertakoa
	Iratzarraldiko protestantismoa	atzerritarra (Mendebaldekoa)
Ekialde Urrunekoa (gorputz nagusia)	Katolizismoa	atzerritarra (Mendebaldekoa)
	Taiping	erdiatzerritarra (Mendebaldeko tindua)
Ekialde Urrunekoa (Japonian)	Jodoa	erdiatzerritarra (Ekialde Urrunekoa, gorputz nagusia)
	Jodo Shinshua	bertakoa (Jodo-tik)
	Nichirenismoa	bertakoa
	Zena	erdiatzerritarra (Ekialde Urrunekoa, gorputz nagusia)
Hindua	Kabirismoa eta Sikhismoa	erdiatzerritarra (tindu islamikoa)
	Brahmo Samaja	erdiatzerritarra (Mendebaldeko tindua)



[illegible]

V. TAULA. Erlijio nagusiak

Zibilizazioa		Ahaideak	Jatorria eta garaia
1. Egiptziakoa		batere ahaidetu gabea	Nilo ibaiaren harana; K.a. 4000 baino lehen
2. Andetarra		batere ahaidetu gabea	Andeatako kostata goi-ordokia; c. kristau-aroaren hasiera
3. Sinikoa		aurrekoekin ahaidetu gabea Ekialde Urrunekoaren gurasoa	Ibai Horiaren bere-harana; c. K.a. 1500
4. Minoikoa		aurrekoekin ahaidetu gabea; Heleniko eta Siriakoaren gurasoa (lasaiki)	Egeoko uharteak K.a. 3000
5. Sumerikoa		aurrekoekin ahaidetu gabea; ? Babilonikoaren eta ? Hititaren gurasoa	Tigris-Eufratesen behe-harana c. K.a. 3500 baino lehen
6. Maiana		aurrekoekin ahaidetu gabea; Yucatangoaren eta Mexikararren gurasoa	Erdi Amerikako oihan tropikala; c. K.a. 500 baino lehen
7. Yucatangoa	bat eginda Erdi Amerikakoa sortzeko	biak Maianaren filialak	Yucatango penintsulako kareharritzko geruza urik eta zuhaitzik gabea; K.o. 629 baino geroago
8. Mexikarra			
9. Hitita		baliteke Sumerikoaren filiala izatea lasaiki, baina sumerikoa ez zen erlijioarekin	Kapadozia, muga sumerikoak baino haraxeago; K.a. 1500 baino lehen
10. Siriakoa		Minoikoaren filiala lasaiki; Iranikoarekin eta Arabikoarekin ahaidetua	Siria; K.a. 1100 baino lehen
11. Babilonikoa		Sumerikoaren filiala estuki	Irak; K.a. 1500 baino lehen
12. Iranikoa	bat eginda Islamikoa sortzeko	biak Siriakoaren filialak eta, K.o. 1516az geroztik bat eginda Gizarte Islamikoa sortzeko	Anatolia, Iran, Oxus-Jaxartes; K.o. 1300 baino lehen Arabia, Irak, Siria, Ipar Afrika; K.o. 1300 baino lehen
13. Arabikoa			
14. Ekialde Urruneko — Gortputz nagusia		Sinikoaren filiala kimu batekin Japonian	Txina; K.o. 500 baino lehen
15. Ekialde Urruneko — Japoniar kimua		Ekialde Urruneko gortputz nagusiaren kimua	Japoniar uhartedia; K.o. 500 baino geroago
16. Indikoa		aurrekoekin ahaidetu gabea; Hinduaren gurasoa	Indus eta Ganges ibaien haranak; c. K.a. 1500
17. Hindua		Indikoaren filiala	Ipar India; K.o. 800 baino lehen
18. Helenikoa		Minoikoaren filiala lasaiki; Mendebaldekoaren eta Kristau Ortodoxoaren gurasoa	Egeoko kostak eta uharteak; K.a. 1100 baino lehen
19. Kristau Ortodoxoa — Gortputz nagusia		Helenikoaren filiala kimu batekin Er rusian	Anatolia; K.o. 700 baino lehen (azken haustura Mendebaldearekin XI. mendean)
20. Kristau Ortodoxoa — Errusiar kimua		Kristau Ortodoxoaren gortputz nagusiaren kimua	Errusia; kristau-aroko X. mendea
21. Mendebaldekoa		Helenikoaren filiala	Mendebaldeko Europa; K.o. 700 baino lehen

ZIBILIZAZIO ABORTATUAK: Zibilizazio hauen umekiak abortarazi egin zituen latzegiak ziren hainbat erronkari erantzuteko ahal-  
leginak. Honako hauek dira Zibilizazio Abortatuak: Mendebalde Urruneko Kristaua, Ekialde Urruneko Kristaua eta Eskandinavia-  
viarra.

MENDEBALDE URRUNEKO KRISTAU ZIBILIZAZIOA «Zerrenda Zetikoa» sortu zen, Irlandan bultzatuz, c. K.a. 375an, lurzo-  
nu bertarian eronka f- isikoki eta disintegratu ari zen Gizarte Helenikoaren eta sorten ari zen Mendebaldeko Gizartearen er-  
sozial biziaren erantzun gisa. Beraz, alda c. 400tik c. 600ra izan zen. Zetik kristautasuna mende bat zuten beren giza-  
barbariarre gokitzeak, seig. arren mendakoi Irlandak eta gertu kristautasunaren garbieraren zentzua zen. Mendebaldean, haren orijinal-  
tasuna di-az-ant-ak eta literatura eta artearen nahari da. Zibilizazio honen aurkako azken kolpeak vi kingrek eman zituzten beder-  
tzigarren mendetik hamaikag. artenera eta Erromakodiz-aginiek eta Ingalaterrako agintek politikoki hantbig. arren mendean.

EKIALDE URRUNEKO KRISTAU ZIBILIZAZIOA nestoriotar kristautasunaren krisalida barruan sortu zen Oxus-Jaxartes arroan,  
eta eskualde hau Arabiar Inperioak bereganatu zuenean desagertu zen K.o. 737-41ean, politikoki eta kulturalki mundu siriakoaren  
gainerakotik ibi bederatz mendez dibortziatuta egon ondoren. Enbrioi-zibilizazio hau Erdialdeko Asiako historiaren bederatz men-  
deko emaitza zen, denbora hori retan arto honek bere bizitza propioa izan zuelarik funtzio bereziki, merkataritza-bide handietan  
kokatua egon eta bertan greziar kolonizatzaile asko egotearen ondoriozko funtzioak.

ESKANDINAVIAR ZIBILIZAZIOA kanpo-proletargo helenikoaren eremu barruan sortu zen Erromatar Inperioa dese gin ondoren;  
eskanadinaviarrak bakarrik zeuden erromatar kristandadetik seig. arren mendean b. ukatu baino lehen eslaviar paganoak tartean sartu  
zirelako. Mendebaldearekiko kontakutua berriro ezarri ondoren bakarrik hasi ziren beren zibilizazioa garatzen, eta zibilizazio hau  
azkenean deuseztatu egin zen islandiarrak kristautasunera konbertitzearen ondorioz. Zibilizazioaren ethosa estetikoak zen eta antz  
ohargarria du greziar kulturarekin.

<i>Erronka</i>	<i>Arazoaldia</i>	<i>Estatu Unibertsala</i>
1. fisikoa: lehorketa	c. K.a. 2424-2070/60	Inperio Ertaina Inperio Berria
2. fisikoa: kostaldeko basamortua; klima gogorra ia lurrik gabeko ordokian	?-c. K.o. 1430	Inken Inperioa (ondoren Peruko erregeordetza espainiarra)
3. fisikoa: zingirak, uholdeak eta muturreko tenperaturak	K.a. 634-221	Tsin eta Han Inperioa
4. fisikoa: itsasoa	?-K.a. 1750	«Minosko Talasokrazia»
5. fisikoa: lehorketa	c. K.a. 2677-2298	Sumer eta Akadeko Inperioa
6. fisikoa: oihan tropikalaren joritasuna	?-c. K.o. 300	Maien «Lehen Inperioa»
7. fisikoa: penintsula idorra; soziala: desintegratzen ari zen Maien Gizartea	?-K.o. 1521	Espainia Berriko Erregeordetza espainiarra (aztekek estatu unibertsal bat sortzeko o zorian zeuden espainiarrak iristean)
8.		
9. soziala: desintegratzen ari zen Gizarte Sumerikoa	bere munduan nagusi K.a. 15. menderako; Egiptorekin gerrak 1352 ondoren K.a. 1278an bakeaegin arte; migrazio-uhin batek menderatua c. K.a. 1200-1190ean	
10. soziala: desegiten ari zen Gizarte Minoikoa	c. K.a. 937-525	Akemenestar Inperioa Arabiar Kalifaldia
11. soziala: desegiten ari zen Gizarte Sumerikoa	?-K.a. 610	Neobabiloniar Inperioa
12. soziala: desegiten ari zen Gizarte Siriakoa		
13. soziala: desegiten ari zen Gizarte Siriakoa		
14. soziala: desegiten ari zen Gizarte Sinikoa	K.o. 878-1280	Mongolen Inperioa Mantxuen Inperioa
15. fisikoa: lur berria; soziala: gorputz nagusiarekiko harremana	K.o. 1185-1597	Hideyoshiren diktadura eta Tokugawa shogungoa
16. fisikoa: oihan tropikalaren joritasuna	?-K.a. 322	Mauriar Inperioa Gupta Inperioa
17. soziala: desegiten ari zen Gizarte Indikoa	c. K.o. 1175-1572	Mogolen Inperioa Britainiar Inperioa
18. fisikoa: lur agorra eta itsasoa; soziala: desegiten ari zen Gizarte Minoikoa	K.a. 431-31	Erromatar Inperioa
19. soziala: desegiten ari zen Gizarte Helenikoa	K.o. 977-1372	Otomandar Inperioa
20. fisikoa: lur berria; soziala: gorputz nagusiarekiko harremana	K.o. 1075-1478	Moskoviako Inperioa
21. fisikoa: lur berria; soziala: desintegratzen ari zen Gizarte Helenikoa		

ZIBILIZAZIO GERARAZIETAN POLINESIARRAK, ESKIMALAK, NOMADAK, ESPARTARRAK eta OSMANLIARRAK sar-tzen dira. Hauek guztiak mugiezirik geratu ziren *tour de force* bat saiatu eta lortu izanaren ondorioz: oraindik estimuluren bat onar-tzen duen mailaren eta gero eta errendimendu txikiagoen legea abian jartzen duen mailaren muga-muga zeuden erronkeiemandak o erantzunak izan ziren. Espartar eta osmaliarrek inerronka superlatiboa gizatiarra izan zen, besteekin f isikoa. Guztiak amankomune-an zituzen bi ezaugarriak kasta eta espezializazioa izan ziren. Guztiak giza borondate-indar eta b uru-argitasunez o mirariak zertu zituizten, baina bereziki gizakiarena den moldagarritasun aldakorren koalitategia sistematikoki ukatzearen ordainetan. Guztiak abiatu ziren gizatutasunetik aberetasunaren bidean atzera e giten.

ESKIMALAK: ekonomi abantailaren estimuluak bultzatu zituen neguan izozturiko itsasoaren ondoan edo g ainean egoteko eta itsas txakurrak ehizatze ko *tour de force*-ra; honek hainbeste energia eskatzen zenez, ez zitzairen batere geratzen beste aurrerapenik egite-koArtikotak o klima-ziklora beren bizitza zurrun egokitze ko zigorra ordaintzen dute.

OSMALIARRAK: haien erronka pare gabea komunitate nomada baten lekualdatze geo grafikoa izan zen ingur une arrotz batera, non agintea animalien g ain zertu ordez gizaki-komunitateen gain zertzea baitzen arazo berria. Haien *tour de force*-a otomandar esklabo-etxea zen: hau da, giza atari-txakurrak hartu eta trebatzea padishah-ren giza ganadua ordenan edukitze ko. Beren g arapen harri-ga-riari giza izaeraz ahalik eta gehien erantziz eta horren ordez animalia izaera bereganatuz lortu zituizten, beren go goak senaren «bide bakarreko» ekintzara mugatuz.

NOMADAK: esteparen erronka fisikoa Zibilizazio Egipziakoa eta Sumerikoa eragin zituen lehorketa berak sortu zuen. Estepaz nugu-sitzeak nomadei hainbeste energia eskatzen dienez, ez zaie soberan batere geratzen. Nomadismoa nekazaritza baino gehiago da hain-bat arlotan: animaliak etxekotzen eta teknika ekonomikoan garapenean, honetan pareagarriagoa baita industrializazioarekin nekaza

<i>Bake Uniber tsala</i>	<i>Filosofiak</i>	<i>Erljioa</i>	<i>Erljioaren inspirazio-iturria</i>
1. c. K.a. 2070/60-1660 c. K.a. 1580-1175	Atonismoa (abortatua)	Osirisen gurtza Atonismoa	atzerriarra? - Sumerikoa?
2. K.o. 1430-1533	Viracochaismoa (abortatua)		
3. K.a. 221-K.o. 172	Moismoa; Taoismoa; Konfuzianismoa	Mahayanar Budismoa Neotaoismoa	atzerriarra (Indo-Helena-Siriakoa) bertakoa baina imitatzailea
4. K.a. 1750-1400			
5. K.a. 2298-1905	Tammuz-en gurtza, baina ez dago ezer Gizarte Sumerikoak sortua erlijio berritza har daitekeenik.		
6. c. K.o. 300-690	Gizarte Maia, Hitita, Babiloniko eta Indioak, desagiten direnean, gizaki primitiboaren ethos-era itzultzen direla dirudi, beren erlijioaren sexualismo abandonatuaren eta beren filosofoaren gehiegizko aszetismoaren arteko leizea- rekiko itxuraz duten sentiberatasunean; bekatuaren zentzura itzartzen dira, antzinako gizarte-egitura eraisten ikus- teak sorturiko astinaldiaren bidez.		
7. K.o. 1521-1821			
8.			
9.			
10. c. K.a. 525-332 c. K.o. 640-969	Zervanismoa (abortatua)	Islama	bertakoa bertakoa
11. K.a. 610-539	Astrologia	Judaismoa Zoroastrismoa	atzerriarra — Siriakoa atzerriarra — Siriakoa
12.			
13.			
14. K.o. 1280-1351 K.o. 1644-1853		Katolizismoa Taipinga	atzerriarra — Mendealdekoa erdiatzerriarra — Mendealdeko tindua
15. K.o. 1597-1863		Jodoa Jodo Shinshua Nichirenismoa Zena	erdiatzerriarra — gorputz nagusikoa bertakoa bertakoa erdiatzerriarra — gorputz nagusikoa
16. K.a. 322-185 K.o. 390-c. 475	Hinayanar Budismoa; Jainismoa	Hinduismoa	bertakoa bertakoa
17. c. K.o. 1572-1707 c. K.o. 1818-		Kabirismoa; sikhismoa Brahmo Samaja	erdiatzerriarra — Islamikoa erdiatzerriarra — Mendealdeko tindua
18. K.a. 31-K.o. 378	Platonismoa Estoizismoa Epikureanismoa Pirronismoa	Kristautasuna Mitraismoa Manikeismoa Isisen gurtza Mahayanar Budismoa Zibelezen gurtza Neoplatonismoa	atzerriarra — Siriakoa atzerriarra — Siriakoa atzerriarra — Siriakoa atzerriarra — Egiptziakoa atzerriarra — Indioa atzerriarra — Hitia bertakoa
19. K.o. 1372-1768		Imami Xiismoa Bedreddinismoa	atzerriarra — Iranikoa erdiatzerriarra — tindu iranikoa
20. K.o. 1478-1881		Sektarianismoa Iratzaraldiko protes- tantismoa	bertakoa atzerriarra — Mendealdekoa
21.			

ritzarekin baino. Honela, nomadismoak maila goreneko izaera eta por taera zorrotza eskatzen ditu: «art zain ona” kristau-ideal gore-  
naren ikurra da.

ESPARTARRAK: gehiegizko biztanleriaren eronka fisikoari aurre egin zion mundu heleniko osoak K.a. zortzigarren mendean, eta  
espartarrek *tour de force* handiekin erantzun zioten: beren energia guztiak trebakuntza militar zurrun eta «bide bakarrekoa” zuzen-  
duz, giza izaeraz batera arduratu gabe, otomandar sisteman bezalaxe. Antzekotasun edo erosotasun aski orkein, harik eta azk eneantentisio jasangai-  
tzak irtenbidea aurkitu zuen arte lasaituz. Bazko Uharteko estatutame gaitikoa dira beren e gileen iraganaldi handiaren lekuko, zeren  
erautzuneren arteko berezki o adostasunari egotz dakizkiokete.

POLINESIARRAK: itsasoaren eronka fisikoari itsasketa ozeanik oaren *tour de force*-az erantzun zioten; haien trebetasuna bidaia  
zogarri hauek kanoa ireki hausk orretan egitea izan zen, eta beraien nekea Ozeano Barearekin oreka zehatzean gotea; gai ziren espa-  
zio ireki zabalak ozta-ozta zeharkatzeko, baina sekula ez segurtasun edo erosotasun aski orkein, harik eta azk eneantentisio jasangai-  
tzak irtenbidea aurkitu zuen arte lasaituz. Bazko Uharteko estatutame gaitikoa dira beren e gileen iraganaldi handiaren lekuko, zeren  
e kulturaren artea aitzindariekin eramango zuten hara eta haien ondorengoei galdu, hauek itsasatzeko artea ere g aldu zuten beza-  
laxe.





# SINTESIA

## I. SARRERA

### *I. AZTERKETA HISTORIKOAREN UNITATEA*

Azterketa historikoaren unitate ulergarriak ez dira nazioak edo denboraldiak, «gizarteak» baizik. Atalez atal historia ingelesaren azterketak erakusten digu ez dela ulergarria bere horretan hartuta, osotasun handiago baten zati gisa baizik. Osotasun honek zatiak ditu (adib., Ingalaterra, Frantzia, Herbehereak), estimulu edo erronka berdinak jasaten dituztenak, baina era desberdinetan erreakzionatzen dutenak. Historia helenikoko adibide bat aurkezten da hau argitzeko. Ingalaterrari dagokion «osotasuna» edo «gizartea» Mendealdeko Kristandadetzat identifikatzen da; espazio aldetik hainbat garaitan izan duen hedadura neurtzen da, baita bere jatorria ere denboran. Zaharxeagoa da, baina ez asko, bere zatien eraketa baino. Bere hastapenen azterketak beste gizarte bat agertarazten du, dagoeneko hila, Gizarte Greko-erromatarra edo Helenikoa, beronen «filiala» izanik gurea. Halaber, nabaria da beste hainbat gizarte bizi dagoela —Kristau Ortodoxoa, Islamikoa, Hindua eta Ekialde Urrunekoa—, baita, etapa honetan, identifikatu gabeko gizarteen zenbait erlikia «fosildu» ere, juduak eta parsiak, adibidez.

### *II. ZIBILIZAZIOEN KONPARAZIOZKO AZTERKETA*

Kapitulu honen helburua orain arte izan diren gizarte guztiak —edo, hobeto esanda, zibilizazioak, bai baitira gizarte primitibo edo «zibilizatu» gabeko gizarteak ere— identifikatu, definitu eta izendatzea da. Lehen ikerketa-metodoa dauden zibilizazioak, jada identifikatuak, hartzea da, berauen jatorria aztertu eta ikustea ea aurkitzen ditugun jada desagerturiko zibilizazioak, zeinen filialak izango liratekeen oraingoak, Mendealdeko Kristandadea Zibilizazio Helenikoaren filiala dela aurkitu dugun bezala. Lotura honen markak dira: a) estatu unibertsal bat (adib., Erromatar Inperioa), arazoaldi

baten emaitza dena; ondoren b) interregno bat, bertan agertzen direlarik c) eliza bat eta d) barbaroen Völkerwanderung bat aro heroikoan. Eliza eta Völkerwanderung-a hiltzen ari den zibilizazioaren barne- eta kanpo-proletalgoen emaitzak dira, hurrenez hurren. Arrasto hauek erabiliz, zera aurkitzen dugu:

Gizarte Kristau Ortodoxoa, gure Mendebaldeko Gizartea bezala, Gizarte Helenikoaren filiala dela.

Gizarte Islamikoa bere jatorrietaraino aztertuz gero, aurkitzen dugu jatorriz desberdin ziren bi gizarteren, Iranikoaren eta Arabikoaren, bat-egitea dela. Eta gizarte hauen jatorrietaraino joanda, mila urteko «sarraldi helenikoaren» atzean, desagerturiko gizarte bat, Gizarte Siriako deitua, dagoela aurkitzen dugu.

Hindu Gizartearen atzean Gizarte Indikoa aurkitzen dugu.

Ekialde Urruneko Gizartearen atzean Gizarte Sinikoa aurkitzen dugu.

«Fosilak» jada identifikaturik ditugun gizarte desagertuetako bat edo bestetik bizirik iraundakoak dira.

Gizarte Helenikoaren atzean Gizarte Minoikoa aurkitzen dugu, baina Gizarte Helenikoak, orain arte identifikaturiko beste gizarte filialek ez bezala, ez zuen hartu bere aurrekoaren barne-proletalgoak aurkituriko erlijio bat. Beraz, zehazki haren filiala ez balitz bezala har daiteke.

Gizarte Sinikoaren atzean Shang kultura aurkitzen dugu.

Gizarte Indikoaren atzean Indus kultura aurkitzen dugu, garai-ko Gizarte Sumerikoarekin nolabaiteko erlazioan dagoena.

Gizarte Sumerikoaren kimu bezala (Gizarte Indikoaz gain), beste bi gizarte aurkitzen ditugu: Hitita eta Babilonikoa.

Gizarte Egipziakoak ez zuen ez aurrekorik ez ondorengorik izan.

Mundu Berrian lau gizarte identifika genitzake: Andetarra, Yucatarra, Mexikarra eta Maiana.

Honela, hogeita bat «zibilizazio»-espezimen ditugu; eta Gizarte Kristau Ortodoxoa Bizantziar Ortodoxoan (Anatolian eta Balkanetan) eta Errusiar Ortodoxoan banatzen badugu, eta Ekialde Urruneko Txinatarrean eta Japoniar-korearrean banatzen badugu, hogeita hiru ditugu.

### III. GIZARTEEN KONPARAGARRITASUNA

#### 1. Zibilizazioak eta gizarte primitiboak

Edonola ere, zibilizazioek badute puntu komun bat: aparteko klase bat izatea gizarte primitiboekiko. Azken hauek askoz gehiago dira, baina baita askoz txikiagoak ere banaka hartuta.

#### 2. «Zibilizazio-batasunaren» ideia okerra

Zibilizazio bat bakarra —hau da, geurea— dagoelako ideia okerra aztertu eta baztertzeko da; baita teoria «difusionista» ere, hots, zibilizazio orok Egipton duela bere jatorria.

#### 3. Zibilizazioen konparagarritasunaren alde

Erlatiboki hitz eginez, zibilizazioak oso fenomeno berria dira giza historian, lehenengoak ez baitziren sortu duela sei mila urte baino lehenago. «Espezie» bakar bateko kide «filosofikoki garaikidetzat» hartzea proposatzen da. «Historia ez da errepikatzen» erdi-egia proposatutako prozeduraren aurka balio ez duen eragozpen gisa azaltzen da.

#### 4. Historia, zientzia eta fikzioa

Hauek «gure pentsamenduaren gaiak, eta horien artean giza bizitzaren fenomenoak, ikusi eta aurkezteko hiru metodo desberdin dira». Hiru teknika hauen arteko aldeak aztertzen dira, eta historiaren gaia aurkezteko zientziaren eta fikzioaren erabilerak ere bai.

## II. ZIBILIZAZIOEN SORRERA

### IV. ARAZOA ETA NOLA EZ KONPONDU

#### 1. Arazoaren planteamendua

Gure hogeita hiru gizarte «zibilizatuetatik» hamasei aurreko zibilizazioen filialak dira, baina sei zuzenean sortu dira bizitza primitibotik. Gaur egun dauden gizarte primitiboak estatikoak dira, baina argi dago hasieran dinamikoki progresiboak izango zirela. Bizitza soziala gizadia bera baino zaharragoa da; intsektu eta animalien artean aurkitu izan da, eta azpigizakia gizakiaren mailara gizarte primitiboen babespean igoko zen, edozein zibilizaziok orain arte lortu duena baino aurrerapen handiagoa. Hala ere, gizarte primitiboak, guk eza-gutzen ditugun bezala, estatikoak dira. Arazoa zera da: zergatik eta nola hautsi ote zen «usadioaren molde» primitibo hau?

#### 2. Arraza

Bila gabiltzan faktorea zibilizazioak hasi zituzten gizakien nolakotasun bereziren bat izango zen edo garai hartan haien inguruneak zuen ezaugarri bereziren bat edo bien arteko elkarrekintza. Ikuspegi hauetako lehena, hau da, munduan badela berez arraza nagusi bat —Europako iparraldeko edo nordikoa, adibidez—, zibilizazioen sorreraren erantzule dena, aztertu eta baztertu egiten da.

#### 3. Ingurunea

Zenbait ingurunek, bizi-baldintza erraz eta erosoak dituztelako, zibilizazioen jatorriaren azalpenaren giltza dutelako ikuspegia ere aztertu eta baztertu egiten da.

### V. ERRONKA ETA ERANTZUNA

#### 1. Mitologiazko arrastoa

Dagoeneko aztertu eta bazterturiko bi ikuspegietako iruzurra zera da, zientzia materialen —biologia eta geologiaren— prozedura

benetan espirituala den arazo bati aplikatzen diotela. Gizadiaren jakinduria biltzen duten mito handien ikerketak aukera hau planteatzen du, gizakiak zibilizazioa lortzen duenean ez dela dohain biologiko edo geografi ingurune hobeen ondorio gisa, baizik eta zailtasun bereziko egoera baten erronkari emandako erantzun gisa, aurrez ez bezalako ahalegina egitera behartzen duelarik.

## *2. Mitoa arazoari aplikatua*

Zibilizazioaren egunsentia baino lehen, afrasiar estepa (Sahara eta arabiar basamortua) ongi ureztaturiko belardia zen. Belardi honen lehorte luze eta pixkanakakoak erronka aurkeztu zien bertako biztanleei, eta hauek era askotara erantzun zioten. Batzuk bertan geratu ziren eta azturak aldatu zituzten, honela biziera nomada garatuz. Beste batzuek hegorantz jo zuten, tropikoetarantz erretiratzen ari zen belardiari jarraituz, eta honela eutsi zioten beren bizimodu primitiboari, gaur egun oraindik ere bizi dutena. Beste batzuk Nilo ibarreko zingira eta jungletan sartu ziren eta —aurkeztu zitzairen erronkaren aurrean— hura drenatzeari ekin zioten, eta Zibilizazio Egipziakoa garatu zuten.

Zibilizazio Sumerikoa era berean eta kausa berberak eraginda sortu zen Tigris-Eufratesen deltan, eta Indus kultura Indus ibarrean.

Zibilizazio Sinikoa Ibai Horiaren ibarrean sortu zen. Ez dakigu zer-nolako erronkak hasarazi zuen, baina argi dago egoera latza zela eta ez erraza.

Maian Zibilizazioa oihan tropikalaren erronkatik sortu zen; Andetarra goi-ordoki soilduaren erronkatik.

Zibilizazio Minoikoa itsasoaren erronkatik sortu zen. Sortzaileak Afrikan lehortzen ari ziren kostetatik ihes eginak ziren, urari atxikiak, eta Kretan eta Egeoko beste uharte batzuetan ezarriak. Lehenengotan, ez ziren Asia edo Europako kontinente hurbilagoetatik etorri.

Zibilizazio filialen kasuan, sortarazi zituen erronka ez zen lehenengo eta behin geografi faktoreek eragina, beraien giza inguruneak baizik, hau da, beraien guraso izandako gizarteetako «gutxiengo menderatzaileek». Gutxiengo menderatzailea, definizioz, gobernari-klase bat da, gidatzeari utzi eta zapaltzaile bihurtu dena. Erronka honi, erortzen ari den zibilizazioko barne- eta kanpo-proletalgoek banakuntzaz erantzuten diote eta ondorioz zibilizazio berri baten oinarriak ezarriz.

## VI. ZORITXARRAREN BERTUTEAK

Zibilizazioen sorreraz azken kapituluan eman den azalpena hipotesi honetan oinarritzen da: egoera zailek, eta ez errazek, eragiten dituztela lorpen horiek. Hipotesi honi orain beste proba bat pasarazten zaio, garai batean zibilizazioa loratu baina ondoren huts egin eta landa jatorrizko egoerara itzuli den lekuetako argibideak emanez.

Garai batean Maien Zibilizazioaren tokia izan zena orain oihan tropikala da berriro.

Zeilanen, uhartearen eurigabeko erdialdean loratu zen Zibilizazio Indikoa. Orain erabat idor dago, nahiz eta ureztatze-sistema indikoaren hondakinek han iraun behinola bertan loraturiko zibilizazioaren frogatzat.

Petra eta Palmirako hondakinak oasi txikietan daude arabiar basamortuan.

Bazko uhartea, Ozeano Barean dagoen tokirik urrutienetakoa, garai batean Polinesiar Zibilizazioaren gun e izan zela erakusten dute hango estatuek.

Ingalaterra Berria, bertako europar kolonizatzaileek zeregin nagusia izan zutelarik Ipar Amerikako historian, kontinente hartako zatirik soildu eta idorrenetakoa da.

Erromatar Campanian Lazioko herriek, duela gutxi arte malaria-eremu zirenek, laguntza handia eman zuten erromatar boterearen goraldian. Kontrastez, Kapua egonleku hobean zegoen, baina paper kaskarra izan zuen. Herodotoren obratik, Odiseatik eta Irteera liburutik ateratako adibideak ere badira.

Nyasalandiako jendeak, non bizimodua erraza baita, basati primitibo izaten jarraitu zuen Europa urrutiko eta latzetik inbaditzaileak joan arte.

## VII. INGURUNEAREN ERRONKA

### 1. Herrialde gogorren estimulua

Elkarren ondoko ingurune-pare batzuk aipatzen dira. Kasu bakoitzean lehenengoa da herrialde «gogorragoa», eta zibilizazio-

-forma baten edo bestearen sortzaile gisa historiari distiratsuen izan duena ere bai: Ibai Horiaren ibarra eta Yangzi ibarra; Atika eta Beozia; Bizantzio eta Kaltzedonia; Israel, Fenizia, Filistea; Brandenburgo eta Rhin lurraldea; Eskozia eta Ingalaterra; europar kolonizatzaileen hainbat talde Ipar Amerikan.

## *2. Lurzoru berriaren estimulua*

«Lur urratugabeak» erantzun kementsuagoak sortarazten ditu jada landua izan den eta honela aurreko okupatzaile «zibilizatuek» «errazago» bihurturiko lurak baino. Honela, zibilizazio filialetako bakoitza hartzen badugu, aurkitzen dugu lehenengo adierazpen harri-garrienak bere «guraso» izandako zibilizazioak hartutako arlotik kanpoko lekuetan sortu dituela. Lurzoru berriak eragindako erantzunaren nagusitasuna harrigarriro argitzen du lurzoru berri horretara itsas bidetik iritsi behar denean. Hau horrela izateko arrazoiak ematen dira, baita beste fenomeno honentzat ere: drama sorterrietan garatzea eta epika itsasoz bestaldeko kolonietan.

## *3. Kolpeen estimulua*

Greziako eta Mendebaldeko historiako zenbait adibide ematen da puntu hau argitzeko: bat-bateko porrot zanpagarriak bere etxea ordenan jarri eta garaipenezko erantzunerako prestatzera bultzatu ohi duela menderatutako alderdia.

## *4. Presioen estimulua*

Zenbait adibidek erakusten duenez, muga-posizioetan dauden herriek, etengabeko erasoaren arriskupean, garapen distiratsuagoa izaten dute posizio babestuagoetan dauden auzokoek baino. Honela, osmanliarrak, Ekialdeko Erromatar Inperioaren mugaren kontra jarriak, hobeto moldatu ziren haien ekialdera zeuden kamanliarrak baino; Austriak Bavariak baino arrakasta distiratsuagoa izan zuen, otomandar turkiarren erasoaldi luzearen arriskupean egon zirelako. Erromaren erorikoaren eta normandiar konkistaren artean Britainian ziren zenbait komunitateren egoera eta zoria ikuspegi honetatik aztertzen da.

## *5. Zigorren estimulua*

Klase eta arraza batzuek mendeetan pairatu dituzte zenbait zigor-mota, haien gain nagusitasuna zuten beste klase edo arraza

batzuek ezarrita. Zenbait aukera eta pribilegiotatik baztertuta geratze-aren erronka honi zigorturiko klase edo arrazek normalean honela erantzun zioten: beraiei zabalik utzitako bideetan aparteko kementa jarri eta aparteko gaitasuna erakutsiz,itsuak entzuteko sentikortasun aparta garatzen duen bezala. Esklabotasuna da agian zigorretako astu-nena, baina K.a. azken bi mendeetan Ekialdeko Mediterraneotik Italiara ekarritako esklabo-saldoetatik «libertoen» klase bat sortu zen, ikaragarri ahaltsu bihurtu zena. Halaber, esklabo-mundu honetatik sortu ziren barne-proletalgoaren erlijio berriak, horien artean kristau-tasuna.

Osmanliar gobernupean konkistaturiko kristau-herrietako zen-bait talderen zoriak ikuspuntu berberetik aztertzen dira, greziar fana-rioten kasua, bereziki. Adibide hau eta juduena erabiltzen dira froga-tzeko arraza-berezitasun deituak ez direla benetan batere arrazazkoak, baizik eta komunitate horien esperientzia historikoei zor zaizkienak.

## VIII. ERDIBIDE EGOKIA

### 1. Nahikoa eta gehiegi

Esan al dezakegu soil-soil zenbat eta latzagoa izan erronka orduan eta hobe delako erantzuna? Edo gerta al daiteke erronka bat zorrotzegia izatea erantzuna sortarazteko? Egia da erronka batzuek, beraiei aurre egin dien talde bat edo gehiago menderatu dituztenek, azkenean garaipenezko erantzuna sortarazi dutela. Adibidez, helenis-mo hedatzailearen erronka gehiegizkoa gertatu zen zeltentzat, baina haien ondorengo teutoiek garaile erantzun zioten. Mundu siriakoan izandako «eraso helenikoak» arrakastarik gabeko zenbait erantzun siriako sortarazi zituen —zoroastroarra, judua (Makabeoena), nesto-riotarra eta monofisita—, baina bosgarren erantzuna, Islamarena, arrakastatsua izan zen.

### 2. Konparazioak hiru terminotan

Hala eta guztiz, froga daiteke erronkak izan daitezkeela latze-giak ere: hau da, erronkarik *handienak* beti ez du erantzunik *onena* era-gingo. Norvegiako etorkin vikingoek oso ongi erantzun zioten Islandiako erronka latzari, baina huts egin zuten are latzagoa zen



Groenlandiakoaren aurrean. Massachusettsek «Dixiek» baino erronka latzagoa aurkeztu zien europar kolonizatzaileei eta erantzun hobea eragin zuen, baina Labrador, are erronka latzagoa aurkeztu ziena, gehiegizkoa izan zen haientzat. Badira beste adibide batzuk: kolpeen estimulua gehiegizkoa izan daiteke, batez ere, luzea bada, Bigarren Gerra Punikoak Italian izandako eragina bezala. Txinatarrak estimulatu egiten ditu Malayara atzerriratzeak berekin dakarren gizarte-erronkak, baina mendean hartzen ditu zurien herrialde bateko gizarte-erronka gogorragoak, Kaliforniakoak, adibidez. Azkenik, zibilizazioek inguruko barbaroei aurkezturiko hainbat erronka-maila berrikusten da.

### *3. Bi zibilizazio abortatu*

Sekzio hau aurreko sekzioko azken adibidearen argudioaren jarraipena da. Mendebaldeko Kristandadearen mugetan bere historia-ko lehen atalean, bi barbaro-talde hain estimulatuak izan ziren, ezen beren zibilizazio lehiakideak garatzen hasi baitziren, baina ernamui-netan zeudela moztu zituzten: Mendebalde Urruneko kristau zeltak (Irlandan eta Ionan) eta eskandinaviar vikingoak. Bi kasu hauek aztertzen dira, baita gerta zitezkeen ondorioak ere, lehiakide hauek ez bali-tu irentsi eta zurrupatu izan Erromatik eta Rhinetik irtendako Kristau Zibilizazioak.

### *4. Islamaren eragina Kristandadeetan*

Inpaktu honen eragina Mendebaldeko Kristandadean ona izan zen oro har, eta Mendebaldeko kulturak Erdi Aroan asko zor izan zion Iberia musulmanari. Bizantziar Kristandadean eragina gehiegizkoa izan zen eta Erromatar Inperioaren berreraikitze bortitza sortarazi zuen Leon Isauriarraren mendean. Abisiniaren kasuari ere errepara-tzen zaio, mundu musulmanak inguraturiko gotorleku batean zegoen kristau «fossil» bat.

### III. ZIBILIZAZIOEN HAZKUNDEAK

#### IX. ZIBILIZAZIO GERARAZIAK

##### 1. *Polinesiarrak, eskimalak eta nomadak*

Badirudi, behin zibilizazio bat jaio ondoren, gauza normala izango litzatekeela haren hazkundera; baina ez da horrela, jaiotzea lortu baino gero hazi ez ziren zenbait zibilizazioen kasuak frogatzen duen bezala. Zibilizazio gerarazi hauen patua zera izan da, egokitu zaien erronka muga-mugan zegoela erantzun arrakastatsua eragiten duen gogortasun-mailaren eta porrota ekartzen duen maila handiagorekin artean. Hiru kasu aurkezten dira, non honelako erronka bat ingurune fisikotik etorri den. Kasu bakoitzean emaitza *tour de force* bat izan da erantzuleen aldetik, beraien energia guztiak zurrupatu dizkiena, gehiago garatzeko batere soberan utzi gabe.

Polinesiarrek Pazifikoko uharteen artean itsasatzeko *tour de force*-a zertu zuten. Azkenean mendean hartu zituen eta bizitza primitibora erori ziren berriro, orain bakarturik dauden haien uharteetan.

Eskimalek izugarri trebatu eta espezializaturiko urte-zikloa lortu zuten, Arktiar itsasertzetako bizimodura egokitua.

Nomadek antzeko urte-zikloa zertu zuten, erdibasamortu zen estepan artzain ibiliz. Ozeanoak uharteekin eta basamortuak oasiekin puntu komun asko dituzte. Nomadismoaren bilakaera aztertzen da lehorketa-aldietan. Ehiztariak nekazari bihurtzen direla adierazten da, hurrengo urratsean nomada bihurtu aurretik. Kain eta Abel nekazariaren eta nomadaren ordezkari dira. Nomaden sarraldiak zibilizazioen eremuan, edo gero eta handiagoa den lehorketak eraginak dira —nomadari estepatik kanpo «bultza egiten» diolarik— edota zibilizazio baten kolapsoak eraginak, honek sortzen duen hutsarteak nomada «erakartzen» duelarik *Völkerwanderung* batean partaide gisa.

##### 2. *Osmanliarrak*

Otomandar sistemak erronka bati erantzun zion eta erronka hori komunitate nomada bat lekuz aldatzea izan zen, komunitate sedentarioak gobernatu behar zituzten ingurunera, alegia. Arazoa konpontzeko, beren mendeko berriak giza artalde eta abere-saldotzat

hartu zituzten, eta nomaden artzain-txakurren giza ordezkioak sortu zituen administratzaile eta soldaduen esklabo-«etxe» baten forman. Antzeko inperio nomaden beste adibide batzuk ere aipatzen dira, mamelukoen, adibidez; baina osmanliarren sistemak beste guztiak gainditu zituen eraginkortasun eta iraupenean. Hala ere, nomadismoak berak bezala, erremediorik gabeko zurruntasuna pairatu zuen.

### 3. *Espartarrak*

Gehiegizko jendetzaren erronkari espartarrek mundu helenikoan emandako erantzuna *tour de force* bat sortzea izan zen, ikuspegi askotatik osmanliarren antzekoa, baina desberdintasun batekin: espartarren kasuan kasta militarra espartar aristokrazia bera zela; baina hauek ere «esklabo» ziren, greziar jendetza bat etengabe mendean edukitzeko beren gain hartu zuten eginbeharraren esklabo.

### 4. *Ezaugarri orokorrak*

Eskimal eta nomadek, osmanliar eta espartarrek bi ezaugarri komun dituzte: espezializazioa eta kasta. (Lehenengo parean, txakurak, elur-oreinek, zaldiek eta aziendek betetzen dute osmanliarren giza esklabo-kasten lekua). Gizarte hauetan guztietan gizakiak txalupazain, zaldizko edo gerrari gisa espezializatzeagatik gizazpiko maila batera degradatuta daude gizatasun osokoekin —Periklesen hiletamintzaldiko idealarekin— konparatuz, horiek bakarrik direlarik gai zibilizazioan hazkundera lortzeko. Gizarte gerarazi hauek erle eta inurrien sozietateen antza dute, bere horretan geldi egon direlarik giza bizitza lurrean agertzen hasi aurretik. «Utopietan» agertzen diren gizarteen antza ere badute. Ondoren, «utopiak» aztertzen dira, non erakusten baita «utopiak» orokorrean gainbehera doazen zibilizazioen produktu direla eta, programa praktikoa duten neurrian, gainbeheratze hori gerarazteko ahaleginak direla, gizarteak une horretan bertan duen benetako mailan finkatuz.

## X. ZIBILIZAZIOEN HAZKUNDEEN IZAERA

### 1. *Bi arrasto faltsu*

Hazkundera gertatzen da erronka berezi bati emandako erantzunak, berez arrakastatsua izateaz gain, beste erronka bat eragiten due-

nean, honek ere berriro arrakastazko erantzuna izaten duelarik. Nola neurtuko dugu hazkunde hori? Gizarteaz kanpoko ingurunearen gaineko gero eta kontrol handiagoaz neurtu behar ote da? Gero eta kontrol handiago hori bi eratakoa izan daiteke: giza ingurunearen gaineko gero eta kontrol handiagoa, auzoko herrien konkistaren forma hartzen duena normalean, eta ingurune fisikoaren gaineko kontrol gero eta handiagoa, teknika materialean egindako hobekuntzetan adierazten dena. Gero, adibideak ematen dira erakusteko fenomeno hauetako bat ere —ez hedapen politiko eta militarra, ez teknikaren hobekuntza— ez dela benetako hazkundearen irizpide gogobetegarria. Hedapen militarra militarismoaren emaitza izaten da normalean, eta hau gainbeheraren sintoma. Nekazaritza edo industriako teknikaren hobekuntzek lotura gutxi edo batere ez dute erakusten benetako hazkundearekin. Izan ere, gerta liteke teknika hobetzea benetako zibilizazioa gainbehera doanean, eta alderantziz.

## *2. Aurrerapena autodeterminaziorantz*

Benetako aurrerapena «eterealizazio» bezala definituriko prozesua da: oztopo materialak gainditzea, honek gizartearen energiak askatzen dituelarik, aurrerantzean kanpokoak baino gehiago barrukoak eta materialak baino gehiago espiritualak diren erronkei erantzuteko. Etererealizazio honen izaera historia helenikoko eta Mendebalde modernoaren historiako adibideekin argitzen da.

# *XI. HAZKUNDEAREN ANALISIA*

## *1. Gizartea eta gizabanakoa*

Bi ikuspegi tradizional daude gizarteak gizabanakoarekin duen erlazioaz: bata banako «atomikoen» metaketa huts gisa irudikatzen du gizartea, eta besteak gizartea organismo bezala hartzen du eta gizabanakoak beraren parte, pentsaezinak beren gizarteko kide edo «zelula» bezala izan ezik. Bi ikuspegi hauek ez direla gogobetegarriak erakusten da, eta benetako ikuspegia hau dela: gizartea gizabanakoen arteko erlazio-sistema bat dela. Gizakiak ezin dira gizaki izan lagun hurkoekin elkarrekintzan izan gabe, eta gizartea gizaki-kopuru baten ekintza-eremu komuna da. Baina «ekintzaren sorburua» gizabanako-

engan datza. Hazkunde guztiak gizabanako sortzaileekin edo banakoen gutxiengo txikiekin sortzen dira, eta hauek zeregin bikoitza izaten dute: lehenengoa beren inspirazio edo aurkikuntza lortzea, zernahi delarik ere; eta bigarrena, beraiek bizi direneko gizarte bizimodu berri honetara konbertitzea. Teorian konbertsio hau bi era hauetako batean edo bestean gerta daiteke: edo gizabanako sortzaileak eraldatu dituen benetako esperientzia pairatzen dutelako masek ere, edo kanpoko ezaugarriak imitatzen dituztelako, beste era batera esanda, *mimesi* bidez, alegia. Praktikan azkena da gizadi osoari, gutxiengo txiki bati izan ezik, irekita geratzen zaion bide bakarra. Mimesia «bidezidor» bat da, baina jende arruntak, *en masse*, gidariei jarraitu ahal izateko bide bat da.

## 2. Erretiroa eta itzulera: gizabanakoak

Gizabanako sortzaileen ekintza erretiro-eta-itzulerako mugimendu bikoitz gisa deskriba daiteke: erretiroa bere argitzapen pertsonala lortzeko, itzulera bere lagun hurkoak argitzeko lana egiteko. Hau Platonen kobazuloaren parabolaz argitzen da, San Pauloren haziaren analogiaz, Ebanjelioen eta beste gauza batzuen bidez. Aitzindari handien —San Paulo, San Benedikto, San Gregorio Handi, Buda, Mahoma, Makiavelo edo Danteren— bizitzetan ekintza praktikoan erakusten da gero.

## 3. Erretiroa eta itzulera: gutxiengo sortzaileak

Erretiroa eta ondoren itzulera, benetako «gizartearen» osagai diren azpigizartearen batzuen ezaugarria ere bada. Azpigizarte horiek beren ekarpena dagozkien gizartearen hazkundeari egin aurretik, denboraldi batean biziki erretiratuta egoten dira beren gizarteko bizitza orokorretik: adibidez, Atenas Gizarte Helenikoaren hazkundearen bigarren atalean; Italia Mendebaldeko Gizartearen hazkundearen bigarren atalean, eta Ingalaterra hirugarren atalean. Errusiak laugarren atalean antzeko papera jokatzeko duen aukera ere aztertzen da.

# XII. DIFERENTZIAZIOA HAZKUNDEAREN BIDEZ

Hazkundeak, aurreko kapituluan deskribatu bezala, diferentziazioa inplikatzan du hazten ari den gizartearen zatien artean. Etapa

bakoitzean erantzun orijinal eta arrakastatsua emango dute zati batzuek; batzuek arrakasta izango dute beren gidaritzari mimesiz jarraitzen; beste batzuek huts egingo dute orijinaltasuna edo mimesia lortzen, eta erori egingo dira. Halaber, gero eta diferentziazio handiagoa izango da gizarte desberdinen historien artean, eta garbi dago gizarte desberdinek ezaugarri nagusi desberdinak dituztela, batzuk artean nabarmentzen direlarik, beste batzuk erlijioan, beste batzuk industri asmamenean. Baina zibilizazio guztien helburuetan dagoen funtsezko antzekotasuna ere ez da ahaztu behar. Hazi bakoitzak du bere destinoa, baina hazi guztiak mota batekoak dira, Ereile berak ereinak, uzta bera jasotzeko itxaropenez.

## IV. ZIBILIZAZIOEN KOLAPSOAK

### *XIII. ARAZOAREN IZAERA*

Identifikatu ditugun hogeita zortzi zibilizazioetatik (zibilizazio geraraziak zerrendan barne direla) hemezortzi hilda daude eta beste hamarretako bederatzik —guztiek, geureak izan ezik— jadanik kolapsoa izan dute. Kolapsoaren izaera hiru puntutan labur daiteke: sortzeko ahalmenaren porrota gutxiengo sortzaileagan, aurrerantzean gutxiengo «menderatzaile» soilik bihurtzen delarik; erantzun gisa, atxikimenduaren eta mimesiaren erretiratzea gehiengoaren aldetik; ondorioz, gizarte-batasuna galtzea gizartean oro har. Gure hurrengo zeregina kolapso horien kausak aurkitzea da.

### *XIV. ERANTZUN DETERMINISTAK*

Pentsamendu-eskola batzuek esan dute zibilizazioen kolapsoak giza kontrolaz kanpoko faktoreek eragiten dituztela.

1) Zibilizazio Helenikoaren beheraldian, beren gizartearen gainbehera «zahartze kosmikoak» eragina zela zioten idazleek, pagano eta kristauak; baina fisikari modernoek etorkizun oso urrutira atzeratu dute zahartze kosmikoa, eta honek esan nahi du faktore honek ezin zezakeela eraginik izan iraganeko edo egungo zibilizazioetan.

2) Spenglerrek eta beste batzuek esan dute gizarteak organismoak direla, gaztaro eta heltzarotik gainbeherara trantsizio naturalak dituztenak, izaki bizidunek bezala; baina gizartea ez da organismo bat.

3) Beste batzuen ustez, bada zerbait ezinbestean disgenikoa zibilizazioak giza izaeran duen eraginean, eta zibilizazio-aldi baten ondoren «odol berri» barbaroaren infusioz bakarrik indarberritu daiteke arraza. Ikuspegi hau aztertu eta baztertu egiten da.

4) Historiaren teoria ziklikoa geratzen da, Platonen *Timeo*-n, Virgilioren laugarren eglogan eta beste alde batzuetan dagoen bezala. Honek ziur aski gure eguzki-sistemari buruzko kaldear aurkikuntzetan izan zuen jatorria, eta astronomia modernoaren ikuspegi askoz zabalagoak bere oinarri astronomikoa kendu dio teoriari. Ez dago teoriaren aldeko frogarik eta bai aurkako asko.

## *XV. INGURUNEAREN GAINEKO AGINTEA GALTZEA*

Kapitulu honetako argudio X.1 kapituluaren dagoenaren aurka da, non erakutsi zen ingurune fisikoaren gain kontrola areagotzea, teknikaren hobekuntzaren arabera neurtuta, eta giza ingurunearen gain kontrola areagotzea, hedapen geografiko edo konkista militarren arabera neurtuta, ez direla hazkundearen irizpide edo kausak. Hemen erakusten da teknikaren gainbehera edo uzkurtze geografikoa, kanpotiko eraso militarrek eraginak, ez direla kolapsoen irizpide edo kausak.

### *1. Ingurune fisikoa*

Hainbat adibide ematen da lorpen teknikoaren beherakada kolapsoaren emaitza, eta ez kausa, izan dela erakusteko. Erromatar bideak eta Mesopotamiako ureztatze-sistemak bertan behera uztea lehenago horiei eutsi zieten zibilizazioen kolapsoaren emaitza izan zen, eta ez kausa. Malariaren etortzea, zibilizazioen kolapsoen eragile izan omen zena, kolapsoen emaitza izan zela erakusten da.

### *2. Giza ingurunea*

Gibbonen tesia —«Erromatar Inperioaren gainbehera eta erorikoa barbarotasunaren eta erlijioaren» (hau da, kristautasunaren) ondorio izan zela—, aztertu eta errefusatu egiten da. Gizarte Helenikoaren

kanpo- eta barne-proletalgoen adierazpen hauek ordurako zertua zen Gizarte Helenikoaren kolapsoaren ondorioak ziren. Gibbonek ez du bere kontaketa behar hainbat atzetik hasten; antoninotarren garaia «urrezko aroarekin» nahasten du, benetan «azaroko udalditxo» baka- rrik izan zenean. Zibilizazioen aurkako eraso arrakastatsuen hainbat adibide aztertzen dira eta kasu bakoitzean eraso arrakastatsua kolap- soaren *ondoren* gertatu zela erakusten da.

### *3. Epai negatiboa*

Oraindik hazten ari den gizarte baten aurkako erasoak are aha- legin handiagoa egitera estimulatu du normalean. Gizarte bat gain- behera doanean ere, bere aurkako erasoak galvanizatu egin dezake ekintzara eta beste bizigarri bat gehiago eman. (Laburtzaileak ohar bat erantsi du «kolapsoaren» esanahiaz, Azterlan honetan erabiltzen den termino tekniko gisa).

## *XVI. AUTODETERMINAZIOAREN PORROTA*

### *1. Mimesiaren mekanikotasuna*

Sortzaile ez den gehiengoak buruzagi sortzaileen gidaritzari jarraitzeko bide bakarra mimesia da, nolabaiteko «trebakuntza», oriji- nal handi eta inspiratuen imitazio mekaniko eta azalekoa. Aurrerapenerako ezinbesteko «bidezidor» honek arrisku nabariak ditu berekin. Buruzagiak kutsatuta gerta daitezke jarraitzaileen mekaniko- tasunaz, eta emaitza zibilizazio gerarazia izango da; edota egonezinik, Hamelingo xirulariaren gogatzeko tresnaren ordeztatzeko zartai- lua har dezakete. Kasu honetan, gutxiengo sortzailea gutxiengo «men- deratzaile» bilakatuko da eta «dizipuluak» «proletalgo» uzkur eta alienatu bihurtuko dira. Hau gertatzen denean, gizartea desintegrazio- aren bidean sartzen da. Gizarteak autodeterminaziorako gaitasuna gal- tzen du. Ondorengo atalek argitzen dute nola gertatzen den hau.

### *2. Ardo berria zahagi zaharretan*

Idealki gutxiengo sortzaileek askaturiko gizarte-indar berri bakoitzak erakunde berriak sortu beharko lituzke, hauen bidez fun- tzionatu ahal izateko. Benetan, ordea, sarriago lan egiten du beste hel- buru batzuetarako pentsaturiko erakunde zaharren bidez. Baina era-



kunde zaharrak sarritan desegokiak eta erabiltezinak gertatzen dira. Bi emaitza hauetako bat gerta daiteke: edo erakundeen desegitea (iraultza bat) edo beraien bizirik irautea eta, ondorioz, beraien bidez funtzionatzen duten indar berrien perbertsioa («izugarrikeria» bat). Iraultza mimesi-egintza atzeratu eta ondorioz lehergarri gisa defini daiteke; izugarrikeria, mimesiaren frustrazio gisa. Erakundeak indarrretara egokitzea harmoniatsua bada, hazkundeak jarraitu egingo du; iraultza gertatzen bada, hazkundera arriskutsu bihurtzen da; izugarrikeria bat gertatzen bada, kolapsoa diagnostika daiteke. Ondoren, indar berriek erakunde zaharretan izandako eraginaren adibide-sail bat dator, lehenengo taldean Mendebaldeko Gizarte modernoan diharduten bi indar berri handien eraginak daudelarik:

- industrialismoaren eragina esklabotasunean, adibidez, USArek hegoaldeko estatuetan;
- demokraziaren eta industrialismoaren eragina gerran; adibidez, gerren areagotzea Frantziako Iraultzaz geroztik;
- demokraziaren eta industrialismoaren eragina parroki estatuan, nazionalismoaren hipertrofiak eta merkataritza askearen mugimenduen porrotak erakusten duten bezala;
- industrialismoaren eragina jabetza pribatuan, kapitalismoaren eta komunismoaren sorrerak argitzen duten bezala;
- demokraziaren eragina hezkuntzan, prentsa horiaren eta diktadura faxisten sorrerak argitzen duen bezala;
- italiar eraginkortasunaren eragina Alpeez bestaldeko gobernuetan, monarkia despotikoen sorrerak argitzen duen bezala (Ingalaterran izan ezik);
- Solonen iraultzaren eragina hiri-estatu helenikoetan, *tyrannis*, *stasis* eta *hegemonia*-ren fenomenoek argitzen duten bezala;
- parrokialismo edo lokalismoaren eragina Mendebaldeko Kristau Elizan, iraultza protestanteak, «erregeen jainko-eskubideak» eta kristautasuna patriotismoagatik iluntzeak argitzen duten bezala;
- batasun-zentzuaren eragina erlijioan, fanatismoaren eta jazarpenaren indartzeak erakusten duen bezala;
- erlijioaren eragina kastan, Hindu Zibilizazioan ageri den bezala;

- zibilizazioaren eragina lanaren banaketan, esoterismo bezala agertzen dena buruzagiengan (ἰδιώται bihurtzen direlarik) eta desoreka jarraitzaileengan (βόλυσσοι bihurtzen direlarik). Azken akatsa gutxiengo zigortuen —adibidez, juduen— kasuekin eta atletismo modernoaren aberrazioekin argitzen da;

- zibilizazioaren eragina mimesian, jada ez doana, gizarte primitiboetan bezala, tribuaren tradizioetarantz, aitzindariengana baizik. Sarriegitan imitatzeko aukeraturiko aitzindariak ez dira buruzagi sortaileak, ustiatzaile komertzialak edo demagogo politikoak baizik.

### *3. Sormenaren nemesia: nortasun iragankor baten idolatria*

Historiak erakusten du erronka bati arrakastaz erantzuten dion taldea nekez izaten dela hurrengoari arrakastaz erantzuten diona. Hainbat adibide ematen da, eta erakusten da fenomeno hau bai greziar eta bai hebrear pentsamenduaren oinarritzko zenbait postulatuekin bat datorrela. Behin arrakasta izan dutenek, hurrengo aldian, «arrakastan lokartzeko» joera izaten dute. Juduak, Itun Zaharreko erronkei erantzun zietelarik, mendean hartu zituen Itun Berriko erronkak. Periklesen Atenas San Pauloren Atenasera murriztuta geratzen da. Errenazimentuan erantzun zuten guneak italiar *Risorgimento*-an eraginkortasunik gabeak gertatzen dira, eta gidaritza Piamontek hartzen du, Italiaren aurreko lorialdietan parterik izan ez zuenak. Hego Karolinak eta Virginiak, hemeretzigarren mendeko lehen eta bigarren laurdenetan USAko estatu gidariekin, huts egin zuten gerra zibilaren ondoren suspertzen, aurrez batere nabarmendu ez zen Ipar Karolinak egin zuelarik hori.

### *4. Sormenaren nemesia: erakunde iragankor baten idolatria*

Hiri-estatuaren idolatria, historia helenikoaren azken etapetan, tranpa bat gertatu zen, bertan greziarrak erori zirelarik baina ez erromatarrak. Erromatar Inperioaren «arimak» Gizarte Kristau Ortodoxoaren kolapsoa eragin zuen. Errege, parlamentu eta kasta gobernarien —burokrazia nahiz apaizterien— idolatriak dituen ondorio oztopotzaileen adibideak ere ematen dira.

### *5. Sormenaren nemesia: teknika iragankor baten idolatria*

Eboluzio biologikotik ateratako adibideek erakusten dute «teknika» hobe zina edo ingurunearekiko egokitzapen betegina sarri-

tan «cul de sac» ebolutiboak gertatzen direla, eta gutxiago espezializaturiko eta «esperimentalagoak» diren organismoek bizirik irauteko ahalmen handiagoa dutela. Anfibioak irabazian ateratzen dira arraiekin konparatuta, eta gizakiaren arratoi-antzeko aurrekoak, beren garaikideekin, narrasti erraldoiekin, konparatuta. Industri eremuan komunitate partikular baten arrakastak teknika berri baten lehenengo etapetan —gurpil-baporearen asmakuntzan, adibidez— komunitate hori beste batzuk baino geldoago bihurtzen du eraginkorragoa den helize-propultsatzailea onartzeko. David eta Goliaten garaitik gaur arteko gerragintzaren historiaren laburpenak erakusten du, etapa bakoitzean, berrikuntza baten asmatzaileak eta onuradunak beren arrakastan lokartu zirela eta hurrengo berrikuntza beren etsaiei utzi zietela egiten.

## 6. Militarismoaren suizidio-joera

Aurreko hiru ataletan «arrakastan lokartzearen» adibideak eman dira, sormenaren nemesiaren mende erortzeko era pasiboa. Orain aberrazioaren forma aktibora igaroko gara, κόρος, ὕβρις, ὄνη (betekada, portaera eskandalagarria eta suntsidura) greziar formularen laburtua. Militarismoa adibide nabarmena da. Asiriarrak beren gain hondamena erakartzeko arrazoia ez zen izan, aurreko kapituluaren bukaeran ikusitako garaileen kasuan bezala, beren armadura «herdoiltzen» utzi izana. Ikuspegi militarretik etengabe gero eta eraginkorrak izan ziren. Haien hondamena beraien agresibitateak aunatu zituelako etorri zen, auzokoentzat jasangaitz bihurtzeaz gain. Asiriarrak, armak beren gizarteko barne-probintzien aurka bihurtu zituzten mugako probintzia militarren adibidea dira. Austrasiar frankoen eta Timur Lenk-en antzeko kasuak ere aztertzen dira, baita beste adibide batzuk aipatu ere.

## 7. Garaipenaren hordikeria

Aurreko paragrafokoaren antzeko gaia argitzen da eremu ez-militarretik hildebrandotar aitasantutzaren adibidearekin, bera eta Kristandadea sakonetik gailurreraino goratu ondoren huts egin zuen erakundea. Huts egin zuen, bere arrakastaz mozkortuta, neurrigabeko helburuak lortzearen arma politikoen erabilera bidegabeta egiteko tentazioa izan zuelako. Inbestidurei buruzko eztabaida ikuspegi hone-tatik aztertzen da.

## V. ZIBILIZAZIOEN DESINTEGRAZIOAK

### *XVII. DESINTEGRAZIOAREN IZAERA*

#### *1. Azterketa orokorra*

Kolapsoaren beharrezko eta ezinbesteko ondorioa da desintegrazioa? Historia egipziakoak eta Ekialde Urrunekoak erakusten dute badela alternatiba bat, petrifikazioa alegia, ia-ia Zibilizazio Helenikoaren patua izan zena, eta agian geurea ere izan daitekeena. Desintegrazioaren ezaugarri nabariena gizarte-gorputzaren zisma da hiru zatitan: gutxiengo menderatzailea, barne-proletalgoa eta kanpo-proletalgoa. Hiru zatiki hauei buruz jada esan dena laburbiltzen da, eta ondorengo kapituluen plana adierazten da.

#### *2. Zisma eta palingenesia*

Karl Marxen filosofia apokaliptikoak klase-gerrari, proletalgoaren diktaduraren ondoren, gizarte-ordena berriak jarraituko diola aldarrikatzen du. Ideia honetaz Marxek egiten duen aplikazio partikularraz gain, hau da benetan gertatzen dena gizarte bat dagoeneko aipatu dugun hiru zatiko zisma horretan erortzen denean. Zatietako bakoitzak sorkuntza-lan berezi bat lortzen du: gutxiengo nagusiak estatu unibertsal bat, barne-proletalgoak eliza unibertsal bat, eta kanpo-proletalgoak gerra-talde barbaroak.

### *XVIII. ZISMA GIZARTE-GORPUTZEAN*

#### *1. Gutxiengo menderatzaileak*

Nahiz eta militaristak eta ustiatzaileak nabarmenak izan gutxiengo menderatzaileetako tipo bereizgarrien artean, badira ere tipo bikainagoak: estatu unibertsalei eusten dieten legelari eta administratzaileak, eta filosofi bilatzaileak, gainbehera doazen gizarteei beren filosofia bereizgarriak ematen dizkietenak, adibidez, filosofo helenikoen kate luzea Sokratesengandik Plotinorenganaino. Beste hainbat zibilizaziotako adibideak ere aipatzen dira.

#### *2. Barne-proletalgoak*

Gizarte Helenikoaren historiak hiru sorburutatik bildutako barne-proletalgoa erakusten du: estatu helenikoetako hiritarrak, iskan-

bila politiko edo ekonomikoengatik desoinordetu eta porrot eginak; herri konkistatuak; esklabo-merkataritzaren biktimak. Guztiak dira era berean proletarioak: «gizartean» sentitzen dira baina «gizartekoak» izan gabe. Lehenengo erreakzioak bortitzak dira, baina ondoren erre-akzio «otzanak» etortzen dira, azkenean kristautasuna bezalako «erlijio nagusien» aurkikuntzan bukatzeko. Erlijio hau, mitraismoa eta mundu helenikoan izan zituen beste lehiakideak bezala, arma helenikoek konkistaturiko beste gizarte «zibilizatueta» batean sortu zen. Beste gizarte batzuetako barne-proletalgoak ere aztertzen dira eta antzeko fenomenoak ikusten dira: adibidez, judaismoak eta zoroastrismoak Gizarte Babilonikoaren barne-proletalgoan izandako jatorriak kristautasunak eta mitraismoak Gizarte Helenikoaren baitan izandakoen antzekoak ziren, nahiz eta, ematen diren arrazoiengatik, beraien geroagoko garapena desberdina izan. Hasierako filosofia budista mahayana bihurtzeak «erlijio nagusi» bat eman zion barne-proletalgo sinikoari.

### *3. Mendebaldeko munduaren barne-proletalgoa*

Froga ugari eman daiteke barne-proletalgo baten existentziaz hemen, besteak beste, proletalgotik erreklutaturiko «intelligentsia» baten existentzia, gutxiengo menderatzailearen agente gisa. Intelligentsiaren ezaugarriak aztertzen dira. Mendebaldeko Gizarte modernoaren barne-proletalgoa, hala ere, nabarmenki antzua agertu zen «erlijio nagusi» berriak sortzeko, eta hau Kristau Elizaren bizitasun etengabeari zor zaiola adierazten da, hortik sortu zelarik Mendebaldeko Kristandadea.

### *4. Kanpo-proletalgoak*

Zibilizazio bat hazten ari den bitartean, bere kultur eragina barreiatu eta auzoko primitiboengan sartzen da distantzia zehazgabe bateraino. Gutxiengo sortzailearen gidaritzari jarraitzen dion «gehien-go ez-sortzailearen» parte bilakatzen dira. Baina zibilizazio batek kolapsoa izan duenean, xarmak eragina galtzen du, barbaroak etsai bihurtzen dira eta muga militar bat ezartzen da, oso urrutira bultza daitekeena, baina azkenean egonkor bihurtzen dena. Etapa honetara iristean, denborak barbaroen alde jokatzen du. Egitate hauek historia helenikoan oinarrituz argitzen dira. Kanpo-proletalgoaren erantzun bortitz eta otzanak aipatzen dira. Zibilizazio etsai baten presioak kanpo-proletalgoaren ugalkortasun-erlijio primitiboak olinpiar «jain-

kozko gerra-taldeek» erako erlijio bihurtzen ditu. Kanpo-proletalgo garaileen emaitza bereizgarria poesia epikoa da.

### *5. Mendebaldeko munduaren kanpo-proletalgoak*

Horien historia errepasatzen da eta kanpo-proletalgoen erantzun bortitz eta otzanak argitzen dira. Mendebaldeko Gizarte modernoaren ikaragarritzko eraginkortasun materialagatik, mota historikoko barbarotasuna ia desagertu egin da. Geratzen zaizkion bi gotorlekue-tan —Afganistanen eta Saudi Arabian— bertako agintariak Mendebaldeko kulturaren imitazioak hartuz ari dira beren buruak babesten. Hala ere, barbarotasun berri eta beldurgarriagoa nagusitu da Mendebaldeko Kristandadearen beraren antzinako gunee-tan.

### *6. Inspirazio atzerritar eta indigenak*

Gutxiengo menderatzaileek eta kanpo-proletalgoek oztupoak izaten dituzte atzerriko inspirazioa dutenean. Adibidez, atzerriko gutxiengo menderatzaileek (adibidez, britainiar Indiak) sorturiko estatu unibertsalek arrakasta txikiagoa izaten dute onargarri bihurtzen bertako estatu unibertsalek baino, Erromatar Inperioak baino, adibidez. Gerra-talde barbaroek aurkakotasun askoz setati eta sutuagoa eragiten dute, hiksoek Egipton eta mongolek Txinan bezala, beraien barbarotasuna atzerriko zibilizazio baten eraginaz tindaturik dagoenean. Bestalde, barne-proletalgoek sorturiko «erlijio nagusiek» beren erakargarritasuna atzerriko inspirazioari zor izaten diote normalean. Ia «erlijio nagusi» guztiek argitzen dute errealtate hau.

Bi zibilizazio —erlijio nagusi baten inspirazio-sorburu izandakoa eta erlijio nagusi hori sustraitu denekoa— behintzat kontuan hartu gabe, «erlijio nagusi» horren historia ulertezina izateak zera erakusten du: Azterlan hau orain arte oinarritu den ustea —alegia, zibilizazioak, bakarka hartuta, «azterketa-eremu ulergarriak» direla— apurtzen hasten dela hemen.

## *XIX. ZISMA ARIMAN*

### *1. Jokaera, sentiera eta biziera alternatiboak*

Gizarte bat desintegratzen hasten denean, hazkundealdian jendearen ezaugarri izaten diren portaera, sentiera eta bizieren orde-

alternatiboak sortzen dira: bat (pare bakoitzeko lehenengoa) pasiboa, bestea (azkena) aktiboa.

*Abandonua* eta autokontrola sormenaren ordezkotako alternatiboak dira; desertzioa eta martirioa mimesiaren dizipulutzaren ordezkotakoak.

Noraezaren zentzua eta bekatuaren zentzua hazkundearekin batera izaten den *élan*-aren ordezkotako alternatiboak dira; promiskuitatearen zentzua eta batasunaren zentzua «estilo-zentzuaren» ordezkotakoak dira, estilo-zentzu hau hazkundearekin batera zertzen den diferentziazio-prozesu objektiboaren kontrapartida subjektiboa delarik.

Bizitzaren mailan, bi aldaera-pare alternatibo daude ekintza-eremua makrokosmosetik mikrokosmosera aldatzeko mugimenduan, lehenago eterealizazio gisa deskribaturiko prozesuaren azpian datzan aldaketa-mugimenduan. Lehenengo alternatiba-pareak —arkaismo eta futurismoak— huts egiten du aldaketa hori lortzen eta bortizkeria sortzen du. Bigarren pareak —desatxikimenduak eta antzaldaketak— arrakasta izaten du aldaketa hori egiten eta otzantasuna du ezaugarri. Arkaismoa «erlojua atzeratzeko» ahalegina da, futurismoa bidezidorra hartzeko ahalegina Lurrean ezinezkoa den mila urteko urre-arorako. Desatxikimendua, arkaismoaren espiritualizazioa, arimaren gotorlekura erretiratzea da, «mundua» abandonatzea. Antzaldaketa, futurismoaren espiritualizazioa, «erlijio nagusiak» sortzen dituen arima-ekintza da. Lau biziera hauen eta beren arteko erlazioen adibideak ematen dira. Azkenik, sentiera eta biziera hauetako batzuk, batez ere, gutxiengo menderatzaileetako arimen ezaugarri direla erakusten da, beste batzuk proletalgoko arimenak.

2. «*Abandonua*» eta autokontrola adibideen bitartez definitzen dira.

3. *Desertzioa* eta *martirioa* adibideen bitartez definitzen dira.

4. *Noraezaren zentzua* eta *bekatuaren zentzua*.

Noraezaren zentzua mundu osoa Zoriak —edo Halabeharrak, gauza bera baita— gobernatzen duen sentimenduari zor zaio. Sineskizun hau zein zabaldua dagoen erakusten da. Predestinazioaren zenbait erlijioak, kalbinismoak adibidez, energia eta konfiantza handia sortzen dute, eta lehen begiratuan bitxia den errealitate honen kausa aztertzen da.

Noraezaren zentzuak normalean loarazle bezala jokatu arren, bekatuaren zentzuak estimulu izan beharko luke. *Karma*-ren eta «jatorrizko bekatuaren» (bekatuaren eta determinismoaren ideiak elkartzen dituzten) doktrinak aztertzen dira. Hebrear profetak dira kasu klasikoa, beraiek bekatua aitortzen dutelarik atsekabe nazionalen benetako eragiletzat, nabariena ez bada ere. Profeten irakaspena Kristau Elizak hartu zuen eta honela mundu helenikora sartu zen, hainbat mendez hori hartzeko prestatzen egona oharkabean. Mendebaldeko Gizarteak, kristau-tradizioa heredatu arren, badirudi baztertu egin duela bekatuaren zentzua, tradizio haren funtsezko osagai dena.

### 5. *Promiskuitate-zentzua*

Hazten ari diren zibilizazioen ezaugarri den estilo-zentzuaren ordezkio pasiboa da hau. Hainbat erataria agertzen da. a) *Arruntasuna eta barbarotasuna maneretan*. Gutxiengo menderatzaileak «proletarizaziorako» joera azaltzen du, barne-proletalgoaren arruntasunak eta kanpo-proletalgoaren barbarotasunak hartzen ditu, desegintzaren azken etapan, bere bizimodua beste haienarenetik bereiztezin bihurtu arte. b) *Arruntasuna eta barbarotasuna artean*, desintegratzen ari den zibilizazio baten artearen hedapen anormalki zabalagatik eskuarki ordaintzen den prezioa da. c) *Lingue Franche*. Herrien nahasteak hizkuntzen arteko lehia eta nahasmenera eramaten du; hauetako batzuk «lingue franche» gisa barreiatzen dira, eta kasu guztietan haien hedapenak nolabaiteko endekatzea ekartzen du. Adibide asko aztertzen da argibide gisa. d) *Sinkretismoa erlijioan*. Hiru mugimendu bereizi behar dira: filosofi eskola banatuen amalgamak; erlijio banatuen amalgamak, adibidez, Israelgo erlijioaren adulterazioa auzoko kultuekin nahasteagatik, honi kontra egin ziotelarik, azkenean arrakastaz, hebrear profetek; eta filosofien eta erlijioen arteko amalgama edo sinkretismoa. Filosofiak gutxiengo menderatzaileen produktu direnez eta «erlijio nagusiak» barne-proletalgoen produktu, hemen elkarrekintza goragoko a) hartan argiturikoaren pareko da. Hemen, han bezala, proletarioak nolabait ere gutxiengo menderatzailearen posiziorantz mugitzen dira, baina gutxiengo menderatzailea askoz ere gehiago mugitzen da barne-proletalgoaren posiziorantz. Adibidez, kristau-erlijioak bere teologi exegesirako filosofia helenikoaren aparatua erabiltzen du, baina hau amore-emate txikia da greziar filosofiak Platonen eta Julianoren



garaien artean izandako eraldaketaren parean. *e) Cuius regio eius religio?* Atal hau aurreko atalaren bukaeran aztertutako Juliano filosofo enperadorearen kasutik sortutako digresio bat da. Gutxiengo menderatzaileek konpentsa al dezakete beren ahulezia espiritualara beren aukerako erlijio edo filosofia ezartzeko indar politikoa erabiliz? Erantzuna zera da, zenbait salbuespen aparte, huts egingo dutela, eta indarraren laguntza bilatzen duen erlijioa larri zaurituta geratuko dela horregatik. Itxuraz harrigarria den salbuespen bakarra Islamaren hedapenaren kasua da, eta azertu eta erakusten da hau ere ez dela benetan hasieran zirudien bezain salbuespena. Aurkako formula bat, *religio regionis religio regis*, egiatik hurbilago dago: zinismoz edo uste sendoz, mendekoen erlijioa onartzen duen gobernariak aurrera egiten du.

## 6. Batasun-zentzua

Hau promiskuitatearen sentimendu pasiboaren antitesi «aktibo» da. Materialki adierazten da estatu unibertsalen sorkuntzan, eta espiritu berberak inspiratzen ditu unibertsoan zabaldu eta gobernatzen duen lege ahalguztidun edo nonahiko jainko baten kontzeptuak. Bi kontzeptu hauek aztertzen eta argitzen dira. Azkenekoan, Jahveren —hebrearren «jainko jeloskorren»— ibilbidea hasieratik, Sinaiko sumendi baten «jinn» gisa, bere azken sublimazioraino jarraitzen da, Kristau Elizak gurtzen duen benetako Jainko Bakarraren ikuspegi aratz eta goretziaren garraiatzaile historiko bezala, eta lehiakide guztien gain izandako garaipen honen azalpena ematen da.

## 7. Arkaismoa

Orainaldi jasangaitzetik ihes egiteko ahalegina da, desintegratzen ari den gizartearen bizitzan lehenagoko fase bat berriro eraikiz. Adibide antzinakoak eta modernoak ematen dira, modernoetan berpizte gotikoa eta gutxi-asko desagertutako hainbat hizkuntzak arrazoi nazionalistengatik izandako berpizte artifiziala sartzen direlarik. Mugimendu arkaizanteak normalean antzuak gertatzen dira edota aurkako mugimendu izatera igarotzen dira, hots:

## 8. Futurismoa

Hau orainalditik ihes egiteko ahalegina da, etorkizun ezezagunaren iluntasunera salto eginez. Honek iraganarekiko lokarri tradizio-

nalak urratzea dakar, eta iraultzailea da benetan. Artean ikonoklastia gisa agertzen da.

#### *9. Futurismoaren autotraszendentzia*

Arkaismoa futurismoaren leizean eror daitekeen bezala, horrela futurismoa antzaldaketaren gailurretara igo daiteke. Beste hitz batzuetan, bere utopia mundu-mailan aurkitzeko ahalegin etsia abandonatu dezake eta arimaren bizitzan bilatu, denborak eta espazioak trahatu gabe. Ikuspegi honetatik, gatibualdiaren osteko juduen historia aztertzen da. Futurismoa judu-inperio bat lurrean sortzeko hainbat ahalegin suizidatan adierazten da, Zerubbabelengandik Bar Kokabaga-naino; antzaldaketa, kristau-erlijioaren ezarpenean.

#### *10. Desatxikimendua eta antzaldaketa*

Desatxikimenduaren jarrerak bere adierazpiderik zurrun eta sutuena Budaren irakaspena adierazi nahi duen filosofian aurkitzen du. Bere ondorio logikoa suizidioa da, benetako desatxikimendua jainko batek bakarrik lor dezake eta. Bestalde, kristau-erlijioak desatxikimendua —gozatzea argi eta garbi bere eskumenean zeukalarik— bere borondatez abandonatu zuen Jainko bat aldarrikatzen du. «Hainbestearino maite izan zuen Jainkoak mundua...»

#### *11. Palingenesia*

Hemen aztertutako lau bizimoduetatik, antzaldaketa da bide bat aurkezten duen bakarra, eta hori ekintza-eremua makrokosmosetik mikrokosmosera aldatzen duelako. Hori desatxikimenduaz ere egia da, baina desatxikimendua erretiratzea bakarrik den bitartean, antzaldaketa erretiratzea eta itzultzea da: palingenesia bat, ez espezie zaharrek beste ale bat berriro jaiotzearen zentzuan, baizik eta gizarte-espezie berri baten jaiotzearen zentzuan.

### **XX. DESINTEGRATZEN ARI DIREN GIZARTEEN ETA GIZABANA-KOEN ARTEKO HARREMANA**

#### *1. Jeinu sortzailea salbatzaile gisa*

Hazkundealdian gizabanako sortzaileek erantzun arrakastatsuak ematen dizkiete ondoz ondoko erronkei. Desintegrazioaldian desintegratzen ari den *gizartearen* salbatzaile gisa agertzen dira, edo gizarte *horrengandik* salbatzen dutenak bezala.

## *2. Ezpatadun salbatzailea*

Hauek estatu unibertsalak sortu eta mantentzen dituzte, baina ezpataren lan guztiak iragankorrak gertatzen dira.

## *3. Denbora-makinadun salbatzailea*

Hauek arkaizanteak eta futuristak dira. Hauek ere ezpata hartzen dute eta ezpatarien patua pairatzen dute.

## *4. Erregez mozorroturiko filosofoa*

Hau Platonen erremedio ospetsua da. Huts egiten du bateraezintasuna dagoelako filosofoaren desatxikimenduaren eta ahaldun politikoen ezaugarri diren metodo hertsatzaileen artean.

## *5. Jainkoa gizaki batengan haragitua*

Hainbat hurbilketa osagabe bidean geratzen da eta Jesus Nazaretekoak bakarrik konkistatzen du heriotza.

# *XXI. DESINTEGRAZIOAREN ERRITMOA*

Desintegrazioak ez du uniformeki jokatzeko, baizik eta porrotak eta indarberritzeak izaten ditu txandaka. Adibidez, estatu unibertsal baten ezarpena indarberritzea da arazoaldi baten porrotaren ondoren, eta estatu unibertsalaren deuseztatzea azken porrota izaten da. Normalean zera ikusten da: indarberritze baten ondoren porrota gertatzen dela arazoaldian zehar, eta porrot baten ondoren indarberritzea estatu unibertsalean zehar; beraz, badirudi erritmo normala hau dela: porrota-indarberritzea-porrota-indarberritzea-porrota-indarberritzea-porrota: hiru kolpe eta erdi. Eredu honen adibideak desagerturiko zenbait gizarteren historietan aurkitzen dira, eta gero geure Mendebaldeko Kristandadearen historiari aplikatzen zaio, gure gizartea bere garapenean zein etapara iritsi ote den ziurtatu nahirik.

# *XXII. ESTANDARIZAZIOA DESINTEGRAZIOAREN BIDEZ*

Diferentziazioa hazkundearen marka den bezala, estandarizazioa desintegrazioaren marka da. Kapituluak bukatzeko ondorengo liburukietan aztertuko diren arazoak aipatzen dira.

## VI. ESTATU UNIBERTSALAK

### *XXIII. HELBURUAK ALA BITARTEKOAK?*

Lan honen orain arteko ibilbidea laburtzen da eta estatu unibertsalak, eliza unibertsalak eta gerra-talde barbaroak ondorengo ataletan aztertzen jarraitzeko arrazoiak ematen dira. Estatu unibertsalak, zibilizazioen azken fasetzat soilik hartu behar ote dira ala garapen berrien atarikotzat?

### *XXIV. HILEZKORTASUNAREN AMESKERIA*

Estatu unibertsaletako hiritarrek, kasurik gehienetan, ongietorria egiten diote horien ezarpenari eta gainera hilezkorrak direla uste izaten dute, eta uste horretan jarraitzen dute, ez bakarrik estatu unibertsala desagiteko zorian dagoenean, baita desagertu ondoren ere; eta emaitza izaten da lehen izandakoaren «arima» gisa agertzen dela berriro erakundea; adibidez, mundu greko-erromatarreko Erromatar Inperioa Erromatar Inperio Santu gisa Mendebaldeko Kristandadearen gizarte filialean. Honen azalpen bat zera izan liteke: estatu unibertsala indarberritze bat dela arazoaldiaren ondoren.

### *XXV. SIC VOS NON VOBIS*

Estatu unibertsal baten erakundeek epe luzera ez diote honen iraupenari eusten, baina aldi berean beste erakunde batzuen xedeetarako balio dute, bereziki barne-proletalgoen erlijio nagusien xedeetarako.

#### *1. Estatu unibertsalen eroankortasuna*

Estatu unibertsalak, ordena eta uniformetasuna ezartzean, eroankortasun handiko bitarteko bat ematen du, ez bakarrik geografiko-ki aurrez parroki estatu banatu izandakoen artean, baita sozialki ere gizarteko klase desberdinen artean.

#### *2. Bakearen psikologia*

Estatu unibertsalen gobernariak beren iraupenerako beharrezkotzat jotzen duten tolerantziak erraztu egiten du erlijio nagusien

hedapena, honako ideia komun honek (Miltonen «Kristoren Jaiotzako Oda»n adierazia, adibidez) argitzen duen bezala: Erromatar Inperioa probidentzialki ezarria izan zela Kristau Elizaren onurarako. Hala ere, tolerantzia hori ez da unibertsala edo erabatekoa. Aldi berean, tolerantzia hau, antimilitarismoaren forman, abantailatsua gertatuko da kanpotar erasokorrentzat: barbaro edo auzoko zibilizazioentzat.

### *3. Erakunde inperialen erabilgarritasuna*

*Komunikabideak.* Errepideek, itsas bideek eta hauek ordenan mantentzeak gobernuarentzat ez ezik beste batzuentzat ere balio dute, adib., San Paulok erromatar bideak erabili zituen. Gaur egungo erlijio nagusiek antzera erabiliko ote dute teknologia modernoak ahalbidetzen duen mundu-mailako komunikabide-sistema? Horrela egiten badute, zenbait arazorekin topo egingo dute, lehenagoko garaietan kristau ez ziren munduetan kristau-misioek izandako historiak argitzen dituen arazoekin.

*Goarnizioak eta koloniak.* Hauek zibilizazio nahiz gobernu-xedeetarako balio dute, baina desintegratzen ari diren gizarteen marka diren pammixia eta proletarizazioa ere bultzatzen dituzte. Onuradun nabarmenenak gerra-talde barbaroak dira, baina erlijio nagusientzat ere onuragarriak dira. Islamaren garapenetik ateratako argibideak ematen dira. Mitraismoa goarnizioz goarnizio zabaldu zen Erromatar Inperioaren mugan zehar eta kristautasuna koloniaz kolonia; adibidez, Korinto eta Lyonon garrantzia, biak erromatar gobernuak sorturiko koloniak, Kristau Elizaren hasierako historian.

*Probintziak.* Politika konparatuak, estatu unibertsal sinikoaren historiaz argituak, eta erlijio nagusi batek antolaketa probintzialaz egindako erabilera, Kristau Elizaren garapenaz argitua.

*Hiriburuak.* Hauen kokapenean eragiten duten zenbait faktore. Estatu unibertsala sortu zuten konkistatzaileen jatorrizko hiriburua gerta liteke betiko egokia ez izatea. Hiriburuak eta hauen lekualdaketak aztertzen dira gero. Garrantzi politikoa galdu duten hiriburu batzuek gogoangarri izaten jarraitzen dute erlijio nagusien kuartel nagusi gisa.

*Hizkuntza eta idazkera ofizialak.* Estatu unibertsalen gobernariek hizkuntza ofizialak aukeratzeko izaten dituzten arazoak eta zenbait konponbide. Hizkuntza batzuen —adibidez, aramera eta latina—

ren— erabilera hasieran egokitu zitzaizkien inperioak baino askoz harantzago zabaldu zen denboran eta espazioan.

*Legea.* Hemen ere estatu unibertsalen agintariek oso jokaera desberdinak izan dituzte, beren sistemak mendekoei zenbateraino ezarri dizkieten kontuan hartzen bada. Estatu unibertsalen lege-sistemak zenbait komunitatek ere erabili izan dituzte, beraientzat pentsatuak ez izan arren; adibidez, erromatar legea musulmanek eta Kristau Elizak erabili zuten, eta Hamurabiren Kodea moisetar legearen egileek.

*Egutegiak; pisuak eta neurriak; dirua.* Egutegiak egitearen arazoak eta egutegiek erlijioarekin duten lotura estua. Denbora neurtzeko gure metodoak oraindik neurri batean erromatarrek dira, neurri batean sumeriarrek, eta Frantziako Iraultzak huts egin zuen horiek iraultzen. Pisuak eta neurriak: sistema hamartar eta hamabitarraren gudia. Dirua: bere esanahia eta jatorria Greziako hirietan; gero nola hedatu zen hiri horiek Lidiar eta Akemenestar inperioek berenganatu zituztenean. Paperezko dirua mundu sinikoan.

*Armada iraunkorrak.* Erromatar armada inspirazio-iturri Kristau Elizarentzat.

*Herri-administrazioa.* Herri-administrazioaren arazoak argitzen dira Augustoren, Pedro Handiaren eta Indiako Britainiar Inperioaren politikak konparatuz. Herri-administrazioaren ethosa administrazio sinikoan eta Indiako britainiar administrazioan. Herri-administrazio erromatarra, Mendebaldeko Kristandadea sortu zuten hiru elizgizon handiren trebaleku.

*Hiritartasuna.* Hiritartasuna hedatzea, estatu unibertsalen gobernariak emandako pribilegio bat; berdintasun-egoerak sortzen laguntzen du, hauetan loratzen direlarik erlijio nagusiak.

## VII. ELIZA UNIBERTSALAK

### XXVI. ELIZA UNIBERTSALEK ZIBILIZAZIOEKIKO DUTEN ERLAZIOAREN IKUSPEGI ALTERNATIBOAK

#### 1. *Elizak kantzer gisa*

Elizak estatu unibertsaletan gain behera doazen gizarte-gorputzetan hazten direnez, berez kantzertzat hartzen dituzte, bai beren garaiko aurkariak eta bai historialari modernoek eskola batek. Ikuspegi hau okertzat hartzeko arrazoiak ematen dira; erlijioek suntsitu baino gehiago bizkortu egiten dute beren jarraitzaileengan gizarte-betebeharraren zentzua.

#### 2. *Elizak krisalida gisa*

Hirugarren belaunaldiko zibilizazioetako bakoitzak, gaur egun bizi denak, eliza bat du bere atzean, berorren bidez bigarren belaunaldiko zibilizazio baten filial delarik. Mendebalde modernoko zibilizazioak Kristau Elizarekiko duen zorra aztertzen da. Aitzitik, bigarren belaunaldiko zibilizazioak beste lotura batzuen bidez ziren aurrekoen filialak, eta errealitate honek historiaren ibilbideaz orain arte onartua genuen plana berrikustea iradokitzen du.

#### 3. *Elizak gizarte-espezie nagusi gisa*

##### a) *Sailkapen berria*

Zibilizazioen goraldiak eta erorialdiak gorpil baten biraketekin konparatzen dira, gorpilaren xedea erlijioaren gurdia aurrerantz eramatea delarik. Erlijio-aurrerapenean Abraham, Moises, hebrear profeta eta Kristoren izenek adierazten dituzten urratsak Gizarte Sumeriko, Egiptziako, Babiloniko eta Helenikoaren desintegrazioaren emaitza gisa hartzen dira, hurrenez hurren. Egungo munduari datorkion bateratzeak eskaintzen al du gaur egun aurrerago joateko itzaropenik? Horrela izatekotan, orain munduan diren erlijio nagusiak ikasgai zailak ikasi beharrean daude.

##### b) *Elizen iraganaren esanahia*

Onartzen da elizek, orain arte egindakoaren arabera, ez dutela ematen gai direnik hemen esleitzen zaien papererako.

### *c) Bihotzaren eta buruaren arteko gatazka*

Zientzia modernoak erlijioan izandako eragina ez zen bere motako lehenengo gatazka. Hasierako Kristau Elizaren eta filosofia helenikoaren arteko gatazka antolabide batean bukatu zen: filosofoek kristau-errebelazioaren «egia» onartu zuten, betiere errebelazioak filosofoen hizkeraz janzten bazuen bere burua. Jantzi heleniko higitu hauek aspaldidanik behaztopa-harri bihurtu ziren, Kristau Eliza erlijiozkoak ez ziren kausa galduen zerrendan jartzen zutelarik, kristautasunak horiekin zerikusirik ez bazuen ere. Erlijioak zientziari utzi behar dizkio jakintza intelektualaren arlo guztiak, zientziak horiekiko eskubidea duela froga badezake. Erlijioa eta zientzia egi mota desberdinez arduratzen dira, eta psike subkontzientearen psikologia modernoak argitasun sakona ematen du desberdintasun horren izaeraz.

### *d) Elizen etorkizunari buruzko promesa*

Elizen marka bereizgarria zera da, guztiek dutela beren kide egiazko Jainko bakarra. Honek beste gizarte-mota guztietatik bereizten ditu, eta desberdintasun honen ondorioak aztertzen dira.

## **XXVII. ZIBILIZAZIOEN PAPERA ELIZEN BIZITZAN**

### *1. Zibilizazioak obertura gisa*

Kristau Elizak Zibilizazio Helenikotik hartu eta erabilera berrietarako eraldatu zituen termino teknikoen hiztegiaren azterketa «eterealizazioaren» adibide bat da, eta Zibilizazio Helenikoak kristautasunaren obertura gisa balio izan ziola iradokitzen du.

### *2. Zibilizazioak atzerakada gisa*

Termino tekniko horien berorien ondorengo degradazioa aztertzen da, Kristau Elizatik sortu eta gero emantzipatu zen Mendebaldeko Gizarteak erabilera sekularra emateko bere mende hartu zituenean.

## **XXVIII. LURREAN MILITATZEAREN ERRONKA**

Zibilizazio filiala Elizatik urruntzea Elizak egindako sasiurra-  
tsei zor zaie, eta horiek «lurrean militatzeko» helburuarekin erlijioa-



ren espiritua eliz erakunde batean gorpuztearen ezinbesteko ondorio dira. Hiru motatako sasiurratsak aipatzen dira: (I) inperialismo politikoak agintari sekularrak iraintzeko arrazoizko zioa ematen du, esku-sartzea iruditzen baitzitzaien beren eginbeharren egikaritzan; (II) arrakasta ekonomikoa, eginbehar ekonomikoen egikaritza «kementsu, Jaunarentzat eta ez gizakientzat bezala» zertzeak ezinbestean dakarrena; (III) Eliza batek bere nortasun korporatiboa idolatratzea.

Ezin al du erlijioak urrezko aroa agindu bidaiaren bukaeran? Agian beste mundu batean, baina ez hemengoan. Jatorrizko bekatua oztopo gaindiezina da. Mundu hau Jainkoaren erreinuko probintzia bat da, baina probintzia errebeldea, eta, gauzak diren bezala, beti jarraituko du izaten.

## VIII. ARO HEROIKOAK

### XXIX. TRAGEDIAREN BILAKABIDEA

#### 1. *Gizarte-horma bat*

Aro heroikoa desintegratzen ari den zibilizazio bateko estatu unibertsalaren eta mugaz bestaldeko barbaroen arteko *limes* edo muga militar baten kristalizazioaren ondorio sozial eta psikologikoa da. Ibar batean jarri eta urtegia eratzen duen eustormaren antzekoa izan liteke, eta simil honen inplikazioak kapituluko atal honetan eta ondorengoe-tan lantzen dira.

#### 2. *Presioaren metaketa*

*Limes* edo eustormaren gaineko presioa areagotu egiten da mugaz bestaldeko barbaroek «aurkari» duten zibilizazioaren teknika militarrek ikasi ahala. Zibilizazioaren zaintzaileak barbaroak eurak erabili beharrean aurkitzen dira, eta mertzenario hauek ugazaben aurka bihurtzen dira eta inperioaren bihotzean jotzen dute.

#### 3. *Kataklistmoa eta bere ondorioak*

Barbaro garaileak ezinbestean beren arrakastak hondatzen ditu, erabat ezgai baitira eurek sortu duten krisiarekin moldatzeko. Hala eta guztiz ere, beren agonian, kondaira heroikoak eta jokabide-

etarako idealak sortzen dituzte, *Aidôs* eta *Nemesis* homerikoetan eta omeiatarren *Hilm*-en adierazita dauden bezala. Desordenazko aro heroikoa bat-batekotasun harrigarriz bukatzen da, eta ondoren «ilun-aroa» etortzen da, non lege eta ordenaren indarrak berriro sendotzen diren pixkanaka. «Interregnoa» bukatu egiten da, eta zibilizazio berri bat hasten da.

#### 4. *Fantasia eta errealtatea*

Hesiodoren eskema bitxia «aroei» buruz: urrezkoa, zilarrezkoa, brontzezkoa eta burdinazkoa, «heroien aroa» brontze eta burdin aroaren artean sartzen duenari. Egia esateko, «heroien aroa» lehen deskribaturiko brontze-aroa da, ez egitate historiko gisa, baizik eta fantasia homeriko bezala. Barbarotasun garaileak sortutako poesia epikoaren distirak engainatu egin zuen Hesiodo, ondorengo «ilun-aro»ko poeta. Hirugarren Reich-aren aitzindariak ere engainatu zituen, «Ipar Europako» barbarotasunaren «piztia ilehoriak» goretsi zituztelarik. Hala ere, barbaroek lotura gisa balio izan zuten erlijio nagusien sortzaile izandako bigarren belaunaldi zibilizazioak lehen mailako zibilizazioen filial izateko.

Oharra: «*Emakumezkoen errejimentu beldurgarria*»

Deabruzko emakumeak, aro heroikoetako tragedietan, ez kon-  
dairan bakarrik baita benetan ere, hain paper nabarmena jokatzen  
nola iritsi ziren azaltzen da.

## IX. ZIBILIZAZIOEN ARTEKO HARREMANAK ESPAZIOAN

### XXX. AZTERKETA-EREMUAREN HEDAPENA

Beren sorrera, hazkunde eta kolapso-aldietan elkarrengandik banatuta egoki azter daitezkeen zibilizazioek utzi egiten diote azterketa-eremu ulergarri izateari azken desintegrazioaldian. Aldi honetan horiek dituzten harremanak aztertu behar dira orain. Zenbait eremu geografiko —Siria eta Oxus-Jaxartes arroa— nabariak izan dira harreman hauen historian, eta ez da kasualitatea eremu hauek berauek eta beren ingurukoak izatea erlijio nagusien jaiolekuak ere.

## XXXI. ZIBILIZAZIO GARAIKIDEEN ARTEKO TOPAKETEN AZTERKETA

### 1. Lan-plana

Mendebalde modernoaren eta beste zibilizazio garaikide guztien arteko topaketak aztertuz hastea proposatzen dugu. Mendebaldeko Gizartearen historiaren aldi modernoa bi gertakariren arabera data daiteke: bata gure aroko hamabosgarren mendea bukatu baino lehentxeagokoa, eta bestea hamaseigarren mendea hasi eta berehalakoa. Lehenengoa itsatatzeko ozeanikoaren teknikaz nagusitzea izan zen; bigarrena «Erdi Aroko» Mendebaldeko kristau-errepublika desagitea izan zen, aitasantutzak elkartu eta batuta eduki zuena. «Erreforma», noski, etapa bat izan zen, hamahirugarren mendean hasi eta hamazazpigarrena arte burutu ez zen bilakaera-prozesu luze batean. Baina «Erreforma» bera Kolonen eta Da Gama-ren bidaiaren lekuko izandako belaunaldi berean zertu zen. Hurrengo urratsa atzerantz egingo dugu denboran eta Mendebaldeak bere «Erdi Aroko» fasean topo egin zuen bi gizarte lehiakiderekin izandako harremanak aztertuko ditugu; eta gero Gizarte Helenikoaren harremanak, eta bukatzeko mota bereko lehenagoko harreman batzuei begiratu bat emango diegu.

Mendebalde modernoaren harremanak aztertzerakoan, historiako atal hauek, orain arte zehazki ezagutzen ditugun arren, gehienak —agian guztiak— bukatu gabeak direla ohartuko gara, eta galderarikur bat uzten dutela zintzilika.

### 2. Planaren arabeko lana

#### a) Mendebalde modernoko zibilizazioarekin topaketak

(1) *Mendebalde modernoa eta Errusia. Errusiako Kristandade Ortodoxoaren jatorrizko ondareak inbasioak eta konkistak jasan ditu Mendebaldeko parroki estatu baten —Polonia-Lituaniaren— aldetik hamalagarren mendetik aurrera, galera hauek ez zituelarik erabat berreskuratu K.o. 1945 arte. Mendebaldeko kulturaren erradiazioak erantzun abegitsua («herodetar») hartu zuen Pedro Handiarengandik, baina Mendebaldean bertan onetsitako ildotik bi mendeko mendebaldartzearen ondoren, petritar erregimena epaitu eta eskas agertu zen*

*Lehen Mundu Gerraren ordalian, eta mendebaldartzeko sistema heretiko batek ordeztu zuen: komunismoak.*

*(II) Mendebalde modernoa eta Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusia.* Gizarte honetan, atzerriko estatu unibertsal baten —Otomandar Inperioaren— gobernupean politikoki batuta egona, Mendebalde modernoaren kultura ez zen goitik beherantz sartu, Errusian bezala, behetik gorantz baizik, hamazazpigarren mendetik aurrera. Honek padisharen inperioa mendebaldartzea eragin zezakeen fanariota grekoen eraginpean. Zoritarrez mugimendu nazionalistak nagusitu ziren eta inperioa parroki estatutan zatitu zen. Errusiak huts egin zuen herri hauen gidaritza zertzen ildo panortodoxoan zein paneslaviarrean, nahiz eta orain errusiar erregimen pankomunista ezarri den horietako batzuen gainean.

*(III) Mendebalde modernoa eta hindu-mundua.* Hemen Mendebaldeak bere burua ezarri zuen atzerriko estatu unibertsal baten forman, atzerriko beste estatu unibertsal bat —Mogolen Inperio musulmana—, jada desegiten ari zena, ordeztuz. Britainiar Inperioak indiar elitea erabili zuen, otomandar padishak Ekialdeko elite kristau ortodoxoa erabili zuen bezala. Indiar elite honek azkenean arrakasta izan zuen (fanariotek huts egin zuten lekuan) inperioa indiaritzen eta ukitu gabe gordetzen, Pakistanen banakuntzaren salbuespen handiarekin. Britainiarrek Indian izandako herri-administrazioaren puntu indartsu eta ahulak aztertzen dira, eta biztanleriaren arazoa aipatzen da Indiaren etorkizunean agertzen den hodei beltz gisa.

*(IV) Mendebalde modernoa eta mundu islamikoa.* Mendebaldearen aro modernoa hastean senide ziren bi gizarte islamikoek, Arabiko eta Iranikoak, Mendebaldeko eta Errusiako gizarteak agindupeko lurraldeetatik munduko beste alde batzuetara lehorrez iristeko bide guztiak itxi zituzten, baina zortearen alderantzizkatze harrigarria, Islamaren kalterako, zegoen gertatzeko zorian. Botere-orekan aldaketak hau gertatu zenetik, hainbat estatu musulmanetako gobernariak petritar «herodianismo» politikak gauzatu izan zituzten arrakasta maila desberdinekin. Mundu islamikoak Mundu Zaharreko lau zibilizazio primarioetako hiruren sorterriak hartzen ditu, eta eremu hauetako berezko nekazaritza-aberastasuna sendotu egin du orain horiek petrolioz aberatsak direla aurkitzeak. Ondorioz, hogeigarren mendeko

munduan «Nabot-en mahasti» bihurtu dira, Mendebaldea eta Errusia gatazkan daudelarik bertan.

(V) *Mendebalde modernoa eta juduak*. Judu-diaspora ez zen egoki sartzen lurralde-estatu homogeneousen Mendebaldeko sisteman. Azterketa historikoa, ez Mendebaldeko historiaren Aro Modernoaren hasieratik, baizik eta Mendebaldeko Kristau Gizartearen beraren hasieratik, egiten bada, hiru fase bereiz daitezke. Lehen fasean (hau da, Visigotiaren historian) juduak, gaizki ikusiak eta tratatuak izan arren, erabilgarritzat jotzen ziren, garai hartan, Mendebaldeko kristauak (Cecil Rhodes-ek Oxfordeko irakasleei buruz esan bezala) «finantzatan umeak» baitziren. Hurrengo fasean, Mendebaldeko kristauak ikasia zuten «beren judu izaten», eta juduak kanporatu egin zituzten (adibidez, Ingalaterratik K.o. 1291n). Hirugarren fasean, Mendebaldeko Gizartea finantzarioki behar hainbat gaitua zegoen juduei itzultzen uzteko (hau da, Ingalaterrara K.o. 1655ean) eta haien trebetasuna negozioetan gogo onez hartzeko. Ondoren etorri zen aro liberala zoritxarrez ez zen izan prozesuaren bukaera. Antisemitismoaren eta sionismoaren azterketak eginez bukatzen da atal hau.

(VI) *Mendebalde modernoa eta Ekialde Urruneko eta Amerikako bertako zibilizazioak*. Zibilizazio hauek ez zuten aurretiaz harremanik izan Mendebaldearekin hau bere aldi modernoan aurkeztu zitzaizen arte. Itxura guztien arabera (nahiz eta hauek engainagarriak izan daitezkeen), amerikar zibilizazioak erabat suntsituta zeuden. Mendebalde modernoak Txinan eta Japonian izandako eraginaren prozesuak harrigarriro paraleloak izan ziren. Bi kasuetan Mendebaldeko kultura Goiz Aro Modernoko forma erlijiosoan hartu zuten, eta ondoren errefusatu; eta, geroago, Berant Aro Modernoko Mendebaldeko teknologiaren eragina izan zuten. Bi historien arteko desberdintasunak neurri handi batean Txina inperio oso zabal eta barreiatua izateak eta Japonia uharte-komunitate estu-estua izateak esplikatzen ditu. Hau idazteko garaian bi gizarteak zeuden ilunaldian: Txina komunismoaren mende eta Japonia amerikarren kontrolpean. Biak, India bezala, biztanleriaren arazoari aurre egiten ari ziren.

(VII) *Mendebalde modernoaren eta garaikideen arteko topaketen ezaugarriak*. «Mendebalde modernoko» zibilizazioa «klase ertainaren» zibilizazioa da. Mendebaldekoak ez ziren baina klase ertain

bat garatua zuten gizarteek ongietorria egin zioten Mendebalde modernoaren ethosari. Mendebaldekoa ez zen eta klase ertainik ez zuen zibilizazio baten gobernariak «mendebaldartzea» nahi bazuen, bere helbururako klase ertain artifizial bat sortu behar zuen intelligentsia baten forman. Intelligentsia hauek azkenean beren ugazaben aurka bihurtzen dira.

*b) Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearekin topaketak*

*(I) Gurutzaden itsasgorak eta itsasbeherak.* Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadea hedatzealdian sartu zen hamaikagarren mendean, eta ondoren bi mende geroago kolapso eta erretiroaldian muga batzuetan, baina ez beste batzuetan. Hedatze eta ondorengo erretiratze honen kausak aztertzen dira.

*(II) Erdi Aroko Mendebaldea eta mundu siriakoa.* Gurutzatuek eta aurkari musulmanek puntu komun asko zuten. Normandiar «frankoak» eta seljuktar turkiarrak, biak, barbaro ohiak ziren, eurek inbaidu eta, zentzu askotan, menderatu zuten gizartearen erlijio nagusira duela gutxi konbertituak. Hain aurreratua ez zegoen Mendebaldeko Kristau Gizartera Zibilizazio Siriakoak egindako kultur erradiazioak poesian, arkitekturan, filosofian eta zientzian eragin zuen.

*(III) Erdi Aroko Mendebaldea eta Kristandade Greko Ortodoxoa.* Ezinikusi handiagoa zegoen bi kristau-gizarte hauen artean horietako edozeinen eta auzoko musulmanen artean baino. Elkarrekiko ezinikusi honen adibide gisa aipatzen dira, batetik, Liutprando lonbardiarrak gotzainak Konstantinoplan izandako eginkizunaren kontaketa eta, bestetik, Ana Komnenoren *Historia*-n egiten den gurutzatuen deskribapena.

*c) Lehenengo bi belaunaldietako zibilizazioen arteko topaketak*

*(I) Alexandro-osteko Zibilizazio Helenikoarekiko topaketak.* Fase honetan Zibilizazio Helenikoak Mundu Zaharrean zibilizazio garaikide guztiekin izan zituen harremanak, eta ondorengo erradiazio helenikoaren emaitzak ez ziren landu eta osatu Gizarte Helenikoa bera desegin eta hainbat mende geroago arte. Kultura helenikoa armada helenikoen konkistak baino askoz harago zabaldu zen, mundu sinikorra, alegia.

Alexandroren ibilbideak historia helenikoan adierazten duen hedapena Mendebaldeko Kristandadearen historian ozeanoaren kon-

kistarekin pareka daiteke; baina, Mendebalde, bere fase modernoan, bere krisalida-erlijiotik, kristautasunetik, emantzipatzen ari zen bitartean, Zibilizazio Helenikoak, horrelako krisalida erlijiosorik ez zenez, gero eta erlijio-gose handiagoa zuen.

(II) *Alexandro-aurreko Zibilizazio Helenikoarekiko topaketak.* Mediterraneo arroaz nagusitzeko hiru antagonisten arteko gatazka sortu zen, Alexandro-aurreko Gizarte Helenikoaren lehiakideak Gizarte Siriakoa eta Gizarte Hititaren gerakin fosilizatua, etruskoak, izan ziren. Gizarte Siriakoa feniziarren itsas boterean agertu zen, baita prozesuaren geroagoko etapetan Akemenestar Inperioan ere. Grekoen kultur konkistarik garrantzitsuena denboraldi honetan Erromaren helenizazioa izan zen, zeharka lortua etruskoen aurretiazko helenizazioaren bidez.

(III) *Irakia eta garaia.* Zibilizazioen arteko topaketen emaitza emankor bakarrak bake-lanak izan dira. Ondoren begiratu bat ematen zaie lehen belaunaldiko zibilizazioen —Indiko eta Sinikoaren, Egipziako eta sumerikoaren— arteko harremani.

## XXXII. GARAIKIDEEN ARTEKO TOPAKETEN DRAMA

### 1. Topaketen kateaketa

Maila militarrean, alde bateko erronkak beste aldeko erronka batera eramaten du, eta honek, balantza orekatu ondoren kontraeraso-ari ekiten dio eta erantzuna sortarazten du berriro. «Ekialdearen» eta «Mendebaldearen» arteko honelako topaketen katea deskribatzen da Akemenestar Inperioak Greziari egindako erasotik hasi eta Mendebaldeko ez diren herrialdeek Mendebaldeko inperialismoaren aurka hogeigarren mendean izandako erreakzioetaraino.

### 2. Erantzun-aniztasuna

Erantzun militarra ez da eman litekeen bakarra. Errusia komunistak gerra ideologikoaz indartzen ditu armamentuak. Erantzun militarra ezinezkoa izan den lekuan, edota saiatu eta huts egin duen lekuan, herri konkistatu batzuek beren erlijioa biziki landuz komunitate gisa identitateari eutsiz erreakzionatu dute. Erantzun honen adibide klasikoa juduena da sakabanatu zirenetik. Erantzun gorena erlijio

nagusi bat sortzea da, bere garaian konkistatzaileak gatibu hartuko dituen.

### XXXIII. GARAIKIDEEN ARTEKO TOPAKETEN ONDORIOAK

#### 1. Arrakastarik gabeko erasoen emaitzak

Eraso baten errefusapen arrakastatsuen emaitza garailearen militarizazioa izan daiteke, emaitza negargarriekin azken batean. Honela, akemenestar inbaditzaileen aurkako garaipenak, handik berrogeita hamar urtera, Zibilizazio Helenikoaren kolapsoa ekarri zuen.

#### 2. Erasoa arrakastatsuen emaitzak

##### a) Gizarte-gorputzean izandako ondorioak

Arrakastaz erasokorra den zibilizazio batek ordaindu behar duen gizarte-prezioa zera da: atzerriko biktimen kultura sartzen zaio-lar bere bizi-lasterrean. Erasoren biktimengan duen ondorioa maila berekoa da, baina konplexuagoa. Mendebaldeko ideal eta erakundeak Mendebaldekoak ez diren gizarteetan sartzeko emaitza txundigarriak eragiten ditu sarri, «pertsona batentzat bizigarria beste batentzat hilgarria» baita. Atzerriko kultura baten elementu bakarra, gainerakoak bazter utzita, sartzeko ahalegina porrot egitera bideratua dago.

##### b) Arimaren erantzunak

(I) *Deshumanizazioa*. Erasotzaile arrakastatsua *hybris*-aren mende geratzen da eta konkistatua «gizazpiko galtzailatzat» hartzen du. Honela ukatu egiten da gizakiaren senidetasuna. «Gizazpiko galtzaile» hau «fedegabetzat» hartzen denean, konbertsioaren bidez berreskura dezake giza estatusa; «barbarotzat» hartzen denean, azterketa gaindituz berreskura dezake giza estatusa; baina «bertakotzat» jotzen denean ez du itxaropenik, bere ugazaba eraistea edota konbertitzea ez bada.

(II) *Zelotismoa eta herodianismoa*. Terminoek bereizketa argi eta garbia inplikitzen dute konkistatzailearen ethosa errefusatu eta onartzearen artean, baina azterketa zehatzagoak garbi uzten du bereizketa ez dela hasieran ematen duen bezain argi eta garbia. Puntu hau Japonia modernoaren, eta Gandhi eta Leninen ibilbideen azterketak argitzen du.



(III) *Ebanjelismoa*. Jatorrizko zeloteen eta herodetarren autoporrota San Pauloren lorpenarekin konparatzen da.

*Oharra: «Asia» eta «Europa»: egitateak eta fantasiak*

«Asia» eta «Europa», marinel helenikoak Egeotik Itsaso Beltzerantz bidaiatzean, kontrako kontinenteetako itsasertzei emandako izen gisa sortu ziren. Terminoek esanahi politikoa eta kulturala emateak nahasmena besterik ez du sortu. «Europa» «Eurasia» kontinentearen azpikontinente bat besterik ez da, gaizki zehazturiko mugarekin.

## X. ZIBILIZAZIOEN ARTEKO HARREMANAK DENBORAN

### XXXIV. *BERPIZKUNDEEN AZTERKETA*

#### 1. *Sarrera. «Errenazimentua»*

«Errenazimentu» (berpizkunde) hitzaren jatorria azaltzen da, eta horri Azterlan honetan ematen zaion esanahia.

#### 2. *Idea eta erakunde politikoen berpizkundeak*

Berant Erdi Aroko italiar berpizkundeak lehenago hasi eta eragin iraunkorragoa zertu zuen maila politikoa literarioan edo artistikoan baino. Hiri-estatuak; monarkia sekularrak; Erromatar Inperio Santua. Eliz koroatzea Itun Zaharreko errito baten berpizkunda.

#### 3. *Lege-sistemen berpizkundeak*

Erromatar legearen susperraldiak Ekialdeko Kristandade Ortodoxoan eta Mendebaldeko Kristandadean, eta horien ondorioak Elizarentzat eta Estatuarentzat.

#### 4. *Filosofien berpizkundeak*

Konfuziar filosofia sinikoa Ekialde Urruneko Gizartean Txinan suspertzea eta Aristotelesen filosofia helenikoa Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadean suspertzea gertaera paraleloak izan ziren hainbat aldetatik. Lehenengoak iraun egin zuen Mendebalde modernoko ethosak batek eraso egin arte hogeigarren mendearen hasieran. Bigarrena hamabosgarren mendeko literatur berpizkunde

helenikoak astindu zuen eta azkenean hamazazpigarren mendeko Bacon-en mugimendu zientifikoak menderatu zuen.

### *5. Hizkuntza eta literaturen berpizkundeak*

Paper nabarmena jokatu zuten agintari dinastikoez arlo honetan berpizkundeak abiarazten, adibidez, zenbait enperadore txinatarrek bildutako liburutegi harrigarriak. Hizkuntza eta literatura helenikoen italiar berpizkundeak huts egin zuen aitzindari bat izan zuen «berpizkunde karolinjioan», honek, bere aldetik, Northumbriako berpizkundera zituelarik sustraiak. Berpizkundera ezin dute arrakastarik izan harik eta hildako zibilizazioaren «arimari» dei egin nahi dion gizarteak nekromantzi ekintza zertu ahal izateko garapen-etapa egokia lortu arte.

### *6. Ikus-artearen berpizkundeak*

Hainbat adibide aipatzen da, normalean «Errenazimentu» gisa ezagutzen den Mendebaldeko kasuaz aparte. Azken honen bideari jarraitzen zaio arkitekturan, eskulturan eta pinturan. Hiru eremu hauek orijinaltasuna antzutea izan zen azken emaitza.

### *7. Erlijiozko ideal eta erakundearen berpizkundeak*

Judaismoak bere kristau-kimu arrakastatsuekiko izan zuen mespretxuzko jarrera, eta monoteismoaren eta anikonismoaren judu-idealekiko Kristau Elizaren jarrera ezeroso eta anbigua aztertzen dira. Mugimendu protestanteak hamaseigarren mendetik aurrera izan zuen sabatismoa eta bibliolatria Mendebaldeko kristau-altzoan judaismoak izandako berpizkunde indartsu eta herrikoia adibide garbia dira.

## XI. LEGEA ETA ASKATASUNA HISTORIAN

### XXXV. ARAZOA

#### *1. «Legearen» esanahia*

«Naturaren legea» eta «Jainkoaren legea» bereizten dira.

#### *2. Mendebalde modernoko historialarien antinomismoa*

Historiak jainko-probidentzia baten egintzak azaltzen dituelako nozioa, Bossueten garairaino aldarrikatu zen bezala, osperik gabe

geratu da ordudanik. Baina zientzialariak, hauen Naturaren legeak Jainkoaren legea ordeztu duelarik ikerketa-arlo gehientsuenetan, behartuta aurkitu dira historia legegabetasun-egoeran uztera, honela edozer espero daitekeelarik edozerengandik etortzea, H. A. L. Fisher-en ikuspegian bezala.

## XXXVI. GIZA ARAZOEN MENDEKOTASUNA «NATURAREN LEGEEKIKO»

### 1. Datuen ikerketa

a) *Gizabanakoen arazo pribatuak*. Aseguru-etxeak giza arazo-en erregulartasun kalkulagarrian oinarritzen dira.

b) *Mendebalde modernoko Gizarte baten industri arazoak*. Ekonomialariak gai dira merkataritza-zikloen uhin-luzerak kalkulatzeko.

c) *Parroki estatuen lehiak: Botere-oreka*. Hainbat zibilizazio-ren historietan gerra eta bake-zikloen errepikapen erregularra erakusten da.

d) *Zibilizazioen desintegrazioa*. Erregulartasunak porrot eta indarberritzeen txandaketetan, horren esplikazioak iradokiz.

e) *Zibilizazioen hazkundeak*. Kolapso eta desintegrazio-faseetan aurki litekeen erregulartasuna hemen ez da agertzen.

f) «*Ez dago armadurarik patuaren aurka*». Adibide gehiago ematen da joera batek, hasieran puntu batean eta gero bestean eragotzia, batzuetan azkenean irabazteko izaten duen iraunkortasunaz.

### 2. «Naturaren legeek» historian duten balioaren azalpen posibleak

Bereizi ditugun uniformetasunak izan daitezke edo gizakiaren ingurune ez-gizatiarrean ohikoak diren legeek edota gizakiaren bera-ren egitura psikikoari datxekzion legeek eraginak. Alternatiba hauen azterketa egin eta zera aurkitzen da, natura ez gizatiarraren legeekiko gizakiak duen mendekotasuna gutxitu egiten dela gizakiak teknologian aurrera egin ahala. Giza belaunaldien segidak esanahi handia duela ikusten da, hiru belaunaldikoa delarik buru-azturetan hainbat motata-

ko aldaketak zertzeko behar den denbora-tartea. Psike subkontziente-aren legeak, hau idazteko garaian bertan psikologoak aurkitzen hasi besterik egin gabeak, historiaren bidean eragin bat bezala hartzen dira.

*3. Halabeharrezkoak ala kontrolagarriak dira historian zertzen diren naturaren legeak?*

Natura ez gizatiarraren legeei dagokienez, gizakiak ezin ditu aldatu, baina erabil ditzake bere helburuetarako. Giza izaera bera ukitzen duten legeei dagokienez, badirudi erantzun zuhurragoa eman behar dela. Emaizta gizakiaren harremanen arabera izango da, ez jada lagun hurko eta bere buruarekiko soilik, baizik eta batez ere Jainko Salbatzailearekiko harremanen arabera.

### XXXVII. GIZA IZAERAREN SETAKERIA

#### «NATURAREN LEGEEKIKO»

Setakeria hau argitzeko «erronka eta erantzunaren» hainbat adibide ematen da. Erronka baten aurrean, gizakia aske da, muga batzuen barruan, aldaketaren abiada aldatzeko.

### XXXVIII. JAINKOAREN LEGEA

Gizakia ez da naturaren legearen mende bakarrik bizi, baita Jainkoaren legearen —hau da, askatasun beteginaren— mende ere. Jainkoaren izaeraren eta haren legearen ikuspegi desberdinak aztertzen dira.

## XII. MENDEBALDEKO ZIBILIZAZIOAREN ETORKIZUNA

### XXXIX. IKERKETA HONEN BEHARRA

Jarraiko ikerketak Azterlan honetan onartu eta honaino izan dugun ikuspuntutik desbideratze bat markatzen zuen, hau da, historian ezagututako zibilizazio guztiak sinoptikoki tratatzekoa. Desbideratzea

ondorengo hauek justifikatzen dute: Mendebaldeko Zibilizazioa izatea bizirik dirauen bakarra argi eta garbi desintegrazioan ez dagoena, zentzu askotan mundu-mailako bihurtua izatea, eta bere etorkizuna «mendebaldartzen ari den munduaren» etorkizuna izatea.

## *XL. A PRIORI-ZKO ERANTZUNEN KONBENTZIGARRITASUNIK EZA*

Ez zegoen arrazoirik uste izateko, arrazoi sasizientifikoetan oinarrituta, beste zibilizazio guztiak desagertuta zeudelako edo desagertzen ari zirelako, Mendebaldea behartuta zegoenik bide berari jarraitzera. Emoziozko erreakzioek, «viktoriar» baikortasuna eta «spengleriar» ezkortasuna bezalakoek, froga gisa ez zuten indarrik.

## *XLI. ZIBILIZAZIOEN HISTORIEN LEKUKOTASUNA*

### *1. Mendebaldeko esperientziak Mendebaldekoak ez diren aurrekariekin*

Kolapso eta desintegrazioei buruz lehenago egin ditugun azterketek, zer argitasun ematen dute gure oraingo arazo honetaz? Gerra eta militarismoa aipatu ditugu gizarte baten kolapsoaren kausarik indartsuena bezala. Mendebaldea orain arte arrakastarik gabe borrokatu da gaitz honen aurka. Bestalde, aurrekaririk gabeko arrakastak lortu ditu beste norabide batzuetan: adibidez, esklabotasunaren deuseztatzea, demokrazia eta hezkuntzaren hazkundera. Halaber, Mendebaldeak badu orain banaketa negargarria gutxiengo menderatzailearen eta barne- eta kanpo-proletalgoen artean. Bestalde, arrakasta ohargarri batzuk ere lortu dira mendebaldartzen ari den munduko barne-proletalgo anitzen arazoekin moldatzerakoan.

### *2. Aurrekaririk gabeko Mendebaldeko esperientziak*

Gizakiaren nagusitasuna natura ez-gizatiarraren gain eta gizarte-aldaketaren lastertasun azeleratua biak parekorik gabeak dira lehenengo zibilizazioen historietan. Ondorengo kapituluaren plana adierazten da.

## *XLII. TEKNOLOGIA, GERRA ETA GOBERNAMENDUA*

### *1. Hirugarren mundu-gerraren aukera*

Amerikako Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren ezaugarriak, eta gizadiaren gainerakoak bi horietako bakoitzarekiko duen jarreraren ezaugarriak.

### *2. Etorkizuneko mundu-ordenarantz*

Gizadiaren etorkizuna Heyerdahl-en almadia *Kon-Tiki*-k uharrietara hurbiltzean zuenarekin konparatuta. Etorkizuneko mundu-ordenak ezinbestean oso bestelakoa izan behar du egungo Nazio Batuen Erakundearen aldean. Gidari izateko amerikar nazioaren gaitasuna eztabaidatzen da.

## *XLIII. TEKNOLOGIA, KLASE-GATAZKA ETA ENPLEGUA*

### *1. Arazoaren izaera*

Teknologia modernoaren garaipenek inoiz ez bezalako eskaria sortu dute «gabeziatik askatzeko»; baina prestatuta ote dago gizadia eskari hau asetzeak izan dezakeen prezioa ordaintzeko?

### *2. Mekanizazioa eta enpresa pribatua*

Teknologia modernoak mekanizazioa edo arauketa ekarri zuen, eskulangileena ez ezik, baita hauen ugazabena (nazionalizazioa, etab.), herri-administrazioarena («burokratizazioa») eta politikariena (alderdi-diziplina). Langile-klasearen erresistentzi organoek (sindikatuak) arauketa handiagoa eskatzen zuten. Industri iraultzaren egileak, bestalde, arautu gabeko gizartetik irten ziren.

### *3. Planteamendu alternatiboak gizarte-harmoniarako*

Amerikar, errusiar, eta Mendebaldeko europar, batez ere britainiar, planteamenduak aztertu eta konparatzen dira.

### *4. Gizarte-zuzentasunak izan ditzakeen kostuak*

Gizarte-bizitza ezinezkoa da nolabaiteko askatasun pertsonal eta gizarte-zuzentasunik gabe. Teknologiak bigarrenaren aldera

makurtzen du balantza. Prebentziozko medikuntzaren bidez hilkortasun-tasa jaisten ari zen garaian, zein izango ziren giza espeziea zabaltzeko «askatasun pertsonal» kontrolik gabearen ondorioak? Gosete handiaren perspektibak aztertzen dira, eta ziur aski horrek sortuko lituzkeen gatazkak.

### 5. *Gero betiko zoriontsu bizi?*

Demagun mundu-gizarteak arazo hauen guztien konponbide arrakastatsua aurkitzen duela. «Gero betiko zoriontsu biziko ote litza-teke» gizadia? Ez, «jatorrizko bekatua» berriro jaiotzen delako munda etortzen den haur bakoitzarengan.

## XIII. BUKAERA

### *XLIV. NOLA IRITSI ZEN LIBURU HAU IDATZIA IZATERA*

Idazlea, berant viktoriar baikortasunaren garaian jaioa, eta Lehen Mundu Gerrarekin gazte zela topo egina, txundituta geratu zen bere garaiko bere gizartearen esperientziaren eta Gizarte Helenikoak izandakoaren arteko paralelotasunengatik, Gizarte Helenikoaren azterketa izan zelarik bere heziketaren osagai nagusia. Horrek sortarazi zizkion honelako galderak: Zergatik hiltzen dira zibilizazioak? Zibilizazio Helenikoaren patua ote dauka zain Mendebalde modernoak? Ondoren bere ikerketak zabaldu zituen beste zibilizazio ezagunen kolapsoak eta desintegrazioak barne hartzeko, bere galderak argitzeko froga gehiagoren bila. Azkenik, zibilizazioen sorrera eta hazkundea ikertzeari ekin zion, eta honela iritsi zen *Historiaren Azterketa* hau idaztera.





# Oharrak

<sup>1</sup> Aristides, P. Elio (K.a. 117-89): *In Romam*.

<sup>2</sup> «Bakarrik» hori ez dago latinez, baina ongi egon zitekeen, poetak jakingo baitzuen erleek, ez balute batere ezirik lortuko berentzat, greba egingo luketela.

<sup>3</sup> Toynbee, A.J., in *The Legacy of Greece* (Oxford 1922, Clarendon Press), 320. or.

<sup>4</sup> Sansom, G.B.: *Japan: a Short Cultural History* (London 1932, Cresset Press), 460-2. orr.

<sup>5</sup> Jatorrizko lanean —haren laburpena da hau— Toynbeek estatu unitibertsal askoren komunikazio-sistemen erabilera aztertzen du.

<sup>6</sup> Kenyako Mau-Mau mugimendua har liteke azken hauen protesta nabarmenentzat hau idazterakoan, K.o. 1954an.

<sup>7</sup> Nestoriotarrek Travancore-n egindako egonaldia kristautasunak India konbertitzeko lehenengo ahalegintzat hartuz, eta jesuiten misioa Akbar-en gortean, bigarrentzat.

<sup>8</sup> Nestoriotarrek zazpigarren mendean Si Ngan-en egindako egonaldia kristautasunak Txina konbertitzeko lehen ahalegintzat hartuz; hamahirugarren eta hamalagarren mende-

etan Mendebaldeko kristau-misioek lehorrez egindakoa, bigarrentzat; eta hamaseigarren mendean Mendebaldeko kristau-misioek itsasoz egindakoa, hirugarrentzat.

<sup>9</sup> Haring, C.H.: *The Spanish Empire in America* (New York 1947, Oxford University Press) 160. eta 159. orr.

<sup>10</sup> Hau izan da usadioa Ingalaterran orain dela gutxi arte. Hiriak «katedral-hiriak» ziren; beste herriak «borouhg» ziren.

<sup>11</sup> Beste Seleuzia askotariko bat ere inguru honetan sortu zuten, Antiokiaren portu izateko. Seleuzia honetatik, Apostoluen Egintzetan jasotzen den bezala, San Paulo Ziprerantz irten zen itsasoz lehen misio-ibilaldian.

<sup>12</sup> Bada zerbait barregarria toki-izen aldaketa honetan. Laburtzaile honek gogoan du, duela mende-erdi bat, Frantziako probintzi hiri batera itzuli berria zen lagun baten gutuna jaso zuela. Honela zioen: «Azkenekoz hemen izan nintzenetik antiklerikalek gehiengoa lortu dute Kontseiluan, eta Rue Jean-Baptiste orain Rue Emile Zola bihurtu da».

<sup>13</sup> VII-X. liburukien laburpen hau argitaratu aurretik, «B Lineal» idaz-

kera minoikoa A. Ventrís eta I. Chadwick jaunek dezifratu zuten grezieraren baliabide gisa (ikus *The Journal of Hellenic Studies*, LXXIII. lib., 84-103. orr.) eta haien interpretazioa berehala eta ia aho batez onartu dute beste aditu batzuek.

<sup>14</sup> A Lineala oraindik dezifratu gabe zegoen 1954an hau idazteko garaian. Asko erabiltzen zen Kreta uhartean, eta berarekin adierazten zen hizkuntza grezieraren aurreko minoikoa da ziur aski (zeinahi hizkuntz familiatakoa izan berau). Geroagoko idazkera «B Lineala», orain dakigunez grezieraren adierazpidea, Kretan Knosos-era mugatua zegoen, baina kontinentean Mizenastar Zibilizazioaren hainbat gunetara hedatua zegoen.

<sup>15</sup> Hau da, Arabiar basamortuaren iparraldea inguratzen duen lurralde emankorreko zerrenda, Egiptotik hasi eta Siria, Mesopotamia eta Babilonian zehar Pertsiar golkoraino.

<sup>16</sup> Irteera 34, 17-26 eta, adierazpen osoagoan, 20, 23—23, 33.

<sup>17</sup> Antzeratsu, «Pontzio Pilatoren mende nekaldua» esaldia, kristau-elizetan erabiltzen diren Nizeako eta Apostoluen kredoetan agertzen dena, dataren adierazpena gehiago da pertsona baten aurkako salaketa baino. Kredoan egileek eztabaidan sartu nahi izan balute, krimena juduei egotziko zieten, oraindik gorroto baitzieten kristauak, eta ez Erroma Inperialaren ordezkari bati, honekin adiskidetu baitzeuden. «Pontzio Pilatoren mende nekaldua» puntuak Hirutasuneko Bigarren Pertsona figura historiko bat,

data zehatz bat zuena, izan zela baiesten du, beste erlijio batzuetako figura mitikoak —Mitrás edo Isis edo Zibeles— ez bezala.

<sup>18</sup> Thompson, J.M.: *The French Revolution* (Oxford 1943, Blackwell), IX. or.

<sup>19</sup> Fr. *juillet*, es. *juilio*, etab.

<sup>20</sup> Egunaren 24 orduak eta orduaren 60 minutuek ere jatorri sumerikoa dute, eta aukera hobea dute mugarik gabe irauteko. Frantziako iraultzaileak ere ez ziren ahalegindu erlojua hamartartzen.

<sup>21</sup> Fitzgerald, C.P.: *China, a Short Cultural History* (London 1935, Cresset Press), 164-5. orr.

<sup>22</sup> Markos 12, 13-17. Konp. Mateo 22,15-21; Lukas 20, 20-25 (Bibli pasarte guztiak *Elizen arteko Biblia*-koak dira).

<sup>23</sup> Irteera 20, 4-5.

<sup>24</sup> Hitzez hitz, «hondamendiaren higuinarrakeria». Daniel 11, 31 eta 12, 11.

<sup>25</sup> Markos 13, 14.

<sup>26</sup> Toynbee, J.M.C.: *Roman Medallions* (New York 1944, The American Numismatic Society), 15. or.

<sup>27</sup> Hitzez hitz «bekatuaren ordainsaria» (Erm 6,23). Euskaraz *Elizen arteko Biblian* «bekatuak dakarren ordaina» agertzen da. (Itzul. oh.).

<sup>28</sup> Hammond, J.L. eta Barbara: *The Rise of Modern Industry* (London 1925, Methuen) 256-7. orr.

<sup>29</sup> Hau da, Dioklezianoren aurreko inperioa, Augustok sortua, «princeps» titulua erabili zuena, «Etxeko —hots, Senatu— Buru» adierazteko.

<sup>30</sup> Rutilio Namaziano, C.: *De Reditu Suo*, I. liburua, 439-46. bertsoak, Dr. G.F. Savage-Armstrong-ek (London 1907, Bell) ingelesera egindako itzulpenetik euskaratua.

<sup>31</sup> *Ibid.*, 515-26. bertsoak.

<sup>32</sup> Frazer, Sir J.G.: *Urrezko abarra I*, 469-470. orr. (Klasikoak, Bilbo 1995. Iñaki Iñurrietaren itzulpena). Orrialde-barreneko ohar batean autoreak onartzen du Ekialdeko erlijioaren hedapena ez zela izan antzinako zibilizazioa erortzeko kausa bakarra.

<sup>33</sup> Mateo 22, 37-39.

<sup>34</sup> Zalantzarik gabe, Christian eta bere bi lagunak erromesaldia *The Pilgrim's Progress* liburuaren lehen zatian, «indibidualismo santua» deienez gertatzen diren ibilbidea da; baina bigarren zatian ikuspegi osagabe hau zuzendu egiten da, eta erromesen elkarte gero eta handiagoa daukagu beren helmuga espiritualerantz bide egiteaz gain, bidean elkarri gizarte-zerbitzu mundutarrak egiten dizkietenak. Kontraste honek Knox monsinorearen *jeu d'esprit* sortarazi zuen, eta bertan tesi hau garatzen du: lehen zatia Bunyan puritanoaren lana izan arren, bigarrena sasi-Bunyan baten lana zela, haren *nom de plume* delakoak andere anglo-katoliko jainkoak bat ezkatzen zuelarik. Knox, Ronald A.: *Essays in Satire* (London 1928, Sheed and Ward), VII. kap.: «The identity of the Pseudo-Bunyan».

<sup>35</sup> Dawes, E., eta Baynes, N.H.: *Three Byzantine Saints* (Oxford 1948, Blackwell), 198. eta 197. orr.

<sup>36</sup> Burkitt, F.C.: *Early Eastern Christianity* (London 1904, Murray), 210-11. orr.

<sup>37</sup> Espiritualki sentikor den arima batean, jakina, ikuspegi berberak malenkonioa sortaraz dezake atsegina baino gehiago: «Zibilizazio klasikoak kolapsoa izan zuenean, kristautasunak Jesu Kristoren fede zintzoa izateari utzi zion: desegiten ari zen mundu baten gizarte-zementu gisa erlijio erabilgarri gertatu zen. Eta horrela, Mendebaldeko Europar Zibilizazioa birjaiotzen lagundu zuen Lehen Erdi Aroko ilunaldian. Jende buruargi eta kezatsuaren kredo nominal izateko adina iraundu, jadanik ahoz ere ez daudelarik haren idealen zerbitzura. Kristautasunaren etorkizunari dagokionez, nork iragar dezake?» (Barnes, E. W.: *The Rise of Christianity* —London 1947, Longmans, Green— 336. or.).

<sup>38</sup> Macaulay, Lord: «History», in *Miscellaneous Writings* (London 1860, Longmans, Green, 2 lib.), 1. lib., 267. orr.

<sup>39</sup> Hainbat pasarte Deuterioaisaien, batez ere 53. kap.

<sup>40</sup> Autoreari Mr. Martin Wight-ek egindako iruzkina, eta *A Study of History*, VII. bol., 457. or. an argitaratua emana.

<sup>41</sup> Belloc, H.: *Electric Light*, Newdigate Sariko iseka-poema, desegokiro uste delarik Oxford Unibertsitateko agintariak aukeratu zutela gaia, agian, 1890eko urteetan.

<sup>42</sup> Skinner, Martyn: *Letters to Malaya III and IV* (London 1943, Putnam), 41. eta 43. orr.

<sup>43</sup> Anbrosio: *De Fide*, I. liburua, 5. kap., 42. parag.

<sup>44</sup> Bergson, H.: *Les Deux Sources de la Morale et de la Religion* (Paris 1932, Alcan), 24-28, 288, 293, 297. orr.

<sup>45</sup> Gilson, E.: *The Spirit of Mediaeval Philosophy*, itzulpen ingelesa (London 1936, Sheed & Ward) 390-1 eta 14-17 orr.

<sup>46</sup> Kantorowicz, E.: *Frederick the Second*, 1194-1250, itzulpen ingelesa (London 1931, Constable), 561-2, 493-4. orr.

<sup>47</sup> Moorman, J.R.H.: *Church Life in England in the Thirteenth Century* (Cambridge 1945, University Press), 279-80, 283, 353. orr.

<sup>48</sup> Aurreko paragrafo hau, «Historiaren Azterketaren» zati honen gainerrako guztiarekin batera, makinaz idatzita, autorearen lagun bati, Martin Wight jaunari erakutsi zitzaion, eta liburuaren bertsio osoan berak egindako hainbat iruzkin dago, ondorengo hau barne: «Kritikari erromatar katoliko batek zeuk sarri erabilitako hitz batzuekin —*Respice finem*— erantzungo lizuke. Aurreko pasarte hori oso-osorik aurrea hartzea da: oraindik ez da egia bihurtu. Ez al da egia erromatar eliza askoz ere indartsuago eta eraginkorragoa dela hogeigarren mendean Trentoko Kontzilioaz geroztik beste edozein garaitan baino? 1870ean, bere zorionaren itxurazko nadirrean, desafiozko ekintza gisa, aita santuaren hutezintasuna bere dogmen artean sartu zuen bitartean, 1950ean oraindik gai zen Mendebaldeko mundu sekularra eskandalizatzeke ama birjinaren jasokundea-

ren dogma erantsiz auto-konfiantzazko ekintza gisa. Hau idazteko garaian, ez al da era berean egia Erromako Eliza, bere panoplia trentotarrean, Mendebaldeko erakunde bakarra izango dela Estatu komunista totalitario neopaganoari erronka bota eta aurre egiteko gai, eta ez al du hau frogatzen Moskuk Vatikanuari begiratzeko duen beldur eta gorroto berezi horrek? Hau horrela bada, dinosauruaren oskularen figura ez litzateke luzaroan eta arrakastaz mantenduriko setiaketa-rena bezain egokia, eta historia katolikoaren trentotar aldia atzera begiratuta britainiar historiako Churchill-en aldia —Frantzia erori zenetik D Egunera artekoa— bezala ager liteke. Zuk aurrez epaitzen duzu emaitza. *Respice finem*».

<sup>49</sup> Caetani, L.: *Studi di Storia Orientale*, I. lib. (Milan 1911, Hoepli), 266. or.

<sup>50</sup> Davies, C.C.: *The Problem of the North-West Frontier*, 1890-1908 (Cambridge 1932, University Press), 176. or.

<sup>51</sup> *Ibid.*, 177. or.

<sup>52</sup> Antzeratsu, 1808-14ko penintsular gerrako beteranoak, Napoleonen armadak behin eta berriro menderatzeko balio izan zuten taktikak erabiliz, erraztasun barregarritz izan ziren menderatuak Orleans Berrian 1814an beraien aurka Andrew Jackson-ek erabilitako «mugagizoonaren» metodoen bidez.

<sup>53</sup> «Zibilizazioaren baliabideak ez daude agortuta» esan zuen Gladstonek Komunen Ganberan, esan nahi zuelarik britainiar administrazioa epe luzera nagusi gertatuko zela

asaldura eta krimen nazionalistaren gainetik Irlandan. Oker zegoen. Berrogei urte geroago «zibilizazioak» agortu zela aitortu behar izan zuen, eta Irlandako estatu askea ezartzeko ituna sinatu zuen.

<sup>54</sup> Zosimo: *Historiae*, IV. liburua, XXXI. kap., 1-3. parag.

<sup>55</sup> Collingwood, R.G., in Collingwood, R.G., eta Myres, J.N.L.: *Roman Britain and the English Settlements*, 2. argit. (Oxford 1937, Clarendon Press), 307. or.

<sup>56</sup> Chadwick, H. M.: *The Heroic Age* (Cambridge, 1912, University Press), 442-4. orr.

<sup>57</sup> Murray, Gilbert: *The Rise of the Greek Epic*, 3. argit. (Oxford 1924, Clarendon Press), 83-84. orr.

<sup>58</sup> Ibid., 87-88. orr.

<sup>59</sup> Lammens, S.J., Père H.: *Etudes sur la Règne du Calife Omayyade Mo'awia Ier* (Bayrut 1908, Imprimerie Catholique; Paris 1908, Geuthner), 81. or., 2. zenb. Liburu honetako aipamenak argitaratzaileen baimenaz egin dira.

<sup>60</sup> Ibid., 81, 87, 103. orr.

<sup>61</sup> Hesiodo: *Lanak eta egunak*, 197-200. berts.

<sup>62</sup> Grönbech, V.: *The Culture of the Teutons* (London 1931, Milford, 3 lib. 2tan) II-III. lib., 305. or.

<sup>63</sup> Bridges, Robert: *The Testament of Beauty* (Oxford 1929, Clarendon Press). I. lib., 535-55. berts.

<sup>64</sup> Hesiodo: *Lanak eta egunak*, 143-55. orr.

<sup>65</sup> Hesiodo: *Lanak eta egunak*, 156-73. berts.

<sup>66</sup> Finlay, G.: *A History of Greece*, B.C. 146 to A.D. 1864 (Oxford 1877, Clarendon Press, 7 lib.), V. lib., 284-5. orr.

<sup>67</sup> Rycaut, Sir P.: *The Present State of the Ottoman Empire* (London 1668, Starkey & Brome), 82. or.

<sup>68</sup> Pandit: Indiako hizkuntza, zientzia, lege eta erlijio-kontuetan ikasia dena. Ryot = nekazaria. Zenana: Indiako harena. Nabob, nawab: Ekialdean aberasturiko europarra; Indiako gobernua ematen zuen ohorezko titulu bat (Itzul. oh.).

<sup>69</sup> Spear, T. G. P.: *The Nabobs: a Study of the Social Life of the English in Eighteenth-Century India* (London 1932, Milford), 136, 137 eta 145. orr.

<sup>70</sup> Gerra hau zela eta, Punch aldizkariako karikatura batek, «Jap Hiltzaile Erraldoia» izenburuarekin, garai hartako britainiar jendearen jarrera atsegin eta arina erakusten du.

<sup>71</sup> Adibidez, ingeles historian jakina zen tudortarrek Komunei emandako botereak haiek estuardotarren aurka erabili zituztela.

<sup>72</sup> Gorroto dizut eta maite zaitut: zergatikoa galdetuko duzu agian. Ez dakit, baina horixe sentitzen dut, eta atsekabetu egiten nau.

<sup>73</sup> Magreb —arabieraz «Mendebaldea» esan nahi du— Afrikaren ipar-mendebaldeko bizkarraren izen islamikoa da, gaur egun Tunisiak, Algeriak eta Marokok osatua. «Africa Minor» hau ia uharte bat da, Saharako basamortuak banatzen baitu Afrika tropikaletik («Africa Proper»), Mediterraneo itsasoak

Europatik banatzen duen baino eraginkortasun handiagoaz.

<sup>74</sup> Apurketa hau konponezin bihurtu zuten hiru egintza ikaragarriak hauek izan ziren: Ekialdeko Erro-matar Inperioan zeuden frankoen aurkako sarraskia K.o. 1182an; normandiarren espedizio-indar mendekatzailerak K.o. 1185ean Salonikan egindako arpilatzea; eta franko-veneziar espedizio-indarrak K.o. 1204an Konstantinoplan egindako arpilatzea («Lau-garren Gurutza-da»).

<sup>75</sup> Liutprandi Relatio de Legatione Constantinopolitanâ, 12. kap.

<sup>76</sup> Antzeratsu, kristau-aroko hama-zazpigarren mendean, uharteko ingelesek abantaila izan zuten kontinenteke holandar lehiakideen aldean ozeanoz bestaldeko merkataritzan, arrazoi honengatik: holandarrek inperiogile kontinental habsburgotar eta borboien eraso militarren arrisku-penean zeuden bitartean, ingelesek horrelakorik ez zutelako.

<sup>77</sup> Gizarte Siriakoarekiko topaketei eta Gizarte Egipziakoarekin Berant Erresumaren garaian izandako topaketei buruzko zatiak kendu egin dira laburpen honetan.

<sup>78</sup> Kateaketa hitza aske samar erabiltzen da sarri, eta latinik ez dakien irakurlearentzat lagungarri gerta liteke esatea catena hitzak katea esan nahi duela, eta gertaeren kateaketak, beraz, serie bat esan nahi duela, non gertaera batek beste batera eramaten gaituen.

<sup>79</sup> Herodotoren teoriari buruzko beste ohar batzuk zati honen bukaerako Oharrean aurkituko dira: ikus 273. or.

<sup>80</sup> Boeke, Dr. J. H.: «De Economische Theorie der Dualistische Samenleving», in *De Economist*, 1935, 781. or.

<sup>81</sup> Furnivall, J. S.: *Progress and Welfare in Southeast Asia* (New York 1941, Secretariat, Institute of Pacific Relations), 42-44. orr. Aipatu berri dugun pasartean marrazturiko koadroa zabalago agertzen da ibid., 61-63. orr.

<sup>82</sup> Laburpen honen lehenengo liburukian 605. or.

<sup>83</sup> Ingeleseztik terminoaren lehenengo erabilera, O.E.D.n aipatua, K.o. 1845ekoa da. Matthew Arnold hasi zen hitza ingelestartzen eta «renaissance» idazten.

<sup>84</sup> Euskaraz, «berpizkundera» ere erabili izan da (Itz. oh.).

<sup>85</sup> Bury, J.B., bere Edward Gibbon-en edizioan, *The History of the Decline and Fall of the Roman Empire*, V. lib. (London 1901, Methuen), II. eranskina, 526. or.

<sup>86</sup> Dawson, Christopher: *Religion and the Rise of Western Culture* (London 1950, Sheed & Ward), 90. or.

<sup>87</sup> Dawson, Christopher: *Religion and the Rise of Western Culture* (London 1950, Sheed & Ward), 90-91. orr.

<sup>88</sup> Fung Yu-lan: *A Short History of Chinese Philosophy* (New York 1948, Macmillan), 318. or.

<sup>89</sup> Dawson, Christopher: *Religion and the Rise of Western Culture* (London 1950, Sheed & Ward), 229-30. orr.

- <sup>90</sup> Butterfield, H.: *The Origins of Modern Science, 1300-1800* (London 1949, Bell), 21-22. or.
- <sup>91</sup> dunce: ingelesez «kirten, kaiku» esan nahi du (Itz. oh.).
- <sup>92</sup> Hau da «Clerk of Oxenford»ek, Chaucer-en *Hitzaurrean*, bere oheburuan zeukana edo eduki nahi zuena.
- <sup>93</sup> Benvenuto Cellini: *Autobiography*, ingelesez J.A. Symonds-ek emana (London 1949, Phaidon Press), I. liburua, XII. kapitulua, 18. or.
- <sup>94</sup> Collingwood, R.G.: *The Idea of History* (Oxford 1946, Clarendon Press), 49, 54, 55. orr.
- <sup>95</sup> Ibid., 55, 56. orr.
- <sup>96</sup> Butterfield, Herbert: *Christianity and History* (London 1949, Bell), 140. eta 146. orr.
- <sup>97</sup> Fisher, H. A. L.: *A History of Europe* (London 1935, Eyre & Spottiswoode), I. lib., VII. or.
- <sup>98</sup> Hauetarako irakurleak *A Study of History* bertsio laburtu gabea kon-sultatu behar du, IX. lib.
- <sup>99</sup> Jevons, W. Stanley: *Investigations in Currency and Finance*, 2. ed. (London 1909, Macmillan), 184. or.
- <sup>100</sup> Haberler, G.: *Prosperity and Depression* (Geneva 1941, League of Nations), 10. or.
- <sup>101</sup> Elias, N.: Über den Prozess der Zivilisation, II. lib.: *Wandlungen der Gesellschaft: Entwurf zu einer Theorie der Zivilisation* (Basel 1939, Haus zum Falken), 451. or.
- <sup>102</sup> Mitchell, W. C.: *Business Cycles: The Problem and its Setting* (New York 1927, National Bureau of Economic Research, Inc.), 165-166. orr.
- <sup>103</sup> Bassett-Lowke, J.W., eta Holland, G.: *Ships and Men* (London 1946, Harrap), 46. or.
- <sup>104</sup> Tennyson: *In Memoriam*, La-guntza eskean.
- <sup>105</sup> Lampert, E.: *The Apocalypse of History* (London 1948, Faber), 45. or.
- <sup>106</sup> Housman, A. E.: *A Shropshire Lad*, XLVIII.
- <sup>107</sup> Huxley, J.: *Evolutionary Ethics*, the Romanes Lecture, 1943, berriro inprimatua in Huxley, T.H. eta J.: *Evolution and Ethics, 1893-1943* (London 1947, Pilot Press), 107. or.
- <sup>108</sup> Ibid., 110. or.
- <sup>109</sup> Ibid.
- <sup>110</sup> Laburtzaile hau Kilimanjaro mendiaren maldan zegoela K.o. 1935ean, Lehen Mundu Gerraren kausa kontatu zioten, mendi haren hegoaldean bizi zen chagga tribuak ulertzen zuen bezala. Kilimanjaro mendira lehenik aleman bat igo zen, Dr. Hans Meyer, K.o. 1889an. Gailurrera iritsi zenean, mendiko jainkoa aurkitu zuen han, eta hark, aurrez inoiz hartu gabeko adeitasun harengatik esker onez, meritu handi-ko mendizale alemanari eta haren herrikideei chaggen herrialde osoa eman zien baldintza batekin, hau da, igokariaren herrikideetako batek urtero (edota bost urtean behin ote zen?) mendi hura igo behar zuen jainkoari ohore egiteko. Dena ongi joan zen. Alemanek Ekialdeko Afrika alemana hartu zuten, eta mendizale alemanen talde saiatu bat

mendira igotzen zen esandako aldie-  
tan, baina K.o. 1914an zoritxarrez  
ez zuten egin behar hori bete.  
Arrazoiz suminduta, mendiko jain-  
koak kendu egin zien oparia eta ale-  
manen etsaiei eman zien herrialde  
hura, eta hauek gerra deklaratu eta  
bota egin zituzten handik. Gerra  
anglo-germaniar honek, munduaren  
ekialdeko afrikar bihotzean zertuak,  
berek in ekarri zituen bide batez,  
gerrekin gertatzen den bezala,  
borrokaldien «albo-erakustaldi»  
batzuk, garrantzi handiegirik gabe-  
ko eskualde urrunetan.

Lehen Mundu Gerrari buruzko  
chaggen azalpenak beste asko  
bezain ona dirudi, eta egia esateko  
beste batzuk baino hobea ere bai,  
erlijioak historian jokaturiko pape-  
raren garrantzia aitortzen du eta.

<sup>111</sup> Skinner, Martyn: *Letters to Malaya*, I eta II (London 1941, Putnam), 34-35. orr.

<sup>112</sup> J.W. Headlam-Morley: «The Cultural Unity of Western Europe», in *The New Past and other Essays on the Development of Civilization*,

E.H. Carter-ek argitaratua (Oxford 1925, Blackwell) 88-89. orr.

<sup>113</sup> Heyerdahl, Thor: *Kon-Tiki* (Chicago 1950, Rand McNally), 242. or.

<sup>114</sup> Schumpeter, J. A.: *Business Cycles* (New York 1939, McGraw-Hill, 2 lib.), II. lib., 1033. or.

<sup>115</sup> Egunen batean, makinak «hazi» eta giza laguntzailerik gabe aurrera segituko zuten ideia, Samuel Butler-en *Erewhon* liburuan agertzen da, K.o. 1870ean argitaratua.

<sup>116</sup> Ingelesezt *Brave New World* esa-  
ten du hemen, Huxleyk 1932an ida-  
tzitako satiraren izenburua, euskaraz  
*Bai Mundu Berria* izenburuaz itzuli-  
a. (Itz. oh.).

<sup>117</sup> Uztailaren 4an Independentziaren  
Eguna ospatzen da Estatu Batuetan.  
Guy Fawkes Eguna Erre-suma Batuan  
izaten da azaroaren 5ean, eta 1605ean  
Ingalaterrako Parlamen-tua erre  
nahian zebilen Guy Fawkes katolikoa  
harrapatu izana ospatzen da. Armis-  
tizioaren Eguna azaroaren 11n da  
Lehen Mundu Gerraren bukaera ospa-  
tzeko. (Itz. oh.).



# *Aurkibidea*

EGILEAREN HITZAURREA.....	9
LABURTZAILEAREN OHARRA.....	10
<b>VI. ESTATU UNIBERTSALAK .....</b>	<b>11</b>
XXIII. HELBURUAK ALA BITARTEKOAK?.....	11
XXIV.HILEZKORTASUNAREN AMESKERIA .....	14
XXV. SIC VOS NON VOBIS.....	22
1. Estatu unibertsalen eroankortasuna.....	23
2. Bakearen psikologia.....	27
3. Erakunde inperialen erabilgarritasuna.....	34
Komunikabideak.....	34
Goarnizioak eta koloniak.....	40
Probintziak.....	46
Hiriburuak.....	51
Hizkuntza eta idazkera ofizialak .....	59
Legea.....	64
Egutegiak; pisuak eta neurriak; dirua.....	70
Armada iraunkorrak.....	80
Herri-administrazioa.....	84
Hiritartasuna.....	91

<b>VII. ELIZA UNIBERTSALAK .....</b>	<b>93</b>
XXVI. ELIZA UNIBERTSALEK ZIBILIZAZIOEKIKO DUTEN ERLAZIOAREN IKUSPEGI ALTERNATIBOAK.....	93
1. Elizak kantzer gisa.....	93
2. Elizak krisalida gisa.....	99
3. Elizak, gizarte-espezie nagusi gisa.....	105
a) Sailkapen berria.....	105
b) Elizen iraganaren esanahia.....	112
c) Bihotzaren eta buruaren arteko gatazka.....	113
d) Elizen etorkizunari buruzko promesa.....	123
XXVII. ZIBILIZAZIOEN PAPER A ELIZEN BIZITZAN.....	129
1. Zibilizazioak obertura gisa.....	129
2. Zibilizazioak atzerakada gisa.....	132
XXVIII. LURREAN MILITANTZEAREN ERRONKA.....	135
<b>VIII. ARO HEROIKOAK.....</b>	<b>141</b>
XXIX. TRAGEDIAREN BILAKABIDEA.....	141
1. Gizarte-horma bat.....	141
2. Presioaren metaketa.....	145
3. Katakismoa eta bere ondorioak.....	152
4. Fantasia eta errealitatea.....	159
Oharra: «Emakumezkoen errejimentu beldurgarria».....	166
<b>IX. ZIBILIZAZIOEN ARTEKO HARREMANAK ESPAZIOAN.....</b>	<b>168</b>
XXX. AZTERKETA-EREMUAREN HEDAPENA .....	168
XXXI. ZIBILIZAZIO GARAIKIDEEN ARTEKO TOPAKETEN AZTERKETA .....	171
1. Lan-plana.....	171
2. Planaren arabeko lana.....	176
a) Mendebalde modernoko Zibilizazioarekin topaketak.....	176
(I) Mendebalde modernoa eta Errusia.....	176

(II) Mendebalde modernoa eta Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusia.....	178
(III) Mendebalde modernoa eta hindu-mundua.....	185
(IV) Mendebalde modernoa eta mundu islamikoa.....	193
(V) Mendebalde modernoa eta juduak.....	198
(VI) Mendebalde modernoa eta Ekialde Urruneko eta Amerikako bertako zibilizazioak.....	207
(VII) Mendebalde modernoaren eta garaikideen arteko topaketan ezaugarriak.....	213
b) Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearekin topaketak.....	217
(I) Gurutzaden itsasgorak eta itsasbeherak.....	217
(II) Erdi Aroko Mendebaldea eta mundu siriakoa.....	220
(III) Erdi Aroko Mendebaldea eta Kristandade Greko Ortodoxoa	223
c) Lehenengo bi belaunaldietako zibilizazioen arteko topaketak	230
(I) Alexandro-osteko Zibilizazio Helenikoarekiko topaketak....	230
(II) Alexandro-aurreko Zibilizazio Helenikoarekiko topaketak..	234
(III) Iraka eta garaia.....	241
XXXII. GARAIKIDEEN ARTEKO TOPAKETEN DRAMA.....	243
1. Topaketen kateaketa.....	243
2. Erantzun-aniztasuna.....	246
XXXIII. GARAIKIDEEN ARTEKO TOPAKETEN ONDORIOAK.....	251
1. Arrakastarik gabeko erasoen emaitzak.....	251
2. Eraso arrakastatsuen emaitzak.....	253
a) Gizarte-gorputzean izandako ondorioak.....	253
b) Arimaren erantzunak.....	261
(I) Deshumanizazioa.....	261
(II) Zelotismoa eta herodianismoa.....	265
(III) Ebanjelismoa.....	271
Oharra: «Asia» eta «Europa»: egitateak eta fantasiak.....	273

<b>X. ZIBILIZAZIOEN ARTEKO HARREMANAK DENBORAN.....</b>	<b>277</b>
XXXIV. BERPIZKUNDEEN AZTERKETA.....	277
1. Sarrera. «Errenazimentua».....	277
2. Ideia eta erakunde politikoen berpizkundeak.....	279
3. Lege-sistemen berpizkundeak.....	281
4. Filosofien berpizkundeak.....	284
5. Hizkuntza eta literaturen berpizkundeak.....	287
6. Ikus-arten berpizkundeak.....	293
7. Erlijiozko ideal eta erakundeen berpizkundeak.....	296
<b>XI. LEGEA ETA ASKATASUNA HISTORIAN.....</b>	<b>301</b>
XXXV. ARAZOA .....	301
1. «Legearen» esanahia.....	301
2. Mendebalde modernoko historialarien antinomismoa.....	303
XXXVI. GIZA ARAZOEN MENDEKOTASUNA	
«NATURAREN LEGEEKIKO».....	309
1. Datuen ikerketa.....	309
a) Gizabanakoen arazo pribatuak.....	309
b) Mendebalde modernoko gizarte baten industri arazoak.....	310
c) Parroki estatuen lehiak: «Botere-oreka».....	311
d) Zibilizazioen desintegrazioa.....	313
e) Zibilizazioen hazkundeak.....	316
f) «Ez dago armadurarik patuaren aurka».....	318
2. «Naturaren legeek» historian duten balioaren azalpen posibleak..	322
3. Halabeharrezkoak ala kontrolagarriak dira historian zertzen diren naturaren legeak?.....	332
XXXVII. GIZA IZAERAREN SETAKERIA NATURAREN LEGEEKIKO .....	338
XXXVIII. JAINKOAREN LEGEA.....	345

<b>XII. MENDEBALDEKO ZIBILIZAZIOAREN ETORKIZUNA .....</b>	<b>349</b>
XXXIX. IKERKETA HONEN BEHARRA.....	349
XL. A <i>PRIORI</i> -ZKO ERANTZUNEN KONBENTZIGARRITASUNIK EZA.....	354
XLI. ZIBILIZAZIOEN HISTORIEN LEKUKOTASUNA .....	359
1. Mendebaldeko esperientziak Mendebaldekoak ez diren aurrekariekin.....	359
2. Aurrekaririk gabeko Mendebaldeko esperientziak.....	368
XLII. TEKNOLOGIA, GERRA ETA GOBERNAMENDUA .....	369
1. Hirugarren mundu-gerraren aukera.....	369
2. Etorkizuneko mundu-ordenarantz.....	375
XLIII. TEKNOLOGIA, KLASE-GATAZKA ETA ENPLEGUA .....	381
1. Arazoaren izaera.....	381
2. Mekanizazioa eta enpresa pribatua.....	383
3. Planteamendu alternatiboak gizarte-harmoniarako.....	388
4. Gizarte-zuzentasunak izan ditzakeen kostuak.....	391
5. Gero betiko zoriontsu bizi?.....	396
<b>XIII. BUKAERA .....</b>	<b>401</b>
XLIV. NOLA IRITSI ZEN LIBURU HAU IDATZIA IZATERA.....	401
ERANSKINAK (TAULAK) .....	407
SINTESIA .....	417
OHARRAK.....	465

